

---

# Euskaldunok eta telebista XXI. mende hasieran

---

XABIER LANDABIDEA URRESTI



2014eko Euskal Gizartearen Egoera Sariaren irabazlea

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA



EUSKALDUNOK ETA TELEBISTA  
XXI. MENDE HASIERAN

XABIER LANDABIDEA URRESTI

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:  
1.a, 2015eko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Lehendakaritza

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa eta koadernaketa:  
Graficas Lizarra, S.L.

ISBN: 84-457-3366-0

Lege gordailua: VI 875-2015

---

# Euskaldunok eta Telebista XXI. mende hasieran

---

XABIER LANDABIDEA URRESTI

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015



*Gurasoei, munduarengatik.*





# AURKIBIDEA

---

- Irudien aurkibidea	14
- Taulen aurkibidea	16
- Grafikoen aurkibidea	17
SARRERA	19
1.1. Laburpena	19
1.2. Ikerketaren abiapuntua eta helburuak	21
1.3. Ikerketaren muina eta lanaren egitura	23
1.4. Hipotesiak eta ondorioak	25
<b>LEHENENGO ATALA. AISIA, TELEBISTA ETA IKUS-ENTZULERIAK</b>	<b>29</b>
<b>I. KAPITULUA. AISIA ETA AISIAZKO ESPERIENTZIA</b>	<b>31</b>
1.1. TERMINOLOGIA: AISIAREN DEFINIZIOA	31
1.2. AISIAREN ESANAHIAK	32
1.1.1. Leisure	41
1.1.2. Ocio	45
1.1.3. Aisia	48
1.3. AISIAREN ETA AISIAZKO IKASKUNTZA	52
1.3.1. Diziplinartekotasuna	54
1.3.2. Aisiaren praktika (ikuspegi objektiboa)	60
1.3.3. Aisiazko esperientzia (ikuspegi subjektiboa)	64
1.3.4. Aisiarako eskubidea (ikuspegi politiko eta normatiboa)	70
1.4. AISIA HUMANISTA	73
1.4.1. Aisiaren koordenatuak	75
1.4.2. Aisiaren dimentsioak	76
1.4.3. Aisiaren tipologiak	81
1.4.4. Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu	84
1.5. LABURBILDUZ: AISIAZKO ESANAHIEEN BILA	89
<b>II. KAPITULUA. TELEBISTA KOMUNIKABIDEEN EKOSISTEMAN</b>	<b>91</b>
2.1. KOMUNIKABIDEAK ETA ESPAZIOA	91
2.1.1. Espazio mediatikoa	95
2.1.2. Komunikabideen paisaia	102

2.2. KOMUNIKABIDEEN BATERATZEA	111
2.2.1. Bateratzearen alde teknologiko eta industrial	112
2.2.2. Zinema	117
2.2.3. Irratia	118
2.2.4. Internet	121
2.2.5. Prentsa idatzia	123
2.2.6. Telebista	124
2.2.7. Crossmedia eta Transmedia	127
2.2.8. Bateratze teknologiko-industrialaz haratago	129
2.3. KOMUNIKABIDEEN EKOSISTEMA	131
2.3.1. Aurrekariak: komunikabideen ekologia	135
2.3.2. Telebistaren ekosistema	138
2.3.3. Ikus-entzuleriaren eboluzioa	140
2.4. TELEBISTA GURE GARAIAN	144
2.4.1. Zer da telebista (ikustea)?	148
2.5. LABURBILDUZ: TELEBISTAREN IRAGAITEA	155
<b>III. KAPITULUA. TELEBISTA ETA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETA</b>	157
3.1. IKUS-ENTZULERIAK DEFINITUZ	157
3.1.1. Audientzia eta esposizioa	159
3.1.2. Publikoak eta presentzia	161
3.1.3. Ikus-entzuleria, ikus-entzuleta eta ikus-entzuleak	163
3.1.4. Zergatik aztertu telebistaren ikus-entzuleriak?	166
3.1.5. Audientziaren azterketaren mugak	173
3.2. IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETAREN ARDATZAK	179
3.2.1. Kultur Ikasketak (Cultural Studies)	179
3.2.2. Hartzea eta parte-hartzea: aktibotasuna eta pasibotasuna	183
3.2.3. Ikus-entzuleria eta Familiaren Ikerketa	186
3.2.4. Telebistaren zentzuak, esanahiak eta plazerrak	191
3.2.5. Adin taldeak eta belaunaldiak	196
3.2.6. Ahozkotasuna Ikus-entzuleriaren Ikerketan	200
3.3. EUROPAR PANORAMA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETAN	204
3.3.1. Europar panorama sintesian	212
3.3.2. Euskarazko ekarpenak Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzetara	215
3.4. LABURBILDUZ: IKUS-ENTZULEEN PROTAGONISMOA	222

---

<b>BIGARREN ATALA. MARKO METODOLOGIKOA ETA AZTERKETA</b>	225
<b>IV. KAPITULUA. METODOLOGIA ETA AZTERKETAREN DISEINUA</b>	227
4.1. IKERKETAREN PARADIGMA METODOLOGIKO OROKORRA	227
4.1.1. Esperientzia: ardatz eta helburu	228
4.1.2. Logika ideografikoa eta nomotetikoa	230
4.1.3. Ikerketa kualitatiboa kuantitatiboaren ondoan: aukerak, mugak, osagarritasunak	231
4.2. KASU AZTERKETA: ABIAPUNTUA, EZAUGARRIAK, MUGAK ETA ABANTAILAK	234
4.2.1. Ezaugarriak: zer da eta zer ez kasu azterketa?	235
4.2.2. Kritikak eta mugak	237
4.2.3. Abantailak	240
4.3. TEKNIKA METODOLOGIKOAK ETA GIDOIA	243
4.3.1. Eztabaida taldeak	243
4.3.2. Sakoneko elkarrizketak	246
4.3.3. Gidoiaren diseinua eta aplikazioa	248
4.4. ATLAS.TI ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA, AZTERKETA ETA BERRESKURAPENA	259
4.4.1. ATLAS.ti: oinarrizko kontzeptu eta objektuak	259
4.4.2. Informazioaren berreskurapen eta ikusarazpena	266
4.5. AZTERKETA ETA KODEKETA ESTRATEGIA GLOBALA	274
4.5.1. Atributuzko kodeketa (NORK)	276
4.5.2. Kodeketa fokalizatua (ZERI)	278
4.5.3. Kodeketa egituratzailea (NON)	284
4.5.4. In Vivo kodeketa (ZER)	288
4.5.5. Kodeketa teorikoa (ZERGATIK)	288
4.5.6. Triangulazioa eta eredu esplikatibo-interpretatiboa	291
4.6. LABURBILDUZ	293
<b>V. KAPITULUA. ADIN-TALDEEN KONTZEPTUZKO ANALISIA: DESKRIBAPEN ESTRUKTURAL-KONPARATIBOA</b>	297
5.1. ALDIZKO KONTZEPTUAK	297
5.1.1. Ikusten al duzu(e) telebistarik?: zer eta noiz	297
5.1.2. Telebista eguneroko jardunean: telebistaren tarreak	300
5.1.3. Telebistaren neurria: askotik gutxira	304
5.1.4. Telebistaren lekuak: telebisten espazioak	307
5.1.5. Telebistako kateak: erreferentziazko kanalak	310
5.1.6. Telebista eta laguntasuna: telebistaren konpainia	313
5.1.7. Telebistarekin batera: aldibereko jarduerak	317
5.1.8. Telebistan zer? telebistaren edukiak	320
5.1.9. Telebistari egiten zaion kasua: jartzen zaion arreta	323

5.1.10. Telebista mintzagai: telebista elkarrizketetan	326
5.1.11. Zapping egitea: aukeraketa eta jarioa	329
5.1.12. Telebistaren albokoak: ondoko komunikazio teknologiak	331
5.1.13. Internet bidez telebista ikustea: telebista sarean	333
5.1.14. Ordaindutako telebista: pay per view	334
5.2. ASTIAZKO KONTZEPTUAK	336
5.2.1. Norberaren astia: astialdia eta telebista	336
5.2.2. Telebistaren garrantzia norbere astialdian	339
5.2.3. Telebista ikustearen denbora: telebistaldia	343
5.2.4. Telebista eta oporrak: jai egunak eta lan egunak	346
5.3. AISIAZKO KONTZEPTUAK	348
5.3.1. Telebista ulertzeko erak: telebistaren errealitatea	349
5.3.2. Telebistaren balorazioa: onerako ala txarrerako?	352
5.3.3. Telebistaren esperientzia: emozio eta bizipenak	355
5.3.4. Telebistaren erabilerak: zertarako telebista?	358
5.3.5. Telebista definitzen: telebistaren erretratuak	362
5.3.6. Telebista ideala: telebista perfekturantz	366
5.4. LABURBILDUZ	369
<b>HIRUGARREN ATALA. PROPOSAMEN TEORIKOA</b>	371
<b>VI. KAPITULUA. TELEBISTAREKIKO AISIAZKO HARREMANAK:</b>	
<b>EREDU ESPLIKATIBO-INTERPRETATIBOA</b>	373
6.1. TELEBISTAREN ESPERIENTZIEKIN AISIAZKO KARAKTERIZAZIO OROKORRA	373
6.1.1. Aisiaren koordenatuak eta telebistaren esperientzia	374
6.1.2. Adin-taldeak eta telebistarekiko aisiazko esperientzien ezaugarri orokorrak	390
6.2. ADIN-TALDEEN TELEBISTAREKIKO HARREMANAREN KARAKTERIZAZIOA	392
6.2.1. Gazteak: hutsari aurre egin beharra	397
6.2.2. Helduak 1: egun amaierako saria	401
6.2.3. Helduak 2: erabilera anitzeko kutxa	405
6.2.4. Nagusiak: mundura irekitako leihoa	409
6.3. ADIN-TALDE ETA BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANA	413
6.3.1. Belaunaldietan partaidetza: nor bere belaunaldia	413
6.3.2. Belaunaldien arteko ezberdintasunak: besteen belaunaldiak	420
6.3.3. Belaunaldiak eta telebistarekiko aisiazko harremana	426
6.4. KASU AZTERKETAREN EREDU ESPLIKATIBO-INTERPRETATIBOA	431
6.4.1. Kategorizazio eta birkodeketa prozesua	432
6.4.2. Telebistarekiko aisiazko harremanen marko interpretatiboa	433
6.4.3. Telebistaren aisiazko ontologia: hipotesi esplikatiboa	442
6.5. LABURBILDUZ: JASOTAKOAREN KONTAKIZUNA	447

---

<b>CONCLUSIONS, LIMITATIONS AND NEXT STEPS</b>	449
I. Contributions from Leisure Studies and Audience Research	451
II. The case study as a methodological approach	456
III. Television as an intergenerational leisure artefact	458
IV. Verification of the hypotheses	460
V. Limitations of the study, opening areas and next steps	462

---

<b>BIBLIOGRAFIA</b>	465
---------------------	-----

---

<b>ERANSKINAK</b>	485
1. Eranskina: Parte-hartzaileen fitxa	486
2. Eranskina: Talde eta Sakoneko Elkarrizketetako gidoi orokorra	487
3. Eranskina: Eztabaida taldeetako parte-hartzaileak (norberak betetzeko fitxa)	488
4. Eranskina: Sakoneko elkarrizketen parte-hartzaileak (norberak betetzeko fitxa)	489
5. Eranskina: Aisiaren koordinatuak: parte hartzaileen jatorrizko erantzunak	490
6. Eranskina: Telebistaren aisiazko harremanen astizko kategoriak: in vivo kodeak, adin-taldeka	492
7. Eranskina: Telebistaren aisiazko harremanen aldizko kategoriak: in vivo kodeak, adin-taldeka	494
8. Eranskina: Telebistaren Aisiazko harremanen aisiazko kategoriak: in vivo kodeak, adin-aldeen arabera	499
9. Eranskina: Adin-taldeak eta belaunaldiak: in vivo kodeak, adin-taldeen arabera	502

## IRUDIEN AURKIBIDEA

---

1. Irudia: Lanaren egitura orokorra	24
2. Irudia: Aisiaren adierak. (Leisure)	45
3. Irudia: Astia-aldia-aisia eredia	87
4. Irudia: Igorpen eredia	97
5. Irudia: Tartean sartzearen eredia	98
6. Irudia: Komunikazioaren igorpen eredia (Shannon eta Weaver)	113
7. Irudia: Telebistarekin lotutako aisiazko harremanak	132
8. Irudia: Ikus-entzuleriaren eboluzioa eta komunikabideen industria	141
9. Irudia: Telebistaren ikusmen fisiologikoa	153
10. Irudia: Familia, telebista eta aisia. Morleyren ikerketa aisiarako hurbilketa integralean	191
11. Irudia: Adin taldeak (adin tarteekein)	245
12. Irudia: Elkarrizketa tipo ideialak eta landa lanaren errealitatea	247
13. Irudia: Gidoi erdi-egituratuaren oinarri teorikoa	248
14. Irudia: Gidoiaren egitura orokorra	249
15. Irudia: Kasu Azterketaren planteamendu orokorra: teoria eta empeiria	254
16. Irudia: Kasuen laginketa (Google Earth)	256
17. Irudia: Parte-hartzaileen sexua	256
18. Irudia: Parte-hartzaileak adin-taldeka	257
19. Irudia: Unitate hermeneutikoak	260
20. Irudia: Abiapuntu teorikoko kode batzuk {funtza – dentsitatea}	262
21. Irudia: Aipua sortzen: testua eta irudia	262
22. Irudia: Memoak puzlearen pieza bezala	265
23. Irudia: Aldiberekotasun esploratzailea: kodeak eta oinarritzko dokumentuak	269
24. Irudia: Aldiberekotasun taulak: kodeak eta oinarritzko dokumentuak	269
25. Irudia: Sare bista: kodeen arteko harreman semantikoak	271
26. Irudia: Sare bistak kodeen arteko harremanak ezartzeko	272
27. Irudia: Sare bista kodeen arteko harremanak bistaratu eta berrantolatzeko	273
28. Irudia: Informazioaren azterketa-estrategiak	275
29. Irudia: Kodeketa fokalizatua eta egituratzaileen arteko harremana	279
30. Irudia: Kodeketa fokalizatua: eskema orokorra	282
31. Irudia: Kode egituratzaileak, kode fokalizatuak eta datuen corpusa.	285
32. Irudia: Kodeketa egituratzailea: «Egunien ziher... denbora asko dekozu libre?»	286
33. Irudia: Kode fokalizatuen eta egituratzaileen arteko harremana.	287
34. Irudia: In vivo kodeketaren adibide bat	288
35. Irudia: QDA eredia eta kodeketa teorikoa	289
36. Irudia: Kodeketa teorikoa: harremanak, kategoriak eta kontzeptuak	290
37. Irudia: Triangulazio interpretatiboa: Kasu Azterketaren Eredu Esplikatiboa	291

---

38. Irudia: Kasuen kontzeptuzko analisia eta eredu interpretatibo/esplikatiboa	293
39. Irudia: Aisiaren koordinatuak eta norabideak– Sare bista (ATLAS.ti)	375
40. Irudia: Telebista eta aisiaren norabideak: kategorizazio orokorra	379
41. Irudia: Adin-taldeen karakterizazioa	426
42. Irudia: Gazteak eta aisiaren koordinatuak	427
43. irudia: Helduak 1 eta aisiaren koordinatuak	427
44. irudia: Helduak 2 eta aisiaren koordinatuak	428
45. Irudia: Nagusiak eta aisiaren koordinatuak	428
46. Irudia: Belaunaldiak eta haien arteko kontaktua	431
47. Irudia: Kategorizazioaren oinarria, Astia-Aldia-Aisia eredu	432
48. Irudia: Astizko kategoriak	435
49. Irudia: Aldizko kategoriak	436
50. Irudia: Aisiazko kategoriak	440
51. Irudia: Telebistarekiko harremana, elementu subjektibo eta objektiboak	444
52. Irudia: Adin-taldea eta telebistarekiko harremantze moduen gainjartzea	446
53. Irudia: Adin-taldeak eta telebistarekiko harremantze moduen arteko lotura	446

## TAULEN AURKIBIDEA

---

1. Taula: Aisiaren diziplina/esparruak eta ekarpen esanguratsuenak	60
2. Taula: Aisia humanistaren balioak	74
3. Taula: Aisiaren koordenatuak	75
4. Taula: Aisiaren norabideak, koordenatuak eta dimentsioak	81
5. Taula: Audientzia, publikoa, ikus-entzuleria, ikus-entzuleta eta ikus-entzuleak.	166
6. Taula: Nagusitasun historikoa eta metodologikoa herrialde ezberdinetan.	214
7. Taula: Paradigma kuantitatiboa eta kualitatiboaren oinarriak	232
8. Taula: Metodo kuantitatibo eta kualitatiboaren ezaugarriak	233
9. Taula: Eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketetarako gidoia orokorra (gai nagusiak)	250
10. Taula: Datu pertsonalak	252
11. Taula: Telebistarekin harremana.	252
12. Taula: Ondoko esaldietatik aukeratu ados zauden lau eta ordenatu 1etik 4ra	253
13. Taula: Laginketa irizpideak eta kasuak.	255
14. Taula: Eztabaida taldeak	257
15. Taula: Sakoneko elkarrizketak	258
16. Taula: Erabilitako oinarritzko dokumentuak	261
17. Taula: Kontsulta tresnaren eragileak	266
18. Taula: Erabilitako harreman semantikoak	271
19. Taula: Atributuzko kodeak adin-taldea {funtza-dentsitatea}	277
20. Taula: Kode fokalizatuak Aldia-Astia-Aisia + belaunaldiak ardatzetan antolatuta	280
21. Taula: Pasarte kopurua kode fokalizatu eta adin taldea	283
22. Taula: Aisiaren koordenatuak eta aukeratu eta ordenatzeko proposatutako esaldiak	376
23. Taula: Aisiaren koordenatuekin lotutako esaldiak eta garrantzia orotara	377
24. Taula: Telebista eta aisiazko esperientziak –adin taldeen Ezaugarri orokorrak	391
25. Taula: Adin-taldea, telebista eta aisiaren norabideak	396
26. Taula: Adin taldeen belaunaldien ezaugarritzea	429
27. Taula: Astialdia; norberarena den denbora (in vivo kodeak, adin-taldea)	492
28. Taula: Telebista, astiaren alde eta kontra (In vivo kodeak, adin-taldea)	492
29. Taula: Telebistaldiak, denbora pasatik denbora galtzera (In vivo kodeak, adin-taldea)	493
30. Taula: Telebista, aldien eragin eta aldi-eragile (In vivo kodeak, adin-taldea)	494
31. Taula: Telebistaren presentzia fisikoa (In vivo kodeak, adin-taldea)	495
32. Taula: Telebistako edukiak	495
33. Taula: Telebista eta laguntasuna	496
34. Taula: Telebistari eskaintzen zaio arreta	497
35. Taula: Edukien gaineko kontrola	498
36. Taula: Telebistaren eguneroko errealitatea	499
37. Taula: Telebistaren bizipena	500



38. Taula: Telebistaren erabilgarritasun eta arriskuak	500
39. Taula: Telebistaren aukerak	501
40. Taula: Belaunaldietan partaidetza	502
41. Taula: Belaunaldien arteko ezberdintasunak	503

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

---

1. Grafikoa: Aisiaren tipologiak	83
2. Grafikoa: Batez besteko gizarte-denbora, jarduera-motaren arabera	168
3. Grafikoa: Partaideko batez besteko denbora jarduera-motaren arabera	169
4. Grafikoa: Batezbesteko gizarte-denbora	169
5. Grafikoa: Kodeketa fokalizatua eta adin-taldeak	284
6. Grafikoa: Kode egituratzaileak adin taldeak	287
7. Grafikoa: Telebistarekin lotutako aisiaren koordenatuak: garrantzia erlatiboa orotara	378
8. Grafikoa: Aisiaren koordenatuak eta adin taldeak	393
9. Grafikoa: Telebista, aisiaren koordenatuak eta generoa	394
10. Grafikoa: Telebista, aisiaren koordenatuak eta generoa: karakterizazio orokorra	395
11. Grafikoa: Telebista, aisiaren koordenatuak eta adin-taldeak: karakterizazio orokorra	396
12. Grafikoa: Gazteak taldearen telebistarekin lotutako aisiazko koordenatuen garrantzia erlatiboa	397
13. Grafikoa: Gazteak taldearen gai nagusiak telebistarekiko harremanean: ahozko kontakizuna	398
14. Grafikoa: Helduak 1 taldearen telebistarekin lotutako aisiazko koordenatuen garrantzia erlatiboa eta aisiaren norabidea	401
15. Grafikoa: Helduak 1 taldearen gai nagusiak telebistarekiko harremanean: ahozko kontakizuna	404
16. Grafikoa: Helduak 2 taldearen telebistarekin lotutako aisiazko koordenatuen garrantzia erlatiboa eta aisiaren norabidea	405
17. Grafikoa: Helduak 2 taldearen gai nagusiak telebistarekiko harremanean: ahozko kontakizuna	407
18. Grafikoa: Nagusiak taldearen telebistarekin lotutako aisiazko koordenatuen garrantzia erlatiboa eta aisiaren norabidea	409
19. Grafikoa: Nagusiak taldearen gai nagusiak telebistarekiko harremanean: ahozko kontakizuna	410



---

# SARRERA

---

## 1.1. LABURPENA

---

Telebista milioika pertsonen eguneroko errealitatearen parte da munduan egun eta XXI. mendearen hasieran pertsonen aisiaren zutaberik garrantzitsuenetarikoa izaten jarraitzen du, baita Euskal Herrian ere. Euskal gizartearen egunerokotasunean telebistak duen zentraltasunaz jabeturik lau adin-taldetan banatutako bederatzi ez-tabaida talde eta sei sakoneko elkarrizketaren telebistarekiko harremanen esplorazio kualitatiboa eta aisia humanistaren perspektiban oinarritutako interpretazio eredu eskaintzen ditu lan honek.

Komunikabideek egungo gizarteetan aisia definitzeko agertzen duten garrantzia hazkorra ikusita Aisiatzko Ikaskuntzen eta Ikus-entzuleriaren Ikerketaren artean zubi-lana egitea ezinbestekoa eta emankorra da. Izan ere, komunikabideen ekosisteman ematen ari diren aldaketek erronka berriak ez ezik, erronka hauei eremu bietatik elkarrekin erantzuteko aukerak ere zabaltzen dituzte. Erronka hauei erantzute aldera hurbilketa kualitatiboa proposatzen da lan honetan, Ikus-entzuleriaren Ikerketa batez ere komunikabideen kontsumoaren azterketa kuantitatibora bideratu baita, eta denbora-aurrekontuak bezalako Aisiaren Ikaskuntzekin lotutako ikerketa jarduerak jarduera behagarrien neurketa hartu izan baitute ardatz, jarduera hauetatik eratorritako esanahiei entzungor eginik sarri.

Hein horretan aisiatzko esperientziaren kontzeptua telebistaren ikus-entzuleriaren eremura egokitzea gako da telebistaren egungo eta etorkizuneko formak hobeto ulertzeko. Hartara, ikus-entzuleriaren azterketarako eredu berri bat proposatzen da, aisia eta telebistaren adiera anitzeko izaera barne hartzen dituen eraldatzen ari den komunikabideen ekosistemaren baitan. Parte-hartzaileen kontakizunaren azterketa eta kodeketa sistematikoak adin-taldeen arteko kontzeptuzko alderaketarako eta telebistarekin lotutako aisiatzko harremanen marko interpretatibo orokorrerako oinarriak eskaini ditu. Ezberdintasun esanguratsuak aurkitu dira adin-taldeen artean, baita antzekotasun nabarmenak ere adin-tarte bereko pertsonen artean. Kasu azterketan aurkitutako antzekotasun eta ezberdintasunetatik eta parte-hartzaileek belaunaldien inguruan esandakotik abiatuta proposatzen da telebistaren aisiatzko on-

tologia, eta telebista belaunaldien arteko aisiarako eta aisiazko artefaktua dela eta belaunaldien partaidetzak eta ezberdintzeak telebistaren eguneroko errealitatearen eraikuntzan garrantzi handikoak direla ondorioztatzen da bertan.

Hedabideekin lotutako aisia garrantzia psikologiko, soziologiko eta ekonomiko hazkorra hartuz joan da gizarte industrializatuetan. Horrenbeste ezen aisia eta komunikabideak bereiztezinak bihurtu diren hein handi batean gizarte oparoenetako herritarren gehiengoarentzat. Egun geroz eta zailagoa da XXI. mendeko herritararen aisia irudikatzea honek hedabide ezberdinetako testuak (idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak, analogikoak...) kontuan izan gabe (dela kontsumitzaile edo parte-hartzaile bezala). Masa hedabideak norbanako eta taldeen eguneroko bizitzaren lehengai esanguratsuak bilakatu dira herrialde gehienetan, eta euskal gizarte ez da salbuespena.

Eguneroko espazioak –egongela eta logelak, ikasgelak, kulturetxeak, taberna eta kafetegiak, ibilgailu publiko eta pribatuak– eta denborak –errutinak, ohiturak, maiztasunak, aldiak– hedabideen testuz saturatuta ageri zaizkigu. Ekonomikoki garrantuen dauden herrialdeetako herritarrek eskura duten astialdiaren zati handiena telebista ikusten, irratia entzuten, egunkariak irakurtzen, interneten nabigatzen eta bideokontsolan jokatzeko ematen dute.

Bestela esanda: hedabideak nonahiko bilakatu zaizkigu. Eta hala bihurtu badira batez ere aisiaren eraginez izan da batez ere. Egun, ekidiezina da aisia aztertzea komunikabideen izaera eta egoera aztertzeko, eta nahitaezkoa zaigu komunikabideak aztertzea euskal gizartearen aisiaren egoera eta izaera ulertu ahal izateko. Bata eta bestea lotuta doaz.

Bestalde, komunikabideen ikus-entzuleen aisiazko esperientzien miaketarako abiapuntu kontzeptual eta enpiriko emankorra eskaintzen du telebistak. Telebista eta ikus-entzuleriak Aisiazko Ikaskuntzen perspektibatik ikertzea ez du soilik berau ikustera eskaintzen zaion ordu kopuru agregatu itzelak justifikatzen, baita haren zentralitatearen zalantzakotasunak ere azkar aldatzen ari den komunikabideen paisaia digitalak berak ere: telebistaren orainaldia eta etorkizuna, biak dira gai kritikoak Aisiazko Ikaskuntzentzat. Ikus-entzulerien ikerketak tradizionalki pantailaren aurrean igarotzen dugun denbora zenbatu eta pisatzeaz eta komunikabideek haien ikus-entzuleriengan duten eragina neurtzeaz arduratu dira batez ere, baina gutxiago landu izan dute nola eta zergatik txertatzen dugun telebista gure eguneroko bizitzan, zein eguneroko esangura hartzen dituen telebistak edota zein esanahi eta plazer aurkitzen dituzten norbanako eta taldeek harekin ezartzen dituzten harremanetan. Aisiaren eta ikus-entzulerien ikerketek ezin dute erronka hauek ekiditen jarraitu. Lan honek ikus-entzulerien zenbakien atzean ezkutatzeko diren aukera pertsonal eta kolektiboak ulertzen lagundu nahi luke, pertsonak telebistarekin harremanean aurkitzen dituzten esanahiak eta telebistak haien eguneroko bizitzan jokatzeko dituen paperak aztertuz.

## 1.2. IKERKETAREN ABIAPUNTUA ETA HELBURUAK

Lan honetan Aisiazko Ikaskuntzen eta Ikus-entzulerien Ikerketaren alorre-tara ekarpena egin nahi izan da denboraren zenbaketaz eta hedabidearen edu-ki testualaren azterketaz haratago doan ikus-entzuleen telebistarekiko aisiazko harremanen azterketaren bidez. Horretarako telebista haren ikus-entzuleen ai-siazko esperientziarekin hartuemanean dagoen entitate konplexu eta dimentsio anitzekoa bezala ulertu eta esploratu da, komunikaziorako teknologia bereizi edo aisiazko jarduera zehatz bainoago. «Telebistak jada ez du lehen zuen esanahi bera» (Shimpach, 2010: 1), eta, hartara, haren ikus-entzuleriek ere ez lukete es-angura bera izan behar. XX. mendeko parametro nagusiak denbora eta espazioa izan badira, XXI. mendeko euskal ikus-entzuleriaren ikerketek norbanako eta komunitateen esperientzia hartu beharko lukete ardatz. Ardura horrekin eman zaio hasiera proiektu honi, eta horri begira planteatzen da azken ekarpena ere: telebista aisiazko esperientzien gaitzaile, baldintzatzaille eta eraldatzaille bezala ulertzeko eredu eskaintzea.

Telebistak belaunaldi ezberdinen eguneroko asian duen lekua ulertze aldera lu-zatutako galderak honako iker-galdera bezala laburbildu daitezke:

- Nolako harremanak dituzte adin-talde ezberdinetako pertsonak telebis-tarekin haien eguneroko bizitzan? Hauetatik, zeintzuk dira aisiaren espa-rrukoak?
- Nola artikulatzen dira aisialdia, aisiazko jarduerak eta aisiazko esperien-tziak informatzaileen diskurtsoan aldaketa teknologiko azkarreko agertoki batetan txertatutako telebista batekin harremanean?
- Nola hautematen dituzte bateratze digital eta multimediaren aukera eta mugak?
- Antzekotasun eta ezberdintasunak aurkitzen al dira adin-taldeen artean telebistarekin lotutako aisiazko esperientziei dagokienez?
- Belaunaldi eta belaunaldiekiko partaidetzak paralelotasun eta dibergentzia hauek azaltzen lagundu dezakete?
- Zein da telebistaren izaera aisia humanistaren perspektibatik?

Iker-galdera hauek ikerketaren helburuen ondorengo formulaziora eraman gai-tuzte, helburu nagusi, helburu espezifiko eta hauen azpi-helburutan banatuta:

Helburu nagusia:

Lau adin-talderen telebistarekiko harremanak aisia humanistaren perspektibatik miatzeta belaunaldien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak aztertu, interpretatu eta azaltzeko gai den eredu teoriko bat proposatze aldera.

Helburu espezifikoak:

1. Aisiazko Ikaskuntzen eta Ikus-entzulerien Ikerketaren esparruak elkar-harremanean jartzea bata eta bestearen ekarpenak erabiliz iragaite egoeran aurkitzen den telebista ikertzeko.
  - Hizkuntza eta tradizio ezberdinetako aisiaren ulerkera klasiko zein garai-kideak berrikusi eta hauek telebistarekin lotutako aisiarekiko hurbilketa-rako moldatzea.
  - Telebista bestelako hedabide eta komunikazio modu berriekin harremanean kokatzea aurpegi anitzeko bateratze multimediaren testuinguruan.
  - Ikus-entzulerien Ikerketaren ekarpen esanguratsuak berreskuratzea hedabidearekiko esposizioaren neurketa soilaz harago doazen ikus-entzuleria eta ikus-entzuletzaren lanerako definizioak berrikusi eta proposatzeko.
2. Eguneroko bizitzan telebistarekiko jarrera, emozio eta sentimenduen inguruan parte-hartzaileek duten diskurtsoa aztertze marko metodologiko kualitatiboa eskaintzea.
  - Kasu azterketaren abantailatz baliatzea eguneroko telebistaren esperientziaren kontakizun subjektiboaren sakoneko ikerketa burutzeko.
  - Korpusari geroztiko azterketa dinamikoak egitea ahalbidetuko duen kodeketa arkitektura koherente eta sistematikoa eraikitzea.
3. Proposatutako telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integralaren arabera adin-talde ezberdinen telebistarekiko harremanaren eta beronen ulerkeraren ezaugarri gakoak identifikatu eta alderatzea.
  - Telebistarekin lotutako jardurekin lotuta.
  - Astialdiaren ulerkera eta esperientziarekin lotuta.
  - Telebistarekin lotutako aisiaren ulerkera eta esperientziarekin lotuta.
4. Telebista aisiazko esperientzien marko gisa hartzen duen ikus-entzuleen aisiaren azterketa, interpretazio eta azalpenerako eredu proposatzea.
  - Behatutako aisiaren koordinatuen ezaugarriak karakterizatzea.
  - Adin-taldeen telebistarekiko harreman bereizgarriak interpretatzea.
  - Kasu azterketaren interpretazio eredu orokorra proposatzea.
  - Telebistarekiko aisiazko harremanetan belaunaldiek duten esanguraren azalpenean aurreratzea.

Helburuok ikerlariaren ardurak islatzeaz gain ikerketaren eremua definitu eta le-  
rro gidari nagusiak marrazten dituzte. Horrela, angelu ezberdinetatik heltzen zaio  
helburu eta azpichelburu bakoitzari lanaren atal ezberdinetan.


### 1.3. IKERKETAREN MUINA ETA LANAREN EGITURA

Lan honen helburua ez da adin talde ezberdinetako euskaldunek (kasu hone-tan Bizkaitarrek) telebista ikusten duten denbora eta espazioak (non, noiz, zenbat, zenbat aldiz...) edo edukiak (zer, nola, zein kanalen bidez) aztertzea edota euskal ikus-entzulerien joera orokorrak identifikatzea, baizik eta parte-hartzaileen kontaki-zunak jaso eta alderatzea haien telebistarekiko aisiazko harremanak hobeto ulertze-ko. Zentzu horretan lanak ez du lurralde ordezkartzarik edo aurkitutako ondorioak Bizkaiko biztanleria osora orokortzerik bilatzeko inolako asmorik. Kontrara, hel-burua telebistak pertsonen egunerokotasunen bizitzan dituen esanahien ugaritasuna argitzea da helburua. Hori dela eta, lanaren anbizio metodologikoa ulerkerazkoa da, ez orokortzailea (Velasco & Díaz de Rada, 2006). Giza esperientziaren izaerak eta fe-nomenoaren konplexutasunak hurbilketa kualitatiboak eskatzen ditu. Chris Rojekek adierazi bezala, hemen behar dena hurbilketa ideografikoa da nomotetikoa baino gehiago: metodologia ez-orokortzailea, orokortzailea baino gehiago (Rojek, 2009). Ikerketaren interesa esanahiaren eraikuntzan eta aisiaren bizipen esanguratsuan da-tzanez, esperientzia hauen kontakizunaren bidez soilik hurbil gaitetze iker-objektua-rengana, berau pertsonaren baitan gertatzen baita, inoiz ere ez harengandik kanpo.

Ikus-entzuleek telebistari esleitzen dioten garrantzia, adiera eta esanahia beraien adierazpenaren bidez soilik ezagutu ditzakegu. Hori esanda, ikerlanaren izaera kuali-tatiboa ez da hurbilketa kuantitatiboekin kontrajarrita bezala aurkezten ezta ulertzen ere, osagarriak eta elkar lotesleak baitira zentzu askotan. Lana azterketa kualitati-boaren tradizioan kokatzen den arren, beste hurbilketa eta ekarpenetara irekita dago. Landa lanari erreparatuz gero, bi ikerketa teknika erabili dira: eztabaida taldeak (al-dakuntza maximozko laginketa jarraituz) eta sakoneko elkarrizketak (kasu kritikoen aukeraketari jarraituz) galdetegi semi-egituratu eta dinamiko bera harturik oinarri. Teknika bakoitzaren ostean parte-hartzaileen idatzizko kontakizuna ere jaso da saio guztietan. Bi eztabaida talde pilotu burutu dira pretest bezala: bata gaztelaniaz (landa lanean euskaraz burutu ez den saio bakarra izan da hau) eta bestea euskaraz. Pilotu hauek elkarrizketa eta eztabaidetan erabili den gidoi semi-egituratua testatu eta te-knika bakoitzak ezarritako helburuekiko agertzen dituzten muga eta indarguneak hobeto ezagutzea ahalbidetu dute. Bai datuen analisi eta kodeketaren ondoz ondoko faseetan eta informazioaren berreskurapen eta ikusarazpenean ere ATLAS.ti softwa-rea erabili da, zein ezinbesteko tresna bilakatu den QDA ereduaren araberrako azter-keta sistematikoa burutu eta kategoria teorikoak sortzerako orduan.

Lanaren lehen atalak abiapuntu teorikoa jorratzen du Aisiazko Ikaskuntzen eta Ikus-entzuleriaren Ikerketen ekarpenak hiru ikuspegitatik esploratuz. Lehen kapitu-luak aisiaren eta aisiazko esperientziaren kontzeptuak mahaigaineratzen ditu, eus-karazko, gaztelerazko eta ingelesezko iturri klasiko eta garaikideak alderatuz eta lan osoan oinarri izango den telebistarekiko aisiazko hurbilketa integrala proposatzen da, Astia-Aldia-Aisia eredu.

## 1. IRUDIA: LANAREN EGITURA OROKORRA



Iturria: norberak egina.

Bigarren kapituluak telebista komunikabideen ekosisteman kokatzen du, aldaketa sozial, teknologiko eta industrialen zeresana azpimarratzeko. Komunikabideen ekosistema komunikabide eta ikus-entzulerien arteko interakzio sare konplexu bezala aurkezten da, non telebista zer den eta telebista ikustea zer den birpentsatzea ezinbestekoa bihurtu zaigun. Hirugarren kapituluak telebista eta ikus-entzuleriaren ikerketan fokatuta dago. Bertan, audientzia, ikus-entzuleria, ikus-entzuleta eta ikus-entzuleen kontzeptuak aztertzen dira eta Euskaldunak eta telebista XXI. mende hasieran audimetria tradizionalaren mugak eta ikus-entzuleriaren ikerketaren ekarpen kritiko esanguratsuenak gogora ekarriz. Bigarren atalak lanaren marko metodologikoa eta azterketaren alde enpirikoak zehazten ditu. Hala, laugarren kapituluak lanaren izateko arrazoia, helburuak, hipotesiak eta erabilitako ikerketa teknikak zehazteaz gain lanean perspektiba metodologikoan sakontzen du, logika ideografiko eta nomotetikoaren eta kasu azterketaren figuraren ezaugarri garrantzitsuenei erreparatuz. Bertan azaltzen dira baita ATLAS.ti programaren bidez erabilitako azterketa eta kodeketa estrategiak eta eredu interpretatibo-esplikatiboa osatzeko erabilitako triangulazioaren eredu ere. Bostgarren kapituluak tresneria analitiko honetatik ondorioztatutako kontzeptuzko kasu analisia aurkezten du: parte-hartzaileen deskribapen estruktural konparatiboa. Bertan, Aisia-Aldia-Astia ereduari jarraituz telebistarekin lotutako ai-



siaren dimentsio ezberdinak aletzen dira (telebistarekin lotutako praktiketatik hasi, astialdiarekin duen loturarekin jarraitu eta telebistaren esperientzia eta esanahien geruza ezberdinekin amaitzeko).

Hirugarren eta azken atalak prozesu teoriko eta analitiko honetatik ondorioz-tatutako eredu interpretatibo-espikatiboa aurkezten du: telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien karakterizazioa (aisia humanistaren koordinatuen kontzeptuak erabiliz), adin-taldeen telebistarekiko harremanen alderaketa eta adin-talde eta belaunaldien arteko lotura (etic zein emic perspektibetatik eta belaunaldiekiko partaidetza eta belaunaldien arteko ezberdinketari helduta).

#### 1.4. HIPOTESIAK ETA ONDORIOAK

Ikerketa abiatu ahal izateko ontzat eman diren lanerako hipotesien (letra etzanez, ondoren) baliozkotasuna lanaren ikerketaren prozesuaren eta ondorioaren argitan berraztertuta ondoko ondorioetara heldu gara:

1. *Pertsona ezberdinek harreman ezberdinak garatzen dituzte telebistarekin. Telebista-ikusleek trebetasun, helburu, estrategia eta erabilera ezberdinak agertzen dituzte telebistarekin hartuemanean, eta ondorioz bizitako esperientziak ezberdinak dira, baita aisiazkoak ere.* Lanean elkarrizketatu diren 73 parte-hartzaileek telebistarekiko interes, iritzi eta ideia ezberdinak eta harekiko estrategia, helburu, erabilera eta aztura ezberdinak agertu dituzte, eta haien telebistarekiko aisiazko esperientzien kontakizunak idiosinkrati-koak izan dira erabat (hipotesia baieztatu da).
2. *Hedabideak eurek eta ikus-entzuleriek hedabideekin dituzten harremanak sakonean aldatzen ari dira. Belaunaldi ezberdinek ukitze puntu ezberdinak izan dituzte hedabideekin, zeinen ondorioz iaioetasun eta interes ezberdinak garatu dituzten, baita hedabideekin harremantzeko modu berezkoak ere, zeinak belaunaldien eratzaile eta bereizgarritzat har daitezkeen.* Komunikabideen ingurunean gertatutako aldaketak belaunaldien ezaugarritze eta ezberdintzerako erreferentzia bezala erabilia azaltzen dira behin eta berri-ro eta komunikabide berrien agerrera norberaren bizitzan noiz gertatzen den (haurtzarora, zahartzarora, helduarora...) belaunaldiarekiko harremana sustengatzen duen markagailu biologiko gisara (hipotesia baieztatu da).
3. *Telebistaren kontsumoarekin lotutako trebezia, helburu, estrategia eta az-turak ezberdinak dira adin-taldeen artean informazio eta komunikazio teknologien erabileraren abilezia, hedabideetan alfabetatze maila eta agen-da sozial eta pertsonal ezberdinen eraginez. Hala ere adinak ezin ditu bere horretan telebistarekiko aisiazko harremanen ezberdintasunak azaldu.*

Adin-tarteek ezberdintasun nabarmenak agertzen dituzte telebistarekiko aisiazko harremanei dagokienez, baina belaunaldiarekiko partaidetza indartsuagoa den kasuetan kokapen subjektiboa telebistarekiko harremanarekiko adierazle hobegagoa da (hipotesia baieztatu da, abileziaren inguruan ikerketa gehiago behar den arren).

4. *Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak konplexuak eta anitzak dira, eta audientziaren neurketa kuantitatiboak ez ditu agortzen, ezta igorpenaren edukiak soilik azaltzen. «Telebista ikustea» adiera bakarrekia denaren ustea engainagarria da, ikus-entzuleek eguneroko ohitura, estilo eta errepertorioetan txertatutako jardueraren baitan aurkitzen dituzten motibazio, erabilera, sari eta esangura ezberdinak ezkututzen baititu.* Telebistako eduki berarekiko oso harreman ezberdinak eratu dituzte parte-hartzaileek, baita telebista ikustearen ekintzarekiko ere, hau edozer izan baitaiteke: denbora galtzetik asteko unerik onenera, familia osoa batzeko aitzakia zein elkarrekin hitz egin behar ez izatekoa (hipotesia baieztatu da).
5. *Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak ez dira zertan telebista gailua piztean hasten, ez eta hau itzaltzean amaitzen ere. Telebistarekiko harremanak esposizio hutsa baino zabalagoak dira.* Telebistaren inguruan berba egitea (aurretik, tartean eta gero) unibertsalki hedatuta dago adin-talde guztietan, eta berehala moldatu da sare-sozial digitaletara (hipotesia baieztatu da).
6. *Telebistarekin lotutako aisiaren subjektuaren esperientzia haren kontakizunetik bakarrik ezagutu dezakegu. Informatzaileen diskurtsoaren azterketa sistematikoak Euskaldunak eta telebista XXI. mende hasieran aisia fenomeno subjektibo bezala esploratzeko aukera zabaldu eta norbanako eta taldeen bizi-munduaren berri eman diezaguke.* Hitzean oinarrituta ez dauden ikerketa teknika sortzaileak saiatzea interesgarria litzatekeen arren, telebistaren eta harekiko harremanaren inguruan hitz egin eta eztabaidatzeak pertsonen egunerokotasunaren alde subjektiboara hurbiltzeko oso erabilgarria izan da (hipotesia baieztatu da).
7. *Hizkuntzan oinarritutako hurbilketa (eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketen bidez) parte-hartzaileen eguneroko bizitzan telebista zer den eta zein toki betetzen duen hobeto ulertzeko baliagarria da. Parte-hartzaileen kontakizuna haien euskalkian eta erabilitako hitzekin aztertzeak subjektuen esperientziaren ikerketa beraien koordinatuetan egitea ahalbidetzen du.* Eztabaida-talde eta sakoneko elkarrizketen hitzez-hitzeko transkribapenak jatorrizko eran (edo modu natiboan) azaldu diren terminoak teoria berria sortzeko erabili eta parte-hartzaile-

leen bizi-munduarekiko hurbiltasuna mantendu eta berrikuntza teorikoa ahalbidetu ditu (hipotesia baieztatu da).

Orohar, beraz, hipotesi nagusia ere baieztatu dela esan dezakegu: belaunaldi ezberdinetako partaideek haien bizitzan zehar hedabideekin izan dituzten harreman eta esperientziek haiekiko aisiazko harreman bereizgarriak taxutu dituzte. Telebista, salbuespena izatetik urrun, eraldaketa hauen kristalizatzeen paradigma da, belaunaldiek etengabeko aldaketan dauden hedabideekin dituzten harremantze modu bereizien eredu eta erdigune.



# LEHENENGO ATALA

## AISIA, TELEBISTA ETA IKUS-ENTZULERIAK

### EDUKIAK

#### 1. KAPITULUA. AISIA ETA AISIAZKO ESPERIENTZIA

- 1.1. Terminologia: aisiaren definizioa
- 1.2. Aisiaren esanahiak
- 1.3. Aisiaren eta aisiazko ikaskuntza
- 1.4. Aisia humanista
- 1.5. Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: astia-aldia-aisia eredu
- 1.6. Laburbilduz

#### 2. KAPITULUA. TELEBISTA KOMUNIKABIDEEN EKOSISTEMAN

- 2.1. Komunikabideak eta espazioa
- 2.2. Komunikabideen bateratzea
- 2.3. Komunikabideen ekosistema
- 2.4. Laburbilduz

#### 3. KAPITULUA. TELEBISTA ETA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETA

- 3.1. Ikus-entzuleriak definituz
- 3.2. Zergatik aztertu telebistaren ikus-entzuleriak?
- 3.3. Ikus-entzuleriaren ikerketaren ardatzak
- 3.4. Europar panorama ikus-entzuleriaren ikerketan
- 3.5. Laburbilduz

Bethi gure naturalezak aisiyen billatzerat gakarzke.

Alexandre Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*.

---

## I. KAPITULUA

### AISIA ETA AISIAZKO ESPERIENTZIA

---

Lan honen hiru ardatz teoriko nagusietako lehenengoa izanik, aisia terminoaren argiketa eta zehaztapen kontzeptual bat beharrezkoa da beste ezer baino lehen. Hein horretan, hasieratik bertatik ohararazi beharrezkoa da aisiaren esanahia testuinguru historiko eta sozial ezberdinetan aldatu duen eta aldatzen jarraitzen den errealitatea dela, eta, areago, egunetik egunera aldatzen ari diren hedabideekin lotutako aisiaz ari garenean.

Hori dela eta, «aisiaren esanahiak» atalean, aisia definitzeko izan diren saiakera eta ikuspegi ezberdinak azaltzeaz gainera, ibilbide bikoitza landuko dugu hiru hizkuntzetan (ingelesa, gaztelania eta euskara), aisiaren egungo esanahiak argituz lehenengo, eta aisia hitzaren garapena eta jatorria azalduz segidan. Bestela esanda, aisia hitzaren adieraziak eta adierazleak aztertuko ditugu, hurrenez hurren, aisiaren egungo adierak eta terminoaren garapenari erreparatuz. Helburua aisiaren egungo esanahia eta esanahi hauen jatorri eta eraldaketei begiratu bat egitea da, betiere garatzen ari den kontzeptuaren izaera konplexu eta aldakorra aitortuta.

Bigarren zatian, Aisiaren Ikaskuntzen diziplina arteko ibilbide labur bat proposatzen dugu eremuaren ekarpen nagusiak gogora ekarriz eta aisiaren ikerketaren paradigma objektiboa eta subjektiboa uztartuz, bigarrenak lan honetan pisu handiagoa izango duen arren.

Ondoren, Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak oinarri duen Aisia Humanistaren oinarrizko ardatz teorikoak diren aisiaren koordenatuak aurkeztuko ditugu, berau dimentsio nagusiak eta tipologiak deskribatuz. Amaitzeko, aisiaren hurbilketa integralerako Astia-Aldia-Aisia eredu teorikoa aurkeztuko dugu, berau iker-objektua den telebistarekin lotutako aisiaren esparruan kokatuz.

#### 1.1. TERMINOLOGIA: AISIAREN DEFINIZIOA

---

Sebastian de Graziak esana da ezin dela aisiarik izan, aisia zer den ez dakigunean (De Grazia *et al.*, 1962). Hala ere, aisiaren esanahiak askorikoak, haren mugak lau-soak eta berau ulertzeko moduak zeharo ezberdinak dira une historiko batetik bestera, eta kultura batetik bestera. Torkildsen-ek jasotzen duen legez, sarri definizioak baldintza sozial, ekonomiko eta politikoen isla dira (Torkildsen, 2005). Definizioak garaiaren produktuak dira, proposatuak izan diren une historikoaren baldintzak, eta definitzaileen joera kultural eta ideologikoak islatzen dituztelarik.

Hizkuntzei dagokienez, antzeko zerbait gertatzen da, hizkera bakoitzak, bere adierazleak ez ezik, bere adieraziak ere gordetzen ditu giza esperientziaren alor honekiko harremanetan, berezitasun, ñabardura, indargune eta ahultasun espezifikoeekin. Lan honek hiru hizkuntza tradizioatik edaten duenez (Ingelesa, Espainiera eta Euskara), hiru izango dira galderari erantzuten saiatzeko eta lan honetan erabiliko ditugun kontzeptuak eta terminoak argitzeko aztertuko ditugun berbak: *Leisure*, *Ocio* eta *Aisia*. Hizkuntza hedatuenetik gutxituenera ekingo diogu azterketari, ingelesa, gaztelania eta euskaraz, egungo esanahi komunena aztertu eta hitzaren jatorrira joz gero, elkarbizitza nahasi honetan aurki ditzakegun adieratatik ikasteko asmoz.

## 1.2. AISIAREN ESANAHIAK

Aisia zer den eta zer ez den behin-betiko zehaztea ez da auzi samurra, hitz polise-mikoa baita, adiera eta esanahi ezberdinduna. Aisiaren oinarritzko definizio unibertsalak iheskor dirau orain ere, Aisiazko Ikaskuntzak XX. mendearen bigarren erdian eta, batez ere 90eko hamarkadan zehar modu aberatsean garatu diren arren.

Horretarako saiakerak, ugariak ez-ezik, askotarikoak izan dira Aisiazko Ikaskuntzen historian. Robert Stebbins kanadarrarentzat «Aisia astialdian egiten den behartu gabeko jardueratzat» har liteke, zeina jendeak egin nahi duen eta modu asegarri edo betegarri batean (edo bietara) haien gaitasun eta baliabideak bertan arrakasta izateko bideratzen dituen»<sup>1</sup> (A. R. Stebbins, 2005: 349). Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak lau-rogeita hamargarreko hamarkada oparo hartan ere egin zuen bere lehen oinarritzko definizio horretara hurbiltzeko ekarpena Aisiaren Thesaurusean: «Planteamendu zabal batetik, Aisiak borondatez aukeratutako esperientzia eta ekintzak hartzen ditu bere baitan, askatasuneko esparruetan aurrera eramanez, eta gogobetetasuna dakarkiona norbanakoari»<sup>2</sup> (Maiztegui *et al.*, 1996: 21). Veblenek bestalde, «denboraren kontsumo ez-produktibo»<sup>3</sup> -arekin lotu zuen sinpleki (Veblen, 1899: 27).

Hala ere, badago baita aisiaren definitze edo mugatze saiakeren artean gehiegizko definitzearen aurka agertzen denik ere. John Neulinger psikologo eta aisiaren teoriarriarentzat adibidez «Agian onena galdera honek erantzunik ez duenez ohartzea litzateke, edo hobe, ez duela erantzun zuzenik»<sup>4</sup> (Neulinger, 1981: 1). Izan ere, aisia paradigma

<sup>1</sup> «Leisure may be defined as: uncoerced activity engaged in during free time, which people want to do and, in either a satisfying or a fulfilling way (or both), use their abilities and resources to succeed at this».

<sup>2</sup> «Desde un planteamiento amplio, el Ocio comprende experiencias y acciones libremente elegidas, llevadas a cabo en ámbitos de libertad, sin objetivos primariamente utilitaristas y que reportan una satisfacción al individuo».

<sup>3</sup> «...the term leisure, as here used, does not connote indolence or quiescence. What it connotes is non-productive consumption of time».

<sup>4</sup> «Perhaps it is best to realize that there is no answer to this question, or better, that there is no correct answer».



ezberdinetatik iker eta azter daiteke, eta ikuspuntu bakoitzak ezaugarri batzuk argitu eta beste batzuk ilunduko ditu ezinbestean (Haywood *et al.*, 1995; Cuenca, M., 2010).

Berez, historian sarri hartu da aisia zentzu ezkorrean, ukazioaren zentzuan, alfertasun eta nagikeria gisa. Zentzu horretan pertsonaren bigarren mailako aldetzat hartu da, esanahi gutxiko bizitzaren hondakintzat, edo, kasurik onenean, lanean egindako ahaleginaren ordaintzat (Madariaga Ortuzar, 2008: 113). Ruiz Olabuena-gak *Aisiaren Erronkak* lanean aisiaren naturak berak jarrera kontrajarriak eragin ditzakeela ohartarazten zuen gerora *OcioAldi* bilakatuko zen *Tiempos de Ocio* jardunaldietan 1995ean: «Aisiak, bere izaeragatik, sentipen kontrajarriak eta aurkako planteamenduak sortzen ditu. Batzuen esanetan aurrekaririk gabeko iraultza kulturala dena besteentzako elkarbizitza arduratsuaren zutabea den lanaren etikari azpia jan diezaiokeen amua da»<sup>5</sup> (Ruiz Olabuénaga, 1996: 13: 13).

Aisia gizakia bera bezain zaharra dela suma dezakegu, mundu osoko giza-kultura eta gizarte guztiek agertzen baitute jolas eta aisiarako joera, baina aisiaren berezko errealitatea izendatzeko gizakiak asmatu dituen hitzen artean lehenetarikoa da antzinako Greziatik heldu zaigun skholē (σχολή) berba. Edozelan ere, aisia kontzeptua landu zuten antzinako greziarrentzat ere esanahi ugari zituela gogorarazten dute Santiago Segura eta Manuel Cuenca *El Ocio en la Grecia Clásica* lanean, zentzurik jasoenez gain Aristoteles eta Platonen idazkietan betebeharen premiarik gabeko denbora lasaiari eta bake garaietako jarduera zehatzari egiten baitzaie erreferentzia<sup>6</sup> (Segura Munguía & Cuenca Cabeza, 2007:17). Egun dakusagun polisemia, beraz, kontzeptuaren jaiotzetik bertatik aurki dezakegu.

Skholē greziarra hiritar askeei –betebehar eta lan zakartzailleetatik aske zirenei, esan nahi da– zegokien, ez esklaboei, ez eta atzerritarrei ere, eta jatorrian etena, gelditzea, jabaltzea esan nahi du: norberarentzako denbora izatea. Euskaraz astitsu egotearekin lotuko genuke, astia izatearekin, baina ñabardura bat beharrezkoa da: greziar klasikoentzat skholé-a ez da ezerezean egotea, baizik eta gogoia bake eta kontenplazio egoera batean murgiltzeko aukera izatea. Antzinako Grezia esklabistan aisia hiritar askeen berezko jarduerari, ekinga ez erabilkorrari zegokion, zeinen bidez gizakiak adimena modurik berezienean zabaldu, aberastu eta garatu zezakeen. Egoera/aukera hau *Theoria* kontzeptuarekin lotu zuten greziarrek, Platonnek berak errealitatea hautemateko eta harriduraz pozteko gaitasuna bezala ulertzen zuen jarrerarekin<sup>7</sup> (Amigo, 2006: 46).

<sup>5</sup> «El ocio, por su misma naturaleza, suscita sentimientos encontra dos y planteamientos opuestos. Lo que para unos constituye una auténtica revolución cultural sin precedentes, para otros constituye un señuelo que amenaza con minar la ética del trabajo, pilar de toda convivencia responsable».

<sup>6</sup> «El hecho de que los antiguos griegos fuesen los inventores del ocio como concepto no significa que no tuviese, como ocurre ahora, distintos significados (...) esta palabra se utilizaba también al hablar de tiempo sosegado, sin el apremio de las obligaciones o como actividad específica de los tiempos de paz».

<sup>7</sup> «El que se asombra lleva a cabo de forma pura la actitud que desde Platón se llama teoría, sólo posible en la medida en que el hombre no se ha vuelto ciego para la realidad».

Aisia gizakiaren helburu gorena lortzeko eta zoriontasuna erdiesteko bidea zen antzinako Grezian<sup>8</sup> (Segura Munguía & Cuenca Cabeza, 2007: 11), eta eskulan eta zeregin zitaletatik libro zirenek bakarrik izan zezaketenez kontenplaziorako, gelditzeko, eteteko aukera, gutxi batzuen esku baino ez zegoen, ezinbestean. Are gehiago, esklaboen izaera ez zetzan bakarrik haien askatasun faltan, baizik eta haien jarduna modu erabilgarri eta produktiboetara zuzentzean, helburua haien baitan ez eta beste zerbaitetan baitzuten (biziraupen materiala kasu), eta hortaz, aisiaren ideialetik aldentzen ziren. Izan ere, ezaguna da Aristotelesekin Nikomakorentzako etikan aisiaren inguruan esana: «Zoriontasuna aisian datzala uste dugu, aisia izateko egiten baitugu behar, eta bakea izateko egiten dugu gerra»<sup>9</sup> (Alonso, Martínez, & Aguirre, 2001, 1177b 4-26; Cuenca Cabeza, 2012).

Aristotelerentzat aisiak zereginengandik askatasuna esan nahi du; hau da, lanpetuta egotetik, zeregina izatetik (ogibide edo beharraren zentzuan) eta bizi ahal izateko lan egin beharra izatetik aske izatea (Chuska, 2000: 83). Izan ere, greziar eredia gizartearen estratifikazioaren bidez soilik da bideragarria: esklabutzari esker, gutxiengo batek aisiarako aukera izan zezakeen. Hartara, aurreko atalean aipatu dugun legez, jarduera politikorako aukera (astia) duenak soilik lor dezake hiritartasun osora sarbidea, eta astialdi hau jabegoak bakarrik ziurtatu lezake, bizimodua lanaren bidez lortu behar duenak ezin baitu bermatu bere aisia (Jayapalan, 1999: 46). Nolabait, grezia klasikoko idealaren zirkulua ixten dela esan dezakegu: Aristoteles eta bere garaikideentzat aske izateko ezinbestekoa da aisia izatea, eta aisia izateko ezinbestekoa da askea izatea.

Bestalde, argitu beharrekoa da baita Aristotelesentzat jolasa -edo olgeta- eta aisia gauza ezberdinak direla. Jolasa beharretik atsedean hartzeko bitarteko bezala ulertuko du filosofoak. Aisia, aldiz ez da plazer iturri soila, zoriontasun eta ongizatea ere baitakartza, aisia bera izango da helburua (Anagnostopoulos, 2009: 571). Erromatar Otium-arekin, zein Joseph Pieperrek Greziar skholē-arekin batera mendebaldeko kulturaren oinarritzat hartzen duen (Pieper, 2003: 12) gauza bera gertatzen da, eta esangura ugari biltzen ditu, nahiz sarri erromatar elitearen jarduerari soilik egin izan zaion erreferentzia (Balsdon, 1969; H. A. Harris, 1972; Scullard, 1981).

Greziar skholē berbak bezala, latinezko otium hitzak aisia, astia, bakea eta atsedeenaren adierak hartzen ditu testuinguru ezberdinetan, baina oro har otium/nec-otium kontrakotasun ardatzean kokatzen da. Ciceroren arabera, aisia (otium) atsedean, jolas eta meditaziorako aukera da, ez alferkeria, eta beharra (nec-otium) bukatu eta beharrera itzultzearen arteko bitartekari funtzioa betetzen du. Erromatarren helburua hortaz, Greziarrentzat ez bezala, beharra izango da, eta aisia beharrerako indarrak

<sup>8</sup> «La actividad propia de los ciudadanos libres, a la acción no utilitaria en la que el ser humano podía desplegar, enriquecer y desarrollar la mente de la forma más específica. El ocio era el cauce para lograr el fin supremo del ser humano y el logro de la felicidad».

<sup>9</sup> «Se cree, que la felicidad radica en el ocio, pues trabajamos para tener ocio y hacemos la guerra para tener paz».

berreskuratzeko bide. Otium-aren esangura herrikoia, kaletarra, lehen aldiz masi-boa, alderantzizkatua izango da: aisia helmuga eta lana bide zen lekuan, lana helmuga eta aisia bide. Hala ere biak izango dira, Ciceron aburuz, gizaki osoaren osagai: «Biak, aisia eta irabazbidea, dira gizaki osoaren parte, soilik *otium cum dignitate* batzen duena izango da gizaki oso»<sup>10</sup> (Munné, 1980: 43). Ciceronek, zentzu horretan, pausu bat gehiago ematen du pertsona, hiritar hobezinen, *optimates*-en helmuga deskribatu eta *otium cum dignitate* horrekin batzerakoan. (Cuenca Cabeza, 2012):

Zein litzateke orduan, Estatuaren ontzia gidatu behar duten pilotuek begiz jo eta norabidetu behar luketen helmuga? Gizaki osasuntsu, zintzo eta zoriontsu ororentzat onena eta desiragarriena dena: ohoredun bizitza baketsua (*cum dignitate otium*). Berau desira duten guztiak izango dira *optimates*; lortzen dutenak, gizon gailen eta Estatuaren babesle. Ez baita komeni gizakiak herri-karguan aritzearen ohoreagatik herrestan eramanak izatea haien lasaitasuna zaintzeari utzi arte, ez eta ohoreetatik baztertuko dituen bizimodu baketsuari atxikitzea ere.

Adiera anitzeko terminoa beraz aisia antzinaroan. Gaur egunera ekarrita ere, zenbat buru hainbat aburu aurki daitezke gai honen inguruan. Hamaika laguni aisia zer den galdetuz gero, hamaika erantzun ezberdin jasoko genituzke. Are gehiago, pertsona berari –edo gure buruari– une ezberdinetan aisia legez zer ulertzen duen galdetuz gero, ziur asko erantzun ezberdinak jasoko genituzke.

*Understanding Leisure* lanean hitzaren esanahia zehazteko ahalegina egiten dute Haywood, Kew, Bramham eta bestek, eta terminoaren ezinbesteko polisemiari buruzko antzeko ideia bat planteatzen dute:

Batzuek aisia lanaren eta beste betebeharren ostean gelditzen den denbora dela pentsa dezakete. Beste batzuek ekintza zehatz batzuei buruz hitz egin lezakete, telebista ikustea, kiroletan parte hartzea, kanpoan afaltzea, lorezaintza edo jendeak interesgarri aurki litzakeen hamar mila jardueretatik edozein. Beste batzuek aldiz esperientziaren kalitateari erreparatuko diote; aisiak «norbere gauzak» egiteko, dibertimendurako, aukeraketa askerako, norbere interesak garatzeko, bestelakoan bizitzan eskura ez dauden esperientziak bizitzeko aukera nagusia dakarrela azpimarratuz. Horrekin lotuta, pertsona batzuek aisia lanarekiko atsedean eta susperraldi gisa ikusiko dute, bizimodu modernoaren estres eta tentsioetarako antidoto.<sup>11</sup> (Haywood *et al.*, 1995: 1).

<sup>10</sup> «Pero ambos, ocio y negocio, forman parte constitutiva del hombre completo; sólo es tal el hombre que reúne el *otium cum dignitate*».

<sup>11</sup> «Some might think that leisure is time left over after work and/or other duties and obligations. Others might talk about particular activities such as watching television, taking part in sports, going out for a meal, gardening or any other of the myriad of activities which people find interesting. Still others might indicate a particular quality of experience, that leisure provides the main opportunity in their lives to 'do their own thing', to have fun, to exercise free choice, to develop their own interests, to have experiences which are not available in the rest of their lives. Related to this, some people might regard leisure as rest and recuperation from work, and as an antidote to the stresses and strains of modern life».

Hiru adiera modu ezberdin gutxienez, beraz. Lehenik lana eta betebeharraren «os-teko denbora», bigarren lan eta beharrera itzultzea ahalbidetuko duen suspertze edo errekupeziorako tartea, eta azkenik esperientziarako aukera –eta, gerora aztertuko dugun bezala, aukeraren esperientzia–. Aisia beharrari esker zilegi egiten denaren perspektiba bereziki indartsua izan da industrializazio osoan zehar kapitalismoaren defen-datzaile sutsuenetatik hasi eta iraultzaile komunista eta anarkistetaraino:

Luxuzko alferkeria bizimodu batek endekatze moral eta intelektualera darama klase pribilegiatua. Egia hutsa da aisia kopuru jakin bat behar-beharrezkoa dela gi-zakiaren garapen artistiko, zientifiko eta mentalerako; eguneroko beharraren ariketa osasuntsuak jarraitzen duen aisia sortzailea, ondo irabazia eta sozialki eskainia, nor-banakoaren gaitasun eta lehentasunen arabera.<sup>12</sup> (Bakunin & Dolgoff, 1980: 91).

Ezkerretik zein eskumatik aisia eta beharra estu lotu izan dira historikoki, kontrako kontzeptu gisa ulertuta, baina bata bestearen izaerari kateatuz, eta bestearen existentziagatik justifikatuz. Karl Marxentzat «Basatiak naturarekin borrokan egin behar duen bezala bere nahiak asetzeko, bizitza iraunarazi eta birsortzeko, eta hala egin behar du bere gizarte formazio guztietan, ekoizpen modu posible guztietan». (Marx, 1999: 571). Lana, beraz, giza beharra da –euskaraz ere hala esaten zaio: beharra– eta «Handik harantzago hasten da berezko helburua den giza energiaren ga-rapena. Benetako askatasunaren erreinua, zein beharraren erreinua oinarri hartuta bakarrik loratu daitekeen»<sup>13</sup>.

Beharraren –bizitza birsortu eta denon onura bermatuko dituen gainbalioa erdiesteari esango dio Marxek «sozialki beharrezko lana» (J. Haworth & Veal, 2004: 52)– eta giza askatasunaren erreinuaren arteko ezberdintasuna egiteaz batera, alda-rrikapen argia egingo du: «Lan egunaren laburtzea honen oinarritzko aurrealdintza da»<sup>14</sup> (1999: 571). Muga jarri behar zaio beraz lanaldiari, aisiarik gongo bada.

Lana ezinbestekoa izan daiteke, gure naturarekiko harremanaren lehen betebeharra, baina lanak mugak izan behar ditu, aisia izan dadin, pertsonak aisia izan dezan. Hala jasotzen du, halaber, marxismoarekin zerikusirik ez zuen pentsalari batek, Adam

<sup>12</sup> «For the privileged classes a life of luxurious idleness gradually leads to moral and intellectual degeneration. It is perfectly true that a certain amount of leisure is absolutely necessary for the artistic, scientific, and mental development of man; creative leisure followed by the healthy exercise of daily labor, one that is well earned and is socially provided for all according to individual capacities and preferences».

<sup>13</sup> «Just as the savage must wrestle with Nature to satisfy his wants, to maintain and reproduce life, so must civilized man, and he must do so in all social formations and under all possible modes of production. (...) Freedom in this field can only consist in socialized man, the associated producers, rationally regulating their interchange with Nature, bringing it under common control, instead of being ruled by it as by the blind forces of Nature: and achieving this with the least expenditure of energy and under conditions most favourable to, and worthy of, human nature. But it nonetheless still remains a realm of necessity. Beyond it begins that development of human energy which is and end in itself. The true realm of freedom, which however can blossom forth only with this realm of necessity as its basis».

<sup>14</sup> «The shortening of the working-day is its basic prerequisite».

Smithek, bere Nazioen Aberastasuna lanean: «Artzain batek aisia asko du; abeltzain batek, abeltzantzaren lur latzetan, badu zerbait; artisau edo fabrikatzailearen batek ez du ezer ere». (A. Smith, 2009: 412). Lanak zehaztuko du aisiarako aukera, aisiarako posibilitatea bera. Lana nolakoa, halako aisia, lana zenbatekoa, horrenbesterako aisia.

Pausu bat gehiago ere ematen du eskoziar ekonomialariak, lana eta aisiaren arteko harremanean: «Lehenak [artzainak], galerarik gabe eman lezake bere denbora borroka-ariketetan; bigarrenak [abeltzainak] zati bat eskaini liezaioke, baina azkenak ezin lezake honetan ordu bakarra ere eman galerarik jaso gabe, eta berezko interesak darama bere arreta modu naturalean ariketa hauek uztera»<sup>15</sup>. (A. Smith, 2009: 412). Smithek ez darabil, noski, *aisia* terminoa («leisure») egungo kontzeptu eta koordenatu berdinetan. Artzain, abeltzain eta langileek ariketa militarrek egiteko erabili zezaketen edo ezin zezaketen aisia horrek harreman handiagoa du Koshar-ek aipatzen duen aukeraren iraupenarekin<sup>16</sup> (Koshar, 2002: 3) jarduera aske eta atsegingarriagoarekin baino. Hala ere, argigarria da berriro ere lanarekin ezartzen duen harremana: Ogibidea zein, halako aisia.

Are argiago ageri da ezberdintasun hau lan bereko beste pasarte honetan: «Pertsona baten biziraupena, bere bizitzaren zati handiena hartzen ez duen lan batetatik datorrean, sarri lan egiteko prest agertzen da dituen aisia tarteetan bestela beharko lukeena baino soldata txikiagoagatik»<sup>17</sup>. (A. Smith, 2009: 101). Bere ongizate materiala bermatzen duen beharra amaitutakoan aisia duenak lan berriak aurkitzeko joera agertzen duela uste du Smithek, non soldata ez den jada hain garrantzizkoa izango motibazioa azaltzerako orduan<sup>18</sup>. Honek aisiaren kontzeptura garamatza zuzenean, zeinen ezaugarrietariko bat berezko motibazioa den<sup>19</sup>. Smithek garatutakoaren antzeko ideia jasotzen du, beste aldetik helduta bada ere, Patxi Juaristik euskaldunon balio postmaterialistei buruzko izen buruko saiakeraren izenburuan bertan: *Maiatzeko artoaren ardurak eta bost seme-alaba dauzkana ez dago musika bila* (Juaristi Larrinaga, 2009). Ardurak, beharrak itotakoak ez du ez astirikez gogorik aisiaren bila ibiltzeko.

Joffre Dumazedierrentzat aisia gizarte mailako egintza nagusia da, zeina beharrak balditzatzen duen eta zeinak beharrean eragiten duen aldi berean. Biek, lanak eta aisiak, osotasun bakar bat osatzen dute, eta ezin dira bata bestetik bereiztu (J.

<sup>15</sup> «A shepherd has a great deal of leisure; a husbandman, in the rude state of husbandry, has some; an artificer or manufacturer has none at all. The first may, without any loss, employ a great deal of his time in martial exercises; the second may employ some part of it, but the last cannot employ a single hour in them without some loss, and his attention to his own interest naturally leads him to neglect them altogether».

<sup>16</sup> «Duration of opportunity». Ikus ingelesezko leisure berbari dagokion atala.

<sup>17</sup> «When a person derives his subsistence from one employment, which does not occupy the greater part of his time, in the intervals of his leisure he is often willing to work at another for less wages than would otherwise suit the nature of the employment».

<sup>18</sup> Ikus beharra eta lanaren arteko ezberdinketa, etimologiari zuzendutako atalean.

<sup>19</sup> Ikus Aisiaren Psikologia, diziplina artekotasanari buruzko atalean.

Dumazedier & Maicas, 1964). Frantziar aisiaren soziologoaren ustez, beharra ezin izango da leundu, gizatiartu, aisia gizatiar baten aukera eta desira pizten ez dituen artean. Bestela esanda, beharra ez da gizatiarra ez badu giza aisiaren aukera edo nahia sortzen. «Finean, beharraren gizatiartzea aisiaren balioen bidez eta aisiaren gizatiartzea beharraren balioen bidez banaezinak dira»<sup>20</sup> (J. Dumazedier, 1950: 96). Dumazedierren ustez aisiak oinarrian askatzea eta plazerra dakartza, bere agerrera delakoa dela, baina hiru funtzio nagusi betetzen ditu, espainierazko bertsioan «hiru D-ak»<sup>21</sup> bezala ezagutzen diren sailkapen klasikoan (J. Dumazedier & Maicas, 1964): Atsedena, Dibertsioa eta Garapena. Atsedanak nekeari aurre egitea ahalbidetzen du, indarrak berreskuratu eta eguneroko betebeharrak eta beharrak berak sortutako higaduratik babestuz<sup>22</sup>. Dibertsioak asperdura eta monotonotasunaren aurkako erremedioa dakar, errutinatik ihesa, irudimenaren lantzea eta jolasa bera. Azkenik, Garapenak nortasun indibidual eta sozialaren lantzea ahalbidetzen du, hazkunde eta integrazio-rako bidea eskainiz.

Ezagun denez, Dumazedierrek proposatutako aisiaren hiru funtzioek lotura estua gordetzen dute uneoro beharraren munduarekin, dela ikuspegi erregenerazionista batetik, dela automatismoarekiko alternatiba gisa, dela beharrak eskaintzen ez duen garapenerako esparru bezala ulertuta. Hala egitean, aisiaren izaera lanari estu-estuan lotzean aisia lanak definitu eta justifikatuko du, bai lanaren osteko denbora fisiko modura, eta baita bere funtzio sozial eta pertsonalean ere, berriro ere lanera itzuli ahal izateko indarrak berreskuratzea izango baitu helburu. Aisia beharraren mende, beharrak azpiratuta agertuko da horrela, greziar kontzepzioaren aurkako zentzuan: aisia giza helmuga gorena izan beharrean, beharrera itzuli ahal izateko bitarteko bihurtuko da. Ez da harritzekoa kontraktotasun/osagarritasunak azpimarratzea, beharra eta aisiarekiko jarrerak giza kulturaren garapenean gai zentralak izan baitira aintzinako garaietatik (Veblen, 1899). Baina aisia eta beharraren arteko aurkaritzazko definizioek, argigarriak eta interesekoak izanagatik, arazoak agertzen dituzte.

EGIA DA LESLIEK, GIZARTE INDUSTRIALAREN FASE AUERRATUENETAN AISIAREN ETA BEHARRAREN ARTEKO SUBORDINAZIO HARREMANEAN IRAULKETA BAT DETEKTATZEN DUELA: «Jada ez zen gehiago beharraren izaera (edo iraupena) aisiarako espazio sozialak moldatzen zituen, baizik eta aisia, beharra nola definitzen genuen aldatu zuena, zer espero genuen harengandik, zenbatekoa behar lukeen bere iraupena, eta nola arautu beharko litzatekeen»<sup>23</sup> (Leslie, 2002: 15-16). Baina, Dumazedierrek gogoratzen duen bezala aisia-

<sup>20</sup> «En fait, l'humanisation du travail par les valeurs du loisir est inséparable de l'humanisation du loisir par les valeurs du travail».

<sup>21</sup> «Descanso», Diversion eta Desarrollo espainieraz.

<sup>22</sup> Ikus baita San Salvador del Valleren azterketa (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2006: 3, 37-43), aisiaren ulerkeraren erregenerazionistaren inguruan.

<sup>23</sup> «It was no longer the character (or duration) of work that carved out new social spaces for leisure practice but rather leisure that changed how we defined work, what we expected from it, how long it

ren hazkundera (bai kuantitatiboki zein kualitatiboki) ez zen berdina izan klase sozial guztietan. (J. Dumazedier, 1950: 23).

Behar eta aisiaren arteko harremana zehaztearen problematika ez da hor amaitzen, ordea. Izan ere, bataren eta bestearen arteko mugak ez dira beti argiak, eta ez dira beti leku berean aurkitzen gizarte guztietan, ez eta talde guztientzat. Muga marrazteak arazoak sortzen ditu, lana non hasten den eta non amaitzen den ez baita berdin gertatzen giza talde guztietan. Aurretik ere aipatu dugun bezala, izan dezakeenak bakarrik du aisia, eta biziraupen material eta arau sozialek erabat baldintzatzen dute esparru bakoitzera sarbidea.

Vealen aburuz aisia eta beharraren arteko muga lausoak historiaurreko komunitate ehiztari-biltzaileetan, «Zatiketa lerro argien gabezia dela eta ehiza eta bilaketa zeregin eta beste ekintzetara zuzendutako denboraren artean halako gizarteetan»<sup>24</sup> (Veal, 2004: 17), zein egungo gizarte industrialetako emakume eta gizonezkoen arteko desoreketan aurkitu daitezke: «emakumeen aisiaren inguruko ikerketak ohartzarazi digu Mendebaldeko gizarte garaikidean denek ez dutela lana eta aisiaren arteko banaketa formala bizi izan»<sup>25</sup> (Veal, 2004: 15). Izan ere gizarte industrialaren baitan behar askok ordaindu gabekoa izaten jarraitzen du, eta ez dugu ekonomia industrialaren ataltzat ez aitortuta, ez eta sarituta.

Bestalde, ustez argi marraztutako beharraren eta aisialdiaren esparruetan ere ñabardurak identifikatu ditzakegu. Alde batetik, lanaldian ere aisiarako aukerak eman daitezke eta ematen dira (J. T. Haworth & Veal, 2004; Igarza, 2009; A. R. Stebbins, 2004) eta bestetik aisia lan taldeen sendotzerako, negozio harremanak errazteko eta erakundeetako sormena eta berrikuntza bultzatzeko esparru gisa ulertzen da egun, ikus, bestela, enpresa gizon-emakumeen jarrera golfaren praktikarekiko (D. Harris, 2005: 262) edo aisiarekin lotutako pizgarriak eta sari bidaiak lan taldeetan.

Are gehiago, zenbait lan aisiarekin nahasten dira; Stebbinsek adibidez sarri aztertu du amateur eta profesionalen arteko muga: «Lan mota bat, hemen 'zaleen lana' deituko dena, hain da erakargarria, ezen funtsean aisia den bertan dihardutenentzat (...) jarduera batzuetan ematen den lanaren eta aisiaren arteko antzekotasuna gizateria bere lanabesak apaintzen hasi zenetik data dezakegu, gutxienez»<sup>26</sup>. (A. R. Stebbins, 2004: 2).

should last, and how it should be regulated».

<sup>24</sup> «Because of the lack of any clear dividing line in such societies between time spend engaging in actual hunting and gathering tasks and time spend in other activities».

<sup>25</sup> «...research on women and leisure has drawn attention to the fact that not everyone in contemporary Western society has experienced the formal compartmentalisation of work and leisure».

<sup>26</sup> «Some work, called here "devotee work," is so attractive that it is essentially leisure for those engaging in it. (...)the similarity of work and leisure in certain activities dates to, at least, the era when humankind started decorating its tools of work».

Azkenik, aisiak beharretik asko duela argudiatzen du Chris Rojek-ek bere *Aisiaren beharra* (*The Labour of Leisure*) liburuan. Ikerlariaren ustetan, gizarte industrialetan ohikoa da aisia eta askatasuna lotzea, baina biak dira kontzeptu bitxiak, «aukera 'askea' eta beharrari lotuta ez dagoen jarduera»<sup>27</sup> beharrerako gaitasuna eta hiritartasunarekiko ardurarekin lotuta agertzen diren neurrian (Rojek, 2009: 2). Soziologo britainiarraren esanetan «Eguneroko bizitzan sinesgarritasuna eraiki eta gaitasuna bistaratzea ikasitako portaera da, eta etengabeko energia eta ahalegin esanguratsua eskatzen ditu», eta «aisiaren eremua da eguneroko bizitzaren gai hauek landu, trukatu eta fintzen diren ardatza»<sup>28</sup>. (Rojek, 2009: 3). Beraz, Rojek-en ustez aisia sinesgarritasuna eta gaitasuna agertzearekin lotuta ageri da egungo gizarteetan eta, hortaz, lan emozionala kontzeptu zentrala izango da aisiaren praktika eta formak aztertzerakoan. Bestela esanda, aisia besteei nor garen, zer baloratzen dugun eta zertan ezberdintzen garen adierazteko baliatzen dugu egungo gizarteetan, eta, hartara, beste behar mota baten aurrean aurkitzen gara.

Bestela esanda, «Laneko eta lanez kanpoko esparruetan gaitasunaren psikologiaren mantendu beharraren eskakizuna garrantzi handikoa da aisia eta jolasaren iker-tzaileentzat astia eta astialdiaren nozio tradizionalak zalantzak jartzen dituela baitirudi. Galde genezake gaitasunen bistaratzera leialki zuzendutako pertsona batek aisia izan dezakeen batere»<sup>29</sup>. (Rojek, 2010). Theodor Adornok ere, antzerako lerro batean astialdiak gizarte kapitalistetan produktibismoarekiko agertzen duen menpekotasuna azpimarratuko du, aisia beharraren eskakizunetara makurtzeko tresna bezala salatuz (Adorno, 1991).

Kritika horiez gain, euskarazko beharra eta lanaren arteko bereizketa baliatuz gogoratu beharra dago aisia eta lanaren arteko kontrakotasuna sarri erratua dela, eta beharrari lana, ahalegina, eskaintzen diogun bezala, aisiari ere hala eskaintzen diogula, hala aukeratzen dugunean. Lan honetan sarri aipatuko dugun aisia humanistaren oinarriak, greziar filosofo klasikoek defendatu zuten aisiak, asko du ahaleginetik, zeina berez gehiago lotzen zaion oro har lanari gure egungo gizarteetan aisia kontsumista soilari baino. Roberto Igarzak bere «Aisia burbuilak» lanean argudiatzen du lanaren aldia eta aisiaren aldiaren arteko mugak ez direla argiak eta finkoak; aitzitik problematikoak, aldakorrek eta irazkorrek direla: «Plazerraren, atsedeneren eta aisiaren aldia kontsumoaren aldi bilakatzen joan zen heinean,

<sup>27</sup> «'free' choice and non-work activity».

<sup>28</sup> «Building credibility and displaying competence in everyday life is learned behaviour and requires significant and continuous energy and effort» eta «The field of leisure is the focal point in everyday life where these matters are addressed, exchanged and refined».

<sup>29</sup> «The requirement to hold and maintain a psychology of competence in work and non-work settings is highly relevant for students of leisure and recreation. For it appears to compromise and undermine traditional notions of time-off and free time. To be sure, it is open to question whether a person who is faithfully attuned to the display of competence can be said to have leisure at all».



ekoizpenerako aldiaren eta beste bizitza denbora guztiaren arteko ezberdintasunak gutxituz joan ziren». (Igarza, 2009: 37)<sup>30</sup>.

Kontrakotasun hau, Igarzaren hitzetan, bi paradigmatan laburtu daiteke: «paradigma liberal-kontsumista», zeinak aisia atsedena eta lanarekiko liberazioa balitz bezala ulertu eta astialdia kontsumorako espazio bihurtzean bilatzen duen, eta «paradigma sortzaile-kulturala», zeinak hezkuntza, sormen eta kultura-balio eta prozesuak integratu nahi dituen aisialdian, eta gehiago hurbiltzen den *otium*-en definizio klasikora egungo masa-kontsumismora baino. (Igarza, 2009: 39)<sup>31</sup>.

Finean, esan daiteke aisiak betebeharrak eta eginbeharrek menderatu gabeko esparru batean kokatzen gaituela, doakoak diren, euren baitakoaz bestelako erabilera edo helbururik ez duten ekintzak burutzeko eremu aipatzen. Aisiazko egiteak bizirau-pen material eta eginbehar hutsetik aldentzen dira (janaria, edaria, sabaia...) baina horrek ez du esan nahi egite horiek gizakiarentzat ezinbestekoak ez direnik, izan ere, «Aisiak eragin zuzena du autoestimuan, kontrolean, gaitasun sentsazioan, garapen pertsonalean eta egiten dugunaren zentzuan» (Cuenca, M., 2010:14).

Aisiaren fenomenoak, berau izendatu eta ulertzeko era ezberdinek bezala, eboluzio sakona jasan du giza historian, eta bereziki XX. mendean, eta giza elkarte eta kultura ezberdinetan ez ezik, norbanakoengan ere beroni buruzko usteak eta iritziak askotarikoak eta, sarri, kontraesankorrak dira. Ondorengo ataletan aisiaren kontzeptuak hizkuntzan dituen hiru agerpenetan murgilduko gara, hiru hizkuntzetan hurbilketa terminologiko-kontzeptual bat eginez, definizio eta ulerkera aberastasun hau jasotzeko.

### 1.1.1. LEISURE

Ingelesa egungo hizkuntzarik hedatu eta indartsuena izaki, ezaguna da beronen eragina, zientzia naturalan eta humanitatean ez ezik, mundu osoko eguneroko jardunean, bereziki hedabideei eta aisiazko produktuei dagokienean. *Leisure Studies* direlakoak ere ez dira salbuespena, Aisiazko Ikaskuntzen adar bizi eta indartsuena izatea ingelesez garatzen baita lan hau idazteko garaian. Hala ere, ez da atal honen helburua aisia ikertzaileen hizkera berezitua aztertzea, terminoak ohikoak dituen adierak ezagutzeko baizik. Gatozen, bada, hitzaren orainera, terminoaren jatorrira joan aurretik, eta hel diezaiegun bere esanahi zabalduenei, bere esangura zientifikoa murgildu aurretik.

Ingeleseko *leisure* berbak egun dituen adiera ohikoenak ezagutzeko Wikipedia entziklopedia digitala abiapuntu proposa izan daiteke, web oinarritun iturri editagarria

<sup>30</sup> «A medida que el tiempo de placer, de descanso y de ocio se fué convirtiendo en un tiempo de consumo, las diferencias entre el tiempo para producir y el resto de tiempo de vida fueron menguando».

<sup>31</sup> «La oposición puede resumirse en dos paradigmas: a) el paradigma liberal-consumista que interpreta el ocio exclusivamente como el descanso y la liberación del trabajo y que busca hacer del tiempo libre, sobre todo, un espacio de consumo; b) el paradigma creativo-cultural que procura integrar, en el tiempo de ocio, valores y procesos provenientes de la educación, la creación y la cultura, y que se aproxima más a la definición clásica de *otium*». (Igarza, 2009: 39)

eta lankidetzaren digitalaren bidez eraiki eta etengabe berreraikitakoa den heinean, etengabeko eztabaida, fintzea eta kontrastea bultzatzen ditu-eta bere edukietan. Hartara, hitzen definizioerik adostuenak eta «gaurkotuenak» aurkezten dizkigu. «Leisure» sarreran aisia enpresa, beharra eta etxeko lanetatik at ematen den denbora bezala definitzen da, behin behar-beharrezko ekintzak (jana, loa, derrigorrezko hezkuntza...) burututakoan (Wikipedia, 2011b). Ez bakarrik inplizituki, esplizituki ere «Free time» edo astiaren sinonimotzat jotzen da: beharrezkoa, ezinbestekoa, derrigorrezkoa ez denaren baitan.

Aurretik ere ikusi dugun legez, aisia eta lanaren arteko kontrakotasuna eta astialdiarekin nahasmena oso ohikoak dira literatura ez espezializatuan, eta berbaren kaleko esanahiaren adibide argia erakusten digu. Hiztegi tradizionalagoetara joz gero, berriz, Random House hiztegiak ere «lan eta betebeharren eskaeretatik askatasuna» bezala definitzen du leisure berba, eta liberatutako denborarekin parekatzen du, non «norberak atsedean hartu edota hobby eta kirolez gozatu dezakeen». Azken adiera gisa presarik gabeko erraztasuna gaineratzen du, euskaraz *aisetasun* gisa itzuli genezakeena (Dictionary.com unabridged. 2011)<sup>32</sup>. Encarta hiztegiak, aldiz «norbaitek betebehar edo lan-erantzukizunik gabe duen denbora, eta beraz jarduera atsegingarritz bete lezakeena» dakar gogora, bigarren dimentsio bat gehituz betebehar ezari: atsegingarria denaren bilaketa (MSN encarta U.S. english dictionary. 2011)<sup>33</sup>.

Collins hiztegiak ere oso antzerako adierak aurkezten ditu: Erlaxazio edo zaletasunetarako denbora edo aukera, («*being at leisure*») eta astia izatea eta okupatuta edo lanpetuta ez egotea («*at one's leisure*»), norberarentzako astia dagoenean. (Collins: English dictionary. 2011)<sup>34</sup>. Denbora eta aukera, beraz, arrasto eta izendatzaile komunak leisure terminoaren gaur espezializatu gabeko definizioetan. Literatura espezializatura joz gero, arazoa konpondu baino zaildu egiten dela dirudi. Edginton, Coles eta McClelland-en *Leisure Basic Concepts* lanean aisia eta olgetaren 200 definiziotik gora jasotzen baitira (Edginton, Coles, & McClelland, 2003).

Hitzaren jatorria aztertzen jarrita, Douglas Harperren ustez ingelesezko «leisure» hitzak tradizionalki «zerbait egiteko aukera» eta «norberaren eskura dagoen denbora» esan nahi izan duela ikusi daiteke (Harper, 2010). Autoreak berak jasotzen duen legez, «etimologiak ez dira definizioak, gure hitzek duela 600 edo 2000 urte zuten esangura eta soinuaren azalpenak dira»<sup>35</sup> baina jatorrizko definizio horretan bi osagai antzeman ditzakegu adieraziari dagokionez: denbora eta aukera.

<sup>32</sup> «1. freedom from the demands of work or duty. 2. time free from the demands of work or duty, when one can rest, enjoy hobbies or sports, etc. 3. unhurried ease: a work written with leisure and grace».

<sup>33</sup> «Time during which somebody has no obligations or work responsibilities, and therefore is free to engage in enjoyable activities».

<sup>34</sup> «Leisure n. 1. time or opportunity for relaxation or hobbies, 2. at leisure having free time, not occupied, 3. at one's leisure when one has free time, Old French *leisir*».

<sup>35</sup> «Etymologies are not definitions; they're explanations of what our words meant and how they sounded 600 or 2,000 years ago».

Adierazia une batez alde batera utzi eta adierazleari helduz gero, «leisure» frantsesezko «leisir» eta «loisir» berbekin lotuta dagoela ikusi dezakegu «baimena, denbora librea, aisia» izatearen zentzuan. Bi hitzek, leisure eta leisir-ek latinezko «licere» dute sustrai noski: baimenduta edo onartutakoa bezala itzul litekeena, eta «lizenztzia»-rekin lotutakoa. (Harper, 2010). Laburbilduz, ingelesezko «leisure» hitzak asko du aukeratik, norberaren arabera antolatu daitekeen denboratik, eta erroan latinezko baimen edo askatasuna. Hala jasotzen du Rudy Kosharrek *Aisiazko historiak* (Histories of leisure) lanean (Koshar, 2002: 3):

Gutxitan pentsatzen dugu aisiaz aukeraren iraupena eta berandu baino lehen zilegi den denbora bezala, baina hemeretzigarren mendean ondo sartuta, (baita agian hogeigarrenean ere) ohikoa zen norbaiti entzutea zerbait egiteko aisia hartuta zuela, beste zerbait gertatu aurretik. Ideia hau guztiz aurkakoa zaio aisia zerbaiten ostekoa denaren egungo zentzuari. Are arraragoa zaigu aisia eginkizun jakin bat burutzeko aukera espezifikoa gisa ulertzea<sup>36</sup>.

Hortaz, XIX. mendeko ingeles hizkeran, aisia «aukeraren iraupena», edo «berandu baino lehen zilegi den denbora» bezala uler zitekeen. Hartara, ez litzateke beharrezko ostean gelditzen den denbora edo astia, zerbait egiteko berezko aukera baizik, non zerbait hau edozein ataza izan zitekeen, baita lana bera ere. Kosharren ustez, hortaz, leisure terminoaren jatorrizko adiera aukeran eta denboran datza. Gogoratzekoa da agian zentzu honetan skholē berbari jatorrian ematen zitzaion adiera: «hitz hau betebeharren premiarik gabeko denbora lasaia eta bake garaietako jarduera zehatza izendatzeko erabiltzen zen» (Segura Munguía & Cuenca Cabeza, 2007: 17). Premiekiko askatasuna, bake garaia, lasaitasuna, eta aisiazko jardueretarako aukera.

Greziar klasikoen eta XIX. Mendeko ingelesaren arteko kideztaren adibide ederra eskaintzen digu Gutenberg Proiektuari esker eskuragarri dugun Aristotelaren «Politika» lanaren hemeretzigarren mende hasierako ingelesezko itzulpenak (Aristotle, 1912): «... gehiengo nekazaritza eta artzaintza bidez bizi den tokian koka daitekeela, hauen jabegoa txikia den arren ez baitira aisian izango asanblada publikoak egiteko, aldiz etengabe lanpetuta jarraituko dute bakoitzak bere irabazbidean, bestelako bizi-biderik izan gabe...»<sup>37</sup> [1318b]. Gehiengo baserritarreko lurraldean laborariek ez lukete etengabe asanblada publikoak antolatu eta bertan parte-hartzeko aukerarik, astirik izango, bizi ahal izateko haien onbideei ekin beharko baitiete ezinbestez. Hortaz, *leisure* berba aukera edo astia bailitzan darabilte lan klasikoaren itzultzaileek.

<sup>36</sup> «We rarely think of leisure as duration of opportunity and time allowed before it is too late, but well into the nineteenth century (and perhaps into the twentieth) it was common to hear of someone having the leisure to undertake something before something else occurred. This notion stands diametrically opposed to the now regnant sense of leisure as coming after. Even rarer is the idea of regarding leisure as a specific opportunity to carry out a defined task».

<sup>37</sup> «... where the majority live by tillage or pasturage; for, as their property is but small, they will not be at leisure perpetually to hold public assemblies, but will be continually employed in following their own business, not having otherwise the means of living...».

Bada esaera zahar bat ingelesez, aukera-askatasun honen beste adiera ezkorrago bat ezin hobeto jasotzen duena: «Marry in haste, repent at leisure». Ezkontza azkarrak damutzeko aukera ugari dakar gerora. Esaera horren aldaerak aurki ditzakegu William Shakespearen «Piztia Menderatua» komedian (1593-1594) premia-  
ren eta aisiaren arteko kontrakotasuna agertuz Katherinen hitzetan<sup>38</sup> (Shakespeare, Wells, & Taylor, 2005: 40). Baita Lord Byronen «Don Juan»en ere: «Gorrotoa da atsegin luzeena, gizakiek premia maite baitute, baina nahi beste gorroto»<sup>39</sup> (Lord Byron, 1837). Premia (*haste*) eta aisia (*leisure*) hiru iturrietan ageri zaizkigu, damua eta gorrotoarekin lotuta, baina baita plazerrarekin ere (*pleasure*) erriman agortzen ez den harremanean. Aipagarria da, halaber, ingelesez aisia adierazteko hitz erabiliena leisu-  
re bada ere, «otiose» berba ere badela bere baitan. Zehatzago esateko, antzua, zirtzila, inaktiboa denaren zentzua hartzen du, landatu gabeko lugorriaz ariko bagina bezala. Frantsesezko «oiseux», espainierazko «ocioso» eta italierazko «otioso»-rekin alderatzen du Harperrek (2010).

Oro har, hala ere, lau adiera nagusi jasotzen dira ingelesezko leisu-  
re berbarekin. Lehenengoa, aisia denbora bezala: «aisia existentziarako beharrezkoa denetik haratago dagoen denbora da, biologikoki egin behar ditugun gauzak, bizitzeko eta bizirauteko, bizimodua irabazteko... *hautazko* denbora da, gure iritzi edo aukeraren arabera erabiltzeko denbora» (Brightbill (1960) quoted in Edginton *et al.*, 2003: 2)<sup>40</sup>. Bigarren, aisia jarduera bezala: «Bere itxurazko sinpletasunaren arren, aisia askatasun erlatiboz hartutako beharraz kanpoko jarduera bezala ulertzea terminoaren eguneroko erabilerarekin bat dator, eta formula soziologiko sarkorra izan daiteke»<sup>41</sup> (K. Roberts, 1978: 3). Hirugarren, aisia ekintza bezala: «Aisia, edozelan ere, ekintzan gauzatzen da, ez soilik sentipen edo umorean. Askatasuna aisiaren dimentsio ezinbestekoa bada, ekintza barne hartzen du»<sup>42</sup>. (Kelly, 1996: 23). Eta azkenik, aisia esperientzia bezala:

Ez dio axola nondik hasten garen, aisiak jendearentzat duen esanahiarekin aurre egiten aurkitzen dugu gure burua (...) gogamen egoera, orientazioa, jarrerak, baldintzak, esperientzia edo aisiazko aktorearen definizioa. Aisia ez datza denboran edo jardueraren forman, baizik eta aktorean. (Kelly, 1996: 20-21).

<sup>38</sup> «Unto a mad-brain rudesby full of spleen; Who woold in haste and means to wed at leisure».

<sup>39</sup> «Now hatred is by far the longest pleasure; men love in haste, but they detest at leisure».


<sup>40</sup> «leisure is time beyond what which is required for existence, the things which we must do, biologically, to stay alive... and subsistence, the things we must do to make a living... It is discretionary time, the time to be used according to our judgment or choice».

<sup>41</sup> «Despite its apparent simplicity, regarding leisure as relatively freely undertaken non-work activity is broadly consistent with the everyday use of the term, and can also be a penetrating sociological formula».

<sup>42</sup> «Leisure, however, is realized action, not just a feeling or mood. If freedom is the essential dimension of leisure, then action is implied». Ikus baita Chris Rojek-en ekintza adieraren berrikuspena Aisiazko Ikaskuntzetan. (Rojek, 2005a).

Kellyk lau adiera hauek esaldi bakarrean kondentsaten ditu, «Aisia bere horretan aukeratzen den ekintza da» dioenean<sup>43</sup> (Kelly, 1996: 22). Hortaz, aisia ez da soilik jarrera edo gogamen egoera, subjektuaren jardueraren definizioa baizik. 2. irudian jaso dugun eskemarekin laburbilduko du ikertzaileak lau adieren arteko harremana:

## 2. IRUDIA: AISIAREN ADIERAK (LEISURE)



Iturria: norberak egina. (Kelly, 1996: 22).

Aisiaren adierazle eta adieraziek ingeles hizkuntzan hartu dituzten forma eta aldaerak berrikusita, goazen espainieraren kasua aztertzerara.

### 1.1.2. OCIO

Gaztelaniazko «ocio» berba aztertzerakoan ere hurbilketa bikoitza erabiliko dugu: egungo hiztegien definizioak alderatuz lehenengo, eta hitzaren jatorria aztertuz gero. Ingeleseko kasuan bezala, Wikipedia elkarlaneko entziklopedia kontsultatuz gero ere joera antzeratsua ikus dezakegu (Wikipedia, 2011c). Entziklopedia digitalak proposatzen duen definizioa zatikakoa eta zatikatua da, zazpi perpaus ezberdin baten ditu pasarte berean, eta bakoitzak esanahiaren ikuspuntu ezberdin bat agertzen du. Puntu batzuetan kontraesankorra izatera iristen da, aisia astia izango balitz bezala agertuz «aisia deritzogu jardueretara bideratzen dugun astiari...» eta aisia jardura bezala «aisia beharretik atsedean hartzeko burututako ekintza bezalakoa da» jasoz aldi berean. Era berean, subjektibotasun handia aitortzen dio kontzeptuari: «aisiazko jardueren banaketa ez da zehatza, eta pertsona bakoitzari dagokio»<sup>44</sup>.

<sup>43</sup> «Leisure is activity that is chosen for its own sake».

<sup>44</sup> «Se llama ocio al tiempo libre que se dedica a actividades que no son ni trabajo, ni tareas domésticas esenciales y pueden ser recreativas. Es un tiempo recreativo que se usa a discreción. Es diferente al

Izan ere, kapitulu honen hasieran esan bezala, aisia zer den eta zer den zehaztea ez da erraza, eta betiere eguneratzen ari den definizio adostu eta ireki batek kaleko esanguren aniztasuna eta konplexutasuna jasoko ditu ezinbestean. Orokorrean, hala ere, aisia betebeharrei ez dagokien eta jostetarakoak izan daitezkeen jardueri bideratzen zaien astia bezala definitzen du *ocio* berba, euskarazko bertsoaren parekoa den lehen pasartean<sup>45</sup>. Denbora bezala definitzen du beraz, Wikipediak, astia, lehenengo terminoan, eta gerora lanetik (eta lanerako) atsedeen hartzeko egiten den jarduera bezala. Hala ere, aisiaren izaera subjektiboa ere jasotzen du definizioak, pertsona bakoitzarentzar aisiazko jardueren eta betebeharren arteko bereizketa ezberdina izan daitekeela ohartarazterakoan.

Espainiar Erret Akademiaren arabera, *ocio* hitzak lau adiera ditu<sup>46</sup> (Real Academia Española, 2011), lehenik eta behin sustrai erromatarra azpimarratuz (otium). Lehen adierak jardueraren gelditzeari, lanaren eteteari egiten dio erreferentzia, aisia inakzio edo gelditasunaren ideiarri lotuz. Kasu honetan beharra baino lana eta aisiaren arteko kontrakotasuna azpimarratzen du Akademiak, aisia gelditzearekin, jabantzearekin, jarduera edo ekintza faltarekin parekatuz. Aisia, hortaz, lanaren osteko, edo lanaren aurreko, tarte patxadatsua izango da.

Bigarren adieran aisia pertsonaren eskura dagoen astia bezala azaltzen da, aisia eta astialdia sinonimotzat hartuz. Argigarria da pertsonari egiten zaion erreferentzia, fenomenoaren dimentsio soziala alde batera uzten delarik printzipioz. Hala, pertsonak bere eskura duen denbora liberatua izango da aisia, adiera honen arabera; objektiboki eskura duen astia. Lehenengo adierari lotuz gero, astia hau pertsonak betebeharretatik libro denean, lana suposatzen dion zereginik ez duenean izango du.

Hirugarren adierak pausu bat gehiago ematen du, aisia dibertimendu eta jarduera sosegatuarekin lotuz. Bestelako zereginetatik atsedena hartzeko aukera gisa azpimarratzen dira jarduera hauek, batez ere asmamen lanei dagokienean, eta, hortaz, olgeta edo jolasaren zentzua hartzen du adierak, betebeharretatik atsedeen eta arnasa hartzeko tarte gisa. Gogora dezagun Aristotelesek jolasari ematen dion garrantzia atsedeen hartzeko bitarteko gisa: «Jolasak betebeharren artean burutu behar dira gehiago, lanak atsedena behar baitu, eta jolasak atsedenerako dira» (Politica, 1337b 5-18). Greziar fi-

---

tiempo dedicado a actividades obligatorias como son comer, dormir, hacer tareas, etc. El ocio es como una actividad realizada para descansar del trabajo. Debe tener, como toda actividad, un sentido y una identidad, ya que si no tiene sentido es aburrido. La distinción entre las actividades de ocio y las obligatorias no es estricta y depende de cada persona, así estudiar, cocinar o hacer música puede ser ocio para unos y trabajo para otros, pues estas últimas pueden hacerse por placer además de por su utilidad a largo plazo. Al ocio se lo puede emplear en actividades motivadoras y productivas».

<sup>45</sup> Ikus «Aisia» hurrengo orrialdeetan.

<sup>46</sup> «(Del lat. otium). 1. m. Cesación del trabajo, inacción o total omisión de la actividad. 2. m. Tiempo libre de una persona. 3. m. Diversión u ocupación reposada, especialmente en obras de ingenio, porque estas se toman regularmente por descanso de otras tareas. 4. m. pl. Obras de ingenio que alguien forma en los ratos que le dejan libres sus principales ocupaciones».

losofoak jolasa eta aisia bereizten dituen arren, hirugarren adiera honek sinonimotzat hartuko ditu jolasa eta aisia, Otium kontzeptu erromatarra gehiago hurbilduz.

Laugarren adiera ere norabide berean doa, esplizituki norbanakoak «bere egiteko nagusiek libre uzten dioten tarteetan»<sup>47</sup> landu edo osatzen dituen asmamen egintzak aipatuz. Giza asmamenarekin, trebetasun eta jeinuarekin izango du harremana beraz aisiak, baina betiere behin betebeharrak konplitutakoan, berauek uzten dituzten tarte askeetan. Lau adierei begiratuta beraz, Espainiar Erret Akademiaren *Ocio* berbaren definizioak argiro agertzen du aisia betebeharrak eta beharrekiko menpekotasun egoera batean. Gaztelerazko *ocio* hitza aztertzerakoan bereziki indartsua egiten da adierazle eta adierazien (termino eta esanahiaren) arteko eta adiera ezberdinen arteko tentsioa. Gaztelaniazko aisiaren adierazlea (*ocio*) zuzenean latinezko otium-etik badator ere, eta terminoak eta kaleko erabilerak erromatar kontzepzioetik jaso izanagatik eragin handiena (beharra harturik gizaki eta gizartearen helburu nagusitzat, eta aisia lanera itzultzeko atsedena tarte) ezin ahanzi daiteke grezia klasikoko balioen indarra maila akademiko eta intelektualean, non skholē greziarraren kutsu jaso agertzen duen (hiritar askeen pribilejioa, aisia erantzulea, askatasunerako formakuntza, jolas hutsa ez dena...).

Izan ere, espainierazko «ocio» terminoa latinezko lan klasikoetatik mailegatu-tako kultismoa da. San Salvador del Vallek sustrai latindarraren arrastoa jarraitzen du pasarte honetan:

Kasu batzuetan haren jatorri latindarrari lotuta ageri zaigu, tripalium edo nec-otium-ari kontrajarrita, doakotasun, lanik eza eta askatasunarekin kateatuta. Beste kasu batzuetan, termino berak karga gutxiesgarri orokorra darama harekin lotuta, zein ocioso (alfer) bezalako adjetiboetan azaltzen den, edo ociosidad (aisiakeria) bezalako substantiboetan. (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 56)<sup>48</sup>.

Egia da egun *ocio* hitzak termino jasoaren eta kutsu negatiboaren arteko oreka zaila agertzen duela espainieran, batez ere amerikar kontinentean, gaztelaniaz kutsu baikorragoa eskuratu duelarik azken urteetan Espainiar Estatuan. Historikoki aisiakeria bizio bezala ulertu izan da, eta alferkeriaren eta lan egin nahi ez izatearen sinonimo gisa hartua izatearen zantzuak agertzen ditu gaur egun ere. Espainiar Erret Akademiaren Hiztegiak XIX. mendetik XX.era artean terminoaren gainean egindako eboluzioa aztertutakoan Cuencak «bere bilakaera oso urria» izan zela deritzo eta lanaren osteko atsedena, dibertimentua eta «nork bere zeregin nagusiek uzten dizkioten alditxoetan burutzen dituen asmakizun-lanak» aipatzen ditu (Cuenca Cabeza, 2011: 19). Haatik, Cuenca irakasleak onartzen du pentsamendu

<sup>47</sup> «... ratos que le dejan libres sus principales ocupaciones».

<sup>48</sup> «En unos casos, aparece vinculado a su origen latino, contrapuesto a tripalium o nec-otium, engarzando con la idea de gratuidad, no-trabajo y libertad. En otros casos, este mismo término lleva asociada una genérica carga peyorativa plasmada en adjetivos, como ocioso, o sustantivos, como ociosidad».

eta ikerketa akademikoan bilakaera eta berrikusketa semantikoa biziagoa izan dela eta dela, kale hizkuntzan baino, non bizio eta alferkeriaren ideiak sustrai indartsuagoak agertu dituen.

Oro har esan genezake gaztelaniazko ocio berbaren adiera jasoak, kultuak, lan-duenak, greziar skholēaren idealera hurbiltzen direla, aisia giza jardueraren ardatz gisa harturik. Kaleko erabileran aldiz, erromatar otiuma hartuko da oinarri, aisia beharrera itzultzeko bitarteko bezala ulerturik, beharrak justifikatuko duelarik aisia, eta aisiakeria eta alferkeriaren susmoa gainean duelarik betiere. Behin espainieraz aisiarekin harremana duten termino eta kontzeptuak aztertuta, errepara diezaiogun euskararen kasuari.

### 1.1.3. AISIA

Aurreko bi kasuetan bezala, euskarazko aisia hitzaren egungo esanahiak eta terminoaren jatorria eta bilakaera aztertuko ditugu ondoren. Kontzeptuen arteko kontrakotasun sinpleegietan erortzea saihestu behar dela esan dugunez, bukatzeko euskarak lana eta beharrekiko egiten duen bereizketa aipatuko dugu, kontzeptualki argigarria ez ezik lan honetarako esanguratsua ere badelakoan.

Egungo definizioari helduta, Wikipediaren arabera «aisia lanetik eta bizitzaren funtsezko ekintzetatik at dauden ekintzak dira. Horretarako erabiltzen den denbora tarte aisialdia edo astialdia da. Gehienetan, helburu ludiko edo kulturaletarako erabiltzen da aldi hori: kirolak, lorezaintza, brikolajea, jolasak, denborapasak...».(Wikipedia, 2011a). Kasu honetan, jarduera hartzen da aisiaren funta izango balitz bezala, eta bereizketa garrantzitsua egiten da berau burutzen den denborekiko (aisialdia edo astialdia). Aisia ekintza beraz, denbora batean gertatzen dena, eta «gehienetan» helburu ludiko eta kulturaletarako erabiltzen dena. Aurreago ikusiko dugun legez<sup>49</sup> ez gatoz zehatz-mehatz bat bereizketa honekin, baina interesgarria da, hala ere, entziklopedia digitalak aisia, astialdia, aisialdia eta aldia bereizten dituela ikustea, orotara aisia jarduera mota baten sinonimotzat hartzea murriztailea den arren.

Harluxet hiztegi entziklopedikoaren bertsio digitalak aisia «Lanik edo zereginik gabeko denbora, atsedenezko, erosotasunezko egoera, bereziki lanetik kanpo gertatzen dena eta nahi den eran bete daitekeena» bezala definitzen du (Harluxet, 2011a). Denbora izango da, beraz, gakoa, *aisia* definitzerako orduan. Betebehar, lan edo zereginik gabeko tarte, non (noiz) norbanakoa eroso egon daitekeen, atsedean har dezakeen, eta jarduera ezberdinak burutzea aukeratu dezakeen. Berrito ere kontrakotasunezko definizioa aurkitzen dugu: lana ez den tarte edo garaia izango da aisia, non lanaldiak eragindako nekearengandik atsedean har daitekeen, eta lanean hartu ezinak diren erabaki atsegingarriak har daitezkeen. Eusko Jaurlaritzaren Hiru.com etengabeko ikaskuntzarako atariaren hitzetan, aldiz «Asiaren definizio bat hau-

<sup>49</sup> Ikus Astia-Aldia-Aisia eredu kapitulu honen amaieran.



xe dugu: Pertsona baten denbora-tarte librea. Dibertimendu edo egiteko lasaia, batez ere adimenari dagokion lanetan, horiek erregulararki beste zereginetatik atsedean har-tzeko egiten direlarik». (Hiru.com, 2011).

Denbora, libertatea, dibertimentua, lasaitasuna eta atsedena dira gakoak beraz, Hiru.com-entzat, aisia zehazterako orduan, aurreko definizioarekin bateragarria den proposamen honetan. Hala ere, elementu berritzaile bat ere aurki dezakegu: modu erregularrean egiten diren lanei egiten baitie erreferentzia. Aisia ez da, beraz, bete-beharretatik aske dagoen denbora tarte soilik, errepikatzen diren jardueren aukeraketa ere bada. Gerora ikusiko dugunez ideia honek berebiziko garrantzia izango du, Stebins bezalako autoreentzat, aisia aztertzerako orduan.

Honekin lotuta, interesgarria da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Nerabeen *Aisialdi Antolatua Gipuzkoan* lana gogora ekartzea. Bertan, aisia zer den eta zer ez den kontzeptualki zehazterako orduan definizio anitzak daudela jasotzeaz gain, Puig Rovira eta Trillasek *Pedagogía del Ocio* lanean proposaturiko sailkapena (Puig Rovira & Trillas, 1996) dakarte gogora definizio hauek kokatzeko. Hala, «aisiaren inguruko definizioak sailkatu daitezke hiru dimentsioren arabera: 1) aisiaren denbora. 2) aisiaren bizipen subjektiboa. 3) aisiaren ekintza edo jarduera motak» (Martínez García, Hernández García, & Berrio-Otxoa Otxoa de Angiozar, Kontxesi, 2000: 10). Bistakoa denez, orain artean bildutako definizioak sailkapen honen arabera kokatu daitezke zailtasun handirik gabe. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren eta Hiru.com webgunearen definizioak aisiaren denboraren dimentsioari dagozkie batez ere. Wikipediak, aldiz, aisiaren ekintza edo jarduera motei egiten die, gehiago, erreferentzia.

Terminoaren jatorri eta bilakaerari dagokionez, ezagutzen den euskarazko lehen liburuan, Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*-n ondorengo pasartea aurki dezakegu: «Judizio jeneralaz nola orhit eztira / Bekhatuan bizi dira bethi bere aisira / Egun hartan gal ezkiten aizinetik begira / Han orduian eztukegu ehork ere aizina / Harzaz unsa orhitzia zuhurzia handi da»<sup>50</sup>. (Dechepare, 1545: 20).

Aisia bekatuarekin lotuta ageri zaigu, *Doktrina Kristiana* olerki erlijiosoaren baitan. Ezjakintasuna, berekoikeria eta jainkoaren hitzarekiko oroitzapen falta egozten dizkio Etxeparek aisiari. Finean, nork bere plazera jainkoaren nahien gaitetik jar-tzea. «Munduan den gizon orok behar luke pensatu / Iangoikoak nola duien batbedera formatu / Bere irudi propiara gure arima kreatu / Memoriaz borrontatez endelgiuz goarnitu» (Dechepare, 1545: 6) gogorarazi ondoren, «Judizio Jenerala»-ren lehen pasartea darabil, lagun urkoari ohartarazteko bertute kristaua dela lehenatasuna, eta ez norbere plazera. Olerkiak Etxepareren jatorrizko grafian ere aurkezten dituen Patxi Altunaren edizio kritikokan *aysira* berba «Judicio gene-

<sup>50</sup> Egungo euskera batuara itzulita, honela irakurri liteke pasartea: «Epaia orokorraz oroitzen ez direnez, nahi erara bizi dira bekatuan. Egun hartan gal ez gaitezen aurretiaz pentsa dezagun, orduan ez baitugu inork astirik izango, horretaz ondo pentsatzea zuhurtzia handia da».

ralaz nola orhit eztira / Beccatutan vici dira bethi vere aysira» honela azaltzen da definituta *aysira*: «beren gogara, alegia, gogoak ematen dien eran». (Altuna, 1980: 49). Aisia, beraz, askatasunarekin, norberaren gogo eta asmoekin lotuta agertuko zaigu, hortaz, nahiz eta Eyheralarreko erretore eta Donibane Garaziko bikario izanak bekatuarekin ere lotuko duen ezinbestean.

Testu erlijiosoekin jarraituta, Pedro Agerre «Axular»-en «Gero» lan klasikoan ere aisia atsegina eta plazerarekin lotzen da zuzen-zuzenean. «Etzen ez orduko trabaillatze hura, penagarri izanen, orai bekhatu eginez gero bezala. Baiña hura izanen zen atsegin hartze bat, eta bere plazerera, eta aisiara zegoela, bere indarraren eta anzearen frogatze bat». (Agerre, 1643: 12).

Baina are gehiago, Paradisuko egunetaz ari dela, San Tomasen hitzak<sup>51</sup> hartzen ditu oinarri jainkoak emandako lana, «trabaillatze hura», «lur-lantzea, aphaintzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea» (Agerre, 1643: 12) bekaturik gabeko paradisuan penagarria ez zela esateko, non gizakiak, bere «aisian zegoela», bere indar eta gaitasunaren frogatze, eta erronka bezala hartuko zuen lana.

Aisiaren arriskuez ere jakitun dela agertzen du Axularrek pese pasarte batean, aisiaren forma kaltegarriak aipatzerakoan: «Zeren berehala iendea, alferkeriari, ian-edanari, erran-merranei, eta aisiak dekhazkeien gaixtakeria suerte guztiei emanen zeuela». (Agerre, 1643: 18). Axularrek Gero-n aisiarekiko azaltzen duen posizioa argi baino argiago laburbiltzen du ondorengo pasarteak: «Letra gabeko aisia, deus eztakienaren alferkeria, gizon biziaren hobia da, eta sepultura. Zeren deus eztakiena, eta egiten ere eztuena, presuna hillaren eta ehortzirik datzanaren pare baita». (Agerre, 1643: 26). Aisiak beraz, formazioa, prestakuntza behar du, jakituria bat behar du, giza bizitzaren parte izateko, ezer ez jakin eta ezer ez egitea<sup>52</sup> hilda egotea bezalakoa baita (Lertxundi, 2009). Aisia beraz, bizitzaren sinonimo izango da Axularrentzat, baina ez edozein aisi, jakina, alferkeriaren kontrakoa den aisia baino.

Axularren testua argigarria da aisia eta lanaren arteko harremanaz hausnartzeko orduan. Paradisuko «trabaillatze hura» aipatzen du lurreko lan nekatu, penagarri, bekatuarekin lotutako hori zeruko lan aske, atsegin emale, aisiazko harekin alderatzeko. «Esperantza hunekin neguak uda, gauak egun, uriak atheri, minak gozo, trabailuak aisia...» (Agerre, 1643: 319). Beharra eta aisia alderatzen ari da Axular, jakin badakielako giza beharra gogorra eta latza dela, negua, gaua, euria, mina bezala, baina baduela bere alde ona, uda, eguna, aterpea eta gozamina dau den bezala.

<sup>51</sup> «Nec tamen, illa operatio esset laboriosa sicut post peccatum, sed fuisset jucunda, propter experimentum virtutis naturae. Custodia etiam illa non fuisset contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret ne ipsum amitteret peccando».

<sup>52</sup> Ikus aisiaren koordinatuak: Aisia absentea.

Hartara, aisia eta beharra kontrakotasun harremanean agertzen zaizkigu berriro ere. Antzera dihardu Joanes Etxeberri «Sarakoak» jakinduria eta ezjakintasuna be-reizterakoan:

Jakintasuna, eta ennorantzia baliatzen dira bi harma diferentez; Batak darabila nekhea, eta travaillua: Bertzeak aisia, eta alferkeria; jakintasanak edo zientziak gerla egiten dio ennorantziari nekhearen, eta travailluaren bidez, harma hautaz garaitzen du. Halaber ennorantziak ere aisiaren, eta alferkeriaren bidez kontra egiten dio jakintasanari, trabatzen du, eta irabazten diotza hainitz izpiritu gai eder, eta batzuetan, munduan diren adimendurik haltoenak, eta gairik hoberenak; batzuek estudiantu zuketelarikan aisia, eta alferkeria dela kausa, estudiantu gabez, eta bertzeak estudiantu ondoan halaber aisiari, eta alferkeriari bere buruak emanez, eta ikhasi zutena ahantz-tera utziz. (Etxeberri, 1718: 10).

Kasu hauetan, urrun gelditzen da antzinako greziarren skholé-aren ideia, non aisia lanarekin, ahaleginarekin bateragarri agertzen zaigun, giza garapenerako esparru gisa ulertuta: «...greziarrek lanaren eta egiteko desinteresatuen artean bereizten zuten, zeinek ez ziren ahalegin gabekoak (...) Platon eta Aristotelesek defendatu zuten aisia ahaleginarekin eta askatasunaren egikaritzarekin lotuta dagoena da». (Segura Munguía & Cuenca Cabeza, 2007: 12-13), eta aztertutako euskarazko tradizioan aisia erosotasun, atseden eta alferkeria gisa agertzen zaigu gehienetan.

Euskal tradizioak badu, hala ere, kontzeptu hauen arteko muga eta ustezko kontrakotasun absolutua zalantzan jartzeko adibide polita: Herri Kirolak. Denak ala denak, nola edo hala, baserritarren eguneroko behararekin lotutako jarduerak (egurra moztu, lurra landu, pisuak altxatu, uzta jaso...) <sup>53</sup> eta, hala ere, kirol, jolas eta joko bihurtuak. Gabriel Arestik idatzi eta Oskorri taldeak kantu bihurtutako «Guretzat» olerkiak ezin hobeto jasotzen du lana jolas bihurtzeko joera hau: «Guretzat berdin dira / astea eta jaia / lana bihurtzen dugu / kantatzeko gaia / Har ditza-gun eskuan / giltza eta laia / gariz eta burdinaz / lantzeko Bizkaia». (Oskorri, 1976).

Harluxeten arabera *lana* «Gizakiaren jarduera, zerbait egitera edo eskuratzera bideratua; delako jardueraren emaitza» da bere lehen adieran (Harluxet, 2011b). Helburua duen jarduera, beraz, eta jarduera horrekin lortutakoa. Gerora datoz jarduera profesionala (sartu edo ordaindutako jarduera gisa), ahalegina eta emaitza edo ondorioaren adierak, fisikako definizioarekin batera («Indar baten eta bere ezartze-gu-nearen lekualdatzearen bektore-biderkadura»).

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak espainieraz «trabajo, faena, labor, tarea, quehacer» eta frantsesez «Travail, peine, affaire» bezala itzultzen du lana berba (Euskaltzaindia, 2011b). *Behar* aldiz, espainieraz «Necesidad, urgencia; po-

<sup>53</sup> Euskadiko Herri Kirol Federazioaren arabera 18 dira Euskal Herriko Herri Kirolak: Aizkora, Giza-Abere probak, Harri jasotzea, Harri zulatzaileak, Ingude altxatzea, Lasto altxatzea, Lasto botatzea, Lokotx biltzea, Orga jokoa, Sega, Sokatira, Trontza, Trontza, Txinga-Ontzi eramatea eta Zaku eramatea (Euskadiko Herri Kirol Federazioa, 2011).

breza, penuria; obligación, deber; (euf.) necesidad corporal» bezala itzultzen du, eta frantsesez «Besoin, nécessité» gisa (Euskaltzaindia, 2011a). Azpimarratzekoa da Orotariko Euskal Hiztegiak zehazten duela frantsesezko ezin hitz ez dagokiola zehazki *behar* berbari<sup>54</sup>.

Badu, era berean, batez ere bizkaieraz, lan edo betebeharraren zentzua, eta *Iesusen Imitazionea* lan erlijiosoan jasota ageri den legez, nahiago luke gizakumeak haietatik libratu: «Ezen iatea, edatea, iratzarri ibiltea, lo etzatea, pausatzea, travaillatzea, eta naturalezaren bertze gainerako beharren azpian egoitea, segur miseria eta aflikzione handian gizon debotarentzat; nahi bailuke hetarik eta bekatu guzietarik libratua baliz» (Pouvreau, 1979: 42). Libratu ezinik, baina, bekatuari bezala, aurre egitea besterik ez dagokio.

### 1.3. AISIAREN ETA AISIAZKO IKASKUNTZA

Aisiaren existentzia bezala, harekiko ardura gizartea bezain zaharra dela susma dezakegu, eta aisiaren lehen izendapena grezia klasikoan zehaztu dugun arren, giza alor honekiko interesa ez zen aro klasikoan hasi, ez eta harekin batera amaitu ere. Zientziak harreman askotarikoa eta oparoa izan du aisiarekin, eta aisiarekin lotutako hainbat galdera eta erantzun planteatu ditu gizakiak historian zehar.

Aisiarekiko interes zientifikoa bereziki bizia izan da XX. mendean zehar. Lanfantek jaso bezala, «aisiari buruzko eztabaida etengabekoa izan da Historian (...) Gure mendea ez da salbuespena (...) Aisiaren arazoaren bidez ekoizpen sozialaren benetako helburuaren arazoa planteatzen da» (Lanfante, 1978: 18)<sup>55</sup>. Ekoizpen soziala eta beronen antolaketa eta helburuei buruzko ideologia eta planteamenduak (antagonikoak sarri) giza historian etengabeak izan diren heinean, aisiarekiko ardura ere ardatz izan da gizakiarentzat, gizarte ikertzaileentzat eta ideia sistema ezberdinentzat. Hala ere, Robertsek adierazi bezala, bereizketa garrantzitsu bat egitea ezinbestekoa da, aisiaren ikaskuntzaren eta Aisiatzko Ikaskuntzen artean:

Aisiaren ikaskuntza eta Aisiatzko Ikaskuntzak bereiztu behar ditugu. (...) XX. mendearen hasiera –eta erdialdetik– aurrera aisiari buruz ikertu eta idatzi denean, familiaren, tokian tokiko komunitateen edo lanbide jakin batzuetako pertsonen bizitzari buruzko ikerketen barne izan da. (...) Ikerketa modu horrek, zeinak aisia erdialdetik kanpo uzten duen, oraindik ere bere horretan darrai. (K. Roberts, 2010: 165)<sup>56</sup>.

<sup>54</sup> «Aucun mot français ne correspond exactement à *behar*, qui se rend le plus souvent par ‘besoin’, mais qui comporte aussi le sens d’obligation, de devoir».

<sup>55</sup> «La discusión sobre el ocio ha sido permanente en la Historia. (...) Nuestro siglo no es ninguna excepción. (...) A través del problema del ocio, se plantea el de la finalidad real de la producción social

<sup>56</sup> «We need to distinguish the study of leisure from Leisure Studies. (...) Throughout the early – and

Aisia XX. mendean giza eta gizarte zientzietako diziplinetatik intentsiboki aztertua izan bada ere, eta Lanfantek iradoki bezala, finean gizarte zientzien eta gizarte antolaketa ereduaren muinean egon bada ere honekiko ardura, ikerketa inplizitua, osagarria izan da neurri handi batean, ez agerikoa eta zentrala.

Aisiazko Ikaskuntzek, aldiz, esplizituki hartzen dute aisia ikerketa objektutzat. San Salvador del Valleren hitzetan, gizarte industrialaren sorreraren ostean bakarrik hitz egin daiteke beren beregi Aisiazko Ikaskuntzez (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2006), lau eragileren elkarreraginaren bidez: sektore publikoak (gizartean eta araugintzan eskuhartzeko ahalmenaz), sektore asoziatiboak (egoerak salatzeko aukeraz), ekimen pribatuak (aisiaren alorrean etekinak irabazi eta hazteko asmo eta gaitasunaz) eta hiritargoak (sujetu aldarrikatzaile den heinean) alegia.

Ikerlariaren aburuz, fenomenoaren hedapenak ahalbidetuko zuen, hartara, Aisiazko Ikaskuntzen berauen agerrera eta hedapena: «Egite behagarriaren materializazioarekin ziurtatzen da behatzailearen agerrera, bere teoria eta metodologia». (2006: 1)<sup>57</sup>. Hortaz, Aisiazko Ikaskuntzen hasiera XX. mende hasieran kokatzen da, aipatutako lau eragileen agerrera eta sendotzearekin batera, eta mendearen lehenengo erdian egonkortuko diren arren esparruaren interesguneak bigarren erditik aurrera emango da Aisiazko Ikaskuntzen garapen osoa. Gogoratu beharra dago aisiari zehazki lotutako formakuntza planak, Ipar Amerikan XX. mende hasieran hasten diren arren, Europako unibertsitateetan XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan sortzen direla aisiazko gaietan zentratutako lehen unibertsitate sailak.

Are gehiago, Aisiazko Ikaskuntzei jatorri eta joera ezberdina nabari zaie kokalekuaren arabera (Cuenca Cabeza, 2006a: 11-12). Hala, Ameriketako Estatu Batuetan gehiago lotzen zaizkie ingurune naturalari, parke eta espazio naturalei eta olgetaren bidezko pedagogia eta terapiari. Europan, berriz, tradizio handiagoa dago askatasunaren eta gizakiaren garapenaren filosofiari lotuta, batez ere soziologia, politika eta ekonomiaren esparruetatik edanez. Karla Hendersonek ingelesezko tradizioan ere bereizketa geografikoa identifikatzen du *leisure sciences* eta *Leisure Studies*-en artean, lehena ipar amerikar perspektibetan kokatuz, eta bigarrena britainiar eta Europar perspektibetan (Henderson, 2006)<sup>58</sup>, kategorien arteko dikotomiak sarri azalekoak gertatzen direnaz ohartarazten duen arren.

San Salvadorrek tradizio eta garapen lerro ezberdinetan kokatzen ditu ingelesezko *Leisure Studies* eta espainierazko *estudios de Ooio*, ahultasun eta atzeratze

---

mid-20th century, leisure was researched and written about, usually as part of studies of the family, local communities, or the lives of people in specific occupations. (...) This kind of research, where leisure is offcentre, is ongoing».

<sup>57</sup> «Y con la materialización del hecho observable se asegura la aparición del observador, su teoría y metodología».

<sup>58</sup> «Leisure scientists refer primarily to research conducted from North American perspectives and Leisure Studies researchers refer to British and European perspectives».

egoera batean kokatuz bigarrena, gutxiago ezagutu eta aitortzen den deiturapean (2006: 1)<sup>59</sup>. Zer esanik ez euskarazko ekoizpen teorikoaz, zeinaren produkzio gehiena astialdiko eskolen inguruan gertatu den, eta lan klasiko eta esanguratsuen itzulpenez gain, gehiago kokatuko genukeen aisiaren ikaskuntzen baitan, beren beregi Aisiazko Ikaskuntzetan baino.

### 1.3.1. DIZIPLINARTEKOTASUNA

Aisiazko Ikaskuntzak diziplina akademiko ezberdinetatik abiatzen dira, eta azken hamarkadetan aisiak pertsonen eguneroko bizitzan eta industria mailan hartutako indarrak (ikus bestela aisiaren sektoreak ekonomian eta enpleguan duen garrantzia) gaiarekiko interes akademikoa ere piztu ditu (Bull, Hoose, & Weed, 2003). Interes akademikoa eta aisiaren errealitatearekiko ardura hartu duten esparruen ugaltzearekin batera, ezinbestekoa da diziplina aniztasunak, diziplina artekotasunak eta diziplinaz haranzkotasunak duten garrantzia azpimarratzea (Madariaga Ortuzar, 2008). Diziplina bakoitzak kontzeptu, tresna, oinarri, eredu eta iturrien ekarpena dakar, eta, hori dela eta, aisiaren ezagutzan lagundu du (Cuenca Cabeza, 2006b).

Aisia giza fenomeno konplexu eta anizkoitza izanik, bizipen subjektiboarekin eta esperientziaren balioarekin harreman zuzena duena, Jaime Cuencak azpimarratzen duen gisa, diziplinen metodologia partzialen pentsamendu eredu zurrutetan erori gabe praktikan esperientziaren balioa aztertzeke erronka dute aurrean Aisiazko Ikaskuntzek (Cuenca Amigo, 2010: 248). Aisiaren diziplinarteko izaera aitortu ez ezik ospatu eta sustatzen duen erreferentziatzko obra da «Aproximación Multidisciplinar a los Estudios de Ocio» (Cuenca Cabeza, 2006a), eta besteren artean ekonomia, estetika, etika, pedagogia, marketina, psikologia, zuzenbidea, osasuna, politika eta soziologiatik egindako ekarpenak azaltzen dira bertan. Cuenca irakasleak liburuaren sarreran jasotzen duen legez, Aisiazko Ikaskuntzen funtsezko ezaugarria da aisiarekiko hurbilketa globala (Cuenca Cabeza, 2006a); diziplina akademiko tradizioaletatik nekez jasoko baita bere osotasunean, aldi berean norbanakoaren esperientzia eta gizarte fenomeno bezala hartuta. Cuencaren ustez Aisiazko Ikaskuntza eguneratu batzuen «ideala» (2006a: 13) diziplina artekotasunean kokatzen da, aisiaren fenomenoaren bizipenari eta hiritarraren egunerokotasunari buruz galdera erantzun globalak ikerketa esparru ezberdinetatik eskaintzea baita aisiazko ikerlarien helburua.

Ondoren diziplina eta esparru ezberdinetatik Aisiazko Ikaskuntzetara egindako ekarpenak laburbilduko ditugu, diziplinartekotasun honen adibide gisara: Aisiaren Soziologia, Aisiaren Psikologia, Aisiaren Pedagogia, Aisiarako Eskubidea, Aisiazko Politikak, Aisia eta Osasuna, Aisiaren Ekonomia eta Aisiaren Estetika hurrenez hurren.

<sup>59</sup> «... una denominación menos reconocible y reconocida como es Estudios de Ocio».

Aisiaren Soziologiarentzat, bereziki garrantzitsua izango da pertsona, talde eta gizartearen arteko harremanetan sortzen diren egoera enpirikoak aztertu eta azaltzea (Setién Santamaría, 2006b: 201). Bertan kokatzen dira Aisiaren Ikaskuntzetako zenbait lan klasiko, Thorstein Veblen-en «Aisiazko Klasearen Teoria» (Veblen, 1899), edo Lafargueren Alferkeriarako Eskubidea (Lafargue, 1999) kasu, baita Rojeken «Aisia eta kultur» testu garaikidea ere (Rojek, 2000).

Aisiaren Psikologiarentzat, aisia esperientzia subjektiboa da beste ezeren gainetik, gogamen egoera (Gorbeña Etxebarria & Martínez Rodríguez, 2006: 124). Neulingerrek aisiaren definizio psikologiko bat erdiesteko astialdia eta aisia bereiztu beharra azpimarratzen du, askatasun somatua, berezko motibazioa eta ez-instrumentaltasuna aipatuz aisiaren osagai psikologiko erabakigarri gisa (Neulinger, 1981). Aipatzekoak dira halaber Iso-Aholaren «Aisia eta Olgetaren Gizarte Psikologia» (Iso-Ahola, 1980) non norbanakoaren esperientziak eta gizarte eta inguruarenean eraginak elkarreraginean agertzen diren eta Mihaly Csikszentmihalyi-ren «Jariora» (Csikszentmihalyi, 1991) zeinetan aisiazko esperientziaren maila gorenen gakoak aztertzen diren.

Aisiaren Pedagogiak hezkuntza eta aisiaren arteko harreman estua hainbat modutan aztertu du historikoki: aisiaren eragina bizi-kalitatean, gakoak, hezkuntza eskuhartzearen helburuak, pertsonen. Elkarrean eta aisiaren profesionalen hezkuntzari dagokionez berriz, Astialdiaren Pedagogiatik hasi eta Aisiarako Hezkuntza azpimarratu izan dira, egun indar handiagoa duen Aisiaren Hezkuntzaraino (Madariaga Ortuzar, 2008). Aisiarako eta Aisiaren Hezkuntzaren artean, Cuencak bigarren kontzeptuaren alde egingo du aipatutako lanean, aisiaren pedagogiaren esparrutik:

Aisiaren Hezkuntzaren berariazko zentzua ez da hainbeste asperdurarengandik askapena edo kontsumo gizarteetan ugaltu diren orban sozialak saihestea; pertsonaren aldarrikapena da, bere askatasun arduratsua eta bere eskuzabaltasuna. Gogobetetzearen defentsa da, erabilgarritasunaren gainetik, edo, nahi bada, gure ekintzen berdefinizioa, baliagarritasuna, erabilgarritasuna eta oinarritzko beharrianak ez diren irizpideen arabera. (Cuenca Cabeza, 2006c: 83)<sup>60</sup>.

Edozelan ere, aisiaren garrantzi sozialarekin batera, harekiko hezkuntza eta formakuntzak duen garrantzia ere haziz doala gogoraraziko du egileak: aisia goranzko eskaera duen ikaskuntza-eremu gisa azaltzen da, bai aisiazko bizimodu eta praktika berrietarako trebeziak ikasi beharregatik, bai zenbait ikaskuntza aisiatzat hartzen hasi izanagatik (Cuenca Cabeza, 2011: 113).

<sup>60</sup> El sentido específico de la Educación del Ocio no es tanto la liberación del aburrimiento o la prevención de las lacras sociales que han proliferado en las sociedades de consumo, es la reivindicación de la persona, de su libertad responsable y su generosidad. Es la defensa de lo satisfactorio por encima de lo útil o, si se quiere, la redefinición de nuestras acciones en función de criterios diferentes a la utilidad, lo utilitario y las necesidades básicas.

Aisiaren Hezkuntza bazter utzita, Zuzenbidearen eta Etikaren diziplinen tartean koka daiteke Aisiarako Eskubidea; izan ere, esparru honek zuzenbidezko printzipioak aztertzen ditu, irizpide etikoetatik ere edanez.

Aisiarako eskubidea, nazioarteko aldarrikapenetan jasota ez badago ere, herrialde demokratikoen kontzientzia moralaren parte da: hauen gizalegezko etikan presente dago. Moraltasuna, zentzu horretan, legearen aurretik doa. (De la Cruz Ayuso, Cristina, 2006: 77)<sup>61</sup>.

Zuzenbidea gizakiak gizarte bizitza antolatzeko duen tresna izanik (De Angel Yagüez, 1993), pertsona orok aisiara sarbidea eta aukera eta honetaz gozatzeko eskubidea duela bermatzeko eta eraldaketa sozialerako erraminta<sup>62</sup> gisa ulertzen du Aisiarako Eskubideak:

(...) aisiaren jardueraren funtsa gizakiaren balore nagusietarik bat da, askatasuna, ezin baita inor behartu gozatzera, pozik egotera, gauzen ikuspegi ludiko edo sortzaile bat izatera, edo jai bat bizitzera (...) Askatasuna pertsonaren duintasunaren oinarria da, zeinaren helmuga eta zentzua norberaren garapena den, norberaren izatea, eta aisiak plataforma ezinhobea eskaintzen du hau lortzeko». (Lázaro Fernández, 2005: 3).

Aisia balio positibotzat hartzen da horrela, askatasunerako eta berdintasunareko oinarri bazterkeria soziala sufritzen duten pertsonentzat aisiak duen garrantzia, ezgaitasunak dituzten pertsonena kasu, azpimarratuz: «Ezgaitasuna duten pertsonen berdintasunezko eskubideak ez datoz ezgaitasun baldintzetatik, baizik eta haien herritar izaeratik» (Lázaro Fernández, 2005: 4). Aisiarako Eskubidearen gako garrantzitsuak dira irisgarritasuna, sarbidea, eta inklusioaren kontzeptuak (Gorbeña Etxebarria, González Prieto, & Lázaro, 1997; Lázaro Fernández, 2004; Madariaga Ortuzar, 2008), bereziki bazterketa egoeran dauden giza taldeekiko –ezgaitasuna duten pertsonak, adin nagusikoak, gutxiengo etnikoak...– jardunean (Bull *et al.*, 2003: 91).

Politika da, nola ez, aurrekoarekin zuzenean lotuta dagoen beste aisiazko esparru bat. Izan ere, aisia norbanakoaren ardura gisa ulertzera jotzen badugu ere, gizarte mailako gertakaria den heinean, fenomeno politikoa ere bada (ekonomikoa, zuzenbidezkoa, giza eskubidezkoa, diru-laguntza eta eskuhartze publikoarekin lotutakoa...). San Salvador del Valle (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000; San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2006) jasotzen duen gisa Aisiazko Politiken (eta berauen ideologien) analisiak praktika politikoa hobetzeko helburua du, erabakitze eta diseinu prozeduren ezagutzan sakontzearekin batera. Izan ere,

<sup>61</sup> «(...)el derecho al ocio, aunque no recogido en declaraciones internacionales, forma parte de la conciencia moral social de los países democráticos: está presente en su ética cívica. La moralidad, en este sentido, va muchas veces por delante de la propia ley».

<sup>62</sup> «El Derecho es una realidad que cambia al hilo de las transformaciones sociales y, a su vez, es un factor de cambio y transformación social» (Lazaro, 2005: 32).



«aisiaren fenomenoak eragin positiboak sortzeko gaitasuna dauka ekonomiaren dibertsifikatzean (...) eta ondorio kaltegarriak sortzeko ahalmena du, harreman-eskuhartze gisa politiken bihotzean integratzen ez denean».(San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 40)<sup>63</sup>.

Osasunak ere aisia eskuhartzerako esparru eta metodo gisa ulertu du, bizi-estilo osasuntsuetarako duen garrantzia ikusirik, osasuna gaixotasun eza baino «ongizate fisiko eta sozialaren ongizate erabatekoa» bezala ulertuta<sup>64</sup> (Grad, 2002). Hartara, aisia eskuhartzerako eta egoera ez-osasuntsuen prebentziorako tresna eta aldaketa pertsonal eta sozialerako estrategia bezala ulertzen da. Juan Francisco López Paz-entzat aisia eta osasuna estu-estuan lotuta daude, aisiak osasun fisiko eta psikikoan eragiten dituen ondorio positiboak direla eta, eta aisiak pertsonen arazoei aurre egiiteko baliabideak dituztela sentitzen laguntzen dielako (López Paz, 2006: 173-174), babes sozialaren pertzepzioa eta autodeterminazio maila handituz.

Ikuspegi ezberdin batetik, Marta Álvarez Alday jasotzen duen gisa, aisialdian burutzen diren jarduera guztien eragin ekonomikoa aztertzen du Aisiaren Ekonomiak.(Álvarez Alday, 2006: 23). Oro har, ikerlariak ekonomiaren funtsa ondasun eta zerbitzuak ekoizteko baliabide urrien esleipena dela, eta zentzu horretan Aisiaren Ekonomia beharrian oinarritzkoenak asetuta dituzten gizarteak «luxua» dela (Álvarez Alday, 2006: 21) gogorarazten du. Hala ere, Gizarte postindustrialean (Bell, 1973: 37) zerbitzuek industriari gaina hartu diotela gogoratzeaz batera, aisiaren sektoreak egungo ekonomian duen zentralitatea azpimarratzen da behin eta berriro (Bull *et al.*, 2003: 109; Gratton & Taylor, 1992: 29; Weiermair & Mathies, 2004). Izan ere, aisia egungo gizarte kapitalistetako giltzarria bihurtu da. Aisiaren Ekonomiaren gaiaren helburu eta anbizioari buruz, aldiz, Álvarez Alday honako galdera luzatzen du bere hausnarketa diziplinarrean:

Agian erronka jarri beharko genioke gure buruari galdetuz aisiak, bere garrantzia ekonomiko indartsuarekin, katalizatzaile lana egin dezakeen eraginkortasunaren izenean esklabo bihurtutako giza talde izatetik –guretzako eta gutarrentzako asti urriarekin, baina agian beharrezkoak ez diren ondasun eta zerbitzuz gainezka-haien hausnartu eta aukeratutako beharrianen asebetetzea bilatzen duten gizartee-tara, planetako pertsona guztien eta ondorengo belaunaldien oinarritzko beharrianen asetzea aztertu eta bermatzeko moduan<sup>65</sup>. (Álvarez Alday, 2006: 22-23).

<sup>63</sup> El fenómeno del ocio tiene la capacidad de generar efectos positivos, que pueden ser de vital importancia en la diversificación de la economía (...)y tiene la capacidad de provocar efectos perversos, allí donde no se integra en el corazón de unas políticas como intervención relacional.

<sup>64</sup> «A state of complete physical, mental, and social well-being and not merely the absence of disease or infirmity».

<sup>65</sup> «Quizá debiéramos plantearnos el reto de considerar si el ocio, con su importante trascendencia económica (...), puede ser el catalizador que nos haga pasar de ser grupos humanos esclavizados en aras

Azkenik, ikerlariak berak gutxi landutako eremua dela onartu arren, agian arrazoi beragatik hain zuzen ere, bereziki interesgarria suerta liteke lan honen helburuetarako Maria Luisa Amigok proposatzen duen Aisiaren Estetika hurbilketa, zeinetan estetikak Aisiazko Ikaskuntzei egin diezaiekeen ekarpena hiru esparrutan iradokitzen duen: aisiazko esperientzian, dimentsio ludikoan eta dimentsio sortzailean<sup>66</sup> (Amigo Fernández de Arroyabe, Maria Luisa, 2006). Esperientzia estetikoaren eta aisiazko esperientziaren arteko lotuneak eta bateratasunak azpimarratzeaz gain beronen aktibotasuna eta parte hartzea defendatzen du autoreak: «(...) nahikoa da eskuartean olerki bat hartu eta cuadro bati so egitea esperientzia dinamikoa dela eta gure aldetik ahalegina eskatzen duela jakiteko; harremanak bereiztu, sistema sinbolikoak ezagutu edo esanahia argitzeko»<sup>67</sup>. (2006: 43).

Aisiaren Estetikak subjektuaren aktibotasuna eta partehartzea nabarmenduko ditu aisiazko esperientziaren eraikitze eta bizipenean: «Aisia subjektuaren ekintzaren eta borondatearen araberakoa da, gertakizunen, egunerokotasunaren edo fenomeno kulturalen aurrean hartzen duen jarreraren araberakoa»<sup>68</sup>. (2006: 44). Finean, bizipen estetikoaren azterketak berau aisiazko esperientziarekin estu-estuan lotzen duela ondorioztatzen du egileak, gutxienez hiru ezaugarri komun identifikatuz: esperientziarekiko jarrera, aukera askatasuna eta autotelismoa. (2006: 56).

Noski, ez dira hemen amaitzen Aisiazko Ikaskuntzetan eman diren pausu diziplinarrak eta aurkeztu diren binomio emankorrak. Aurkeztutako kategoria orokorren pean ere gai espezifikagoak aurki daitezke, baita, tradizio zientifiko ezberdinetatik edota biztanleriaren sektore espezifikoetara egokitze aldera egindako sakontze ariketak ere. Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko bibliografia oparoari erreparatuta berehala ekarri daitezke gogora besteak beste:

Aisia eta ezgaitasuna (Cuenca Cabeza, 1997; Cátedra de Ocio y Minusvalías, 1995; De la Cruz Ayuso, Cristina, 2003; Gorbeña Etxebarria *et al.*, 1997; Lázaro Fernández, 2004; Setién Santamaría, 2000), Aisia eta bizi-kalitatea (Setién Santamaría, 2000), Aisia eta aukera berdintasuna (Cuenca Cabeza, 1999a), Aisia eta Historia (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2006), Aisia eta prestakuntza (Cuenca Cabeza, 1999b), Aisia terapeutikoa (Gorbeña Etxebarria, 2000a), Aisia eta

---

de la eficiencia —con poco tiempo para nosotros y nuestros allegados pero desbordados de bienes y servicios que quizá no sean esenciales— a sociedades que persiguen la satisfacción de sus necesidades —meditadas y elegidas— y de manera que se contemple y garantice la cobertura de las necesidades básicas de todas las personas del planeta de ésta y de las generaciones venideras».

<sup>66</sup> Ikus aisiaren dimentsioei dagokion atala.

<sup>67</sup> «(...) sólo hay que tomar en las manos un poema o mirar un cuadro para saber que la experiencia es dinámica y requiere un esfuerzo por nuestra parte para discernir relaciones, identificar los sistemas simbólicos o desentrañar el significado».

<sup>68</sup> «El ocio depende de la acción del sujeto, de su voluntariedad y, por tanto, de la actitud que adopta ante los acontecimientos, la vida cotidiana o los fenómenos culturales».

osasun mentala (Gorbeña Etxebarria, 2000b), Aisia eta artea (Amigo Fernández de Arroyabe, Maria Luisa, 2000), Aisia eta garapena (Csikszentmihalyi, Cuenca Cabeza, Buarque, & Trigo, 2001), Aisia eta emakumezkoak (Setién Santamaría & López Marugán, 2002), Aisia eta gizarte boluntariora (Caride Gómez & López Paz, 2002), Aisiaren kudeaketa (Apraiz & Iribar, 2003), Aisia eta kirola (Fraguela Vale, Varela Garrote, Caride Gómez, & Lera Navarro, 2009; Monteagudo & Puig, 2004), Aisia solidarioa (Cuenca Cabeza, 2005), Aisia eta Gizarte Psikologia, Aisia eta marketina, Aisia eta enpresa, Aisia eta gazteak, Aisia eta nagusiak, Aisia eta sufrimentu psikikoa beharrean (Monteagudo, 2007), Aisia eta lana (Aristegui Fradua, 2012), Aisia eta denbora (Cuenca Cabeza & Aguilar Gutierrez, 2009), Aisia eta espazioa (Lazcano Quintana & Doistua Nebreda, 2010), Aisia eta kontsumismoa, Aisia eta Antropologia, Aisia eta museistika, Aisia eta umeen eskubideak, Aisia eta etengabeko ikaskuntza edota Aisia eta heziketa fisikoa (Aguilar Gutierrez & Rubio Florido, 2006).

Lan honen esparrura itzulita, Aisiazko Ikaskuntzek eta hedabideen eta masa komunikazioaren azterketak elkartruke emankorragorik izan ez izana harritzekoa da, masa hedabideek eta Aisiak industria mailan eta gizarte industrializatuetakoko pertsonen egunerokotasunean duten garrantzia ikusita. Baina harrigarri ala ez, gutxi dira esplizituki masa komunikazioa eta aisia aipatzen dituzten ikerketak (Glyptis, 1983), eta are gutxiago Aisia eta Komunikazioa diziplinaren erakuntzaren alde egiten dutenak (Kennedy & Thornton, 2004). Aisia esanguratsua da hedabideekiko eratzen ditugun harremanak aztertzerako orduan. Sue Glyptisek duela hogeita hamar urte hedabideek eragin gabeko aisiazko esparruak gutxi zirela jaso zuen: «Aisiazko lanbideetan dabilzanen artean gutxi dira hedabideek aisiazko jokaera eta asmoetan izan dezaketen eragin potentzialetik at, aisirako jarduera eta xedapenen sustapenerako ildo gisa eta eskubide osozko aisiazko ekintza modu bezala». (Glyptis, 1983: 1.1). Egia hura bera inoiz baino indartsuagoa da, gaur egun, Komunikazio eta Informazioaren Teknologia hain modu ikusgarrian garatu eta hedatu direnean. Hala ere ikerketa ildo oparoa eskaini zezakeen arren, gutxi dira aisia eta hedabideak modu esplizituan izendatu eta lotu dituzten ikerlariak.

Honekin ez dugu esan nahi, noski, aisiaren eta hedabideen inguruan ikerketarik egin ez denik. Ikus adibidez Kenneth Thompsonen artikulu interesgarria, muga-zeharkatze eta nortasun diasporikoen inguruan: *Hedabideen erabilera eta aisiazko praktikak gutxiengo etnikoetan* (K. Thompson, 2002), Michael Bailey-ren *Emanaldiak eta Aisialdi Behartuaren arazoa* 1930. Hamarkadan (Bailey, 2007), Andy Bennett-en editoriala herri-musika eta aisiaren inguruan (Bennett, 2005) edota Chris Rojek-ek internet bidezko fitxategi trukaketaren azterketa aisia forma gisa (Rojek, 2005b). Lan interesgarriak egon badaude, aisia eta hedabideen inguruan.

Baina ez dugu hurbilketa diziplinarrik aurkitu Aisia eta Hedabideak binomioaren inguruan. Salbuespena John Heeleyren *Hedabideak Aisia gisa* lanak eskaintzen digu,

non hiru aldaera identifikatzen ditu hedabideek aisiarekiko duten harremanean: hedabideetan oinarritutako aisia, hedabideek aisialdiaren fenomenoari buruz egiten duten errepresentazioa eta aisiazko ondasun eta zerbitzuen hedabideen marketina<sup>69</sup> (Heeley, 1983). Tamalez, gugana heldutako erreferentzia laburra bezain zaharregia da, kontzeptuak sakontasun handiagoz lantzeko.

Atalarekin amaitzeko ondoren Aisiaren Ikaskuntzen diziplina arteko izaera agerian uzten duten diziplina eta esparru ezberdinen ekarpenak laburzen dituen taula aurkeztuko dugu (1. taula: Aisiaren diziplina/esparruak eta ekarpen esanguratsuenak).

### 1. TAULA: AISIAREN DIZIPLINA/ESPARRUAK ETA EKARPEN ESANGURATSUENAK

Diziplina edo esparrua	Ekarpen esanguratsuenak
Aisiaren Soziologia	Harreman sozialen garrantzia, enpirismoa.
Aisiaren Psikologia	Subjektuaren esperientzia, aisiaren osagai psikologikoak, gizarte psikologia, aisiazko esperientzia.
Aisiaren Pedagogia	Aisiarako Hezkuntza, Aisiaren Hezkuntza, giza garapena, askatasuna.
Aisiarako Eskubidea	Gizalegea eta eraldaketa soziala, sarbidea, inklusioa
Aisiazko Politikak	Aisiaren izaera politikoa, politiken diseinua, aisiaren eragin positiboak
Aisiaren Ekonomia	Aisiaren zentraltasun ekonomikoa, urritasuna eta asebetetzea
Aisiaren Estetika	Hartzailearen aktibotasuna, esperientzia estetikoak
Aisia eta Hedabideak	Masa hedabideak aisiazko eragile, ildo eta jarduera. Hedabideak aisia gisa.

Iturria: norberak egina.

#### 1.3.2. AISIAREN PRAKTIKA (IKUSPEGI OBJEKTIBOA)

Max Kaplanek XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan jaso bezala, aisiaren definizioa eta neurketa objektiboki eta subjektiboki gauzatu daitezke (Kaplan, 1960). Fenomenoari begiratzeko darabilgun ikuspegiak, eta berau neurtzeko darabiltzagun tresna metodologiko eta epistemologikoen eragin zuzena dute iker-objektuaren izaeraren bertan. Paradigma zehatz batetik eta haren bidez lortutako ezagutzak ikertutako errealtatearekiko pertzepzio eta interpretazioak baldintzatzen ditu (Kuhn, 1996; Lee, Dattilo, & Howard, 1994). Hori dela eta, ez da harritzekoa aisiaren funtsezko izaerari eta berau ulertu eta aztertzeko estrategien egokitasunari buruzko eztabaidak bizi-bizirik irautea gaur ere.

<sup>69</sup> «General representation of media to leisure: media-based leisure, media representation of leisure-time phenomenon, media marketing of leisure goods and services».

Ikuspuntu objektibo batetik, aisiak eskuragarri dagoen astiarekin, zerbait egitera zuzendutako denbora edo aldiarekin, beroni eskainitako baliabideekin eta burututako ekintzekin du zerikusia. Aisiaren eremu objektiboa erabilitako material, okupatutako espazio, errepikatzen diren ohitura eta gauzatzen diren praktikek osatzen dute (Landabidea Urresti *et al.*, 2012). Stebbins-en hitzetan, aisia astialdian hala nahi delako jardundako *ekintza* bailitzan definitu daiteke, asetzaila edo betegarria den modu batez, eta zeinetarako nor bere abilezia eta baliabideak erabili behar dituen (A. R. Stebbins, 2005). Zentzu horretan, sarri «ikuspegi objektibo batetik zerbait egitera zuzendutako denborarekin nahasten da, inbertitutako baliabideekin, edo, beste gabe, ekintzekin eurekin» (Cuenca Cabeza, 2000: 15). Ikuspegi horretatik begiratuta, zer esanik ez, aisia zeharo fenomeno garrantzitsua da egungo gizarte industrialetan. Kenny Roberts-ek jaso bezala, «azken finean, ekonomikoki aurreratutako gizarteetan aisiak praktikan esna gauden denboraren erdia eta gure kontsumoko gastuaren heren bat» hartzen baitu<sup>70</sup> (K. Roberts, 2002: 15).

Aisia giza bizipen pertsonala da, baina elkarrekin banatzen dugun heinean fenomeno sozial bilakatzen da. Hala, gizarte fenomeno legez, forma eta dinamika ezberdinak hartu izan ditu (eta hartzen jarraitzen du) denboran eta espazioan zehar. Aisia gizarte instituzio bilakatu dela argudiatu daiteke (National Recreation and Park Association, 1983: 166; S. R. Parker, 1976; Toner, 1995: 17), eta hala, historikoki aisiaren dimentsio sozialak eraldaketa sakonak jasan dituela norbanakoen sinesmen, motibazio eta jokabiden antolatzaile zabal gisa. Cuenca irakasleak gogorarazten duenez: «Iragan belaunaldien aisia ez zen gaur egun dena bezain fenomeno esanguratsua. Astialdirako sarbide masiboa eta aisiaren eremu bezala jasandako garapena progresiboki lortuz joan da, XX. mendea aurrera joan ahala»<sup>71</sup> (Cuenca Cabeza, 2000: 32). Gizarte fenomeno denez, aisiak ondorio ekonomiko eta sozial berezkoak sortzen ditu, onuragarriak zein kaltegarriak; aldagai sozialen araberrako interpretazio bat ahalbidetzen du (adina, sexua, klase soziala, herrialdea, denborak, praktika motak...) eta erreproduktzio eta aldaketa sozialerako aukerak planteatzen ditu. Era berean, gizarteari eragiten dioten aldagaiek beraiek eragiten dute aisiaren agerpen sozialetan.

Denbora da, zalantzarik gabe, aisiaren praktikaren aldagai nagusietariko bat. Alde horretatik, interesgarria da denbora sozialaren kontzeptuari erreparatzea, beharraren eta astialdiaren arteko egunaren banaketak eragin zuzena baitu aisiarengan, fenomeno soziala den neurrian. Setién eta Lópezek denbora soziala «gizarte guztietan ekintza mota batzuk eta ez beste noiz eta nola egin behar diren erregulatzen duten arauak» osatzen dutela diote (Setién Santamaría & López Marugán, 2000: 15). Hartara, denbo-

<sup>70</sup> «Después de todo, en las sociedades avanzadas económicamente, el ocio representa prácticamente la mitad de todo el tiempo que permanecemos despiertos y un tercio del gasto de consumo».

<sup>71</sup> «El ocio de las generaciones pasadas no fue un fenómeno tan significativo como lo es ahora. Se puede decir que el acceso masivo al tiempo libre y su desarrollo como ámbito de ocio se ha ido consiguiendo, progresivamente, con el avance del siglo XX».

ra sozialaren esleipen dinamiketako faktore ekonomiko, produktibo eta kulturaletan dute oinarria, eta gizarteek, garai ezberdinetan, denboraren antolamendu eredu ezberdinak agertzen dituzte, eta gizartearen baitan ere, denbora sozialaren esleipena asimetrikoa izaten da:

Lehenengo eta behin [ikerketek] agerian utzi dute denbora talde sozialaren artean modu ezberdinean banatzen dela, eta denbora eskasiak ez diela pertsona guztiei modu berean eragiten. Hala, kolektibo batzuek denboraren gabezia fisikoa gehiago sufritzen dute, zeinek haien astiaren gutxitzean eragiten duen hau da, aisiazko jardueretara bideratzen den denboran. (Setién Santamaría & López Marugán, 2000: 10)<sup>72</sup>.

Aisiaren praktika ikertzerako orduan, eta batez ere denbora eta aisiazko jarduerak harremanetan jartzerako orduan, denbora-aurrekontuak dira ikerlari sozialaren eskura dauden tresna eta informazio iturri erabilienetarikoa (Setién Santamaría & López Marugán, 2000: 11). Denbora-aurrekontuen inkestek pertsona batek egunean zehar egiten dituen jarduera guztiak erregistratzen dituzte, oro har eguneroko bat erabiliz, informazioa jasotzeko. Hainbat forma har ditzaketen arren, inkestok giza taldeen bizitza erritmoak eta haien arteko denboraren erabileraren ezberdintasunak aztertzea ahalbidetzen dute (gizonezkoak-emakumezkoak, gazteak-helduak-adinez nagusiak, biztanleria aktiboa-lanik gabekoa....).

Eustat Euskal Estatistika Erakundeak, adibidez, 5 urtean behin burutzen du inkesta (1993, 1998, 2003, eta 2008ko datuak ditugu eskuragarri), eta honako helburu espezifikoak adierazten ditu (Eustat, 2011c):

- Eguneko denbora nola banatzen den jakitea.
- Jardunaldi motak deskribatzea.
- Denboraren erabileraren baldintzatzaileak zein diren aurkitzea.
- Gizarte-taldeen arabera ezberdintasunak zehaztea.
- Jarduera bakoitza eguneko zein unetan egiten den zehaztea.
- Jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaintzen zaion neurtzea.
- Talde jakinen (gazteak, zaharrak) eguneroko bizitza deskribatzea.
- Ekipamendu bakoitzaren erabilera balioztatzea.

Aisiak, partehartze sozialarekin batera, leku berezia du denbora-aurrekontuan, eta 2003ko monografikoaren 4. atala osatzen du (Setién Santamaría, 2006a). Bertan,

<sup>72</sup> «En primer lugar han puesto de manifiesto que el tiempo está repartido de forma desigual entre los distintos grupos sociales y que la escasez de tiempo no afecta por igual a todas las personas. Así, hay colectivos que sufren en mayor medida la escasez física de tiempo, lo cual redundará en una disminución de su tiempo libre, es decir, del tiempo que se dedica a actividades de ocio».

Setién-ek aisia kategoriaren baitan kokatzen diren jarduerak zerrendatzen ditu, Aisia Aktiboa, Aisia Pasiboa eta Erdi-aisia azpimultzoak ezberdinduz:

«Aisia Aktiboan», batez ere kirolak, pasierak eta aire librean egiten diren beste hainbat jarduera, eta ordenagailuaren eta Interneten erabilerari lotutakoak sartzen zituzten, eta «Aisia Pasiboan» telebistari eta beste hedabideei eskainitako denbora, ikuskizunetara jo errealtatea, jokoak eta era guztietako zaletasunak. Aisia jardueren artean sartu ditugu «Erdi-aisia» eta «Harrerak eta irteerak» izendatuak ere: «Erdi-aisia» dira brikolajea, lorezaintza, trikotatzea, brodatzea, etxeko konponketak bezalakoak, eta «Harrerak eta irteerak», berriz, lagunekin kopak hartzea, festetara edo dantzara joatea. (Setién Santamaría, 2006a: 125-126).

Azpimarratzekoa da, halaber, ikerlariak aisiaren kontzeptuari dagokionez egiten duen zehaztapena: «Guk dugun Aisiaren ikusmolde zabalean, bai erdi-aisiak, bai harrera eta irteerak denbora librean egiten diren jarduerak dira eta borondatez aukeratzen direnak, eta horregatik sartu ditugu «Aisia» kapitulu generikoan». (Setién Santamaría, 2006a: 127).

Denbora-aurrekontuen inkestak informazio baliagarria eta baliotsua eskaintzen digute kultura eta gizarte jokabideei eta aisiaren forma sozialei buruz, eta urteetan zehar egindako lan eskerga aitortu eta eskertu beharra dago. Hala ere, aisiaren praktikaren ikuspegi objektiboak muga garrantzitsuak agertzen ditu norbanakoen eta taldeen eguneroko bizitzan duen esanahia ulertzerako orduan.

Alde batetik, aisiaren kategoriaren baitan zein jarduera sartu eta zein ez, aisiaren kontzeptualizazioaren araberrakoa da (Rojek, 2005a), aisiaren beraren definizio eta neurketa objektiboki zein subjektiboki burutu daitekeen modu berean, are gehiago jardueren azpikategoriak eratu eta betetzerako orduan. Reed eta Sandersonek galdera luzatzen dute kategorizazio lan honen inguruan: «*Aisia jarduera* bat egoera batzuetan *aisia jarduera* izan liteke, eta ez beste batzuetan? Erosketak egitera joatea beti al da aisia jarduera, ala batzuetan beste kategoria baten baitan dago?»<sup>73</sup> (Reed & Sanderson, 1999: 152). Zentzu berean planteatzen da *Aisiazko praktikatik aisiazko esperientziara: ezinbesteko berrikuntzak telebista-audientzien ikerketan* lanean telebista ikustearen azterketan aisia praktikatik aisiazko esperientziara jauzi egiteko beharriana:

Pertsona edo gizarte batek telebistaren pantaila aurrean batez beste ematen dituen orduak (ordutegiak, maiztasunak, aste egun eta asteburuetako kontsumoaren banaketak) ez digu informaziorik eskaintzen pertsona horrek edo gizarte horrek jarduera horretan murgiltzeko dituen motibazioez eta aurkitzen eta eraikitzen dituen esanahi eta plazerez. Denbora zertan igarotzen duten, duten astia nola inbertitzen duten jakin dezakegu, baina ezer gutxi diosku jarduera horretan bizi diren aisiazko esperientziez. (Landabidea Urresti *et al.*, 2012: 13).

<sup>73</sup> «Can a *leisure activity* be a *leisure activity* in some situations and not in others? For example, is shopping always a leisure activity or does it sometimes belong in another category?».

Aisiaren praktikaren kontzeptualizazio objektibo batek «kanpoko» begirada dakar ezinbestez, ikertzailearen helburu eta bitartekoen arabera eraikitako kategoria eta parametroetan ahokatu delarik ikerketa-objetua. Horrek giza talde, lurralde eta garaien arteko alderaketa zientifikoak egitea eta orokortzea ahalbidetzen du, eta baliabide garrantzitsua eskaintzen du Aisiazko Ikaskuntzetarako, aisiaren forma sozialak eta agerkari materialak aztertzerako orduan. Hala ere, arazoak aurkezten ditu aisiaren izaeraren alde garrantzitsu bat, honen osagai subjektiboa eta bizipena, bazter uzten baitu:

Sozialki definitutako kategoria eta aukerak ez dira ezinbestean giza norbanakoaren esperientziaren deskriptore egokiak. Behaketa partehartzailea, sakoneko elkarrizketa, bizitza-historiak, edo galdeketa narratiboak lagun lezakete (...) aisiak gizabanakoarentzat duen esangura eta helburua ulertzen, arau sozial edo kulturalekin lotuta egon gabe<sup>74</sup> (Reed & Sanderson, 1999: 153).

Kosharrek jaso bezala, «Aisiaren historia aztertzea kontsumoaren historialariek egindako galdera berak egitea da neurri batean: zenbaterainoko agentzia egotzi behar zaie erosleei, bidaiariei, ikusleei?»<sup>75</sup> (Koshar, 2002: 18). Eragileei, subjektuei buruz ari garen artean, ezinbestean galdetu behar izango dugu nolakoa den eragile hauen aisiaren bizipena, berauen aisiazko esperientzia. Horretaz dihardu hurrengo atalak.

### 1.3.3. AISIAZKO ESPERIENTZIA (IKUSPEGI SUBJEKTIBOA)

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera «esperientzia» berbak hiru adiera ditu euskeraz: «1. Aritze, behatze eta erabiltzetik lortzen den ezaguera edo trebetasuna; ezaguera edo trebetasun hori dakarren gertaera edo bizitzako pasadizoa. 2. (Ipar.) Esperimentua. 3. FIL. Sentimenen bidez atzematen den gutzia, giza ezagutzaren funtsa dena; fenomeno ezagunen eta ezagut daitezkeen multzoa». (Harluxet, 2011b).

Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak 1996an argitaratutako Aisiaren Thesaurusaren arabera planteamendu zabal batetatik aisiak «libreki aukeratutako esperientzia eta ekintzak hartzen ditu bere baitan, askatasun eremuan burutuak, erabilgarritasuna helburu nagusitzat izan gabe gogobetetasuna eskaintzen diotenak pertsonari» (Maiztegui *et al.*, 1996: 21). Madariagak eta Cuencak ere giza esperientzia integral eta oinarrizko giza eskubide bezala definituko du: «Giza esperientzia integrala, hau da, osoa, konplexua (norabidezkoa eta dimentsio aniztuna), nahi diren jardura

<sup>74</sup> «Socially defined categories and expectations are not necessarily good descriptors of the individual human experience. Such techniques as participant observation, in-depth interviewing, life histories and narrative inquiry may help (...) to understand the meaning and purpose of leisure to the individual without being bound by social or cultural rules».

<sup>75</sup> «To study the history of leisure is in some respects to ask the same questions that historians of consumption have asked: what degree of agency should be attributed to shoppers, travelers, or spectators?».



autotelikoetan (berezko helburua duena) eta pertsonaletan (ondorio indibidual eta sozialduna) bildua»<sup>76</sup>. (Cuenca Cabeza, 2004; Madariaga Ortuzar, 2002: 152).

Aurreko atalean egin bezala, atal honen izenburuari ere ñabardura bat egin behar zaio: aisia, bizipen pertsonala den heinean (era berean gizabanakoarena eta soziala), ez da subjektibotasunetik soilik ulertzen, pertsonaren bizipena beti egongo baita testuinguru sozial baten baitan kokatuta. Hortaz, aisiazko esperientzia ezin da ikuspegi subjektibo hertsiki batetik aztertu: elementu objektiboak, jarduera eta praktikari, inguru eta baldintza material eta historikoei erreparatu beharko zaie ezinbestez, elementu psikologiko eta aldagai kultural, ekonomiko, teknologiko eta abarrekoei batera. Aisiazko esperientziak, giza esperientziak diren aldetik, ez dira subjektibotasunetik bakarrik ulertzen, beste elementu objektibo batzuk ere garrantzizkoak baitira; hala nola, lekua, denbora, iraupena, berritasuna eta garaia: «Gizasemeak ez du bere bizitza gizabanako gisa bakarrik egiten, baizik eta, modu kontzientean edo inkontzientean, parte hartzen du bere garaian eta bere garaikideekin» (Cuenca Cabeza & Aguilar Gutierrez, 2009: 43). Aisiazko esperientziak ez daude bizipen pertsonalari bakarrik lotuta, gizabanakoa bizi den inguru sozialarekin ere harremanetan daude.

Aisiaren giza esperientzia leku guztietan eta pertsona guztiengan azaltzen da: jokoe-tan, kirol-praktiketan, bidaietan, oporraldietan, musikaz, festaz eta abarrez betetako (edo hustutako) asteburuetan... Aisia etengabe aldatzen ari den errealitatea sozial eta pertsonala da, metamorfosi prozesu etengabe dago. Esperientzia hautatu eta desiratua den aldetik, zuzenean dago lotuta desioen munduarekin eta hauek sortzeko moduarekin: lehen existitzen ez ziren desio pertsonal eta sozialak, denbora historikoan bidea urratu eta komunitate jakin baten desiragai bihurtzen diren praktikak eta bizi-ohiturak kasu.

Lehenago ere esan bezala, aisiak, aukera bezala hartuta, (Koshar, R. 2002:3), zerbait egin, zerbaitetan jardun, zerbait bizi ahal izateko posibilitatea auresuposatzen du. Bada, aisiaren izaera subjektibo honek lehen mailako garrantzia hartzen du aukera-izaera hau dela eta. Izan ere, ekintza batean jarduterako orduan hertsadua eta kanpo-agindu falta aisiaren muin-muineko ezaugarria da, eta ez da hain modu garbian bereizi daitekeen giza jardueraren beste esparrurik (Stebbins, 2005). Aisiak astia behar du, nork bere aukerara artikulatzeko eskura dagoen denbora tarte fisiko, objektiboa. Baina hori baino zerbait gehiago da astia: denbora librea deritzogu, denbora liberatua. Astialdia diogunean, aukeraz betetako denbora esparru batez ari gara. Izan ere denbora (eta, hortaz astia) aisiazko bizipena gerta dadin behar-beharrezko konstantea bada ere, eta are gehiago, aisia azaldu ahal izateko beharrezkoa zaigun ardatza (Cuenca, 2000:20) hau ez da bere osagai bakarra.

Bizipen oro igarotzen da denboran, eta ernaldi eta garapen aldiak behar ditu. Bestetik, zerbait egin ahal izateko, zeregin batera zuzentzeko gaitasuna (pertsonala,

<sup>76</sup> «Una experiencia humana integral, es decir, total, compleja (direccional y multidimensional), centrada en actuaciones queridas (libres, satisfactorias), autotélicas (con un fin en sí mismas) y personales (con implicaciones individuales y sociales)».

taldekoa, gizartekoa...) ere behar da. Baina zerbait egin edo bizi ahal izateko aukerak, berez, ez dakar aisirik, hartarako borondaterik, nahirik ezean. Askatasunaz gain norabidea, ekintza bera ere beharrezkoa izango da, aisiazko esperientziarik gertatuko bada. Begibistakoa da, beraz, aisiazko esperientziaren kontzeptuak ikuspuntu subjektiboa azpimarratzen duela, eta horrela bakoitzaren asebetetzeak, esperientziak eta esanahiak, jardunaren bizipenak berak dakartzan plazerak lehen mailako garrantzia hartzen dute. Aisiazko esperientzia gertakari anitzen (objektibo zein subjektiboen) agertoki bilakatzen da, bi ezaugarri komunekin: askatasun sentipena eta berezko motibazioa (Cuenca Cabeza, 2000: 27).

Agertoki horretan gailentasuna hartzen du, noski, subjektuaren aktibotasun/pasibotasunaren aferak. Lesliek *Flâneurra Paris eta Berlinen* lanean jasotzen duen gisa:

Pasibotasun edo agentziari buruzko galderek zuzenean eragiten diote esperientzia eta emozioaren arazoaren historiari. Pertsonak haien aisiazko denbora bizitzeko duten erak zerikusi handia du eratoritzen dituzten esanahiekin, gordetzen dituzten oroitzapenekin, eta etorkizunari aurre egiten dioten aitzinamenduarekin. (Leslie, 2002: 20)<sup>77</sup>.

Esperientzia bizi duenaren zentzua, ekintza edo jarduerak harentzat hartzen duen esanahia, beraz, garrantzi handiko dimentsioa da Aisiazko Ikaskuntzentzat. Aisia zeregin atsegina, bilatua eta libreki hautatua da, eta, hortaz, aisiaren bizipena ez da inoiz erabat eta zehazki ekintzaren beraren arabera, ez eta subjektuaren denbora, maila ekonomiko edo formakuntzaren arabera ere. Aisiak beti izango du indeterminazio puntu bat, sozialki, materialki, historikoki kokatuta dagoen arren, askatasunaren eta aukeraren bizipenak berak dimentsio berezkoa irekitzen baitio norbanakoari. *Aisia mediatikoa eta esperientziaren eraldaketa Walter Benjaminengan: subjektu hartzailearen ulermen aktiboa* komunikazioan ere flâneur-aren figura ageri da protagonistatzat, zale edo *fan* eta de Certeau-ren ezkutuko ehiztarien figurekin batera. Bertan, hedabideekin lotutako aisian hartzaileak jokatzeko duen paperaren garrantzia aztertzen da hedabideen paisaia aldakorrean (Cuenca Amigo & Landabidea Urresti, 2010). Artikuluan Benjaminen *Erfahrung* eta *Erlebnis*-en terminoen arteko bereizketa, eta *Muße* eta *Müßiggang* (aisia eta nagitasuna, hurrenez hurren) kontzeptuekiko lotura berreskuratzea proposatzen da.

Hala, *Erfahrung* berba alemaniarra euskarazko eskarmentuaren zentzuan hartzen da, edo Harluxeten «Aritze, behatze eta erabiltzetik lortzen den ezaguera edo trebetasuna» bezala; jalkitako, metatutako ekoizpen eta hautematerako trebetasun eta gaitasunei zuzenduta, eta *Muße* aisia klasikoaren garapen eta ahaleginaren ideia-rekin gertutasuna agertzen du. *Erlebnis*, berriz, bizipenari dagokio, eta egungo ekosistema mediatikoak eta XX. mendeko lehen hamarkadetako kazetariaren figurari

<sup>77</sup> «Questions of passivity or agency go directly to the problem of the history of experience and emotion. How people experience leisure time has much to do with the meanings they derive, the memories they preserve, and the anticipation with which they approach the future».

lotuta ageri zaigun abiadura eta etengabeko estimulazioarekin eta Müßiggang berriagoarekin lotzen da gehiago, zeinak beharra eta lanarekiko kontrakotasun esplizitua agertzen duen, eta ezjarraitasuna, espontaneitatea eta sistematizazio falta dituen ez-ugarri. Antzera jasotzen dute Boswijk, Thijssen eta Peelenek ere:

Esperientzia Erfahrung-en zentzuan etengabeko ekite eta jasate prozesu interaktiboa da, ekintza eta hausnarketarena, kausatik ondoriora, gizabanakoari esanahia eskaintzen diotenak bizitzaren testuinguru ugaritan. Esperientziak Erfahrung bezala norbanakoari bere buruari edo bere inguruko munduari buruzko ikuspegia aldarazten dio. Esperientzia Erlebnis bezala berehalako, erlatiboki isolatutako emozioen multzo batekiko suertatze bat da, zeinek zirrara eragiten duen eta nolabaiteko balioa duen norbanakoarentzat egoera zehatzaren testuinguruaren baitan.<sup>78</sup> (A. Boswijk, Thijssen, & Peelen, 2007: 28).

Kaplanek aisiaren definizio eta neurketa objektibo eta subjektiboa identifikatu zituen XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan; laurogeita hamargarrekoan, aldiz, Leek paradigma aldaketa aldarrikatu zuen ikuspegi objektibotik subjektibora bere doktorego tesian. Aisiazko esperientziaren ikaskuntzan aitzindaria gertatu den *Aisiazko Esperientziaren Izaera Konplexu eta Dinamikoa* artikulua argitaratu zuen John Dattilo eta Dennis Howardekin batera handik gutxira (Lee *et al.*, 1994).

Ordurako «aisiazko esperientzia» turismoaren, kontsumitzaileen jokabidearen, olgeta terapeutikoaren, emakumezkoen arazoaren, programazioaren, aisiaren hezkuntzaren eta haize zabaleko olgetaren esparruetan erabilita zegoen (Lee *et al.*, 1994: 196). Ideia bera ageri zen horietan guztietan: bezero edo subjektuaren zentraltasuna, eta aisiaren profesionalei deia, hauen aisiazko esperientziak erraztu eta sustatzeko.

Sektore ekonomikoan ere giza esperientzian oinarritutako paradigma aldaketa aldarrikatu zuten Joseph Pine eta James H. Gilmorek (Pine & Gilmore, 1999). Esperientziaren ekonomia lanean aro ekonomiko berri bat iragartzen da, arrakastarik lortuko badute merkatuak eta enpresek bezeroei gertakari gogoangarriak prestatu eta eskaini beharko dizkietena, esperientzia harturik ondasun eta zerbitzuen balio erantsiaren ardatz nagusi:

Etorkizunagatik lehian dagoen enpresa oro dago bezeroarengan zentratuta, bezeroak gidatua, bezeroa-hau-eta-beste. Beraz, zer berri? Hau da berria: esperientzietan, izan bazen baina orain arte artikulatu gabe zegoen ekoizpen ekonomiko mota bat adierazten dute. Enpresek sortzen dutena zenbatzerako orduan esperientziak zerbitzuengandik bereizteak aparteko zabalkuntza ekonomikorako aukera zabaltzen du -zerbitzuak eskaintza bereizi eta legitimo bezala aitortu izanak gainbeheran ze-

<sup>78</sup> Experience in the sense of Erfahrung is a continuous interactive process of doing and undergoing, of action and reflection, from cause to consequence, that provides meaning to the individual in several contexts of his life. Experience as Erfahrung causes the individual to change the perspective on self and/or the world around him. An experience in the sense of Erlebnis is an immediate, relatively isolated occurrence with a complex of emotions that make an impression and represent a certain value for the individual within the context of the specific situation.

goen oinarri industrial baten aurrean fundatze ekonomiko bizi batera eraman zuen bezala. Eta oinarri berri bat azaleratzen ari da<sup>79</sup>. (Pine & Gilmore, 1999: ix).

Jeremy Rifkinen ustez ere, paradigma aldaketa geldiezina da, eta egungo langa-beziaren datuen eta beharraren krisi orokorraren aurrean aukera bakarra dago: metatze materialaren ordeztze aisiazko bizipenaren balioa hartzea (Rifkin, 2004). Aisiaren industria ideia honetaz jabetu dela dirudi, aisiazko esperientzien merkatua errealitate bihurtu baitzaigu, pertsonen auto-errealizatorako esparruak bilatu ditzaten (Cuenca, 2000: 368). Aisiazko esperientziaren eta esperientziatzko aisiaren ikaskuntza berria den arren, jada bada lehen eta bigarren belaunaldiko esperientziak bereizten dituenik. Lehen belaunaldiko aisiazko esperientziak aurrefabrikatutako eta esperientziaren ekonomian kokatutako produktuak badira (Pine & Gilmore, 1999), bigarren belaunaldiko esperientziak pertsona dute erreferentzia, norbanakoaren balio kultural eta sozialak.

Lehen belaunaldiko esperientzien diseinuak bost printzipio gidari dituela proposatzen dute Boswijk, Thijssen eta Peelen-ek: Gaia, Armonia, Seinale negatiboen ezabapena, Memorabilia eta Bost zentzumenen engaiamendua. Seigarren printzipio gidari bat ere gehitu geniezaioke: Naturaltasuna, edo osotasuna: «Kontzeptu osoak zirrara natural eta benetako bat eragin behar du. (...) Benetan balio duena osotasunaren inguruan dugun sentipena da». (A. Boswijk, Thijssen, & Peelen, 2006: 156-157)<sup>80</sup>.

Bigarren belaunaldiko esperientzien printzipio gidaria berriz sormen partekatua edo ko-sormena da:

Esperientzia esanguratsuen garapen eta burutzearen fase guztietan, bezeroaren ekarpena aitzinean dago. Sormen partekatuen ideia ez da esperientziaren inguruaren azken sorreran ez ezik, haren jaiotzan eta garapenean ere nabarmendu behar da. Dagoeneko bertan behera utzi dugu hornitzaileak bezeroak nahi duena erabakitzen duelako ideia. Nahi dutena adierazi ezin duten eta berrikuntzak (aurre-rakuntzak) garatzeko orduan balio mugatua duten bezeroen ideia baztertuta dago<sup>81</sup>. (A. Boswijk *et al.*, 2007: 158).

<sup>79</sup> «Every business competing for the future is customer-centric, customer-driven, customer-focused, customer-yadda-yadda-yadda. So what's new? This is new: Experiences represent an existing but previously unarticulated genre of economic output. Decoupling experiences from services in accounting for what businesses create opens up possibilities for extraordinary economic expansion –just as recognizing services as a distinct and legitimate offering led to a vibrant economic foundation in the face of a declining industrial base. And a new base is emerging».

<sup>80</sup> «The whole concept must make a natural and authentic impression. (...) what really counts is obviously the feeling we have about the whole».

<sup>81</sup> «In all phases in the development and realisation the meaningful-experience concept, the customer's contribution is leading. The idea of co-creation not only needs to be evident within the experience setting ultimately created, but also during its conception and development. We've already abandoned the idea that it's the supplier who decides what the customer wants. The conviction that customers are unable to indicate what they want and are therefore of limited value in developing (breakthrough) innovations has been rejected».

Tradizioz, eta aisiaren ikuspegi objektiboan aipatu bezala, aisiazko ekintzak jarduera edo praktika bailiran ulertu izan dira, baina bi kontzeptuak, esperientzia eta jarduera, bereizi beharra dago. Jarduera aritzeko gaitasunarekin lotuta dago, eta ekite, operazio edo ataza bezala definitu daiteke. Jarduera hori norbanakoak, talde batek edo erakunde batek burutu lezake, eta ez du, bere horretan esperientziarik bermatzen, esperientziaren aukera zabaltzen duen arren. (Cuenca Cabeza, 2010). Giza jarduerak gizakiaren (subjektua) eta errealitatearen arteko harremana ahalbidetzen duela ulertu izan du Vygotsky psikologoak, errealitate honen transformazioari bide emanez, semiotikatik asko duen esanahia eraikitzeko harreman batean (Daniels, 1996: 201). Edozein giza jardueratan subjektuak era integralean jarduten du. Jarduera psikikoa (barnekoa) eta praktika (kanpokoak) jardueraren alde ezberdinak baino ez dira, banezinak gizakiaren baitan, esanahiaren eta esperientziaren sorkuntzari dagokionez.

Cuenca irakaslearen arabera, «Gure bizitza esperientzia ezberdinez osatzen da, baina esperientzia bakoitza jarduera ezberdinez osatuta dago»<sup>82</sup> eta aisiazko esperientzia guztiak zenbait ezaugarri komun agertzen dituzte, zazpi puntutan laburbildu daitezkeenak (Cuenca Cabeza, 2010):

1. Erreferentzia markoa eragilea berbera da, pertsona. Esperientzia beti gauzatuko da subjektu jakin batengan. Hortaz, aisiazko esperientzia beti parametro sozial batzuetan kokatuko den arren (non besteek zeresana duten), norberaren, nitasunaren garrantzia beharrezkin lotutako esperientzietan baino handiagoa izango da.
2. Emozioak du nagusitasuna. Aisiazko esperientzia jarduera atsegingarrian oinarritzen da, ez arrazoizkoan. Aisiazko esperientziak emozioen agerpen atsegingarria ahalbidetzen du, eta emozio eta sentipenak egoeren interpretaziotik jaioko direnez beti, aisiazko esperientzia zuzenean lotuta agertuko da emozio, prozesu kognitibo eta aurretiazko prestakuntzarekin.
3. Ez du betebeharrak justifikatzen, asebetetzeak baino. Beharrezkin eta errutinaren munduak ez bezala, aisiazko esperientzia gogobetetzeak justifikatzen du, praktikatzan den jarduera delakoa dela ere. Aurrikuspenak, zentzu horretan, oso garrantzitsuak izango dira asetzeko moduko esperientzia lortzeko orduan.
4. Balio eta bizitza moduetan integratzen da. Aisia ez da subjektuaren bizitza-tik at kokatzen den erreinu aparteko bat; pertsonen bizitzan, testuinguruan eta baloreetan integratuta dago. Hartara, aisiazko esperientziek pertsonaren bizitzaren osotasunean parte hartzen dute, eta ez dira «lan-egunen» eta «asteburuen» artean banatzen, eta berauen bizipena eta balorazioa ere subjektuaren testuinguru biografikoan kokatuko da.

<sup>82</sup> «Nuestra vida está marcada por las experiencias, pero cada experiencia se compone de múltiples actividades».

5. Intentsitate maila ezberdinetan bizi da. Aisiazko esperientzia guztiak ez dira berdinak, bizipenaren onarpen hutsetik (gustatzen zait, gustuko dut) bizipen ahaztezina dakarren murgiltze katartikoraino doaz. Intentsitatea berritasuna, testuinguru soziokulturala, ezagutza baila eta beste hainbat aldagai subjektibo eta objektiboren arabera da.
6. Prozesu izaera du. Aisiazko esperientziak gure bizitzaren parte dira, eta gure iraganaren, orainaren eta geroaren arteko elkarrizketa batean parte hartzen dute. Esperientzia orainean gertatzen da, baina iragana eta etorkizuna modu esanguratsuan txertatzen diren heinean aberasten da. Zentzu horretan ezberdinu zuten baita Tinsley eta Tinsleyk esperientziaren aurrekariak, atributuak eta ondorioak artean (Tinsley & Tinsley, 1986).
7. Gaitasuna eskatzen du. Aisia bizipen espontaneoak izan dadin, aisia humanistak gaitzea eskatzen du. Pertsonaren jarrera, interesak eta gozatzeko gaitasuna estu-estuan lotuta daude bere formakuntzarekin. Estatistikek argi agertzen dute prestakuntza maila eta kontsumo kulturalaren arteko lotura estua, adibidez.

Hortaz, esperientziak errealitatean parte hartzea dakar ezinbestez, aritu, behatze eta erabiltzetik abiatutakoa eta zentzumen eta sentimenez bidez atzemandakoa. Esperientziak errealitatea atzemateak dakar, ezaguera edo trebetasun bihurtuz, bizitzako gertaera edo pasadizo bati bide emanez.

Errealitate hau subjektuarengandik kanpo emandako, pertsonaren baitakoa ez den gertaera bati badagokio ere, subjektuari eragiten dio; eraldatu egiten du bere ezaguera, bere mundua ulertzeko era. Eraldaketa hori zentzumen, sentimen, ezagutza, kontzeptu eta ideiak halabehartzen dituen bizipen pertsonal eta zuzenari zor zaio. Esperientzia beti da norbaiten esperientzia, baina norbait hori beti da irazkorra, aldaketari irekia, esperientziak berari biziko duen subjektuan arrastorik utziko badu.

#### 1.3.4. AISIARAKO ESKUBIDEA (IKUSPEGI POLITIKO ETA NORMATIBOA)

Giza Eskubideen Adierazpenak, 1948. urtetik onartzen du (24. Artikuluan) pertsona orok duela atsedenerako, tarte librearen gozamenerako, lan denboraren mugatze zentzuzkorako eta ordaindutako noizbehinkako oporraldirako eskubidea. Cuenca jasotzen duen gisa:

Hasiera batean, aisiarako eskubidea lanarekiko atsedenerako, oporraldi ordaindurako... eskubidearen gisa agertu zen. Baina, Giza Eskubideen Hirugarren Belaunaldia-rekin, aisiarako eskubideaz hitz egingo zen, gizarte-garapenerako oinarritzko elementua baita, eta herritarrek kulturarako, kirolerako, turismorako... eta halakoetarako duten eskubidea aitortu zen Aisiarako eskubidea betetzeak oso zentzu berezia du ezgaitasuna duten pertsonengan pentsatzen denean. Horiek arian-arian eskatu dituzte euren herritar-eskubideak; eta horien artean, azken urteotan, aisiarako eskubidea sartu da hainbat

modutan. Beraz, baieza dezakegu, printzipio-mailan behintzat, eskubide artikulatua dela. (Cuenca Cabeza, 2011: 10).

Atal honetan zehar agerian jarri bezala behin betiko definizio itxi eta unibertsalik ez badago ere, abiapuntu komun bezala WLRA (World Leisure & Recreation Association) elkarteak<sup>83</sup> 1994. urtean argitaratu zuen Aisiaren Hezkuntzaren Gutuna (hemendik aurrera, AHG) hartu daiteke abiapuntu komuntzat. Bertan aisiaren kontzeptuaren osagarri nagusiak zortzi artikulua edo puntutan zehaztu ziren. Ondorenean artikulua hauen muina ekarriko dugu gogora, aisiaren esanahia zehazteko asmoz.

AHGaren arabera aukera askatasuna, sormena, poztasuna, gozamina, plazera eta zoriontasuna lagun ditzakeen berezko onuradun giza esperientziaren alor espezifikoa da aisia. Aisiak, hortaz, onura espezifikoko dakarzkio norbanakoari, «osasuna eta ongizatea sustatuz eta gizabanakoen behar, interes eta lehentasunen neurria egokitutako jarduera eta esperientzien aukera eskainiz» (Cuenca Cabeza, 2012). Aisia, hortara, bizi-kalitatea handitzeko baliabide gisa ulertzen da. Zentzu horretan, norbere aisiaren balditzak zehazteko erabakietan parte hartzen duenean erdiesten du gizabanakoak aisiaren potentzial gorena.

Era berean, ongizate hau lortzeko norbanako edo taldeek haien jomuga eta nahiak identifikatu eta erdietsi beharko dituzte, beharrianak asetu eta inguruarekin modu positiboan eragite aldera. Giza esperientziaren arlo espezifikoa bezala, norbanakoaren askatasunaren artikulatzea dakarrenez, adierazpide eta jarduera modu ezberdinak ahalbidetzen ditu eta osagai askotarikoak har ditzake ezinbestez, direla fisikoak, intelektualak, artistikoak zein espiritualak. Gainera, giza esperientzia ez ezik, aisia garapen pertsonal, sozial eta ekonomikoa ere bultzatzen indar eta baliabide garrantzitsua da, WLRA/WLO erakundearen misioan bertan azpimarratzen den gisa. Zentzu horretan, aisiari bizi-kalitate pertsonalaren adierazgarri eta laguntzaile izaeraz gain, industria izaera ere aitortzen zaio, zeina enplegu sortzaile eta zerbitzu iturri izan daitekeen. Gainera, asegabetasuna, estresa, asperra, ekintza fisiko falta, sormen gabezia eta pertsonen eguneroko alienazioa arintzen lagun dezake aisiak.

Aisia gizabanakoaren esperientzia arlo eta gizartearen garapenerako eragile bezala ulerturik, eta aurreko onurak kontuan hartuta, oinarrizko eskubidetzat jotzen du Gutunak<sup>84</sup>, «hezkuntza, lana eta osasuna bezala», eta eskubide hau inori ukatu ezin zaiola gai-

<sup>83</sup> Egun World Leisure Organization edo WLO bezala ezagun da 1952an sortutako elkarte hau (zein hasiera batean International Recreation Association bezala eratu zen), eta bere burua aisia giza hazkuntze, garapen eta ongizaterako indar gisa jarduteko balditzak aurkitu eta bultzatzeko gobernuz kanpoko gizabanako eta erakunde elkarte gisa definitzen du.

<sup>84</sup> Ikus, baita Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 27. Atala: «Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko. 2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea».

neratzen du, genero, sexu-orientazio, arraza, erlijio, sinesmen, osasun, ezgautasun edo balditza ekonomikoak direnak direla. Bestalde, politika, gizarte, kultura eta ingurumen mailako faktoreek aisiaren agerpena eta garapena erraztu edo zaildu egin dezaketzen neurrian, beronen garapena oinarrizko bizi-balditzak bermatzerakoan errazten dela gaineratzen da. Berme hauek segurtasuna, aterpea, jana, diru-sarrerak, hezkuntza, baliabide jasangarriak, berdintasuna eta gizarte justizian oinarritutakoak dira.

Azkenik, mundu mailan gizarteak bizi dituen aldaketa sozial, ekonomiko eta teknologiko sakonak direla eta, gizanabako eta talde ezberdinen eskura dagoen astia- ren kantitatean banaketan eraldaketa handiak gertatzen ari dira. Eraldaketok eragin zuzena dute aisiazko jarduera ezberdinetan, aldi berean zerbitzu eta ondasuen eskari eta eskaintzarengan eragiterakoan. Aisiaren garrantzia, hortaz, txikiagotzetik urrun, handitzera doala dirudi, eta beronen ikerketak, dela giza esperientzia gisa, dela gi- zarte fenomeno gisa, eta dela oinarrizko eskubide gisa, berebiziko garrantzia du eta izaten jarraituko du.

Aisiaren Hezkuntzaren Gutunaren ondorengo gisa hartu daiteke 2000. urtean WLOko Administrazio Kontseiluak onartutako Aisiaren Gutuna<sup>85</sup> (edo AG). Bertan, aurreko gutunean bezala, 8 puntu zehazten dira, mundu osoko gobernu ezberdinei zuzendutako gomendio gisa:

1. Pertsona orok du bere herrikideen arau eta gizarte balioekin harmonian dauden aisiazko ekintzetan jarduteko oinarrizko giza eskubidea. Gobernu guztiak daude behartuta haien hiritarren eskubide hau aitortu eta babestera.
2. Aisiarako baliabideak bizi-kalitaterako osasun eta hezkuntzarakoak bezain garrantzitsuak dira. Gobernuek herritarrei aisiarako eta olgetarako sarbide aukera askotarikoak eta kalitate altuenekoak bermatu behar lizkiekete.
3. Norbanakoa da bere aisia eta olgetarako baliabiderik onena. Hala ere, gobernuek aisiazko esperientziak optimizatzeko beharrezkoak diren trebezia eta ulerkerak eskuratzeko baliabideak ziurtatu behar lizkiekete.
4. Gizanabakoek aisiazko aukerak auto-errealizaziorako, harreman pertsonalak garatzeko, gizarte integrazioa hobetzeko, komunitateak eta nortasun kulturalak garatzeko eta nazioarteko elkarrulertzea eta elkarlana bultzatzeko erabil ditzakete, horrela bizi-kalitatea hobetuz.
5. Gobernuek aisiazko esperientzien etorkizuneko eskuragarritasuna ziurtatu behar lukete herrialdeko inguru fisiko, sozial eta kulturalaren kalitatea mantenduz.

<sup>85</sup> Aisiaren Gutunaren lehen bertsioa IRA International Recreation Association elkarteak idatzi zuen 1970ean, eta WLRA elkarte bezala berrikusi zen 1979. Azken idazketa WLO bezala onartu zen 2000. ko uztailen.



6. Gobernuek norbanakoak trebetasun pertsonalak eskuratzen, talentuak aurkitu eta garatzen eta aisiazko eta olgetazko aukerak zabaltzen lagunduko dituzten profesionalak prestatu beharko lituzkete.
7. Herritarrek sarbidea izan behar dute aisiari buruzko informaziora aisiaren izaeraren eta honen aukeren inguruan, berau haien ezagutza zabaldu eta tokian tokiko eta maila nazionaleko erabakien berri izateko.
8. Hezkuntza erakundeek ahalegin guztia egin behar dute aisiaren izaera eta garrantzia eta norberaren bizi-estiloan nola integratu irakatsiz.

## 1.5. AISIA HUMANISTA

Aisiaren ikuspegi hirukoitza landu dugu orain artean, aisiaren praktika, aisiazko esperientzia eta aisiarako eskubidea aztertuz hurrenez hurren. Hala ere, agerikoa da baita ere aisiaren fenomenoarekiko hurbilketa partzial eta ikuspegi bakarrekoez arazoak sortzen dituztela: aisiaren errealitatea ez da inoiz maila objektiboan agortzen, aisiaren bizipen subjektiboak beti kokatzen da koordinatu material eta historikoetan. Aisiarako eskubideak bi ikuspegiak hartzen ditu barne, aisiarako sarbiderako beharrezkoak diren osagai objektiboak eta gizabanakoen esperientziaren balioari berari eginez erreferentzia<sup>86</sup>. San Salvador del Vallek ere perspektiba integral hau azpimarratzen du definizio malgu eta berriztagarri baten alde egiten duen saioan: ... aisia azaleratzen ari den gizartean esperientzia pertsonal eta gertakari sozial bezala definitu dezakegu, zeinak izaera autoteliko eta exotelikodun dimentsio sail batetan parte hartzen duen, barneratze prozesuen garapena ahalbidetuz edo eragotziz, agertzen den denbora eta espazioen markoan<sup>87</sup>. (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 58).

Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak Aisia humanistaren aldeko proposamena egiten du, aisiaren errealitate hirukoitz honetan oin hartuta. Ondoren, eredu honen ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu, aisiaren koordinatu, aisiaren dimentsio eta aisiaren tipologietan geldialdi bana eginez. Ibilbide labur honetarako abiapuntu naturala eskaintzen du Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko *Aisia Humanistaren aldeko adierazpenak* (Aisiazko Ikaskuntzen Institutua, 2011):

Aisia berezko balioa duen esperientzia dugula onartzen dugu, baina balio zabal eta haraindikoagoen menpe dagoen balioa ere bada. Aisia esperientzial eta huma-

<sup>86</sup> Ikus aurreko atalak: Aisiaren praktika (ikuspegi objektiboak), Aisiazko esperientzia (ikuspegi subjektiboak) eta Aisiarako eskubidea.

<sup>87</sup> «Con tal fin, podemos definir el ocio, en el marco de la sociedad emergente, como una experiencia personal y un fenómeno social, que participa una serie de dimensiones de carácter autotélico y exotélico, posibilitando o impidiendo el desarrollo de procesos de interiorización y actividad, en el marco de los tiempos y espacios en los que se manifiesta».

nista baten bizipenaren funtsezko balioa pertsonaren duintasuna da, eta horretatik sortzen dira gainerako balioak. Horrek esan nahi du aisiako esperientziek garapenera edo inibiziora garamatzatela, batzuetan kontzienteki ez bada ere. Aisia positiboak balio pertsonalak eta komunitarioak bultzatzen ditu bere izatetik harantzago; baina balio horietatik gehienak praktikatzen den aisia motarekin daude lotuta. Aisia, berezko balioa duen esperientzia den aldetik, beste bizipen batzuetatik bereizten da garapen pertsonala sortaraziko duten topaketa sortzaileak sortzeko zentzuagatik eta ahalmenagatik. Aisiako esperientzien balioa zuzenean dago lotuta gure beharrazinekin. Maslow-k eta bere lankideek proposatutako giza beharrazanen kategorizazioa kontuan hartuta, esan daiteke ibilbide luzea dagoela aisiako praktketan; aisia kaltegarritik aisia solidarioa, heldutasun eta garapen pertsonaleko maila bat lortu duen pertsonaren xedera. Aisia solidarioak beste batzuei lagunduz aurkitzen du gogobetetasunerako arrazoia, eta aisia aktibo, esanguratsu eta sortzaileko gaitasunak gehitzea dakar: gozatzeko gaitasuna, inplikatzeko jakitea, parte hartzea, era sortzailean adieraztea, eta abar. Aisiako esperientzien hierarkiak berehalako aplikazioa dauka maila pertsonalean, baina gizarte jokabiderako jarraibideak ere eskaintzen ditu. Aisia solidarioko esperientziek besteen bizitzarekin lotzen gaituzte, eta ulermen eta ezagutza aukerak zabaltzen dizkigute: zenbat eta gehiago jakin, orduan eta ulertzeko eta gogobetetzeko ahalmen handiagoa izango dugu. Ikuspegi komunitariotik, aisia duinean aritzea ezin da pertsonaren, herritartasunaren eta elkarbizitzaren oinarritzko balioetatik aparte egon; hortaz, aisia bidezko, etiko eta inklusiboaz ari gara hitz egiten. Gizarte modernoak aukera gehiago ematen ditu aisiatzeko, aurreko edozein garai edo zibilizaziok baino. DUko Aisiatzeko Ikaskuntzek, puntu horietatik, giza garapeneko esperientzia bat aisiako esperientzia zerk egiten duen aztertzen du.

Adierazpenaren edukia aztertuta, Aisia Humanistaren balioak 2. taulan ageri den gisara laburbildu ditzakegu:

## 2. TAULA: AISIA HUMANISTAREN BALIOAK

	Ardatzak	Ezaugarriak
Balio pertsonalak	Bizipena, askatasuna, doakotasuna, duintasuna, ulermena, esangura.	Etikoa, erantzulea, kritikoa, sortzailea solidarioa
Balio sozialak	Elkartasuna, elkarbidetza, errespetua, iraunkortasuna, inklusioa, aukera berdintasuna, partehartze aktiboa.	lheskortasuna, neurrigabekeria, xahutze, erosotasun eta egoismoarekiko kritikoa

Iturria: Aisia humanistaren aldeko adierazpena. Norberak moldatua.

Aisiatzeko Ikaskuntzen Institutuan aisia aldi berean gertakari sozial, pertsonaren esperientzia integral eta oinarritzko giza eskubide bezala ulertzen da (Landabidea Urresti, 2009c), eta «doakoa, funtsezkoa eta giza izaeraren aberasgarria den esperientzia da», (Cuenca Cabeza, 2000: 15). Bizipena den neurrian, aisia giza esperientzia integrala da: osoa, konplexua, burutu nahi diren jardueretara zuzendua (berariazko helburua

duena) eta ekintza pertsonalen inguruan bildua (Cuenca Cabeza, 2004), askatasuna, doakotasuna eta gogobetetzea dituelarik ezaugarri. Aisia Humanistaz ari garenean, honako osagai hauek gehitu behar dizkiogu gainera: ahalegina eta prestakuntza eskatzen duen gainditze edo hobetzea, eta pertsona ororen aisiarako eskubidearen defentsa.

### 1.4.1. AISIAREN KOORDENATUAK

Aisiaren koordenatuak beronen gauzatzearen esparru ezberdinak dira; aisiaren ezagutza, ikaspena eta sailkapena orientatu eta errazten dituztenak. Lau dira Cuenca irakaslearen esanetan aisiaren koordenatuak: Aisia Autotelikoa, Aisia Exotelikoa, Aisia Absentea eta Aisia Kaltegarria, eta «... guztiek dute euren ekintza-arloa eta aisiazko bizipen desberdina» (Cuenca Cabeza, 2011: 34).

Aisia Autotelikoa benetako aisiatzat edo Aisia humanistaren ipar bailitzan hartzen da, eta aisiazko esperientziari dagokio, «era gogobetegarri, libre eta berezkoan, inolako xederik gabe, burutzen baita» (2011: 34). Ikuspuntu ekonomikotik, aisia desinteresatua da, nori bere gogobetetzea eta bizi-kalitatea dakartzkiona. Koordenatu honek hiru ardatz nagusi ditu: aukera askatasunaren hautematea (edo pertzepzioa), autotelismoa (edo berezkitasuna) eta sentipen atsegingarria<sup>88</sup> (Cuenca Cabeza, 1995: 59). Aisia Autotelikoari laburpen modura osatu dugun taulan A zeinua eman diogu.

### 3. TAULA: AISIAREN KOORDENATUAK

Koordenatua	Zeinua	Ezaugarri nagusiak
Aisia Exotelikoa	(E)	Aisia bitarteko bezala, aisia hezgarria, aisia terapeutikoa, interesatua, mesedegarria, onuragarria, baliagarria, zerbaiterako bide edo bitarteko denean
Aisia Autotelikoa	(A)	Aisia Humanistaren iparra. Askea, asebetegarria, helburua bere baitan duena, aisia ez erabilkorra.
Aisia Kaltegarria	(E)	Aisia positibo baten oinarritzko baldintzen aurkakoa da. Kalte pertsonal edo soziala dakartza. Autosuntsikorra. Historian zehar aldakorra.
Aisia Absentea	(A)	Aisiazko esperientziarik eza. Beharrari adikizioa, hutsunea asperdura...

Iturria: Aisiaren Pedagogia. (Cuenca Cabeza, 2011). Norberak moldatua.

Aisia Exotelikoa egiteaz bere buruaz kanpoko beste helburu bat lortzeko burutzen den aisia da. Aisiazko jarduera ezberdinek lanerako, negozioetarako, gizarte-harre-

<sup>88</sup> «... una experiencia vital, un ámbito de desarrollo humano, (...) aquella acción interna o externa que, partiendo de una determinada actitud ante el objeto de la acción, descansa en tres pilares esenciales: percepción de elección libre, autotelismo y sensación gratificante».

manetarako, osasunari eusteko eta beste mila helburu erdiesteko modua eskaintzen dute. Helburua aisiatzko jarduera baino garrantzizkoagoa denean aisia exotelikoko esperientziez ari gara. Taulan E zeinua eman diogu.

Aisia Kaltegarria deritzogu aisia-esperientziek gizartearentzat ondorio mingarriak badituzte -benetakoak edo halakotzat hartuak- bai banaka zein taldeka. (Cuenca Cabeza, 2011: 34). Autosuntsipenerako joera agertzen du, dela adikzio edo gehiegikeriekin lotuta dagoelako, dela gizarteak galarazotako jardueretan oinarritzen delako. Aisiapatia deritze jarduera hauei San Salvador del Valle: «Aisiapatia dela aisiatzko praktika gehiegizkoen garapenagatik edo aisia absentearen esperientzien eragin zitalagatik, aisia kaltegarria agertzen diren esparruak dira. Norberaren aurkako denbora batez hitzegin genezake, aisiak bere zentzurik erregresibo eta autosuntsikorrena agertzen duena definitzeko». (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 75). Neurri batean Aisia exotelikoaren aurkako zeinua hartzen duenez norbanakoaren helburuen kontra egiterakoan, E sinboloa eman diogu ondoko taulan.

Aisia Absentea, finean, aisiarik eza da; alferrik emandako denbora, aldi hutsa, asperraldia. Aisia absentea subjektuaren beraren ikuspuntutik negatiboa, desatsegina da, eta sarri astialdiaren aurrean zer egin ez jakitearen beldurraren forma hartzen du. Erretiroa hartzeak izutzen duen behargina, langabeziak aurrez-aurre jarritako astia zertan eman ez dakien gaztea edo oporraldiak nola bete asmatzen ez duen profesional lanpetuarena ez dira adibide isolatuak gure gizartean. Susan Ertzek *Haserrea Zeruan* eleberrian jaso bezala «Milioiak dira hilezkortasuna irrikatzen dutenak, eta ez dakitenak euren buruarekin zer egin igande arratsalde euritsu batetan» (Ertz, 1943: 134). Taulan A sinboloa lotu diogu, Aisia Autotelikoaren kontrako zeinua agertzen duelako.

Esan beharrik ere ez dago lau koordenatuak aisiaren fenomenoaren agerpenak aztertzeko erabilgarriak diren tipo ideialak baino ez direla. Pertsonen eguneroko errealitatean gutxitan ematen dira bere horretan, bata bestearengandik argi bereizita. Giza esperientzia eta fenomeno sozial konplexua den heinean, aisiatzko esperientziek koordenatu ezberdinen uztarketa eta konbinazioak agertu ohi dituzte. Ñabardura hauei hobeto erreparatzeko aisiaren dimentsioak aztertuko ditugu ondoren.

#### 1.4.2. AISIAREN DIMENTSIOAK

Aisiaren dimentsioak aisiaren koordenatuak zehazten lagun diezaguketen aisiaren gauzapean dira (Cuenca Cabeza, 2000; Cuenca Cabeza, 2006c). San Salvadorrek dimentsioen eta osotasunaren arteko harremana azpimarratu zuen bere definizioan: «Dimentsio gisa gertakari bat definitzeko balio duen multzoaren magnitudo bakoitza ulertuko dugu. Hortaz, dimentsio bakoitza konfiguratzen duen fenomenoaren alderdi bat da». (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 58)<sup>89</sup>.

<sup>89</sup> «Entendemos por dimensión, cada una de las magnitudes de un conjunto que sirven para definir un fenómeno. Por lo tanto, cada dimensión es un aspecto del fenómeno queconfigura».

Cuenca irakaslearen arabera ez dira esparru edo partzela baztertzaila bezala ulertu behar, baizik eta alderantziz:

«Batzuek eta besteek aisia aurkezten zaigun errealitate global eta konplexua aztertu, ulertu eta planifikatzea ahalbidetzen digute. Batzuetan haietariko bat beste bat baino nabarmenagoa izango da, baina zaila izango da denak forma batean edo bestean agertzen ez diren komunitaterik aurkitzea. Aisiaren dimentsioen ezagutzak eta etorkizunak giza garapena bezala ulertutako aisiaren diagnostikoa eta plangintza argitzen ditu» (Cuenca Cabeza, 1999b: 23)<sup>90</sup>.

Aisia autotelikoak bost dimentsio nagusi ditu: ludikoa, sormenerakoa, festarakoa, ekologia- eta ingurumen-dimentsioa eta solidarioa. Aisia autotelikoaren agerkari berezko eta espezifikoa dira, ezaugarri bereziak agertzen dituztenak, bai ikuspegi objektibo batetatik eta baita hauen bizipenean ere.

Dimentsio ludikoak jolasa eta jolasa ulertzeko moduak hartzen ditu barne. Aisia oro ez da jolasa, eta jolas orok ez du zertan aisia izan (ikus bestela kirolari profesionalak, edo telebista bidez igorritako lehiaketan produkzioan edo kasinoetan lan egiten duten beharginak), baina aisiak jolasaren funtzioak hartzen dituenean, aisiaren dimentsio ludikoarekin aurkitzen gara. Nolabait esateko, jolasa hainbat gauza erdiesteko bitartekoa izan daiteke, baina aisiaren dimentsio ludikoaren kasuan helburu bilakatzen da.

Schillerrek jaso bezala, «gizakiak hitzaren zentzu osoan gizaki denean soilik jolasten du, eta gizaki osoa jolasten duenean da soilik» (Cuenca Cabeza, 2012). Jolasaren, eta dimentsio ludikoaren ezaugarri dira askatasuna eta asetzea, fikziozko errealitatea, ziurtasunik eza, antzutasuna, araututa egotea, partehartzea eta jolasa ez denaren munduarekiko nolabaiteko harremana. Jolasean, «benetako jolasean ohiko bizitzan ez bezalako modu batean hurreratzen gara mundura. Bertan errealitatetik ezberdina den esangura bat egozten zaio munduari». Kriekemans-en hitzetan (Cuenca Cabeza, 2012). Roger Caillois frantziar intelektualaren tipologiaren arabera jolasean balio eta planteamentu ezberdinak ager daitezke, hala nola, *Agon* edo lehiakortasuna, *Mimicry* edo alegiatasuna, *Ilinx* edo zorabioa eta *Alea* edo ausazkotasuna.

Sormen-dimentsioak sormenarekin erlazionatutako esperientzietara garamatza, eta modu berezian lotuta dago kultura klasikoaren aisiaren kontzeptuarekin<sup>91</sup>. Aisia hezigarri, hausnartzaile, kultural, sortzailearekin eta norbere hazkundearekin du harremana (Amigo Fernández de Arroyabe, María Luisa, 2000: 52). Irekiera eta topagune izaera ditu, eta norberaren garapena, ikaskuntza eta heziketa nabarmentzen dira

<sup>90</sup> «No son ámbitos ni parcelas excluyentes, sino todo lo contrario. Unas y otras contribuyen a analizar, comprender y planificar la realidad global y compleja en la que se presenta el ocio. Hay veces que una de ellas está más patente que otras, pero difícilmente encontramos comunidades en las que no aparezcan todas de una forma u otra. El conocimiento y proyección de estas dimensiones del ocio ilumina el diagnóstico y la planificación de un ocio entendido como desarrollo humano».

<sup>91</sup> Ikus skholē (σχολή) *aisiaren esanahiak* atalean.

bere baitan. Sormen-dimentsioak sormenarekiko eta konplexutasunarekiko harremana dakar: mundua ikusi, pentsatu eta jarduten dugun modua modu espontaneoan aldatzeko, gure burua berkokatzeko gaitasuna. Aisiaren sormen-dimentsioa sortzearen eta birsortzearen bidez ematen da.

Sortzea zerbait berria ekoiztu edo adierazteko ahalmen bezala ulertu daiteke, eta ez da jeinu handien edo aparteko gizabanakoen eskura bakarrik, mundu guztiaren eskura baino. (Csikszentmihalyi, 1991; Csikszentmihalyi, 1997). Ber-sorkuntza berriz, jada sortuta dagoen zerbait berriro ere sortzean, bizitza berria ematean datza, eta zerikusi zuzena du Umberto Ecoen «Lan Irekia» irekiera interpretatiboarekin eta hartzailearen kolaborazioarekin (U. Eco, 2009; Pellerev, 1997). Hartzea, kulturala zein artistikoa, dimentsio honen baitan kokatzen da batez ere. Sormenaren esparruak asko eta askotarikoak direla esan daiteke, eta, hala Goi Kultura ez ezik, herri kultura eta masa kulturaren hartzea eta baliospena ere aisiaren dimentsio sortzailean kokatu behar dira. Telebistarekin lotutako aisiazko harremanak ikergai dituen lan batentzat inplikazio bereziki garrantzitsuak ditu, ikusiko dugun bezala, puntu honek.

Ekologia- eta ingurumen-dimentsioan testuingurua bihurtzen da aisiazko esperientziaren funtsezko osagaia: ingurua aisiaren bizipenaren «baldintza eta mamia» bihurtzen da (Cuenca Cabeza, 2000: 125)<sup>92</sup>. Kasu honetan toki, leku edo giro batean egotearen zentzuak motibatzen du subjektua jardueran bertan parte hartzeak baino gehiago, errealitate berrien bilaketak sarri. Ingurua, giroa bihurtzen da gozamenaren erreferente. Ekologia eta ingurumen-dimentsioaren ezaugarriak dira presentzia, murgiltzea eta kontenplazioa. Dimentsio hau ingurune fisiko, sozial, kultural, pertsonal eta komunitarioarekin lotzen da, eta baita naturarekin lotutako aisiazko bizipenekin ere, baina ez ingurune naturaletan bakarrik: etxeko aisiazko ingurune zein taberna, plaza, parke, auzo edo hirien erakargarritasunarekin ere harremana du (Cuenca Cabeza, 2011: 15).

Jai edo festarako-dimentsioak aparteko, ezohiko esperientziak ditu oinarri. Jaia, finean, giza existentziarekin lotura duen gertakizun bat ospatzen duen ezohiko agerpen soziala da, eta ohiz kanpoko aisiazko agerkaria den heinean ematen du aukera arrazioaren eremutik alden du eta komunitate-kohesioa lortzen duten bizipenak burutzeko. Jaiaren hartzen dute zentzua kantatzeak, musikak eta dantzak. Ez da jairik gabeko herririk, eta gaur egun aintzinako tonu irmoa galduta badute ere, jaiak publikoaren eta erkidegoaren zentzua mantentzen dute, gehiegikeria, kontraste eta baiez-tapenaren bidez. Aisiaren jai-dimentsioak komunitateak identifikatzea ahalbidetzen du, errealitatea eguneroko bizitzaren, zentzuzko antolakuntzaren eta errutinaren beste aldetik ikusten baitu (2011: 15). Jaiaren ezaugarri dira denboran eta espazioan mugarritutako zentzua duen aparteko bizipena, muturreko emozioak, irrazionaltasuna eta gehiegikeria, eta jarraibidedun prozesu ziklikoaren izaera.

Dimentsio solidarioak, burututako jarduera bera bazter utzita, bizipen altruista, eskuzabal legez hartzen den aisiaz hitz egitera garamatza: besteei norberaren

<sup>92</sup> «Del mismo modo, el ambiente puede ser condición y esencia de la vivencia de ocio».

inolako interesik gabe laguntzeko asmoaz. Bere garapena ardura eta konpromisoarekin lotuta agertzen da, eta borondatezko jardueran eta aukera askatasunean du oinarria (Cuenca Cabeza, 1999b: 23). Aisiaren dimentsio solidarioak garrantzia handia du komunitatearentzat. Skholē berba bera gizakia (herritarra) besteen eta polisaren zerbitzura prestatzearekin lotuta ageri da Aristotelesengan, eta erromatarren *otium cum dignitate* edo aisia duinaren ideiak ere pribilegiatuenean ardura azpimarratuko du<sup>93</sup>.

Aisiaren dimentsio solidarioak beti bestearen presentzia eskatzen du, norberaren-gandik irtete eta irekitze bat, eskuzabaltasuna eta emankortasuna eman daitezten. Hala, beti izango du osagai exoteliko bat<sup>94</sup>. Hala ere, norbanakoak gogobetetzea aurki ditzake aisia solidarioan: besteak laguntzearen poza, norberaren errealizazioa, betebeharrak konpliztea, jende berria ezagutzea... Stebbinsen *aisia serioak* ere zerikusi handia du dimentsio honekin (R. A. Stebbins, 1992), eta baita, nola ez, Urtxintxa Eskola edo EDE Fundazioarena astialdiarena bezalako boluntariotzarako proiektuek ere.

Aisia exotelikoaren koordinatuan ere bost dimentsio nagusi identifikatu dira Aisiazko Ikaskuntzen Institutuaren Aisia Humanistaren eredutik: dimentsio produktiboa, kontsumozko dimentsioa, hezkuntza-dimentsioa, dimentsio terapeutikoa eta dimentsio alienagarria.

Dimentsio produktiboak aisia erabilera eta trukerako balio duen ekoizpen eta kontsumorako objektua bailitzan planteatzen du (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 67). Dimentsio honetatik negozio eta lana den aldetik ulertzen da aisia: produktu eta zerbitzu bezala<sup>95</sup>. Honen baitan koka ditzakegu aisiaren sektore ekonomiko anitz: industria kulturalak, turismoa, kirol profesionala, jokia eta apostuak, bideojokoak, ikus-entzunezko produktuak...

Merkatuaren lojikaren baitako ekoizpenak ez du zentzurik kontsumorik gabe, eta horri erreparatzen dio kontsumozko dimentsioak. Batzuetan, aisia merkantzia bilakatzen da, eta bere zentzua jabetzan eta kontsumoan agortzen du, erostean, edukitzean, pilaketa hutsean bilatzen (eta urruntzen) da asebetetzea. San Salvador del Vallek zorrotz kritikatzeko du kontsumozko dimentsioak aisiazko esperientzia debalutzeko duen arriskua: «Dimentsio honek aisiaren merkaturia sustatzen du zentzu instrumentalean eta *erabili eta botatzearena* beste baliorik gabe, direla arte lanak, kirol-dominak edo ikusitako hirien errepertorioa» (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 69)<sup>96</sup>.

<sup>93</sup> Ikus optimates-ei buruzko hausnarketa Zizeronen *Publio Sestioaren defentsan diskurtsoa*-n.

<sup>94</sup> Gogora ekar dezagun aurretik esana: aisiaren koordinatuak errealitatean ez direla bere-horretan eta modu isolatuan agertzen.

<sup>95</sup> Gogora ditzagun aurreko ataletan landutako Pine eta Gilmore-en planteamenduak eta esperientziaren ekonomia, adibidez.

<sup>96</sup> «Esta dimensión fomenta el mercado del ocio, en un sentido instrumental y exento de ningún otro valor que el *usar y tirar*, sean estas obrasde arte, medallas deportivas o repertorio de ciudades visitadas».

Aisiaren prebentzio-dimentsioa, edo prebentziozko aisiak gizabanakoaren edo gizartearen beharrezko erantzuten die, helburu zehatz bati helduz (horra bere koordinatu exotelikoa), sarri aisia eta osasunaren binomioaren baitan, edo aisiatzko politiken kasuan gizarte eskuhartzeari zuzenduta. Hitzak berak iradokitzen duen bezala, pertsonaren edo gizarte-ehunduraren arrisku, disfuntzio, hondatze edo degradazio egoerak aurrikustea eta ekiditea helburu duten aisiatzko jarduerak hartzen ditu bere baitan.

Aisiaren dimentsio terapeutikoan «erreferentzia-helburua osasuna da, bai birgaitzeko prozesuen bidez aukera galduak berreskuratzeko, bai litezkeen gaixotasunak aurretiaz ekiditeko. Kasu bietan, aisia bide eta prozedura gisa aritzen da» (Cuenca Cabeza, 2011: 13), eta hortaz prebentzio-dimentsioaren beste aldea osatzen du: ez egoera kaltegarriak ekiditea, baizik eta galdutako bizi-kalitatea berreskuratzen laguntzea. Errehabilitazioaren ideia, beraz, dela gaixoarena, biktimarena edo delitugilearena, dimentsio honen muinean dago.

Aisiaren dimentsio alienagarriak ahaztura eta gizanabako eta giza taldeen inguruarekiko isolamendua ekar litzake, aisiaren aukera eta potentzialtasunaren neurritz kanpoko dimentsionatzearekin. Hala, «munduaren desberdintasun eta bidegabeke-ria sozialak» ahaztera eraman dezake gizakia (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 72), eta antzinako greziarren antzera, gutxiengo baten aisia gehiengoaren esklabutzaren gainean eraikiarazi. Aisia alienagarriak ihesa eta aterpea eskaintzen dizkio norbanakoari, besteen behar eta nortasunetara itxita dagoen nitasunaren gehiegitzerako aukera bat. Ondorioz, espazio eta denbora indibidualak sortzen ditu, norbanakoa erkidegotik isolatuz. Zentzu horretan ohartarazten du Dumazedierrek aisia «herriaren opio» berri bat bihurtu daitekeenaz (J. Dumazedier, 1974: 49).

Manuel Cuencak, dimentsio horietaz gainera aisiaren *hezkuntza-dimentsioa* eta aisiaren *dimentsio bereizgarria* ere aipatzen ditu, «Aisiatzko Ikaskuntzen egungo erronkak» artikuluan (Cuenca Cabeza, 2007: 29-31). Hezkuntza dimentsioak norberaren eta gizartearen formaziozko bide den aldetik heltzen dio aisiari. Aisiaren dimentsio bereizgarriak berriz desberdintzea eta bereizte soziala bilatzen ditu, itxurari garrantzia emanez bizipenaren gainetik. Aisiatzko esperientziaren bizipen negatiboari erreparatuta aldiz, hau da, aisia forma hau agertzen den gizarteak edo esperientzia bera bizi duen subjektuak berak txartzat hartzen dituen kasuetan (Cuenca Cabeza, 1995: 56) ere dimentsio ezberdinak identifikatu daitezke, haietan gehiegi sakonduko ez dugun arren. Hala, Aisia Kaltegarriaren baitan itxurazko askatasuna, instintuzko aisia, adikzioa, aisia egokieza eta legez kontrako aisia koka ditzakegu. Aisia absentearen kausak, berriz, bi dimentsiotan bereizi daitezke: ezintasuna (denbora edo dedikazio faltagatik adibidez) eta ezgaitasuna (zentzu, jarrera, edo iaiotasunaren aldetik...). Laburbilduz, 4. taulan adierazi daitezke atal honetan berrikusi ditugun aisiaren koordinatuak (haien norabide positibo eta negatiboan) eta berauen dimentsio nagusiak:



#### 4. TAULA: AISIAREN NORABIDEAK, KOORDENATUAK ETA DIMENTSIOAK

+	-
<b>A</b> Dimentsio ludikoa Sormen-dimentsioa Ekologia eta ingurumen-dimentsioa Jai-dimentsioa Dimentsio solidarioa	<b>A</b> Ezintasuna (denbora, dedikazioa...) Ezgaitasuna (zentzu falta, jarrera, iaioitasuna...)
<b>E</b> Dimentsio produktiboa Kontsumozko dimentsioa Hezkuntza-dimentsioa Dimentsio terapeutikoa Dimentsio bereizgarria Dimentsio alienagarria	<b>E</b> Itxurazko askatasuna Instintuzkoa Atxikia (adikzioa) Egokieza Legez kontrakoa

Iturria: norberak moldatua. (Cuenca Cabeza, 2011; San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000).

#### 1.4.3. AISIAREN TIPOLOGIAK

Aisia eta aisiazko esperientzia modu askotan sailkatu daitezkeen arren, Aisia Humanistaren ereduaren baitan ikuspegi objektibo eta subjektiboak barne hartzen dituen kategoria orokor erabilgarriak aurki ditzakegu. Biztanleriaren ohitura, bizi-modu, ohitura eta balioei ez ezik subjektuek eurek haien aisia praktika eta bizi-estiloari ematen dieten esannahiari aldi berean erreparatzea gakoa da, horretarako. Hala hiru ardatz nagusi proposatzen ditugu: aktibotasuna / pasibotasuna, kasualtasuna / substantzialtasuna eta ohikotasuna / apartekotasuna. Aisiaren tipologia deritzegu kategoria hauei.

Erabiliko dugun lehenengo aisiaren tipologia aisia aktiboa/aisia pasiboa ardatzari dagokiona da. Aisia aktiboa eta pasiboaren artekoa ez da objektiboki, kanpoko begiratuarekin erraz behatu daitekeen ezberdintasuna. Aisiazko praktika batzuek aktibotasunarekiko lotura agerikoagoa agertu izanagatik (adibide klasiko bat jartzearren, futbol partida bat jokatzea aktiboagotzat daukagu partida pera telebistatik ikustea baino), subjektuak aisia jasaten duen ala bertan jarduten duen jakiteko, subjektuaren iritziaren beharra daukagu. Aisia aktiboa zuzenean dago lotuta aurreko atalean deskribatutako sormenezko dimentsioarekin eta jarduerarekiko inplikazio eta inplikazio ezarekin.

Gertatzen ari denaren eta egiten ari garenaren kontzientzia funtsezkoa da, erdigunea pertsona baita, ez baliatzen diren baliabideak eurak. Tipologia honen gakoa, beraz, norberaren inplikazioan datza, ez jarduera beraren izaeran. Masa komunikazioaren eremura ekarrita, ardatz honekiko zalantzak argi eta garbi formulatzen ditu

Joffre Dumazedierrek bere «Aisiazko Zibilizaziorantz?» lan klasikoan. Aisia aktibo/pasiboaren ardatzaren ikuspegitik, hedabideek aukera beste arrisku dakartzatela argi adierazten du ikerlariak:

Zein dira komunikazio-hedabide mekaniko handien eraginak aisiazko aldiak erabiltzerako orduan? Zalantzarik gabe ezberdintasun handiak daude hedabideok erabiltzeko moduetan eta pizten dituzten iritzietan. Baina aisiazko jarduerak eragiten duten lilurak izaera bera du batzuen eta besteen kasuan, indar ezberdina badute ere. Lazarsfeldek irudikatutako prentsa, zinema, irrati eta telebistarekiko jarreraren arteko elkarreragin indartsua erakutsi du. Egun zilegi da aisiazko jarreraren baldintzapen teknikoaz hitz egitea. Baldintzapen tekniko horrek ikusle edo entzulearen pasibotasuna determinatzen al du? Logikoa da, noski «mass media» hauen sugestiorako gaitasunak, edukien estandarizazioarekin batera, ondorio kirtentzaileak izatea. (J. Dumazedier, 1950: 61-62)<sup>97</sup>.

Bigarren aisiaren tipologiak aisia kasuala / aisia substantzialaren arteko ezberdintasunari erreparatzen dio. Izan ere, aisiazko jarduera baten zale den pertsona baten eta, besterik gabe, jarduera burutzen ari denaren aisiazko esperientziak ezberdinak dira. Aisia substantziala edo serioa deritzogu ekite eta berrekite kontziente eta aukeratu bat ematen denean, jarduera burutzeko motore autonomo bat dagoenean. Borondatezko praktika sistematikoarekin lotzen da; parte hartzaileek haien nortasunaren adierazpide bezala ulertzen dutena. Aisia kasualak, aldiz, ausazkoa edo unean unekoa izan daitekeen kontaktua suposatzen du jarduerarekin. Dibertsiorako aisia bezala ere ulertu dezakegu, zeinak epe laburrerako plazerra dakarren eta ez duen prestakuntza maila handirik eskatzen hartaz gozatu ahal izateko (Cuenca Cabeza, 2000: 138). Atsegingarria eta gogobetearazlea izan daiteke, nola ez, baina ez dakar errepikatzerik bere horretan. Aisia kasuala aisia substantzialagorako sarbidea izan daiteke, subjektuak jarduerarekiko identifikazioa eta errepikapenerako gogoia gartzten dituenean. Stebbinsen esanetan:

«Aisia kasuala» terminoa «aisia serioa» bere bikia bezain zaharra da, bigarrenari buruzko hasierako adierazpen kontzeptuala zekarren artikulua berean etorri baitzen mundu honetara (...). Artikulu hartan, eta beste geroagoko lanetan, aisia serioaren esanahia gehiago argitu asmoz, sarri alderatu nuen aisia kasual edo ez serioarekin, azken honen kasuan lo-kuluxka egitea, parkean zehar ibiltzea edo, dibertsio bezala jardundakoan, telebista ikusi edo egunkaria irakurtzea jarriz adibide gisa. Are gehiago, adierazpen defi-

<sup>97</sup> «Quels sont les effets des grands moyens mécaniques de communication sur la façon d'utiliser les temps de loisir ? Il existe certes de grandes différences entre les modes d'utilisation de ces moyens et les opinions qu'ils suscitent. Mais la séduction exercée par les uns et les autres sur les activités de loisir, quoique de force inégale, est de même nature. Lazarsfeld a montré la forte corrélation qui unit les attitudes à l'égard de la presse illustrée, du cinéma, de la radio et de la télévision. Il est désormais permis de parler d'un conditionnement technique des attitudes de loisir. Ce conditionnement technique détermine-t-il la passivité du spectateur ou de l'auditeur ? On peut en effet craindre quela puissance de suggestion propre à ces « mass média », liée à la standardisation de leurs contenus, ait des effets abêtissants».

nitzaile hauei noizbehinka iruzkin bat gehitu nien, aisia kasuala aisia serioaren erreinutik kanpora gelditzen den aisia guztia bezala ulertu daitekeela. (R. A. Stebbins, 2007: 37)<sup>98</sup>.

Stebbinsek berak onartzen du hasierako saiakera definitzaile haiek leku txarrean utzi zutela aisia kasuala, beti ere aisia serio edo substantzialaren bertuteak goraiatzeko kontraste bezala erabili baitzuen. Bestalde, hirugarren kategorია bat sortu zuen, tipologia honen baitan kokatu beharrekoa: proiektuan oinarritutako aisia (*project-based leisure*) zeina aisia seriotik ezberdintzen den epe laburreko ekitaldia delako, eta ez delako, aisia serioa bezala, bizi-interes zentrala (Dubin, 1992). Edozelan ere, aisiaren kasualtasun eta seriotasunaren artean dikotomia baino, continuum bat sortzen da, non proiektuan oinarritutako aisia bezalako kategoría berriak aurkitu eta zehaztea posiblea den. Gakoa, hala ere, aisiazko jardueraren errepikapena eta maiztasuna da.

## 1. GRAFIKOA: AISIAREN TIPOLOGIAK

<b>Aktiboa/Pasiboa</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontzientzia.</li> <li>• Inplikazioa, desinplikazioa.</li> </ul>
<b>Kasuala/Substantziala</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errepikapena eta maiztasuna.</li> <li>• Praktika sistematikoa, nortasunaren adierazpidea.</li> </ul>
<b>Ohikoa/Apartekoa</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berezitasuna.</li> <li>• Erronka eta trebetasuna.</li> </ul>

Iturria: norberak egina. (cf. Stebbins eta Csikszentmihalyi).

Maiztasunaren ideia hari beretik, baina aisiazko praktikarekin baino bizi-penarekin gehiago lotuta, hirugarren eta azken tipologia ohiko aisia eta aparteko

<sup>98</sup> «The term «casual leisure» is as old as its fraternal twin, «serious leisure», for the first time came into this world in the same article that contained the initial conceptual statement about the second (Stebbins, 1982a). In that article and a number of later works, to further clarify the meaning of serious leisure, I frequently contrasted it with casual, or unserious, leisure, exemplifying the latter with activities like taking a nap or strolling in the park or, when pursued as diversions, watching television or reading a newspaper. Moreover, I occasionally added to these definitional statements the observation that casual leisure can also be understood as all leisure falling outside the realm of serious leisure».

aisiaren artekoa da. Horrela, hasierako, ohiko eta aparteko esperientzien artean ezberdindu daiteke. Csikszentmihalyik aparteko esperientziaren (ohiz kanpoko, planifikatu edo aurrakusi gabekoak) eta esperientzia hobezinen artean bereizketa egiten du (une bereziak, zoriontasun eta extasia aurki daitekeen gailurrak, erronka eta trebetasunaren oreka eta motibazio maila altuarekin lotutakoak) (Csikszentmihalyi & Csikszentmihalyi, 1992). Csikszentmihalyiren flow edo jario esperientzia hobezin hauek Howard eta Diane Tinsleyren aisiatzko esperientziaren atributuekin zerikusi nabarmena agertzen dute (Tinsley & Tinsley, 1986), baina onura psikologikoak gehiago nabariaraziz subjektuaren bizipena, beraren deskribapena eta honen baldintzak bainoago.

#### 1.4.4. TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIARAKO HURBILKETA INTEGRALA: ASTIA-ALDIA-AISIA EREDUA

Cuencaren hitzetan, gizakia hiru denborazkotasun motatan egiten du bere bidea ikuspegi antropologikotik: denbora sozialean, lanekoan eta pertsonalean. Denbora sozialak, historikoak, gizabanakoaren bizitzaren inguru sozial gisa funtzionatzen du, eta bertan txertatzen da lanaldia, beharrean igarotako denbora. Bi denbora hauek neurgarriak, kontagarriak dira, «erabat kronologikoak, kuantitatiboak» (Cuenca Cabeza, 2000: 21); non iragana eta geroa zehaz daitezkeen. Denborazkotasun pertsonala, ordea, denboraren bizipena, norberarena da; aldi kualitatibo bat osatzen du. Horrela ulertuta, astia laneko denborari eta denboraldi sozialari dagokio, eta aisia, ordea, esperientzia bezala ulertuta, norberaren denborazkotasun pertsonalaren parte da. Abiapuntu teorikoaren lehen atalari amaiera emate aldera aisiaren eta aisiatzko esperientziaren ulermen integralari begira euskerazko hiru terminori erreparatuko diogu: astia, aldia eta aisia, hurrenez hurren.

Sarri nahastuak izan diren eta izaten jarraituzen duten arren, aisia eta astia ez dira gauza bera. Astia denbora da, finean. Gaztelaniaz *tiempo libre*, ingelesez *free time*, alemanieraz *freizeit*, euskarazko astia «denbora liberatuari» dagokio, behin lanarekin eta norbere eta besteen zaintzearekin lotutako betebeharrak burututakoan gelditzen zaigun denborari. Hau da, denbora sozialak eta lanaldiak zehaztuko dute pertsonaren astia. Astia pertsonaren askatasun erlatiboaren (eta sumatuaren) esparru tenporala da, jarduerak bere nahi eta ahalerara artikulatzeko eremua. Nolabait esateko, aisiaren lehengaita osatzen du astiak, honen material gordina, zeina norbanako eta gizarte bakoitzak, bere egoera espezifikotik abiatuz, modu berezkoan landuko duen.

Astia eta aisiaren arteko nahasmen kontzeptuala Aisiatzko Ikaskuntzen hastape-nekin eta 1960. hamarkadako Aisiaren Soziologiarekin eta ikerketa kuantitatiboarekin lotuko du Jaime Cuencak «El valor de la experiencia de ocio en la modernidad tardía: Génesis y condiciones de posibilidad» doktorego tesian. Bere ustetan, ikerketa hauek «aisiaren definizio objektibista bat dute komunean, zehatzago esanda, bete-

beharretatik askatutako denboran burututako ekintzen multzoa»<sup>99</sup>. (Cuenca Amigo, 2010: 17), eta, hortaz, aurreko ataletan deskribatutako aisiaren definizio eta neurketa objektiboaren baitara mugatzen dira.

Noski, ez zaie garrantzia edo esangurarik kendu behar askatasunezko tarte hauek ahalbidetu dituzten lorpen sozialei, astia behar-beharrezkoa baita (opor ordainduak, lanordu mugatuak, asteburuak...) norbanako eta gizarte mailan astia, eta, hortaz, aisia izan dezagun. Baina gizarte fenomeno eta esperientzia pertsonalaren moduan eman daitekeen marko tenporala (astia) eta giza eta gizarte mailako esparrua bera (aisia) bereizi egin behar dira ezinbestean, aisiaren ikaskuntzan aurreratuko badugu. Hori dela medio, astia Cuencak aipatutako denbora sozialaren eta lan denboraren araberako esparru gisa hartuko dugu lan honetan. Kelly-ren eskeman, «denborazko» adiera hartuko luke (Kelly, 1995: 22)<sup>100</sup>.

Aldia da argitu eta zehaztu behar dugun bigarren terminoa. Aldia aisiazko zein beharrari lotutako jarduerak espazio eta denbora koordenatuetan hartzen duten kokapenari dagokio. Izan ere, «bizi esperientzia ez da bere baitan bakarrik azaltzen, espazio eta denboraren koordenatuetan txertatuta baizik»<sup>101</sup> (Cuenca, 2004: 44). Aldiak ere denborarekin du harremana, astiak bezala, baina jarduera edo praktika batean emandako denborari egiten dio erreferentzia: jarduera horrek izan duen iraupena, eskaini zaion denbora unitate kopurua (segundo, minutu, ordu, egun, aste...) eta berau gertatu den garaia kasu. Adibidez, lanean dihardugun esparru tenporalari esaten diogu lanaldi, eta gure astia gauzatzen, mamitzen den tarteari astialdi.

Eskura, aske, bihurturik dugun denbora baldin bada astia, jardundako denbora da aldia. Aisiaren atributu objektiboak biltzen ditu aldiak, hala nola, lekua, denbora, iraupena eta garaia<sup>102</sup>. Aldiak beti koordenatu zehatz eta objektiboak ditu, jarduera oro une konkretu batean hasten baita, iraupen zehatza baitu eta memento zehatz batean amaitzen baita. Adibidez, telebista ikustean telebista piztu, ikusi eta itzali egiten dugu. Piztu, ikusi eta itzaltze horrek zehaztuko du telebista ikustera zuzendutako aldia. Aitzitik, eta adibide honekin jarraituz, telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak ez dira beti aparailua piztean hasten, ez eta nahitaez berau itzaltzean amaitzen. Kellyren eskemari jarraituz, aldia aisiaren jarduera izaerarekin lotzen da, zerbait egiten emandako, edo jarduerak definitutako denbora tarte baina.

Azkenik, aisia askatasunezko denbora edo jarduera bera baino zerbait gehiago da.

<sup>99</sup> «Con distintos matices, comparten una definición objetivista del ocio como tiempo libre o, con mayor precisión, como el conjunto de actividades practicadas en el tiempo liberado de las obligaciones».

<sup>100</sup> Ikus Terminologia: aisiaren definizioa atalean Leisure berba, eta batez ere Kelly-ren aisiaren adierei dagokien eskema.

<sup>101</sup> «La experiencia vital no se explica sólo en sí misma, sino en cuanto inserta en sus coordenadas espaciotemporales».

<sup>102</sup> Alderantziz ere esan genezake, aldiaren bizipen subjektiboa dela aisia.

Betebeharririk gabeko, nolabaiteko askatasunezko esparrua eskatzen du, eta jarduera eta praktika behagarri, objektiboetan gauzatzen da noski (hobby edo zaletasunak, jolasak, kirolak, jaia, dantza, bidaia,...); baina dimentsio subjektibo garrantzitsua du bere baitan, zeinarik gabe ezin uler daitekeen bere izaera. aisia esperientzia doakoa, eta giza naturaren aberasgarria da eta «zerikusi handia du egoera eta esperientzia atsegingarri eta asegarrien bizipenarekin»<sup>103</sup> (Cuenca, 2000:15).

Hori dela eta astia eta aldia kontzeptuetatik aldentzen da, bi hauen kasuan ez bezala, pertsonaren, norbanakoaren, taldearen bizipena, esperientzia baita aisiaren gakoa. Aisia bizipen subjektibo eta pertsonala da muinean, gizakia izaki soziala den heinean betiere berau ahalbidetuko duen testuinguru sozial batean kokatuta aurkituko dugun den arren. Kellyren esperientziaren adierarekin lotuko dugu, beraz, aisia, Cuenca Cabezak aipatutako denbora pertsonal, subjektiboarekin (Cuenca Cabeza, 2000; Kelly, 1996).


Dagokigun esparrura itzulita, telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak telebistaren aurrean ematen dugun denborarekin nahastea astia eta aldia nahastea bezalakoa da. Pertsona edo gizarte batek telebistaren pantaila aurrean batez beste ematen dituen orduen kontaketa soilak (ordutegiek, maiztasunak, aste egun eta asteburuetako kontsumoaren banaketak) ez digu informaziorik eskaintzen pertsona horrek edo gizarte horrek jarduera horretan jarduteko dituen motibazioez, ez eta aurkitzen eta eraikitzen dituen esanahi eta plazeretaz ere. Denbora zertan igarotzen duten, duten astia nola inbertitzen duten jakin dezakegu, baina ezer gutxi diosku jarduera horretan bizi dituzten aisiazko esperientziez.

Bestela esanda, halako zenbaketa batek astira eta aldira hurbilketa objektibista bat ahalbidetzen digu, baina aisiaren izaera subjektibo, bizipenezkoa, bazter uzten du. Are gehiago, egun gizarte eta teknologia mailan eman den, ematen ari den eta emango den berrikuntzaren pare egongo den ikerketa-berrikuntza aurkeztea ezinbestekoa da telebistak pertsonen aisian jokatzeko duen papera ulertzeko. Telebista zer den ulertzeko, honek pertsonen egunerokotasunean zein leku hartzen dituen aztertzea ezinbestekoa dela esan genezake, eta horretarako aisiazko esperientzien ikerketa funtsezkoa izango da.

Horretarako, eta atal honen azken ekarpen modura aisiarako hurbilketa integralerako astia-aldia-aisia eredia proposatzen dugu, 3. irudian laburbilduta agertzen dena, eta adibide gisa lanaren ardura den telebistarekin lotutako aisiazko bizipenak eta honen azterketa hartuko ditugu ondoren.

<sup>103</sup> «Una experiencia gratuita, necesaria y enriquecedora de la naturaleza humana (...) mucho que ver con la vivencia de situaciones y experiencias placenteras y satisfactorias».

## 3. IRUDIA: ASTIA-ALDIA-AISIA EREDUA



Iturria: norberak egina.

Ezkerreko erpinean astia kokatzen da. Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak ezagutu ahal izateko, ezinbestez galdetu beharko dugu norbanakoaren eta giza taldearentzat eskuragarri dagoen eta telebistari eskaintzen zaion astiari buruz. Goiko erpinean, bestalde, aldia ageri zaigu, beste bi erpinen erdigunean. Izan ere, dagoneko sarri gogoratu dugun legez, aisia gertakari soziala da, koordinatu material eta historikoetan azaltzen dena, eta, hortaz, denbora eta jarduera bat behar dituena.

Era berean, telebistarekin lotutako aisia ezagutzeko ezinbestean ikertu behar ditugu telebista ikusteak (telebistaren kontsumoak) hartzen dituen aldiak: non, noiz eta zenbat ikusten dugu telebista? Eguneko zein ordutan, asteko zein egunetan, urteko zein hilabetetan? Ematen al da aldiberekotasunik? Zein beste jarduera burutzearekin batera ikusten da? Ikusten al da telebistarik garraioaldietan? Etxeko lanekin batera uztartzen al da? Irakurtzen al da egunkaririk telebista piztuta dugun artean?<sup>104</sup> Telebistako programazioa da, noski, aldiaren beste alderdi bat, batez ere emisio sinkronikoaren kasuan, edukia bera determinatzen baitu denborak berak.

<sup>104</sup> Ikus adibidez hedabideen aldibereko erabilaren hazkundeari buruzko datuak Mediascope enpresaren arabera. (Landabidea Urresti, Aristegi Fradua & Madariaga Ortuzar, 2012).

Bi erpin hauen arteko harremanak ere (astia-aldia: astialdia) garrantzia handiko informazioa eskaini diezaguke aisiako praktikek pertsonen egunerokotasunean duten pisu eta garrantziarekiko. Hala, zenbaterainokoa da telebista ikusten dugun denbora, dugun astiarekin alderatuta? Ez da gauza bera egunean lau ordu baino gutxiagoko astialdia izatea (eta astia honen erdia baino gehiago telebista ikusteari zuzentzea) edo sei orduko astialdia izatea egunean eta honen herena ematea telebista ikusten (Aliaga, 2006).

Aisia erpinari dagokionez, berriz, lehenengo eta behin azpimarratu beharrekoa da ezinbestekoa izango dela subjektuei haien bizipenari buruz galdetzea telebistarekin lotutako aisiatzko esperientzia ikertzeko, bizipenaren alde subjektiboan kokatzen denez ez baita zuzenean behagarria. Aldien neurketara zuzendutako audimetria eta inkesta kuantitatiboek ikus-entzule masen jokamolde agregatuak ezagutzea ahalbidetzen digute, baina ez hala berauek telebistari erazuten dizkieten esanahi eta bizipenetan sakontzea. Telebistari lotutako aisiatzko esperientziak ezagutzeko hurbilketa semantiko bat behar da, pertsonen esanguren eraikitze eta zirkulaziorako darabil-tzaten prozesuak aztertuko dituen analisi kualitatibo baten bidez, ikertu nahi den subjektuaren beraren berezko termino esanguratsuak aurkitzearen helburuarekin<sup>105</sup>. Finean, telebista ikustearen kontzeptualizazio berria proposatzen du erpin honek, hartzaileek medioarekiko harremana nola bizi duten galdetzen duen audientziaren-ganako *emic* hurbilketa bat (Pike, 1967).

Denbora tarte eta maiztasunen neurketa soilera zuzendutako audientzien ikerke-tek aldia bakarrik hartzen dute kontuan, edo gehienez astiarekin lotuta agertzen zai-gu (aldia edo astia-aldia azterketak alegia), baina hiru erpinak elkarerraginean dau-de, elkar-menpekoak dira. Ez da nahikoa telebista ikustearen atributu objektiboak aztertzea telebistarekin lotutako aisiatzko esperientziak ikertzeko, bizipenaren alderdi subjektiboak aztertzea testuinguru historiko, material eta teknologikotik kanpo az-tertzea nahikoa ez den bezala. Hortaz, astia-aldia erpinen azterketara zuzendutako paradigma objetibista gainditu eta Astia-Aldia-Aisia erpinak elkarerraginean azter-tuko dituen eredu behar dugu, iker objektuak aurkezten dituen konplexutasun eta berrikuntzei erantzuteko. Telebista aisiatzko praktika soiltzat hartu eta honen koor-denatu objektiboak neurtzetik aisiatzko esperientzia gisa dituen dimentsio subjektibo eta semantikoak ere kontuan hartzea, alegia.

Telebistarekin lotutako aisiatzko esperientziak beti egongo dira, esan bezala, tes-tuinguru sozio-tekniko batean kokatuta. «Internetek telebista gainditu du AEBetan, Europan eta Txinan» jasotzen zuen Berriak (Urkizu, 2011a), eta era berean pertsonen telebistarekin eta beste hedabideekin dituzten harreman eta bizipenek hauen garapena baldintzatu eta zuzenduko dute: «Beti egongo dira espezializazioa, berrikuntza eta tele-komunikazio sistema unibertsal batek egiten duena beste modu batetara, asmo batzuei

<sup>105</sup> Ikus «Ikerketaren dimentsioak» atala *Hacia una aproximación cualitativa a las experiencias televi-sivas de distintas generaciones* tesinan. (Landabidea, X., 2009:11-24).



begira hobeto egiteko saiakerak» (De Sola Pool, 1983). Horrela, Aisiazko Ikaskuntzek audientzia ikerketara egin dezaketen ekarpena funtsezkoa izango da telebistaren oraina hobeto ulertu eta azaltzeko, eta honen etorkizunera prestatu ahal izateko.

Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak aztertzeko hiru erpineko ereduak telebistak zehazki pertsonen eguneroko aisian jokatzeko dituen paper ezberdinak eza-gutu eta telebistak gizartean duen lekua ulertzeko proposamena osatzen du, lan horretan lagungarri izango delakoan.

## 1.5. LABURBILDUZ: AISIAZKO ESANAHIEK BILA

Lehen kapitulu honetan aisiaren kontzeptuarekiko sarrera lau koitz bat burutu dugu. Lehenengo aisiaren adiera aniztun izaerari erreparatu diogu, hitzaren esangura garaikideak eta historian zehar jaso izan dituen esanahiak erkatuz «leisure», «ocio» eta «aisia» berbak oinarri hartuta. Ibilbide historiko-etimologiko honek autore klasikoek lanetan nahiz egungo plataforma digitaletako ezberdinetan aurkitu ditugun ekarpenak mahai gaineratzea ahalbidetu digu. Hala ikerketa honen oinarrian dagoen kontzeptuari sarbidea emateaz gain, hainbat iturritako ekarriak alderatu eta artikulatu ahal izan ditugu, iker-objektuari eta egungo garaiari egokitzeko.

Lehen zehaztapen kontzeptual honen ondoren aisiaren ikaskuntza eta Aisiazko Ikaskuntzan bereiztu ditugu, eta ikerketa bigarrenaren eremuan kokatu ondoren haren diziplinarteko izaeraren inguruan jardun dugu, jakintza-arlo ezberdinetatik egin izan diren ekarpenak bilduz, eta hedabideak eta aisia binomio lantzearen beharrezan erreparatu. Ondoren, aisiak iker-objektu bezala har ditzakeen hiru aldaera landu ditugu. Ikuspegi bakoitzak azpimarratzen dituen ezaugarri eta kontzeptu nagusiak aztertuz: aisia praktika bezala, aisia esperientzia bezala eta aisia eskubide bezala.

Aisia humanistak eskaintzen dituen kontzeptu eta kategoria teorikoek lan honen aurrekari teoriko ezinbestekoak dira, eta behin aisiaren eta Aisiazko Ikaskuntzen nondik norakoak aipatuta, honen oinarriak azaldu ditugu, Aisiazko Ikaskuntzen perspektiba orokor eta osoko bezala: aisia humanistaren aldeko adierazpenean jasotako balioak, aisia humanistaren koordenatuak, aisiaren dimentsioak eta norabideak eta aisiaren tipologia.

Bukatzeko, abiapuntu teorikoaren lehen zati honen sintesia osatzen duen eta lan osoan zehar garrantzia handia izango duen telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala proposatu dugu. Hurbilketa honek aisia humanistaren planteamenduak ikerketa honetara egokitu eta telebistaren aisiazko harremanen elementu objektibo eta subjektiboak jasotzea ahalbidetzen digu, euskarak eskaintzen dituen hiru hitz elkar-harremanean jarriz: astia, aldia eta aisia.



---

## II. KAPITULUA

### TELEBISTA KOMUNIKABIDEEN EKOSISTEMAN

---

Ikus-entzunezko edukien ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistema den heinean, telebista iragaite edo trantsizio egoera batean dago, bateratze joera agertzen duten aldaketa teknologiko, industrial eta sozialen eraginez. Eraldaketok telebistaren izaera bera eta beronen ulkerera soziala kolokan jartzen dute, aldi berean telebista lehen zena baino gehiago (eduki aukera zabalagoa, eta plataforma eta sarbide berriak) eta gutxiago bihurtuz (haren iragan mendeko zentraltasuna eta erreferentzialtasuna ere zalantzan baitago). Telebistak gizarte garaikideetan duen kokalekua aztertu eta ulertu ahal izateko kontzeptu garrantzizko batzuk berrikusi eta berpentsatu beharra dago, komunikazioaren paradigma zaharrek ez baitute berez, eta bere horretan, egungo ingurua deskribatzeko balio; are gutxiago norbanakoek eta taldeek inguruarekin osatzen dituzten aisiazko harremanak aztertzeke.

Lehenengo atalak leit motiftzat izan duen denbora (Astia-Aldia-Aisia ereduarekin amaituz) bigarren atal honetan espazioak ordezkatzeko du, komunikabideek gizakien aisiazko esperientzien hondoko irudi (eta soinu) bezala osatzen duten testuinguruaren analisirako metafora gisa. Horretarako lehenik eta behin espazio mediatikoaren kontzeptua erabiliko dugu, espazioaren inguruko eztabaida klasiko bi gogora ekarriz lan honen helburuetara. Era berean komunikabideen paisaiari erreparatzeko diogu, terminoak agertzen dituen aukera eta arriskueta geldituz. Bigarrenik, bateratze multimediararen ezaugarri teknologiko industrialak aztertuko ditugu hainbat komunikabidetan, eta bateratzearen garrantzia kulturala gogora ekarri, eraldaketa teknikoetatik haratago. Azkenik, telebistaren ekosistemari helduko diogu, telebistak gure garaian hartzen duen kokalekuaz eta hari buruz ditugun ulkererez jarduteko, telebistaren ikuspegi agnostiko baten alde eginez, hirugarren atala hasi aurretik.

Izan ere, komunikabideen bateratzea subjektuek parte hartzen duten komunikabideen ekosisteman eragiten ari den eraldaketak, eta alderantziz, subjektuen parte-hartzea bateratzean sortzen hasi den aldaketak deskribatzea da atal honen helburua.

#### 2.1. KOMUNIKABIDEAK ETA ESPAZIOA

---

Telebistari eta masa komunikabideei buruz jarduterakoan, metafora emankorra eskaintzen digu espazioak. Azken batean, ingurune fisikoaz gainera, ingurune komunikatiboetan bizi gara garaioetan, eta gure egunerokotasuna hedabideek eurek gorpuzten dute, hiriak, herriak eta lurraldeak bezainbeste.

Gure solaskidea hurbil ala urrun dagoen, solasaldi batean absente edo presente gauden ez du espazio geografikoak komunikaziozko espazioak beste baldintzatzen. Telebistako aurkezle eta pertsonaiak familiarrak, etxeako zaizkigu, auzokoa apenas ezagutzen dugun artean. Etxean gelditu arren bidaiatu egiten dugu irratiairen soinuek, telebistaren irudiek, egunkariaren letrek, telefonoaren ahotsak edo sare digitalek osatutako espazioetan barrena. Haiek ez dituzte kontuan hartzen «etxearen hormak, auzoaren etxadiak edo beste muga, oztopo edo pasabide fisikoak» (Meyrowitz, 1990: 130). Gero eta gehiago, etxeko zein eskuko pantailetako irudiek eta kaleetako kartekek osatzen dute gure eguneroko paisaia, naturaren formek edo hiri eta herrietako eraikinek eurek baino areago. Fiona Allonek espazioaren modu berri horren inguruan hausnarketa proposatzen digu bere «Eguneroko Kontrolaren Ontologian»:

Hurbilekoa eta urrunekoaren arteko interakzio sorta ahalbidezterakoan, sarri elkarbanatua den denboran eta hurbiltasun espazialaren mendekotasunik gabe, komunikabideen teknologia digitalak ez dira soilik gizarte bizitzaren ordena espaziala berkonfiguratzeko ari, zuzenean espazioa eta lurraldea nola bizi dugun moduan eragiten ari dira... Komunikabide eta komunikazio sareek espazio-denborazko harremanen molde berri bat osatzen dute, zeina esperientzia espazialaren aurreko domeinua konplikatu eta beroni gainjartzen zaion. (Allon, 2004: 256-257)<sup>106</sup>.

Komunikabideek gure egunerokotasunaren testuinguru eta atzealde informatibo eta sinbolikoa osatzen dute. Atxikimendu maila eta mota ezberdinekin lotzen gatzazkie komunikabideei egunean zehar, hainbat elementu eta osagaiez osatutako espazio aldakor eta aberats batean eginez gure eguneroko ibilbideak. Komunikabideen gainean gertatzen da egungo bizitza modernoa: egunkariak irakurriz gosaltzen dugu, irratia piztuta gidatzen dugu, mp3 bidezko musikak jartzen dio soinu banda metroan edo autobusean egindako bidaiari, lanaldia ere internet bidezko edukiz beteago aurkitzen dugu.

Komunikazio teknologiek saturatutako gizarte(et)an bizi gara. Seija Ridellek jaso bezala, komunikabide baten edo besteren ikus-entzule gara orain, ia edonon eta ia denbora osoan (Ridell, 2011b: 3). Hiriak eurek testuz jositako ingurune sinboliko bihurtu zaizkigu, sare digital globalen partaide haiek ere, azpiegitura teknologikoa garatuz eta inplementatuz (Ridell, 2010)<sup>107</sup>. Hiriak, herriak, auzoak, etxeak, egongelak, logelak, garraiobideak sakonean eraldatu dira, eta baita gure eguneroko ohiturak ere.

Geldi gaitezen une batez eta gure komunikabideen kontsumo ohitura aldakorrez hausnartu:

Inoiz telebista programa edo filmerik ikusi al duzu zure ordenagailuan edo eskuko telefonoan? Etxera korrika joan al zara zehazki arratsaldeko 8:00etan hasten

<sup>106</sup> «Enabling a range of interactions between the near and the far, frequently in shared time and without dependency on spatial proximity, digital media technologies are not only playing a primary role in reconfiguring the spatial orders of social life, but are also affecting how we directly experience place and territory ... Media and communication networks effectively constitute a new matrix of spatio-temporal relations which complicates, and overlaps with, existing domains of spatial experience».

<sup>107</sup> «We are now audiences to some kind of media almost everywhere and all of the time».

den zure telebista saioa harrapatzeko? Iragarkiak itxaroten dituzu komunera joateko? 100 lagun baino gehiago al dituzu facebook-en? Gaur bidali edo irakurri al duzu Tweet-ik? Nola erantzungo zenien galdera hauei duela bost urte? (Einav, 2010: 1)<sup>108</sup>.

Komunikazio eta informazio teknologiak garatuz eta irakur-ikus-entzunezko praktikak aldatuz joan diren hein berean (eskuko teknologiak, sare digitalen erabilera, teknologiararen errutina berriak eta tekno-ehundura dinamikoak), espazioaren izaera bera ez ezik, espazioarekiko ditugun harremanak, espazioa bera ulertzeko moduek ere eraldaketa sakonak jasan dituzte (Ridell, 2011b).

Daniel Chamberlainek argudiatzen du «aldaketa funtsezkoago batean parte hartzen ari» garelara, «non komunikabideen interfazeen eta komunikazio sarkorren sareak pribatua/publikoa dialektika berkonfiguratu ari diren sare gizarterako espazialtasunaren paradigma berri baten alde –komunikabideen espazio saretua». (Chamberlain, 2011: 15)<sup>109</sup>. Ikerlariaren arabera, komunikazioen espazio saretu horrek (networked media spaces) espaziotasun anizkoitza ahalbidetu digute, non eskala ezberdinak erabiliz sare digitalen bidez sarbide eta aukeraketa maila ezberdinak kudeatu ditzakegun: norbanakoa, etxekoa, komunitatearena...

Hartara, komunikaziozko espazio berriek mugikortasunaren ideia bera errotik aldatu digute, sare digitalak ubikuotasunak mugikortasun irudikatuak (alegiatzkoak) gainjarriz mugikortasun fisiko «errealetera».

Espazialtasuna, esan bezala, konplexuagoa bihurtzen ari zaigu, aurretiazko espazio fisikoa desagertu ez, baina honen gainean beste geruza digital bat, Juan Freirek «azal digitala» deituko duena gaineratzerakoan (Freire, 2009).

Espazio fisiko eta birtualetan modu jakinetan, helburu jakinekin, bizi gara, entzunezko, idatzizko eta ikusizko ko-presentzia formak erabiliz gure burua aurkitzen dugun egoeraren arabera: autobusean eserita banago, mesedez idatzidazu eskuko telefonora, laneko bilera aspergarri batean banago, mesedez idatzidazu berehalako mezu bat AIM bidez, autoan banoa, saia zaitetz mesedez haririk gabeko telefonotik deitzen. Internetera zuzentzen gara informazio bila behar dugunean, edo itzali egiten dugu beharrezkoan. (Varnelis & Friedberg, 2008)<sup>110</sup>.

<sup>108</sup> «Let's stop and think of our changing media consumption habits. Have you ever watched a television program or movie on your laptop or mobile device? Do you run home to catch your favorite TV show at exactly 8:00 p.m.? Do you wait for the commercial break to go to the bathroom? Do you have more than 100 friends on Facebook? Did you send or read a Tweet today? How would you have answered these questions five years ago?».

<sup>109</sup> «We are engaging in a more fundamental shift in which the intersections of media interfaces and pervasive communications networks are reconfiguring the private/public dialectic in favor of a new paradigm of spatiality for the network society – the networked media space».

<sup>110</sup> «We inhabit physical and virtual space in specific ways, to specific ends, employing different forms of audio, textual, and visual virtual co- presence based on the situation we find ourselves in: if I am sitting on the bus, please text me on my phone, if I am in a boring meeting at work, send me an instant message through AIM, if I am in the car, try calling me on wireless. We turn to the Internet for information when necessary or turning it off as need be».

Bizi garen hirian bertan, kale batzuk erabiltzen ditugu eta ez beste, heldu nahi dugun lekura ailegatzeko; txoko batzuk ezagun zaizkigu, eta gustoko; auzo batzuetatik ibiltzen gara, eta beste batzuei buruz ez dakigu deus ere. Gure hiria, auzoa, txokoa, osatzen dugu, hiri, auzo eta txokoen espazialtasun berezkoaren gainetik eta haren orde. Komunikabideen espazioa gure egiten dugun heinean bihurtzen dugu espazio, zentzua emanez erabiltzen dugunari, eta zentzua aurkituz gure erabilpenean. Autoek eta errepideek urrun eta hurbil terminoen esangurak aldarazi dizkiguten moduan, sare digitalek eta Informazio eta Komunikaziorako gailuek, gure espazioaren eraldaketa ekarri dute; edo hobe esanda, teknologia hauen erabilerek eta gizarte praktiken bidez gure espazioa eraldatu dugu, eraldatzen ari gara.

Espazioak eta mugimenduak gure mundu-ulerkeran eta bizi-munduan eragin handia daukate. Europar Batzordeak agindutako *Artisten Mugimendua eta Ikastea* ikerketaren txosten europarrean<sup>111</sup> artista bisual eta eszenikoen nazioarteko mugikortasun kontakizunak jasotzen dira, berauek bizitza osoko ikasketarekin lotu ahal diren ala ez aztertzeko (Amilhat Szary *et al.*, 2010). Bertan, artistek argiro jasotzen dute espazio eta lekuaren ulerkera bera mugikortasun esperientziak berak baldintzatzen duela, «Ez du soilik artistak ingurunearekin duen harremana bilakatzen, harreman horrekiko kontzientzia handiarazten du. Artista, interfaze anitzen baitan mugitzerakoan, muga ezberdinak zeharkatzera zuzendua da» (Amilhat Szary *et al.*, 2010: 41)<sup>112</sup>.

Artista bisual eta eszenikoen mundu ulerkera sarri berezia izan daitekeen arren, hausnarketak herritar soilarentzako aplikazioa izan lezakeelakoan nago. Ingurune fisikoan ematen diren aldaketek eragina dute, noski, ikasketa, ulermen eta sormen prozesuetan; baina, txostenean jasotzen den bezala, sarri ikasketa ez dator soilik leku aldaketatik bertatik, baita lekuen arteko harremanetik ere. Mugitzea, zentzu horretan, ez da horrenbeste espazio fisikoaren edo kanpo paisaiaren koordenatuetan aldaketa ematea, barne paisaian gertatzen den aldaketa baino. Jasone Miranda Bilbao artista bilbotarrak esan bezala: «... arteak eta bidaiak, biek dute gu aldatzeko gaitasuna (...): espazio eta denbora apurketak sortzeko eta gure hautemateko gaitasuna handitzeko, gure gauzen esperientzia maximizatzen» (Amilhat Szary *et al.*, 2010: 43)<sup>113</sup>.

Zentzu horretan, gogora ekartzekoa da halaber, Gaston Bachelard eta Maria Jolasek berreskuratutako Rilkeren ahapaldia: «Gizabanako bakoitzarengandik espazio bakana, espazio intimoa zabaltzen da mundura» (Bachelard & Jolas, 1994: 42)<sup>114</sup>. Esperientzia, orokorrean, eta aisiazko esperientzia zehazki kontuan hartuko dituen hurbilketa humanistak, modu bertsuan, espazio intimo honen aitormena zor

<sup>111</sup> <http://www.encatc.org/moving-and-learning/>

<sup>112</sup> «Not only does it transform the relationship of the artist to its environment, but it also makes he/she more conscious of it. The artist, who moves acts on various interfaces, is led to multiple crossings».

<sup>113</sup> «...both art and travel have the power to change us (...): to create space and time disruptions that increase our ability to perceive, maximizing our experience of things».

<sup>114</sup> «Through every human being, unique space, intimate space, opens up to the world».

dio telebistaren ikus-entzuleari, haren telebistarekiko harremanak ez baitira adiera bakarrekoak, eta ez baitira agortzen pantailaren aurrean, berau piztuta dagoen al-dian. Telebista gure eguneroko espazioaren zati eta egituratzaile dela onartu arren, ezin esan dezakegu toki bakan bat okupatzen duenik, aparailu elektronikoak etxeko egongelan hartzen dituen zentimetro kubikoez aparte.

Bestela esanda, telebistak pertsonen bizitzan eta aisialdian hartzen duen lekua ulertzeko ez da nahikoa beronen kokapenaren koordinatu objektiboetan gelditzea, barne paisaiari ere erreparatu behar zaio, ikus-entzuleek telebistarekiko harremanean osatzen dituzten esanahiak, eta haien harremanetan telebistari ematen dioten esangurari buruz galdetzeko.

Komunikabideen eta telebistaren ulermenean sakontze aldera espazioaren figurarekin jarraituz, bi ikuspegi aurkeztuko dira ondoren: espazio mediatikoa eta komunikabideen paisaia, hurrenez hurren.

### 2.1.1. ESPAZIO MEDIATIKOA

Gizakiak modu askotara ulertu izan du espazioa. Oro har, materia existitzen den eta objektu eta gertakariak elkarren arteko posizio erlatiboak dituzten hedapen mugagabe bezala, edo objektu hautemangarriak betetzen duten zatia bezala ulertu izan da, existentzia oro gertatzen den edukitzaile gisa hartuz.

Masa-gizartean hedabideek eurek espazio propioa osatu dutela argudia daiteke, eta, zentzu horretan, espazioak komunikabideekiko harremanaren metafora emankor gisa ere balia daiteke haien izaera eta jarduna argitzeko, *Telebistaren Irakurketaren Hurbilke-ta Espaziala* artikuluan saiatu bezala (Landabidea Urresti, 2009a: 110). Helburu horrekin, interesgarria da espazioaren filosofiaren inguruan historian emandako eztabaidak irudikatze aldera, lan honetara bi kasu adierazgarri ekartzea: Leibniz eta Newton fisikarien arteko tirabira izango da lehenengoa, eta giza ikusmenaren inguruko igorpen eredu eta tartean-sartze ereduaren arteko ezberdintasuna bigarrena.

Geroragoko azterketetan «erlazional» izendatu zen ulerkera batetatik Gottfried Wilhelm Leibnizek espazioa objektuen arteko harremana bezala definitu zuen. Hartara, Leibnizentzat espazioa ez da objektuetatik at existitzen den, edo objektuak bere baitan hartzen dituen osotasun apartekoa izango, baizik eta objektuen arteko posizio eta harremana bera. Honela adierazten du Samuel Clarke-i idatzitako gutunean, espazio berezkoaren ideia gogor kritikatu: «Frogatu dut espazioa ez dela gauzen existentziaren ordena baizik, elkarrekin existitzen direla ulertuta; espazio huts mugagabe osotasunean aurrera mugitzen doan unibertso material mugatuaren fikzioa ezin da onartu». (Leibniz, Clarke, & Ariew, 2000: 42)<sup>115</sup>.

<sup>115</sup> «I have demonstrated that space is nothing but an order of the existence of things considered as existing together, so that the fiction of a finite material universe moving forward as a whole, in an infinite empty space, can't be admitted».

Hortaz, Leibnizen espazioaren kontzeptua entitateen arteko harremanen abstrakzioa da, unibertsoa osatzen duten elementuen arteko posizioen multzoa, eta ez dago espazio hutsa bere horretan aztertzerik: soilik objektuen (planeten, izarren...) eta haien arteko posizioen bidez ezagutu dezakegu espazioa. Zuhaitzaren eta etxearen *artean* kilometro bat dagoela esan dezakegu (edo 0,621 milia), edo badakigu apal horretan hogeit bat *libururentzako* lekua dagoela, edo orrialde honetan lauhun bat *hitzetarako* lekua dagoela, ez gehiago.

Leibnizen ulerkeran, objekturik gabe ez dago eta ezin da egon espaziorik, objekturik gabeko hutsunea ez baita espazioa, hutsa baizik. Isaac Newtonek, ordea, oso bestelako ulerkera espazial bat agertu zuen, harentzat espazioa ez baita abstrakzio kontingente bat, objektua eta materiarengandik existentzia autonomoa eta independentea duen entitatea baizik, denbora bera bezala. Posizio horri substantzialismo deitu izan zaio gerora, espazioaren izaera absolutua azpimarratzen duelako, Leibnizek aipatzen zuen objektu eta posizioen neurketa erlatibotik bereizteko. Hartara, objektu (edo subjektuen) arteko posizio erlatiboak alda daitezke eta aldatzen dira, konfigurazio ezberdinak hartuz, baina benetako espazioak -espazio matematikoak, benetako espazioak- bere horretan dirau, kanpoko ezerekiko harremanik gabe.

Gogor kritikatu zuen Newtonek Leibnizen erlazionaltasuna *Philosophia Naturalis Principia Mathematica* lanean. Fisikari eta teologo ingelesaren ustez, bigarren batek lehenengo bat jarraitzen duen moduan, urte batek hamabi hilabete ditu, eta ziurtasun osoz jakin dezakegu harreman bat dagoela (eta ez beste) atzo eta gaurren artean, espazioaren atalek haien lekua dute. Horrela, toki bat bere burutik kanpora mugitu daitekeela aintzatestea absurdoa da:

Denboraren zatien ordena aldaezina den bezala, hala da espazioaren zatien ordena ere. Zati hauek haien lekutik mugitzen direla suposatuz gero, (hala adieraztea zilegi bada) beren burutik mugituko dira. Denbora eta espazioak, nolabait esatearren, beraien eta beste gauza guztien tokiak baitira. Gauza oro kokatzen da, denboran, segida-ordenean eta espazioan, kokapen ordenean. Haien izaeran edo naturan datza lekuak izatea, eta gauzen aurreneko lekuak mugigarriak izatea absurdoa da<sup>116</sup>. (Newton, Motte, Cajori, & Crawford, 1934: 8).

Newtonen ustez, espazioa eta denbora funtsezko kantitateak dira, ezin dira beste kantitateen bidez definitu, eta existentzia independentea dute erabat materiaren eta munduko gertakarietarako. *De Gravitatione* lanean, Newtonek urez betetako kuboraren esperimendu ezaguna azaldu zuen, biratzeari utzi dion ontzi batean urak agertzen duen jokaera aztertuz espazioaren ulerkera erlazionalaren aurka, eta Espazio Absolutuaren ideia frogatzeko.


<sup>116</sup> «As the order of parts of time is immutable, so also is the order of the parts of space. Suppose those parts to be moved out of their places, and they will be moved (if the expression may be allowed) out of themselves. For time and spaces are, as it were, the places as well of themselves as of all other things. All things are placed in time as to order of succession; and in space as to order of situation. It is from their essence or nature that they are places; and that the primary places of things should be movable is absurd».



Leibniz eta Newtonen espazioaren ontologiari buruzko kontrako planteamen-  
duek komunikabideen eta ikus-entzuleek komunikabideekiko duten harremanen in-  
guruko galdera interesgarriak ahalbidetzen dituzte. Izan ere, nolakoa da komunikabi-  
deek eta ikus-entzuleek osatzen duten espazio mediatikoa? Espazio fisikoa ez bezala,  
espazio mediatikoa ez da, aurreko atalean ikusi bezala, esparru objektiboan ahitzen.  
Subjektuek, hartzaileek (ikus-entzuleek, irakurleek, entzuleek...) parte hartzen duten  
heinean, entitateen arteko (komunikabideen eta haien testuen, adibidez) neurketa  
objektiboak ez du unibertsoaren osotasuna azaltzeko gaitasunik. Ezin esan dezakegu  
telebista programa baten bi milioi ikusleak (datu bat ematearren) horregatik kilome-  
tro batera edo bira daudenik, edo norantza batean edo bestean abiadura honetan edo  
hartan mugitzen ari direnik. Ezin dugu, halaber, ikustea ikuspuntu edo angelu zehatz  
batetatik egiten denik zehaztu, ez behintzat ikus-entzuleei galdetu ezean.

Espazio mediatikoa, hortaz, Newton eta Leibnizen espazio objektibotik (erlazio-  
nala zein sustantziala) bereizten da, jardulea jarduera bezain garrantzitsua bihurtzen  
den heinean, edo, bestela esanda, posizioaren zentzua posizioa bera bezain garran-  
tzitsua den heinean. Esanahiak subjektuen jarduera soziala egituratzen duenez, espa-  
zio mediatikoak ezinbestez egin behar dio lekua bere baitan. Espazioaren izaera une  
batez utzi eta optikaren eremura igarota, Aristoteles, Platon edo Euklides bezalako  
aro klasikoko pentsalarien esanetan, edo Ptolomeo greziar astronomoaren ustetan  
*igorpenaren eredua* zen giza ikusmena azaltzeko eredu naturala (Aristoteles, 2007;  
Lindberg, 1981). Eredu horren arabera, giza begiak «barne su» batek eragindako  
argia igortzen du objektuekiko, horrela ikustea ahalbidetuz. Ikusmena bera, hortaz,  
begiak igorritako partikulek objektuaren kontra jo eta errebotatu ostean gertatzen  
da, objektua bera ikusgarri eginez. Ezer gutxi behar zuen gizakiak ikusi ahal izateko:  
begia, batetik, eta mundua, bestalde, ikus-objektu bezala. (ikus 4. irudia).

#### 4. IRUDIA: IGORPEN EREDUA




Iturria: norberak egina. (Landabidea Urresti, 2009: 110)<sup>117</sup>.

<sup>117</sup> Irudien iturria: Flickr. (CC BY 2.0).

Alhazen edo Abu Ali al-Hasan Ibn al-Haitham (الهيثم بن الحسن علي أبو) arabiar fisikari eta matematikariak irauli zuen lehen aldiz igorpenaren eredua, «tar-tean sartzearen» eredu berria proposatuz. Giza begiari argia igortzeko gaitasuna ukatu zion persiar zientzilariak, eta hartzaile hutsaren papera eman zion ikusmenaren prozesu osoan (Lindberg, 2003: 390). Hori dela eta, Alhazenen ereduan giza begia ezinbestekoa bada ere ikusmenerako, ez da jada berez nahikoa, kanpoko argi iturria beharrezkoa baitu ikusi ahal izateko.

Argi iturririk gabe, begiak ez du objektuak ikusterik. Aurretik ere eginak zitzaizkion ñabardurak eta kritikak igorpen ereduari<sup>118</sup>, baina Alhazenen tartean sartzearen ereduaren proposamenak ekarri zuen behin betiko apurketa aurreko ereduarekiko.

## 5. IRUDIA: TARTEAN SARTZEAREN EREDUA



Iturria: norberak egina. (Landabidea Urresti, 2009: 110).

Alhazenen lanak bigarren ondorio garrantzitsu bat ere ekarri zuen, giza begiari ordura arte onartutako burujabetasuna zalantzan jartzea, barne-sudun argi-igorle izatetik argiaren hartzaile hutsera igaroaraziz, eta distantzia edo tamaina bezalako informazio espaziala eskaintzerako orduan begiaren esperientzia eta eskarmentuak duten garrantzia erakustea (M. Smith, 2005).

Hartara, begiak hautematen duena eragile askoren menpe legoke, hartzailearen beraren ingurua eta subjektuaren beraren esperientzia tarte. Pasarte honetan bi ereduak azaltzeko erabili ditugun irudiek, adibidez, irakurlearen aldetik prestakuntza eta esperientzia behar dute, irudiok giza begiarekin eta zuhaitzaren adieraziekin lotu ahal izateko. Zuhaitzaren irudia zuhaitzaren adierazpen bezala identifikatzeak deskodeketa jakin bat eskatzen du, irakurlearentzat erraza eta naturala gerta daitekeena, baina hala ere eraikia eta ikasia dena. Stuart Hallek aipatzen duen bezala:

<sup>118</sup> Ikus adibidez Enpedoklesen igorpen ereduaren aldaera, non begiak igorritako partikulek argiaren partikulekin elkarrekintzan eragiten zuten ikusmenaren fenomenoak.

Kode batzuk, noski, hizkuntza, komunitate edo kultura batean hain banatuta egon daitezke, eta hain adin txikietatik ikasita egon, ezen irudi lezake ez daudela eraikita –zeinua eta adieraziaren arteko artikulazioaren eragina– baizik eta «naturalki» emanak. Horrek ez du esan nahi kodeek eskuhartu ez dutenik, alderantziz, kodeak sakonki naturalizatu dira. (Hall, 1980: 121)<sup>119</sup>.

Hautematea subjektuak, aktoreak berak bitarteko duen komunikabideari eskaintzen dion esangura eremuaren arabera egituratzen, eta berau txertatua dagoen testuinguru sozialean oinarritzen denez (Callejo, 1995), mezuaren esangura subjektuaren bizi-koordinatuetatik abiatuko da beti. Aisiaren ikuspegitik, komunikabideen espazioa edo espazio mediatikoa etengabe eraikitzen den errealitatea da, non unibertso horretako entitateek euren burua ordezkatzan duten eta beste entitateei esangura eransten dioten, amaierarik ez duen prozesu batean. Alhazenen tartean sartzearen ereduak giza begia protagonista bai, baina aktore bakarra ez dela gogoratzan digu, eskarmentuaren garrantzia azpimarratuz hautemateko prozesuan. Leibnizen eredu erlazionalak berriz nolabaiteko konplexutasunerako itxaropena eskaintzen dute globalizazio eta uniformizaziorako joera agertzen duten komunikabideen forma kulturalen aurrean.

Espazioaren ontologian eta epistemologian, bai fisika klasikoan nahiz kuantikoan, eraldaketak eman badira, komunikabideek espazioaren ulerkeria eta giza espazio soziala goitik behera aldatu dituztenaren gainean ere ez dago zalantzarik. Izan ere, espazio fisikoarekiko harremanean komunikabideak bitartekari diren heinean, espazio mediatikoan bizi garelako argudia daiteke. Paddy Scannell irrati eta telebistaren ikertzaileak jaso bezala, «Gertakari publikoak orainaldi berean bi leku ezberdinetan gertatzen dira: gertakariaren tokian bertan, eta berau ikusi eta entzuten den lekuan» (Scannell, 1996: 76).

Horrela, komunikabideak bitarteko eta bitartekari dira bi gertakizunen artean. Bi espazio horien aldibereko existentzia bera posible egiten dute (behintzat gertakariaren berri duten ikus-entzuleentzat), eta, horrela, gertakari publikoak bi aldiz gertatzen direla esan daiteke: gertatzen direnean, eta komunikabideetan gertatzen direnean. Heppék, alde horretatik, komunikabideen «espazio nozionalari» egingo dio erreferentzia (Hepp, 2010), non gizarte aktoreek (bai norbanakoek bai taldeek) jarduten duten, jazoeren inguruko errealitateari buruzko gakoak elkartrukatu, informazio eta ezagutzaren sorkuntza, banaketa, trukaketa eta hartzea oinarri duen espazio modu berri batean.

Ezen, eragileen garrantzia ezin da gehiegi azpimarratu; komunikabideak eta kanalak garrantzizkoak diren arren espazio mediatikoa zerbait bada, gizakiak partehartutako zerbait da, bai testuen ekoizpen eta banaketan, baita hauen hartze eta haute-

<sup>119</sup> «Certain codes may, of course, be so widely distributed in a specific language community or culture, and be learned at so early an age, that they appear not to be constructed - the effect of an articulation between sign and referent - but to be 'naturally' given. However, this does not mean that no codes have intervened; rather, that the codes have been profoundly naturalized».

matean ere. Zerikusi gutxi agertzen du Newtonen espazio absolutu ikaragaitzarekin, eta gehiago hurbiltzen da Ecoren gerrillari semiologikoen oihanera (U. Eco, 1986), non hartzailearen araberakoa den esanahia. Gertakizuna, hortaz, birritan ematen da gutxienez: bere horretan, eta hartzaileak hartzen duenean.

Couldry eta McCarthy Fiona Allonek ere abiapuntu hartuko duen *MediaSpace* izeneko eremu kontzeptuala luzatzen dute izen bereko lanean, espazio eta lekuaren ideiak erabiliz komunikabideekin dugun eguneroko esperientzia azaltzeko (Couldry & McCarthy, 2004). Autoreen ustetan, komunikabideak –batez ere komunikabide elektronikoen– eta gure espazioaren ulerkera moldatzen duten prozesu sozialak «fenomeno aliatuak» (allied phenomena) dira, eta osotasun espaziala eraikitzen dute:

Komunikabide elektronikoen gure eguneroko espazioak, geroz eta gehiago, beste lekuen irudiekin eta beste espazioen ordenekin (alegiakoak zein errealak) saturatzen dituzten heinean, geroz eta zailagoa da espazio sozial bati buruzko istorio bat kontatzea komunikabideen istorio bat kontatu gabe, eta alderantziz. (Couldry & McCarthy, 2004: 1)<sup>120</sup>.

*MediaSpace* edo espazio mediatikoaren kontzeptuak espazio modu bitxi, dimentsio aniztun bati egiten dio erreferentzia. Alde batetik, erabat materiala da, ekonomiaren eta ingurune fisikoaren gorabeheren mende dauden objektu fisiko osaturik baitago: hargailuak, pantailak, kableak, zerbitzariak, antenak, igorgailuak.... Bestetik, ordea, existentziaren plano materialetik at dagoela dirudi, irudia errealitatearen aurkako ideia bezala harturik, eta espazio birtualarekin lotzen da, «komunikabide elektronikoen gorputzaren, lan eta aisiazko lekuen, ingurunearen fisikotasunetik aske dagoen esperientzia» (Couldry & McCarthy, 2004: 2)<sup>121</sup> sortzen dutelakoan.

Ameriketako Estatu Batuetan, Brasilen, Hego Korean, Herbehereetan edota Finlandian biztanleriak denboraren gehiena komunikabideak erabiltzen igarotzen duela eta komunikabideen aldibereko kontsumorako joera igotzen doala ikusita, Mark Deuze beste kontzeptu bat proposatzen du: *media life*, edo komunikabide bizitza (Deuze, 2011). Komunikabide bizitza hau espazio mediatikoaz eta Sam Inkinen (Inkinen, 1998), Alex de Jong eta Marc Schuilenburg (De Jong & Schuilenburg, 2006) edota Roger Silverstone-en (Silverstone, 2007) «mediapolis»-az haratago doa.

Greziar hiri-estatuan inspiratutako mediapolisak espazio publiko erabat bitartekatua deskribatzen du, non komunikabideek eguneroko esperientziak eta adierazpideak oinarritu eta astintzen dituzten aldi berean. Deuzeren ustez aldiz, komunikabideak eguneroko bizitzan eragiten duten kanpoko eragileak, edo eguneroko bizitzaren hondoko irudia (edo zarata), gure hiria bera baino zerbait gehiago dira: komunikabi-

<sup>120</sup> «As electronic media increasingly saturate our everyday spaces with images of other places and other (imagined or real) orders of space, it is ever more difficult to tell a story of social space without also telling a story of media, and vice versa».

<sup>121</sup> «... as it is premised on the idea that electronic media create an experience unmoored from the physicality of the body, of work and leisure spaces, of the environment».

deen erabilerak eta berjabetzeak eguneroko bizitzaren alde guztietan sartzen dira, eta, hartara, ia ikusezinak bihurtzen zaizkigu:

Komunikabideak sarkorrak eta nonahikoak bilakatzen doazen heinean, gure egunerokotasunaren kategorien (publikoa eta pribatua, tokian tokikoa eta globala, norbanakoarena eta guztion artekoa) nahasketa amaigabearen eraikin-blokeak erai-kiz, ikustezinak bihurtzen dira –nolabait, Friedrich Kittlerrek iradokitzen duen bezala, gure bizitza gehien taxutzen duenarekiko itsu bihurtzen gara. (Deuze, 2011: 1)<sup>122</sup>.

Hortaz, Mark Deuzen ustez paisaia mediatikoaren zati bat (osoan ez bada) ikusezin zaigu. Marshall McLuhan komunikabideen pentsalariak ere antzerako ideia bat defendatu zuen Playboy aldizkariak egindako elkarrizketan: «(...) gizakia haren aurretik egon den inguruaz bakarrik ohartzen da kontzienteki; bestela esanda, beste ingurugiro batek ordezkaturia izan denean bakarrik bihurtzen da ingurugiro bat ikusgarri; beraz beti gaude pausu bat atzerago gure mundu ikuskeran»<sup>123</sup> (McLuhan, 2008). Ikuspuntu horretatik, telebista aztertu eta ulertzeko une egokian gaude, telebistaren izaera eta funtzio tradizionalak neurri handi batean igarobidean, ordezkatzeko prozesuan baitaude<sup>124</sup>.

Edozelan ere, espazioaren eta harreman espazialen inguruko kontzeptuek zalantzan jartzen dituzte komunikabideen izaerari buruzko ideiak. Hasteko, Lefebvre jaso bezala, «Naturaren espazioa ez dago antzeztuta» (Lefebvre, 1991: 73)<sup>125</sup>, muino bat ez da sortzen norbait begira duelako, edo norbait bertara igo dadin. Espazio naturala, komunikabideen bitartekaritza posible egindako espazioa ez bezala, ezin esan dezakegu ekoiztua izan denik, sortua baino. Espazio mediatikoa, espazio soziala bezala «eragiketa-sekuentzia eta multzo baten ondorioa da, eta, hortaz, ezin da objektu soilaren mailara murriztu» (Lefebvre, 1991: 73)<sup>126</sup>.

Espazio fisikoa eta espazio mediatikoa ezberdinak dira, eta ezin aurki dezakegu simetria perfekturik bi errealitateen artean. Hala ere, espazioaren inguruko hausnarketak landutako kontzeptuek komunikabideekiko osatzen ditugun harremani eta berauekiko gure egunerokotasunean bizi ditugun aisiazko esperientziei buruz pentsatzeko esparru aberatsa eskaintzen digute. Kontzeptu horietarikoak da paisaiarena.

<sup>122</sup> «As media become pervasive and ubiquitous, forming the building blocks for our constant remix of the categories of everyday life (the public and the private, the local and the global, the individual and the collective), they become invisible – in the sense that, as Friedrich Kittler suggests, we become blind to that which shapes our lives the most».

<sup>123</sup> «...man is only consciously aware of the environment that has preceded it; in other words, an environment becomes fully visible only when it has been superseded by a new environment; thus we are always one step behind in our view of the world».

<sup>124</sup> Ikus Komunikabideen bateratzeari dagokion atala.

<sup>125</sup> «Nature's space is not staged».

<sup>126</sup> «It is the outcome of a sequence and set of operations, and thus cannot be reduced to the rank of a simple object».

### 2.1.2. KOMUNIKABIDEEN PAISAIA

Ohikoa da gure garaiko aldaketa teknologiko eta sozialei orokorrean, eta Komunikazio eta Informazio Teknologiai buruz zuzenean aritzerakoan, komunikabideen paisaiari buruz entzun eta irakurtzea. Komunikabideen paisaiari buruzko erreferentziak eta horrekiko ardurak asko eta askotarikoak dira diziplina anitzetan. Alta, zehaztasun handiegirik gabe erabili ohi da kontzeptua, unean uneko komunikabideen konfigurazio edo testuinguruaren zentzuan, paisaia terminoak berezkoa duen aberastasunean gehiegi sakondu gabe. Paisaia berbaren esanahietan une batez gelditzea merezi duelakoan bereziki aproposa da espazio mediatikoaren inguruan gogoeta egitea. Hasteko, komunikazioaren esparruko ikerketetan paisaia hitzak hartu dituen forma batzuk gogora ekartzea komeni da.

Hay eta abarrek «Ikus-entzuleak eta beren paisaiak» izendatzen dituzte audientzia ikerketen eremuan kokatzen den lanean (Hay, Grossberg, & Wartella, 1996), Jonesek hizkuntza gutxituen paisaia aldakorra aipatzen du tokiko telebisten historia aztertzerakoan (Jones, 2008), komunikabideen paisaia aldakorrean egunkari eta prentsa idatziaren orainaz eta geroaz hausnartu du Boozek (Booz, 1989), osasun munduaren inguruko komunikaziora ekarri dituen aldaketez ere aritu dira Parker eta Thorson (J. C. Parker & Thorson, 2009), eta publizitatearen industriak komunikabide paisa berrian dituen arazo eta aukerez ohartarazten du Springerrek bere Iragarkiak ikonoetara lanean (Springer, 2007). Susan Ossmanek ere ohartaraziko digu «komunikabideak behin eta betiko mapetan kokatuta genituela uste genuen paisaiei itxura berriak ematen ari»<sup>127</sup> zaizkiela (Ossman, 2004: 115), eta Kotkinek ere sare digitalek Ameriketako Estatu Batuen paisaia fisikoarengan izango omen duten eragina du aztergai bere Geografia Berria-n (Kotkin, 2001).

Aisia Humanistari dagokionez, paisaia bi eratara ulertu izan da batez ere. Lehenengo eta behin, zaindu eta gorde beharreko altxor bezala, pertsona bere muinean duen aisia iraunkor baten alde eginez: «Proiektu bat non pertsona izango den politikaren, zientzien garapenaren, gure jarduera publiko edo pribatuaren helburu (...) Ingurune eta paisaiarekin begirunetsua den Aisia, behar dugun humanismo integral eta unibertsalaren parte den Aisia»<sup>128</sup> (Cuenca Cabeza, 1997: 13).

Bigarren adierak aisiaren ekologia eta ingurumen-dimentsioa<sup>129</sup> azpimarratzen du, paisaia giza gozamenerako esparru gisa harturik: «naturaren eta naturaren aldeko aisiak gure ingurura hurbildu eta bertara itzultzen gaitu. (...) Aldi berean paisaiaren edertasunaz eta naturaren soinetaz gozatzea ahalbidetzen digu, baita beste izaki bi-

<sup>127</sup> «... the media are reshaping the landscapes we thought we had mapped once and for all».

<sup>128</sup> «Un proyecto en el que la persona sea la meta de la política, del desarrollo de las ciencias, de nuestra acción pública o privada. Un proyecto que permita una seria reflexión y una posterior renovación jurídica, política y moral en lo que sea conveniente. Un Ocio respetuoso con el entorno y el paisaje, un Ocio que forma parte del nuevo humanismo integral y universal que estamos necesitando».

<sup>129</sup> Ikus aisiaren dimentsioak, aurreko atalean.

zidunen bizitzan parte hartzea ere»<sup>130</sup>. (Setién Santamaría, 2000: 33). Antzerako gozamenerako objektu bezala hartuko da paisaia aisiazko esperientziaren oinarri gisa Amigo Fernández de Arroyaberen aisiaren estetikari buruzko azterketan: «Esperientzia askok atseginezko egoera bat izango dute ezaugarri, zeinak gustura egonaraziko gaituen paisaia baten aurrean, edo gure begirada harrapatzen duen inguru batetik paseoa»<sup>131</sup> (Amigo Fernández de Arroyabe, 2008: 111-131).

Hortaz, paisaiak aisiarako duen garrantzia, eta aisiak paisaiarekiko duen ardura ez dira gai berriak Aisiazko Ikaskuntzetan. Berriagoa da, hala ere, paisaia kulturala- ren baitan komunikabideen paisaiari buruz jardutea eta esparru horretan aisiak izan dezakeen zeresana aztertzea. Horretan laguntze aldera, atal honetan paisaiaren adiera nagusiak aztertuko ditugu atal honetan, komunikabideen eta telebistaren ondorio sozial eta pertsonalen ulermenean lagun dezaketen heinean.

Hasteko, gogora ekartzeko modukoa da sarri eta modu askotara iradoki izan dela Bignellek jasotzen duen bezala «telebistaren paisaia izugarri aldatu» dela «azken urteetan, eta aldaketa garrantzitsuak gertatzen» ari direla orain ere. (Bignell, 2008: 34). Zentzu horretan ondorioztatuko du autore berak «XXI. mende hasieran telebista ikertzea kultura eta gizartea lehenaldian, orainaldian eta etorkizunean ulertzeko parte zorrotz bezain garrantzitsua»<sup>132</sup> dela. Paisaiak, hortaz, forma multzo edo konfigurazio zehatz, konkretu baten adiera hartzen du. Espainiar Erret Akademiak jasotzen duen «toki batetik ikusten den lurralde zatia»-ren zentzuan (Real Academia Española, 2011b)<sup>133</sup>. Antzerako asmoz ari da Anna McCarthyk «etxetik kanpoko telebista» aztertzerako orduan eguneroko paisaiarengan duen eragina aztertzerakoan taberna, aireportu, itxarongela edota zentro komertzialetan, telebistak espazio publikoa eta beronen ulkerera bera eraldatzen duela ondorioztatuz (McCarthy, 2001). Gure ikuspuntutik, telebistaren forma garaikidea eta beronek osatzen duen espazio mediatikoa, aldatzen ari dira.

Paisaiaren kontzeptua, beraz, kultura eta gizartearentzat eta hauen ikerketaren- tzat garrantzitsua dela ondoriozta dezakegu, kultura eta gizartea paisaiarentzat garrantzitsuak diren neurri berean. Paisaia hitzak gizakien eta horien ingurunearen, eta gizartea eta espazioaren arteko harremanari buruzko zenbait uste hartzen ditu bere baitan (Cosgrove, 1985: 46), eta, hori dela eta, ezinbestekoa da kontzeptuaren inguruko berrikusketa. Izan ere, zer da, baina, paisaia zehazki, eta zein adiera izan dezake komunikabideak eta telebista aztertzerakoan?

<sup>130</sup> «El ocio en la naturaleza y en pro de la naturaleza nos acerca y nos devuelve a nuestro medio. (...) A la vez, nos permite disfrutar de la belleza del paisaje y de los sonidos naturales, así como participar de la vida de otros seres vivos».

<sup>131</sup> «Muchas experiencias se caracterizarán por un estado de complacencia que nos hace sentirnos a gusto ante un paisaje o un paseo por un entorno que cautiva nuestra mirada».

<sup>132</sup> «The television landscape has changed enormously in the last fifty years, and more important changes are happening right now. Studying television in the early twenty-first century is a demanding but important part of understanding culture and society in the past, present and future».

<sup>133</sup> «1. m. Extensión de terreno que se ve desde un sitio».

Ikuspegi geografikotik paisaia edo inguraldea toki jakin batetatik ikusten den lurralde zatia da: elementu geografiko (landa-paisaia) edo gizakiek eraikitakoek (hiri edo herri-paisaia) osatutako forma multzoa. *Mediterraneanar Paisaiaren Gutun-ean* (Abellán & Fourneau, 1998: 333-336) paisaia norbanako eta gizarteek espazioan eta denboran faktore sozial, ekonomiko eta kulturalak gehiago edo gutxiago modelatutako lurralde batekin duten harreman sentikorren agerpen formalak bezala definitzen da, hartara giza ondarearen baitan kokatuz finean ezaugarri natural, historiko, funtzional eta kulturalen konbinaketa dena. Luis Vicente Elías Pastorrek, gainera, paisaia kulturala gizakiaren eta ingurumenaren arteko elkarrekintzen agerpen dinamiko eta konplexu gisa bereizten du. (Elías Pastor, 2006: 97).

Konbinaketaren ideia bera landu du San Salvador del Valle, «Aisiaren Politikak» lanean: «Planoa, hiriaren nortasunaren isla bezala, biztanleek haien existentzia ulertzen zuten modu eta eren isla da. Lauki formak, zentrokideak, irregularrak eta abar eraikitze eta eraikuntza prozesuen, lurzoruaren erabileraren eta ondoriozko paisaien fruitu dira. (San Salvador del Valle Doistua, Roberto, 2000: 41)<sup>134</sup>. Elías Pastorrek paisaia eta argazkia bereiztuko ditu, denbora eta espazioen arteko konbinaketaren ideia nabarmenduz (Elías Pastor, 2006: 97):

Paisaia ez da bisitariak ikusten duena; hori irudia da, argazkia. Berau lurralde horretan bizi diren osagai natural zein gizatiar guztien artean ematen diren elkarre-ragin guztiekin bete behar dugu, eta, gainera, denboran zehar ulertzeko gai izan behar dugu, ondoz ondoko prozesu jarrai bezala. Horregatik, paisaia lurralde baten kultura azaltzen digun dokumentua da, bilakatzen duten herrien bizitzaren agerpen geografiko bezala.

Bereziki emankorra da Elías Pastoren pasarte lan honetarako, lurraldea eta be-ronen irudia, dokumentua eta honen irakurketa uztartzen baititu definizio berean; komunikabideen paisaia hobeto ulertzeko gakoak diren kontzeptuak.

Behin paisaiaren osagai ezberdinak ezagututa, esan beharrekoa da geografoaren nahiz hirigilearen ikuspegitik paisaia entitate integrala dela gogoratzea. Osagai ezberdinez osatzen da, direla naturak emanak edo gizakiak sortu edo eraldatutakoak, eta osagai guztiek elkar harremanean osotasuna egiten dute. Claudio Magrisen ustez ere, toki bat ez da oraina bakarrik, bada baita paisaia gurutzatu eta osatzen duten denbora eta garaien laberinto hori ere (Magris, 2008). «Paisaia tentsioa da» adierazi-ko du John W. Wylie bere «Paisaia» lanaren sarreran (Wylie, John W., 2007: 1); hur-biltasun eta distantziaren, gorputz eta gogoaren, murgiltze sentsualaren eta behaketa alden duaren arteko tentsioa. Denis Cosgrove geografo kulturalak paisaia ikustearen eta zentzua ematearen (ordena eta kontrolaren ilusioarekin, alegia) jarduerarekin lotuko du ezinbestez bere definizio klasikoan: «Paisaia, hortaz, ikusteko modu bat da, norbanako ikusleak bereganatu dezakeen munduaren konposaketa eta egituraketa

<sup>134</sup> «El plano, como reflejo de la personalidad de la ciudad, es el reflejo de los modos y maneras en que sus pobladores concebían su existencia. Las formas, de cuadrícula, concéntricas, irregulares, etc., son el fruto de los procesos de construcción y edificación, de los usos del suelo y de los paisajes resultantes».



bat, zeinak ordena eta kontrolaren ilusioa eskaintzen dizkion geometriaren ziuertasunen arabeko espazioaren konposaketaren bidez». (Cosgrove, 1985: 55)<sup>135</sup>. Urte batzuk geroago aurreko definizioari hauteman diezaiokeguna areago esplizitatuko du autore berak, Samuel Danielsekin batera:

Paisaia irudi kulturala da, inguruak adierazi, egituratu edo sinbolizatzeko modu piktorikoa (...) parke paisaiatsu bat ukigarriagoa da margolan bat edo olerki bat baino, baina ez da errealagoa, ez du gutxiago irudimenetik. (...) Eta noski, paisaiaren inguruko ikerketa bakoitzak honen esanahia eraldatzen du, beste adierazte kultural geruza bat paratuz honen gainean. (Cosgrove & Daniels, 1988: 1)<sup>136</sup>.

Paisaia bizi garen mundua edo munduari begiratzen diogun agertokia izan, paisaiaren kontzeptuak ezinbestean behar ditu mundua ikusi eta definitzeko modua eta begiradaren kokapena, bai espazioan eta baita denboran ere. Hartara, audientzia edo publikoaren ideari lotzen zaio (Hay *et al.*, 1996), eta espazioa/lurraldea eta perspektiba edo ikuspuntuaren ideia dakartza berarekin paisaiaren kontzeptuak, lurraldearen edo giza bizitokiaren formak hauteman (eta balioetsi) ditzakeen subjektua behar baitu. Bestela esanda, espazioaren formen eta subjektuaren pertzepzioaren arteko harremanean osatzen da paisaia. Wylieren hitzetan, «paisaia ikusia dena *eta* mundua 'ikusteko modu' bezala ulertu daiteke» aldi berean «lurra eta honekiko begirada, biak»<sup>137</sup> (Wylie. John W., 2007: 55).

Edmund Bunkssék, geografia humanistaren aldeko eskaeran, subjektua eta objektua, behatzailea eta behatua, artea eta zientzia, *Verstehen* eta *Wissen*, ulermena eta jakintza biak barne hartuko lituzkeen markoa aldarrikatzen ditu (Bunkssé, 1990: 96: 98). Hala behar luke, bereziki, giza komunikazioaz ari garenean. Izan ere, geografia fisikoari arrazionaltasunaren abstrakzioan giza balioak ahaztuta lurraren formen eta mugaketa politiko-administratiboen deskribaketa hutsean geldituta, *Wisse* hutsera mugatzea kritikatu bazaio zer ez eskatu komunikabideen geografia bati: «(...) egia da geografia oso erabilgarri izan zaidala. Begirada batez ezberdindu ditzaket Txina eta Arizona. Norbera gauean galduta aurkitzen bada, ezagutza hau balioetsua da»<sup>138</sup>. (Saint-Exupéry & Testot-Ferry, 1995: 5).

<sup>135</sup> «Landscape is thus a way of seeing, a composition and structuring of the world so that it may be appropriated by a detached individual spectator to whom an illusion of order and control is offered through the composition of space according to the certainties of geometry».

<sup>136</sup> «A landscape is a cultural image, a pictorial way of representing, structuring or symbolising surroundings (...) a landscape park is more palpable but no more real, no less imaginary, than a landscape painting or a poem. (...) And of course, every study of a landscape further transforms its meaning, depositing yet another layer of cultural representation».

<sup>137</sup> «... landscape can be thought of as both something seen and a particular 'way of seeing' the world – both the land and the gaze upon it». Kurtsiba jatorrizkoan.

<sup>138</sup> «(...) it is true that geography has been very useful to me. At a glance I can distinguish China from Arizona. If one gets lost in the night, such knowledge is valuable».

Agian Bunksséren espazioaren giza diziplina batekiko erregu bera aplika genietzaioke: «... diziplina gizatiar bat zeinak zerbait duen esateko, ez bakarrik aztergai diren lurraren fenomeno anitzen egitura eta prozesuen inguruan, baizik eta baita paisaia modernoan iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko gizabanakoen egoerari buruz» (Bunkssé, 1990: 96: 99)<sup>139</sup>. Hartara, «paisaia kultural ororekiko», hau da kanpo eta barne paisaiekiko (Bunkssé, 1990: 96: 100) ardura hartzea eskatu beharko litzaioke geografoari zein komunikabideen paisaiarekiko ardura duen ikertzaileari. Ingurune modernoan, haren paisaiak gizakiari eta alderantziz, gizakiak paisaiari, epe laburrean eta ertainean nola eragiten dion galdetzea. Kosmos aldaezin, egituratu eta esanguratsuen galeraren aurrean, lekuaren zentzua eta orientazioa berreskuratzea dira egun geografia humanistaren erronka nagusiak (Bunkssé, 1990: 105), eta horretarako behar-beharrezkoa zaigu kanpo paisaiari ez ezik barne paisaiari ere erreparatzea.

Barne paisaiari dagokion subjektibotasuna, landu izan denean, murriztu eta orokortu beharreko data multzo bezala hartu da geografiatik, zientziaren eredu kartesiarrari jarraiki (Bunkssé, 1990: 96: 104). Hala ere, giza geografia eredu eta metodologia nomotetikoen<sup>140</sup> aldeko joera berria agertzen ari da, nolabaiteko bira kulturala diziplina geografikoaren magalean, espezifikotasuna eta idiosinkrasia abiapuntu hartuta. Bira horren adierazgarritzat har daitekeen John Wileyk paisaia, finean, hiru erataria uler daitekeela jasoko du: estalki edo belo gisa, testu bezala, edo begirada modura (Wylie. John W., 2007: 56).

Komunikabideen paisaiari erreparatuta ere, hiru adiera hauek emankorrek dira. Gogora ditzagun, labor bada ere.

Lehenengo adieran, kritikari marxisten lana aipa dezakegu, zeinetan paisaiak, ikusizko adierazpen gisa, errealitatea ezkatatu, opakotu, mistifikatu, okluito egiten duen. John Bergerren hitzetan, «Batzuetan paisaia ez da hainbeste biztanleen bizitzaren ingurunea, baizik eta haien borrokak, lorpenak eta istripuak ezkutatzen dituen errezela»<sup>141</sup> (Berger, 1972: 41). Komunikabideei ere, antzerako zerbait leporatu diezaikegu, errealitatearekiko hautaketa, adierazpen eta ezkutatze lana burutzen baitute, ezinbestez, haien jardunean.

Bigarren ulerkerak paisaia testu bezala hartzea dakar. Cosgrove eta Danielsék «Paisaiaren Ikonografia» saiakeran paisaiaren belo izaeraren kritika marxistari erronka luzatzen diote, paisaiak ezkutatzen duen errealitatean tematu orde, beronen ehundurak agertzen duen errealitatea aztertzeke. Izan ere», ...kultura orok ehuntzen

<sup>139</sup> «... a humane discipline that has something to say not only about structures and processes of the varied earth's phenomena under study, but also about the human condition-past, present, and future-of individuals in the modern landscape».

<sup>140</sup> Ikusi IV. Kapituluan «Logika ideografikoa eta nomotetikoa».

<sup>141</sup> «Sometimes a landscape seems to be less a setting for the life of its inhabitants than a curtain behind which their struggles, achievements and accidents take place».

du bere mundua irudi eta sinboloz»<sup>142</sup> (Cosgrove & Daniels, 1988: 8). Ehundura horrek, Ridellen hirietako tekno-ehundura komunikatiboak barne, geografia kultural kritiko baten aztergai izan behar luke, hortara. Paisaia kritikariaren lana, orduan, ez da horrenbeste estalkia paretik kentzea, baizik eta honen bilbea eta tolesdurak aztertea, ehundurarengatik ardura hartzea<sup>143</sup> (Wylie. John W., 2007: 70). Komunikabideen esparrura ekarrita, paisaiak testua osatzen badu, testu mediatikoez ere paisaia osatzen dutela ondoriozta dezakegu, ikuspegi honetatik.

Paisaiaren bilbe honek, hortaz, irakurleria, ikusleria behar du, testu bezala jardun ahal izateko; audientzia. Eta horrek paisaiaren hirugarren adierara garamatza, paisaia begiratzeko modu edo begiradatzat hartzen duenera, hain zuzen. Geografiaren «bira kulturalaren» baitan, feminismoaren ekarpenak azpimarratzen ditu Wyliek paisaiaren begirada izatearen garapenari dagokionean (Wylie. John W., 2007: 82-83) eta begirada horren maskulinizazioaren salaketan.

Gillian Rosek, adibidez, paisaia testu bezala hartzearen metaforan gizarte patriarkalaren aztarna ikusten du, ezagutza geografikoa zer den eta zer ez den ezartzerako orduan, edota eremu publiko eta pribatuaren edo kalea eta etxearen arteko ezberdinketetan (Rose, 1993). Aldi berean, mendebaldeko «urrunetiko behaketaren» tradizio zientifikoak geografilariei paisaia testu bezala aztertzeko «objektibotasunezko» begirada bat aurkeztea ahalbidetu eta begirada ulerkera honen maskulinizazioa ezkatzea salatuko ditu Rosek (Rose, 1993: 88). Begirada objektibotzat jotzeak behatzailearen subjektibotasuna ezkatzea bilatzen du azkenean. Stuart Hallek jaso bezala, kodeen naturalizatzea<sup>144</sup>.

Catherine Nash-ek, salaketa honekin bat egin arren, paisaiaren begirada berrasmatu eta berhartzeko aukera eta beharraren aldeko deia egingo du bere «Ikusmena Berreskuratuz: paisaiari eta gorputzari begira» artikuluan (Nash, 1996: 149):

(...) beharrezkoa da haiekin jardutea haien agintea eta plazer eskusiboak hautsi eta ikusizko tradizio eta plazeretan diferentzia, subertsio, erresistentzia eta berjabetzerako aukerak zabaltzeko (...) Paisaiaren eta gorputzaren ikerketan, idazketan edo begiratzean aurki daitekeen plazera politikoa da, baina honek ez du haren adierazpen edo ikuspena automatikoki onartezin bihurtzen<sup>145</sup>.

Bestela esanda, paisaiaren begirada historikoki patriarkala eta maskulinoa izan

<sup>142</sup> «...every culture weaves its world out of image and symbol».

<sup>143</sup> «The task of the landscape critic is no longer to rent the veil asunder, but to search amidst its folds, along the 'weave' of its 'fabric'. To pursue this metaphor even further, what has now become interesting about the veil is no longer its function, but its texture».

<sup>144</sup> Ikus aurreko atala.

<sup>145</sup> «(...) it is necessary to engage with them to disrupt their authority and exclusive pleasures and open up possibilities for difference, subversion, resistance and reappropriation of visual traditions and visual pleasure. . . . Pleasure in research, writing or looking at landscape and the body is political, but this does not render this representation or vision automatically unacceptable».

bada ere, horrek ez du esan nahi begirada moduan beti parametro horietan operatu beharra duenik. Bada lekua paisaiaren ikerketan, idazketan, gozamenean, bestelako begiradetarako ere. Nashen ikuspegiari helduta, gaineratu genezake badela lekua, komunikabideen paisaiaren metaforatik abiatuta begirada ezberdinak garatu, aztertu eta kritikatzeko.

Paisaiaren belo, testu eta begirada adierak, hirurak zaizkigu erabilgarri eta egoki, komunikabideen paisaiari buruz ekiteko. Eta, gaineratu genezake, adiera hauek ego-kiak ez ezik ezinbestekoak ere badira, Cosgrovek aipatzen zuen «ikusizko eszena»<sup>146</sup> (Cosgrove, 1985: 46) jada ez baita geomorfologikoa, urbanoa edo arkitekturazkoa bakarrik: komunikabideen bidez jasotzen ditugun ikus-entzunezko edukiek sortua da hein handi batean. Paisaia mediatikoa osagai garrantzitsua, funtsezkoa da agian, gure eguneroko paisaiaren osaketan. Komunikabideen paisaia honek, atalaren sarre-ran esan bezala, eraldaketa sakonak agertu ditu eta agertzen ari da. Azter ditzagun ondoren eraldaketa hauen ezaugarri eta ondorio nagusiak.

#### 2.1.2.1. *Aldaketak eta hausturak komunikabideen paisaian*

Behin eta berriro entzuna eta esana dugu masa komunikabideen –eta horien ekoi-zen eta kontsumo moduek– eraldaketa garrantzitsuak jasan dituztela aurreko mendean eta gurean. Edukiaren igorpena lineala, sekuentziala zen garaiko paisaia mediatikotik –non euskarri bakoitzari bere edukia zegokion, eta telebistak, irratiak, zinemak, pren-tsak, bakoitzaren lekua zein zen argi izan zezaketen– gaur egunekora alde handia dago.

Agian interneten agerpenak eta garapen azkarrak eskaintzen digu dena aldatu delako adibiderik argiena, euskarri batzuen eta besteen arteko mugak lausotuz eta idazkera eta irakurkera modu ez-linealak bultzatzerakoan. Komunikabideen pai-saiak, XX. mende amaieran aurretik hartzen zituen formei erreparatzerakoan ia eki-diezina zaigu iraultza digital bat bizi izan dugun sentsazioa.

Internetek komunikabide bezala hartu duen zentraltasunaren eta heldutasunaren zeinu eta froga bezala hartu izan da «2.0 weba» deiturikoa, eta terminoari erantsi zaizkion adjektiboen artean «iraultzailea» da, ziurrenez, errepikatuenetarikoa (Woo-dell, 2009). 2.0 webak bitartekari teknologikoen bidezko harreman sozialen iraulketa aldarrikatu du, ordena komunikatibo berria –horizontala, norabide anitzekoa eta de-mokratikoa– marraztuz, non ikus-entzunezko eduki mota guztiak lekua duten, haien sorrerako euskarria delakoa dela (idatzizko testua, bideoa, audioa...). Bestalde, par-tehartzaile guztiak eskubide berak dituztela aldarrikatu izan dugu, irakurle oro idazle izan daitekeelarik aldi berean, beste komunikabideak elikatu eta beste komunikabi-deetatik elikatu daitekeen euskarri berri batean.

Hala ere, zilegi da argudiatzea ikusgarria eta azkarra izan den gertakari sozial ororen aurrean «iraultza» berba erabiltzeko tentazioa daukagula, pertsonen egune-

<sup>146</sup> «the visible scene».

rokotasunean bene-benetan izan duen esanahiari erreparatu gabe. Ezagun zaizkigu produktu garbigarren, eskuko telefonoen edo bizarra egiteko sistemen iragarkietan halako adjektiboak, eta ez dute, noski, ordena soziala iraultzeko asmorik batere. Iraultza kontsumo gizarteko marka izan da behin eta berriro, ordena aldaketaz mozorrotutako ordenaren jarraipen bihurtu da, alegia.

Egun, 2.0 weba esamoldeak komunikazio digitalaren paradigma berriaren defendatzaileen leloa eta terminoaren gehiegikeriaz nazkatutakoen nekea biltzen ditu. Darcy DiNucci *Etorkizun Zatikatu*a lanean erabili zuenetik (DiNucci, 1999), esapi-deak aldaera ezberdinak izan ditu. Artikuluan DiNucci aldi berean euskarri askotan zatikatutako panorama mediatikoan kokatu zuen terminoa, baina O'Reilly Media argitaletxe eta kontsultora amerikarrak beste adiera bat eman zion 2004ko urteroko hitzaldian: software garatzaileen eta erabiltzaileen elkarlanak ahalbidetutako web oinarriaren aplikazioena. Kontzeptuaren inguruko polemikak bizi-bizirik jarraituko duen arren, handik aurrera adiera hau izango da ezagunena, «irakurketa hutsezko» web batetik haratago, nolabaiteko partehartzearen arkitekturaren aldeko konpromisoarena hain zuzen (O'Reilly, 2004).

Zein neurritaraino esan dezakegu aldatu dela, aldatzen ari dela komunikabideen paisaia? Norainokoa izan da eduki eta euskarrien bateratze multimediaren eta 2.0 webaren kontzeptuaren iraultza, pertsonen aisiari dagokionez? Izenik gabeko iraultza baten aurrean al gaude, ala iraultzarik gabeko izen baten aurrean? Internet deituriko datu sare interaktibo eta multimediak komunikazioaren jokoaren arauak eta jokariak aldatu ditu, ala beste merkatu produktu baten paketatze distiratsua besterik ez da 2.0 weba? DiNucci iragarritako aldibereko zatikatze mediatikoa burutu da jada, batez ere komunikabideen kontsumo ohiturei dagokienean. World Wide Web edo Mundu Zabaleko Sarea gure etxeetako ordenagailu pertsonaletan ez ezik eskuko telefonoetan, bideojoko kontsoletan eta irakurgailu elektronikoetan ere.

Jenkinsek proposatutako konbergentziaren kultura (Jenkins, 2006) hartze mediatiko gehienen abiapuntu bilakatu da, eta telebista aparailua eta ordenagailuko monitorea berezko izatea galtzen ari direla dirudi, haien arteko mugak gero eta lausoagoak diren artean, gero eta pantailago bihurtuz. Lipovetsky eta Serroyk honen inguruko hausnarketa ederra eskaintzen dute «Paintaila txikiaren patu sinestezina» atalean zinema, telebista eta gailu eramangarrien arteko harremanen izaera eta ondorioak gogora ekarrita (Lipovetsky & Serroy, 2009: 225):

Zinefilia klasikoak zurrun ezarritako muga zaharrak porotsu bihurtu dira, begibistakoa da. ¿Non hasten da zinema, eta non amaitzen da? Nola jarraitu telebista eta zinema era erradikalean banatzen azken horrek ezin duenean biziraun lehenengoaren hedatzerik gabe, eta frantziar kasuan, telebistaren finantzaketarik gabe?<sup>147</sup>

<sup>147</sup> «Las antiguas fronteras rígidamente trazadas por la cinefilia clásica se han vuelto porosas, eso es evidente. ¿Dónde empieza el cine y dónde termina? Cómo seguir separando radicalmente televisión y cine cuando éste no puede existir ya sin difusión ni, en el caso francés, sin financiación televisuales».

Paisaia mediatiko berrian plataforma tradizionalen arteko mugak iragazkorrak eta igarokorrak bihurtu dira, eta euskarri eta kanaleen arteko elkarloturak salbuespena baino arau ditugu egun<sup>148</sup>. Adiera bakarrekoak ziren telebista, pantaila edo tresna beraren terminoak definitzen zailagoak bihurtzen ari dira, ahalmen tekniko berriak garatzen eta erabilera ezberdinak ahalbidetzen doazen heinean. Euskarriak funtzio berriak eskuratzen ari dira, ikusgai denaren gaineko kontrol handiagoa ahalbidetuz (magnetoskopioren *time-shifting* edo programazioaren denboraren gaineko kontrola edo *pay-per-view* edo eduki zehatzen erosketa eta kontsumorako funtzioak adibidez). Kontsumitzen ditugun testuen ordena ez da urrunetik zehazten, hurbiletik baino, tele-bista edo urruneko ikusmenaren ideia bera zalantzan jarriz.

Telebista aparailua urruneko emankizunen eta norberak aukeratutako edukien aldibereko hargailu digital bihurtu da, norberaren ikus-entzunezko bildumak (oporetako argazkiak, familiako ezkontza baten bideoak zein dvd edo blu-ray bidezko filmak eta telesailak erakutsiz pantailan) eta streaming bidezko edukiak gehitze-rakoan. Era berean, magnetoskopiok telebistaren denboraren gaineko kontrola eskaini bazioten ikus-entzuleari (programazioarenak ez baizik eta norberarenak ziren kontsumoaldiak zehaztea ahalbidetzerakoan), teknologia digitalen, eta batez ere, interneten garapenak espazioaren mugak eraitsi ditu neurri handi batean. Jada ez da beharrezkoa ikustea herrialde bakoitzeko telebista kateen emankizunetara mugatzea. Komunikabideen adierazleek sarri berdin jarraitzen duten arren (telefonoa, zinema, irratia telebista...), adieraziak aldatu eta ugalduz doaz, norbanakoaren eta giza taldearen komunikabide bidezko aisiarako leiho eta ispilu bihurtzen doan artean.

Edukietarako sarbide anitza batez besteko erabiltzailearen eskura dago, ez soilik teknologia erabiltzaile aurreratuenen, *early adopter* edo erabiltzaile goiztiar direlakoan esku<sup>149</sup>. Gero eta ohikoago zaigu telebista saio bat edo bereizmen handiko film bat ordenagailuko pantailan, erreproduzitzailu eramangarri batean edo etxeko *home cinema* sisteman ikusi ahal izatea, edo aldi bereko hartzeak uztartzea, telebistaren aurrean egunkaria irakurritz, ordenagailu eramangarriaren albiste eta mezu elektronikoen artean nabigatuz edo eskuko telefonoaz sms mezuak bidaliz.

Ia oharkabean, zeharo aldatu ditugu gure ikus-entzunezko ohiturak eta komunikabideekiko azturak. Garapen teknologikoarekin batera, aisiaren forma ezberdinetarako sarbide, partehartze eta kontsumo moduak berriak agertu dira. 2.0 webak aldaketa hauen metafora gisa duen erabilkortasunean aurkitu du bere onarpena eta ospea, aukera teknikoak gizakiaren zerbitzura jartzeko promesa hortan. Horregatik, iragaite esanguratsuena, baita aztertzen zailena ere, ez datza eraldaketa teknologiko eta industrialetan, baizik eta ikus-entzuleriaren erabilera eta esperientzien aldakete-

<sup>148</sup> Ikus hurrengo atala: «Komunikabideen bateratzea».

<sup>149</sup> Hitz joko interesgarria dago ingelesez «early adopter» (erabiltzaile/hartzaile goiztiarrak) eta «early adapter»-en (moldatzaile goiztiarrak) artean. Lehenengoak kontsumitzailearen figurari egiten badio erreferentzia bigarrenak komunikabideen jabetze eta moldaketaren ideia iradokitzen du.

tan: telebista eguneroko aisiaren parte bihurtzen den toki, une eta elkarrekintzetan. Aldaketa teknologiko eta industrial azeleratuen aro hortan, oinarrizkoa da telebistaren ideia birpentsatzea, bere esanahiak berreraikitzea, eta aisiazko ohitura, jarduera eta esperientziek «telebista ikustearen» esapide orokor eta gero eta gatazkatsuagoa berrikusteko erronka eta aukera eskaintzen dizkigute.

Lan honen perspektibatik, promesa hortan datza gakoa; aisia norabide anitzeko komunikazioaren aukera teknikoa edo euskarri eta edukien arteko nahasketa baino gehiago da. Aisia gizarte fenomeno eta esperientzia pertsonala da, eta parametro horietan aztertu behar da XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran eman den paisaia mediatikoaren eraldaketa: subjektuen aisiazko esperientzian eta horien kontakizunean.

Ardura hori ez da berria, noski. Jenkinsek komunikabideen ikerlarien artean bi korronte edo joera identifikatu ditu: Adorno eta Horkheimer bezalako Frankfurteko eskolako kritikoen salaketak bereganatzen dituztenena alde batetik, Noam Chomsky edo Mark Crispin Miller kasu, zeinek «gizarte demokratikoago bat eraikitzeko oztopoetan» jarriko duten gogoia (Jenkins, 2006: 258) eta, bestetik Umberto Eco bezalako pentsalarien «utopismo kritikoa», zeinek interes handiagoa agertuko duen gizakiok komunikabideekin egiten dugunarekin, komunikabideek gurekin egiten dutenarekin baino. Bigarren joera horretan kokatzen da gehiago lan hau, Eco planteatuko lukeen bezala kontua ez baita hainbeste telebistak publikoa kaltetzen duen, baizik ea publikoak telebista kaltetzen duen (U. Eco, 1982).

Chamberlainek ohartarazi zuen bezala, «egungo komunikabideen paisaia ekoi-zen eta hartze teknologia desorekatzailez beteta dago, eta semantikaren inguruko gудuek ondorio materialak dituzte» (Chamberlain, 2011: 15)<sup>150</sup>. Aldaketa sakonean murgildutako paisaia mediatikoan ikus-entzuleek aurkitu, eraiki eta bizi dituzten zentzu eta esanahiek paisaiaren beraren izaera eta forma eraldatzen jarraitzen dute. Paisaia honen eraldaketa eta izaera ulertu ahal izateko, bateratze edo konbergentziaren kontzeptuari erreparatu beharrean gaude ezinbestean.

## 2.2. KOMUNIKABIDEEN BATERATZEA

Komunikabideen bateratzea, orobat, sistema multimedia batean eta ikus-entzuleen egunerokotasunean integratutako testu, formatu eta plataformen arteko interdependentzia edo elkarrenganako menpekotasuna izango balitz bezala ikusi dezakegu, non audientziek haien jarduera ingurune anitzetan burutzen duten. Bateratzearekin horixe esan nahi baitugu: bat etortzea. Paisaia mediatiko zatikatu, argiro mugatu batetik paisaia aldakorrago, integratuagoa; ikus-entzuleek komunikabideen eskaintza zabalagoa ez ezik, porotsuagoa aurkitzen duten paisaia, alegia. Sarbide, helduleku

<sup>150</sup> «... the contemporary media landscape is populated by destabilizing technologies of production and reception, and battles over semantics have material consequences».

eta erabilera antz dituen komunikabideen paisaia, non ikus-entzunezko industriak ekoizpen, banaketa eta kontsumorako molde berriei aurre egitera behartuta dauden, honek dakartzan aukera eta arazo guztiekin.

Komunikabideen bateratzeak hainbat kanalen bat etortzeari egiten dio erreferentzia, eta ikuspegi honi eman nahi izan diogu lehentasuna hurrengo orrialdeetan. Baina interesgarria da, halaber, bateratze multimedia kontzeptua aipatzea, finean komunikazio erreten ezberdinen euskarrien arteko elkarloturak eta molde askotako testuen josteak (testu idatzia, audioa, bideoa...) osatzen baitute egungo espazio mediatikoaren muina.

Hala ere, kontzeptuaren baitan dauden zenbait ñabardura azaltzea merezi du, haren garrantzia azpimarratu eta inplikazioak mahai gaineratzeko. Lehenengo eta behin, komunikabideen bateratzearen alde teknologiko eta industrialak jorratuko dugu, zinema, irrata, internet, prentsa idatzia eta telebistarentzat izan dituen ondorioak gogora ekarriz hurrenez hurren, eta bateratzearen seme-alabak diren crossmedia eta transmedia kontzeptuak argituz segidan. Amaitzeko, komunikabideen bateratzearen ondorio eta ezaugarri kulturalak aipatuko ditugu, parametro industrial eta teknologikoetatik haratago doan fenomeno gisa.

Oro har, atal honek espazio mediatikoa bete-betean eraldatzen diharduen bateratze prozesuaren aurpegi aintzeko erretratua izan nahi du, gizabanako eta taldeek komunikabideekin eraiki ditzaketan aisiazko harremanen perspektibatik.

### 2.2.1. BATERATZEAREN ALDE TEKNOLOGIKO ETA INDUSTRIALA

Komunikabideen bateratzeari buruzko hausnarketen aitzindaria izan zen Ithiel de Sola Pool ikerlari sozialaren *Askatasunaren Teknologiak* lana (De Sola Pool, 1983). Bertan, garaiko komunikazio teknologien etorkizuneko garapena marraztu zituen, elkarkonektatutako komunikazio ingurugiro bat aurrikusiz, eta komunikabideen bateratze edo konbergentziaren lehen definitze bat luzatuz:

Konbergentziak ez du esan nahi behin-betiko egonkortasun edo batasunik. Bateratzearen aldeko indar etengabe bezala eragiten du, baina betiere aldatetarekin tentsio dinamikoan. (...) Beti egongo dira espezializazioa, berrikuntza eta telekomunikazio sistema unibertsal batek egiten duena beste modu batean, asmo batzuei begira hobeto, egiteko saiakerak, eta beti egongo da sistema unibertsalera itzulera bat, unibertsaltasunaren aparteko komenientzia dela eta. (De Sola Pool, 1983: 53).


Interesgarria da terminoaren jaiotzan bertan bateratzeaz –edo konbergentziaz– diharduela autoreak, ez batasunaz. Unibertsaltasunaren eta espezializazioaren arteko dialektikan kokatu du, beti bidean, beti zalantzan, beti tentsioan egongo den prozesu gisa irudikatu, ez amaitutako– edo amai daitekeen– gertakari bezala. De Sola Pool telefonoaz eta telegrafoaz ari zen, komunikabide inprimatu eta elektronikoez (irratia, telebista), ez digitalez. Baina kontzeptua eta terminoa, berba bera, gelditu egiten ziren.



1995ean Nicholas Negropontek aro digitalera eguneratu zuen, bateratzea informazio bit-ak elkarnahasten direnean gailu edo euskarriak geroz eta garrantzia gehiago galduko dutela ziurtatutakoan (Negroponte, 1995).

Izan ere, gutxik ukatuko dute egun ikus-entzunezkoen digitalizazioak, hau da, ikus-entzunezko edukien ekoizpen, banaketa eta kontsumorako teknologia digita- lek ireki dutela hein handi batean komunikabideen bateratze gradu berri baterako bidea. John Watkinsonek jaso zuen bezala «Eremu digitalean pentsa litekeen edozein datu prozesatze burutzea posible da, beti ere audioa eta bideoa, hau da, soinua eta irudia, haien jatorrizko formatik eremu digitalera, eta alderantziz, bihurtu ahal diren artean». (Watkinson, 2001). Bateratzeak ikus-entzunezko testuak zero eta bat digita- letara bihurtzea (kodetzea) eta berauek berriro irudi eta soinura bilakatzea (desko- detzea) eskatzen du, bestela ez baitago edukiak barreiatzerik. Shannon eta Weave- rren komunikazioaren eredu klasikoaren aldaera dakar egungo ikus-entzunezkoen ekoizpen-banaketa-kontsumo sistemak; adieraziak igorri eta jaso ezin direnez, adie- razleak garraiatzen ditugu, kasu honetan zero eta bat sekuentzien forman.

## 6. IRUDIA: KOMUNIKAZIOAREN IGORPEN EREDUA (SHANNON ETA WEAVER)



Iturria: norberak egina. (Shannon & Weaver, 1949).

Komunikazioaren igorpen eredu gogora ekarri badugu, ez da inola ere honen norantza bakarreko ibilbideak komunikabideen bateratzea ondo azaltzen duela uste duelakoan, beronen azpiegitura teknologikoaren muina ondo azaltzen duelako baizik. Digitalizazioak, adierazleen mailan (soinu eta irudien forma multzoak), berriro ere kodetzearen beharra dakar, bit<sup>151</sup> bezala zirkuitu digitalean txertatu (eta barreiatu) ahal izateko. Heine berean, zeinu digital hauek irudi eta soinu bihurtzeko, berriro ere deskodetza teknologikoaren beharra dugu, hargailu digitalen bidez (dela ordenagailura konektatutako kable-modema eta hardware eta software multzoa, dela Lurrazaleko Telebista Digitala jasotzeko gai den deskodetzailea, eskuko telefonoa...). Subjektuaren deskodetzea (edo adieraziaren eta esanahiaren eraikuntza) bigarren fase batean ematen da ezinbestean, behin kodeketa-deskodeketa lan tekniko hau emandakoan.

<sup>151</sup> Bi posiziodun unitatea da bit-a: 1 edo 0.

Digitalizazioak, askotariko adierazleak zero eta bat sekuentzian kodetutakoan euskarri eta irakurgailuen arteko elkartrukea erraztu du, baina ez arazorik gabe. Digitalizazioak ez du inolaz ere testuen irakurgarritasun edo erreproduzitze aukera unibertsalik ekarri, egungo ikus-entzunezko testuen kontsumitzaileak ondo dakien moduan<sup>152</sup>. Formatu, euskarri eta estandarren arteko lehiak gori-gorian daude oraindik ere, eta industriaren eta kontsumitzaileen interesek talka egiten dute sarri, teknologiak berez eskainiko lituzkeen aukerez harago. Hala ere, euskarri edo komunikabide batetik bestera edukia igarotzea ikaragarri erraztu du digitalizazioak, bai maila profesionalean, eta baita maila amateurrean ere. Zentzu berean, edukien jarioak euskarri bakarraren edalontziari gainezka eginarazi dion neurrian, formatu, genero eta produktu berriak agertu dira, baita hauen arteko harreman berriak ere:

Audio, bideo eta konputagailu teknologien konbinaketa esberdinetan oinarritutako produktu eta zerbitzuen aukera irudimenak bakarrik mugatzen du. Bideofono bidezko zorion postal musikalak, argazkigintza digitala, mp3 erreproduzitzailak, internet bidezko bideoa eta eskatuz geroko bideoetatik hegaldi simulagailuetara, zinema elektronikoa eta errealtate birtualera, oinarri berak dira aplikagarri<sup>153</sup>. (Watkinson, 2001: 1).

Interneti esker, geroz eta errazagoa eta merkeagoa da ikus entzunezko edukia formatu digitalean eskuratu, eraldatu eta berriro ere igortzea, edo norberaren testu, irudi, soinuak digitalizatu eta zirkulazioan jartzea, komunikazioaren igorpen ereduaren iterazio berri bati hasiera emanez. Ikus entzunezko industriarentzat ere, geroz eta merke eta errazagoa da edukiak euskarri anizteta egokitzea, filme baten merkaturatzea ziklo ezberdinetan gertatzen delarik egun: zinema, dvd edo blu-ray diskoak, satellite eta kable bidezko telebista, pay-per-view edo eskatuz gerozko telebista, lurrazaleko telebista...<sup>154</sup>. Era berean, teknologia digitalek ikus-entzunezkoen aldi bereko kontsumoa ahalbidetu eta bultzatu dute, internet bidezko telebista saioen eta twitter bezalako komunikazio tresnen bidez<sup>155</sup>. Are gehiago, komunikabideen bateratzeak komunikabide ez digitalak ere integratu ditu, zuzeneko emisioetan telefono deiak txertatuz, edo sms bidezko mezu laburrak pantailan agerraraziz.

Zentzu horretan, komeni da gogoratzea Henry Jenkinsek dioen bezala komunikabideen bateratzea ez dela banaketa mekanismo jakin baten araberakoa: kontua

<sup>152</sup> Interesgarria da Bizkaiko Foru Aldundiak Boiseko 2010eko Euskal Jaialdiaren karira bertara opari eramandako Bizkaiaren promoziorako DVD-ak PAL sisteman zeudela gogoratzea, ipar-amerikarren NTSC sistemadun irakurgailuetarako erabilezinak zirelarik.

<sup>153</sup> «The range of products and services which can be based on various combinations of audio, video and computer technology is limited only by the imagination. From the musical greetings card through videophones, digital photography, MP3 players, Internet video and video-on-demand to flight simulators, electronic cinema and virtual reality, the same fundamentals apply».

<sup>154</sup> Ikus baita transmediari dagokion azpiatala, ikus-entzunezko industriaren eta narratibaren estrategia ezberdin bati dagokionez. Ez hainbeste ziklo eta euskarri ezberdinetako merkaturatzea (baita ere), baizik eta aldibereko kontakizuna euskarri eta komunikabide ezberdinetan.

<sup>155</sup> Ikus adibidez eitb.com eta eitb.tv webguneak.

ez da informazioa edo ikus-entzunezko edukia zein modutan ekoiztu, banatu eta kontsumitzen den. Aldiz, Jenkinsen ustez paradigma aldaketa suposatzen du, komunikabidearen berariazko edukitik hainbat komunikazio kanaletan dabilen edukiarekiko aldaketa. Aldi berean, komunikazio sistema ezberdinen elkarrenganako menpekotasun handiagoa eta edukiarenganako sarbide anitzagoetara dakartza (Jenkins, 2006). Hortaz, komunikabideen bateratzeak joko arauak aldatu ditu, aldatzen ari da, jokalaria guztientzat.

Horrela, bateratzea ez da errealitate sozial eta ekonomikotik at gertatzen den fenomeno isolatua. Komunikabideen bateratzeak ondorio zuzenak ditu ikus-entzunezko industrian eta bertako langileengan. Jotxo Larrañagak, adibidez, Goiena Komunikazio Zerbitzuak tokiko komunikabide enpresa abiapuntu harturik, kazetaritzarengan dituen eta izan ditzakeen ondorioak aztertu ditu *Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratze*ko artikuluan. Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariak jasotzen duen legez:

Kazetaria aldaketa handien artean bizi da teknologia berriak direla eta. Komunikazio-enpresak digitalizatzen ari dira eta, gaur egun, multimediaren aukerak gero eta gertuagoak dituzte eta erabiltzen hasiak dira. Hedabide baterako kazetariak egiten duen informazioa beste hedabide baterako ere aprobeitza daiteke. Kazetariaren lanari etekin handiagoa ataratzeko bideak darabiltzate enpresek. Multimedia konzeptuak formatuari dagokio eta kazetariari ere badagokio. (Larrañaga Zubizarreta, 2008: 69-81: 70).

«Multitarea» edo «multiataza» izaera hedatzen ari omen da, Larrañagaren arabera, komunikazio enpresa gehienetan, tokian tokikoak barne, kazetariaren lana komunikabide bakarrera zuzendua baino komunikabide anitzetarako erabilgarria izatea espero baita geroz eta gehiago. Hala, Arrasateko kooperatibaren kasuan Goienkaria egunkaria, GoiTB telebista, Arrasate Irratia eta Goiena.net webgunea aipatzen ditu kazetariaren lanaren oinarri eta helbide gisa, komunikabide hauekiko langileekin behaketa, galdeketa eta elkarrizketak uztartuz, azterketa kualitatiboaren bidez kazetari multimediaren figurara hurbiltzeko. Larrañagak, komunikabideen bateratzearen aurrean, etekin eta eraginkortasun ekonomikoaren (euskarrien arteko sinergiak, edukiaren ekoizpen anizkoitza, informazio multimediaren aberastasuna) eta langileen ongizate eta eskubideen (lan-baldintzak, duintasuna, profesionaltasuna...) orekarako deia egiten du artikuluan, nazioarteko korporazio mediatiko erraldoientzat zein tokian tokiko komunikazio enpresentzat ere agertzen duen zailtasuna agerian utzita.

Bateratzeak arrisku eta zailtasun berezkoak dakartza; ez soilik langileentzat, baita industriarentzat berarentzat ere. Telebista adibidez, bidegurutzean dago egun:

Telebistak lehia gutxi edo batere ez zuenean, nahi zuena egin zezakeen ia, baina orain alternatibak daude. Informazio eramale bezala, telebista komertzialak ez du batere ondo funtzionatzen, haren eredia iragarkiak eta programak bereiziezinak izatean oinarritzen baita. Estetikoki, iragarkiak eta entretenimendua ez doaz ondoegi elkarrekin, eta negozioko eredia zakarra da, teknologia ere zakarra zen garai batean bilakatutakoa.

Egun, teknologia bateratzaileak iragartzea eta entretenitzea bereiztea ahalbidetzen du, telebista komertzialaren negozio eredua zalantzan jarriz. (Watkinson, 2001: 33)<sup>156</sup>.

Telebistaren sekuentzialtasuna, linealtasuna zalantzan jartzeko arrazoiak eskaintzen ditu egungo paisaia mediatikoak, eta bere izaeraren beraren muina den jariora eta zuzenekotasuna bigarren mailara igartzeko aukera dago, elkarren artean konektatu eta berrantolatu daitekeen komunikabide sortaren aurrean.

Teknologia digitalek, eta teknologia horien bir-jabetzeek (aurrikusita ez zeuden erabilerak ematerakoan, edo erabilera berriak garatzerakoan) ikus-entzunezko ekoizle zein kontsumitzaileei, banatzaile zein erabiltzaileei aukera berriak ekarri dizkiete. Baina zein ondorio ditu eta zein izan ditzake komunikabideen bateratzeak ikus-entzuleriarentzat? Zer dakarkio edo zer kentzen dio audientziaren eguneroko esperientziari? Kackman eta abarren arabera, komunikabideen bateratzearen aldeko lehen aldarriek utopianismo teknologikoaren kutsua zuten, euskarri eta komunikabideen arteko elkarlotura ez ezik, gizarte oztopo eta mugak eraitsiko zituelakoan. Eszeptikoenek, aldiz, neurriera egindako komunikabide digitalek norbere bizi-estiloaren mehartzea eta esfera publikoan partehartzearen desagerpenerako arriskuaz ohartarazi zuten, komunikabideen gizarte-lotura funtzioa zalantzan jartzean (Kackman, Binfield, Payne, Perlman, & Sebok, 2011). Ardura horien baitan kokatu behar dugu Henry Jenkinsek bateratzea testuen arteko lotura eta harreman ekonomiko eta industrialez haratago hartzearen praktika eta harreman kulturaletan aldaketa dakarren partehartzearen klima interaktibo bezala ulertzea (Jenkins, 2004; Jenkins, 2006). Euskarrien arteko ikus-entzunezko testuen mugikortasunak ekoizle eta kontsumitzaileen arteko mugak lausotu ditu, eta giza komunitateek testu komertzialen esanahi eta irismenak eraldatzen dituzte, testuotaz jabetuz.

Komunikazioaren azpiegituran bertan gertatzen ari diren aldaketa eta jauziek kontraesanek beteriko eraginak sortzen dituzte bizitza kulturalen. Alde batetik kulturarako sarbide eta parte-hartze modu berriak eskaintzen dizkiete oinarritzko komunitate eta tradizioz baztertuta dauden norbanakoei: informaziorako sarbidea eta informazioa igortzeko aukera zirrargarriak, eztabaidarako aukera, argudioak entzun eta aurkezteko parada, norbere ikuspegia ezagutarazi eta besteena ezagutzeko eremua. Bestetik, komunikazio industriek kanal eta plataformen arteko sinergia ekonomiko eta komunikaziozkoak bilatzen dituzte haien boterea egonkortu eta etekinak maximizatzen. Bateratzeak norabide anitzeko presioa eragiten du espazio mediatikoko eragile guztiengan, aldi berean boterea kontzentratuz eta deszentralizatuz, era berean gotik behera eragindako integrazio prozesu baten ondorioz eta behetik gora jardundako hartzaileen eskakizunen eraginez.

<sup>156</sup> «When television had little or no competition, it could pretty much do what it liked, but now there are alternatives. As a carrier of information, commercial television doesn't work very well because its business model is based on the assumption that commercials and programs are inseparable. Aesthetically speaking, advertising and entertainment do not sit well together and the business model is a crude one which evolved when technology was equally crude. Today convergent technology allows advertising and entertainment to be separated calling into question the business model of commercial television».

Amaitutako prozesu perfektu izatetik urrun, komunikabideen bateratzea arazoz eta kontraesan bezalako proiektu amaitugabea da. Digitalizazioak aurrera egiten duen neurrian, komunikabide bakoitzaren izaera ere aldatzen joango dela sumatu daiteke, eta haien arteko harremana ere estuagoa izango dela sumatu dezakegu. Hala ere, inplikazioak ezberdinak dira komunikabide bakoitzarentzat. Ikus ditzagun bateratzearen zantzuak zenbait komunikabidetan. Zinema, irratia, telebista eta internet ekarriko ditugu ondoren gogora, ikus-entzunezko forma garaikideen ubide nagusi gisa.

### 2.2.2. ZINEMA

Zinemak beste pantailekin harreman bitxia izan du bere historian zehar, elkarbitza modu ezberdinak saiatu dituelarik batzuk eta besteekin. Telebistak adibidez, jatorrian zuzeneko edukia soilik eskaintzen zuen, saioak grabatu eta gordetzeko teknologia ez baitzegoen garatuta (Bignell, 2008: 20). Ordutik, telebistak zuzeneko-tasuna azpimarratu du, zinemak ez bezala, bere indargune gisa.

Elana Levinek jaso bezala, «Irudiak eta soinuak gertatu ahala igortzeko telebistaren gaitasuna –zuzeneko emanaldia– luzaro izan da telebistaren programazio jakin bat bestelako programazioaren gaitetik, eta baita beste komunikabideen gaitetik ere kokatzeko giltza<sup>157</sup>. (Levine, 2008: 394). Zinemak aldiz, informazioan eta zuzeneko-tasunean baino entretenimenduan errotu du bere jarduna; fikzioan alegia. Hala ere, bi pantailen edukien espezializazioak –txikia, etxekoa bata; handia, aretokoa bestea–, arazoak agertu ditu sorreratik, teknologiak irekitako zirrikituak jabego intelektuala- ren bidez ixteko saiakerak ezagun zaizkigularik. Honela jaso zuen Jonathan Bignellek britainiar telebistaren hastapenen kronikan: «Hollywoodeko estudioek ez zieten onartzen telebista igorleei [filmak] ematerik, entretenimendurako komunikabide nagusi bezala zinemari ekar liezaiokkeen lehiari beldurrez» (Bignell, 2008: 29)<sup>158</sup>.

Telebistaren lehen urte haietako errezeloak urteekin sobera gaingitu diren arren (egun ohikoena zinema aretoetako filmeak behin eta berriro telebistak ikusi ahal izatea dugu, behin bideo/dvd/blu-ray eta abarrekoetan merkaturatu ostean), digitalizazioak eta komunikabideen bateratzeak orduko egoera gogorarazten duen burukomina ekarri dio zinemari: internet bidezko edukien elkarbanaketa. Chuck Tryonek *Zinema berrasmutzen: filmak bateratzearen aroan* lanean Michael Moore-en *Sicko* filmaren kasua aztertzen du, zein zinema aretoetan estreinatu baino lehenago youtube gunean sareratu zen, kopia pirata bati esker. Ondorioz, Lionsgate eta Weinstein Company ekoizleek filma astebete arinago estreinatzeke erabakia hartu zuten. (Tryon, 2009: 1). Internetek «entrenimendurako komunikabide» gisa har zezakeen

<sup>157</sup> «Television's ability to transmit images and sounds as they occur – to broadcast live – has long been a key way in which certain kinds of television programming have been culturally elevated over other kinds of programming, and even over other media».

<sup>158</sup> «Hollywood studies would not allow television broadcasters to screen them, for fear of competition with the cinema as a dominant medium for entertainment».

nagusitasunaren beldur, edo filtrazioak etekinak kaltetuko zituelakoan, badaezpada lehenengo proiektzioa zineman izan beharra zuelako usteari gogor eutsi zioten. Emaizta, hala ere, ez zuten aldatu, filmaren bertzio digitalak interneten eskuragarri jarraitu baitzuen.

Emerging Pictures ekoiztetxeko Ira Deutchmanen hitzak ere zinematik pantaila eta komunikabide berriekin duen elkarbizitza zailaren erakusgarri ditugu, filmak «ekoiztetxe nagusien ondorengo, interneten aurreko garaian»<sup>159</sup> daudela dioenean. (Tryon, 2009: 2-3). Komunikabideen bateratzeak zinemaren industria ezeroso sentiarazi duela egia den arren, egia da teknologia digitalek zinegileei istoriak modu ez lineal, interaktiboetan kontatzeko modu berriei heltzea ahalbidetu diela. Aldi berean, etxean ikustera bideratutako bideo, dvd eta blu-ray euskarrietan zinemaren industriak bigarren merkatu garrantzitsu bat aurkitu du, batez ere kalitate handiko irudi eta soinua eskaintzeko gai diren *home cinema* direlako sistemen ugaltzearekin. Egun, zinema ezezagunez betetako (edo hustutako) aretoetan ez ezik, senide eta lagunekin eta baita bakarrik ere ikusten da, etxean.

Zinema ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu tradizionalaren eta azaleratzen ari diren paradigma berrien artean aurkitzen da, telebista aurkitzen denaren antzekoa, baina ezberdina den atakan: «...teknologia digitalek banaketa eta erakuste sistema berriak eskain ditzaketzen arren, filmen kontsumoa moldatzen duten jokabide, praktika eta diskursoen antolamendu zabalago baten parte dira»<sup>160</sup>. (Tryon, 2009: 3). Zinema aretoak egungo paisaia mediatikoaren gune garrantzitsuak dira, satelite eta kable bidezko telebista, erreproduzitzaileramangarri eta banda zabaleko internetaren aroan, baina haien kokapena eta garrantzia ez da zinemaren hasieran zena, eta haien etorkizuna ez da ziurra. Hollywoodeko estudio handien (*Major-en*) protagonismoa, oraindik ere handia izanagatik, jokalaria berriak sartu dira zelaian, internet bidezko komunitateen bidez finantzatutako aurrekontu txikiko ekoiztetxeetatik hasi eta zinemaren edukiez berjabetu eta hauek, birmoldatuta, hainbat plataforma digitaletan argitaratzen dituzten amateurrak kasu.

Finean, Tryonen lanaren izenburuak azpimarratzen duen legez, zinema bere burua berrasmutzen ari da, ezinbestean, bai bere ekoizpen eta banaketa moduetan, eta baita bere hartze eta kontsumitze praktika eta ulerkeretan ere. Urrun gelditu da zinemak bere kasa jardun zezakeen garaia; inguruan, ondoan dituen komunikabideetako eraldaketek eragin zuzena dute bere kokapenean, eta, beraz, bere izaeran.

### 2.2.3. IRRATIA

Zinemarenak bezala, irratia ohizko ezaugarriak bilakaeran daude, dela edukia, estiloa edo entzulearen esperientziari dagokionez. Teknologia digitalak eta ko-

<sup>159</sup> «... the transitional post-major studio pre-Internet era».

<sup>160</sup> «...although digital technologies may provide new delivery and exhibition systems, they are also part of a larger arrangement of behaviors, practices, and discourses that inform movie consumption».

munikabideen bateratzeak irratia non eta noiz erabil daitekeen, irratia noiz eta non-dik atzitu dezakegun, aldatzen ari dira. Michael C. Keithek honela diosku:

Irratiaren paisaia lehiakorra izugarri aldatu da azken urteotan. Satellite edo web bidezko irratia bezalako audio-teknologia berriek, zein musika jaisteko komunikabi-deek (MP3 eta iPodak), entzute-ingurunea eraldatu dute. Hala ere, milurtekoaren lehen hamarkadan, irratia oraindik ere bere berezko aurpegiari eusten jarraitu du lehian dauden audio teknologia berrien aurrean eta kudeaketa eta eragiketa mailan eman diren lurrikaren moduko aldaketan aurrean... (Keith, 2007: 1)<sup>161</sup>.

Pasartearen arrazoiak jarraituz gero, badirudi irratia bere izaerari eusten jakin duela, izate berriak besarkatuz. Paisaia mediatiko orokorrean galdu egin du iragan mendean zuen zentraltasuna, baina kokapen berriak aurkitzeko gai izan da. Labur bada ere, kasu bi ekarri nahi genituzke gogora aldaketa horiek irratian eta irratia kontzeptuan izan dezaketen eragina aztertu eta eraldaketok ilustratzeko: Erresuma Batuko BBC Radio 2 eta Euskal Herriko Uhinbak egitasmoa.

British Broadcasting Corporation, britainiar komunikazio enpresa publikoaren partaide izateaz gain, BBC Radio 2 Erresuma Batuan gehien entzuten den irratia da RAJAR entzuleriaren neurketa erakundearen arabera (Radio Joint Audience Research, 2011)<sup>162</sup>, baita online presentzia eta DAB irrati digitalaren garapenean ardura, denbora eta diru gehien gastatu duena ere (Gregory, 2006). Aipatu beharrekoa da Erresuma Batuko telebista aparailuen gaineko lizentzia sistema bidez finantziazten denez, ez duela iragarkirik igortzen.

Emaitzak begibistakoak dira irratia webgunean sartuz gero<sup>163</sup>: zuzeneko streaming zerbitzua irrati emisioetara, programazioari buruzko informazioa, podcast bidezko irratsaioen edukiak jaitsi edo berauetara harpidetzeko zerbitzua, entzuleek esatariei email edo sms bidezko mezuak bidaltzeko aukera, baita bideoak ere. BBC Radio 2ko zuzeneko kontzertuetarako sarrerak erosteko aukera ematen hasi da, berriki, webgunea.

Eusko Jaurlaritzak, Berria Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako Uhinbak aplikazioak, berriz, euskarazko tokian tokiko irratia internet bidez ordenagailuan zein eskuko telefonoetan, Android eta iPhone gailuetan, entzun ahal izatea ahalbidetzea du helburu. Lan hau idazteko momentuan Aiaraldea.fm, An-

<sup>161</sup> «The competitive landscape of radio has changed dramatically in the last few years. New audio technologies, such as satellite and web radio, as well as music downloading media (MP3s and iPods), have transformed the listening environment. Yet, in the first decade of the new millennium, radio continues to hold its own in the face of the many new competing audio technologies and the seismic shifts in its management and operational structure».

<sup>162</sup> 2011ko ekainean 15 urtetik gorako entzuleriaren %14,90 sharea eskuratu zuen batezbeste BBC Radio 2k, irrati honetan entzundako orduak guztira entzundako orduengatik zatitzean. Bigarren postuan BBC Radio 4 aurkitzen dugu zerrenda berean, sharearen %12,40-arekin.

<sup>163</sup> <http://www.bbc.co.uk/radio2/>

txeta Irratia, Arraio irratia, Arrate irratia, Beleixe irratia, Bilbo Hiria Irratia, Bizkaia Irratia, Eguzki irratia, Euskal Irratiak, Euskalerrria Irratia, Gorbeialde irratia, Gure Irratia, Hala Bedi irratia, Infozazpi irratia, Irati irratia, Irulegiko irratia KKinzona irratia, Oiartzun irratia, Tas Tas irratia, Ttan Ttakun Irratia, Txapa irratia, Txolarre Irratia, Xiberoko Botza, Xorroxin irratia eta Zirika irratia eskaintzen ditu<sup>164</sup>.

Komunikazio enpresa publiko baten dibertsifikazio eta moldatze ekimenaren adibidea eskaintzen digu BBC Radio 2-k. Sarean eta saretik sortutako tokian toki-ko euskerazko irratietara sarbide modu berriarena aldiz Uhinbakek. Biek ala biek irratia irati-uhinen bidezko igorpen-hartze esparrua gainezkatu duela adierazten digute, teknologia digitalek eta komunikabideen bateratzeak eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.

Oro har, Stephen Barnardek duela hamar urte baino gehiago aurrikusi bezala, irratia espazioaren kontzeptua bera eraldatu du digitalizazioak, dela uhin eremuaren erabilera digitalarekin, dela internet bidezko emisioekin:

Irratia internet bezalako harreman eta banaketarako bide berrietara irekitzeak berehala berdefinitu du irratia «lurraldearen» ideia, eta honekin, entzuleriaren kontzeptua bera aldatu du, herri mailakoa eta etxekoa den zerbituetik askoz ahalmen eta erronka handiagoak aurkezten dituen zerbituetara.(Barnard, 2000: 236)<sup>165</sup>.

Irratiaren paisaia aldatu egin da, irratia berak parte hartzen duen paisaia aldatu den aldi berean. Telebistak etxeetako zentraltasuna kendu zion bezala, egun hedabide digitalek irati-uhinei protagonismoa kendu diete, egunero miloika eta milioika pertsonak oraindik automobileko edo etxeko irati hargailua pizten duten arren, uhin bidez entzunezko edukiak jasotzeko.

Berrogeiko hamarkadaren amaieran, Ameriketako Estatu Batuetako etxeetara telebista sartzen ari zenean, David Sarnoff irati eta telebistako aitzindariak, eta gero American Broadcast Corporationeko presidentea izango zenak, ukatu egin zuen Wisdom aldizkarian askok sinesten zuten moduan iratiaren egin zuela, baina komunikabidearen historian profetikoa bilakatu zen esaldi bat gaineratu zuen:

Hala ere, gure begiak ixten ariko ginatke, irratia funtsezko aldaketak jasaten aritu izan dela ukatuko bagenu. Haren potentzial handietatik gehiena lortu ahal izateko, jada igorpen komunikabide bakarra ez dela aitortzen duen moduan gidatua eta erabilia izan behar du. Egokitze prozesu bat beharrezkoa da, eta bidean da. (Keith, 2007: 10)<sup>166</sup>.

<sup>164</sup> <http://uhinbak.eu/irratia>. Azken kontsulta: 2013ko maiatza.

<sup>165</sup> «The opening up of radio via new means of contact and dissemination such as the Internet automatically redefines radio's notion of 'territory' and, with it, changes the very concept of a listening community from the parochial and domestic into something much more powerful and challenging».

<sup>166</sup> «We would be closing our eyes to reality, however, if we failed to recognize that radio has been undergoing fundamental changes. To make the most of its great potentials, it must now be operated and



Irratia ez da jada lehen zena, eta ez du jada lehen zuen tokia komunikabideen paisaian. Baina horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, irratia jada ez denik, edo lekurik ez duenik komunikabideen bateratzearen paisaia berrian.

#### 2.2.4. INTERNET

Hirurogeiko hamarkadan sortu zen arren, laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erditik aurrera hasi zen bilakatzen interneta masa erabilerarako komunikabide (Castells, 2001: 11), eta World Wide Web hipertestuen sarearen sinonimo bezala ulertzen. 2011ko martxoan munduan internet 2 milioi inguru pertsonak erabiltzen zutela estimatzen da, lurreko biztanleriaren ia 7 milioi biztanleen %30 inguruk, alegia (Internet World Stats, 2011)<sup>167</sup>. Interneterako sarbideak geografikoki agertzen duen desoreka agerikoa da hala ere. Ipar Ameriketako biztanleriaren % 78,3ak sarbidea zuen artean, Afrikako biztanleriaren %11,4 bakarrik konektatzen zen data horretan.

Hazkunde desorekatu baina ikusgarri horrek paisaia mediatikoan izan duen eta izango duen eraginari buruz interneten masa zabalkundea hasi zenetik gaur egunera asko eztabaidatu den arren, ez dago adostasunik internetek teknologia bezala baino gehiago, gizarte gertakari bezala izango duen azken paperaren gainean. Nicholas Negropontek ikus-entzunezko edukien digitalizazioaren eta interneten garapenaren azken eragina arrakastadun enpresen ugaltzea eta kontsumorako aukeren hazkundez gainera merkatu arinago, malguago baten agerrera bezala deskribatu zituen (Negroponte, 1995). Peter Goodwinek, kontrara ordea, teknologia digitalek komunikabide enpresa erraldoiei integrazio prozesua erraztu eta enpresa txikiekiko abantaila eskaini diezaiekeenaz ohartarazi zuen (Goodwin, 1998). Egun, bi ikerlariei arrazoi partziala emateko moduan gaude, kontzentrazio korporatibo handiak eta enpresa txiki eta dinamikoak, biak, ematen baitira bateratze prozesuan.

Edonola ere, interneten izaera multimedia eta interaktiboak giza komunikabide guztietan eragiteko ahalmena duela begibistakoa da. Internetek hainbat teknologiaren elkarlotura suposatzen du, eta, era berean, zerbitzu ezberdinak eskaintzeko gai da: webguneak, txat gelak, e-maila, streaming bidezko bideoak... Testu idatzia, irudia eta soinua bateratzeak eta muga geografikoen gaineko desloturak ahalmen berezia eskaintzen dio bestelako komunikabideetako edukiez jabetu eta berauek sare digitalean zirkulazioan jartzeko. Era berean, internet berehala bihurtu da komunikabide zaharragoen informazio eta eduki iturri. Francis Cairncrossek esan bezala, «internet ez da ez telefonoa ez eta telebista, baina bien ezaugarriak ditu» (Cairncross, 2001: 117).

---

used in ways which take cognizance of the fact that it is no longer the only broadcast medium. A process of adjustment is necessary, and it is taking place».

<sup>167</sup> World Internet Usage erakundearen datuen arabera 6,930,055,154 pertsonen %30,2ak erabiltzen zuen internet 2011ko martxoaren 31an, guztira 2.095.006.005 norbanakok. Honek 2000ko abenduaren 31ko datuekin alderatuz gero %480,4ko hazkunde erlatiboa suposatzen du hamaika urteko epean.

Prensa idatziak internetetik edaten du bere eguneroko jardunean, dela berri-agentzien teletipoak jasotzeko, dela lehiaren bertsio digitalen eguneratzeen berri izateko, dela, geroz eta gehiago, online komunitateen arrastoa jarraitzeko. Prentsaren interneteko presentziari buruz zer esanik ez, ordaindua ala irekia, egungo kazetaritza idatziaren abiapuntu ekidiezina bihurtu baita. Irratiak ere, ikusi dugun legez, irra-ti-uhinetatik aparteko eremu oparoa aurkitu du muga geografikoetatik haratago entzuleekin bat egiteko. Antzera, David Gurneyk «internet bidezko bideo isuria ikusizko kulturaren zabalkunde eta barreiatzerako alor emankorra» bihurtu dela argudiatzen du (Gurney, 2011: 30)<sup>168</sup>. Bideo biral deiturikoak interneteko gizarte fenomeno bilakatu dira, baina jaiolekua gainezkatu dute, beste komunikabideetan oihartzunak sorraraziz.

Zinemaren industriak internet bidezko ikus-entzunezko edukiaren erlkarbanatzearen ahalmen teknikoari buruz duen iritzia eta ardura ere ezaguna da, baina Jim Kaskade Eyespot softwarearen arduradunak tartean «Bideoa editatzea azkenean email bat bidaltzea bezain erraza izango» dela ohartarazten digu Kirsten Dalynen *Zein modutan da digitala zinema?* lanean. (Daly, 2010: 138)<sup>169</sup>. Amateurrek profesionalen erramintak dituzte haien eskura, ez soilik filmak ekoizteko, baizik eta baita zinemaren historian pentsaezinak ziren ikuslerietara iristeko ere.

Testua, soinua eta irudia, hipertestuaren elkarlotura infinitoak eta komunitateek jabetze eta berjabetze etengabeetan sortu eta birsortzen da internet, euskarri askotako eremu digitala komunikabideen bateratzearen metafora praktiko bihurtzen du, eta, hartara, bere egiten du bateratzearen amaitu gabeko prozeduraren izaera. Prozedura horrek gainera, azpiegitura teknologiko konplexuen gaintetik, erabiltzaileen erabilerratasuna baliatu du, aurreikusten zailak ziren erabilera eta berjabetzei bidea irekiz.

Mittellek adierazi bezala, «komunikabideen teknologiak indar teknologiko, instituzional eta kulturalen elkargurutzeek moldatzen dituzte, aurrakusi ezin diren erabilera eta ondorio sozialekin»<sup>170</sup> (Mittell, 2011: 46), baina ikerlariak telebistari buruz dioena bereziki interneti egokitzen zaiola gaineratuko genuke, sareak inguruko komunikabideetako eraldaketok barneratu, moldatu eta eragiteko gaitasun berebizikoa agertu baitu bere bizitza laburrean. Horrenbeste, ezen komunikabideek eurek erraza edo zaila, merkea edo garestia, zaharra edo berria dena definitzerako orduan erreferentzia bihurtu baita. Internet ez da komunikabideen bateratzea, baina beronen definitzaile nagusienetarikoa bilakatu da.

<sup>168</sup> «Internet streaming video has become nothing if not a fertile plot for the spread and propagation of visual culture».

<sup>169</sup> «Editing video is eventually going to be as simple as sending an email».

<sup>170</sup> «Media technologies are shaped by the intersection of technological, institutional, and cultural forces, emerging with unpredictable uses and social impacts».

### 2.2.5. PRENTSA IDATZIA

Komunikabideen bateratzeak, ikusentzunezko kanal, formatu eta formen arteko mugak lausotzeaz gain, zalantzan jartzen ditu komunikabideek ekoizpen eta kontsumoaren arteko, egitearen eta hartzearen arteko eta ikus-entzuleriaren aktibotasun eta pasibotasunaren arteko bereizpenak, baita prentsa idatziaren irakurle-riari dagokionean ere. Mark Deuzek bi joera nagusi identifikatzen ditu kazetaritza eta prentsa idatziaren bateratze prozesuan, berau jendearen eta komunikabideen arteko gero eta aritze parte-hartzaile eta interaktiboagoa<sup>171</sup> bezala ulerturik (Deuze, 2010: 268): batetik, komunikazio industriaren bateratzea, zeinak prentsa-areto multi-medien sorrera eta berri konpainia integratuetaranzko joera bultzatu duen, kazetariak berriak kanal (idatziz, ikus-entzunezko emisioan, lineako edukian...) formatu (informazioa, iritzia...) eta generoetarako (azken berriak, erreportajeak, blog eta podcasten lanketa...) ekoizteko elkarlanera behartzen dituen. Terry Heifetzek argudiatu bezala, ekoizpe eta editoreek ezin dute jada istorioak kontatu edo berriak ematerako orduan hedabide bakarrean pentsatu. «Istoria kontatzeko biderik onenak aukeratu beharra dituzte». (Heyfetz, 2005: 26). Joera hori, besterik ezean kazetariak hedabideen berariazko hizkuntza eta konbentzio ezberdinak maneiatzera behartzen ari da, eta, finean, argudia daiteke kazetaritzaren izaera bera eraldatzen ari dela. Bestetik, berrien ekoizpen eta kontsumoaren arteko bateratzeak herri-tar-kontsumitzailea<sup>172</sup> berri, erreportaje, iritzi eta analisisien ko-sortzaile figura sustatzen ditu. Bateratzean, geroz eta gehiago, irakurlea, berrien hartzaile ez ezik, berrien iturri ere bilakatzen ari da, baita prentsa idatzian ere. Erabiltzaileek Sortutako Edukia (ESE)<sup>173</sup> komunikabide enpresetan eta idatzizko hedabideetan lekua hartzen ari da. Leku honen tamaina, itxura eta izaera modu askotakoa den arren, berriaren iturri izatetik berriaren osagarri edo kontraste izatera iritsi da. Egunkariaren irakurleria txikitzen ari den aroan (Deuze, 2010: 270) herritarrak, eta irakurleak eurak, edukien ekoizpenean inplikatzeko garrantzia hazkorra du prentsa idatziarentzat, esposizio hutsaz haratago leialtasuna eta parte-hartzea susta ditzake eta.

Interesgarria da zentzu horretan Leopoldina Fortunatik egunkariak interneten egiten ari diren sarrerari –«inbasioari» bere hitzetan– (Fortunati, 2005: 28) buruz proposatzen duen analisisia *Sarearen Mediatizazioa eta Komunikabideen Internetizazioa* artikuluan<sup>174</sup> (Fortunati, 2005). Ikerlariaren arabera, internetek, informazio iturri gisa, aurrea hartua dio iratiari, oraindik egunkari eta telebistaren atzetik ibili arren; baina, unean uneko erabilerei buruzko estatistiketatik haratago, komunikazio teknologien arteko eragina ekidiezina da, pertsonen haien egunerokotasunean hainbat

<sup>171</sup> «... an increasingly participatory and interactive engagement between people and their media».

<sup>172</sup> «citizen-consumer».

<sup>173</sup> User Generated Content edo UGC ingelesez.

<sup>174</sup> Mediatization of the Net and Internetization of the Media.

komunikabide erabiltzen dituztelako, eta komunikabideen ekosistemak<sup>175</sup> espazio bakarrean batera existitzera behartzen dituelako.

Batera bizi behar horretan, prentsa idatziak interneten eginiko hedatzea hiru faseetan gertatu dela argudiatzen du Fortunatik: 90eko hamarkadako lineako erakuslehiaren fasea, non idatzizko edizioaren isla webguneetara eramaten hasi ziren, aldentzen hasia zen irakurleria mantentzeko ahaleginetan, «ezin dugu bertan ez egon» eskemari jarraiki<sup>176</sup> (Fortunati, 2005: 30); bigarren fasea, non webguneak audio eta bideo eduki osagarriak integratzen hasi ziren, idatzizko edizioa aberasteko asmoz; eta hirugarren fasea, non prentsa idatziaren konbentzioak baztertu diren neurri bateraino, hizkera multimedia baten alde egiteko, baina non oraindik ez den bideragarritasun ekonomikorako eredu bakar bat ezarri. Bestela esanda, prentsa idatziak, testu idatziaz gain, elementu multimediak barneratu ditu bere lineako jardunean. Ez hori bakarrik; gero eta ohikoagoa zaigu papereko edizioan ere sarean eskuragarri dagoen materiale osagarriko erreferentziak aurkitzea, dela audio, bideo edo infografia interaktiboan gisara, edo irakurleak lineako inkestetan parte hartzera bultzatzea, ondoren inkesta hauen emaitzak berriro ere egunkariaren edizio ezberdinetan irauliz.

Prentsa idatziak, oraindik ere, testu eta irudiz osaturiko edukiak eskaintzen dituen arren, komunikabideen bateratzearen aukeretzat jabetu eta aurkezten dizkion mehatxuei aurre egiten ari da, dela egunkari edo aldizkariarekin batera saltzen diren DVD edo bestelako bidez, dela lineako eduki multimedia osagarria eskainiz, dela irakurleria eta ikus-entzuleriaren parte-hartzea bultzatuz. Lerro hauek idazterako orduan joera hazkorra da twitter sare sozialeko mezuak (*tweet* edo txioak) jasotzea, gizarte eragileek sare digitalean esanak paperera ekarriz<sup>177</sup>. Digitalizazioak prentsa idatziaren eta kazetaritzaren izaerari eragin diola onartuta ere, enbatak ez du norantza bakarrean jo; alderantziz ere, prentsa idatziak komunikabideen bateratzean zuzeneko eragina izan duela, eta izaten ari dela ondorioztatu beharra dago. Kokapena aldatu duen arren, jokalekuan jarraitzen duela ukatzerik ez dago.

#### 2.2.6. TELEBISTA

«Switchover is coming. We can help you»<sup>178</sup>. zioten Londreseko autobusetako iragarkiek, Erresuma Batuko gobernuaren eta BBCren arteko *Switchover Help Scheme* delako ekimenaren baitan. Programak telebista aro digitalera egokitzeko egin beharrekoei buruzko orientazioa eskaintzen dio biztanleriari, eta berariazko laguntza 75

<sup>175</sup> Ikus Komunikabideen Ekosistema atala, aurrerago.

<sup>176</sup> «We can't afford not to be there».

<sup>177</sup> Adierazgarria da adibidez Berria egunkariaren 2011ko azaroaren 20ko hauteskunderen karira jasotako «sareko oihartzuna» (Askoren artean, 2011).

<sup>178</sup> «Badator igaroaldia. Lagun zaitzakegu». Euskal Herrian «itzalaldi» analogikoaz hitz egin den arren Lurrazaleko Telebista Digitalaren ezarpenari leku egiteko, Erresuma Batuan switchover edo aldaketa edo iragaitearen ideia azpimarratzen du kanpainak 2011ko udazkenean.

urtetik gorakoei eta ezgaitasuna duten pertsoneri. Izan ere, digitalizazioaz eta komunikabideen bateratzeaz ari garenean, sarri iragaitte prozesu natural eta erraza –beharbada ekidiezina– irudikatzen dugun arren, moldaketak arazoak planteatzen ditu, bai erabiltzaileentzat, bai industriarentzat, eta baita telebistaren kontzeptuarentzat ere. Prozesua, laua eta leuna izateaz urrun, gorabeheratsua eta problematikoa da.

John Caldwellek *Bateratzearen Telebista: Formak Bilduz eta edukia Berrerabiliz Nahasketaren Kulturaren*<sup>179</sup> artikuluan ohartarazi zuen 80 eta 90. hamarkadetan digitalizazioak ekar zitzakeen kanal anitzeko merkatu berriak ekoiztetxe eta estudioak telebistarako produktua berpentsatzera behartu zituela, sindikatzearen (telebista edukien salmenta lurralde jakin batetan igortzeko) praktika arriskuan jarriz (Caldwell, 2004: 47). Aldaketaren oinarria ekoizte, banaketa eta hartze teknologien bilakaeran koka daitekeen arren, honen eraginak industria, gizarte eta kultura mailan ere igarri ziren, tresna digitalak korrante nagusira ailegatu baino arinago. Caldwellek bateratzearen ondorioak telebistaren ontologian bertan, berau ulertzeko moduan igartzen ditu, bateratze prozesuan telebista industriek berau berrasmatzeko hainbat ekimen burutu dituztela gogoratu, moldatze aldera.

Moldaketa hura telebista edukien hibridazio eta berrerabiltzearen baitan kokatzen du Caldwellek, haren bidez kate eta euskarrien aniztasun berriak aurkezten duen programazio erronkari erantzun ahal izateko: «Duela hamar urte aldera NBC-k prime time-eko ordu erdiko tartearen zuzeneko erabilera, berriz betetzeko. Orain korporazioak egunean ehunka ordu programatu behar ditu saio 'berriekin' hainbat sare elektronikoko eta digitaletan»<sup>180</sup> (Caldwell, 2004: 49). Aukera bakarra edukiak ekoiztu, plataforma ezberdinetara egokitu eta berrerabiltzean datza. Telebistak, orojalea izanik (irudia eta soinua baitarabiltza, nahi erara), bere burua liseritzeko gaitasuna agertu du.

Bereziki interesgarria da, zentzu horretan, telebista komunikabideen bateratzea aztertzerako orduan, hastapenetatik bertatik, teknologia digitalak garatu baino askoz arinago agertzen baitzuten Kackman eta abarren ustez bateratzearen ezaugarriak:

Egun agian 'berrerabilitako edukia' deituko genioke, baina 1950etik gaur egunera, transmediazioa praktika industrial estandarra izan da. (...) ustez urrunak ziren komunikabide formen arteko mugak porotsuak izan dira aspalditik. Komunikabideen industria anitzen arteko formen higikortasuna «bateratzea» ulertzeko funtsezko irizpidea baldin bada, hasierako telebista egiaz barne hartzen du. Telebistak beti mailegatu eta ustiatu izan ditu beste komunikabideak, eta beti egin izan dizkie ekarpenak haiei ere<sup>181</sup> (Kackman *et al.*, 2011: 4).

<sup>179</sup> Convergence Television: Aggregating Form and Repurposing Content in the Culture of Conglomeration.

<sup>180</sup> «Not so much than ten years ago. NBC had put one half hour of network prime time news to fill. Now the corporation has to program hundreds of hours per day with 'new' programs across various electronic and digital networks».

<sup>181</sup> «Today we might call it "repurposed content," but from the 1950s to the present, transmediation

Baina telebistako testuak ekoiztu eta igorri ez ezik berrerabili, berprogramatu, zatikatu eta berzirkulatu badira, non hasten da eta non amaitzen da telebistako edukia? Non hasten da eta non amaitzen da telebista bera? Telebistaren zera hori definitze aldera gogoratu beharrekoa da Raymond Williamsek telebistaren jarioa (flow) saio, iragarki, aurrikuspen, trailer eta bestelakoen elkarbizitza eta talka bezala definitu zuela telebista ikustearen esperientzia zentral gisa. Bestela esanda, telebista programazioa ez datzala testu diskretuen jarrai soilean, baizik eta jario horren plangintzan, jario planifikatuan (Williams & Williams, 2003). Jarioaren kontzeptuari tiraka, Kackman eta abarrek «Jarioak telebista testu diskretuaren ideia zalantzan jartzen badu, bateratzeak telebistaren objektu diskretuaren izaera zalantzan jartzen»<sup>182</sup> (Kackman *et al.*, 2011: 1) duela gaineratzen dute.

Zinemaren eta telebistaren arteko hartuemanak, adibidez, argiro azaltzen du telebistaren hasierako izaera orojalea. Agian orojaletasun horrek eragin du Telebista Ikaskuntzetan telebistaren espezifikotasunaren, haren berariazko ezaugarrien bilaketa gogotsua. Bignellen hitzetan, «Telebista Ikaskuntzek komunikabide honek nola komunikatzen duen definitzen saiatu dira (...) telebistaren komunikazioaren edota zinema edo iratiaren artean bereizten»<sup>183</sup>. (Bignell, 2008: 3). Telebistaren bateratzerako joera edo gaitasuna modu naturalean hartu da, teknikoki beste komunikabideetatik elikatzeke (irudi eta soinuak berjabetu eta zirkulazio berrian jartzeko) gaitasun teknikoaz oharturik, eta, hartara, telebistaren berezitasunak azpimarratzean hartu da ardura, haren bateratzerako aukeretan zentratu ordez.

Telebista Ikaskuntzen literaturaren zati esanguratsua zuzendu da beste komunikabideekin alderatzera, iratiarekiko –igorpena, zuzenekotasuna, funtzio publiko–, edo zinemarekiko –irudiak mugimenduan, fikzio– kasu (Brunsdon, 1998: 96), telebistaren izaera definitzen saiatzeko. Digitalizazioak, noski, bereizte saiakerak berriro zaildu ditu, ikus-entzule orojalearen gosea berpiztuz eta ekoizpenerako zirkulazio bide berriak ahalbidetzerakoan. Geroz eta zailagoa da bereizketok lerro zuzenekin egitea. Google-ek ehun milioi dolarreko inbertsioa agindu zuen YouTube bideo atarian ekoizpen propiodun edukia eskaintzeko 2012tik aurrera (Urkizu, 2011b). Jaiotzatik bertatik linealtasunetik at dagoen komunikabide batean telebista tradizionalaren igorpen-eredu linealak ere txertatzen ari dira, telebista eta interneten arteko hibridoek bide eginez.

---

has often been standard industry practice. (...) the boundaries between seemingly disparate media forms have long been quite porous. If mobility of forms across multiple media industries and technologies is a key criterion for understanding “convergence,” then early television certainly qualifies. Television has always borrowed from, exploited, and contributed to other media» .

<sup>182</sup> «If flow challenges the idea of the discrete television text, then convergence destabilizes the notion of television as a discrete object».

<sup>183</sup> «Television Studies has tried to define how the medium communicates (...) distinguishing between television communication and the media of cinema or radio, for example».

Egoera honetan, Telebista Ikaskuntzek estrategia berriak garatu dituzte bateratze digitalaren garaian telebista zer den definitzerako orduan. Daniel Chamberlainek, adibidez, kable, kable digital eta satellite digitalek hornitzen duten etxeko telebistetaz gain, saioen grabaketa (eta geroagoko ikustea), bideoen erreproduzitzea eta internet edota eskuko telefonoen bidezko kontsumoa ere barne hartzen ditu «telebista ikustea» kategoriaren baitan (Chamberlain, 2011: 16). Ikerlariaren esanetan, komunikabideen bateratzearen garaian telebistaren ezaugarri espezifikoak ez da jada zuzenekotasuna eta jarria izango, baizik eta erabateko pertsonalizazioa eta edukiaren gaineko kontrola (zer ikusi, noiz ikusi, non ikusi): «Azaleratzen ari diren telebista ikusteko moduak ez dira hainbeste sekuentziazte denboralean eta aldibereko ikusleritzan gertatzen, baizik eta zer, eta geroz eta gehiago, noiz ikustearen aukeraketa asinkronikoan»<sup>184</sup> (Chamberlain, 2011: 20). Agian Caldwellek arrazoia du, dioenean:

Jokalari instituzional mordo batek, bai industrialak (ordenagailuen zein entretenimenduaren industriak eta Hollywood eta zinemaren industriak) bai akademiakoak (teoria kulturala eta zinema ikaskuntzak) kale egin dute digitalerako aldaketa 'ekidiezina' kudeatu eta, honi zentzua eman nahian, oharkabean pasa dute komunikabide zaharren eta komunikabide berrien arteko zubi setati eta kexatia: telebista. (Caldwell, 2004: 70)<sup>185</sup>.

Komunikabide zahar deritzogu, aurreko mendearen erdialdera bakarrik bihurtu zen arren masa erabilerarako elektrotresna; baina komunikabide berri bezala dihardu telebistak, internetek bezala, beste komunikabideetatik edan eta beste komunikabideetara isuritzeko gaitasuna agertu baitu jaiotzetik bertatik. Beharbada telebistaren adibide «setati eta kexatian» datza, hain zuzen ere, komunikabideen bateratzearen gakoa.

### 2.2.7. CROSSMEDIA ETA TRANSMEDIA

Dela alde narratibotik, hau da, istorioak kontatzen diren moduaren ikuspegitik, dela hartzailearen aldetik, edo istorio hauek irakurtzen diren moduaren ikuspegitik, crossmedia eta transmedia estrategiak, edo, nahiago bada, komunikabideartekotasuna eta komunikabidez harantzakotasuna, bateratzearen isla eta ispilu dira egungo paisaia mediatikoan.

Crossmedia terminoak hainbat komunikabidetan aldi berean, edo zenbait alditan planifikatzen den kontakizuna dakar gogora. Hala, egungo forma kultural asko

<sup>184</sup> «Emergent modes of television viewing are predicated less on explicit temporal sequencing and simultaneous spectatorship than on asynchronous viewer choices of what, when, and, increasingly, where to watch».

<sup>185</sup> «A range of institutional players attempting to manage and make sense of the 'inevitable' shift to digital –both industrial (the computer and entertainment industries and Hollywood and the film industry) and academic (cultural theory and film studies)– all failed to recognize one persistent and nagging bridge between old media and new media: television».

eta asko ez dira komunikabide bakarrean aineratzen, alderantziz baizik, komunikabide anitzetarako planteatzen eta komunikabide anitzetan plazaratzen diren testuak dira. Telebista saioen sindikazioa, adibidez, saio baten ekoizpen kostuak amortizatu eta etekinak maximizatzeko estrategia baino ez da, jatorrizko emisioak bere kabuz kosteei aurre egiteko nahikoa ez dela jakinik. Crossmediak, aldiz, sindikazio mota berri bat dakar komunikazio industria bateratuentzat, komunikabide eta plataforma ezberdinen arteko sinergiak eraikitzea ahalbidetzen baitu. Hala, telebista saio arrakastatsuak zinemarako film bihur daitezke, komiki edo eleberri entzutetsuak pantaila ezberdinetara egokitzen dira, eta batzuek zein besteek bideojoko berriei hasiera eman diezaiekete, eskala ekonomia komunikatiboak sortuz, eta ikus-entzuleei sarbide anitzak eskainiz haien aisiazko esperientziaren bilaketa horretan.

Egokitzapenak eta *remake* edo berregiteak crossmedia estrategien baitan kokatu ohi dira, lehen urrunak ziruditen euskarri eta plataformak eduki komun baten garraiorako bilduz. Fenomenoa, bateratzearena bezala, ez da berria: H. G. Wellsen «Munduen Gerra» eleberria irratirako egokitu zuen Orson Wellesek 1938an, testu idatziak ez zuen egiantza hartuz ahotsaren eta soinu efektuen bidez –zinez, eleberriaren kasuan zalantzan jarri ezina zen fikzio izaera galdu zuen entzule askorentzat–. Hala ere, egun, komunikabideen bateratzeak eta teknologia digitalek cross media-rako joera modu indartsuan bultzatu dute, Larrañaga eta abarrek «kazetari multimedia» zeritzoten figura ohiko eginez. Bødker eta Bechmann Petersenek dioten bezala, «ez da soilik materiale digitalek edukia komunikazio plataforma anitzetarako ekoiztea ahalbidetzen dutela, hainbat komunikabide erabiltzeak plataforma hauek gurutzatzen dituzten albistegi modu berriak bultzatzen ditu» (Bødker & Bechmann Petersen, 2007: 539-566: 539)<sup>186</sup>.

Era berean, albistegietan ez ezik, eta Wellsen eleberriaren adibidea berreskuratuz, egun Munduen Gerra ez da eleberria eta irratsaioa bakarrik, baizik eta baita telebista saioa eta bi film ere (1953koa lehenengoa, 2005eko egokitzapena bigarrena), baita internet bidezko MMORPG<sup>187</sup> edo lineako jokalaria anitzeko rol-joko masiboa ere.

Soto Sanfielek diskurtso akademiko, industrial eta politikoetan plataforma anitzetarako edukiak sortzeko gai diren profesionalen aldeko joera –edo beharra, solaskidearen arabera– identifikatzen du, «oso-osoan edo zatika, sinkronia maila altuago edo apalagoaz hainbat komunikabide edo gailutan igorri eta kontsumitu daitezkeen» mezuak sortzeko gai direnak, alegia (Soto Sanfiel, 2008: 140). Testuak moldatu eta egokitzeko gaitasuna, bai aurretiazkoa eta baita gerora burutzen dena ere, bateratzearen kulturaren abilezia profesional eta industrial estimatua da, ikus-entzuleriaren arreta erraria eskuratu eta leialtasuna sortzeko balio baitezake,

<sup>186</sup> «Not only do the digital materials make it possible to produce content for several different media platforms; the utilization of the different media strengths further supports new forms of news-coverage that cross these platforms».

<sup>187</sup> Massively Multiplayer Online Role-Playing Game.



kapital testualaren gaineko etekina maximizatzear gain. Eduki crossmediatikoak edo komunikabideen arteko edukia, plataforma anitzetarako prestatutako edo moldatutako edukia da hortaz.

Transmedia terminoak, berriz, hasiera hasieratik mezuaren konposizioan aldi bereko edo hainbat alditako (hau da, modu sinkronikoan ala ez sinkronikoan) igorpena du bere baitan; plataforma anitzetan zehar kontaktzen den istorioa, alegia, ez plataforma anitzetan errepikatzen dena. Jenkinsek *Komunikabideen Bateratzearen Logika Kulturala*<sup>188</sup> artikuluan The Blair Witch Project, Pokemon eta Matrix frankiziak aipatzen ditu *transmedia storytelling* edo kontakizun transmediatikoaren paradigma gisa. (Jenkins, 2004). Kasu horietan komunikabide bakoitzeko agerpenak ekarpen elkarlotu bat dakarkio unibertso narratiboari; unibertso beraren partaide da, baina ez bere osotasuna, edukiontzira birmoldatua. Hala, agerpen orok nolabaiteko autonomia izan behar duen arren bere kasa ulertu eta gozatua izateko moduan, lan horien arteko elkarrekintzak ordura arte posible ez zen konplexutasun eta sakontasun aukera berriak ahalbidetzen dizkie zaleei. Kontakizun transmediatikoak herri kultura aberastu edo are gehiago homogeneizatuko duen ikusteko dago, baina bateratzearen alde garrantzitsua gorpuzten du bere horretan, bai industriaren jarduera berrien aldetik, eta baita ikus-entzuleen praktika eta esperientzia modu berrien agerpenaren aldetik ere.

### 2.2.8. BATERATZE TEKNOLOGIKO-INDUSTRIALAZ HARATAGO

Komunikabide nagusietan digitalizazioak eta bateratzeak sorrarazi dituen olatuak berrikusi ditugun arren, komunikabideen bateratzea, eremu teknologiko eta industrialean baino, gizarte eta kultura mailan gertatzen dela gogoratu beharra dago. Komunikabideek euren horretan jasan dituzten eraldaketak ez dira nahikoa bateratzearen irismen osoa neurtzeko, hartzaileek, kontsumitzaileek egiten duten komunikabideen erabilera aztertu beharrean gaude. Jenkinsek esplizituki heltzen dio gako horri. Kontua ez da hainbeste teknologia edo eredu industrialak nola eta zenbateraino aldatu diren:

Kontsumitzaile zaharrak pasibotzat hartzen ziren, kontsumitzaile berria aktiboa da. Kontsumitzaile zaharrak aurreikusten errazak eta egonkorak ziren, kontsumitzaile berriak aldiz migrariak dira, telebista sare edo komunikabideekiko leialtasun galkorrekoak. Kontsumitzaile zaharrak norbanako isolatuak ziren, kontsumitzaile berriak berriz sozialki konektatuago daude. Kontsumitzaile zaharrak esaneakoak ziren, baina kontsumitzaile berriek aurka egiten dute, komunikabideak euren esku hartuz. Komunikabideen kontsumitzaileen lana behin isila eta ikustezina zen, eta gaur zaratatsua eta publikoa da<sup>189</sup>. (Jenkins, 2004: 37-38).

<sup>188</sup> The Cultural Logic of Media Convergence.

<sup>189</sup> «If old consumers were assumed to be passive, the new consumer is active. If old consumers were predictable and stationary, then new consumers are migratory, showing a declining loyalty to networks

Hortaz, kontsumitzaile berba badarabil ere, ikus-entzulearen figura da berez, aldatu dena. Lehenago esanekoa, pasiboa, aurreikusten erraza, leiala eta autismo sozialaren trazuak zituena, orain zera erresistente, migrari, aktibo, konektatu eta zaratatsu bilakatu da. Aztertutako komunikabideekin bezala, ezin guztiz esan kontsumitzaile edo ikus-entzule beraren aurrean gaudenik, eskukoari telefono, telebistari telebista eta audientziari audientzia deitzen jarraitzen dugun arren. Adierazgarria da oso autore berak bateratzea definitzeko proposatzean «entretanimenduzko esperientziei» egiten dien erreferentzia, zuzenean lan honen iker objektua den aisiazko esperientziarekin lotuta agertzen baita: «Bateratzearekin, komunikazio plataforma anitzen arteko edukiaren jarioa, komunikazio industriren arteko elkarlana eta nahi dituzten entretanimenduzko esperientzien bila ia-edonora joateko prest dauden komunikabideen ikus-entzuleen jokabide migratzailea esan nahi dut»<sup>190</sup>. (Jenkins, 2006: 2).

Aisia, beraz, gakoa izango da ikus-entzuleen portaera ulertu ahal izateko, beraz izango baita paisaia mediatiko berrian hartzaileen mugimenduen eta arretaren motibaziorako faktore nagusia. Komunikabideen bateratzean, beraz, audientzia migrariak aurkituko ditugu Jenkinsen ustez, nahi dituzten aisiazko esperientzien bila jarioan eurak ere, ikus-entzunezko edukia eta komunikabideak eurak bezala, medioari, plataformari, bideari men egin gabe, leialtasuna atzean utzita. Komunikabideak eurak eta haien erabiltzaileak bezala, paisaia mediatiko berria, beraz, jada ez da zera geldia, egonkorra eta estatikoren zentzuan, baizik eta eboluzioan, jarioan dagoen zer dinamikoa.

Bat gatoz Jason Mittellekin: «Aldaketa teknologiko horiek familia bakoitzaren mikro mailan nola bizi diren aztertuz gero, komunikabideen bateratzeari buruzko eztabaidak estrategia industrial, borroka politiko eta komunikabide ingurumen orokortuetatik telebistaren teknologiak gure eguneroko bizitzan nola bizi diren aztertzeraz zuzendu ditzakegu»<sup>191</sup>. (Mittell, 2011: 46). Paisaia mediatikoaren lurrikarari ez dago neurria hartzerik hartzaileen eguneroko esperientziei erreparatu gabe, eta aisia komunikabideekiko harremanaren motibazio nagusia izanik, aisiazko esperientziak zentraltasun ekidiezina hartzen du bateratzea aztertzerako orduan. Mittelek komunikazio teknologiak faktore teknologiko, instituzional eta kulturalen elkargu-

---

or even media. If old consumers were isolated individuals, then new consumers are more socially connected. If old consumers were seen as compliant, then new consumers are resistant, taking media into their own hands. If the work of media consumers was once silent and invisible, they are now noisy and public».

<sup>190</sup> «By convergence, I mean the flow of content across multiple media platforms, the cooperation between multiple media industries, and the migratory behaviour of media audiences who will go almost anywhere in search of the entertainment experiences they want».

<sup>191</sup> «By examining how these technological shifts are experienced at the micro- level of the individual family, we can reorient discussions of media convergence away from the broad level of industrial strategies, policy battles, and generalized medium environments, focusing on how television technologies are experienced as part of everyday life».

rutzeak moldatzen dituela uste du. Elkargurutze horiek, Jenkinsekin bat gatoz, aur-reikusi ezin diren gizarte erabilera eta ondorioak dituzte.

Telebista-testuen ekoizpena hainbat komunikabide konglomeraturen esku dago gero eta gehiago, eta telebistaren edukiak egun webgune, eskuko telefono, iPod eta abarrekoetan daude eskuragarri aldi berean: telebista testuak euskarriari gainezka egin dio eta hamaika plataformatan eskuratu daiteke aldi berean. Baina paisaia mediatiko berria aurrekoetatik benetan bereizten duena ikus-entzuleriaren jarduna eta esperientzia da; bere parte-hartzea komunikabideen ekosisteman. Ondorengo orri-aldeetan landuko dugu kontzeptu hau.

### 2.3. KOMUNIKABIDEEN EKOSISTEMA

Aurreko ataletan ere jaso ditugun Henry Jenkins eta Mark Deuzek komunikazio industria eta audientzia ikerketen arteko banaketa historikoa gainditzeko deia egiten dute *Convergence* aldizkariaren 14. zenbakiaren sarreran:


«Ez dago komunikazio enpresak bere horretan modu esanguratsuan azterzerik, kontsumitzaileekin nola erlazionatzen diren ulertu gabe. Neurri berean, kontsumitzaileak, ikus-entzuleak, zaleen komunitateak, erabiltzaileak, nahi dugun bezala dei ditzakegu, baina ezin dira modu esanguratsuan ulertu operatzen duten testuinguru ekonomiko eta teknologikoen ulermen handiagorik gabe<sup>192</sup>. (Jenkins & Deuze, 2008: 5).

Komunikabideak haien kabuz, edo ikus-entzuleak haien kasa aztertzeak ez digu irudi osoa eskaintzen. Bestela esanda, komunikabideen espazioa eta beronen konfigurazioa ez ezik, subjektuek hauteman dezaketen paisaia ere hartu behar dugu kontuan, eta era berean, subjektuen hautemate eta jarduerak ez ezik, berauen testuinguru objektiboak ere aztertu behar dira, osotasunera hurbilduko bagara. Espazioaz eta paisaiaz haratago, komunikabideek eta ikus-entzuleek sistema bat osatzen dute, eragileak modu isolatuan aztertuta ulertu ezin dena. Komunikabideen erabiltzaileek kontsumo hutsaz haratago doazen ezaugarriak agertzen dituzte, inguru kulturalaren ekoizle eta parte-hartzaile lanak hartuz, eta, hartara, ez dago komunikabideen espazioa zerbait estatikoa, higiezina, absolutua bezala hartzerik, ez eta subjektuek so egiten dioten paisaia aldakor baina kanpoko bezala ulertzerik. Jenkins eta Deuzeren ohartarazpena horren karietara dator, paisaia mediatikotik komunikabideen ekosistemara igartzeko beharra azpimarratzen duelako. Terminoaren adiera ezberdinak eta ekarpen nagusiak laburbilduko ditugu segidan.

<sup>192</sup> «Media companies can no longer be meaningfully studied in the absence of an understanding of how they relate to their consumers. By the same token, consumers, audiences, fan communities, users, call them what you wish, can no longer be meaningfully understood without a better understanding of the economic and technological contexts within which they operate».

Yochai Benklerrek komunikazio modu eta baliabide berriek «komunikazio ekologia hibridoa» sortu dutela dio, non eragileen (merkatuak, amateurrak, gobernauk, irabazi asmorik gabeko erakundeak, hezkuntza erakundeak, aktibistak eta bestelako erabiltzaileak) arteko elkar harremana gero eta modu konplexuagoan burutzen den (Benkler, 2006). Ekologia hibrido horretan, eragile guztiek izango dute modu batean edo bestean edukia sortu eta banatzeko gaitasuna, eta, hartara, botere eta erantzunkizuna komunikabideen ekosistema berrian. Ekoizle, hartzaile eta testu bakanek baina, gizarte harremanek, harreman sistema osoak hartuko du, zentzu horretan, garrantzia. Hori dela medio, berriro ere osotasuna aztertzearen aldeko aldarriaren aurrean gaude, sistema osoaren azterketa burutu beharraren aurrean.

## 7. IRUDIA: KOMUNIKAZIOAREN IGORPEN EREDUA (SHANNON ETA WEAVER)



Iturria: norberak egina.

Benklerrek sare digitalen baitan kokatzen badu ere ekologia hibrido berriaren muina, «(...) besteekin komunikatu nahi izatea ez zen baldintza nahikoa hala egin ahal izateko (...) Saretutako, ordenagailuek bitartekatutako komunikaziozko ingurumenaren azaleratzeak oinarrizko egitate hau aldatu du» (Benkler, 2006: 4)<sup>193</sup>. Baina argudio bera aplikatu geniezaioke telebistaren ekosistemari ere, hemen ere boterea eta erantzunkizuna, edukiaren hartzea, ekoizpena eta berbanaketa ez baita bakuna, anitza eta saretua baizik. Telebista testuen hartze zuzena norantza bakarrekoa izan daitekeela argudia liteke, berau pantaila (piztuaren) aurrean burutzen den espazio

<sup>193</sup> «Wanting to communicate with others was not a sufficient condition to being able to do so (...) The rise of the networked, computer-mediated communications environment has changed this basic fact».

eta denborari lotuz; baina irakurketa honek ez dio telebistarekin lotutako aisiazko jarduera eta esperientzien aberastasunari justiziarik egiten. Jakin badakigu telebistaren inguruko eguneroko zentzu eta esanahiak ez direla pantaila aurrean bakarrik jasotzen, negoziatzen eta zirkulazioan jartzen. Pantaila itzalita ere, telebistari buruz hitz egiten dugu, eta berau piztu aurretik ere badakigu zerbait ikusi nahi dugunari edo ikusi nahi ez dugunari buruz. Telebistarekin lotutako aisiazko harremanak ekosistema osoagoan gertatzen dira.

Fenomenoa ez da, inolaz ere, berria: telebista ikustea gizarte jarduera izan da hasieratik bertatik. Bignellek Britainia Handiko telebistaren hastapenaren historian jasotzen duen bezala, «Gehientzat telebista ikustearen esperientzia taldekoa zen, eta lagunen eta auzokideen etxeetan biltzen ziren telebista ikusteko, gertakari bezala»<sup>194</sup> (Bignell, 2008: 29). Denborarekin, telebista ikustearen jarduera indibidualagoa bihurtzen joan da, baina egungo bateratze digitalak berriro ere ikustearen gizarte izaera bultzatzen duela dirudi: «(...) erabiltzaileak teknologia digitalez jabetzen ari dira komunikabideen jarioa haien kontrolpera ekarri eta beste erabiltzaileekin elkarrekintzan jarduteko (eta elkarrekin sortzeko)» (Jenkins & Deuze, 2008: 6). Aldi berean, komunikazio enpresak bateratzearen aukera baliatzen ari dira ikus-entzunezko edukia banaketa kanal eta euskarri ezberdinetan hedatu eta etekinak irabazteko. Bi joera horiek, Jenkins eta Deuzeren arabera, elkar sendotzen dute batzuetan, ekoizle eta hartzaileen arteko harreman hurbil, aberats eta atsegingarriagoa ekarriz. Besteetan, aldiz, talka egiten dute elkarren artean, komunikabideen ekosistema berriaren presio ezberdinen arteko botere negoziazio etengabe bidea irekiz.

Marshall McLuhanek habitat kultural terminoa erabili zuen ingurumen sinboliko mediatu honi erreferentzia egiteko: «Gure habitat kultural osoa, behin jendearen edukiontzi huts gisa ikusi genuena, komunikabideen eta espazioko sateliteen eraginez organismo bizi bilakazen ari da, berau ere lurraz haratagoko izaera duen makrokosmo edo connubium batean kokatuta»<sup>195</sup> (McLuhan, 2008: 2). McLuhanen aburuz, gakoa, berriro ere, sistema da, ez espazioa. Komunikazio teknologiek espazioaren baitako elementuak elkarrekin harremanetan jartzerakoan izaki bizidunaren inguru-neari izaki bizidunaren ezaugarriak eman dizkiotela uste du pentsalari kanadiarrak.

Bateratzearen izaera ekonomiko, teknologiko edo ekonomikoari buruz, aldiz, Levinek ohartarazten digu digitalizazioak berauen arteko mugak birrintzeko joera duela, eta oraindik ere formato eta euskarriekiko berariazko ezaugarriak identifikatzen baditugu (telebista testuaren ezaugarriak kasu) «bereizketa hauen sakonean sustrai-

<sup>194</sup> «For most people the experience of watching television was collective, and they gathered in friends' and neighbours' houses to watch television as an event in itself».

<sup>195</sup> «Our whole cultural habitat, which we once viewed as a mere container of people, is being transformed by these media and by space satellites into a living organism, itself contained within a new macrocosm or connubium of a supraterrrestrial nature».

tutako boterea»<sup>196</sup> dela erantzulea (Levine, 2008: 407). Bateratzeak, bereizketa horiek disolbatzeko joerarekin batera, bereizketa horren aldeko diskurtsoak ere sendotzen ditu, Jenkins eta Deuze ere aipatzen dituen tentsio eta presioei, eta De Sola Poolek azpimarratutako unibertsaltasunerako eta partikularitasunerako joerei bide eginez.

Bateratzea ez da norantza bakarreko bidea; komunikabideen ekosistemak berak ere joera kontraesankorrak hartzen ditu bere magalean, eta batez ere komunikabideen espazioari buruzko ohiko ulerkera zalantzan jartzera behartzen gaitu.

Gerber eta Mandlerren ustez komunikabideen ekosistemari egotzi dakioken ezaugarri berri eta berezi bat, non, eta publizitatearen esparruan ematen da: kokapenarekiko askapena: «Lascaux haitzuloko irudietatik oraintxu arte, publizitatea, higitzen agentziak bezala, gauza bakarrari buruz izan da... kokapena, kokapena eta kokapena» (Gerber & Mandler, 2010: 9)<sup>197</sup>. *Oraintxu arte* horretan datza, noski, gakoa, bi ikerlarien ustetan aurrehistoriatik aro garaikideraino luzatu den joera bat aldatu baita: lehen aldiz produktuen merkaturatzaileek xede talde bat identifikatu ostean talde honek erabil zezakeen tokiak identifikatzeari ekiten zioten, bertan mezuak txertatzeko, mezuok jasoak, ikusiak, entzunak, irakurriak izango zirenen esperoan. Komunikabideen ekosistema berrian, baina, hau ez da ezinbestez hala izango.

Kokapena, edo komunikabideei buruzko hizkeran egokiago esanda, 'testuingurua' edo 'ingurunea', iragarkia txertatuta dagoen komunikabidea, laster garrantzia galtzen hasiko da iragarleentzat, eta mezuak iragartzen diren produktu edo zerbitzuak erosteko aukera gehien duten norbanakoengana zuzentzeak ordezkatuko du. Mezua berau daraman komunikabideari erreparatu gabe helaraziko da. Hau izango da komunikabideen ekosistemaren digitalizazioaren aldaketa benetan iraultzaileen arteko bat<sup>198</sup>. (Gerber & Mandler, 2010: 9).

Mezua, euskarri edo kanalari erreparatu gabe (ez igorlearen ez eta hartzailearen aldetik) helarazten bada, kokapenean oinarritzen ez den komunikazioaren gakoa edukia intereseko izango duen hartzailearengana zuzenean jotzeko gaitasunean datza. Espazio mediatikoan objektuen arteko harreman erlatiboak badira garrantzitsuak, eta komunikabideen paisaian subjektuaren hautematea eta esanahiaren erakuntza azpimarratzen bagenituen, komunikabideen ekosisteman partehartzea, interesa eta atxikimendua izango dira faktore garrantzitsuenak, euskarria eta kanala direlakoak direla, horien arteko mugak geroz eta lausoagoak egiten doazen heinean.

<sup>196</sup> «the deeply rooted power of those distinctions».

<sup>197</sup> «From the cave paintings of Lascaux until very recently, advertising, like real estate, has been about one thing . . . location, location, location».

<sup>198</sup> «Location, or more properly in media parlance “context” or “environment,” the media in which an ad is inserted, will soon be receding in importance for advertisers, replaced instead with the direct targeting of messages to the individuals likely to purchase an advertiser’s goods or services. This message will be delivered without regard to the media which carries it. It will be one of the truly revolutionary changes wrought by the digitization of the media ecosystem».

Kokapenaren osteko komunikazioaren muina Marshall McLuhanen esaldi batek laburtzen du, non eta Kevin McMahan eta David Sobelmanek zuzendutako McLuhan's Wake dokumentalean: «Jada ez duzu zertan nonbait egon edozer eskatu ahal izateko»<sup>199</sup>. (McMahan & Sobelman, 2007).

### 2.3.1. AURREKARIAK: KOMUNIKABIDEEN EKOLOGIA

Komunikabideen ekosistemari buruz hitz egin ahal izateko ezinbestekoa da komunikabideen ekologiaren terminoari buruz hitz batzuk esatea; horreratako, ekidiezina da Neil Postman eta Marshall McLuhan gogora ekartzea. Izan ere, komunikabideen ekologia McLuhanen lanean sarri agertzen bada ere, eta terminoaren zabalkunde eta ospean zerikusi zuzena izan zuen arren, gehienetan modu alegoriko eta zunda edo probokazio gisa ageri zaigu, pentsalariaren ohiko estiloan. Neil Postmanek luzatu zuen, 1968an, esapidearen lehen definizioaren saiakera, Lance Strate-ek jasotzen duen legez:

Komunikabide bat kultura bat bertan hazten den teknologia da; hau da, kultura baten politika, gizarte antolaketa ohizko pentsamoldeei forma ematen die. Ideia horrekin hasita, beste metafora biologiko bati ekin genion, ekologiari... Gure interesa ez zetzan soilik komunikabideetan, baizik eta komunikabideen eta gizakien arteko elkarrekintzak kultura bati bere nortasuna ematen dion moduetan eta, nolabait esateko, nola lagun diezaiokeen kultura bat haren oreka sinbolikoari eusten<sup>200</sup>. (Postman in Strate, 2006: 15).

Postmanen saiakera, aitzindaria izanik ere, sarri erasotua izan da, komunikabideen inguruneari giza kultura determinatzako gaitasuna ematen diolakoan. Nolako inguruak, halako kultura sortuko duela planteatzen duen determinismo teknologikoa proposatzea alegia. Strate bera komunikabideen ekologia horrela zehazten saiatuko da, determinismoa ñabartuz, Komunikabideen Ekologiaren Erakundearen presidente gisa, erakundearen berriraperean: «(...) komunikabide inguruneen ikaskuntza da, teknologia eta teknikek, informazio moduek eta komunikazio kodeek giza arazoetan paper garrantzitsua jokatzen dutelako ideia»<sup>201</sup> (Media Ecology Association, 2009). Definizioak definizio, komunikabideen ekologia komunikabideek giza hautemate, ulermen, sentipen eta balioetan duen eraginaz arduratzen da, edo, hobe esanda, komunikabideekiko elkarrekintzak horietan duen eraginaz. Esperientzia berba sarri aipatzen ez bada ere, kontzeptuaren ardatz nagusietariko bat dela suma daiteke, batez

<sup>199</sup> «You no longer have to be anywhere in order to do everything».

<sup>200</sup> «A medium is a technology within which a culture grows; that is to say, it gives form to a culture's politics, social organization, and habitual ways of thinking. Beginning with that idea, we invoked still another biological metaphor, that of ecology... We were not simply interested in media, but in the ways in which the interaction between media and human beings gives a culture its character and, one might say, helps a culture to maintain symbolic balance».

<sup>201</sup> «It is the study of media environments, the idea that technology and techniques, modes of information and codes of communication play a leading role in human affairs».

ere Ipar Amerikako aldaeran<sup>202</sup>. Finean, Postmanek zehaztu bezala, komunikabideak ingurunea bailiran aztertzean datza<sup>203</sup>, komunikabide eta gizakien arteko elkarrekin-tza hartuz ikergai. Hortik, baita, Straten adierazpenak, «Marshall McLuhanek galaxia berba darabilenean berau sistema, ingurune edo ekologiaren sinonimo bezala»<sup>204</sup> darabilela dionean (Strate, 2006: 22).

Elkarrekin-tza horien inguruan Raymond Williamsek eredu kulturalak «sentipen egitura»-tzat hartuko ditu, «kontzientziaren eta harremanen elementu afektibo» gisa, komunikabideen ekologiari egotzi izan zaion determinismo objektibistatik aldenduz (Williams, 1977: 132). Williamsen ekarpena garrantzitsua da, teknologia molde zehatz batetik emaitza zeharo ezberdinak irten daitezkeela planteatzen duelako, eta, zentzu horretan ezin esan daitekeela teknologia konkretu batek gizarte ondorio edo erabilera multzo jakina dakarrenik besterik gabe. Lynn Schofield Clarke jaso bezala, «Williams teknologia bat nola erdiesten den galdetzeari ez uzteak arduratzen zuen. Argudiatu zuen aurretiaz gizarte praktikak existitzen direnean soilik bihur daitezkeela teknologiak esanguratsu eta erabilgarri»<sup>205</sup> (Clark, 2009: 92) eta, hortaz, teknologiek aurretiaz dauden desira edo interesekin topo egiten duten testuingurua aztertzea garrantzitsua dela. Williamsentzat teknologiak (komunikazioarenak barne) ez dira artekatu soilak, tresna edo makinak erabiltzeko beharrezkoak diren ezagutza, praktika eta abilezia jakinen gorpuzteak ere badira.

Bestela esanda, aldaketa teknologikoak bestelako gizarte aldaketa sakonagoen sintomatza har daitezke (Williams & Williams, 2003: 5-6). Raymond Williamsen komunikabideen ekologiaren ulerkera bereziki garrantzitsua da lan honetarako, teknologiak ez ezik, horien gizarte erabilerak eta ulerkerak baldintzatuko baititu ez bakarrik komunikabideekiko harremanak, baizik eta baita telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak eurak ere. Sonia Livingstonek halaxe ohartarazi gintuen:

«Gizartea aldaketa historiko baten lekuko izaten ari da komunikazio ingurune bikoitzetik, non masa komunikazioaren bitartekotza pixkanaka tradiziozko pertsonen arteko komunikazioan konfiantza osatzen eta ahultzen doan».(S. Livingstone, 2009a: viii).

Komunikabideen ekosistema berrian, metafora espazialarekin jarraituz, komunikabideek gizabanako eta taldeentzat duten tokia, edo kokapena, ez da lehen zena.

<sup>202</sup> Europar tradizioko komunikabideen ekologia gehiago arduratzen da komunikabideen sistema dinamikoan azterketa materialaz, hartzaileen esperientziak baino.

<sup>203</sup> «Eta inguruneak komunikabide bezala», gaineratuko dio Stratek Komunikabideen Ekologia Erakundearen 3. Biltzarrean 2002an. (Strate, 2002: 1).

<sup>204</sup> «Marshall McLuhan uses the word galaxy as a synonym for system, environment, or ecology».

<sup>205</sup> «Williams was concerned that we not dismiss the question of how a technology is achieved. He argued that technologies can become meaningful and useful only when social practices exist before them; the specific context in which the technologies can meet a preexisting desire or interest is important to consider».



Aldatu egin da, aldatzen ari da, eboluzioan dago, eta ez da bakarra edo monolitikoa, tradizioz pertsonen arteko komunikazioak hartzen zituen funtzio batzuk hartu ditu, eta beste batzuk galtzen doa, eta, era berean, pertsonen arteko komunikazio zuzenak ere komunikabideek bitartekatutako masa komunikazioaren ezaugarri batzuk hartzen ditu, eta beste batzuk galdu, prozesu gradual eta norantza askoko batean. Norantza askoko, nodo eta gune askoko komunikazio ingurune horretarako mugimendua honela deskribatzen du Livingstonek:

Eboluzioan dauden saretutako komunikazio forma multimodal eta elkarreragileek ezaugarritutako ingurune anitz eta elkargurutzatu baterantz mugitzen ari gara. (...) Komunikazio forma berriek estu helduta gaudela dirudien arren, -digitalki bateratzaileak, berbitartekatuak, intertestualak- komunikazio ingurune osoaren analisia da axola duena»<sup>206</sup>. (S. Livingstone, 2009a: ix).

Antzera uste du Marshall McLuhanek ere: «Ingurunearen arazoekiko hurbilketa orok aldaketa etengabea dagoen ingurugiroaren matrize osoa hartzeko besteko bezain malgua eta moldakorra izan behar du»<sup>207</sup>. (McLuhan, 2008: 2). Osotasunarekiko hurbilketa, beraz, azterketa eredu integrala ez ezik, osotasun horren izaera aldakorra aitortu beharko du, McLuhanen ustetan; ingurunea aldatzen ari bada, harekiko hurbilketa saioek ere aldatzen jarraitu beharko dute, abiapuntu, teknika eta estrategia berriak esploratuz. Determinismo teknologikoaz gain, aipu metaforiko, lizentzia poetiko eta teoria handinahien erabilera aurpegiratu izan zaio komunikabideen ekologiari (Clark, 2009: 91), eta Postman, McLuhan edota Livingstoneen estiloa irakurrita ez da zaila arrazoiari erreparatzea. Hala ere, komunikabideen ekologia deritzogun diziplina arteko perspektiba teorikoen gorputz honek (Huan, 2011) aukera ematen du komunikabideen ekosistemari buruz hitz egin eta hausnartzeko, espazioari buruzko eztabaidek eta paisaiaren inguruko hausnarketek komunikabideen inguruan hausnartzeko bidea eman diguten bezala. Era berean, komunikabideen ekologia diziplina artekotasuna bereziki interesgarria da Aisiazko Ikaskuntzen perspektibatik.

Goazen, bada, komunikazioaren ekosistemak lan honetarako duen erabilera azaltzera. Horretarako, telebistaren ekosistema aztertuko dugu lehenengo eta behin, beronek jasan dituen eraldaketa nagusiak gogora ekarriz, eta ondoren ikus-entzuleriaren kontzepzioaren eboluzioa eta ikus-entzuleriaren eboluzioaren kontzeptua elkartuko ditugu, beronek telebistaren ekosisteman duen zeresana argitzeko.

<sup>206</sup> «Society is witnessing a historic shift from a dualistic communication environment in which mass mediated communication variously gradually came to complement or undermine the traditional reliance on interpersonal communication. We are moving towards an environment characterized by diverse, intersecting, and still evolving forms of multimodal, interactive, networked forms of communication. (...) Although we seem gripped by new communicative forms -digitally convergent, hybridized, remediated, intertextual- it is the analysis of the entire communication environment that matters».

<sup>207</sup> «Any approach to environmental problems must be sufficiently flexible and adaptable to encompass the entire environmental matrix, which is in constant flux».

### 2.3.2. TELEBISTAREN EKOSISTEMA

Gogora dezagun Williamsen ustez teknologiak ezagutza eta trebetasunen gorpuzteak ere badirela, eta teknologia gizarte praktika bat dagoenean soilik garratzen dela dioela<sup>208</sup>. Lan honetan telebistarekin lotutako aisiazko esperientziari buruz ari garela ere, abilezia, ezagutza, inplikazioa, hautematea eta esperientzia, euskarri teknologikoa bezain garrantzitsuak dira. Izatez, esan genezake garrantzitsuagoak direla, aldaketa teknologiko eta industrialen aurreko jarrera, eta berauen eguneroko esanahia baititugu iker-objektu. Komunikabideen ekosistema berrian pantailak eurak ari dira ugaltzen, komunikazioaren inguruaren eraldaketei erantzunez: etxeko egongeletako pantaila lau erraldoiak zein iPod, tablet eta eskuko telefonoen pantailak izan daitezke telebista edukien hargailu. Baina zilegi da pantaila are eta handiagoen, are eta txikiago hauen esangurari buruz galdetzea pertsonen egunerokotasunean. Izan ere, nekez azal genezake bata, bestea aztertu gabe.

Zentzu horretan, eta aurreko ataletan ikusi bezala, espazio mediatiko osoa, komunikabideen sistema guztia aldaketa sakonak jasaten ari da, digitalizazioaren eta bateratzearen eraginez. Telebista, noski, ez da salbuespena. 50eko hamarkadan gutxi gorabehera argi marraz zitekeen «telebista ikustearen» edo «telebista esperientziaren» definizioa (Abruzzese, Miconi, & Linares, 2004; Scaglioni & Sfardini, 2008) baina azken hamarkadako berrikuntza, dibertsifikatze eta hibridazio prozesuek telebista ekoiztu eta kontsumitzeko testuingurua, ekosistema bera, eraldatu egin dute, eta egun ez da hain erraza telebista ikustea zer den eta telebistarekin lotutako esperientziak zein diren zehaztea.

Ados gaude, alde horretatik, Anna Sfardinik dioenarekin: «Telebistak azterketa eremu pribilegiatua eskaintzen du gertatzen ari diren aldaketak behatu eta ulertzeko, ekoizpen, banaketa eta kontsumoaren planoetara kateatuta egonik, zeinak komunikabide horren izaera berdefinitzen ari diren, bai teknologia gisa eta baita forma kultural bezala ere»<sup>209</sup>. (Sfardini, 2007/2008: 1).

Telebista komunikabideen bateratzearen bidegurutzean –agian baita gurutzbi-dean ere– kokatuta dago, eta Leopoldina Fortunatik aztertu bezala, aldi berean bateratze eta bereizte indarrek eragiten diote (Fortunati, 2005). Sare digitalak telebistaren izaeran eraldaketak eragiten ari badira, argudiatuko du ikerlariak, telebista ere bere izaera isurtzen ari da sare digitaletan: «...interneten mediatizazioak eta komunikabide tradizionalen interneteratzeak gure arreta bultzada eta kontrako bultzadetan paratzeraz garrantzitsuak, aldakuntza eta elkarren arteko sartu-irtenetara, zeinen erantzule komunikazio modu tradizionalak eta internet izan diren»<sup>210</sup>. (Fortunati, 2005: 27).

<sup>208</sup> Ikus aurreko atalean komunikabideen ekologia.

<sup>209</sup> «La televisione rappresenta un campo dianalisi privilegiato per osservare e comprendere il cambiamento in atto, soggetta come è a notevoli mutamenti sul piano della riduzione, della diffusione e del suo consumo, che stanno ridefinendol'identità di questo mezzo come tecnologia e come forma culturale».

<sup>210</sup> «...the mediatization of the internet and the internetization of the classic media focus our attention on the succession of thrusts and counter thrusts, modifications and reciprocal incursions, for which

Sare digitalak egunkariak, irratia eta telebista, zinema eta publizitatea bera eraldatzen ari dira<sup>211</sup>, eta gainera, ziurrenez, «modu atzeraezinean» (Fortunati, 2005: 28). Hortaz, ezin hitzegin genezake alde bakarreko eraginez, edo ezerezetik sortzen diren eraldaketa isolatuez. Berriro ere, ekosistemaren figurarekin aurkitzen gara aurrez aurre, non komunikabide tradizionalen eta interneten arteko talka eta elkarlanek ingurumen osoan eragina duten. McLuhanen esanetan: «[Giza zentzumenen] hedapen orok, dela azalarena, eskuarena edo oinarena, multzo fisiko eta sozial osoari eragiten dio»<sup>212</sup> (McLuhan, 2001: 6).

Bateratzeak telebistaren ekoizpen, banaketa eta kontsumo moduei eragin diela egia da, baina, Fortunatik dioen bezala, telebistaren eragina ere eskerga da, bateratze prozesuan murgilduta dauden beste komunikabideen izaeran eta jardunean. Elkar eragite hau ekidiezina da, alde batetik espazio mediatiko berean jarduten dutelako, eta bestetik pertsonak haien egunerotasunean komunikabide ezberdinak erabiltzen dituztelako, ez bakarria. Komunikabideen ekosistema osatzen dute, ekosistema horren partaide dira, gizabanako eta taldeek haietan zentzua aurkitzen eta eraikitzen duten heinean, eta, horrela, komunikabideen azpiegitura teknologiko eta industrialia ere gizarte praktiken arabera eraldatzen doa.

Blumlerrek azaldu bezala (Blumler, 2001), telebistaren hastapenetako ikerlariek komunikabide bakar baten agerreran zentratzeko aukera izan zuten, honek gizartean, kulturean, pertsonen eta taldeen aisia izango zuen eragina ulertzen saiatzeko. Harekin alderatuta, egun bizitzen ari garen eraldaketaren eskala eskerga da, «inguru-nezkoa»<sup>213</sup> (Blumler, 2001: xi). Telebistaren agerrera laku bare batera jaurtikitako arroka handi bat izan bazen, egungo komunikabideen ekosistemaren garapen teknologiko eta soziala «gehiago da harri ugariz osaturiko ekaitza bezalakoa, irakiten dagoen eta gurutzatzen diren itsasaldi aldakorrez jositako itsaso batean»<sup>214</sup>.

Egungo telebistaren ekosistema konplexua eta zatikatua da, hainbat telebista mota eta telebista ikusteko modu elkarrekin existitzen direlarik inguru aldakor batean: telebista analogikoa, lurrazaleko telebista digitala, internet bidezko telebista, eskuko telefonoetarako moldatutako edukiak, bideo grabagailuak (hauek ere analogiko eta digitalak), ordaindutako edukia (edo *pay-per-view*), norberarenak diren ikus-entzunezko edukien bildumak, internet bidezko deskargak, eta geroz eta gehiago, Era-biltzaileek Sortutako Edukia (ESE edo UGC)<sup>215</sup>.

---

the traditional means of communication and the internet have been responsible».

<sup>211</sup> Ikus bateratze teknologiko eta industrialari dagokion atalean zinema, irratia, internet eta telebistari dagozkion azpiatalak.

<sup>212</sup> «Any extension, whether of skin, hand, or foot, affects the whole psychic and social complex».

<sup>213</sup> «environmental».

<sup>214</sup> «...is more like a storm of numerous stones raining continually down on a seething sea of shifting and cross-cutting tides».

<sup>215</sup> User Generated Content.

Telebistarekin lotutako esperientziak zabaltzen, ugaltzen eta sarkorragoak bihurtzen ari dira, aukera geroz eta zabalagoarekin, eta pertsonalizazio maila geroz eta altuagoarekin. Telebista-edukiek telebista gailuari gainezka egin diote, hamaika plataforma eta gailutara isuriz, eta inoiz baino gaitzagoa zaigu telebista non hasten den eta non amaitzen den zehaztasunez erabakitzea, eta telebista ikustea diogunean zeri buruz ari garen finkatzea. Ezegonkortasun eta indefinizio egoera hau ulertze-ko, ezinbestekoa da ikus-entzuleriaren kontzeptuari erreparatzea, beronen eboluzioa zuzenean lotuta baitago telebistaren ekosistemaren eboluzioarekin.

### 2.3.3. IKUS-ENTZULERIAREN EBOLUZIOA

Telebistaren ekosistema aztertzerako orduan kontzeptu argigarri bezain garrantzitsua da Philip Napolik proposatzen duen ikus-entzuleriaren eboluzioa<sup>216</sup>. Napolik eboluzio hau izaki bizidunak inguruaren baldintzen aldaketen aurrean moldatzen diren modura ulertzen du; gizabanako eta giza taldeak haien inguru teknologiko, kultural eta sozialera egokitzen diren prozesua, alegia (Napoli, 2008; Napoli, 2011a). McLuhan komunikabideen ekosistemak zentzumenen hedapen bezala gizakiarengan duen eta izango duen eraginak arduratu zuen, eta Williamsek teknologiaren agerpena ahalbidetzen duten ezagutza modu eta gizarte praktikak interesgune zituen artean, Napolik ekosistema berrian ikus-entzuleriaren eraldaketak komunikazio industrientzat duen garrantzian jarri du arreta.

Horretarako, ikus-entzuleriaren eboluzioa komunikazio industriaren interes-talde ezberdinek (eduki ekoizleak, banatzaileak, iragarleak, erosle eta kontsumitzaileak, politikariak...) darabilten ulermen moldearekin lotuko du ikerlariak, baita molde honek ingurunearen aldaketen aurrean hartzen dituen forma berriekin ere, egun, molde hori iragaite prozesuan murgilduta egoteko baldintza bereziak daudela argudiatuz:

Ingurunearen aldaketa hauek batez ere aldaketa teknologikoak hartzen dituzte euren baitan, zeinek aldi berean komunikabideen kontsumoa eta ikus-entzuleriari buruzko informazioa jasotzeko dinamikak eraldatzen dituzten. Aldaketa teknologiko hauek elkarren artean ere eragiten dute, komunikabideen kontsumo dinamiketan eragiten duten aldaketek ordura arte neurtezinak ziren ikus-entzuleen jokaerari buruzko informazioa eskuratzeko bideak zabaltzen dituztelarik.<sup>217</sup> (Napoli, 2008: 1).

ikusi eta entzuteko zein ikusi eta entzutearen inguruko informazioa jasotzeko bide berri hauek osatzen duten «ikus-entzuleria instituzionala», hau da, ikus-entzu-


<sup>216</sup> Audience evolution.

<sup>217</sup> «These environmental changes primarily involve technological changes that simultaneously transform the dynamics of media consumption as well as the dynamics of gathering information on various dimensions of audience behavior. These technological changes also interact with one another, in that the technological changes that affect the dynamics of media consumption also simultaneously provide new means of gathering information on previously unmeasurable aspects of audience behavior».

leen portaera eta praktika multzoa eta interes-taldeen ikus-entzuleriaren kontzepzioa bera, ezinbestean eta modu atzeraezinean aldatzen ari direla argudiatu zuen ikerlariak Transforming Audiences Transforming Societies COST ekintzaren finlandiar kongresuan (Napoli, 2011b).

Horrela, komunikabideen ekosisteman parte hartzen duten interes taldeek elkarri eragingo diote, interes ezberdinak aurrez aurre jarriz, talka eginez eta negoziatuz, aldi berean ikusentzunezko edukia kontsumitzeko eta kontsumo horiei buruzko informazioa eskuratu eta aztertzeke modu berrietara moldatuz.

## 8. IRUDIA: IKUS-ENTZULERIAREN EBOLUZIOA ETA KOMUNIKABIDEEN INDUSTRIA



Iturria: norberak moldatua. (Napoli, 2011b).

Ikus-entzunezko edukien kontsumoan bi aldagai nagusi identifikatzen ditu Napolik: euskarri eta ikusleriaren zatikatzea, eta ikusleriaren autonomia hazkorra. Zatikatzea edo fragmentazioa, ikerlariak argudiatuko duenez, ikus-entzunezko edukien euskarri eta plataformen ugaritzean islatzen da, komunikabideen bateratzeari dagokion atalean aztertu dugun legez edukia garraiatzeko kanalak geroz eta gehiago direla ikusirik. Era berean, ikusleria ere hainbat euskarri eta komunikabidetan zatikatuta agertzen zaigu, Jenkinsek aipatutako entretenimendu esperientzien<sup>218</sup> bila, mugimenduan.

Hala ere, Napolik zatikatze hori teknologiak ahalbidetzen duen gradutik urrun dagoela ohartarazten du, aukera zabaltasun eta pertsonalizaziorako gaitasun teknikoetatik haratago, ikus-entzuleek nolabaiteko taldekatzea edo konpaktotasuna agertzen baitute. Berrito ere, de Sola Pool-ek aurrikusitako bateratze eta bereizterako joerak ageri dira elkarren ondoan: garapen teknologikoak nor bere edukia aukeratu eta kontsumitzea ahalbidetzen badu ere, ikus-entzuleen gizarte mailako praktikak bestelako agregazioa agertzen du.

<sup>218</sup> Gure ustetan «aisiazko esperientzien».

Autonomiari dagokionez, ikus-entzuleriaren edukiaren gaineko kontrol hazkorrari dagokio: zer, non, noiz eta nola ikusi alegia. Ez kontsumitzaile gisa bakarrik, baita, geroz eta gehiago, ekoizle, birbanatzaile eta partehartzaile bezala ere. Ikus-entzuleriaren aktibotasun eta izaera parte-hartzaile honek eragin handia du noski, komunikabideen ekosistemaren ulermenean eta ikus-entzuleriaren kontzeptuaren eboluzioan.

Bi aldagai horiek zeharo eraldatu dute ikusentzunezko edukien kontsumoa, eta hein handi batean komunikabideek haien ikus-entzuleria ezagutzeko eta balioa erans-teko zerabiltzaten metodologiak ezgaitu dituzte, espazioaren metaforarekin jarraituz astrofisikan materia iluna<sup>219</sup> deritzaion ikusleriaren jarduera ezkutua agerian utziz. Industriak, eta akademiak, jakin badaki jarduera hori, egon, badagoela, baina ez da gai haren konplexutasun hazkorra bere osotasunean aztertu eta azaltzeko. Ikus-entzuleriaren zatikatzea eta autonomia maila handitzen doazen heinean, materia ilun horren proportzioa geroz eta handiagoa da, eta, hortaz, ikus-entzuleriaren neurketarako teknika tradizionalen erabilera geroz eta problematikoagoa. Bestela esanda, komunikabideen ekonomiaren moneta tradizionala, ohiko truke txanpona, krisian dago.

Bestalde, aldaketa teknologikoek, komunikabideen bateratzeak eta digitalizazio prozesuak ikus-entzuleriari buruzko informazioa jasotzeko sistema berriak abiatzea ahalbidetu dute. Azpimarratzekoa da Napolik ikus-entzuleriaren *informazio sistema* terminoa aukeratzen duela ikus-entzuleriaren neurketaren aurretik. Bat geroz bere aukerarekin; izan ere, neurketa berbak ikus-entzutearen jardunaren zenbaketa objektiboaren, esposaketaren neurtzearen doinua du, eta, lehenengo atalean aztertu bezala, telebistarekin lotutako jarduera eta esperientziak ez dira alde objektiboan agortzen<sup>220</sup>. Komunikabideekiko harremana interaktiboa bihurtu ahala, ordura arte beha ezinak ziren ikus-entzuteko jardueraren dimentsioak behagarri bilakatzen dira (bilaketak, partehartzea edota zaleen modu anitzetako ekoizpena, kasu), esposizio-denboraz haratago.

Komunikabideen bateratzeak, zentzu horretan, komunikabide bati buruzko informazioa beste batean aztertzeke atea zabaldu dio industriari. Hala, telebistako saioei buruzko interneteko eztabaiden azterketa geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari da, programatzaile, ekoizle eta iragarleentzat<sup>221</sup>. Ikus-entzuleriaren jarduera eta kontzepzioa aldatzen doazen neurrian, hari buruzko galdera berriak planteatzen ari da industria eta akademia, teknologiak eta gizarte praktikek zabaltzen dituzten iturri berriak baliatuz hauei erantzunak emateko.

Komunikabideen ekosisteman gertatzen ari diren aldaketok Ikus-entzuleriaren Ikerketetarako inplikazio nagusiak hiru puntu nagusitan laburbiltzen ditu Napolik

<sup>219</sup> Materia iluna erradiazio elektromagnetikorik igortzen ez duen materia da, hortaz zuzenean behatu ezin dena.

<sup>220</sup> Ikus Aisiaren praktika (ikuspegi objektiboa) lan honen 1. atalean.

<sup>221</sup> Ikus adibidez Nielsen konpainiaren Buzzmetrics zerbitzua, non produktu eta marka zehatzen inguruko interneteko eztabaidak arakutzen diren, informazio bila.

(Napoli, 2011a). Lehenengo eta behin, ikus-entzuleriaren neurketa sistema tradizionalak ikus-entzuleen esposizio hutsaz haratago joan beharra behar dute, ikerlariaren ustetan. Hein horretan, saiakera batzuk ikus daitezke jada, ikus-entzuleriaren datu komertzialen forma berriak agertzen ari baitira: gogoratzea, atxikimendua, eta erantzun emozionala adibidez. Bestalde, Napoliren ustez une honetan aukera berezia dago ikus-entzuleenganako hurbilketa kualitatiboak burutu dituzten ikerlariarentzat, komunikazio erakundeek haien ikus-entzuleria ulertu eta baloratzen duten moduari ekarpen esanguratsua egin baitiezaiekete. Akademiak, beraz, ikus-entzunezko industriei datuak interpretatzen eta testuinguru berrian kokatzen lagun diezaieke. Azkenik, egungo komunikabideen ikus-entzuleriei buruzko gako nagusien izaerak berak Ikus-entzuleriaren Ikerketaren tradizio ezberdinen arteko elkartruketa eta elkar polinizazioa bultzatzen eta eskatzen ditu, ustez urrunak ziren diziplinak elkarlanera hurbilduz. Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboetatik hasita, aukera berriak daude elkartruke emankorrerako.

Jenkinsek ere antzerako parametroetan kokatzen du ikus-entzuleen ulerkera berrien garrantzia komunikabideen bateratzean: «kontsumitzaile aktibo eta kritikoren ideia balio berria hartzen ari da, moneta bezala, komunikazio industrietan, eskuharitze akademikorako aukera berriak sortuz datorren hamarkadako komunikabideetako aldaketak baldintzatuko dituzten politketan»<sup>222</sup> (Jenkins, 2004: 38).

Ikus-entzuleriaren parte-hartze eta interaktibotasunaren bide beretik, Roberto Igarzak nanomarketing deituko dio hartzaileren norbanakotasuna eta mezuaren pertsonalizazioa oinarri hartzen dituen komunikabideen ekosistemari:

Ikus-entzuleria, objektu pasiboa baino, subjektu interaktiboa delako aitortzak beronen ezberdintzerako eta mezuen segmentaziorako atea zabaldu zuen, ondorengo masa komunikabideen eraldaketa ekarriz, hartzaileren indibidualizazioa eta mezuaren pertsonalizaziorako joerarako aldagaiak hartzean. (...) Oraindik homogeneotzat hartzen den ikus-entzuleriari mezu kopuru mugatua helarazi nahi dioten masa komunikabideak lekua galtzen ari dira komunikabide berrien interaktibotasunaren aurrean<sup>223</sup>. (Igarza, 2009: 47).

Zentzu horretan, ikus-entzuleriaren *nano* ikuspuntuak komunikabideen ekosistema berriaren zutabeetariko bat osatzen duela uste du Igarzak, ikus-entzunezko edukien

<sup>222</sup> «...the idea of the active and critical consumer is gaining new currency within media industries, creating new opportunities for academic intervention in the policy debates that will shape the next decade of media change».

<sup>223</sup> «El reconocimiento de que la audiencia no es un objeto pasivo sino un sujeto interactivo abrió camino a su diferenciación y a la segmentación de los mensajes con la consecuente transformación de los medios de comunicación masiva, los que introdujeron variantes que tienden a la individualización del receptor y una personalización del mensaje. (...) Los medios masivos que pretenden aún enviar un número limitado de mensajes a una audiencia masiva considerada homogénea pierden terreno frente a la interactividad de los nuevos medios».

kontsumo atsegingarrietara bideratutako haririk gabeko sareek eta gailu eramangarriek bultzatuta. Autorearen iritziz, telefonia mugikorra eta eskuko telefonoak ekosistema berriko protagonistarik garrantzitsuenetarikoak dira: «[telefonia mugikorrak] komunikabideen ekosistemaren zabaltze posiblea adierazten du, erabiltzailearekiko harremana hedatzeko aukera, aisia mediatikoari zuzendutako denbora tradizionaletatik haratago»<sup>224</sup> (Igarza, 2009: 49). Testuinguru tekno-sozial honetan, telebistaren ekosistema berriari dagokionez, eta Ikus-entzuleriaren Ikerketari buruzko berariazko planteamenduak abiapuntu teorikoaren hirugarren atalean aztertuko diren arren<sup>225</sup> komeni da ikus-entzuleriaren eboluzio honen inplikazioak azpimarratzea.

Napoliren ereduak agerian uzten du aldaketa teknologikoek komunikabideen ekosistema berrian duten garrantzia ukaezina, baina, aldi berean, aldaketok gizarte eta industria mailan, kontsumo modu eta ezagutza formetan dute zeresanik handiena, ez bere horretan. Telebista pantailen ugaltzeak edota internet bidezko telebista edukietarako sarbideak ikus-entzuleriaren kontzepzioa zalantzan jarri badu, ez da honek zuzenean ikus-entzuleei eragin dielako, ikus-entzuleen jokaera eta kontsumo moduak, teknologiaren erabilera bera aldatu direlako, eta hauek, era berean, ikus-entzuleriari buruzko informazio mota eta kantitate berriak eskuratzea ahalbidetu dutelako baizik. Berriz ere, sistemaren osotasuna eta eragile ezberdinen esanahien eraikuntza kontuan hartu gabe ez dago gertakariaren garrantzia ulertzerik: kontsumo moduak aldatu ahala, kontsumoari buruzko ezagutza ere aldatzen doa, eta ezagutza hau aldatzen doan heinean, ikus-entzuleriaren ulerkerak bera eraldatu eta moldatu egiten da ingurune berrira. Ikusleariaren kontzeptuaren eboluzioak komunikabideekiko esposizioaz haratago, eta ikusleariaren tamainaz baino haren jardueraz (objektibo nahiz subjektiboaz) arduratzea eragiten ari da, eta, hartara, bete-betean erantzuten dio komunikabideen ekosistemaren planteamenduari, non ikus-entzuleak sistema osoaren partaide eta eragile diren.

Kontua, beraz, berriro ere, ez da zenbat denbora eta noiz ematen dugun zein telebista saio ikusten, baizik eta zer egiten dugun ikusten dugun horrekin, zentzu zabal eta betiere konplexuan. Horrek, telebista ekosistema berrian zer den eta birpentsatu behar izatera garamatza zuzenean.

## 2.4. TELEBISTA GURE GARAIAN

Zaila zaigu, ezinezkoa ez bada, XXI. mendeko hiritarraren aisiaz hitz egitea testu mediatikoen kontsumoaz, ekoizpenaz eta parte hartzeaz arduratu gabe, telebistarenak barne. Ikus-entzunezkoen presentzia eta eragina areagotu egin dira gure gizartean pantailak eta gailuak txikitu, ugaltu eta garraiatzeko errazagoak bihurtu diren

<sup>224</sup> «...la TM representa una posible expansión del ecosistema mediático, una oportunidad de ensanchar la relación con el usuario más allá de los tiempos tradicionales destinados al ocio mediático».

<sup>225</sup> Ikus 3. atala: Telebista eta ikus-entzuleak.



eta etxeko egongela, logela eta sukaldeak okupatu dituzten heinean. Baina, eskaintzen diogun astiari begiratuta, telebistak hedabideen errege izaten jarraitzen du Europako herrialdeen eta Euskal Herriko batez besteko joerei erreparatuta.

Telebista zentrala da, bai eskaintzen zaion denbora eta arretaren aldetik, eta baita pertsonen astialdian hartzen duen pisuaren aldetik ere. Hala ere, telebistaren tokia zeharo aldatu da azken urteotan: aldaketa teknologiko eta sozialek telebistak paisaia mediatikoan duen kokapena goitik behera eraldatu dute, eta argudia daiteke kokapenarekin batera, haren ulerkera eta izaera ere bilakatu egin direla.

Internet bidezko irratitari irriti deitzen diogu, irriti uhinen bidez igorri eta jasotzen ez dugun arren. Gure eskuko telefonoek, deiak egin eta hartzeaz gain, filmak ikusteko, antzerkirako edo kontzertuetarako sarrerak erosteko, berriak irakurtzeko eta e-mailak erantzuteko balio duten arren, oraindik ere telefono deitzen diegu. Beste horrenbeste zinemarekin, non hasierako zuri beltzezko fotograma mutuei soinua ez ezik 3. dimentsioa gehitu zaien, eta kasuren batean baita laugarrena ere<sup>226</sup>, eta hala ere Lumière anaien zuri beltzezko film labur mutuei emandako denominazio bera darabilgu egunerokoan. Ikus-entzunezko edukien ekoizpen, banaketa eta kontsumorako sistema bezala telebista iragaite prozesu sakon batean murgilduta dago telebista komunikabideen ekosistema osoari eragiten dioten eraldaketa teknologiko, industrial eta sozialen eraginez. Zein da, hortaz, egun telebista deritzogun telebista? Zertaz ari gara, telebista diogunean?

Greziar urruna (tele) eta latindar ikusmena (visio) lotzerakoan sortutako berba da *tele-bista*. Urrunekoa hurbil egiteko aparailua, bere izenean ere denboran eta espazioan banatuta ditugun bi hizkuntza batzen dituen eta beste hamaika hizkuntzatara, tartean euskarara, isuri den terminoa. Telebista bidegurutze teknologikotik ez ezik (telegrafoaren, argazkigintzaren eta irratiaeren teknologien bateratzea ere bada telebista, beste askoren artean), bidegurutze linguistikotik sortutako errealitatea da telebistarena.

Lehen adiera bakarrekoak ziren telebista, pantaila edo tresnaren terminoak definitzen zailagoak bilakatzen ari dira, ahalmen tekniko berriak garatzen eta erabilera ezberdinak ahalbidetzen doazen heinean. Telebista zenak espazioan nahiz denboran urrun dagoenaren ikusteko gaitasuna, baina baita aukeraketa urruneko leku batetatik egiten den sistema betiere mugatua eskaintzen zituen. Egun, ordea, ikusgai denaren gaineko kontrol handiagoa (magnetoskopioen *time-shifting* edo programazioaren denboraren gaineko kontrola edo *pay-per-view* edo eduki zehatzen erosketa eta kontsumorako funtzioak txertatzerakoan) eta testuen urruneko antolamentuarekiko nolabaiteko burujabetza hartzen ari da telebista. Watkinsonek jaso bezala:

Kontsumorako magnetoskopioen garapena telebista komertzialaren linealtasunaren amaierarako pausu txiki bat izan zen. Geroz eta ikusle gehiagok [sic]

<sup>226</sup> Ikus adibidez Robert Rodriguezen *Spy Kids 4D* filmean (2011) betaurreko berezien bidezko 3D sentsazioaz gain ikus-entzuleek lurrin ezberdindun txartelen bidez filmeko usainetara sarbidea duten «aromascope» delakoaren bidez.

magnetoskopioa iragarki tarteetan jauzi egiteko erabiltzen dute, ez bakarrik programazioaren denboraren gaineko kontrola izateko. Bideoaren biltegitratze ez-linearra duela gutxira arte aplikazio profesioaletara mugatzen zen. Baina disko gogorren kostuaren jaitsierarekin, bideoaren biltegitratze ez-linearra orain kontsumorako produktua da<sup>227</sup>. (Watkinson, 2001: 33).

Emisioa noiz ikusi erabakitzea ez ezik, edukiaren kontsumo ez linearra ahalbidetu ditu lehenengo magnetoskopiok eta, geroago, grabagailu digitalek. Are gehiago, telebista aparatua, tresna bezala, urruneko emisioen hargailu (geroz eta digitalagoen) eta norberak aukeratutako eduki eta inguruneen (norbere bilduma multimediako edukiak, Erabiltzaileek Sortutako Edukiak, zein bideojokoak bezalako aisiazko inguru digitalak) pantaila bihurtu da apurka apurka: leiho eta ispilu, aldi berean.

Etxeko magnetoskopiok telebistaren denboraren gaineko kontrola ekarri zuten etxeetara, edukien grabaketa eta kontsumo asinkronikoa ahalbidetuz. Interneterako banda zabaleko sarbideak berriz espazioaren gaineko nagusitasuna eskaini du, muga geografikoez haraindiko edukiak eskuratzea posible eginez, jada telebista hibridoak edo HbbTV<sup>228</sup> bezalako izenak hartzen ari den teknologia bikoitzen bidez (uhin herztziar zein seinale digitaletaz gain, interneterako konexioa duten telebista gailuak). VHS teknologiak telebista saioen ordutegiei garrantzia kendu zien, eta internet herrialde eta telebista kateen arteko mugak eraisten ari da telebista-zale askorentzat. Era berean, telebista digitalak eta komunikabideen ekosisteman parte hartzen duten bestelako komunikazioaren teknologiek sekula ez bezalako parte-hartzea eta zeresana ahalbidetu dizkiote hartzaile/erabiltzaileari.

Urruna hurbiltzen ari da, gure garaiko telebistan. Bai ikus-entzunezko edukien sortaren zabaltzearen aldetik espazio/denboraren koordenatuei dagokionez, eta baita edukiaren aukeraketa eta antolaketari dagokionez ere, ikus-entzuleriari kontrol handiagoa eskaintzerakoan. Telebista, gailu bezala, teknikoki urruneko emisioen hargailu hutsetik haratago, ikusleriaren aisiazko praktiken, edo, nahiago bada, entretenimenduzko edo aisiazko esperientzien bilaketarako jardueren zerbitzura dagoen tresna bilakatzen ari da geroz eta gehiago. Lehen telebista edo urruneko ikusmena zena *holo-bista* edo erabateko ikusmen edo guztizko ikusmen bilakatzen ari dela argudia daiteke, kanpotik ezarritako edukien artikulazioa gainditzea ahalbidetzen baitu, neurri batean, espazio eta denboraren gaineko kontrol handiagoa eskainiz hartzaileak baino gehiago erabiltzaile bihurtzen ari denari. Edo, ingurunearen metaforarekin jarraiki, *eko-bistaz* hitz egin genezake agian: bateratze prozesu etengabekoan murgilduta dagoen testu, formatu eta plataformen arteko elkar mendekotasunaz,

<sup>227</sup> «The development of the consumer VCR was a small step to end the linearity of commercial television. Increasing numbers of viewers use VCRs not just as time shifters but also as a means of fast-forwarding through the commercial breaks. The non-linear storage of video was until recently restricted to economics to professional applications. However, with the falling cost of hard drives, non-linear video storage is now a consumer product».

<sup>228</sup> Hybrid Broadcast Broadband Television.

non ikus-entzuleriak bere jarduera ingurune anizkUNETAN bideratzen duen. Komunikabideen ekosistema konplexu eta aldakorren baitan, eko-bistak unean uneko beharrizan eta desireri unean uneko aukerekin erantzutea ahalbidetuko luke, nor bere testuingurura moldatuz, beren-beregi konfiguratuz gailua, eta beronen ulerkera eta erabilera, lehenetsun pertsonal eta sozialetara.

Watkinsonek «telebista komertzialaren ahultasun nagusia» deritzon linealtasuna (Watkinson, 2001: 33)<sup>229</sup> gainduta dago neurri batean, edo, hobe esanda, telebista lineala ez da jada telebista bakarra. Igorleak urrunetik erabakitako sekuentziantasunaz gaindi, ikus-entzuleak hedabideen arteko mugen gainetik jardungo dute desira dituzten bizipenen bila (Jenkins, 2004; Jenkins, 2006).

Garrantzitsua da azpimarratzea bizipen hauek aisiari dagozkionak direla gehienbat, eta ez hainbeste beharrari lotutakoak. Telebistaren ekosistemaren ikuspegitik, beraz, aisiazko esperientziak gako dira ez soilik ikus-entzuleriaren migrazio prozesuak azaltzerako orduan, baizik eta komunikabideen konfigurazio subjektibo horien aldetik ere. Nahi dituzten aisiazko esperientzien bila ari diren ikus-entzule migrariet osatuko dute, beraz, komunikabideen bateratzearen ikusleriaren aldea. Haiek ere jarioan, telebistaren irudi eta soinuak bezala, medioari, plataformari, bidetari men egin gabe, leialtasuna atzean utzita. Komunikabideen kontsumoaren alde objektiboari bakarrik erreparatuta, hau da, esposizioaren «kontaketa» soilean geldituta bakarrik, telebistak oraindik komunikabideen ekosistemaren zutabe zentral izaten jarraitzen badu ere, badira bere zentralitatea zalantzan jartzen hasteko arrastoak, jada joera aldatuta baterantz goazela iradokitzen duten adierazle batzuk: belaunaldi gazteen interneten erabilera adibidez, telebistaren kontsumoarekin alderatuta.

European Interactive Advertising Association EIAA iragarki tarteen salmenta zentralaren «Mediascope Europe 2010» argitalpenaren arabera, 2008. urtean Espainiar Estatuan telebista gutxien kontsumitzen zuten biztanleak 16 eta 24 urte bitartekoak dira (%89k bakarrik adierazi zuen telebista ikusten duela) eta modu intentsiboan gutxien ikusten dutenak (%51k bakarrik adierazi zuen modu intentsiboan ikusten zuela telebista)<sup>230</sup> (EIAA, 2010: 12). Ez hori bakarrik: arreta medio bakarriari zuzentzetik urrun, hedabide ezberdinen aldibereko kontsumoa ere gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da Europan ikerketa beraren arabera<sup>231</sup>. Telebista beste edozein hedabide baino gehiago kontsumitzen da -inkestatuak %94k aitortzen du ikusten duela, aldizkari, irratia, egunkari, ordenagailu bidezko internet edo eskuko telefonoen gainetik-, baina, aldi berean, bestelako hedabideak kontsumitzea bultzatzen duela dirudi. Inkestatuak %28k interneten erabiltzen du ordenagailu bidez telebista ikustearekin batera, %25ak egunkaria irakurtzen du, %20k aldizkariak, %12k irratia entzuten duela dio, eta %4k es-

<sup>229</sup> «The biggest vulnerability of commercial television is that it is linear».

<sup>230</sup> EIAA (2010). *Mediascope Europe 2010*. Resultados de España. Febrero 2010.

<sup>231</sup> Hamar herrialde Europarretan hartutako lagina (Erresuma Batua, Norvegia, Frantzia, Portugal, Suedia, Espainia, Suitza, Danimarka, Italia eta Belgika) n= 9.385.

kuko telefonoen bidez konektatzen da internetera. %43k bakarrik dio telebista ikustea jarduera bakarreko praktika dela (EIAA, 2010: 23).

Komunikabideen paisaia gertatzen ari diren mugimenduek hedabideen arteko distantziak, mugak eta harremanak eraldatzea ekarri dute, elkarrekiko kokapenak berdefinizio prozesu batera eramanez eta plataforma anitzen arteko edukiaren jarioa ahalbidetuz. Agian are garrantzitsuago, pertsonak hedabideekiko duten harremana, hedabideek pertsonen egunerokotasunean hartzen duten lekua aldatu egin da erabat. Juan Freirek Informazio eta Komunikazioaren Teknologiekin lotzen du informazio eta komunikazioarekin lotutako paradigma sozio-tekniko berria kultura postdigitalaz hitz egiteko:

Gure gizarteak azken hamarkadetan bilakaera sozial, kultural eta ekonomiko garrantzitsuak jasan ditu informazio eta komunikazioaren teknologien garapenari lotutako paradigma soziotekniko berriaren sarreraren ondorioz. Aldaketa horiek ez dira soilik edo nagusiki instrumentalak izango, baizik eta transformazio sakonagoak balore, antolaketa eredu eta praktketan. (...) Agian «kultura postdigital» terminoa aproposagoa da teknologia jada gure bizitzaren parte den eszenatokia identifikatzeko, non esanguratsuen sortzen diren praktika, erakunde eta balio berriak diren. (Freire, 2010)<sup>232</sup>.

Paradigma aldaketa honi jarraiki, hedabideek pertsonen bizitzan jokatzeko duten papera ez da jada duela hamar edo duela bost urte betetzen zutena, ematen diegun esanahia ez da berdina, eta pertsonen eta hedabideen arteko harremanetatik sortzen diren praktika, erakunde eta balio berriak transformazio sakonagoen adierazgarri eta eragile dira aldi berean.

Telebista aldatu egin da, berrikuntza teknologiko eta sozialen eraginez, eta, ondorioz, pertsonak telebistarekiko eratzen dituzten aisiazko harremanak ere aldatu egin dira ezinbestez. Testuinguru horretan bereziki eskas gelditzen da audientzia azterketa tradizionalen hurbilketa kuantitatiboa pertsonak telebistarekiko agertzen dituzten praktikak neurtzeko. Haratago joan beharra dago pertsonak telebistarekin harremanetan bizi dituzten aisiazko esperientzietan murgiltzeko, eta telebistak egunerokoan hartzen duen lekua ulertzeko. Horretaz jardungo dugu hurrengo orrialdeetan, egun telebista (ikustea) zer den galderari erantzuten saiatzerakoan.

#### 2.4.1. ZER DA TELEBISTA (IKUSTEA)?

Hamaika laguni aisia zer den galdetuz gero, hamaika erantzun jasoko genituzke-ela genioen aurreko kapitulu<sup>233</sup>, eta hasiera batean hala eman ez balezake ere, an-

<sup>232</sup> «Nuestra sociedad ha sufrido en las últimas décadas importantes transformaciones sociales, culturales y económicas como resultado de la irrupción de un nuevo paradigma sociotécnico asociado al desarrollo de las tecnologías de la información y las comunicaciones. No se trata solo ni principalmente de cambios instrumentales, sino de transformaciones más profundas en los valores, los modelos organizativos y las prácticas. (...) quizás el término “cultura postdigital” sea más apropiado para identificar un escenario en que la tecnología es ya una parte esencial de nuestras vidas y en las que lo relevante son las nuevas prácticas, organizaciones y valores que surgen».

<sup>233</sup> Ikus «Aisiaren esanahiak» lan honen 1. kapitulu.

tzera gertatzen da telebistari buruz galdetutakoan. Agian lehenengo erantzuna «zer izango da ba!» izan liteke: telebista egongelan dagoen elektrotresna hori da, eta telebista ikustea horri begira egotea, aisia zer den galdetuta berau beharraren ostean norberarentzat gelditzen den denbora aipatzen denean bezala, baina azalari azkura eginez gero, berehalak agertzen dira ñabardurak, zalantzak, eta ezberdintasunak.

Saio edo eduki jakin baten zalearentzat, telebista iragarkien tartetean gertatzen dena da. Iragarle eta telebista ekoizleentzat, finantzen ikuspegitik, saioen tartetean dauden iragarkietan datza telebista. Williams eta abarrek telebista saio, iragarki, soinu eta irudien jario integrala dela iradokiko dute, bata bestearengandik bereiztea telebistaren izaera galtzea dela ohartaraziz. Hizkuntza komunitateen ikuspegitik, hizkuntza gutxituentzat telebista «estatus sinbolo» izan daiteke, Elynn Haf Gruffyd Jonesek jaso bezala hizkuntzari gizarte esangura eskaini diezaiokelarik:

Komunikabide garestia denez, bere existentziak berak hizkuntza baten ekonomia susper dezake; ofizialtasunaren aitorpena behar du lehenengo eta behin sortu ahal izateko; ikus-entzunezko komunikabide bezala, alfabetatze maila baxua eskatzen du ikus-entzuleen aldetik, hizkuntza gutxitudun komunitateetan arazo iraunkorrari aurre hartuz, eta komunikabide ikusgarri bezala –komunitatearen baitan zein haratago– hizkuntza (oraindik) bizirik dagoenaren erakusle bezala balio du. (Jones, 2008: 58)<sup>234</sup>.

Telebista ikustea, bestalde, gure espazio mediatikoaren zati baino, egituratzailer bilakatu da, ezinbestean parte hartzen dugun komunikabideen ekosistemaren osagarri, eta pertsona orok du telebistarekiko iritzia eta telebistari buruzko ulermena. Berriro ere Jones aipatuz, telebistak nolabaiteko «unibertsaltasun eta abilezia» agertzen du «entretanimendu arinerako» zein «eztabaida sakonerako», ume gazteenenengana zein belaunaldi zaharrenenengana eta ia etxe guztietara ailegatzen da (Jones, 2008: 58). Hain da nonahikoa, hain da egunerokoa haren presentzia, ezen, zuzenean ez bada zeharka, pertsona oro baitago kontaktuan telebistarekin.

Hartara, telebista ulertzeko modu asko daude, eta ditugu, ezinbestean. Sarri «mundura irekitako mundua» bezala deskribatua, berri-iturri, irakasle eta «komunitate irudikatuaren» eraikitzailetzat ere hartua izan da (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67: 50)<sup>235</sup>. Baina, oro har, telebistari kultura baxuko ezaugarriak egotzen dizkiogu: «Telebista, kalekoa baino etxekoa, garaikidea baino, zaharkitua, adierazpen artistikorako bide baino, lotura komertzialek mugatutakoa bailitzan izan da marraztua, eta

<sup>234</sup> «As an expensive medium, its very existence can stimulate the economy of a language; as a highly regulated medium, it requires recognition by officialdom in order for it to be created in the first place; as an audio – visual medium it asks little of the literacy levels of its viewers, which is a persistent problem in many minority language communities; and as a visible medium – both within the community and beyond – serves as tangible evidence that the language is (still) alive».

<sup>235</sup> «Often described as a 'window on the world', television is examined as a news medium, a teacher and a maker of an 'imagined community' (Anderson, 1983)».

komunikabideen aro berrian, mugikorra eta interaktiboa baino, estatikoa eta norabide bakarrekoa bezala egun»<sup>236</sup>. (Levine, 2008: 405). Bestela esanda, komunikabide zentrala eta nonahikoa izan arren, kultura gabeziaren edota maila kultural apalaren estigma ezarri izan zaio.

Bignellen ustez, telebistaren izaera modu askotara uler, eta, hortaz, azter daiteke (Bignell, 2008: 2): testu bezala, telebista saioen analisiaren bidez; erakunde industrial bezala, haren antolaketa eta ekoizpen praktikak aztertuz; kultura bezala, kultura garaikidean duen lekua eta Ikus-entzuleriaren Ikerketa soziologikoen bidez; eta historia bezala, telebistaren garapena eta beronen emankizunen politika aztertuz. Telebistaren ulermenak haren azterketa baldintzatzen du, eta, alderantziz, telebistaren azterketak, honen ulermenari ematen dio forma.

Esanenezake, haren adiera ezberdinetan, telebistak Le Diberdier eta Coste-Cerdanek (Coste Cerdan & Le Diberder, 1990) identifikatu gabeko objektu soziala osatzen duela: etxeko gailu elektronikoa, erakunde soziala, ikusentzunezko edukien ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistema, aisiazko praktika, industria, merkatua... Javier Callejok aipaturiko nortasun anitzeko komunikabidea (Callejo, 1995) gizarte mailan irudikatutako ezaugarriak pilatzen doa, irudikapen horien artean ikusleriarena berarena agertzen zaigularik, bere burua telebistaren aurrean irudikatuz. Komunikabideen ekosistema aldakorrean are zailagoa bihurtzen da telebista zer den argiro mugatzea eta telebista ikustea zer den zehazki eta behin betiko definitzea. Izan ere, telebistak gizartean duen kokapena aldakorra da, telebistaren erakundeak eurek eraldatze etengabea dihardute, eta, aldi berean, «telebistaren ikus-entzuleriaren kontzepzioak eta telebista ikustearen natura bera» (Bignell, 2008: 6) aldatzen ari dira.

Telebistaren izaera aldakorra eta ezegonkorra Stephen Heathek argiro erretratatu zuen: «Objektu nolabait zaila, ezegonkorra, leku guztian zehar dagoena, hari buruz diogun ezeri ihes egiteko joera isekagarria duena: aldaketen abiadura dela eta (teknologian, ekonomian, programazioan), haren jario amaigabea (irudi eta soinuak, haien orainaldi desagerkorra), egunerokotasun kuantitatiboa (komunikabidearen kalitatea bera, egunero-egunero)...»<sup>237</sup> (Heath, 1990: 267). Telebista ikerlarien definitzeko saiakerez trufatzen dela dirudi, igortzen duen irudi eta soinuazko fluxu aldakorrean bera ere, etengabea eraldaketa eta moldaketa prozesuan. Baina arrazoa du, telebistaren izaera sarkor eta labainkorra azpimarratzerakoan.

<sup>236</sup> «Television has been, and often still is, constructed as domestic rather than public, as old-fashioned rather than edgy, as a product of commercial constraints rather than artistic expressiveness, and now, in the new media age, as static and unidirectional rather than mobile and interactive».

<sup>237</sup> «A somewhat difficult object, unstable, all over the place, tending derisively to escape anything we say about it: given the speed of its changes (in technology, economics, programming), its interminable flow (of images and sounds, their endlessly disappearing present), its quantitative everydayness (the very quality of his medium each and every day)».

Zentzu horretan, Kelly-Holmesekin bat gatoz, «Telebista hain ikerketa-objektu erakargarri eta erronkaker egiten duena da, hain zuzen ere, hain frustrantea bihurtzen duena: bere ezegonkortasuna»<sup>238</sup>. (Kelly-Holmes, 1999: 1). Eta telebista ezegonkorra bada, zer esanik ez telebista ikustea. Telebista ikustea aztertzerako orduan diziplinartasuna aldarrikatuko dute Michael Kackman eta abarrek «'telebista ikustearen' jarduera sozial eta funtsean porotsua»<sup>239</sup> (Kackman *et al.*, 2011: 2) aipatzerakoan. Telebista ez da errealitate hermetikoa, iragazkaitza; alderantziz: teknologikoki zein sozialki iragazkorrara, porotsua den errealitate ezegonkor eta erronkaz bete osatzen du.

Jason Mittellek (Mittell, 2011) «TiVoing Childhood» artikuluan bere esperientzia pertsonalean oinarritutako hausnarketa proposatzen du grabagailu digitalen familia osoaren, baina batez ere umeen, egungo telebistarekiko jokabideak eta beronen ulkerak nola eraldatu duten gogoraraziz. Autoreak «komunikazio teknologien esangura» (Mittell, 2011: 46) errotik aldarazi dioten bi gertakari aipatzen ditu: seme-alaben jaiotza eta TiVo telebista digitalerako sarbidea eta edukiak disko gogorrean grabatzea ahalbidetzen duen zerbitzuaren erosketak. Mittellen ustez, bai gurasoentzat eta baita umeentzat ere, ikus-entzunezko edukiak grabatu eta nahi erara ikusi ahal izateak telebista ulertzeko moduan zuzenean eragiten du, «gure teknologiararen erabilerak berauen esanahi eta erabileren perspektiba kokatzen»<sup>240</sup> (Mittell, 2011: 48) dituelako. Zentzu horretan, komunikazio teknologien ikuspegi epistemologikoaren alde egiten du ikerlariak, pertsonen teknologia jakin baten inguruan nola pentsatzen duten eta testuinguru teknologikoen gizarre praktikak nola baldintzatzen dituzten aztertzearen aldeko deia eginez.

Raymond Williamsen gogorarazi bezala, telebistaren asmakuntza ezin da gertakari bakarrera, ez eta gertakari segida jakin batera murriztu. Horrela, «[Telebistaren asmakuntza] elektrizitate, telegrafia, argazkigintza, film eta irratan emandako asmakuntza eta garapenen multzoen menpe egon zen (...) Baina epe bakoitzean beste helburu nagusi batzuekin burututako asmakuntzetan oinarritu beharra izan zuen bere egikaritzeko»<sup>241</sup> (Williams & Williams, 2003: 7). Hartara, telebistaren ideiak hainbat helburutarako garatutako teknologien bateratzea ekarri zuen, bat-bateko asmakuntza teknologikoa baino gehiago. Garapen teknologikorako ideia ezberdinen (argazkigintza, telegrafoa, telefonoa...) oinordekoa da.

Esana dugu jada bidegurutzeko errealitate linguistikoa dela telebista izena, greziar eta latindar hitzen elkarketan. Williamsi jarraiki, gainera, bidegurutze te-

<sup>238</sup> «What makes television such a fascinating and challenging object of study is precisely what makes it so frustrating: its instability».

<sup>239</sup> «the essentially social, and porous, act of 'watching television'».

<sup>240</sup> «...our use of technology frames our perspectives on its meanings and uses».

<sup>241</sup> «It depended on a complex of inventions and developments in electricity, telegraphy, photography and motion pictures, and radio.(...) Yet in each of these stages it depended for parts of its realisation on inventions made with other ends primarily in view».

knologikoa ere gaineratu beharko genioke, digitalizazio prozesua baino askoz lehenago hasitako komunikabideen bateratzearen adibidea osatzen baitu telebistak berak. Ikerlariaren ustetan telebistaren teknologia modu isolatuan aztertzea, edo telebista saio edo kate bakarrari buruz aritzea zuhaitzak basotzat hartzea bezalakoa da, telebista «gizarte teknologia bat baita, balio kulturalen instantziazioa, denboran eta tokian errotutakoa. Kackman eta abarrek jaso bezala, «(...) haren formak, egiturak eta esangurak ez datoz besterik gabe komunikabidearengandik, eta ez dira inoiz finkoak edo aldaezinak»<sup>242</sup> (Kackman *et al.*, 2011: 2). Williamsen aburuz telebista ulertzeko, hortaz, berau –beronen testuak, beronen erabilerak, beronen formak...– testuinguru historiko eta kulturean ondo kokatuta aztertu beharra dago, telebista ikustearen errealitatea ez baitator zuzenean komunikabidetik bertatik, kulturaren erakundetze zehatzen islatik baizik.

Telebista gizartean eta pertsonen egunerokotasunean hain errealitate sarkorra eta nonahikoa izanik, eta eraldaketa eta bateratze prozesu sakonean murgilduta dagoen komunikabideen ekosistema baten baitan, telebista gailuaren espezifikotasuna geroz eta iheskorragoa zaigu. McLuhanek eta Deuzek aipatu bezala, ikustezina egiten zaigu sarri<sup>243</sup> (Deuze, 2011; McLuhan, 2008). Williamsek berak arazoa bere horretan aitor-tzen du: «Benetan ez dakigu, kasu zehatz bakoitzean, teknologia batez ari garen ala teknologiaren erabileraz ari garen adibidez, beharrezko erakundeei buruz ala erakunde berezi eta aldagarrietaz, edukiari buruz ala formaz»<sup>244</sup>. (Williams & Williams, 2003: 2). Egungo komunikabideen ekosisteman telebista zer den eta zer ez den behin eta betiko zehatzen setatu beharrean ordea, telebistaren izaera ezegonkor eta iragazkor honek ikerketarako abagunea zabaltzen digulakoan gaude. Izan ere, telebista zer den eta telebista ikustea zer den galdetzea telebistarekiko gu zer garen galdetzea ere bada. Bi galderek, gure ustez, zeresan handia dute elkarrekiko.

Roger Silverstonentzat telebista ikustea «termino ia takigrafikoa da» ikus-entzuleriaren praktika eta esperientzien ugaritasunari erreferentzia egiteko «behin-behinean» definitzen dena (Silverstone, 1996: 77). Are garrantzitsuago, ikus-entzuleriaren ikerlari beteranoren ustetan gutxitan ematen da errealitatean telebista ikuste hutsa<sup>245</sup>: Zentzu horretan, lan honetan zehar telebistaren eta telebista ikustearen ikuspegi agnostikoa hartuko dugu oinarri, ikus-entzuleei galdeginez bi esapideek duten esangurari buruz, alde zuzenetik mota bateko edo besteko definizioetatik abiatu beharrean. Telebista ikustea esapide «takigrafikoaren» atzean

<sup>242</sup> «Its forms, structures, and meanings neither inhere to the medium itself nor are ever fixed or immutable».

<sup>243</sup> Ikus espazio mediatikoari dagokion atala.

<sup>244</sup> «We really do not know, in any particular case, whether, for example, we are talking about a technology or about the uses of a technology; about necessary institutions or particular and changeable institutions; about a content or about a form».

<sup>245</sup> «... la acción pura de ver la televisión».




errealitate anitz ezkututzen da, eta errealitate horietara hurbiltzeko ez dago beraien protagonistei galdetzea beste aukerarik.

«Telebista egunerokotasunaren baitako zerbait da. Bata ikertzea bestea iker-tzea da»<sup>246</sup> (Silverstone, 1996: 77), eta, zentzu horretan, iragaite garrantzitsuena, aldi berean marrazteko zailena dena, ez datza telebistaren garapen teknologikoan edo industriaren eraldaketetan, ikus-entzuleriaren aisiazko praktika, jokabide eta espe-rientzietan baizik: telebista subjektuen eguneroko espazio eta uneetan inskribatzen diren moduetan alegia. XX. eta XXI. mendeetan hasieran aisiazko ohitura, praktika eta bizipenak aldatu diren modu berean, telebista bera eta telebistarekiko lotutako bi-zipenak ulertzeko moduak ere arras eraldatu direla uste dut. Aldaketa horiek erronka eta aukera bereziak eskaintzen dizkigute, komunikabideekin orokorrean, eta telebis-tarekin zehazki, lotutako aisiazko esperientziei buruz galdetzeko.

Komunikabideen ekosistemaren muturreko eraldaketen aro honetan, ezinbeste-koa zaigu telebistaren kontzeptua berpentsatzea eta bere esangura ugariak berrera-i-kitzea ikus-entzuleriaren aisiazko esperientzietatik abiatuta. Hala, ezinbestekoa zaigu atal honen hasieran aipatutako ikusmen eredu telebistari dagokionean pentsatzea. Alhazenek begiaren igorpen eredu arbuiatu zuen, giza begiak, ikusi ahal izateko, kanpoko argi iturri baten beharra zuela frogatzean. Telebistak, definizioz, argi iturri propioa eskaintzen dio giza begiari, eta hartara tartean-sartzearen eredu baino, ere-du ptolomeikoak egokiagoa lirudike.

## 9. IRUDIA: TELEBISTAREN IKUSMEN FISIOLOGIKOA



Iturria: norberak egina.

Gakoa, noski, definizioetan dago. Ikustea giza begien eta nerbio-sistemaren elkarrekintzaren bidez gertatzen den fenomeno fisiologiko gisa hartzen badugu, no-rantza bakarreko prozesu baten aurrean geundeke. Ikusteari, ordea, irudi (eta soinuen) hartze edo kontsumo horri beste zerbait eskatu eta esanguren sorrera eta bilatutako plazerren bizipena galderan sartzen baditugu, eredu irauli egiten da. Ikus-entzuleen

<sup>246</sup> «La televisión es algo propio de la vida cotidiana. Estudiar una es al mismo tiempo estudiar la otra».

telebistarekin lotutako aisiazko esperientziek ezinbestez eskatzen dute aktibotasun gradu bat, ikus-entzuleriaren nolabaiteko parte-hartzea, telebista pantailaren argi izpi eta soinu uhinen hartze hutsa baino gehiago barne hartzen dituen.

Lan honi dagokion telebista berau ikusten duten pertsonak eraikitzen dutena da. Gizabanako eta taldeek telebistarekin ezartzen dituzten harremanak. Nola ikusten, irakurtzen, ulertzen, gorrotatzen, maitatzen, kontuan hartzen eta baztertzen duten haien eguneroko bizitzan. Interesgarri zaigun telebista audientzien aisiazko esperientziak ahalbidetu edo ezindu, erraztu edo oztopatu, mugatu edo baldintzatzen dituen da. Ikuspegi horretatik, ezin onar dezakegu telebistaren ikusmen eredu norantza bakarreko gezian agortzen denik.

Antzerako zentzuan, John Hartleyk zalantza interesgarria plazaratzen du, honakoa dioenean: «...azken mendean zehar, zinemak, irratiak eta telebistak giza kontalaritza sistema industrialera eskalatu dute, non milioika lagunek ikusten duten, baina apenas ehuneko batek egiten duen idazketa»<sup>247</sup>. (Hartley, 2009: 132). Hartara, XX. mendean zehar telebistak «koblakari funtzioa»<sup>248</sup> (Fiske & Hartley, 2003; Hartley, 2008) komunikabideen ekosistema berrian zalantzan dagoela azpimarratuko du ikerleak, igaro den mendeko norantza bakarreko kontalaritza multimedia gaindituta dagoelako hein handi batean. YouTube guneak «estilo zaharreko telebistaren eta berriaren» (Hartley, 2009: 133) arteko ezberdintasuna ezin argiago adierazten duela uste du ikerlariak, tresna digital berriekin telebista testuak berregin, sortu eta argitaratzen dituen geroz eta jende gehiago dagoela gogoraraziz.

Aisiazko esperientzian oinarritutako telebista ikustearen azterketarako eredu batek ezinbestez gainditu beharra du ikusmenaren eredu norantza bakarreko bat, eta telebistaren ulermen, erabilera eta interpretazio ezberdinei lekua egingo diena proposatu behar du. Telebista ikustea, zentzu horretan, pantailaren aurreko irudi eta soinuen hartze hutsa baino gehiago aisiazko praktika eta aisiazko esperientzia bilakatzen da, esanahi eta ulerkera ezberdinak pilatuz. Telebista, dela estilo zaharrekoa edo berrikoa, Hartleyren hitzetan, ez dago isolatuta komunikabideen ekosisteman, ez eta haren ikus-entzuleak ere. Norantza bakarreko kontalaritza edo ikuste ereduak, pantaila bakarraren aurreko esposizio denboraren neurketak eta alderaketa demografikoak ez dira nahikoa, ikus-entzuleen esperientziak miatzeko.

Ardura horrekin abiatzen da lan honen hirugarren kapitulua, «Telebista eta Ikus-entzuleriaren Ikerketa», ikus-entzuleriaren ikerketek ikus-entzuleriaren jardura objektibo eta subjektiboaren eta telebistarekin lotutako aisiazko esperientziei buruz ein dezaketen ekarpenetan sakontzeko asmoz.

<sup>247</sup> «... over the past century, cinema, radio and television have all organized and scaled human storytelling into a industrial system, where millions watch but mere hundreds do the writing».

<sup>248</sup> «Bardic function».

## 1.11. LABURBILDUZ: TELEBISTAREN IRAGAITEA

Bigarren kapitulu honetan telebistak komunikabideen ekosisteman duen posizioa eta eragina aztertu ditugu, eraldaketa teknologiko, industrial eta sozialek eragin eta baldintzatu dituzten leku-aldaketak eta mugimenduak elkarren harremanean jarriz. Espazioaren metafora garrantzi handikoa izan zaigu horretarako, eta komunikabideen eta espazioaren arteko harremanak miatuz hasi gara, espazio mediatikoaren eta komunikabideen paisaiaren irudiak erabiliz egun telebista kokatuta dagoen komunikazio sistema berpentsatzeko.

Bigarren zatian, komunikabideen bateratzeak edo konbergentziaren kontzeptua ekarri nahi izan dugu gurera, alde batetik bat-etortze teknologiko eta industrialaren arrastoak aztertuz zinema, irratia, internet, prentsa eta telebistaren kasuan, eta bestetik hedabide anitzeko espazio mediatikoetan kontakizun eta ekoizpen modu berriak mahai gainean jarriz. Hala ere, garapen teknologikoaren garrantzia oso kontuan izan arren, determinismo teknologiko oro uxatzen saiatu gara, bateratze teknologiko-industrialaz harago, ikus-entzuleen baitan zabaldu diren aukera eta operazio modu aztertzeke, honek dakartzan erronka nagusiak gogora ekartzearekin batera.

Amaitzeko, komunikabideen ekosistemaren figura proposatu dugu eszenatoki berriaren izaera konplexu eta harremanezkoa jasotzeko. Bertan, komunikabideen ekologiaren terminoa berreskuratu dugu, aitzindarien eskutik, eta telebistarentzat eta telebistaren ikus-entzuleentzat izan ditzakeen ondorenak azaleratzen saiatu gara.

Kapituluarekin amaitzeko, komunikabideen bat-etortze eta digitalizazioaren garai honetan telebista zer den eta telebista ikustea zer den zalantzan jartzeko arrazoiak bildu ditugu, gailu elektroniko, praktika sozial eta aisiazko errealitate bezala aurkitzen den bidegurutzea aitortuz, eta ikerketarako eskaintzen dizkigun aukerak azpimarratuz.

Behin telebistaren «lekuari» buruz hitz eginda, hurrengo kapituluan lan honen benetako protagonistengana zuzenduko dugu begirada; telebistaren zerizanaren giltza izanik ere, sarri isil eta mutu aurkitu ohi diren horietara, telebistaren eta ikus-entzuleen arteko harremanak aztertzeke.

Asperten da jendia, eta telebista pizten du.

Anari eta Petti. *Asperkeria.*

---

### III. KAPITULUA

## TELEBISTA ETA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETA

---

Lan honen lehen atalean, aisia eta aisiazko esperientziari buruz aritu gara, Aisiazko Ikaskuntzek bi gai horien inguruan egindako ekarpen nagusiak aurkeztuz. Bigarren atalean masa komunikabideek jasandako eraldaketak mahaigaineratu ditugu, espazio, paisaia eta ekosistemaren kontzeptuek komunikabide ezberdinek eta haiekiko eta haien arteko harremanek egungo gizartean duten zeresana argitu nahirik. Hirugarren atal honetan lanaren berariazko protagonistei helduko diegu, telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak bizi dituzten ikus-entzuleei, eta berauek aztertzen dituzten dituen Ikus-entzuleriaren Ikerketari.

Audientzia, publiko eta ikus-entzuleria terminoen arteko bereizketak ematen dio hasiera atal honi, bakoitzaren erabilerak eta ezaugarriak laburbilduz, eta lan guztian zehar erabiliko ditugun kontzeptuak finkatuz. Ondoren, telebistaren ikus-entzuleriak aztertzeko arrazoiak aurkeztuko ditugu, telebista ikusteari egungo gizarteetan eskaintzen zaion denborari, eta telebistak gure gizarteetan hartzen duen lekuari buruzko argudioak bilduz. Jarraian, audientzia-ikerketak agertzen dituen muga tekniko eta metodologikoak aurkeztuko ditugu, ikus-entzuleen neurketara bideratutako audimetriaren kontzeptuak berrikusiz eta ikus-entzuleriaren ezagutzarako planteatzen dituen gabeziak mahaigaineratuz.

Hurrengo atalean, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren aurrekari, metodologia eta ikerketa-ardatz nagusiak ekarri nahi ditugu gogora, britainiar Kultur Ikasketetan jarritik lehenik arreta, bertan kokatzen baitira erreferentziazkoak zaizkigun zenbait autore. Lan honetarako bereziki esanguratsuak diren zenbait ikerketa ildo aztertuko ditugu ondoren: ikus-entzuleria eta familia; telebistaren zentzu, esanahi eta plazeraren zirkulazioa; adin taldeak eta belaunaldiak, eta ahozkotasuna.

Bukatzeko, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren eremuaren egungo Europako egoera berrikusiko da, ikerlan ezberdinetan burututako hautu metodologikoak aztertuz Frantzia, Espainia, Austria, Belgika, Suitza, Finlandia, Erresuma Batua eta Portugalen kasuan eta Europar panoramaren ezaugarri orokorrak deskribatuz. Azkenik, eremura euskaraz egindako ekarpen nagusiak aztertuko dira, aukera metodologikoak eta terminologikoak lan honen asmoekin alderatzeko.

### 3.1. IKUS-ENTZULERIAK DEFINITUZ

---

Ikus-entzuleriaren ikerketa moduetan eta eremuaren egungo egoeran sakondu aurretik, lehenik eta behin argiketa terminologiko bat burutzea ezinbestekoa da, nahasmen handia baitago errealitate ezberdinak (bai objektiboak, bai subjektiboak)

izendatzerako orduan. Ez bakarrik euskaraz ikus-entzuleriaren inguruan burututako lan akademikoak kantitatean eskasak direlako<sup>249</sup>, baita, bigarren kapituluaren ikusi bezala, komunikabideen ekosistema eraldatze prozesu sakon eta azeleratua dagoelako ere, non ikus-entzuleriaren nozioa etengabeko ezbai eta birdefinizioan dagoen.

Definizio ezaren harira, gainera, komunikabideen ekosistema osoan gertatzen ari diren eraldaketak komunikazioarekin lotutako kontzeptu gehienei eragiten ari zaizkiela ikus daiteke. Testuaren ideia bera kasu paradigmaticoa da. Ikus-entzuleriak eurak izan daitezten aurrebaldintza da testua zentzu zabalean hartuta, eta, Threadgoldek jaso bezala, testua komunikabideen ikerketan gehien erabilia eta gutxien definitua den terminoa da aldi berean (Threadgold, 2005: 345). Hasiara batean Idazteun edo Eskritura Santuei zuzentzen zitzaion berba. Idatzi edo inprimatutako mezu oro, interpretatu edo balora daitezkeen edozein mezu edo zeinu sorta deskribatzeraino zabaldu zen hogeigarren mende erdialdeko filosofiaren bira linguistikoz geroztik, zehazki bereiz zitezkeen mugak lausotuz.

Multimedia bateratzearen eta komunikabideen ekosistemaren eraldaketan ondorioz, testua ez da, dagoeneko, lehen zena, ikus-entzuleriak eurak lehen zirena ez diren bezala. Brian L. Otték ere hala jaso du:

Egun, komunikabideen adituek abesti, film, interneteko gune, bideo-joko eta telebista saioak, denak dituzte testutzat. Komunikabideen ikaskuntzetan, hortaz, testua kode diskurtsiboaren sorta egituratua da, ikusizko zeinuz nahiz zeinu linguistikoz osatua, zeina esanguratsua eta atsegingarria izan daitezkeen ikus-entzuleria [jakin] batentzat.<sup>250</sup> (Ott, 2008: 97).

Testua, zeinuen ehundura bezala ulertuta, idatzizko erregistrotik aldenitu eta irudiz, ikusizko zeinuz, komunikatu daitezkeen mezu oro adieraztera heldu da. Otték ez du entzunezko testurik aipatzen definizioan, baina era berean argudia daiteke zeinu sorta garaikideak ez direla ikusizkoak soilik, multimedia direla, ikus-entzunezkoak direla, adibidetzat dituen film, webgune, bideojoko eta telebista saioak bezala. Definizio saiakera aski zirkularra da, noski. Ikus-entzuleriek -edozein ikus-entzuleriak- testua behar duten bezala, testu orok behar baitu ikus-entzuleria, testu gisa funtzionatzeko. Kode diskurtsiboaren izaera (idatzizkoa, ikusizkoa, entzunezkoa, multimedia...) eta beraien antolaketa delakoa dela, esangura edota esperientziaren posibilitatea irekitzen duen aukera da testua, baita telebistakoa ere. Testua eta ikus-entzuleria elkarrekin eratzten diren errealitateak dira; bataren izaerari besteak eusten dio, ezinbestean.

Zentzu horretan, Shaun Moores-ek ohartarazi bezala, «Ez dago komunikabideen ikus-entzuleria bezala isolatu eta identifikatu dezakegun erakunde egonkorrik, ez eta

<sup>249</sup> Ikus *Euskarazko ekarpenak Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzetara* azpiatala.

<sup>250</sup> «Today, media scholars refer to songs, films, internet sites, video games, and television shows all as texts. In media studies, then, a text is a structured set of discursive codes comprised of visual and/or linguistic signs that is potentially meaningful and pleasurable for an audience».

arazorik gabeko objektu bakar bat ere guk azter eta beha dezagun ‘hor’ dagoena».<sup>251</sup> (Moore, 1993: 1-2). Ezegonkortasun eta problematika berberak aurkitzen ditugu telebistaren ikus-entzulerietan, ikus-entzuletzaren mugak iragazkorak eta aldakorak baitira. Ikus-entzuleriaren azterketa abiatzen duen erakundeak, galderak formulatzeko moduak berak eta abiapuntu epistemologikoak eraikitzen dute ikus-entzuleriaren konstruktua. John Hartley ikerlari beteranoak esana da: «...kasu guztietan produktua fikzio bat da, zeinak irudikapena burutzen ari den erakundearen beharrei erantzuten dien. Ikus-entzuleria ez da inoiz ere ‘erreal’, edo eraikuntza diskurtsibo-kanpoko»<sup>252</sup>. (Hartley, 1987: 125).

Argiketa terminologikoaren lehen pausu gisa audientzia, publiko eta ikus-entzuleria kontzeptuak jorratuko ditugu hurrenez hurren. Terminok gurean duten onarpen maila handia iragarle, industria eta kontsumitzaileen arteko harremanak kuantifikatu eta moneta komun bat ezartzeko ahaleginetik eratorria da hein handi batean<sup>253</sup>. Edorta Arana irakasleak aipatu bezala, «Ikerketa horietan ikus-entzuleria zenbatuta eta sailkatuta gero, gehienetan, publizitatearen bidezko diru trukerako» erabiltzen baita (Arana, 2008: 349). Ikerketa akademikoa ere ez da negoziazio eta tentsio terminologiko hauetaz libre; komunikazioaren ingurune aldakorrean Hartleyk fikziozkotzat hartzen duen konstruktua definitzeko beste eragile bat besterik ez da. Berba horiek ageri dituzten «erakundeen beharrak», ezkutatu baino, azalaraztea beharrezkoa da, labur bada ere, iker-objektuari hobeto heldu asmoz, termino bakoitzaren ahalik eta erabilera zehatzena mugatu eta lan honi dagozkion beharrei erantzuteko.

### 3.1.1. AUDIENTZIA ETA ESPOSIZIOA

Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultatetik abiatutako «Glosategia Komunikazioaren Gainean» elkarlaneko webgunean honela jasotzen da euskarazko audientzia berba: «audientzia. (audiencia, audience, audience) (Ik-entz.) Hedabide desberdinak irakurri, ikusi edo entzun dutenek osaturiko jende-multzoa. Irratiaren eta telebistaren kasuan, audientziaren partaide kontsideratuak izateko nahikoa da hargailuak martxan daudeneko tokian egotea». (Aiestaran *et al.*, 2009).

Esanguratsua da, oso, glosategiak eskaintzen duen definizioa. Hasteko, mezuaren hedabidea du oinarri audientziak, berau irakurri, ikusi edo entzutean osatzen baita, ez lehenago ezta ondoren ere. Hargailua –irratia, telebista edo testu idatzia dela–, mezua igortzeko euskarri fisiko elektronikoa piztean edo idazkia zabaltzean hasten da audientzia, hedabidea «martxan dagoen» tokietan bilduta dagoen jende-multzoa

<sup>251</sup> «There is no stable entity which we can isolate and identify as the media audience, no single object that is unproblematically ‘there’ for us to observe and analyse».

<sup>252</sup> «in all cases the product is a fiction which serves the needs of the imagining institution. In no case is the audience ‘real’, or external to its discursive construction».

<sup>253</sup> Ikus Azterketaren mugak azpiatala.

bezala ulertuta. Liburua edo egunkaria itxi, irratia itzali edo telebista amatatutakoan amaitzen da audientzia. Denbora eta espazio konfigurazio zehatz baten bat etortzea eskatzen du, hortaz, eta zuzen-zuzenean lotzen zaio rating<sup>254</sup> eta share<sup>255</sup> bezalako kontzeptuei. Bestela esanda, lan honen telebistaren *aldiari* egiten dio soilik erreferentzia, *astia* eta *aisia* bazterrean utziz.

Are gehiago zehazten da kontzeptua «audientzia metatu» terminoaren definizioan: «audientzia metatu. (audiencia acumulada, reach, audience cumulée) (Ik-entz.) Denbora batez –nahikoa izaten da minutu bat– zenbat jendek entzun duen irratia edo ikusi duen telebista». (Aiestaran *et al.*, 2009). Irizpidea denbora eta espazioari zuzentzen zaio, berriro ere: zenbateko (zenbat pertsonak, zenbat minutuz) esposizioa dagoen komunikabide zehatz baten edukietara. Audientzia, hortaz, une zehatz batean piztutako hargailu kopuru baten presentzian dagoen jende kopuruaren estimazio estatistikoa da; ikus-entzunezko jarioarekiko esposizio fisikoa. Ez ditu barne hartzen esposizio horrekiko erantzuna, arreta edo ardura. Ez da kezkatzen ikus-entzuleak esposizioari ematen dion erabilera edo balioarekin. Audientziaren kontzeptu honek esposizioaren neurketarako sistema bat eskatzen du ezinbestez, eta sistema horri audimetria deritzogu:

Audimetria. (Audimetria; People Meter; Audimétrie) (*Ik-entz.*) Telebistaren zein irratiauden audientzia modu automatizatuan neurtzeko sistema. Etxeetan jarritakoen zein soinean eramaten dituzten tramankuluen bidez, panelkideek zein irradi edo telebista ikus-entzuten duten jakin daiteke. Jasotako informazioa datu-basera igortzen da telefonoz egunaren amaieran, eta, biharamunerako, bezeroen esku dago. Audimetriaren historian eredu desberdinak erabili dira, etxebizitzakoa (house-hold/set meter), pertsonala (people meter) eta eramangarria (portable meter). (Aiestaran *et al.*, 2009).

Komunikabideen kontsumo eta esposizioaren neurketa kuantitatibo modu honetarako arazo ugari planteatzen ditu<sup>256</sup>, eta neurketarako metodo eta teknika ezberdinek etengabeko kritika eta eztabaidak erakartzen dituzte. Komunikazio eragile ezber-

<sup>254</sup> Rating edo batezbesteko audientzia honela definitzen du glosategiak: «(audiencia media, rating, audience moyenne): kanal/programa zehatz bat ikus-entzun dutenen ehunekoa, populazio osoa (edo honen baitan mugaturiko xede-talde bat) kontuan hartuta. Kopuru hori kalkulatzera, irradi-telebista piztu ez dutenak ere kontuan hartzen dira eta, gainera, ikus-entzuleen batez besteko kontsumoa erabiltzen da erreferentzia gisa. Hau da, denbora-tarte batez (minutua erreferentzia gisa eta hortik gorakoak, eta baita programak, eguneko emisio-ordu guztiak...) telebista ikusi dutenen kopurua, kontuan hartuz zenbat denbora ikusi duten eta minutu desberdinetan gertatzen diren errepikapenak kontabilizatuz. Beste era batera esanda: programa baten minutu bakoitzeko batez besteko ikusle-kopurua». (Aiestaran *et al.*, 2009).

<sup>255</sup> Share edo kuota berri, honela definitzen da: «kuota. (cuota, share, part de marché/part d'audience/part de volume d'écoute) (Ik-entz.) Irratia edo telebista kontsumitu dutenen artean kanal/programa bakoitza ikus-entzun dutenen zenbatekoa, ehunekotan». Aiestaran *et al.*, 2009).

<sup>256</sup> Ikus, berriro ere, Audientziaren azterketaren mugak azpiatala.



dinak (industria, kontsumitzaileak, iragarleak, akademia...) adostasun ezerosan daude kasurik onenean, komunikazioaren ekosistema bateratze eta digitalizazio prozesuaren eraginez anitzagoa, aldiberekoagoa eta transmediatikoagoa bilakatzen doan heinean Hala ere, audientziak eta audimetriak, esposizioaren neurketaren eta pisatzearen zentzu hertsia honetan, eragin eta zentraltasun handia dute oraindik ere ikus-entzunezkoen merkatuan. Are gehiago, digitalizazioak eta internet bidezko ikus-entzunezko eta idatzizko edukien kontsumoak audimetria eta kontsumoaren jarraipenaren modu berriak zabaldu ditu, hurrengo egunera arte itxaron beharrik eza eta unean-uneko web azterketak eta erabiltzaileen ohitura eta lehentasunei buruzko informazio zehatz eta bereziak ahalbidetuz.

Lan honi begira, *Glosategiak* egindako auzolana eta, telebistari dagokionez, merkatu eta gizarte mailan duen onarpena ikusita, audientzia lerro hauetan aipatutako esposizioaren neurketa eta zenbaketarekin zehazki lotuta erabiliko dugu, autoreak bestelako esanahi bat duen «audientzia» berbaren aldeko hautua egin duen kasuetan ez bada. Hala, audientzia komunikabidearekiko harreman kuantitatiboen neurketa estatistikoa bezala defini dezakegu, gakoa, betiere, esposizioa dela kontuan izanik.

### 3.1.2. PUBLIKOAK ETA PRESENTZIA

Masa komunikabideak eta berauen testuak aipatu ditugu audientzien artikulazioarako *sine qua non* aurrebalditza bezala: testua zabalduko duen hedabiderik gabe, berau islatuko duen hargailurik gabe ez da, ezin da izan, audientziarik. Hargailua itzaltzean, liburua ixtean, seinalea amaitzean, desagertu egiten da haren audientzia, harremana etenda, erlazioa apurtuta. Baina bada beste oinarrizko kontzeptu bat, testuaren eta irakurlearen arteko harremanaren afera problematizatzen duena: publikoa.

Michael Warnerrek *Publikoak eta kontrapublikoak*<sup>257</sup> (Warner, 2002) lanean ohar-tarazten digun bezala, publikoaren kontzeptuak modernitatearen eraikuntzan eta egungo gizarteetan izan duen garrantzia kontuan hartuta, bitxia da publikoa zehazki zer den erantzutea zein zaila den ikustea. Ikerlariaren arabera, bereizketa egin beharra dago publikoaren eta publiko *baten* artean<sup>258</sup>. *Publikoa* «gizarte osotasun mota bat»<sup>259</sup> den artean (Warner, 2002: 49), orokorrean, denbora eta espaziozko esposiziozko aurrebaldintzarik gabeko kategoria orokor bezala; *publiko bat*, aldiz, «bigarren gauza bat ere izan daiteke: audientzia jakin bat, bere burua espazio ageriko batean dakusan jendetza, antzerki publiko baten kasuan bezala» (Warner, 2002: 50)<sup>260</sup>. Halako kasue-

<sup>257</sup> Publics and counterpublics.

<sup>258</sup> «The public» eta «a public».

<sup>259</sup> «The public is a kind of social totality».

<sup>260</sup> «A public can also be a second thing: a concrete audience, a crowd witnessing itself in visible space, as with a theatrical public».

tan, musikariak, antzezleak, bertsolariak edo kirolariak badaki zein tamainakoa den bere publikoa, nolakoa den gutxi gorabehera haren erreakzioa eta zenbat iraungo duen bere harremanak. Baina bada autoreak aipatzen duen hirugarren publiko modu bat ere: testuen eta berauen zirkulazioarekin harremanean sortzen dena. Hirugarren modu horri egiten dio erreferentzia Anjel Lertxundik bere «Eskarmentuaren Pape-rak» saiakera biografikoan:

Ezaugarri, gustu, apeta berdintsuen ore halako batek osatutako giza multzo bat da publikoa. Identifikagarria. Berdinekin berdintzen delarik, uniformetasunak ematen dio indarra. Publikoak merkatua eta merkatuak publikoa, biek dute elkarren premia, bi-biek bazkatzen dute elkar, bi-biek elikatzen dute esparru bera. Eginda, osatuta, egituratuta dagoen giza corpus jakin batentzat idaztea da publikoarentzat jardutea. Harekin ez haustea, hark eskatzen didana ematea, haren gustura makurtzea. Irakurlearentzat idaztea, aldiz, perfil jakinik gabeko nor anonimo batentzat aritzea da. Arriskatzea. (Lertxundi, 2009: 63-64).

Idazleak ez daki zein izango den irakurlearen erreakzioa. Ez ditu ezagutzen irakurketak hartuko dituen denbora eta espazioa. Ez daki noiz hasi eta noiz amaituko den irakurlearen eta liburuaren, eta, hortaz, irakurlearen eta idazlearen arteko harremana. Idazlea –eta ez soilik testu idatzien idazlea– arriskatu egiten da irakurleareki-ko, ez du arriskatzea beste erremediorik, liburuak –pantailak, hargailuak, egunka-riak, paperak– komunikazioaren bitartekari gisa diharduen artean.

Oro har audientzia masa-komunikaziorako hedabideei lotu izan zaio, eta publi-koa, aldiz, zuzeneko jazoeren hartzaile edo lekukoei. Bestela esanda, hedabidearen bitartekaritzaz gertatzen den komunikazioan audientziaz hitz egin bada, zuzeneko komunikazioan (antzerkian, kontzertuetan, kirol ekitaldietan...) publikoa da gailen-du den berba. Hala, audientzien eta publikoen azterketek tradizio eta diziplina ez-berdinetatik jaso dute beren emaria, haien jardunean lehentasun ezberdinak ezarriz, sarri errealitate gainjarriei erreferentzia egin arren. Baina, XXI. mende hasieran, gero eta irristakorragoa da komunikazio zuzena eta komunikazio mediatua argiro berei-zteko lana.

Livingstonek jaso bezala, publiko eta audientziak errealitate bereiztu eta kontrako bezala aurkeztea gero eta zailagoa bilakatu da: «...komunikabideen eta ko-munikazioaren ingurumen aldakorak –publikoen bitartekaritza eta audientzien parte-hartzea ezaugarri dituela– kontraktotasun hau problematizatu egiten du; pu-bliko eta audientzien artean kokatutako zalantzazko objektu harrigarrien agerrera argudioa ilustratzeko erabilia da»<sup>261</sup> (S. Livingstone, 2005: 17). Ustez audientziarenak ziren jasotze pasiborako joerak zuzeneko ekitaldietan eman daitezkeen (eta ematen diren) neurri berean, publikoarenak ziren parte-hartze, erreakzio, protesta eta iruz-

<sup>261</sup> «...the changing media and communications environment – characterised by both the mediation of publics and the participation of audiences – problematises such an opposition; the emergence of intriguingly ambiguous objects situated between public and audience is used to illustrate the argument».

kinerako gaitasunak hartzen ari dira ikus-entzunezko komunikabideen audientziak ere. Ikus-entzuleriek hartze, parte-hartze, kontsumo eta sormenerako bide berriak agertzen dituzte, tradiziozko praktika sozialak mantenduz aldi berean. Tradizioz audientziak eremu pribatuan kokatu izan dira, etxeko esparruan; publikoak, aldiz, kale mailan, eremu publikoan geratu dira. Banaketa hori ere ezbaian dago: espazio mediatikoan emandako aldaketek<sup>262</sup> presentzia, eta ausentzia, urrunekoa eta hurbila, pribatua eta publikoaren arteko harremanak eraldatu dituzte, audientzia eta publikoaren arteko bereizketa berriro ere zaiduz.

Edozelan ere, gaiari buruz luze eztabaidatu daitekeen arren, eta komunikabideen ekosisteman gertatzen ari diren aldaketek terminoa behin betiko mugatzea problematizatu dutela aitortu arren, *publiko* berba komunikabideen bitartekaritzarik gabe jazoeren zuzeneko lekukotza fisikoari lotuta erabiliko da lan honetan, ulergarritasunaren mesedetan, betiere autoreak berriaz kontrako intentzioa agertzen ez duen artean. Horrela, publikoa jazoera baten lekukoaren multzo irudikatu bezala defini dezakegu, printzipioz komunikabideen bitartekaritzarik gabe, zuzeneko harremanean ematen dena. Publikoaren gakoa, hortaz, presentzia izango da, jazoeraren edo diskurtsoaren berri zuzenean izan ahal izateko besteko espazio, denbora eta arretaren aldireratasuna. Adi ez dagoen publikoa ez da publikoa, aretotik alde egin duena publikoa ez den bezala.

### 3.1.3. IKUS-ENTZULERIA, IKUS-ENTZULETZA ETA IKUS-ENTZULEAK

Audientzia komunikabide elektronikoen esposizioaren neurketa bezala ulertuko dugula eta publikoak komunikabideen bitartekaritzarik gabeko lekukotza fisikoari lotuko ditugula argituta, lan honen iker-objektuari zuzenean lotzen zaizkion hiru termino argitu behar ditugu: ikus-entzuleria, ikus-entzuletzeta eta ikus-entzuleak.

Ikus-entzuleria eta ikus-entzutea, audientzia bezala, komunikabideen espezifikotasunei lotuta ikusi ohi ditugun berbak dira. Hala, euskaraz, egunkariaren irakurleiaz, irratiko entzuleriaz eta zinema edo telebistaren ikus-entzuleriaz jarduten dugu. Hiru berbek zentzumenetan oinarritutako ikus-entzuleen komunikabideekiko harremanak adierazten dituzte. Baina harreman horiek gailuak piztean hasi eta itzaltzean (egunkaria zabaldu edo ixtean, proiektzioa bukatzean) amaitzen direla auresuposatzea ikus-entzuleen esperientzia eta zeresanarekiko murriztailea da. Ikus-entzuleria terminoak audientziaren eta publikoaren harremanen estatusa, diskurtsoarekiko kontaktua kontingentzia gainditu behar du, egunerokotasunean eta giza esperientzian eman daitezkeen harreman sorta zabalagoa bere barnean hartzeko. Izan ere, telebistarekin lotutako aisiazko esperientziez ari garela, ikus-entzuletzaren izaera esposizio hutsera, jarioaren jasotze soilera mugatzen dela ulertzeak, edo denbora eta espazioaren koordenatu zehatzetatik haratago existitzen ez dela auresuposatzeak lan honen iker-objektuarekiko hurbilketa eragozten du.

<sup>262</sup> Ikus 2. Atalean *Espazio mediatikoa*.

Eider Rodriguezen *Ez dugu ulertzen* blog pasarteak terminoen arteko ezberdintasuna adierazteko baliogarri zaigu:

Lagun baten amonak ez zuen inoiz telebista ulertu. Seme-alabaren batek piztu orduko paretik aldentzen zen eta igandeetarako arropak jantzi arte, ezpainak karminez pintatuta eta ilea tajuz jasota eduki arte ez zen bere aurrera itzultzen. Sofan eseri aurretik kuxinak atontzen zituen, mahaiari distira ateratzen zion eta bertan zeuden trasteak telebistako gizon-emakumeek ez ikusteko moduan apartatzen zituen. Orduan bai, sofan jartzen zen, eta ez edozein gisara gainera, baizik eta medikuaren edota alkate jaunaren aurrean balego bezala: hankak estu, bizkarra zuzen, kokotsa behehitarik. Etxekoren bat pijaman inguratuz gero errieta egingo zion eta zer esanik ez norbait mantan bilduta sofak irentsita aurkituz gero. Ez zegoen senila, ezta burua galduta ere, baina egunero itzultzen zizkion Maddalen Iriarteri egun onak. (Rodriguez, 2011).

Audientzia, publiko eta ikus-entzuleriaren ondorengotasun polita eskaintzen digu pasarteak. Ez dakigu audimetrarik instalatuta duen ala ez, baina estatistikoki pasarteko amoma ETB1eko audientziaren partaide da, baldintza guztiak betetzen baititu (igandeetako arropa jantzita telebista aurrera itzulitakoan behintzat). Bestalde, publikoarena egin baino, telebista du publiko, aurkezlearen aurrean dotore eta txukun egon nahi baitu, aurkezlearen egun onei egun onez erantzuten baitie, edukazioz. Harreman zuzena, bitartekorik gabea bizi du, telebistako aurkezlearekin; aurrez-aurrekoa. Pertsonala.

Pasarteko protagonistak telebistarekiko duen harremana, telebistarekiko duen ulerkera (edo ulerkerarik eza, Rodriguezen arabera), ezin dugu bere seme-alabarekin parekatu. Ikus-entzule dira bai bata eta bai besteak, Maddalen Iriartek aurkeztutako *Gaur Egun* saioaren ikus-entzuleria osoaren parte, guztiak. Baina telebista piztuaren aurrean bata dotore jantzen da, besteak pijaman edo mantapean goxo-goxo bilduta eguneko berrien berri izateko prest dauden bitartean. Ilobak ez dira aipatzen, baina ziurrenez barregarri, agian ulertezin, litzaieke amomaren portaera. Ezin esan, berez, ikus-entzuleria bera osatzen dutenik. Ez behintzat erabat.

Pasadizoak ikus-entzuleriaren kontzeptua audientzia eta publikoaren kontzeptutik bereizi beharra dakar gogora. Lehenik eta behin, ikus-entzuleriaren kontzeptuak audientziaren opakutasuna gainditzea eskatzen du: kopuru hutsetik aurrera egin ezin hori, telebista ikustea jarduera bat eta bakarra bezala hartze hori, atzean uztea. Telebistaren audientziak jardunaren zenbaketa isolatua, bereizia planteatzen du, ikus-entzuleriak, aldiz, telebistako testuen hartzea eta interpretazioa zein telebistarekiko eguneroko harreman aldakorrek hartzen ditu beregain.

Telebistaren audientziak telebista ikustearen adiera bakartasuna auresuposatzen badu, telebistaren ikus-entzuleriak jardunaren adiera-aniztasuna aitortzeko balio behar digu. Neurri berean, ikus-entzulezta egoera konposatua da, ez bakuna. Izan ere, gogora ekarri beharrekoa da euskal gizarte garaikidean ikus-entzuleriaren parte

izatea ez dela aparteko egoera, ohikoa baizik. Ikus-entzutea gizarte industrializatuetako egunerokotasunean bertan ehundutako jarduera da, bizitza eta iritzi publiko –eta publikatuarekin– estu lotutakoa. Ikus-entzuleak, gizarte garaikidean, eguneroko auzia da, ohikoa, errutinazkoa. Eta gero eta gehiago ikus-entzuleak plurala, komunikabide askotarikoa, aldiberekoa da.

Apartekoa, zerbait izatekotan, komunikabide bakarrarekiko ikus-entzuleak daiteke, audientziaren neurketak aurreuposatzen duen arreta bereizi eta eskusiboa. Publikoa komunikabideen bitartekaritza gabeko lekukotza zuzen bezala definitu dugun arren, komunikabideen ekosisteman geroz eta integratuago ageri zaigun gizartearen ikus-entzuleak ez du zertan publikotasuna ukatu, ez eta alderantziz ere. Bata eta bestea ez dira egoera edota jardun kontrajarriak: publikoak ikus-entzule izan daitezke, eta ikus-entzuleak publiko: aldi berean zuzeneko jazoera baten lekuko, ikus-entzuleen erregistratzaile, banatzaile eta erantzunen ikus-entzule. Ikus-entzuleak, hortaz, ez du publikotasuna ukatzen. Aurreko pasarteko amonak publikotzat du telebista aurkezlea, ez hala bere seme-alabek. Iloba hipotetikoek aldiz, ziurrenez, telebista aurrean daudela, Twitter, Tuenti edo Facebook darabilte haien eskuko telefonoetan, ikusi edo entzundakoaren inguruan lagun taldearekin solasean aritzeko. Audientzia bera osa lezakete hiru belaunaldiek, baina ikus-entzuleak ezberdinetan dihardute: gainjarriak, elkarren ondokoak, elkar eraginean dauden ikus-entzuleak diren arren, ikus-entzuleria ezberdinak osatzen dituzte haien egunerokotasunean.

Audientziaren kontzeptua diskretua bada ere, zenbatu, zatikatu eta batezbestekotan kalkulatu daitekeena<sup>263</sup> ikus-entzuleria jarraia, konplexua eta partziala da, eta ez dago erabat pertsonen eguneroko bizitzarengandik bereizterik (cf. Silverstone, 1989). Ikus-entzuleak norbanakoak diren arren, ikus-entzuleriak ez dira gizabanako isolatuz osatutako multzo matematiko soilak: ikus-entzuleek elkarrekin hitz egiten dute, telebistan ikusia eguneroko solasaldietarako lehengai bilakatuz, bai lineako mundu digitalean, bai lineaz kanpoko bizitzan ere. Ikus-entzuleek iruzkinak uzten dituzte sarean geroz eta gehiagotan, komunikabideen arteko mugak zeharkatuz edo berrantolatuz, eduki zein iritziak plataformatik plataformara garraiatuz, elkarlanean jadunez, gustoko edukiak azpidatziz, berjabetuz eta berbanatuz.

Orobat, beraz, Ikus-entzuleriaren Ikerketak pertsonen egunerokotasuna, subjektuen irakurketa, esanahi eta plazerak, gizabanako eta taldeen aisiazko esperientzien konplexutasuna aitortzeko besteko gardentasuna eskatzen du. Hartara, ikus-entzuleria komunikabideekiko harremanak dituzten pertsonen multzo irudikatua bezala definitu dezakegu, ikergai den harremanaren arabera modu batera edo bestera artikulatuko dena. Ikus-entzuleak, zentzu horretan, ikus-entzutearen jardueran gertatzen den multzo horretako muga ezegonkordun partaidetza bezala ulertuko dugu.

Azkenik, ikus-entzulea komunikabideekiko harremanak (zentzu objektiboa eta subjektiboa) dituen pertsonatzat hartuko dugu, bere dimentsio indibidual eta sozia-

<sup>263</sup> Rating eta shareetako hamartarrak errealtatean existitzen ez diren arren.

lean. Telebistaren audientziaren gakoa komunikabidearen esposizioa bada, eta publikoaren oinarrian lekukotza fisikoa, bitartekaririk gabeko lekukotza jarri badugu, ikus-entzuleriaren muinean esperientzia finkatu behar dugu, komunikabidearekiko edo komunikabideekiko harremanean aurkitzen den esangura eta zentzua alegia.

### 5. TAULA: AUDIENTZIA, PUBLIKOA, IKUS-ENTZULERIA, IKUS-ENTZULETZA ETA IKUS-ENTZULEAK

Terminoak	Azalpena	Gakoa
Audientzia	Komunikabidearekiko harreman kuantitatiboen neurketa estatistikoa.	Esposizioa
Publikoa	(Bitartekaririk gabeko) lekukoen multzo irudikatua.	Presentzia
Ikus-entzuleria	Komunikabide(ar)ekiko harremanak dituzten pertsonen multzo irudikatua.	Esperientzia
Ikus-entzuletzak	Muga ezegonkordun partaidetza ikus-entzutearen jardueran.	
Ikus-entzuleak	Komunikabide(ar)ekiko harremanak dituen pertsona.	

Iturria: norberak egina.

#### 3.1.4. ZERGATIK AZTERTU TELEBISTAREN IKUS-ENTZULERIAK?

Behin ikus-entzuletzarekin lotutako terminoak zehaztuta, telebista eta ikus-entzuleen arteko harremanak aztertzeke arrazoi nagusiak ekarriko ditugu gurera. Bestela esanda, zergatik da garrantzitsua eta beharrezkoa telebistaren ikus-entzuleriak aztertzea? Aurreko bi kapituluetak metaforetara itzulita, bi abiapuntutatik ekingo diogu lan honi, telebistaren denborari eta telebistaren lekuari erreparatuz.

##### 3.1.4.1. Telebistaren denborak

Telebistak, sarri esan izan da, zeharo eraldatu ditu herrialde industrializatuetako eguneroko ohiturak eta aisiazko jarduerak, gizarteko komunikazio praktika ezberdinei (publizitatea edo propaganda kasu) eman dien garrantzia sekulakoan ez sakontzearen. Livingstonek *Telebistaren zentzua aurkitu nahian: Ikus-entzuleriaren interpretazioaren psikologia*<sup>264</sup> liburuko sarreran jaso bezala, «Telebistak pertsonen eguneroko bizitzan aldaketa itzelak eragin ditu azken hamarkadetan. Teknologia berrietan emandako garapenak eta aisialdiaren hazkundeak masa komunikabideek pertsonen esperientziak eta gizarte munduaren ulerkerak egituratzen eta eragiten jarraituko dutela bermatzen dute»<sup>265</sup>. (S. M. Livingstone, 1998: v). Aisiaren Ikaskuntzen perspektibatik, mundu osoan, industria mailan garatutako gizarte guztietan, modu

<sup>264</sup> Making sense of television: The psychology of audience interpretation.

<sup>265</sup> «Television has made enormous changes in people's everyday lives over the last few decades. Developments in new technologies and increased leisure time ensure that the mass media will continue to structure and influence people's experiences and understanding of their social world».

agregatuan hartuta, telebista ikustea da gehien burutzen den aisiazko praktika. Loaz eta beharraz gero, modu agregatuan gizakiak denbora gehien eskaintzen dion ekintza da telebista ikustea. Horrenbeste, ezen, gizaterian gehien ikusten diren jardueren podium bat egin nahiko bagenu, lanaldiaz, loaldiaz eta telebistaldiaz hitz egin genezake, jarduera honi zuzendutako denbora zenbatuta.

*Zer aldizkariko Gazteak eta telebista 2010n: Ohituren aldaketa* artikuluan López Vidales, González Aldea eta Medina de la Viña irakasleek jaso bezala, «Hasiera batean pentsa zitekeenaren kontra, publikoak ez dio telebista ikusteari utzi, eta entretenitzeko orduan biztanleriaren gehiengoak aukeratzen duen komunikabidea izaten jarraitzen du. Ikus-entzuleriak egun telebista entretenimendurako edo aisirako bide gisa aukeratzen du, eta bigarren maila batean, informaziorako bitarteko gisa». (López Vidales, González Aldea, & Medina de la Viña, Elena, 2011: 97-113: 100)<sup>266</sup>.

Komunikabideen ekosistema digitalak eskaintzen dituen aukerak zabaldu diren arren, eta lehenetasun eta funtzioak aldatu diren arren, ikerlariak argiro azaltzen dute telebistak aisiazko baliabide zentral izaten jarraitzen duela espainiar estatuko biztanleriaren gehiengoarentzat, baita, neurri handi batean, gazteentzat ere. Europako eta Amerikako Estatu Batuetako datuei begiratuta, argi gelditzen da telebista ikusteak ipar-sartaldeko herritarren aisialdiaren zati handia hartzen duela:

Komunikabideen artean ikustaldi altuenak agertzen dituen heinean, telebistaren nagusigoa ukazina da. Batez beste Europan telebista ikusten emandako denbora 208 minututik (2000) edo 224 minututik (2007) 227 minutura igo da (2008an). 2008ko datuek agertzen dute Serbiak (302 minutu) lehenengo aldiz AEB-ak gainditu dituztela (302 minutu) telebistaren denboraren lidergo globalean. Mendebaldeko Europan ikustaldirik altuenen berri Hegoaldean izan da: Grezia (264 minutu), Italia (244 minutu) eta Espainia (238 minutu). Alemania (221) batezbestean kokatzen da, eskandinaviar herrialdeak batezbestekotik behera kokatzen diren artean: Danimarka (175 minutu), Norvegia (174 minutu) eta Suedia (170 minutu)<sup>267</sup>. (IP International Marketing Committee (CMI), 2009).

Europako 2008ko batez besteko 227 minutuak hiru ordu eta 47 minutu dira, batezbeste, egunean. Espainiar estatuan pertsona bakoitzak batezbeste 227 minutu

<sup>266</sup> «Lejos de lo que pudiera pronosticarse en un primer momento, el público no ha dejado de ver la televisión y sigue siendo el medio de comunicación elegido por la mayoría de la población para entretenerse. La audiencia elige hoy la televisión, principalmente, como un medio de entretenimiento o de ocio y, secundariamente, como un medio informativo».


<sup>267</sup> «With the highest viewing time of all media the dominant role of TV is undisputed. The average TV viewing time in Europe went up from 208 minutes (2000) or from to 224 minutes (2007) to 227 minutes (in 2008). The 2008 data show that Serbia (302 minutes) has for the first time displaced the U.S. (302 minutes) as global TV time leader. In Western Europe the highest viewing times are reported from the South: Greece (264 minutes), Italy (244 minutes) and Spain (238 minutes). Germany (221 minutes) is on average, whereas the scandinavian countries are substandard: Denmark (175 minutes), Norway (174 minutes) and Sweden (170 minutes)».

ematen ditu telebista ikusten UTECA<sup>268</sup> Antena 3, Tele 5, Canal +, Cuatro, La Sexta, NetTV eta Veo kateak barne hartzen dituen espainiar telebista komertzialen elkar-teen arabera.(UTECA, 2009). IP Networken estimazioa baino hamaika minutu gutxiago, baina hala ere egunean hiru ordu eta erditik gora egunean, pertsonako.

Noski, aurreko atalean aipatu bezala, telebista ikustea dimentsio eta adiera bakarreko jarduera bezala hartzeak telebista eta publizitate industriaren interesei egiten die mesede, iragarpen-tarteen salerosketan oraindik ere telebistak bere zentralitateari eustea ahalbidetzen baitu. Edonola ere, denbora agregatuari begirata, datuak ikusgarriak dira. Aisialdiaz ari garela, aisiari eskainitako denbora tarteen zenbaketa kuantitatibo soilaz, telebistari buruz jardutea ezinbestekoa da, eta joera honi dagokionez euskal gizartea ez da salbuespena.

EUSTAT Euskal Estatistika Institutuaren «Denbora Aurrekontuen Inkestak» (DAI) egun osoko denboraren banaketa aztertzen du, biztanleen gizarte ohiturei eta eguneroko bizitzari buruzko informazioa eskainiz, 5 urtero. Eguneko 24 orduen banaketari erreparatuz gero, Denbora Aurrekontuen Inkestak 8 kategoriako banaketa aurkezten du, ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan:

## 2. GRAFIKOA: BATEZ BESTEKO GIZARTE-DENBORA, JARDUERA-MOTAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (EHUNEKOTAN ETA MINUTUTAN). 2008




Iturria: norberak moldatua (Eustat, 2009b).

Partaideko batez besteko denbora, edo 16 urte edo gehiagoko biztanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denborari erreparatuz gero (hau da, jarduera mota hau burutzen dutenen artean beroni eskainitako denborari buruz galdetuta), banaketa ezberdina agertzen du Eustaten inkestak, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez:

<sup>268</sup> Unión de Televisión Comerciales Asociadas.




### 3. GRAFIKOA: PARTAIDEKO BATEZ BESTEKO DENBORA JARDUERA-MOTAREN ARABERA (HORRELAKORIK EGITEN DUENEAN), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (MINUTUTAN). 2008



Iturria: norberak moldatua (Eustat, 2009b).

### 4. GRAFIKOA: BATEZBESTEKO GIZARTE-DENBORA, PARTE HARTZAILEAREN AISIALDI PASIBOKO JARDUERA-MOTAREN ARABERA (EHUNEKOTAN ETA MINUTUTAN). 2008



Iturria: norberak moldatua (Eustat, 2009a).

Aisia pasiboari egunero batez beste eskainitako denbora, berau burutzen dutela adierazten duten partehartzailen artean, 191 minutukoa da, oro, har, eta galdetutako biztanleen %93,2ak burutzen du (aisia aktiboaren kategoriaren eguneko 81 minutu eta biztanleriaren %60,4arekin alderatuta). Bestela esanda, fisiologi beharren ostean gizartean hedatuen dagoen jarduera aisia pasiboarekin lotutakoa da, eta, eskainitako denborari dagokionez, lana eta prestakuntza eta aipatu beharizan fisiologikoez soilik agertzen dute balio handiagorik. Denbora Aurrekontuen Inkestan bereziki aisia pasiboarekin lotutako jarduerak moten banaketa zeharo argigarria da, batezbesteko gizarte denborari erreparatuz gero (Eustat, 2009a). Bost kategoria aurreikusten diren arren, aisia pasiboari eskaintako denboraren %89 komunikabideekin lotutako aisiak hartzen du batezbeste, jokoak, ikuskizunetara joatea, zaletasun artistikoak edo egonean egotea askoz atzerago gelditzen dira banaketan.

Eustatek ez du komunikabideekin lotutako aisiaren multzoan telebista ikusteak pisuaren zenbatekoaren inguruko daturik ematen, baina ondorioa argia da: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren artean aisialdiaren zatirik handiena aisia pasiboak darama; aisia pasiboaren zatirik handiena komunikabideekin lotutako aisiak darama<sup>269</sup>, eta komunikabideekin lotutako aisiaren zati handiena telebistak daramala dirudi<sup>270</sup>, hiru lurralde historikoetan ageri diren 846.300 telebista-ekipamenduei erreparatuta (Eustat, 2011b).

Telebistarekin lotutako aisialdiaren ordu kontaketari ekinda, hortaz, ekidiezina da telebistaren ikus-entzuleriaren azterketa sistematikoari ekitea, gizarte jarduera bezala inork gutxik lortzen duen pisua hartzen baitu, eta komunikabideen ekosisteman gertatzen ari diren aldaketak kontuan izanda ere, zentralitatea baitu oraindik ere.

#### 3.1.4.2. *Telebistaren lekua*

Hala ere ez da pisu zenbagarri hau ikus-entzuleak aztertzeke arrazoi bakarra, ezta nagusia ere. Masa komunikabideen ekosistemaren eraldaketek<sup>271</sup> telebista bidegurutze historikoan kokatu dute, bai maila teknologikoan eta baita gizartearen aisiazko jarduera eta ohiturei dagokienean ere. Ikus-entzuleriaren neurketa eta azterketarako formula tradizionalak krisian daude, edukien banaketarako kanaleen ugaltze, espezializazio eta ikus-entzuleen zatikatzea dela eta alde batetik, eta komunikabideen ekosistemaren izaera transmediatiko eta iragazkorraren eraginez bestetik. Telebistaren kokaleku zentral eta hegemonikoa neurri batean agortuta dago, eta oraindik ere itzal eta indar handiko eragilea bada ere espazio mediatikoan, bere jarduera eta izaera aztertzeke moduak berrasmatu beharra dago.

<sup>269</sup> Joera hazkorra agertzen du gainera, 2003an 2 ordu eta bost minutukoa bazen 16 urtetiko gorako EAEko biztanleek komunikabideei batezbeste eskainitako aisialdia, 2008rako 2 ordu eta 38 minutura igo da kopurua. (Eustat, 2011a).

<sup>270</sup> Ordenagailu eta internetaren erabilera aisia aktiboaren baitan kokatzen denez.

<sup>271</sup> Ikus 2. Atala: Telebista Komunikabideen Ekosisteman.

Zentzu horretan, Marie Gillespieren aburuz, ikus-entzuleriak ikertzea garrantzitsua da «komunikabideak boteretsuak direlako, baina haien boterearen izaera eta hedadura ez direlako beti begi-bistakoak»<sup>272</sup> (Gillespie, 2005: 2). Ikerlariaren ustez komunikabideek gure gizartean duten kokalekua eta duten eragina ulertzeko ezinbestekoa da ikus-entzuleriak ikertzea. Telebistaren mezuen hartzaileak ikertuz komunikabideen botereari buruz ditugun usteak ere berraztertu ditzakegu, komunikabideen kontsumoak gizarte hierarkiak, nortasunak eta ezberdintasunak ardaztu eta habetzen dituzten prozesuak ulertzeko. Komunikabideen botereaz eta garrantziaz ari garela, ikus-entzulerien jardunak (objektiboak zein subjektiboak) aztertzea beharrezkoa da, prozesu hauek ulertzeak komunikabideek botere harremanak eta nortasunak birsortzen dituzten moduak ulertzeko zantzuak eskaintzen dizkigulako. Komunikabideak, finean, «ikur, istorio eta esanahi trukaketan diharduten erakunde sinbolikoak dira. Horrela, gizartean hara-hona dabilzan ezagutza eta ezjakintasun, balio eta sinesmen formak moldatzen dituzte»<sup>273</sup> (Gillespie, 2005: 3). Baina noski, komunikabideek ez diote ikur, istorio eta esanahi hauei euren horretan eusten; ez dira gizartearen balio eta sinesmen, ezagutza eta ezjakintasunaren iturri bakarra, ezta hauen azken jasotzaileak ere.

Livingstonek, egungo komunikabideen ekosisteman masa komunikabideak horren sarkorrek eta egunerokoak izanik, hauen bitartekaritza erabatekoa dela iradokitzen du *Denaren Bitartekaritzaren Inguruan*<sup>274</sup> artikuluan: «gizarteko eragin handiko erakunde guztiak eraldatuak, berrosatuak»<sup>275</sup> izan direla ondorioztatuz «bitartekaritza prozesu garaikideen eraginez» (S. Livingstone, 2009b: 2). Hartara, autorearen arabera paradigma aldaketa baten aurrean aurkitzen dira Komunikazio Ikaskuntzak, ez baita nahikoa gizarte eragile ezberdinek komunikabideekin duten harremana aztertzea, komunikabideek gizarte ororengan bitartekaritza egiten dutelako. Aldi berean, hortaz, ikus-entzuleriaren azterketa inoiz baino garrantzizkoagoa eta premiazkoagoa da, eta inoiz baino zailagoa bestelako gizarte praktiketarik bereizten.

Andreas Heppkek ere antzeratsu jardun zuen, komunikabideak aztertzeke komunikabideetan beren beregi zentratu baino, berauek gizarte eta kultura espezifikoe-tan hartzen dituzten artikulazio eta esanguretan zentratzea defendatuz: «...egungo 'mundu mediatizatuen' azterketaren erronka nagusietarikoa da komunikabide eta komunikazioak egunerokoan dituen artikulazio eta garrantziak aztertzean datza,

<sup>272</sup> «... the media are powerful but the nature and extent of media's power over audiences are not always obvious».

<sup>273</sup> «The media are cultural institutions that trade in symbols, stories and meanings. As such they shape the forms of knowledge and ignorance, values and beliefs that circulate in society».

<sup>274</sup> On the Mediation of Everything.

<sup>275</sup> «... all influential institutions in society have themselves been transformed, reconstituted, by contemporary processes of mediation».

berauek hasieratik ontzat hartu gabe»<sup>276</sup> (Hepp, 2010: 46). Heppen ustez, gizarte garikideetan esanahien artikulazioa komunikabideen jardunarekin elkarlotuta dago zalantzarik gabe, komunikabideak gizarte eraikuntzaren eta norbanakoaren bizipenen osagai ukazeina dira, eta, hortaz, ezinezkoa da komunikabideak euren horretan, edo gizarte bere horretan aztertzea, elkarren arteko eraginak aztertu gabe. David Morleyk *Komunikabideak, Modernitatea eta Teknologia. Berria Denaren Geografia*<sup>277</sup> liburuan komunikabideak eta berauen ikus-entzuleriak aztertzerakoan berauek ikus-entzuleen eguneroko bizitzan eta esperientzian txertatzen diren moduak aztertzeko aldarrria egiten du: «komunikabideak 'dezentratu' behar ditugu, gure esparru analitikoan, komunikabideen prozesuak eta eguneroko bizimodua elkarrekin irunduta dauden moduak hobeto ulertzeko»<sup>278</sup> (Morley, 2007: 200). Telebistaren ikus-entzuleriak, hartara, ezin dira bere horretan aztertu, are gutxiago egun bizi dugun bidegurutze teknologiko eta sozialean.

Internet eta sare digitalen garapen azkarrak telebista agerleku ezberdin batean kokatu du: banda zabaleko sare digitalen bidez streaming bidezko eduki multimedialeak eta p2p sareen<sup>279</sup> bitartezko telebista edukien nahi erarako jaitsierak ere ohikoak bihurtzen hasi dira geroz eta ikus-entzule gehiagorentzat. Egun, teknikoki posiblea ez ezik, erraza da telebista saio iparamerikar edo japoniar bat berau igorri eta ordu gutxira eskuratzea internetera sarbidea duen munduko ia edozein puntutatik.

Ez hori bakarrik; telebista edukiok jatorrizko hizkuntzan jasotzeaz gain, ehunka hizkuntza ezberdinetan azpidatziak sortu eta banatzen dihardute sarean zale-komunitateek, bikoizketa profesionalik gabe sarbiderik eskainiko ez luketen testuak ulergarri eginez hainbat hizkuntza komunitateri. Mundu osoan telebistaren ikus-entzuleak antolatuta egiten dira haien zaletasunen inguruan edukiak elkarbanatu, landu, eztabaidatu eta irisgarriago egiteko. Telebista saioek haien hasierako edukiontzia eta emisioaldiak gaingitu eta sarean bizitza ziklo berriak aurkitzen dituzte, zaleen blog, wiki moduko webgune eta komunitate birtualetan nahasketa, interpretazio, erabilera eta esangura berriak ernaraziz. Ikus-entzuleak telebistako testuak berrirakurri, berri-datzi eta moldatzen ari dira, eduki berriak sortuz, zeinak telebistak geroz eta gehiago berriro jabetuko dituen, ziklo bat itxiz eta ziklo berriei hasiera emanez.

Abagune honetan, telebistaren ikus-entzuleriekiko hurbilketa tradizionalak labur eta txiki gelditzen dira, pertsonen telebistarekin lotutako aisiazko praktikak eta esperientziak haien osoan ulertu ahal izateko. Ikus-entzuleak, telebistaren emisioaren

<sup>276</sup> «... all influential institutions in society have themselves been transformed, reconstituted, by contemporary processes of mediation».

<sup>277</sup> Media, Modernity and Technology. The Geography of the New.

<sup>278</sup> «... we need to 'decentre' the media, in our analytical framework, so as to better understand the ways in which media processes and everyday life are interwoven with each other».

<sup>279</sup> «... we need to 'decentre' the media, in our analytical framework, so as to better understand the ways in which media processes and everyday life are interwoven with each other».

hartzaile pasibo soil izatetik urrun, eragile aktibo bilakatzen dira trukaketa sinbolikorako hainbat sareetan, bai eremu digitaletan, baita lineaz kanpoko egunerokotasunean ere. Telebistak aisiazko jarduera horietarako iturri eta erreferentzia garrantzitsu eta zentrala izaten jarraitzen du, baina pantailaren aurreko esposizio denbora ezagutzeari ez da nahikoa telebistak pertsonen aisialdian jokatzen duen papera ezagutzeko.

Hala, Aisiazko Ikaskuntzen ikuspegitik, funtsezkoa da ikus-entzuleek telebistarekin zer, nola, noiz eta zergatik egiten duten galdetzea. Zein motibazio duten telebistarekiko, zer espero duten telebistatik, zein gogobetetze aurkitzen duten telebistan, nola ulertzen duten telebista, eta, finean, zer den telebista, haien eguneroko aisan. Galderoi begira Ikus-entzuleriaren Ikerketatik egindako ekarpen esanguratsuenak laburtuko ditugu hurrengo orrialdeetan, audientziaren neurketak planteatzen dituen mugetatik hasita.

### 3.1.5. AUDIENTZIAREN AZTERKETAREN MUGAK

Audientzien azterketa Ikus-entzuleriaren Ikerketan nagusi den arren, eta komunikabideen ekosistemako eragileen artean adostasun maila handia izanagatik, urrun dago egonkortasun eroso eta behin-betikoa erdiestetik. Unai Brea Argiako kazetariak *Denek onartutako datu distorsionatuak* artikuluan komunikabideen ikus-entzuleriaren neurketa sistemen krisialdian dagoela gogorarazten du:

Milioika euroren joan-etorria telebistako audientzi datuen menpe dago. Datu horiek biltzen dituzten audimetroak gutxiegia direla salatu izan da askotan, baina audientzien jolasean dabilzan guztiek diote kopurua nahikoa dela, eta onartu egiten dituzte datuok. Badakite, hala ere, sistemak arrakala ugari dituela. (Brea, 2011).

Izan ere, egungo neurketa sistemen onura eta akatsetan sakondu aurretik, ezinbestekoa da Ikus-entzuleriaren Ikerketan bi ardatz hauek ekidiezinak direla azpimarratzea: iragarpen tarteen merkatuko moneta izaera, eta eragile ezberdinen arteko onarpen edo aitortpenaren beharra. Pertsonak komunikabide elektronikoekiko esposizio mailari buruzko datu multzoak osatzen du (Napoli, 2011b), oraindik ere, iragarkien salmentarako erakarle nagusia. Iragarki tarteen salerosketa horrek lehen mailako garrantzidun negozioa osatzen du, telebista kateentzat. Break berak aipatzen duenez, Telecincin eta Antena 3 kateek 794,6 eta 687,7 milioi euroko sarrera garbiak izan zituzten publizitate-salmentarekin lotuta 2010. urtean. Zentzu horretan, telebista ez dute telebista saioek osatzen, iragarkiek baizik, berauetarako esposizioa baita irakarleei saltzen zaiena, ikusle eta denbora kopurua, gizarte talde ezberdinetan txukun sailkatuta.

Jakin badakigu, eta komunikabideen ekosistemako industria eragileek ere bada-kite, egungo audimetria sistema inperfektua dela. Laginak, estatistikoki onargarriak izanagatik<sup>280</sup>, txikiegiak dira. Kate handienetaz gain programazio berezitua jarraitzen

<sup>280</sup> 350 audimetro daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroako datu zehatzik ez dago, kate autonomiko berezkorik ez duten erkidegoetako daturik ez baita ematen, eta Iparraldeko daturik ere ez da ezagutzen.

duten pertsonen profilak alde batera uzten dituzte, eta horrela kate eta saio ikusienek beharko luketena baino ordezkariak handiagoa lortzen dute. Gainera, Sofres Komunikabideen Ikus-entzuleria panelak 2.800 etxebizitzako laginarekin «espainiar biztanleriaren adierazgarria» dela dioen arren (Kantar Media, 2011), gabezia nabarmenak agertzen ditu euskarazko hedabideen hartzaileen inguruan. Bestalde, etxean instalatu behar den audimetroaren eskatzen duen lanaren truke eskaintzen diren sariak ez dira gizarte talde guztientzat erakargarriak, eta maila soziokulturalaren alde-tik desoreka nabarmenak agertzen dituzte.

Napolik gabezia horiei komunikabideekiko esposizioaren materia iluna deritze (Napoli, 2011b), astronomoek espazioan egon badagoela sumatu arren, zuzenean behatu ezin duten osagaiarekin paralelismoa eginez; behatua ez den ikus-entzuleriaren jarduna, alegia<sup>281</sup>. Komunikabideen espazioan ere, aztertu gabe gelditzen dira errealitateok, bereziki errealitate hauek gutxiengoei, edo komunikabideen erabilera minoritarioei dagokienean.

Geroz eta konplexuagoa bilakatzen ari den komunikabideen ekosisteman, telebista kateak geroz eta ugariagoak dira eta beste komunikabideekin elkargurutzean daude sarri; badirudi materia ilun honek geroz eta espazio gehiago okupatzen duela pertsonen egunerokotasunean. Hala ere, «Denek ematen dute ontzat audimetroaren sistema, inperfektua dela aitortu arren». (Brea, 2011). Lagina txikiegia da, telebistaren ikus-entzuleriaren gutxiengo agerpenak ondo ordezkatu ahal izateko, baina, aldi-zkako kexuak kexu, telebistaren industriak eta iragarleek eurek ontzat hartzen dute, inperfektua dela aitortu arren, alternatiba hoberik ez dagoelakoan. Webster, Phalen eta Lichtyk aipatu bezala, «Ikus-entzuleriak funtsezkoak dira masa komunikabideen eragiketarako»<sup>282</sup> (Webster, Phalen, & Lichty, 2006). Harrapagaitzak, behagaitzak izan arren, egun, adostasuna eta onarpena dira ikus-entzuleriaren monetaren gakoak, ez zehaztasun gradua. Bestela esanda, ikus-entzuleriaren neurketarako industria metodologiek adostasuna dute helburu, ez ikus-entzuleriaren ezagutza sakona.

Bigarren ardatz honek lan honen esparruari zuzen-zuzenean eragiten dio. Moneta bezala, Ikus-entzuleriaren Ikerketak eta bertatik eratorritako ezagutzak komunikabideen ekosistemako eragileen onarpena behar du, merkatuan jarduteko. Break berak dioen bezala, «Pantailaren beste aldean zenbat jende dagoen jakitea ezinbestekoa da, baina kopurua ezagutzea ez da nahikoa» (Brea, 2011) telebista *zenbat* ikusten denaz gain, *nork* ikusten duen ere interesatzen zaio iragarleari. Ikusten duena *zergatik* ikusten duen eta ikusten duenarekin *zer* egiten duen, *zein* zentzu aurkitzen dion, ordea, beste alor bateko galderak bailiran hartu izan dira publizitatearen merkatuan, ikerketa akademikoari dagozkion misterioak bailiran. Baina maila akademikoan ere, gabeziak nabariak dira: ikus-entzuleriaren neurketa kuantitatiboan tradizio handia dagoen arren, azterketa kualitatiboan ekarriak ez du oraino onarpen eta sona bera

<sup>281</sup> Ikus baita 2. Kapituluaren Ikus-entzuleriaren eboluzioa atala.

<sup>282</sup> «Audiences are essential to the operation of mass media».

lortu. Javier Callejok dioen bezala, galdera orok darama neurri batean erantzuna bere barnean, eta «ikus-entzuleria ezagutzeko moduetan, bada jadanik ikus-entzuleriaren interpretazio bat, hartzailearen eta hartzearen eredu bat»<sup>283</sup>. (Callejo, 2001: 66).

Unibertsitate mailako Ikus-entzuleriaren Ikerketan, gehienbat hartzearen eredu kuantitatiboa gailendu da, aipagarriak diren salbuespen garrantzitsuak ere eman diren arren, batez ere Cultural Studies edo Kultur Ikasketen baitan<sup>284</sup>. Callejok zentzu horretan ohartarazten du une historiko bakoitzeko komunikabide nagusiek ikus-entzuleriaren ulerkeretan eragin zuzena dutela; industria eta merkatuak, gizarteko praktika eta ohiturek ikerketaren galderetan, eta ondorioz erantzunetan eragiten dutela. Akademia ez dago garai historikoetatik bereizita, ezta komunikabideen ekosistemaren aldaketetatik at: «...behaketarako tresna eta prozedurak ez dira neutralak; alderantziz, ikus-entzuleriaren irudikapen espezifikoak ekoizten dute. Are gehiago, esan liteke ikus-entzuleriaren irudikapen espezifiko batetatik abiatzen direla»<sup>285</sup>. (Callejo, 2001: 61). Shaun Moores-ek ere zorrotzasunez aurkezten du auzi bera, ikerketaz kanpoko ikus-entzuleriaren existentzia ukatzen duenean (Moores, 1993). Bi autoreak bat datoz ikus-entzuleriaren mugen iragazkortasuna eta ezegonkortasuna azpimarratzerakoan: ikus-entzuleria historikoki eta metodologikoki etengabe ari da eratzen.

Telebistaren eta telebista ikustearen inguruko ulerkera eta eraketa ezberdinek, hortara, Ikus-entzuleriaren Ikerketan metodologia ezberdinei bide eman diete. Bignellek jaso bezala, «Telebista Ikaskuntzek ikus-entzuleriengan eta hauek telebistarekin dituzten elkarreraginetan jarri dute arreta (...) zein programa eta zein programa mota ikusten diren gehien»<sup>286</sup> (Bignell, 2008: 5) hainbat erakundek jasotako datu estatistikoetan oinarrituz. Ikerketa mota horiek hurbilketa kuantitatiboan kokatzen dira erabat, aurretik ere aipatu dugun telebistaren aurreko denboraren kontaktetan alegia.

En Angek 90. hamarkada hasieran deia egin zuen, «buru-kontakteta»<sup>287</sup> hutsetik haratago joateko (Ang, 2006: 46). Ikerlariaren iritziz, rating-en diskurtsoak ikus-entzuleria ezezagun den errealtate behatu gabetik kategoria ezagugarri eta ezagunera bihurtzen du, enpirikoki zenbakitara itzuliz. Eragiketa matematiko honek komunikabideen industriaren beharrei erantzuten die, iragarpen tarteen salerosketarako beharrezkoa den adostasuna ahalbidetuz, baina ez du bere horretan ikus-entzuleriaren

<sup>283</sup> «En las formas de conocer la audiencia, hay ya una interpretación de la audiencia, un modelo de receptor y la recepción».

<sup>284</sup> Ikus Kultur Ikasketei dagokion azpiatala.

<sup>285</sup> «...los instrumentos y procedimientos para la observación no son neutrales, sino que, al contrario, producen una representación específica de la audiencia. Es más, cabe decir que parten de una representación específica de la audiencia».

<sup>286</sup> «Television Studies pays attention to the audiences of television and how they interact with the medium (...) noting which programmes and kinds of programme are watched the most».

<sup>287</sup> «Head-counting».

errealitatea islatzen: errealitate adosgarria sortu egiten du soilik. Audimetriaren aurretik, ez dago zenbakitara itzul daitekeen ikus-entzuleriaren errealiterik. Angen ustez; audimetriarekin, ikus-entzuleria komunikabideen publizitate merkatura bideratutako ondasun bilakatzen da, «telebista ikusten/telebista ikusten ez» dikotomia hertsian oinarriturik. Moores-en hitzetan ere «rating diskurtsoaren logikaren baitan, ‘ikus-entzuleriaren salgaia’ finantza-irabaziengatik trukatzean sortzen da. Bere fikziozkotasunak ez du zertan bere funtzionaltasun ekonomikoa eragotzi»<sup>288</sup>. (Moores, 1993: 3). Morleyk ere gogor ekin izan du buru-kontaktaren aurka *Telebista, Ikus-entzuleriak eta Kultur Ikasketak*<sup>289</sup> lanean. Ikerlariak lau gabezia nagusi ikusten dizkio hurbilketa kuantitatibo hutsari (Morley, 2005: 175-176):

- a. Tebistaren ikus-entzuleriaren ikerketa modu nagusiak ez du, izatez, oro har telebista ikustea neurtzen. Beste aldagai batzuk neurtzen ditu: gailua piztuta egotea, edo pertsonen presentzia gailua dagoen gelan, eta aldagai hauek telebista ikustearen adierazle fidagarritzat hartzen dira.
- b. Ikerketa kuantitatiboak telebista piztea sintonizatutako saioa ikusteko interesaren adierazletzat hartzen du, bestelako arrazoiak kontuan hartu gabe, «‘etxera heltzearen’ esangura duen ekintza-erreflexua»<sup>290</sup> bezala adibidez.
- c. Ikustearen jarduera guztiak norbanakoaren erabakitze prozesuen ondorioztat hartzen ditu, jakin badakigunean telebista sarri taldean ikusten dela. Taldean boterea banatuta dago, eta tebistarekiko aukerak behin eta berriro negoziatu egin behar izaten dira, eta, hartara, sarri norbanakoak beste norbaiten lehentasun eta zaletasun arabera aukerak onartzen ditu, hala erabakita edo behartuta. Hala ere, kontaktetan, aukeraketa prozesua eta telebista testuarekiko zaletasun mailak kanpoan uzten dira.
- d. Ikustearekin lotutako aukerak testuingururik gabe ere baliokide bailiran har daitezkeela ontzat hartzen du, «aukera ‘berari’ emandako esangura ezberdinak»<sup>291</sup> bazterrean utziz.

Finean, Morleyren kritika hurbilketa kuantitatiboak telebista ikustearen jarduera dimentsio bakarrera mugatzen duenean labur daiteke. Tebista ikustea piztuta edo itzalita dagoen pantailaren aurrean egotera murriztuz gero, berau burutzen duten guztientzat esanahi bera eta bakarra duela onartzea dakar.

Zentzu horretan, tebistarekin lotutako aisiazko esperientziak deusezten ditu, adiera bat eta bakarra hartzen baitu telebista ikusteak, norberaren eta taldeko bizipe-

<sup>288</sup> «Within the logic of the ratings discourse, though, an “audience commodity” is created to be traded for financial gain. Its fictionality does not necessarily hinder its economic functionality».

<sup>289</sup> Television, Audiences & Cultural Studies.

<sup>290</sup> «...thus ignoring the different significance given to the ‘same’ viewing choice».

<sup>291</sup> «...thus ignoring the different significance given to the ‘same’ viewing choice».



nei atea itxiz. Ikus-entzuleria zenbatzeak telebista kate zehatza une jakina sintonizatuta izatea ez diren aldagaiak cæteris pãribus edo, beste guztiak berdin baleude bezala ekitea eskatzen du, eta hori, dakigun bezala, ez da horrela: telebista ez da hutsean eta beste aldagai sozial, kultural, ekonomiko eta demografikoetatik modu isolatuan ikusten. Pertsonak ez dio pertsona izateari uzten telebista ikusten duenean, ez dio norbanako izateari uzten saio baten ikus-entzule izateko, gizarteko kide izateari uzten ez dion bezala, aparailua piztu edo itzaltzerako orduan, edo ikusitakoari buruz hitz egitean.

Egungo komunikabideen ekosistema aldakorrean, gaineratu genezake, telebista ikustea beti telebistari eta telebista ikusteari buruzko zenbait aurreiritzi eta gaitasunekin burutzen da, ikus-entzuleen kokapen eta aurretiazko esperientzien arabera. Ulerkera eta ahalmen hauek biztanleria osoaren baitan berdin banatuta daudela suposatzea, biztanleria guztiak zaletasun eta lehentasun berdinak dituela bezain eze-gokia da. Pertsona batentzat telebista etxera heltzerakoan ia-automatikoki piztearen erritualaren parte den bezala, beste batentzat egun osoko irudi eta soinuen atzealdea izan liteke, eta beste batentzat telebista ez da bere esku dauden plataforma multimedia guztien artean beste bat besterik, aldirik aldi funtzio ezberdinak burutzen ditue-na, bai gailu teknologiko bezala, eta baita aisiazko baliabide gisa ere. Konplexutasun eta ugaritasun guzti horiek ikus-entzuleriaren ikerketa kuantitatiboan eragiketarik kanpo gelditzen dira, esposizioaren azterketarako behar-beharrezkoa den araztasun, egingarritasun eta alderagarritasunaren mesedetan.

Bignellek esposizioaren neurketa honi bestelako telebistaren ikerketa mota bat kontrajarri izan dio. Hala, Telebista Ikaskuntzek «... ikerketa independenteak ere bere gain hartzen» dituztela dio «non ikus-entzule taldeei (...) ikusten dutenarekiko dituzten jarrerei buruz galdetzen zaien, eta telebista ikustea nola moldatzen den haien bizitza esperientzian eta izatearen zentzuan»<sup>292</sup>. (Bignell, 2008: 5). Ikerlariak ezberdintasun argia egiten du telebista industriari zuzendutako ikus-entzuleriaren ikerketa eta ikerketa akademikoaren artean.

Lehenengoa, haren ustez, kontsumorako produktuen merkatu berriak identifikatzera zuzentzen den artean, ondasunen salmenta eta produktuekiko erreakzioak neurtuz, bigarrena gehiago zuzentzen zaio, autorearen arabera, telebistak pertsonen bizitza kulturean hartzen duen kokalekua ulertzera, eta nola «plazera, ezagutza eta aukerak sortzen diren (baina baita asperra, haserrea eta atsekabea ere) telebistaren inguruan»<sup>293</sup> (Bignell, 2008: 28). Esan beharrik ere ez dago, lerro hau interesgarriagoa zaigula ikerketa honi begira.

Bigarren zentzu horretan, bereziki garrantzitsua da ikus-entzuleriaren ikerketa

<sup>292</sup> «But it also involves undertaking independent studies where groups of viewers are asked (...) about their attitudes to what they watch, and how their television viewing fits into their life experience and their sense of who they are».

<sup>293</sup> «... how television viewing fits into people's cultural life, and how pleasure, knowledge and opportunities (but also boredom, anger and dissatisfaction) in television arise».

akademikoan etnografiatik egin diren ekarpenak gogora ekartzea. Ikus-entzuleriaren beste ikerlari askok bezala, James Lullek ikerketa etnografikoak antropologiarekin duen zorra esplizitatu izan du 1988an argitaratutako *Erantzun kritikoa: ikus-entzuleria enbarazu bezala*<sup>294</sup> artikuluan. Bertan, diziplina antropologikoari jarraiki, komunikabideen etnografiak informazioa lortzeko sarri ikus-entzule gutxirekiko harreman estuak eta elkarrekintza luzeak baliatzen dituela azpimarratzen du autoreak (Lull, 1988). Horrek berritasun garrantzitsua dakar: unibertsitateko masa komunikabideen ikus-entzuleriaren ikerketa klasikoak eta telebistaren industria mailako ikerketek gehienbat ikus-entzuleria erlatiboki homogeneousoa den masa gisa hartu dute (ulerkera, esangura emate eta interes antzerakoak dituzten norbanakoez osatuta) laginetatik abiatuta unibertso zabalagoen ezaugarriak aurrekusi eta ezagutu ahal izateko. Ikus-entzuleriaren ikerketa etnografikoak, aldiz, batez ere talde txikietan jardun izan du, ikerketako parte-hartzaileak aldagai zehatzen arabera hautatu ondoren.

Bide honetatik arazoa, noski, ikus-entzuleek eskainitako guztitik ikerketaren galderarako esanguratsua den informazioa aukeratzean eta berau testuinguru egokian kokatu eta bertara itzultzean datza, Glasgowgo unibertsitateko Christine Geraghtyk jaso bezala (Geraghty, 1998). Ikerketa kuantitatiboak ikerketa objektuari ez dagozkion aldagaiak *cæteris paribus* mantentzeko, laginaren erantzunetatik unibertso osoari aplikatu dakizkiokkeen ezaugarriak erauzteko. Ikerketa etnografikoa, aldiz, ondorio esanguratsuak ateratzeko parte-hartzaileen informazio anabasa aberatsean murgildu behar da, ikus-entzulerien esperientzia eta zentzu-eraikuntzan sakontzeko.

Bi abiapuntuek, kuantitatiboak eta kualitatiboak, estrategia metodologiko ezberdinak erabiltzen dituzte haien helburuak erdiesteko. Honekin ez da, inola ere, haien arteko osagarritasunik egon ezin denik iradoki nahi. Alderantziz, *Ikerketa (ez soilik) kualitatiboaren defentsan*<sup>295</sup> post laburrean adierazi bezala (Landabidea Urresti, 2009b), aisiaren fenomenoarekiko ardurak ikuspegi eta saiakera metodologikoki anitzetara bultzatzen gaitu. Ikerketa kualitatiboak ezin du ikerketa kuantitatiboa ordezkatu, edo baztertu, ikerketa kuantitatiboak ere kualitatiboa bazterrean utzi ezin duen bezala. Ikuspuntu osagarriak dira, errealtatearen alderdi ezberdinak argitatzeko dituzten fokoak, hala nahi bada, elkarrekin giza errealtatearen zati handiago bat eza-gutzea ahalbidetzen digutenak.

Jensen eta Jankowskyk Hartzearen analisia: masa komunikazioa esanahiaren ekoizpen sozial bezala<sup>296</sup> kapituluaren bereizketa hau Giza eta Gizarte Zientzien arteko ezberdintasunen isla bezala aurkezten dute (Jensen & Jankowski, 1993). Ikerlari bien arabera, gizarte zientziek masa komunikabideen mezuen eta berauen publiko edo ikus-entzulerien elkarreraginaren ikerketa enpirikorako modu berezituaren ar-

<sup>294</sup> Critical response: the audience a a nuisance.

<sup>295</sup> En defensa de la investigación (no solo) cualitativa.

<sup>296</sup> El análisis de la recepción: la comunicación de masas como producción social de significado.

dura hartu duten artean, humanitate edo giza zientzien aldetik masa komunikazioa testuinguru sozialetan esanahia sortu eta zirkularazten duen jarduera kultural bezala ulertu izan da. Beraz, orotara, Jensen eta Jankowskyren arabera, gizarte zientziek ikus-entzuleriaren ikerketa kuantitatiboak hobetsi dituzte tradizioz, giza zientzietan aldiz hurbilketa kualitatiboagoen aldeko apustua egin den artean.

Behin audientziaren azterketaren mugak azalduta, haren osagarri bezala aurkeztu dugun Ikus-entzuleriaren Ikerketaren oinarriak finkatu eta lan honetan erreferentziatzeko izango zaizkigun ardatz nagusiak aurkezteko tenorea heldu zaigu. Horri helduko diogu hurrengo orrialdeetan.

### 3.2. IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETAREN ARDATZAK

Ikus-entzuleriaren Ikerketak ikus-entzuleria sortzen, eraikitzen duela (Callejo, 2001) eta ikus-entzuletzaren mugak iragazkorrak eta ezegonkorrak direla arrazoi-tu ostean (Silverstone, 1996), Ikus-entzuleriaren Ikerketan esanguratsuak izan diren aurrekari teoriko eta metodologikoak gogora ekartzea komeni da, ikerketa honetarako esanguratsuenak diren planteamendunek azpimarratutako iker-ardatzak identifikatu eta gure esparrura ekartzeko. Horretarako sei kasu adierazgarri aztertuko ditugu: Britainiar jatorriko Kultur Ikasketak, ikus-entzuleriaren aktibotasuna eta pasibotasuna, ikus-entzuleria eta familia, adin taldeak eta belaunaldiak, ahozkoitasuna eta telebistaren esanahi eta plazerrak.

#### 3.2.1. KULTUR IKASKETAK (CULTURAL STUDIES)

Kultur Ikasketak deituriko «diziplinarteko joera» (Miller, 2001: 1) Birminghameko unibertsitatean garatu zen 1970eko hamarkadan hainbat metodo, hurbilketa eta ikuspuntu teorikoren multzo bezala. Hastapen haietako autore esanguratsuen artean Raymond Williams (Williams, 1975; 1977), Rosalind Coward eta John Ellis (Coward & Ellis, 1977) eta Stuart Hall (Hall, 1980) aipa daitezke, Richard Hoggart (Hoggart, 1957) eta Edward Palmer Thompson (E. P. Thompson, 1963) aurrekariekin batera. Kultur Ikasketen esparru akademikotik abiatutako telebistari eta telebistaren ikus-entzuleriei buruzko ikerketek sarri telebista herrikoiei<sup>297</sup> eta telebistak gizarteko talde ezberdinen uste eta jarrerengan duen ekarpenei buruzko galderak izan dituzte abiapuntu, *The New Left Review* aldizkarian, edo Nicholas Garnhamen *Telebistaren Egiturak*<sup>298</sup> lanean adibidez (Garnham, 1972). Kultur Ikasketen jatorria Britainia Handian bada ere, haren eragina sarkorra eta indartsua izan da Ikus-entzuleriaren Ikerketaren eremu ezberdinetan. Ipar Ameriketako Hartzearen Ikaskuntzetan adibidez, Jack Bratichek *Jendet-*

<sup>297</sup> «Popular television» esaera erabiltzen da, sarri «high brow» edo «quality television» bezalako kalitate eta izen oneko telebistarengandik bereizteko. Ikus (Bignell, 2008; Miller, 2008).

<sup>298</sup> The Structures of Television.

za aktibatuz: *Ikus-entzuleriaren boterea eta Kultur Ikasketak*<sup>299</sup> lanean (Bratic, 2008) jaso bezala.

Armand Mattelart eta Érik Neveuren arabera (Mattelart & Neveu, 2004), Kultur Ikasketek kulturaren adiera zabal, antropologikoa dute oinarrian: kultura-nazioa harreman hertsia gainditu eta oinarri gisa talde sozialen kultura hartzen duen eztabaida teoriko bezala ulertuta. Dimentsio politikoa isolatu ordez, kulturaren osagai bezala hartzen da, taldeen kulturak ordena sozialaren eta botere harremanen ukazio edo mantenurako jokatzten duen paperaz ardura hartuta, batez ere talde herrikoiena. Hala, Kultur Ikasketen sorrerak Komunikazioaren ikerketak komunikabideak jarduera politiko eta sozial bezala aitortzen hasi ziren unea adierazten duela adierazi zuen Nguyet Ernik (Nguyet Erni, 2001). Funtsean, britainiar Kultur Ikasketak Frankfurteko eskolaren ezkortasun teorikoarekiko erreakzioa bezala ere uler daitezke: Theodor Adorno eta bestek salatutako makineria ideologikoaren aurrean aukerarik gabe, botererik gabe, menperatutako ikus-entzuleriaren berraktibaziorako eta atxamendurako deia.

Frankfurteko Eskolaren masa gizartearekiko ezkortasunak ikus-entzuleriaren ahultasunaren salaketa eta subordinazioa azpimarratu zituen batez ere, masa kulturak kontraesanik gabeko, dimentsio bakarreko mundua aurkezten duela salatuz, eta hartara mundu ulerkera kontserbadore eta kritikaren aurkakoa behartuz hartzaileengan. Adornok *Minima Moralia* lanean, adibidez, makineriak sortutako automatismoa salatu zuen, subjektuak mundu modernoan geroz eta aukerarako aukera gutxiago dituela arrazonatuz: «Eta zein auto-gidarik ez du sentitu tentazioa, motorraren boterean, kaleko zomorroak zapaltzeko –oinezkoak, umeak, txirrindulariak? Makinek operadoreengandik eskatzen dituzten mugimenduetan bertan da jadanik bortxazkoa, danbadazkoa, etengabeko bultzadazkoa dena Faxismoaren tratu txarrean»<sup>300</sup>. (Adorno, 1951: 19). Bestela esanda, Frankfurteko eskolak komunikabideen eta ikus-entzuleriaren «orratz hipodermikoaren» ereduak marraztutako eskenatokia du oinarri, non komunikabideen boterearekiko errezeloa eta beldurra diren nagusi, eta ikus-entzuleria masa anonimo eta babesgabetzat hartzen den. Eredu dikotomiko honetan, komunikabideek botere osoa dute, eta hartzaileek ez dute inolako botererik.

Telebista eta gizartearen arteko botere harremanen inguruan aurkako posizioa hartu zuen Umberto Eco. Alde horretatik ekidiezina da 1972an Birminghameko unibertsitatean argitaratutako *Telebistako mezuarekiko galdeketa semiotikorantz*<sup>301</sup>

<sup>299</sup> Activating the multitude: Audience power and cultural studies.

<sup>300</sup> «And which auto-driver has not felt the temptation, in the power of the motor, to run over the vermin of the street – passersby, children, bicyclists? In the movements which machines demand from their operators, lies already that which is violent, crashing, propulsively unceasing in Fascist mistreatment».

<sup>301</sup> Towards a semiotic enquiry into the television message. Bertan Eco deskodeketa edo interpretazio aberrantearen figura proposatuko du, igorle eta hartzailearen baldintza sozialak oso ezberdinak direnean testuaren irakurketa hartzailearen egoera sozialak determinatuko duela argudiatuz. Ecoren ustez, egoera hau da ohikoena masa komunikazioan, ez alderantzizkoa.

artikulua (U. Eco, 1972) eta 1974an Prix Italia Irrati Telebistako sariaren karira antolatutako Komunikazio Adituen Nazioarteko Sinposioan planteatutako *Publi-koak telebista kaltetzen al du?* galdera formako artikulua gogora ekartzea (U. Eco, 1974; U. Eco, 1982).

Ecoren telebista-testuekiko hurbilketa semiotikoa da, zeinuari eta esangurari dagokiona, eta Kultur Iasketen tradizioarekin bat dator hartzaile- gerrila semiologiko batetarako aldarria proposatzerakoan (U. Eco, 1986). Ikerlari italiarraren arabera, hartzaileari dagokio komunikabideen seinalea mezu bilakatzea, testu bezala aitortu eta honen inguruan esangura artikulatzea: hartzaileak seinalea mezu bilakatzen du, baina mezu hau orandik forma hutsa dela deritzo, zeinari esangura ezberdinak egotzi ahal izango dizkion, erabilitako kodearen arabera. Ecoren planteamendua zinez interesgarria den arren, komunikazio prozesuari dagokio soilik, eta ez du komunikazio prozesuek komunikazioaren azken eragile deritzen hartzaileen bizitzan, aisian, egunerokotasunean jokatzeko duen tokia buruz gehiegi sakontzen.

Kultur Ikasketen erreferentzia saihestezina den Stuart Hallen kodeketa-deskodeketa ereduaren berriaz zuzentzen zaio komunikazioaren dimentsio politikoari, eta Eco planteatutako kodearen garrantziari. Horretarako, mezu orotan kode-tutako ulerkeraren aurrean ikus-entzuleriak (edo irakurleriak) burutu ditzakeen deskodeketa modu ezberdinak proposatzen ditu: irakurketa hobetsia edo nagusia, negoziatua eta aurkakoa<sup>302</sup> (Hall, 1980). Eztabaida Telebista-Ikaskuntzen esparrura ekarrita, Hallen ustez diskurtso ideologiko nagusiak telebista saioetan kodetuta daude ekoizpen praktiken bidez, egitura narratibo, ontzat hartzen diren esangura eta rol sozial eta pertsonaien bidez. Bat dator zentzu horretan Adornoren kezkarrekin. Hala ere, ikerlariak, elementu horien salaketan baino, mezuaren kodeketa eta deskodeketa prozesuetan eragin dezaketeko faktoreetan kokatzeko alde jarduten du bere lanean, ikus-entzuleek mezuotatik erauz ditzaketeko esanguraren jarritako fokoa.

Telebistaren irudi eta soinuak, ikus-entzunezko zeinuz osaturiko testuak finen, polisemikoak dira; aldi berean hainbat esanahiri euts diezaiokete. Telebistako mezuek potentzialki irakurketa bat baino gehiago sostengatu dezaketenez, eta ez dagoenez hartzaileak irakurketa hobetsia edo nagusiaren alde egingo duena ehuneko ehuneko ziurtatzeko modurik, hartzea izango da, Hallen ustez, komunikazioaren katea ixten duen unea. Mezua diskurtso nagusiaren arabera kodetuta eta egituratuta egon daiteke, eta nolabaiteko eragin «gain-determinatzailea»<sup>303</sup> izan mezuaren azken esanahiaren gainean (Morley, 2005: 47), baina ereduak komunikabideen alde bakarreko boterearen eta domeinuaren ideiarekin apurtzen du. Neurri batean, behinik behin, mezuaren –eta euskarriaren, gaineratu genezake– esanahiaren eraikuntza igorleari eta hartzaileari baitagokio: «Telebista mezuaren

<sup>302</sup> «Preferred» edo «dominant reading», «negotiated» eta «oppositional» hurrenez hurren.

<sup>303</sup> «Over-determining effect».

kontsumoa edo hartzea bera, beraz, ekoizpen prozesuaren 'une' bat da zentzu zabalagoan»<sup>304</sup> (Hall, 1980: 118).

Kultur Ikasketen lanerako aurrebaldintza da menpeko taldeek kultura nagusiaren zeinu eta objektuak bereganatu eta moldatzen dituztela, berauek esangura berriak egiteko berrantolatuz. Zentzu horretan, Hallek berak azpimarratu bezala, kodeketa-deskodeketa ereduaren arabera pentsatzeak ezbaian jartzen du telebistari eta telebistako mezuari buruzko ulerkerak eta gizarteko talde ezberdinen arteko botere banaketaren izaera: «Errudimentuzko paradigma honen aplikazioa jada hasia da telebistako 'edukia'»<sup>305</sup> termino zaharraren ulermena eraldatzen, (Hall, 1980: 120). David Morleyk eta Charlotte Brunsdonek 1970. Hamarkadaren amaieran kodeketa-deskodeketa eredia BBC One kateko *Nationwide* magazinearen harreran aplikatu zuten, ikus-entzuleria ezberdinek saioari buruz egiten zituzten interpretazioak Hallen hiru irakurketa moduekin alderatuz (Morley, 1980; Morley & Brunsdon, 1999). Geroragoko hausnarketan, Morleyk ikerketaren muga nagusizat elkarrizketatutako pertsonak haien etxe-girotik kanpo elkarrizketatu izana aipatu zuen, *Familiako Telebista*<sup>306</sup> lanean, familiak talde sozial bezala haien ikus-entzuletzaren testuinguru «naturalean» elkarrizketatzea erabakiz (Morley, 1986: 126). Talde sozial eta haien ohiko elkarrekintzarako testuinguruaren aldeko aldarria garrantzitsua da, finean, masa kulturak gizartean duen eragina aztertu baino, gizarte taldeek masa kulturaz egiten duten erabileraz arduratzen baitira Kultur Ikasketak. Millerrek honela zioen:

Artelan kanonikoetan, gobernuaren lidergoan edo gizarte datu kuantitatiboetan fokatu beharrez, Kultur Ikasketek denbora eskaintzen dute azpikulturei, herri komunikabide, musika, arropa eta kirolei. Gizarte talde 'arrunt' eta 'bazterrekoek' kultura nola erabiltzen eta eraldatzen duten begiratu, pertsonak ez dituzte soilik kontsumitzaile gisa ikusten, gizarte balio eta hizkuntza kultural berrien ekoizle potentzial bezala baizik<sup>307</sup>. (Miller, 2001: 1).

Kultur Ikasketa britainiarrek, zentzu horretan, egun Ikus-entzuleriaren ikaskuntzetan azaleratzen ari den mediazentrikotasunaren aurkako mugimenduaren aurrekari bezala jardun dutela esan dezakegu<sup>308</sup>. Komunikabideek gizarte eta kultura espezifikokoetan hartzen dituzten artikulazio eta esanguretan dute ardura, forma kul-

<sup>304</sup> «The consumption or reception of the television message is thus also itself a 'moment' of the production process in its larger sense».

<sup>305</sup> «The application of this rudimentary paradigm has already begun to transform our understanding of the older term, television 'content'».

<sup>306</sup> Ikus ikus-entzuleria eta familia atala.

<sup>307</sup> «In place of focusing on canonical works of art, governmental leadership, or quantitative social data, cultural studies devotes time to subcultures, popular media, music, clothing, and sport. By looking at how culture is used and transformed by 'ordinary' and 'marginal' social groups, cultural studies sees people not simply as consumers, but as potential producers of new social values and cultural languages».

<sup>308</sup> Ikus *Zergatik* aztertu telebistaren ikus-entzuleriak? atala eta (Hepp, 2010).

turalen erabilera eta berjabetzeetan jarria ikerketaren xedea. Finean, semiotika eta etnografia uztartzeko gai izan ziren, marxismoa, eta post estrukturalismoarekin batera (Fiske, 1987b) komunikabideek pertsonen egunerokotasunean hartzen dituzten tokiak aztertzeko.

Pertsonen egunerokotasun honetan kokatzen dira, hain zuzen ere, ondoren lan-du behar ditugun bi kontzeptuak: aktibotasuna eta pasibotasuna; edo, nahiago bada, ikus-entzulearen hartzea eta parte-hartzea.

### 3.2.2. HARTZEA ETA PARTE-HARTZEA: AKTIBOTASUNA ETA PASIBOTASUNA

Jada aipatu bezala, Kultur Ikasketei dagokie, neurri handi batean, hartzaileen bostere semiotikoa ospatzearekin batera ikus-entzuleriaren izaera aktibo eta pasiboaren inguruko eztabaida mahaigaineratzea. Hala ere, eztabaida ez da inolaz ere berria. Finean, ikus-entzuleek aspaldidanik dute kate ezberdinen artean aukeratzeko gaitasuna «haien telebistaren 'testu' propioa osatuz puska horietatik, zeinak ez duen telebista banan-banan azter daitezkeen testu indibidual osoen sail bezala ulertzeak leharzkeen kalitate mugatu eta batuak agertzen»<sup>309</sup> (Bignell, 2008: 23). Besterik ezean, ikus-entzuleek telebista testuan eragin zuzena dute, zapping bidezko etengabeko aukeraketarekin, telebistako mezuen osotasunak apurtuz eta zatiak ikus-entzunezko jario berrietara josiz. Raymond Williamsek argi azaldu bezala, telebista gutxitan kontsumitzen da ekoiztua izan den modu berean, eta telebista testuaren izaera bera kolokan jartzen du kate-aldaketarako aukerak (cf. Williams & Williams, 2003).

Hala ere, Kultur Ikasketek eta komunikabideekiko hurbilketa semiologikoek esanahiaren dimentsio politikoa ikusarazteko egindako lana gogoratu beharra dago. Izan ere, ikus-entzuleriaren aktibotasuna ez da kate-aldaketara mugatzen, finean esanahiaren eraikuntza hari baitagokio. Hartzaileek, bere horretan onartu ez ezik, negoziatu ere egiten dute testuen esanahia. Igorlearen asmoari aurre egin eta testuinguru interpretatibo ezberdinetan kokatzen dute eta; uste zena ez beste kodeen arabera berregineten dute esangura. Telebistaren ikus-entzuleek telebista testu kultural propioetara eraldatzeko gaitasuna erakusten dute, telebistarekiko harreman sozial ezberdinak eratuz eta esangura berriak osatuz. Ikus-entzuleriek orokorrean, eta batez ere zaleek, telebista saioen esanahiak euren osoan irunzteari aurre egiteko joera agertzen dute, haienzako esanguratsuak diren, esanahiak eraikitzekeo aukerak eskaintzen dizkieten saioen ezaugarriez jabetuz, berauei forma berriak emateko (Lewis, 1991).

Jack Bratichek jaso bezala, «(...) Ikus-entzuleriaren Ikerketa behartua izan zen ikus-entzuleriaren boterearekin adostasun batetara ailegatzera, dela berau baretzeko edo berau helburu jakinei begira aktibatzekeo. Banaketa nagusia ez zen aktiboa/

<sup>309</sup> «Viewers also switch from one programme or channel to another, composing their own "text" of television from these segments which does not exhibit the bounded and unified qualities which derive from thinking of televisions as a series of whole, individual texts to be analysed singly». (Bignell, 2008: 23).

pasiboa, baizik eta aktiboa/erreaktiboa»<sup>310</sup> (Bratich, 2008: 34). Izan ere, ikerlariaren ustez Ikus-entzuleriaren Ikerketaren propaganda, marketina eta izu moralaren in-guruko diskurtsoek, finean audientziaren boterea eremu erreaktibora zokoratu nahi izan dute tradizioz. Ikus-entzuleen aktibotasun, partehartze eta sormenaren auzia, egungo komunikabideen ekosistema geroz eta konplexu eta transmediatikoagoan ere, urrun dago konpontzetik. Zein da ikus-entzuleriaren boterea? Zertan datza bere aktibotasuna? Zenbaterainoko sormena agertzen du esanahiaren eraikuntzan?

Aisiaren Ikaskuntzen eta lan honen perspektibatik, bereziki interesgarria da David Gauntlettek gaiari buruz esateko duena. Gauntlett-ek bere *Egitea Konektatzea da*<sup>311</sup> liburuan giza sormenari buruzko ikerketa interesgarria egiten du, artea eta artisautza komunikabideen ekosistemarekin lotuz. Hark dioenez, «asmamen handiko gizakiak garenez, sormena sarri xamar egin ohi dugun zerbait da»<sup>312</sup> (Gauntlett, 2011: 16). Jeinu handien edo adituen sormenean baino, egunerokotasunean burutzen diren jarduera atsegingarriekin erreparatzen die ikerlariak liburuan, ikerketa esparrua giza aisiaren baitan bete-betean kokatuz. Hartara, ezberdinketa proposatzen du «eseri eta jaso» eta «egin eta jardun»<sup>313</sup> kulturen artean (Gauntlett, 2011: 8), eta bigarrenaren aldeko joera orokor bat bizitzen ari garela iradokitzen du. Ez horrenbeste besteen sormen lana jasotzera zuzendutako aisiazko jardueraren zentzuan, baizik eta norbere sormena ere lantzera zuzendutakoarenean, bai lineaz kanpoko munduan, eta baita eremu digitaleko eta komunikabideekin lotutako aisialdian ere.

Gauntlett-ek eguneroko sormenaren alde egiten du lan horretan, eta ondorio gisa lau ezaugarri lotzen dizkio, John Ruskin eta William Morrisen jarduera filosofikoan oinarrituta: «1. Sormenaren ulermen berri bat prozesu, emozio eta presentzia bezala. 2. Egin eta elkarbanatzeko nahia. Zoriona sormen eta komunitatearen bidez. 3. Sormenaren erdi-geruza itsasgarri sozial bezala. 4. Zure marka uztea, eta mundua zeure egitea»<sup>314</sup>. (Gauntlett, 2011: 217). Eguneroko sormenaren lau ezaugarriok telebistaren ikus-entzulerien aisiazko esperientziekin lotu daitezke, maila eta gradu ezberdinetan. Azken batean, Gauntletten proposamena, jeinu handien sormen prozesuetan baino, pertsona oren eguneroko prozesu eta momentu sortzaileez ardura hartzean datza, eta aurkezten duen sormenaren ulermen berriak zerikusi handia du aisiazko espe-

<sup>310</sup> «... Audience Research was forced to come to terms with audience powers, seeking either to pacify them or to activate them for particular ends. The major binary involved was not active/passive, but active/reactive».

<sup>311</sup> Making is Connecting.

<sup>312</sup> «Because we are inventive human beings, creativity is something we do rather a lot».

<sup>313</sup> «... we are seeing a shift away from a 'sit back and be told' culture towards more of a 'making and doing' culture».

<sup>314</sup> «1. A new understanding of creativity as process, emotion and presence. 2. The drive to make and share. Happiness through creativity and community. 3. A middle layer of creativity as social glue. 4. Making your mark, and making the world your own».



rientziarekin: zoriona, sortu eta elkarbanatzeko desira, komunitateen eraikuntza, eta munduari zentzua aurkitzea.

Liburuan artisautza eta lineako sormenaren hainbat adibidetan zentratzen den arren, nabarmentzeko modukoa da telebistaren ikus-entzulerien aktibotasunaren eta aisiaren kontzeptuaren artean marrazten duen lotura. Aisiazko esperientzia bizi ahal izateko, ezinbestekoa da hartzailearen aldetik sormen prozesu bat, jasotze pasibotik haratago doana, eta, egungo komunikabideen ekosisteman, gero eta gehiago doana «egin eta jardun» jarrera horretara.

Hala ere, komeni da gogora ekartzea telebistaren ikus-entzuleriaren aktibotasunaren afera ez dela bateratze multimediaren eta sare digitalen ondarea eskusiboa, askoz arinagokoa baizik. Antzerako argumentazioa darabil Roger Silverstonek Bechtel, Achelpohl eta Akersen lanean (Bechtel, Achelpohl, & Akers, 1972) eta Collett eta Lamben txostenean oinarrituta (Collett & Lamb, 1986):

Jada ez dugu ikus-entzuleriaren telebistarekiko harremana pasibotzat hartzen derrigor. (...) Telebistaren ikus-entzuleak ez tu telebista eleberrri bat eta olerki bat bezala 'irakurtzen', ezta egunkari bat bezala ere. Arreta eskaintzen dio, batzuetan, harengandik aldentzen da, sarri; eta mota guztietako gauza miragarriak egiten ditu harekin, beti<sup>315</sup>. (Silverstone, 1989: 80).

Bestela esanda, telebistarekin lotutako harreman ezberdinen bidez gure nortasun indibidual eta sozialak eratzten ditugula proposatzen du Silverstonek. Haren ustetan, telebistaren kulturak norbanako eta taldeen aukerak eta bideak egituratzeko inguru-nea osatzen du: telebistari buruz hitz egiten dugun moduek, berbeta eta solas kasua-lean txertatzen ditugun osagaiek, edo telebistaren teknologiak gure etxeko eta fami-liako bizimoduan barneratzen ditugun moduek gure bide-zidorrak osatzen dituzte, de Certeuren isilpeko ehiztariek gogorarazten diguten bezala (de Certeau, 1984).

Aisiazko esperientziari dagokionez berriz, Alfredo Fierrok esana da «bizitzea bizipenak izatea» dela eta horrek berarekin dakartzala «norberari gertatzen zaionaren bizipen berezkoa, eta esperimentatzailearen gisa, norberarentzat bizipen alternatiboak eskuratztea» (Fierro, 2000: 39)<sup>316</sup>. Zentzu horretan, esperientzia eta bizipena ez da pasibotasunarekin lotzen, objektibatzen zailak diren sentipen, pertzepzio, pentsamendu eta desira pertsonalekin baino. Norberarentzako bizipen berrien bilatzeak esna-aldia iradokitzen du, ez logura. Telebistaren ikus-entzuleak, zentzu horretan, subjektu-egile gisa eratzten dira telebistaren harremanean, Negriren zentzu ontologikoan (Negri, 2002). Euskarazko ikus-entzuleria berbak, -eria atzizki multzokariaz gain, aktibitatea dakar ezinbestean

<sup>315</sup> «We no longer perceive the audience's relation to television necessarily as a passive one. (...) The television viewer does not 'read' television like a novel, or a poem or even a newspaper. She or he attends to it, sometimes is diverted away from it, often, and does all sorts of wondrous things with it, always».

<sup>316</sup> «...vivir es experimentar, y esto significa tanto tener vivencia espontánea de lo que a uno le sucede, cuanto procurarse, a la manera de un experimentador, vivencias alternativas».

subjektuaren esperientziaren ikuspegitik, ez hala esposizioaren neurketara mugatzen den planteamendu objektibistatik. «Jendetza immanentzia baten izena da. Jendetza singularitasunen multzoa da»<sup>317</sup> esan zuen Negrik (Negri, 2002: 36). Horrela, ikus-entzuleriaren aktibotasun eta pasibotasunaren arteko auzia, hein handi batean, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren galderek eurek erabakitzen dute, singularitasunen multzo horretan, unean uneko esperientzien bizipen eta esperientzien bilaketan ikus-entzuleak aktibotasun eta pasibotasunaren continuum luzearen hainbat puntutan kokatzen baitira.

Lan honen arduren artean dago telebistaren ikus-entzuleek hartzen dituzten kokapen hauek arakatu eta interpretatzea. Aisiazko esperientziak gutxienezko sormen eta aktibotasuna eskatzen duela suposatuz arren, ikus-entzuleriaren jardura eta aktibitatea maila ezberdinetan eman baitaiteke, interpretazio lan eta bizipen subjektibotik hasi eta komunitateari zuzendutako jardun behagarriraino. Sonia Livingstonek adierazi bezala, telebista ikustea sarri errutinazko, arazorik gabeko jardun pasibotzat hartu izan den arren, sinpletasun hau engainagarria da: «Komunikazio hauetan pertsonen duten rola era berean ezagutzan oinarritua, iaioa, motibatua eta anitza bezala ulertu behar da»<sup>318</sup> (S. M. Livingstone, 1998: 3).

Kokapen eta jardura aniztasun horren adierazgarri da telebista ikustea jardura indibidual eta bakuna izateak, taldean, beste esanguratsuekin harremanean, burutu ohi den gizarte praktika bezala ikustera emandako bira Ikus-entzuleriaren Ikerketan. Bira horren adibide dugu hurrengo orrialdeetan aztertuko dugun Ikus-entzuleria eta Familiaren Ikerketa.

### 3.2.3. IKUS-ENTZULERIA ETA FAMILIAREN IKERKETA

Telebista ikustearen alde sozialei erreparatzen dion Ikus-entzuleriaren Ikerketaren baitan adar garrantzitsua da etxearekiko eta familiarekiko ardura hartzen duena, eta esparru horren barruan lan garrantzitsua osatzen du Morleyren *Familiako Telebista. Botere Kulturala eta Etxeko Aisia*<sup>319</sup> liburuak (Morley, 1986). Bertan, telebista, finen, etxeko komunikabide gorenaren dela ondorioztatzen du Morleyk: izan ere, etxean batez ere telebista ikusten da, eta, telebista, etxean ikusten da, batez ere.

Hasteko, ikus-entzuleek telebista oro har familia giroan ikusten dutenez, ikus-entzuleriak aztertzeke familia dinamikak eurak ere aztertu behar direla argudiatzen du ikerlari britainiarrek. Horrela, norbanakoa baino familia hartzen du telebistaren kontsumorako unitate bezala, eta familia osoaren aisia hartzen du telebistarekiko jarrera eta jokabideak aztertzeke testuinguru gisa: «...telebistaren erabilera lehian dauden eta osagarriak diren beste aisiazko jardueren testuinguru zabalagoan ulertu

<sup>317</sup> «Multitude est le nom d'une immanence. La multitude est un ensemble de singularités».

<sup>318</sup> «People's role in such communications must be correspondingly understood as knowledgeable, skilled, motivated, and diverse».

<sup>319</sup> Family Television. Cultural Power and Domestic Leisure.

beharra dago: ikus-entzuleek parte hartzen duten aisiazko jarduerak (hobbiak, interesak, denborapasak, eta abar)<sup>320</sup> (Morley, 1986: 15). Izan ere, telebistako edukiaren aukeraketa gutxitan egiten da norbanakoaren erabaki soilez; aldiz, familiaren baitako negoziazio, gatazka eta aliantza prozesu konplexuen ondorio izan ohi da sarri. Hartara, gizarte kokapen ezberdinetako familien telebistaren erabilera aldakorrak aztertzea hartuko du helburutzat.

Stuart Hallek Morleyren liburuaren sarreran esanda utzi zuen bezala, ezin uler daiteke telebista ikustea pantailatik hartutako inputen hartze pasiboa bailitzan, ikus-entzuleek ikusten dutenaren inguruan esangura eta irakurketak eraikitzen baituzte. Telebista ikustea jardun aktiboa da, ez pasiboa: egitea, ez hartze soila. Zentzu horretan, Hallen ustez telebistaren kontsumitzaile arrazionalaren nozioa «mitoa» da, eta telebista ikustea berau gertatu ohi den eguneroko etxeko ingurugiroan aztertu behar da, gure «telebistarekin erlazionatzeko moduak ikerketa gehienetako protokoloek aurrez suposatzen dutena baino askoz konplexuagoa»<sup>321</sup> baita (Hall, 1986: 8-9).

Aurreko ataletan jorratutako gaia da telebista gailua geroz eta komunikabide ekosistema konplexu eta zabalagoan baitan kokatzen delakoa, eta sarri aipatu da ikus-entzunezko eduki eta jario ezberdinetarako sarbidea ematen duela komunikabideen bateratzean. Baina telebistaren eta telebista ikustearen inguruan askotariko jarduerak burutu izan ditugu gizakiok telebistaren hastapenetatik bertatik, elkarren artean hitz egitea adibidez. Telebistaren inguruko eta telebistaren ondoko solasa ez dago –ikus entzule askoren amorraziorako– bere horretan telebista ikustetik oso osoan bereizterik eta telebista testuaren gaineko iruzkinek telebista ikustearen «plazerraren parte» direla ondorioztatzen du Hallek; eguneroko etxeko bizitzaren jarioaren barne daudela: «Telebistari buruzko ‘hizketa’ kritikoa da –errealitatetzat zuzenean hartzen ez den zerbaiti buruzko eta inguruko iruzkina– eta aldi berean atxikimendua eta identifikatzea bultzatzen ditu (intentsitate maila ezberdinetan) bai pantailan ageri denarekiko, eta baita beste pertsonetikiko elkarrekintzak mantentzeko»<sup>322</sup>. (Hall, 1986: 9). Telebista ikustea elkarrekintzarako aukera zabaltzeko, norbere espazioa intimoa sortzeko (beste familia kideekin harremanik hasi gabe) edo sofan elkarrengana goxogoxo kuzkurtzeko aitzakia bezala erabili daiteke.

Bestalde, telebistaren aurrean burutzen den solasa ez ezik, telebistari buruzko solasa ere beharleku eta kaleko elkarrizketaren ongarri eta osagai bihurtu ohi da egunerokoan. Aurreko atalean komunikabideen ekosisteman telebista hartzen ari den

<sup>320</sup> «...the use of the television set has to be understood in the wider context of the other, competing and complementary, leisure activities (hobbies, interests, pastimes, etc.) in which viewers are engaged».

<sup>321</sup> «Our actual modes of relating to television are far more complex than the protocols of most research suppose».

<sup>322</sup> The «talk» about television is both critical—it is comment on and about something we do not in any simple way «confuse» with reality—and at the same time sustains involvement and identification (in varying degrees of intensity) with what is on the screen, as well as maintaining interactions with other people.

kokaleku ezberdinak deskribatzeari ekiten genion; oraingoan, aldiz, telebistak berak ingurumen bezala jokutzen duen paperari egin behar diogu erreferentzia. Edo meteorologiari, nahiago bada, telebistari zein eguraldiari buruz hitz egiten baita berbeta kasualean, gure egunerokotasunaren testuinguru aldakor baina erlkarbanatua osatzen duelako. Telebista, hortaz, ingurumen edo giro-baliabide bihurtzen da.

James Lullek *Telebistaren Erabilera Sozialak*<sup>323</sup> artikuluan argudiatu zuen (Lull, 1980: 197–209), telebistak erreferentzia komunak eskaintzen dizkiela ikus-entzuleei: telebistako pertsonaiak, istorioak eta gaiak giza esperientziak argitu eta azaltzeko erabiltzen ditugu eguneroko solasean, besteak uker ditzakeen erreferentzia bezala. Artikulu berean Lullek telebistaren erabilera sozial anitzok bi ardatz nagusitan kokatuko ditu: egituratzaileak (ingurugiroari dagozkionak eta arautzaileak) eta erlazionalak (komunikazioa erraztea, afiliazioa eta aldentzea, ikasketa soziala eta gaitasun erakusketa). Bestela esanda, eta laburbilduz, «'Telebista ikustea' ezin dugu dimentsio bakarreko jarduera bezala ulertu, zeinek esanahi eta garrantzia bera duen aldi orotan bertan jarduten duten guztientzat»<sup>324</sup> (Morley, 1986: 15). Morleyk analisirako unitatetzat familia unitateak hartzen baditu ere, belaunaldi ezberdinentzat ere 'telebista ikustea' gauza asko izan daitekeela gaineratu genezake.

Telebistaren erabilera sozialen txanponaren beste aldeari erreparatuta berriz, Bechtelek jaso bezala, telebista ikustea ez da hutsean gertatzen (Bechtel *et al.*, 1972) etxean, senitaratean kokatzen den telebistaren kontsumoak honek senideen arteko botere harreman sarri desorekatuak islatzen ditu. Telebista ikustea etxeko eta familia mailako dinamika sozialei helduta aztertu beharrezkin bat eginez, Maialen Garmendiak genero ikuspegitik ikus-entzuleriaren azterketak emakume eta gizonezkoen arteko gizarte rolen ezberdintasunei buruz informazio garrantzitsua ematen digula defendatuko du:

(...) emakumezkoen telebistaren ikus-entzuleriaren patroien azterketak interes osagarria du, haietarik askok etxeko lanak burutu behar baitituzte etxean daudenean, gizonezko gehienentzat aldiz etxean dauden denbora astialdia den artean. Beraz, emakumeek telebista ikusteko duten astia aski eskasagoa da, eta aldizka telebista etxeko lanekin bateratzera behartuta egoten dira<sup>325</sup>. (Garmendia Larrañaga, 1998: 73).

Morleyk berak gizon-emakumeen arteko desorekak azaleratzen ditu liburuaren atal oso batean, eta ondorioetan lanaren azterketarako dimentsio anitzen artean berau azpimarratu telebistaren erabilera estiloen egituratzaile garrantzitsuenetarikoa

<sup>323</sup> The Social Uses of Television.

<sup>324</sup> «Watching television» cannot be assumed to be a one-dimensional activity which has equivalent meaning or significance at all times for all who perform it.

<sup>325</sup> (...) el estudio de los patrones de audiencia de televisión de las mujeres tiene un interés adicional porque muchas de ellas deben realizar diversas labores domésticas cuando están en casa, mientras para la mayoría de los hombres el tiempo que están en casa es fundamentalmente tiempo libre. Por consiguiente, la disponibilidad de tiempo para ver televisión es bastante menor en las mujeres y, en ocasiones, están obligadas a compaginar la televisión con algunas labores domésticas.

bezala (Morley, 1986: 174-175). Generoaren dimentsioarena baino adin ezberdintasunei erreparatuko zaio lan honetan, alderaketa egiterako orduan. Hala ere, ekidiezina da emakumezkoen eta gizezkoen gizarteko eta, batez ere, etxeko rolek telebistarekiko harremanean eragin zuzena dutela aitortzea, gizon-emakumeak ez baitaude gizartetik isolatuta, telebista ikusten dutenean.

Morleyren lanak ekarpen garrantzitsua egiten du telebista ikustearen dimentsio eta erabilerak sozialak eta berau gizarte praktika gisa gertatzen eta txertatzen den familiako testuinguruak aztertzearen beharizanen inguruan: bizitza-estiloak, lan egoera, emisioaren ordutegi eta egutegiarekiko elkarrarremanak eta abar. Gainera, familia ezberdinen arteko alderaketa proposatzen du, esposizioaren neurketa edo kontaketa hutsetik haraindi, ebaluaketaren beharra gogoratuz. Ikus-entzuleriaren ebaluaketa ikerketen artean alderaketa hauek burutzerako orduan lau mota bereizten ditu ikerlariak (Morley, 1986: 16):

- a. Telebista-kateen arteko alderaketa.
- b. Telebista-programa moten arteko alderaketa.
- d. Ikus-entzule talde ezberdinen arteko alderaketa.
- e. Telebista gailuaren erabilera ezberdinen alderaketa (telebista materiale eta ikus-entzule talde ezberdinei dagokienez).

Morleyk marko bezala hartuta familiako aisia, telebista ikustea bihurtuko du ikerketa objektu. Lan honetan alderantzizko planteamendua burutu nahi dugu, nola-bait, aisiazko esperientziak telebistarekiko harremanak marko bezala hartuz ikertzea, alegia. Gurera ekarrita, beraz, bostgarren bat ere gehituko genioke, ezinbestean:

- f. Telebistarekin lotutako (aisiazko) esperientzien alderaketa (ikus-entzuleen belaunaldien artean).

Iker-objektu, helburu, kontzeptu eta metodologia aldetik ezberdintasun nabariak gorabehera, zenbait puntu komunean dituzte bi saiakerek. Eta ez da harrizkeoa, finen etxeko aisia baitu aztergai Morleyk liburuan. Britainiarrak aztergai dituen lau elementuak<sup>326</sup> (Morley, 1986: 50) lehenengo kapituluan zehaztutako aisiaren kontzeptuetatik<sup>327</sup> aztertuz gero, paralelotasun interesgarriak azaleratzen dira:


<sup>326</sup> «the increasingly varied uses of the household television set(s) —for receiving broadcast television, video games, teletext; etc.; (b) patterns of differential ‘commitment’ and response to particular types of programming; (c) the dynamics of television use within the family: how viewing choices are expressed and negotiated within the family; the differential power of particular family members in relation to viewing choices at different times of the day; the ways in which television material is discussed within the family; (d) the relations between television watching and other dimensions of family life: television as a source of information on leisure choices; leisure interests and work obligations (both inside and outside the home) as determinants of viewing choices».

<sup>327</sup> Ikus Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu, 1. atalean.

- A. Etxeko telebista aparailuaren erabileren ugaritasuna (telebista emankizunak jasotzeko, bideojokoak, teletestua...). Zuzen zuzenean kokatzen da AISIA erpinaren baitan, aisiaren ikuspegi objektibotik: telebistarekiko harreman eta jarduera behagarriak alegia.
- B. Atxikimendu maila ezberdinen ereduak eta programazio mota ezberdinekiko erantzunak. Hau ere AISIA erpinean kokatu behar dugu, baina aisiazko esperientzia edo bizipen subjektibo (kontatuaren) ikuspegitik.
- D. Telebistaren erabileraren familiaren baitako dinamika: ikustearen aukerak nola adierazten eta negoziatzen diren, familiako kideen arteko botere ezberdintasunak ikustearen aukeretan eguneko une ezberdinetan, telebistako materiala familian eztabaidatzen den modua. ALDIA erpinari erantzuten dio Jardueraren denbora eta aukeraketari dagokionez. Eskura dau den aukera ezberdinen artean erabaki beharra dago eta, hortaz, telebista ikustea emankizuen jarioaren eta familiaren hautaketan arteko negoziazioaren emaitza da, eskura dagoen eta familiako kideen interes eta arretaren gurutzaketa, etengabe negoziatua.
- E. Telebista ikustearen eta familiako bizitzaren beste dimentsioen arteko harremana: telebista aisiazko aukerei buruzko informazio iturri gisa, aisiazko interesak eta betebeharrak (etxe barruan eta etxetik kanpo) ikustearen aukeren baldintzatzaile bezala. Azken helburuak argiro egiten dio ASTIA erpinari erreferentzia. Telebista ikustea ez da bestelako aisiazko zein betebeharrekin lotutako jardueretatik bereiz daitekeen zerbait. Behin beharrek amaituta (edo honekin batera, bateragarriak direnean) burutzen den jarduera da, baita norberearen eta familiaren astialdiaren egituratzailea ere.
- F. Telebista ikustearen eta familiako bizitzaren beste dimentsioen arteko harremana: telebista aisiazko aukerei buruzko informazio iturri gisa, aisiazko interesak eta betebeharrak (etxe barruan eta etxetik kanpo) ikustearen aukeren baldintzatzaile bezala.

Noski, lau elementuek elkarlotura argiak agertzen dituzte, eta erpinak ez dira bere horretan hasi eta amaitzen diren eremu gisa ulertu behar. Morleyk aurkezten dituenak kategoria analitikoak dira, azterketaren dimentsio ezberdinen heltzeko abiapuntuak, ez errealtate bakartuak. Baita telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala burutzeko proposatzen diren hiru erpinak ere. Zentzu horretan, bi ereduak agertzen duten bateragarritasuna azpimarratzeaz gain, ikerketa planteatzerako orduan bost elementuak eta hiru erpinak (Astia-Aldia-Aisia ikuspegia) modu integratzean aztertzea iruditzen zait interesgarrien, familia mailako telebistarekin lotutako aisia dimentsio eta aurpegi anitzeko fenomenoak baita.

## 10. IRUDIA: FAMILIA, TELEBISTA ETA AISIA. MORLEYREN IKERKETA AISIRAKO HURBILKETA INTEGRALEAN



Iturria: norberak moldatua (Morley, 1986).

Ikus-entzutearen eta ikus-entzuleriaren aisiarako hurbilketa integrala hartzaileek telebistaren inguruan aurkitu eta eraikitzen dituzten esanahi eta plazerei buruzko hausnarketa abiatu beharrean dago, ezinbestean. Radway eta Fiskek auzi horien inguruan egindako ekarpenak jasoko ditugu ondoren.

### 3.2.4. TELEBISTAREN ZENTZUAK, ESANAHIAK ETA PLAZERRAK

Telebistaren zentzu, esanahi eta plazerei buruz aritzerako orduan Kultur Ikasketen orbitan kokatu ohi diren bi ikertzaile aipatzea ezinbestekoa da: Janice Radway eta John Fiske. Lehenak emakumezkoei zuzendutako eleberri erromantikoak hartu zituen, irakurlerien eta testu idatzien arteko harreman konplexuak esploratzeko. Bigarrenak, aldiz, telebistaren narratibak, generoak eta formatoak ditu abiapuntu eta telebistaren herri kulturaren izaeraren ikerketaren oinarri.

Radwayren *Eleberri erromantikoa irakurtzen*<sup>328</sup> lana (Radway, 1984) erreferentziatzeko lan klasikoa bilakatu da Irakurleriaren eta Ikus-entzuleriaren Ikerketan, emakumeek herri literatura modu hau patriarkatuaren baitan esanahi eta plazerak bilatzeko erabiltzen dituzten erak aztertzean. Egilearen aburuz, irakurketa izaera ak-

<sup>328</sup> Reading the Romance.

tiboa eta berezkoa duen gizarte jarduera da, testuarekin soilik ez baizik testuinguru zehatzekin ere estu lotuta dagoena. Lanak testu literarioa abiapuntu hartuta irakurketa eta irakurle(ri)ari buruz ondorioztatu daitekeena zalantzan jartzen du ikus-entzutearen izaeraz eta masa kulturaren kontsumoaz hausnartzeko. Eleberri erromantikoak irakurtzea adiera bakarreko jarduera bezala ulertu ordez, subkultura eta gizarte taldeek testu zehatzekiko eratze dituzten borroka, tentsio eta gatazkaz jositako harreman semiotiko ezberdinak aztertzea proposatzen du Radwayk:

Hizketa espazioan zehar eta denboraren igaroan aldatu bada, ez nuen arrazoirik ikusten irakurketak ere hala behar duela uste ez izateko. Hori hala balitz, eta benetako komunitateek testu zehatzak irakurtzen dituzten moduak aurkitu ahal bagenitu, nire lankideen literaturaren izaeraren inguruko zalantzei erantzun ahalko niela pentsatu nuen<sup>329</sup>. (Radway, 1984: 4).

Hortaz, Radwayren lanean ez dugu hartzaileek testuaren inguruan topatu eta eraikitzen dituzten esangurak ikertzeko asmoa bakarrik aurkitzen, literatura beraren ulermenerako saiakera ere bertan dago: testua eta literatura zer diren argitzeko ardurara. Egilearen ustez, literatura kulturaren osagai bezala ulertzeko, testu zehatzak behariek kontsumitzen dituzten giza taldeekin konektatu beharra dago, testuokin harremanean dauden irakurle eta irakurleriek –norbanakoek eta komunitateek– egitura semiotiko esanguratsu bezala eraikitzen dituzten moduak zehaztuz. Bestela esanda, eleberri erromantikoaren bizipenean datza, Radwayren ustez, irakurleriaren gakoa.

Izan ere, ikerketako parte-hartzaileek maitasun istorioetan murgiltzea euren egunerokotasunean txertatuta duten arren – «liburu bat hartzearen gertaera sinpleak egunean zeharreko jardueren presio eta tentsioei aurre egin ahal izatea ahalbidetzen zien»<sup>330</sup> idatziko du autoreak (Radway, 1984: 86) zaletasunaren xarma esperientziaren apartekotasunean datzala azpimarratzen dute: «...eleberri erromantikoa irakurtzea Smithtoneko emakumeek baloratzen badute esperientzia bera ohiko existentziaren-gandik ezberdina delako da»<sup>331</sup> (Radway, 1984: 61). Emakumeek eleberri erromantikoak irakurtzea ihesa eta ikastea, onarpena eta erresistentzia, bietatik zerbait duen jarduera bezala deskribatzen du liburuaren hirugarren atalean, aisia forma konplexua bezala alegia.

*Eleberri erromantikoak irakurtzen liburuak eta haren aurrekari zuzenak, Emakumezkoek Eleberri Erromantikoa Irakurtzen dute: Testu eta Testuinguruaren Elkarre-*

<sup>329</sup> «I saw no reason why one shouldn't also assume that as speech varied across space and over time, so, too, must reading. If this was true and one could discover how actual communities actually read particular texts, I thought I saw a way to answer my colleagues' questions about the evidentiary status of literature».

<sup>330</sup> «the simple event of picking up a book enabled them to deal with the particular pressures and tensions encountered in their daily round of activities».

<sup>331</sup> «...romance reading is valued by the Smithton women because the experience itself is different from ordinary existence».



*kintza*<sup>332</sup> artikulua (Radway, 1983) Smithton ezizendun Ipar Amerikako herriko emakumezko irakurletaldebata duoinarri. Herriariburuzko datu soziodemografikoak eskaintzen dituen arren, egilearen asmoa ez da ikerketa orokorgarri bat eskaintzea, ez eta irakurleria horren ezaugarriak eta irakurketa moduak munduko beste tokietara hedatzea. Esplizituki azaltzen du, gainera, laginaren aukeraketa ez dela orokorgarria: «Argi dago Smithtoneko taldea ezin dela zientifikoki diseinatutako ausazko lagin bezala pentsatu»<sup>333</sup> (Radway, 1984: 48). Berrogeita bi irakurlek hartu zuten parte galdetegiari erantzunez eta elkarrizketa saioetan guztira, baina Radwayren asmoa ez da AEBtako eleberrirromantiko emakumezko irakurle guztiak erretratatzea. Aitzitik, irakurle zehatzen eta literatura genero jakin baten testuen artean sortzen diren harremanak, irakurtzeko motibazioak, ohiturak eta sariak esploratzea du helburu. Liburuko bigarren atalaren izenburuak ezin hobeki adierazten du helburu hori: *Irakurleak eta Haien Eleberrirromantikoak*<sup>334</sup> (Radway, 1984: 46).

Genero literario baten eta bere irakurleriaren kasu azterketaz haratago, Radwayren lanak komunikabideen eta ikus-entzuleriaren arteko harremanari eta askatasun mailari buruzko gogoeta planteatzen du. Kultur Ikasketen eta Iparmerikako *Reader-response Criticism* edo hartzearen estetikaren azterketaren adierazle esanguratsua izateaz gain, hartzaileek komunikabideek plazaratutako forma kulturalekin osatzen dituzten elkarrekintzak eta eguneroko bizitzako hartueman sozialei buruzko galdera aiposez josita dagoen lana da. Irakurleriaren aisiazko esperientziei buruzko hausnarketa aparta, finean. Izan ere, ikerlariaren ustez auzia ez da hainbeste «[t]estu erromantikoak objektiboki zer esan nahi duen... baizik eta testua irakurtzearen jazoera bera nola interpretatzen duten horretan diharduten emakumeek»<sup>335</sup>. (Radway, 1983: 56). Hau da, zein zentzu, esanahi eta plazer aurkitzen duten irakurleek, eleberrirromantikoak irakurtzean. Galdera antzeratsuak planteatzen ditu John Fiskek, baina, herri literaturen genero jakin batekiko beharrean, telebistarekiko bere osotasunean *Telebista Kultura*<sup>336</sup> (Fiske, 1987b) lanean. Liburua Kultur Ikasketen baitan telebistaren inguruan egindako lan interesgarrienetakoa da, telebistaren bidez eta telebistaren inguruan ikus-entzule eta ikus-entzuleria ezberdinek esangurak eta plazerak aurkitu, eraiki, zalantzan jarri eta elkarbanatzen dituzten moduak eta prozesuetaz baitihardu, herri kultura, egunerokotasuna, Hallen kodeketa/deskodetara eredu eta Antonio Gramsciren hegemonia bezalako kontzeptuak aise uztartuz.

<sup>332</sup> Woman Read the Romance: The Interaction of Text and Context.

<sup>333</sup> «It is clear that the Smithton group cannot be thought of as a scientifically designed random sample».

<sup>334</sup> «The Readers and their Romances». Izenburuak hitz joko itzulezina proposatzen du, ingelesez eleberrirromantikoa eta amodio-abentura hitz berarekin adierazten baitira, irakurleek eleberririkiko duten harremana irudikatuz.

<sup>335</sup> «What the romantic text objectively means...but rather how the event of reading the text is interpreted by the women who engage in it».

<sup>336</sup> Television Culture.

Lanaren sarreran bertan, telebistaren ulerkerera berezia eskaintzen du autoreak, liburu osoaren *leitmotiv* modura: «Telebista esanahi eta plazeren eramaile/zirikatzaille bezala eta kultura gizartearen baitako esanahi eta plazeren aniztasunen sormen eta zirkulazio bezala ulertzen duen definizioarekin egiten dut lan»<sup>337</sup> (Fiske, 1987b: 1). Telebista, hortaz, edukien igorle edo hedabide bezala baino, eragile kultural bezala ulertuko du Fiskek: esanguren probokatzaille eta zirkulatzaile gisa. Telebistako testuek, esanahirako gaitasuna, esanahiaren potentzialtasuna dutela argudiatuko du, Kultur Ikasketen tradizioari jarraiki, esanahiaren azken eraikuntza edo itxiera hartzaileen-gan, ikus-entzuleriarengan dagoelarik. Kodeketa-deskodeketa ereduari dagokionez, esanahi potentzial horiek irakurketa nagusi edo hobetsiaren arabera koetara murrizteko saiakerak telebistaren osagai estrukturaltzat ditu Fiskek: telebistaren izatetik bereizi ezin diren ideologia nagusiaren interesen zerbitzura dauden jarduera diskurtsiboak. Horrela, teorilariarentzat telebistako pertsonaiak ez dira norbanakoen ordezkariak, edo fikzio hutsa, ideologiaren kodeketak baizik; «balio ideologikoen gorpuzteak»<sup>338</sup> alegia (Fiske, 1987a; Fiske, 1987b: 9).

Telebistarekiko jarrerak eta esperientziak, eta telebistaren edukien inguruko interpretazio eta irakurketak sozialki kokatuak direla argudiatu du Fiskek. Haren ustez, telebistaren testuekin esanahiak negoziatzea prozesu diskurtsiboa<sup>339</sup>, eta hortaz soziala, da (Fiske, 1987b: 80-83). Are gehiago, esangurak sozialki determinatuta daudela argudiatuko du, balizko esanguren aukera eta mugak gizarte mailan zehazten direnaren zentzuan, ez kausa eta efektu mekaniko bezala.

Sozialki determinatutako interpretaziorako muga horien baitan, testuaren izaeraren planteamendu berezia egiten du Fiskek, Radwayren literatura kritikaren eta Otten telebista ez den testuaren (Ott, 2008) proposamenen aurkakoa neurri handi batean<sup>340</sup>. Testua hartzaileek eraikitzen, sortzen eta birsortzen duten zerbait da bere ustetan, ez kultura-industriak zirkulatzen dituen diskurtso eta zeinu sistemak: «Industriak saioak ekoiztu, banatu eta definitu egiten ditu: testuak hauen irakurleen produktuak dira (...) Testuak produkzio indarren eta hartze moduen gatazka guneak dira».<sup>341</sup> (Fiske, 1987b: 14). Hartzaileak gizartean kokatuta daudenez, testua irakurlearen esperientzia sozialaren ondorioa da; hartzea eta irakurketa esanahia eraikitzen duten elkarrizketak dira, ezinbestean. Elkarrizketa, eztabaida prozesu horretan

<sup>337</sup> «I work with a definition of television as a bearer/provoker of meanings and pleasures, and of culture as the generation and circulation of this variety of meanings and pleasures within society».

<sup>338</sup> «embodiments of ideological values».

<sup>339</sup> Diskurtsoak kultur baliabideen erreperitorio bezala hartuko ditu Fiskek.

<sup>340</sup> Radwayk testua eta testuingurua aipatuko ditu, Fiskerentzat testua testuinguruaren arabera koa den artean.

<sup>341</sup> «Programs are produced, distributed, and defined by the industry: texts are the product of their readers.(...) Texts are the site of conflict between their forces of production and modes of reception».

kokatuko du Armand Mattelartek ere Hirugarren Munduan Hollywoodeko filmen harrerari buruz esandakoa: «Klase menperatuek masa kulturaren mezuak indargabetu ditzakete, euren antidotoak sortu, batzuetan kontraesankorrak diren kultura berriaren haziak sortuz»<sup>342</sup> (Mattelart, 1980: 20).

Irakurketa eta adiera aniztasuna telebistaren ezaugarri nagusizat du Fiskek. Polisemia hori beharrezkoa duela deritzo, masa gizarte batean ikus-entzuleria zabal batengana heldu ahal izateko, gizartean oso modu ezberdinetan kokatuta dauden ikus-entzuleek zentzua duten harremanak eratu ditzaten berarekin. Horrela, ikerlariaren arabera telebistak ez du testurik zirkularazten, ikus-entzuleek sortzen dituzte testuok uneoro, telebistarekin harremanean. Harremanok, noski, ez dira pantaila itzaltzean amaitzen: telebista ikustea, hartzea bera ez ezik, telebistaren inguruan hitz egitea ere saio hauetatik testua eraikitzekeko prozesuaren parte da, testuingurua testuaren hartzearen plazeraren parte den bezala. Frankfurteko Eskolaren ezkortasunaren eta Louis Althusserren estrukturalismoaren kultura-industriaren botere ahalguztidunaren aurrean (Althusser, 1971), Fiskek ikus-entzule eta ikus-entzuleriek, kokapen ezberdinetatik, telebistaren testuak esanguratsu eta atsegingarri egiten dituen prozesuetan oinarritzen du bere ikerketa.

Telebistaren egungo eta etorkizuneko funtzio sozialak direlakoak direla, pertsonak telebista ikustea atsegin dutela, eta jarduera honen plazera aurkitzen dutela ukaezina dela argudiatuko du ikerlariak, hitzaren adiera ezberdin eta gainjarrietan<sup>343</sup> (Fiske, 1987b: 224-239). Fiskeren ustez, plazera zuzenean lotuta dago boterearekin, baina ez soilik ideologia hegemonikoaren onarpenarekin, baizik eta baita erresistentzia eta subertsioarekin ere bai. Smithtongo emakume batzuek senarren gaitzezpen eta mespretxuaren aurrean eleberrri erromantikoak irakurtzen jarraitzea erabaki eta ihardukitze horretan plazera aurkitzea, adibidez. Norbere edo taldearen esanahiak eraiki ahal izateko arauak hausteak, baita herri kulturaren forma ezberdinen arau diskurtsiboak ere, plazera dakar. Hortaz, autorearentzat jolasa, jokoa, olgeta, sormena eta aisia testuarekin eta botere harremanekin zuzenean lotutako kontzeptuak dira: «Jolasa, menekoentzat, haien menpekotasunaren badintzekiko erantzun aktiboa, sortzailea, erresistentziazko da: ezberdintasun subkulturalaren zentzuari eusten dio ideologia nagusiaren indar bereganatzaileen aurrean»<sup>344</sup> (Fiske, 1987b: 236).

Laburbilduz, bi egileon lanari erreparatuta esan dezakegu herri kulturaren formen hartzea (dela eleberria edo telebista saioa) prozesu kokatua, konplexua eta dimentsio

<sup>342</sup> «The messages of mass culture can be neutralized by the dominated classes who can produce their own antidotes by creating the sometimes contradictory seeds of a new culture».

<sup>343</sup> Ikus Roland Barthesen «plaisir» eta «jouissance» berben arteko ezberdintzea (Barthes, 1975) eta Fiskeren plazer soziala.

<sup>344</sup> «Play, for the subordinate, is an active, creative, resistive response to the conditions of their subordination: it maintains their sense of subcultural difference in the face of the incorporating forces of the dominant ideology».

aniztuna dela. Kokatua dela diogu, hartzailean une historiko, egoera sozioekonomiko eta prestakuntza maila batetatik abiatzen dutelako testuarekiko harremana. Era berean, irakurketa edo ikus-entzutea testuinguru material batean ematen da, zarataz inguratuta edo isiltasunean, bakarka edo taldeka. Hartzea konplexua da, testuaren izaera bera igorle eta hartzailearen arteko harremanean egituratzen delako, esangura eta plazerak artikulatuz honen inguruan, ikus-entzuleen egunerokotasunean txertatuta. Eta dimentsio anitzekoa da, hartzaileen esperientzia, aisiazko esperientzia bezala, adiera bakarreko azterketa kuantitatiboetatik soilik abiatuta ulergaitz suerta daitekeen osagai subjektibo eta objektibo ugariren elkarreraginean osatzen delako.

Hurrengo atalean adinaren aldagaiaren inguruan egindako ekarpen esanguratsuak ekarriko ditugu, belaunaldiaren kontzeptua eta Ikus-entzuleriaren Ikerketarako duen esangura argitzeko asmoz.

### 3.2.5. ADIN TALDEAK ETA BELAUNALDIAK

Lan honen helburuetan ez ezik, izenburuan ere egiten zaio erreferentzia belau-naldi ezberdinei, eta hortaz, adin-talde ezberdinei. Bi terminoak kontzeptu ezberdinei lotuta daude berez, elkarren artean zerikusirik handia duten arren: adina aldagai objektiboa da, ikerketaren helburuen arabera multzotan bana daitekeena, belaunaldiak aldiz bestelako erreferentzia historiko, sozial edo kulturalen arabera definitu ohi dira, elementu subjektiboak kontuan hartuz.

Adin taldeek multzo demografikoa adierazten duten artean, belaunaldiek sarri elkarbanatutako esperientzia historiko komunak dituzte oinarrian, taldea bere burua talde bezala identifikatzen eraman dezaketenak. Don Tapscottek jaso bezala, belau-naldia eta adina gauza ezberdinak dira (Tapscott, 2009), biak ala biak aztertzeke modukoak komunikabideen ekosistemaren eta gizarte osoaren eraldaketak ulertu nahi izatekotan. Tapscottek esperientzia hartzen du belaunaldiaren osagai definitzailetzat, adina esperientzia jakin bat (teknologia digitalez inguratuta adin nagusigora iristea bezala) bizi ahal izateko kokaleku bezala ulerturik.

Karl Mannheimen ustez, belaunaldiak semantika historiko komuna duten subjektu kolektiboak dira, eta esanahi partekatuak daude haien oinarrian, gutasuna osa dezaketen interpretazio eredu eta gailu linguistikoen sorta komunak (cf. Mannheim, 2011). Belaunaldia, nortasun mota bat da Mannheimen lanean, hiru mailatan ager daitekeena: estatus bezala (adin talde batek espazio historiko bera banatzen duen zentzuan, jazoera berdina bizi, baldintza antzerakoan...) errealtate bezala (garai historikoan partehartze bezala, jazoera sozial eta intelektualetan), eta belau-naldi unitate bezala, talde sozial egituratu eta konkretu gisa (Mannheim, 2011: 303-304). Estatusa ezaugarri objektiboek dagokie (testuinguru historiko eta demografikoak definitzen du, ez pertsonak berak) errealtate (belaunaldi izaeraren aitortzea eskatzen dituena) eta unitateek (belaunaldiaren kide bezala elkar aitortzen duten giza taldeak) elementu subjektiboak eskatzen dituzten artean.

Interesgarria da gogora ekartzea soziologo hungariarrak belaunaldiek talde-ulermenetan jokatzen duten paperari buruz luzatzen duen gogoeta: «Talde-ulerkeren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa interpretazio prozesua da, aukeraketa prozesua izateaz gain (...) Ezin da interpretazio prozesu hau behar den bezala bistaratu, belaunaldi berri batek zaharraren metaketa onartu edo moldatzen duenean gertatzen den aldibereko aukeraketa soziala kontuan izan gabe».<sup>345</sup> (Mannheim, 2003: 83). Gizakiek, norbanako bezala eta taldean, ezagutza, uste, informazio praktiko, antolamendu sozial eta teknologiekiko onarpen, moldaketa eta aurkakotasunak agertzen dituzte etengabe, osagai batzuk aukeratuz eta besteak baztertuz, batzuk eta besteen esanahiak birmoldatuz, egokituz, zaharra eta berriaren arteko tentsioan; baita komunikabideei dagokienean ere.

Horren harira, ikerketa ezberdinek adin talde eta belaunaldiek komunikabideekiko dituzten jarrerak (Diddi & LaRose, 2006), berriak eta informazioa eskuratzeko orduan aukeratzen dituzten hedabideak aukeratzeko motibazioak (Vincent & Basil, 1997) alderatu izan dituzte. Hala ere, gehienbat adin-talde zehaztutara zuzendu izan da Ikus-entzuleriaren Ikerketa: haurrak eta komunikabideak (Askoren artean, 2001; Hodge & Tripp, 1986), nerabeak eta komunikabideen erabilera (Cola, 2011), gazteak eta telebista (López Vidales *et al.*, 2011: 97-113), pertsona nagusiak eta komunikabideak (Rubin & Rubin, 1982), eta abar.

Belaunaldien arteko ikerketaren aukera eta arriskuen artean gogoeta egiten dute Aroldi eta Colombok *Belaunaldietarako Kidetza eta Komunikabideen Paisaia Europan*<sup>346</sup> artikuluan (Aroldi & Colombo, 2007). Bertan, galdera garrantzitsua luzatzen dute: posible al da belaunaldiekiko partaidetza edo kidetza aldagai modura hartuta telebistaren ikus-entzuleriak aztertzea? Belaunaldi batetako kide izateak subkultura moduko baten partaidetza esan nahi al du, komunikabideen kontsumoa, interpretazio markoak eta komunikazioaren teknologien jabetze eta erabilerekiko alde aurretiko jarrerak baldintzatuz? Bestela esanda, esanguratsua al da belaunaldiaren kontzeptua komunikabideekiko orokorrean, eta telebistarekiko espezifikoki, eratzen ditugun harreman sortak azaltzeko? Autoreek gizarte-belaunaldi terminoa<sup>347</sup> proposatzen dute, segmentazio ezberdinek gurutzatutako konstruktua teoriko gisa (Aroldi & Colombo, 2007: 36).

Hala, belaunaldien afera modu integralean aztertu beharra aldarrikatzen dute, aldibereko faktore ezberdinei erreparatuz: bizi-itxaropena, komunikabideekiko bio-

<sup>345</sup> «The transmission of group understandings from generation to generation is an interpretative as well as a selective process.(...) One cannot properly visualize this interpretative process without the concurrent social selection which takes place as a new generation accepts or modifies the accumulation of the old».

<sup>346</sup> Generational belonging and mediascape in Europe.

<sup>347</sup> «social generation».

grafia<sup>348</sup>, komunikabideekiko esperientziak gertatu diren testuingurua, belaunaldi bereko partaideekiko balore partekatua, komunikabide sistemaren garapen historikoa, berrikuntza teknologikoaren faseak, komunikazio produktuen jabetze prozeuak, eta, oro har, gizarte eta kultura sistema osoari eragiten dioten aldaketak kontuan harturik. Zentzu horretan egileentzat adina ez da esanguratsua bere horretan, baina belaunaldi batekiko partaidetzaren adierazle edo gida bezala funtziona dezake «epe historiko jakin batean, adin bera izateak eta panorama kultural berari aurre egin beharrak, eskura dagoen komunikabide sistema eta erabili dituzten komunikazio produktuekin batera»<sup>349</sup> (Aroldi & Colombo, 2007: 36) eragina izan baitezake osagai objektibo eta subjektiboak barne dituen subkultura modu batean.

Carlos Alberto Scolari jaso bezala, telebistaren edukien ekoizleak eurak ere jakinaren gainean daude belaunaldien arteko aldaketez: «Ez da gauza bera irratian, prentsa idatzian edo telebistan bertan hezitako ikus-entzuleria limurtzea eta web nabigazioan, software edo bideo-jokoen erabileran esperientzia hipertestualen bidez sortutako gaitasun interpretatibodun belaunaldi berrientzat saioak ekoiztea»<sup>350</sup> (Scolari, 2008: 2). Ikus-entzuleria bezala, belaunaldiek ez dute soilik jazoera eta bizipen historikoen esperientzia komunean, baizik eta baita belaunaldi bereko kideekin atzealde, testuinguru bera elkarbanatzearen kontzientzia ere. Michael Corstenek esan bezala «[belaunaldiek] ez dute soilik zerbait komunean, zentzu (komun) bat ere badute –elkarbanatutakoaren eta ontzat emandakoaren adiera bikoitzean– komunean zerbait izatearen ondorioz»<sup>351</sup> (Corsten, 1999: 258). Bestela esanda, belaunaldi ezberdinek, bizipen komunak izateaz gain, bizipen komun horien kontzientzia dute komunean.

Aroldi eta Colombok belaunaldi eta komunikabideen arteko harremanaren azterketarako hiru gako laburbiltzen dituzte jada aipatutako artikuluan (Aroldi & Colombo, 2007: 4). Lehenik eta behin, komunikabide ezberdinak eta euren produktuak, komunikabideen paisaia bera eta paisaia honekiko bizitako esperientziak belaunaldien semantika ezberdinen parte direla argudiatzen dute<sup>352</sup>. Hala, haurtzaro eta gaztaroko sozializazioan ezagututako komunikabideekiko harremanak zerikusia duela diote egileek belaunaldi baten komunikabide ekosistemaren ulerkeran eta partehartzean. Bertan koka daiteke Jason Mittellen lana, non grabagailu digitalekin hazi eta

<sup>348</sup> «media biography».

<sup>349</sup> «in a given historical phase, the fact of having the same age and having to confront the same cultural panorama, as well as in terms of the media system available and the media products they have used».

<sup>350</sup> «No es lo mismo conquistar una audiencia formada en la radio, la prensa o en la misma televisión que producir programas para nuevas generaciones con competencias interpretativas generadas en experiencias hipertextuales como la navegación en la web, el uso del software o los videojuegos».

<sup>351</sup> «they do not only have something in common, they have also a (common) sense –in the twofold sense of shared and taken for granted –for the fact that they have something in common».

<sup>352</sup> Autoreek Mannheimen lanaren zentzuan hartuko dute semantika, hau da, gutasun bat osa dezaketen interpretazio eredu eta gailu linguistikoen sorta komunaren moduan.

hezitako umeen telebistaren ulermena aztertzen duen (Mittell, 2011). Bigarren gako bezala belaunaldi ezberdinetan komunikabideen dieta eta errepertorio ezberdinak aurkitzen dira, aldi berean semantika ezberdinen ondorio direnak, eta semantika hauetan eragiten dutenak. Ikerlarien iritziz, belaunaldi ezberdinek komunikabideekiko hierarkia eta jarrera ezberdinak agertzen dituzte. Gai honen inguruan Uwe Hasebrink eta Hanna Domeyerren *Komunikabideen Errepertorioak Jokabidearen Eredu eta Jarduera Esanguratsu bezala*<sup>353</sup> aurkezpena aipatu daiteke (Hasebrink & Domeyer, 2011), non komunikabide jakinekiko jarrera baino, komunikabide ezberdinekiko harremanen osotasuna aztertzen den, gestaltaren modura. Azkenik, a) belaunaldiek komunikabideekiko esperientzia bi modutan elkarbanatzen dute: komunikabideen erabilera errepikatuan ematen den erritualtasun komun baten bidez batetik, eta belaunaldi ezberdinen orainaldi komuna osatzen duten komunikabideek helarazitako edukiak elkarbanatuz bestetik. Egileen ustez horrek eragina du belaunaldi ezberdinek komunikabideekiko ageri dituzten gaitasun eta alfabetatze mailetan. Sonia Livingstonen *Gazteak eta Komunikabide Berriak*<sup>354</sup> lana argigarria da komunikabideekiko sozializazio motei, eta belaunaldi berriek komunikazio teknologia berriekiko agertzen dituzten jabetze prozesuei dagokienez (S. M. Livingstone & Bovill, 2002).

Aroldi eta Colomboren lanak belaunaldiaren kontzeptuak ikus-entzulerien ulermenean ez ezik ikus-entzulezta moduen osaketan duen garrantziaz ohartarazteaz gain, belaunaldien arteko hartuemanari ere erreparatzen dio, telebista saioen negozioazio eta aukeraketa prozesuetan adibidez. Belaunaldien arteko elkarrizketa hauek sarri etxean, familiaren baitan ematen direla ondorioztatzen dute, adin taldeek gizarte egituraren definizioan jokatzeko duten funtzioari erreparatuz. Familian, belaunaldiek botere harremanak eta funtzio sozialak zehaztu ohi dituzte, eta dimentsio hori bereziki interesgarria da ikus-entzuleriaren azterketarako. Ikus-entzuleen belaunaldi ezberdinek komunikabideen ekosistemaren orainaldi bera okupatzen dute aldi berean, eduki berak kontsumituz sarri, eta komunikazioaren teknologia berak dituztelarik eskura. Hala ere, semantika ezberdinek, jarrera, gaitasun, motibazio eta marko interpretatibo ezberdinek arras esperientzia eta irakurketa ezberdinak ahalbidetzen dituzte, telebistarekin lotutako aisiazko esperientziaren ikerketarako esparru emankorra zabalduz.

Bestalde, belaunaldiaren kontzeptu soziologikoak adin-taldearen ikuspegi objektiboa gainditu eta partaidetza eta kidesuna bezalako aldagai subjektiboak esploratzea ahalbidetzen digu, lan honetan proposatzen dugun ikus-entzuleriaren kontzeptuarekin zeresan handiagoa duena segmentazio soziodemografiko soilak baino. Aldagai subjektibo horien esploraziorako garrantzia handia izan du, eta izango du hemendik aurrera ere, Ikus-entzuleriaren Ikerketan ahozkotasanak. Alor hori jorratuko dugu, ondoren.

<sup>353</sup> «Media Repertoires as Patterns of Behaviour and as Meaningful Practices».

<sup>354</sup> Young People and New Media.

### 3.2.6. AHOZKOTASUNA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETAN

Idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko harremana auzi zaharra da Komunikazioaren Ikerketan, baina baita komunikabideen ekosistema garaikidean gaurkotasan handikoa ere. Izan ere, testuaren eta hartzearen izaerari buruzko gogoeta orok galdegin beharra du ahozkoaren eta idatzizkoaren lekuaz giza komunikazioan, eta egungo multimedia bateratzeak eta ikus-entzulerien ibilera transmediatikoek arazoa ebatzita utzi baino, berriro mahai gainera ekarri dute. Finean, idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko harremanak telebistaren izaerari buruzko eztabaida ere islatu egiten du. Zer da telebista; ekoiztako, igorritako, inskribatutako ikus-entzunezko testuen jarioa, ala jario horrekiko kontaktua, esperientzia eta kontakizuna? Non da telebista; haren saio, iragarki, egitura formal eta diskurtsoaren antolamenduetan, ala hauekiko erazten diren unean-uneko harreman iragankor, aldakor eta erregistratu gabekoetan?

Michel de Certearentzat idazketa berezko espazio baten eraikuntza da, finean: «Zer da idaztea orduan? Nik 'idaztea' berezko espazio [un espace propre], zuriune bat eraikitzeke jarduera zehatza bezala izendatzen dut –orrialdea– bertatik aurretiaz isolatua izan den kanpoaldearekiko boterea duen testua»<sup>355</sup> (de Certeau, 1984: 134). Idatzizkoa, hortaz, (komunikabideen) espazioaren okupazio estrategikoa da, botereetsuaren pribilegioa modernitatean. Ahozkoa, aldiz, idatzizkoaren botere guneetatik at, menpekoen ahotsetan kokatzen den tradizioa da *Eguneroko Bizitzaren Praktika* lanaren egilearentzat: idatzizkoari estrategia dagokio, ahozkoari aldiz taktika. Idatzizkoari ekoizpenaren ideia lotzen zaio, aurrerapen zientifiko, artistiko, ekonomikoa. Ahozkoari aldiz lorratzik uzten ez duen, berezko espaziorik ez duen sormen lana dagokio:

'Egite' hau ekoizpena da, poiesia, baina ezkutukoa, 'ekoizpen' sistemek (telebistak, hirigintzak, merkataritzak, eta abar) definitu eta okupaturiko lurraldeetan sakabanatuta baitago, eta sistema hauen hedakuntza hazkorrak ez baitie 'kontsumitzaileei' lekurik uzten sistemaren produktuekin zer egiten duten erakusteko. Ekoizpen arrazionalizatu, espantsionista eta aldi berean zentralizatu, zaratatsu eta ikusgarriari beste ekoizpen bat dagokio, «kontsumoa» deitutakoa<sup>356</sup>. (de Certeau, 1984: 14-15).

Ikus-entzuleriak, hortaz, ahozkotasanaren lurralde-ezean (edo ez-lurraldean) kokatzen dira, telebistak izkribatutako espazioan isilpeko ehiztarien gisa jardunez esanahi eta plazeren ekoizpen isilean. Telebistaren ekoizpen ikusgarriak bere lurral-

<sup>355</sup> «What is writing then? I designate as 'writing' the concrete activity that consists in constructing, on its own blank space [un espace propre] –the page– a text that has power over the exteriority from which it has first been isolated».

<sup>356</sup> «The 'making' in question is a production, a poiesis, but a hidden one, because it is scattered over areas defined and occupied by systems of 'production' (television, urban development, commerce, etc.), and because the steadily increasing expansion of these systems no longer leaves 'consumers' any place in which they can indicate what they make or do with the products of these systems. To a rationalized, expansionist and at the same time centralized, clamorous, and spectacular production corresponds another production, called 'consumption'».



dea osatzen du, estrategiak garatzeko gai da, eta aldiz ikus-entzuleek hainbat taktika baliatu behar dituzte, beti besterenak diren lurretan. Roger Silverstonek ere, de Certearen lanetik abiatuta, ahozkoa eta idatzizkoa boterearen bi muturretan kokatzen ditu: «...ahozkoak ihes eta aurka egiten du. Ahotsek eta gorputzek plazera eta mina adierazten dute. Ahozkoak esperientziaren eta oroimen kulturalaren espazioak okupatzen ditu: eguneroko bizitzaren espazioak. Idatzizko ekimenaren kanpoan eta aurka kokatzen da»<sup>357</sup>. (Silverstone, 1989: 83).

Walter J. Ongena ez da auziaren inguruko irakurketa hain politikoa. Haren ustez, ahozko kultura kultura idatziaren aurrekaria da, testualtasuna batez ere idatzizko formei lotzen zaielako (Ong, 2002). Interesgarria da, halere, komunikabideen ekosisteman bi ahozkotasan maila identifikatzen dituela ikustea. Autorearen ustez, lehen mailako ahozkotasan idazketa edo inprentarekiko batere kontaktu edo ezagutzarik ez duen kulturei dagokie «'Lehen mailakoa' da egungo goi-teknologiadun kulturaren 'bigarren mailako ahozkotasanarekin' alderatuta, non telefonoak, irratiak eta haien funtzionamendurako eta existentziarako idazketa eta inprentaren beharra duten beste gailu elektronikoek ahozkotasan berri bati eusten dioten»<sup>358</sup>. (Ong, 2002: 11). Zentzu horretan, gaur egun apenas existi daitekeen lehen mailako ahozkotasan munduan, ia kultura orok izan baitu idazketaren berri eta idatziarekiko esperientziaren bat. Halere, Wongek argudiatuko du lehen mailako ahozkotasanaren pentsamoldeak egungo komunikabideen ekosisteman ere irauten duela, kultura eta subkultura ezberdinetan. Argigarria da, zentzu berean, Joshua Meyrowitzek Robert Sacken *Lekua Testuinguru Bezala* lanaren iruzkinean<sup>359</sup> eginiko oharra (Meyrowitz, 1990: 132):

(...) forma garbian ahozkotasan soilik existitu izan da. Idatzizko kulturak eta kultura elektronikoak hibridoak dira. Irakurtzen dakiten kulturek hitzegiten jarraitzen dute, eta kultura elektronikoek irakurri eta idazten jarraitzen dute. «Irakurketaren kultura» bati erreferentzia egitea, orduan, «gizarte industrializatua» bezalako laburdura erabiltzea da. Halako kontzeptuek ez dute hurrenez hurren iradokitzen hizkera edo nekazaritza desagertu direnik, soilik teknologia berri bat gizartearen eraldaketan egundoko papera jokatzeko ari dela<sup>360</sup>.

<sup>357</sup> «... the oral escapes and opposes. Voices and bodies express pleasure and pain. The oral occupies the spaces of experience and cultural memory: the spaces of everyday life. It lies outside and against the scriptural enterprise».

<sup>358</sup> «It is 'primary' by contrast with the 'secondary orality' of present-day high-technology culture, in which a new orality is sustained by telephone, radio, television, and other electronic devices that depend for their existence and functioning on writing and print».

<sup>359</sup> Ikus Komunikabideak eta Espazioa, 2. Atalean.

<sup>360</sup> «... only orality has ever existed in pure form. Literate and electronic cultures are hybrids. Literate cultures continue to speak, and electronic cultures continue to speak and read and write. To refer to a «literate culture,» then, is to use a short-hand term analogous to «industrialized society». Such concepts do not suggest that speech or agriculture have disappeared, respectively, only that a new technology is playing a major role in reshaping society».

Horrela hartuta, espazio hibridoa da komunikabideen espazio garaikidea: ahozko-tasuna testu idatziekin bizikidetzan dago, elkarreraginean, eta ikus-entzuleek ere idatzizko kulturaren eta ahozko kulturaren ezaugarriak agertzen dituzte, haien eguneroko jardunean. Interesgarria da Meyrowitzek proposatzen duen harreman ez-baztertzaila ahozko eta idatzizko kulturen artean (Meyrowitz, 2008), non idatzizko kultura batek ez duen ahozko-tasuna ukatzen, gizarte industrializatu batek nekazaritza ukatzen ez duen modu berean. Komunikabideen ekosisteman egun geroz eta argiago marraztuta ikusi dezakegun ezaugarri horrek ikerketarako aukera berriak zabaltzen ditu, ahozko-tasuna testu multimediekiko harremanen eta haien bizipenekiko atari bezala baliatu baitaiteke, elkarren artean zeresanik ez duten komunikazioaren agerpen isolatu eta funtsean bateragaitz bezala hartu beharrean.

Xede horri begira, telebistaren ikus-entzulerien ikerketan hainbat ahozko-tasunaren adiera identifikatu daitezke. Alde batetik telebistako testuaren eraikuntzan ahozko-tasunak duen garrantzia abiapuntu hartuta saioen eta generoen azterketa formala burutu da, dela hitza oinarrian duten saioetan ikus-entzuleriaren parte-hartzea aztertuz (S. M. Livingstone & Lunt, 1994), edo genero eta formato zehatzak<sup>361</sup> ezaugarri eta bilakaera historikoa azaltze aldera (Askoren artean, 2000; Timberg, 2004). Telebistaren testuaren azterketa formal horiez gainera, ikus-entzuleen telebistaren inguruko hizketa ere ikergai izan da, guraso eta seme-alaben arteko elkarrizketetan (Huesmann, Eron, Klein, Brice, & Fischer, 1983), aurrez aurreko eta telebistako berbetaren arteko ezberdintasun eta antzekotasunen azterketan (Scannell, 1991), bezperako telenobelari buruzko emakumezkoen beharlekuko so-lasaldietan (Hobson, 1982) eta familia giroan sortzen diren telebistaren inguruko eztabaidetan (Goodman, 1983). Kasu horietan guztietan, ahozko-tasuna iker-objektu bezala hartu izan da, telebistaren ikus-entzulerien edo telebistaren izaeraren dimentsio behagarri bezala.

Bestalde, ahozko-tasuna ikus-entzuleriaren ikerketa etnografikorako tresna bezala hartu izan duen ikerketarik ere badago, non ahozko-tasuna helburu baino bitarteko bezala hartu den. Aipamena merezi du Jukka Kortti eta Tuuli Anna Mähönenen *Telebista Gogoratzuz: Komunikabideen Etnografia, Ahozko Historia eta Finlandiar Hirugarren Belaunaldiko Komunikabideen Historia* lanak (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67). Artikuluan telebistak Finlandian izandako 50 urteko garapena (1957tik 2007ra) aztertzen da, hainbat finlandiarren ahozko kontakizunetik abiatuta. Hau da, telebistak belaunaldi ezberdinetako finlandiarren bizitzan izan duen papera aztertzen da, belaunaldion oroitzapenen bidez. Bestela esanda, telebistaren idatzizko espazioa ahozko lekukotzen bidez deskribatzen da. Irudi eta soinuen ekoizpen eta banaketarako teknologien berrikuntza eta garapenak ikertu beharrean, pertsona arruntek eguneroko bizitzan urteetan zehar teknologia horiekiko izandako harremanen kontakizuna bilatzen eta biltzen dute egileek.

<sup>361</sup> Elkarrizketa saio edo «talk show»-ak kasu.

Ahozko kontakizunok idatziz jaso dira berauekin ikerketa etnografikoa burutzeko: «[i]datzizko oroitzapenak biltzeak, idazketa etnografikoak, Finlandiar historia eta folklore ikaskuntzetan tradizio luzea du»<sup>362</sup> (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67: 50). Horrek, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko banaketaz eta botere harremanetaz hausnartzea ahalbidetzeaz gainera<sup>363</sup> arestian aipatutako testu multimediekiko harremanen eta haien bizipenekiko ikerketarako aukeren adibidea eskaintzen digu.

Kortti eta Mähönenen lanak Kultur Ikasketekiko hurbiltasun handia agertzen du, telebistaren erabilera sozialei, eta telebistak egunerokotasuna moldatzen dituen moduei buruz galdetzerakoan, telebista ekoizle eta erregulatuzaileen estrategietan baino ikus-entzuleen taktiketan sakonduz (Kortti & Mähönen, 2009: 51). Era berean, aurreko atalean jorratutako belaunaldien kontzeptuarekiko ardura ere agertzen du, telebistaren teknologien garapenarekiko (magnetoskopioak, kable eta satelite bidezko telebista...) esperientziei buruz ez ezik belaunaldien arteko harremanei buruz ere itaunduz adin-talde ezberdinei. Hala, parte-hartzaileei haien esperientziei buruz galdetzeaz gainera, haien guraso eta aiton-amonen telebistarekin lotutako esperientziei buruz ere galdetzen zaie (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67: 56), eta jasotako kontakizunak Finlandiar telebistaren historiaren epe esanguratsuenetan kokatzen dira, bizipen subjektiboak aldagai objektiboekin alderatzeko (Ellis, 2000). Horrek, berriro ere, garapen teknologiko eta industrialaren eguneroko esanguran sakontzea ahalbidetzen die.

Kortti eta Mähönenen lanak zantzu metodologiko oparoak eskaintzen ditu telebistarekin lotutako esperientzien ikerketan ahozko eta idatzizko lekukotzak erabiltzerako orduan. Horrez gain, telebistaren izaerari buruzko gogoeta aberatsak aurkezten ditu, finlandiarren kontakizun subjektiboak abiapuntutzat hartuta. Telebistak Finlandian jasan dituen eraldaketa tekniko eta industrialak ikus-entzuleen eguneroko bizipenen arabera deskribatzerakoan haren kokapen sozial eta kulturala esploratzen du. Zentzu horretan, egungo komunikabideen ekosistema konplexu eta aldakorrean telebistak oraindik ere zentraltasuna gordetzen duela ondorioztatzen dute autoreek, Meyhowitzek ohartarazi bezala, aurreko belaunaldien aztura eta jarrerren arrastoak aurkituz belaunaldi berrien ulerkeretan:

...telebistak komunikabide sozial eta kultural izaten jarraitzen du ugaritasun eta oparotasunaren aroan. Telebistaren historian aldaketa teknologiko eta kultural anitz egon diren arren, telebistarekin lotutako ohituren ezaugarri nagusiek iraun egiten dute. (...) Telebistaren teknologiaren eboluzioak 'telebistaren erabilerak' aldarazi

<sup>362</sup> «Collecting written reminiscences, ethnographic writing, has a long tradition in Finnish history and folklore studies».

<sup>363</sup> Izan ere, ahozkoa al da oraindik, ikerketa etnografikoa burutzeko idatziz transkribatua, gordea, aztertua eta argitaratutakoa? Bere espazio propioa gordetzen du, ala ikerketa akademikoaren idatzizko espazioan txertatzen da?

dituen arren, nahiko harrigarria da jende gehiena zeinen kontserbadorea den telebistaren inguruan<sup>364</sup>. (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67: 58).

Egun telebista kokatzen den komunikabideen ekosistema hibridoa da, ez solik plataforma, testu eta ikus-entzuleriaren elkarreraginaren konplexutasunagatik, bai zik eta baita komunikabideekiko jarrera, uste eta ulerkerei dagokienez ere. Telebista ulertzeko moduak, harekiko harremanak eratzeko bideak, ez dira forma garbi eta bereiztuak, belaunaldi, aro eta esperientzia arras ezberdinen arragoa baizik. Ikus-entzuleriaren ikerketa etnografikoak eta ahozko lekukotzen azterketak ikus-entzuleriaren errealitateak dimentsio anitzekoak, hibridoak, ezegonkorrak eta konplexuak direla erakusten digu.

Ondorengo orrialdeetan komunikabideen eta telebistaren ikus-entzuleriei buruzko ikerketan azken urteotan Europa mailan eginiko lana berrikusiko dugu, eremuak agertzen dituen ezaugarri esanguratsuenak azpimarratze aldera.

### 3.3. EUOPAR PANORAMA IKUS-ENTZULERIAREN IKERKETAN

Atal honen hasieran aipatu dugu bi ikuspegi ezberdinetatik abiatu izan dela ikus-entzulerien azterketa oro har: gizarte zientziei lotuago agertu diren metodo kuantitatiboetatik, eta humanitateetatik hurbilago koka daitezkeen metodo kualitatiboagoetatik. Ikus-entzuleek telebistarekin harremanean dituzten aisiazko esperientzien azterketarako ekarpenak identifikatzerako orduan, komeni da egun Europa mailan esparruak agertzen dituen aurrerapen eta moldeei heltzea.

Horretarako, *Transforming Audiences, Transforming Societies* COST<sup>365</sup> ekintza aipatu beharra daukagu. Haren baitan bildutako 30 herrialdetako<sup>366</sup> 59 autoreren saiakera laburrek Europa mailako Ikus-entzuleriaren Ikerketaren egungo egoeraren panorama marrazteko saiakera aipagarriena osatzen dute, ekintzaren helburu nagusietarikoak baita eremuaren egungo egoera zatikatu eta anitzaren mapa lana burutzea. Lerro hauek idazterako uanean ekimena ez dago amaituta, eta hutsune nabarmenak ditu, adibidez hizkuntza gutxitu eta estaturik gabeko nazioekiko<sup>367</sup>, baina Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzen eremuaren egungo egoeraren portreta adierazgarria eskaintzen

<sup>364</sup> «... television remains a social and cultural medium in the era of availability and plenty. Despite the many technological and cultural changes in television's history, most of the main features of television habits remain. Although the evolution of television technology has changed the 'uses of television', it is rather surprising, how conservative most people are around the tube».

<sup>365</sup> European Cooperation in Science and Technology ekimenaren baitan kokatzen da IS0906 ekintza.

<sup>366</sup> Austria, Belgika, Bosnia eta Herzegovina, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Txekiar Errepublika, Danimarka, Estonia, Suomi, Frantzia, Alemania, Hungaria, Israel, Irlanda, Italia, Lituania, Mazedonia, Herbehereak, Norvegia, Polonia, Portugal, Errumania, Serbia, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza, Turkia, Erresuma Batua.

<sup>367</sup> Bilduman ez dago erreferentziarik Euskal Herriari edo euskal hiztunei buruz, adibidez.

du, alde teoriko, metodologiko eta instituzionaletik, eta lan honetan burutu nahi den Europar panoramaren berrikusketarako erreferentzia ekidiezina da.

Ez da hau herrialde guztien aipamenik egiteko lekua, baina lan honetarako esanguratsuenak diren kasuak ekarriko ditugu ondoren, berez ere anitza den ikerketa eremuaren Europar egoera anitzaren isla gisa. Bertatik, lan honen helburu eta esparrurako adierazgarriak diren zortzi kasu aukeratu ditugu: Frantzia, Espainia, Austria, Belgika, Suitza, Finlandia, Erresuma Batua eta Portugal, dela herrialde hauetan burututako ikerketa dagokigun gairako bereziki interesgarriak delako, edo ikerlari bezala herrialde hauetako ekarpenekin harreman handiagoa izateko zortea izan dudalako. Amaitzeko, euskaraz ikus-entzuleriaren inguruan burututako ekimenen berri eman-go dugu, lan honek esparru horretan baitu, izatekotan, lekua.

Hasteko, esan beharrekoa da ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren arteko bereizketa gainditzeko eta bi hurbilketen tresnak eta ekarpenak uztartzeko saiakerak egin badira ere<sup>368</sup>, oro har bereizketa dela nagusi ikerketa esparruaren Europar panoraman.

Frantziar Estatuko telebistaren ikus-entzuleriaren inguruko teorien berrikusketan Mélanie Bourdaak (Bourdaa, 2011) honela kokatzen du bereizketa honen jatorria: «Komunikabideen ikus-entzulerietaz hitzegiten dugunean, dela irratia, egunkariak, telebistak, edo berriki Internet, gogora datorren lehenengo gauza audientziaren neurketa da. Komunikabide baten xede nagusia ahal duen beste jende erakartzea da enpresei iragarri tarteak saltzeko».<sup>369</sup> (Bourdaa, 2011: 67). Ikuspegi horrek ikerketa kuantitatiboa bul-tzatu duela deritzo, Kultur Ikasketei lotutako hurbilketa kualitatiboagoak 90.eko hamarkadatik aurrera bakarrik agertzen hasi direlako frantziar Ikus-entzuleriaren Ikerketan (Deleu, 2006; Mehl, 1996; Pasquier, 1999). Frantziar soziologiak interes txikia agertu izan du komunikabideekiko, Britainiar tradizioarekin alderatuta, eta autorearen ustez hurbilketa kualitatiboek frantziar ikerketa eremuan sartzeko aurkitu duten erresistentzia alde batetik hizkuntzari lotutakoa izan da (Kultur Ikasketekin lotutako ekoizpen gehiena ingelesez baitago) eta, bestetik, goi eta behe kulturaren arteko bereizketan oinarritu izan da, telebista kulturarik gabekoen komunikabide bezala hartu izan delarik, merkatu-ikerketetz gain zilegitasun eskaseko iker-objektu bezala (Mace, 1992).

Interesgarria da frantziar Ikus-entzuleriaren Ikerketan publikoen (publics) eta audientzien (audiences) artean bereizketa egiten dela kontuan izatea (Cardon, Lico-ppe, & Pasquier, 2011). Audientziak hurbilketa kuantitaboeekin eta audimetriarekin

<sup>368</sup> Ikus adibidez *Transforming Audiences, Transforming Societies* ekintzaren baitatik abiatutako *Metodo anitzeko ikus-entzuleriaren ikerketaren sinergia metodologiak esploratzen* ekimena (Exploring the methodological synergies of multimethod Audience Research) *Participations* aldizkari elektronikoan. <http://www.participations.org/cfp.htm>

<sup>369</sup> «When we talk about media audiences, be it radio, newspapers, television or more recently the Internet, the first thing that comes to mind is audience measurement. The main purpose of a media is to attract as many people as they can in order to sell ad spaces to companies».

lotuta ikertu ohi diren artean (zenbat, nork, zer ikusten duen, nola jaso nola neurtu), publikoak Hartzearen Ikaskuntzen aldean kokatu ohi dira, gizarte nortasunarekin eta kultur-erabilerekin lotuta. Audientzien ikerketan Cecile Meadel (Meadel, 1998) eta Michel Souchonon (Souchon, 1992) lanak aipa daitezke, zeinek hurbilketa kuantitatiboan garapen historikoa eta hauen mugak azaltzen dituzten. Publikoen ikerketan, aldiz, Daniel Dayanek telebistaren ikus-entzuletzari buruzko lana (Dayan, 2000) eta Pasquierren nerabeen hartze moduei eta telebistari lotutako esperientziei buruzkoa aipa genitzake (Pasquier, 1999), besteren artean.

Espainiar estatuari dagokionez ere, nolabaiteko mugaketa metodologikoa ematen dela esan dezakegu. Miguel Vicente-Mariñok (Vicente-Mariño, 2011: 140-144) hiru multzo handitan banatzen du eremuaren baitan –batez ere telebistaren inguruan– egindako lana. Lehenengo taldean ikus-entzuleriaren portaera ikuspegi komertzial eta instituzionaletik ikertzen duten lanak leudeke, TNSofres, Estudio General de Medios edo OJD bezalako elkarten datuetan oinarrituta. Lan horietan helburua komunikabideen kontsumo eta esposizio denboren (ordutegi, egutegi...) neurketa litzateke, tradizio kuantitatiboaren «buru-kontaktetan» eta ikus-entzuleriaren iragarki tarteen merkatuko moneta izaeran bete-betean kokatuko liratekeelarik, batez ere komunikazio enpresen erabaki eta merkatu estrategien orientatzera zuzendurik. Vicente-Mariñok lan mota horien ekarpen akademikoen eskasia aipatzen du, eskura dauden lanak batez ere neurketa konpainien eta aholkularitza enpresen eskutik baitatuz, unibertsitateetatik baino.

Bigarren multzoan hartzearen ikerketan oinarritzen diren lanak kokatzen ditu autoreak, ikus-entzuleriaren hurbilketa, esposizio denboraren datu estatistikoan baino, norbanako eta taldeen esangura-erakitze prozesuetan oinarritzen diren lanak alegia. Multzo horretan, biztanleria osoarengan baino talde txikiagoenganako hurbilketa kualitatiboak dira nagusi (haurrak, gazteak, adin nagusikoak, familiak...), eta hedabideekiko esposizioa baino, komunikabideen bitartekaritza lana dute mui-nean. Hirugarren multzoan Ikus-entzuleriaren Ikerketari berari buruzko hurbilketak leudeke, testu liburu eta hurbilketa metametodologikoak, ikus-entzuleriaren neurketa eta ezagutzarako teknika bildumak eta abar.

Oro har, beraz, eta beti ere Vicente-Mariñoaren banaketaren arabera, Espainiar Estatuko Ikus-entzuleriaren Ikerketan bereizketa argia agertzen da, batez ere komunikazio industriaren ikuspegitik eta industriaren etekinei begira egiten den ikerketa objektibistaren (Cáceres, 2001: 2011/11/24; Fedele & García-Muñoz, 2010: 48-65; Vaca Berdayes, 1997; Vicente-Mariño & Monclús, 2008) eta Hartzearen Ikaskuntzetara bideratutako ikerketa subjektibistagoen artean (Grandio, 2009). Hirugarren ekoizpen multzoak esparruaren inguruko argiketa metodologiko eta testu pedagogikoak hartuko litzuzke barne (Callejo, 1995; Callejo, 2001). Martínez Nicolás-ek, bere aldetik, (Martínez Nicolás, 2009: 1-14) Espainiar Estatuan azken hamarkadan egindako ekarpen nagusiak kontsumoaren soziologia eta antropologiatik etorri direla aipatzen du, Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzen diziplina artekotasuna azpimarratuz.

Diziplina anitzetatik edateko joera europako herrialde gehienetan erreplikatzen bada ere, Vicente-Marñoñoren hiru multzotako banaketa, ez da inola ere hain argia. Ingrid Paus-Hasebrink, Elizabeth Klaus eta Birgit Starkek Austriar Ikus-entzuleriaren eta Hartzearen Ikaskuntzen eremuan komunikazio industriek bultzatutako ikerketa alde batera uzten dute, berariaz akademiko denari ekiteko (Klaus, Paus-Hasebrink, & Stark, 2011). Austriar akademian bi korronteak, kuantitatiboa eta kualitatiboa, ordezkatuak daudela diote, gazteenen komunikabideen erabileraren inguruan Vienako Gazteriaren Ikerketaren Austriar Institutuak eta Klagenfurtoko unibertsitatean ekin-dako metodologia anitzeko hurbilketa konbinatuak (Paus-Hasebrink, 2005) azpimarratuz. Orotara, Austriako Ikus-entzuleriaren Ikerketaren tradizioa Europa osoan luzeenetarikoa da, 1930.eko hamarkadan kokatzen direlarik hastapenak. Edozelan ere, Paul Lazarsfelden *Wirtschaftspsychologische Forschungsstelle* institutuaren metodo anitzeko tradizioaren aldeko jarrera sumatzen bada ere, akademiaren alde kualitatiborako nolabaiteko joera egon badagoela aitortzen dute autoreek.

COST ekintzaren bilduma-gainbegiradan hizkuntza gutxituei buruzko berariazko planteamendurik ez dakarrela esan dugun arren, hizkuntza komunitateen perspektibatik bereziki interesgarria da Belgikaren eta Suitzaren kasua aztertzea. Belgikari dagokionez, *Transforming Audiences, Transforming Societies* ekintzan bi saiakera biltzen dira, bi belgiar hizkuntz komunitateei dagozkienak: Alexander Dhoesten *Ikus-entzuleriaren Ikerketa Flandriar (Ipar Belgikan)*<sup>370</sup> (Markkanen & Nieminen, 2011) eta Geoffroy Patriarche, Marie Dufrasne eta Michel Hubert-en *Ikus-entzuleriaren Ikerketa Belgika Frankofonoan*<sup>371</sup> (G. Patriarche, Dufrasne, & Hubert, 2011).

Nederlandera hitzunen Ikus-entzuleriaren Ikerketa Dhoestek zatikatua eta anitza bezala deskribatzen du, batez ere metodologia kuantitatiboei atxikia, eta eremuaren sorkuntza 1970.eko hamarkadan kokatuz, batez ere soziologia eta politika zientzien fakultateen inguruan. Flandriar Ikus-entzuleriaren Ikerketak holandar ikerketaren eragin handia agertzen du, hastapenak alemaniar tradizioko egunkarien irakurleriaren esparruan kokatu beharko lirakekeelarik, baina 2000. urtetik aurrera hazkunde berezia eman da autorearen arabera, egun berariazko Ikus-entzuleriaren flandriar Ikaskuntzen diziplinaz hitzegin ezin bada ere, berariazko eremu bat identifikatzea posible delarik. Metodologia kuantitatiboekiko hautuak industriaren beharretara modu indartsuan lotuta daudela gehitzen du hemen ere ikerlariak, gobernuaren IBBT edo Banda Zabaleko Teknologien Institutuaren<sup>372</sup> kasua aipatuz.

Hala ere, bigarren korronte indartsu bat ere aipatzen da, gutxiengo etnikoek darabiltzaten komunikabideen irudikatze eta ohiturak ezagutzera zuzendutako ikerketa. Nortasun kulturalari dagokion ikerketak egin izan dira, adibidez, telebista

<sup>370</sup> Audience Research in Flanders (North Belgium).

<sup>371</sup> Audience Research in Francophone Belgium.

<sup>372</sup> Institute for Broadband Technology.

publikoaren igorpenetan Flandriako burujabetza kulturalaren auzia aztertuz eduki analititik (Dhoest, 2004; Van del Buck, 2001) eta ikus-entzuleriaren etxeko programazioarekiko atxikimendua aztertuz hainbat talde etnikoren artean (Biltreyst, 1991; Dhoest, 2009). Tradizionalki kultura aldetik homogenea izan bada ere, azken hamarkadetan kultura aniztasuna aitortzera behartua izan dela<sup>373</sup> eta aitorten hau ikerketa eremura ere zabaldu dela deritzo Dhoestek. Adibide bezala *Integrazioa edo nortasuna? Turkiar eta marokiar gazteen komunikabide menuak*<sup>374</sup> (d'Haenens, van Summeren, Saeys, & Koeman, 2004) lana aipatzen du, non turkiar eta marokiar jatorriko gazteek Herbeheretan eta Flandrian dituzten lehentasun eta zaletasunak alde-ratzen diren, ikuspegi kuantitatibotik.

Alde kualitatiboago batetik, holanderazko komunikabideen hartzaile diren guxtiengo etnikoekiko hurbilketa gehiago ere egin izan direla aipatzen du autoreak, non flandriar erreferentzia Herbeheretan kokatzen den oraindik ere (de Bruin, 2005; Ogan, 2001). Flandriar eta Herbeheretako gutxiengo etnikoetako ikus-entzuleen azterketan ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibotik egindako lanek etnizitatearen inguruko kategoriak berpentsatu beharra azaleratu du, ikerlariaren ustez: «Arriskua, beraz, 'talde etnikoak' kode elkarbanatuak dituen komunitate interpretibo bezala errazegi hartzean datza»<sup>375</sup> (Markkanen & Nieminen, 2011: 12). Autorearen iritziz, talde etnikoek hitz egin eta ikertzea zilegi eta beharrezkoa da, baina kategoria gisa aurkezten dituzten mugez, eta betiere haien izaera iragazkor eta behin-behinekoaz erne ibilita.

Belgika frantses-hiztunean aldiz, hizkuntza eta etnia komunitateekiko baina, bestelako joerak antzematen dira. Aztertutako autoreek azken urteotan gailendu izan diren sei joera nagusi identifikatzen dituzte:

1. Hartzearen teoria, berau esperientzia pertsonal eta fenomeno sozio-politiko gisa ulertuta: Christine Servais-en komunikabideen eta kulturaren hartzearekiko hurbilketa estetikoak adibidez (Servais, 2004); komunikabide berriak eta ikus-entzuleria irudikatuak, nola ulertu ikus-entzuleriak komunikabide sistema ezberdinetatik ekosistema digital berrian, Fastrez, Champion eta Collard-en lanean kasu (Fastrez, Champion, & Collard, 2009).
2. Gazteak eta komunikabide berriak: Europar Batzordeak diruz babestutako Mediapro-ren *Gazteriaren komunikabide berrien jabetzea*<sup>376</sup> (De Smedt et

<sup>373</sup> Ikus adibidez holanderazko «allochton» (kanpoan jaioa) eta «autochton» (bertan jaioa) berben arteko eztabaida.

<sup>374</sup> Integratie of intentiteit? Mediamenu 's van turkse en marokkaanse jongeren.

<sup>375</sup> «The risk, then, is that 'ethnic groups' are too easily seen as interpretive communities with shared codes».

<sup>376</sup> The Appropriation of New Media by Youth.



- al., 2006), eta jabetzearen soziologian oinarritutako *Nerabeak eta IKTak: Arriskuak eta Aukerak* (Lobet-Maris & Gallez, 2006) bezalako lanak kasu.
3. Ikus-entzuleria mugikorrek, hau da, mugimenduan burutzen diren komunikabideen erabilerak Brusela inguruan eguneroko joan-etorriak burutzen dituzten gazteen<sup>377</sup> (G. Patriarche, Hubert, Montulet, & Berzin, 2009) eta belgiarren eguneroko mugikortasunaren inguruko ikerketa estatistikoak.
  4. Komunikabide berrien eragin kognitiboak: jakintza eskuratzeko prozesuetan komunikabide ez-linearrek duten eraginari buruzko saioak, Campion (Campion, 2009) eta Fastrezen (Fastrez, 2005) lanetan adibidez.
  5. Erabiltzailea informazio kudeatzaile bezala: informazioaren katalogazio eta etiketatze lanetan diharduten pertsona eta prozesuei buruz ardura hartuta, Lejeune-en indexazio praktiken erantzuleekiko ikerketa etnografiakoak kasu (Lejeune, 2008).
  6. E-gobernua eta e-demokrazia (Administrazioaren eta hiritarren arteko harremanetan komunikabideek eta IKTek aurkezten dituzten aukerak eta paradigma aldaketak ikertuz, Breindl eta Francq-en (Breindl & Francq, 2008) 2.0 web aplikazioen demokrazia elektronikorako ahalmenen iruzkin kritikoa bezala).

Oro har, Flandrian etnia ezberdinekiko hurbilketa metodologiko eta epistemologikoak gailentzen baziren, Valonian nerabe eta gazteekiko eta teknologia berrien agerpen eta erabileretikiko ardura nagusitzen dela esan dezakegu. Hurbilketa kualitatibo zein kuantitatiboak erabiltzen dira, baina uztarketa esanguratsurik erdietsi gabe oraino.

Hizkuntza-komunitate ezberdinek orokorrean komunikabideekiko, eta bereziki telebistarekiko dituzten harremanei erreparatzen dien beste herrialde bat Suitza da. Lujanoko unibertsitateko Marta Colak jasotzen duen legez (Cola, 2011), Suitzak hiru hizkuntza ofizial (alemaniera, frantsesa eta italiera) eta laugarren hizkuntza gutxitu bat ditu (erromantxea)<sup>378</sup>. Hizkuntza komunitate bakoitzak komunikabideekiko portaera eta harreman berezituak agertzen ditu, sarri Suitzaz kanpoko komunikabideekin lotuta. Hiru hizkuntza ofizialen kasuan Italia, Alemania eta Frantziako telebista publiko zein pribatuen kontsumoa gailentzen delarik, herrialdekoek gain (Richeri, 2005). Suitzar ikus-entzuleek, gainera, haien hizkuntz komunitatetik kanpoko telebista edukiak kontsumitzeko oso joera txikia agertzen dute (Calvo, 2011; Kriesi, Wernli, Sciarini, & Gianni, 1996), nortasun kolektiboak batez ere hizkuntz komunitatearen baitan eraikitzen direlarik. Testuinguru horretan, Ikus-entzuleriaren Ikerketa ere zatikatuta ageri da egilearen ustez, hizkuntza-komunitate bakoitzeko unibertsitate eta fakultateetan, eta batez ere etorkin komunitateekiko interes berria, gazteen

<sup>377</sup> 25-35 urte arteko gazteak, kasu honetan.

<sup>378</sup> Alemaniera biztanleriaren %63,7ak hitzagitzen du, frantsesa %20,4ak, italiera %6,4ak eta erromantxea %0,5ak. (Cola, 2011: 160).

komunikabide erabilerekiko ardura eta IKT teknologia berrien (batez ere eskuko telefonoen eta interneten agerrerak sortutako eraldaketak ardatz harturik) azterketa gailendu dira azken urteetan. Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzak modu berezitan, edo Komunikazio Ikaskuntzen baitan hiru hizkuntz komunitate nagusietan asko ugartu diren arren, erromintxelaz ez da aipatzen ikerketarik.

Ikus-entzuleriaren Ikerketan hizkuntzari garrantzia berezia ematen dion beste herrialde bat Finlandia da, lehenago aipatu bezala bai maila idatzian eta baita ahozkoan ere. Markkanen eta Nieminenen arabera 90.eko hamarkada ezker hasten da ikus-entzuleriaren azterketa rating-en «buru-kontakteta» gainditu –hau ere jorratzen jarraitu zuen arren– eta ikus-entzuleriaren parte-hartzeaz arduratzen (Markkanen & Nieminen, 2011), batez ere Yleisradio (YLE) finlandiar irrati telebista publikoaren inguruan. Gastu publikoaren murrizketen ondorioz, ikerketa horiek 2005ean amaiera aurkitu zuten, finlandiar irrati telebistak «Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzak» saila itxi ostean. Ordutik, komunikabide publikoaren ikerketa barne kontsumorako eta merkatura begirako estrategia bideratzera zuzendu da erabat. Hala ere, komunikabideen ekosistema berriak nolabaiteko berpizkundea sortu duela deritzote Markkanen eta Nieminenek, batez ere kazetaritza eta prentsa idatziaren arloan azken urteotan joera berri garrantzitsuak agertu direla azpimarratuz, hala nola *Helsingin Sanomat* Fundazioak babestutako kazetaritza eta irakurleriaren atxikimendua uzartzen dituen ikerketa proiektua (Nikunen & Vehmas, 2009-2011).

Egunkariak soilik ez, baina komunikabideen ekosistema digitala bere osoan du aztergai Amelia Byrne eta Minna Aslamak bidean duten ikerketak etnografikoak<sup>379</sup>. Autoreek, Finlandia, India eta Ameriketako Estatu Batuetako egunerokotasun digitalak aztertu dituzte parte-hartzaileen lineako egunerokoen bidez bideratutako azterketetan (Byrne & Aslama, 2012). Proiektua ikus-entzuleen bizipen eta deskribapen idatzian oinarritzen da, komunikazioaren teknologiek hiru herrialdetako biztanleengan duen papera eta zentzua ulertzeko asmoz. Telebistari espezifikoki erreparatuta, antzerako abiapuntua, baina idatzia beharrean ahozko kontakizuna oinarri ageri du aurretik ere aipatu dugun *Telebista Gogoratu: Komunikabideen Etnografia, Ahozko Historia eta Hirugarren Belaunaldiko Komunikabideen Finlandiar Historia*<sup>380</sup> lanak (Kortti & Mähönen, 2009: 49-67). Bertan, azken 50 urteetan finlandiar biztanleriak telebistarekiko bizitako egunerokotasuna aztertzen da, telebistaren esperientziaren kontakizuna, 1957ko lehen emisioetatik egungo kable eta satellite bidezko telebista digitaletara artekoak. Ibilbide interesgarria aurkezten du, oso, iker-objektu bezala telebistak eguneroko ondasun (material eta sinboliko) bezala jokatzen dituen paperak,

<sup>379</sup> Aslamak *Digital Live!* doktoratu ondorengo ikerketarekin batera burutuko du Byrne-ek *Digital Time* film dokumentala. Ikus <http://digitaliving.wordpress.com> webgunea proiektu bikoitzaren deskribapen osoago batetarako.

<sup>380</sup> *Reminiscing Television : Media Ethnography, Oral History and Finnish Third Generation Media History.*

eta finlandiarren mundu-ikuskeran eta hartueman sozialetan dituen eraginak harturik (Kortti & Mähönen, 2009: 50).

Ridell-ek ere, komunikabideen ekosistema digitalak ikus-entzuleriaren eta komunikabide ezberdinen arteko harremanaren inguruko interesaren berpizkundera sumatzen du finlandiar eremuan (Ridell, 2011a). Hala, pentsalariaren arabera, egun finlandiar Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzetan ez da izen hori aipatzen, aldiz zaleak, herri kazetaritza, komunikabideen eduki eta euskarrien kontsumoa, web oinarriaren komunikabide sozialak, erabiltzaileen interfazeak eta jolas digitalak dabilta ikerlarrien aho eta teklatueta. Autoreak dioen bezala, «orain bat-batean 'ikus-entzuleria' alde guztietan dagoela dirudi»<sup>381</sup> (Ridell, 2011a: 61). Bestela esanda, egungo finlandiar Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzak ikus-entzuletzaren nozioa bera berdefinitzen saiatzen ari dira komunikabideen ekosistema aldakorrera.

Ikus-entzuleriaren Ikaskuntzetan ez ezik ikus-entzuletzaren ikerketan bereziki tradizio indartsua duen herrialdea da Erresuma Batua<sup>382</sup>. Livingstone eta abarren arabera (S. Livingstone *et al.*, .2011) britainiar eremua bi ikerketa guneren arteko talkak definitu izan du denbora luzez: Stuart Hallen *Birmingham Centre for Contemporary Cultural Studies* alde batean eta James Halloranen *Leicester-go Centre for Mass Communication Research* institutua bestean. Finean, halere, bi eskolen arteko liskarrez gain, eta ratingen eta ikus-entzuleriaren kontaketa kuantitatiboaz haratago, britainiar tradizioan eguneroko mikro-taktiken, berjabetzeen, aurkako jarioaren, glocalizazioaren eta komunikabideen boterearekiko erresistentzia gailendu direla uste dute autoreek, eta horiek bihurtu direla eremuaren aldaera britainiarraren ezaugarri (S. Livingstone *et al.*, .2011: 175). Buru-kontaktetan oinarritutakoa baino, ikus-entzuleen hartzearen teoria kritikoa indartu da, orokorrean, eta ezinbestean, ikus-entzuletzaren berrasmatea etengabea eta askotarikoa izan da azken urteetan (S. Livingstone, 2004; Rauch, 2007; van Dijck, 2009).

Aukera metodologikoei dagokienean, eremuaren diziplina arteko izaera geroz eta handiagoa dela azpimarratzen dute egileek, ikus-entzuletzaren nozioa ere komunikabide eta kontsumo eta parte-hartze modu berrietara zabaltzen den artean. Buckingham eta Willett-ek ere inguru transmediatikoetan ikus-entzuleriaren azterketak erronka metodologiko garrantzitsuak dituela gogoratuko dute, zentzu berean (Buckingham & Willett, 2009). Westminsterreko unibertsitateko David Gauntlettek ere metodologia berritzaileen aldeko apustua egiten daramatza azken urteak, ikus-entzuleek komunikabideekin dituzten harreman eta esperientziak hobeto ulertze aldera, batez ere sorkuntza eta ikusmena barne hartzen dituzten teknika partehartzaileak proposatuz *Esploratze Sortzaileak: Nortasun eta Ikus-entzuleriekiko Hurbilketa Be-*

<sup>381</sup> «... now 'the audience' suddenly seems to be everywhere».

<sup>382</sup> Ikus bestela lan honetan britainiar jatorriko ikerlari eta pentsalariak duten pisua.

*rriak*<sup>383</sup> liburuan (Gauntlett, 2007) besteren artean. Oro har, esan daiteke Erresuma Batuko ikerketa berrienak oraindik ere metodologia kualitatiboagoen aldeko joera agertzen duela, eta ikus-entzulezaren berdefinizioan lidergoa duela oraindik ere Europar panoraman.

Azkenik, ezin Portugal aipatu gabe utzi. Komunikazioaren Ikaskuntzen baitan Ikus-entzuleriaren Ikerketak presentzia eskasa duela iritzi arren (Ponte & Jorge, 2011: 118), azken hamarkadan garapen ikusgarria izan dute komunikabideen hartzeari eta ikus-entzulezari buruzko ikerketek. Aipagarria da, adibidez, Komunikabideen Ekosistemaren izaeraren inguruan Cardoso, Lima eta Vierak egindako hausnarketa, non «Saretutako Komunikazioa»<sup>384</sup> (Cardoso, Lima, & Vieira, 2011: 113-114) kontzeptua proposatzen duten, pirateria bezalako ikus-entzulezarako bide berriak esploratuz. Gustavo Cardosoren ustez, paradima aldaketen segida batek zabaldu dio bidea egun telebista kokatzen den Komunikabideen Ekosistemari: aurrez aurreko komunikazioa lehenengo, baten eta askoren arteko komunikazioa bigarren, masa komunikazioa hirugarren, eta egungo Komunikazio Saretua laugarren (Cardoso, 2008), non eragile anitzek kokaleku anitzak hartzen dituzten elkarreaginean.

Bestalde, Portugalgo ekoizpena bereziki emankorra izan da belaunaldi eta adin-taldeetan oinarritutako Ikus-entzuleriaren Ikerketari dagokionez (Almeida & Delicado, 2008; Cardoso *et al.*, 2011; Ponte, 2010). Eskuko telefonoen bidezko telebistarako hurbilketa teoriko berriak direla (Pato, 2011) edo telenobelen ekoizpen eta harrera modu ezberdinei buruzko lanetan (Costa, 2002), azken hamarkadan ikerlari portugaldarrak punta-puntako lanak burutzen ari dira komunikabideen eraldaketa teknologiko eta sozialen eta ikus-entzulezaren inguruko proposamen kontzeptualen inguruan. Brasilgo ikerketarekin batera, portugaleraz egindako Ikus-entzuleriaren Ikerketak osasun ona duela esateko moduan gaude.

Zortzi kasuok Europar panoramaren aniztasunaren isla argia dira: herrialde bakoitzean (eta bakoitzaren baitan) eremuak garapen arras ezberdinak izan ditu historian, berrikusi diren lanek agerian uzten duten bezala. Komunikabideen ekosistemaren garapen teknologiko eta sozialak, gainera, eremuaren aplikazioak zabaldu ditu, abiapuntu teoriko eta metodologikoak biderkatuz. Egoera horretan kokatuta, ondoren, kasuan kasuzko azterketa baino, Europar panorama osoaren sintesia aurkeztuko dugu, beronen gako eta ardatz nagusiak azpimarratuz.

### 3.3.1. EUOPAR PANORAMA SINTESIAN

Esan bezala, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren Europar panoramak egoera zatikatu, anitza eta heterogeneoa aurkezten du egun, herrialdeen artean hainbat lehenetasun, hautu metodologiko eta eragileen arteko elkarrekintza ikus daitezkeelarik.

<sup>383</sup> Creative Explorations: New Approaches to Identities and Audiences.

<sup>384</sup> «Networked Communication».

Aurreko atalera ekarritako kasuak eremuaren mosaiko izaeraren adibide argia dira. Hala ere, merezi du Europar panoramaren sintesi modura joera nagusiak identifikatu eta mugarri esanguratsuak marraztea.

Geoffroy Patriarchek Aaltoko Unibertsitatean burututako Finlandiar *Ikus-entzuleriatik erabiltzaileetara eta haraindi*<sup>385</sup> kongresuan azaldu bezala, Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketaren egungo egoeraren ezaugarri nagusia ikuspegi aniztasuna da: gizarte zientziak eta humanitateak, ikerketa kuantitatiboa eta ikerketa kuantitatiboa, komunikabideen eraginen ikerketa, komunikabideen psikologia, Kultur Ikasketak... (G. Patriarche, 2011). Gainera, eremura egindako ekarpenak komunikabideen ekosistematan modu anitzean kokatutako eragileengandik datoz, esparru akademikoaz gaindi: merkatu ikerketak burutzen dituzten enpresak, erakunde arautzaileak, ikus-entzuleen elkarteak, hezkuntza-erakundeak, administrazio publikoak... Europakoa bezalako komunikazio sistema konplexu eta elkarreraginkor batean, Ikus-entzunezko Ikerketaren eremua ezinbestean da alde batetik zatikatua, konplexua eta bere baitan interes kontraesankorrak biltzen dituena, eta, bestetik, bizia, kementsua eta askotarikoa.

Oro har, Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketak iker-objektuekiko zabaltzea bizi izan du azken hamarkadan, egun ikus-entzuleriaren hainbat talderi zuzentzen diolarik arreta: haurrak eta gazteak, etorkinak eta gutxiengo etnikoak, zaleak, emakumezkoak... Gaiei dagokienez ere, dibertsifikazio nabarmena atzeman daiteke: komunikabideen harrera modu berriak, komunikabide berriak eta gizarte harremanak, komunikazio erakundeen eraldaketak, komunikazioa, esfera publikoa eta demokrazia... Finean, komunikabideek gizartean duten eragin hazkor eta sarkorraren aurrean Ikus-entzuleriaren Ikerketa erronka berriei aurre egiten hasi da, ikus-entzuletzaren ulermena berrikuntza teknologiko eta eraldaketa sozialek abiatutako komunikazioaren erregimen berrien errealitate egokitu nahirik (G. Patriarche, 2011: 9-10). Zentzu horretan, interesgarriak dira azken hamarkadan ikus-entzuleria diskurtsibitatearen eremu bezala (Carpentier, 2004), ikus-entzuleria eremuarte<sup>386</sup> bezala eta ikus-entzuleria konpromisorako aukera bezala (Pietilä & Ridell, 2008: 2011/12/16; van Dijck, 2009: 41-58) definitzeko saiakerak.

*Transforming Audiences, Transforming Societies* COST ekintzara itzulita, ekime-naren zuzendaritza taldeak aitortzen du zaila dela Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketaz hitz egitea, eremua errealitate nazionaletan zatikatuegi agertzen delako (Bilandzic *et al.*, 2011). Hartara, zenbait tradizioen eragin sarkorra aitortzen den arren (Britainiar Kultur Ikasketena kasu), bi plano bereizten dituzte eremuaren baitan: nazioartekoa eta estatuen baitakoa, sarri haien artean kontaktu eta elkarreragin txikia dagoenaz ohartaraziz. Herrialde ezberdinetan tradizio metodologiko eta korronte ezberdinen eraginak agerikoak direla ondorioztatzen dute, herrialdeen baitan ere bestelako joerak ematen direla aitortu arren:

<sup>385</sup> From audience to users and beyond.

<sup>386</sup> Interfield. Ikus adibidez Martijn van Bovenen lana (van Bovenen, 2007).

## 6. TAULA: NAGUSITASUN HISTORIKOA ETA METODOLOGIKOA HERRIALDE EZBERDINETAN

Kuantitatiboa	Kualitatiboa	Orekatua
Italia, Kroazia, Herbehereak, Espainia, Bulgaria Alemania	Erresuma Batua, Danimarka, Portugal	Austria, Norvegia, Suedia, Estonia, Flandria (Belgika)

Iturria: norberak moldatua (Bilandzic *et al.*, 2011).

Ikerlarien ustez, Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketaren garapenean estatu mailako faktoreek eragin zuzena izan dute, herrialde ezberdinen testuinguruak ekarpenak taxutzerako orduan: hizkuntza gertutasuna bestelako herrialdeetako ikerketarekin, aldaketa soziodemografikoak, nazio-erakuntza prozesuak, ikerketaren bultzada (edo bultzada falta) administrazio publikoaren aldetik, goi mailako hezkuntzako sektoreen jarrera Komunikazioaren Ikaskuntzei dagokienean, eta nazioarteko ikerketa sare eta proiektuetan herrialdeetako ikerlariak izan duten partehartzea, adibidez.

Ikerketa jorratzen duten guneei buruz, hiru esparru argi bereizten dituzte, Patriarchek azpimarratutako eragile-aniztasunarekin bat eginez: erakunde akademikoak (geroz eta gehiago nazioarteko proiektuetan partehartzen ari direnak), erakunde komertzialak (audientziaren neurketaren arduradun neurri handi batean, iragarkien merkaturako moneta funtzioan) eta komunikabideak eurak (komunikabide publikoen kasuan herrialde batzuetan lan handia egin dutenak bai arlo kuantitatiboan zein kualitatiboan, ikus-entzuleriak aztertzeko). Europar herrialde askotan aipatzen da esparruen arteko elkarlanerako aukera, baina salbuespenak salbuespen (Valonia Belgikan, edo Finlandiaren kasuak adibidez), ikerketa akademikoaren eta ikerketa aplikatuaren arteko harremana, oro har, eskasa da. Unibertsitateen, komunikazio industriaren eta administrazio publikoaren arteko elkarlanerako aukerak zabalak diren arren, errealitateak bestelako argazkia erakusten digu: lankidetzaren salbuespena da, ez araua.

Aldiz, diziplinartekotasunari dagokionez, aurrerapausu nabarmenak aurkitzen dituzte egileek Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketan. Hala, hurbilketa sozial eta kulturalak ingeniariak eta informatika bezalako diziplinekin uztartzeko saiakerak geroz eta ohikoagoak dira hiru guneean, tresna informatiko eta elektronikoen berrien auzerak baliatuz, batez ere hurbilketa kuantitatiboaren bidez ikus-entzulerien segimendu geroz eta zehatzagoa eta gaurkotua bideratzeko. Ez hori bakarrik, teknologia berriak ikerketan txertatzeaz gain diziplina anitzeko hurbilketak ugaritzen ari direla deritzote: «Garapen teknologikoak jazoarazitako Ikus-entzuleriaren Ikerketaren hedapenez haratago, ikus-entzuleriaren ikerlariak sarritan beren beregi sortutako hurbilketak hartzen dituzte diziplina anitzeko azterketa soziologiko eta kulturalak azpimarra-

tuz»<sup>387</sup> (Bilandzic *et al.*, 2011: 185). Hala, antropologia, etnografia, gizarte psikologia, soziologia, semiotika edota Kultur Ikasketak bezalako eremuak geroz eta barneratua-go agertzen dira, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren baitan.

Egungo ikerketan lantzen ari diren gai nagusiei erreparatuta, berriz, COST ekin-tzaren baitan jasotako saiakeretan ehunka proposamen eta hurbilketa ezberdin biltzen dira. Esanguratsuenak aipatzearen, honako hauek ekarri daitezke gogora: Ikus-entzulerien teoria, umeak eta alfabetatze mediatikoa, komunikabideak eta ikas-kuntza, gutxiengoak, etorkinak, diasporak, generoa, telebista eta ikus-entzuleria aktiboa, interneteko erabiltzaile/parte-hartzaileak, ikus-entzuleria digitalak, ingurune transmediatikoak eta erabiltzaileak, eskuzko telefonoak eta komunikabideak, komuni-kabideen bitartekaritza gizarte harremanetan, ikus-entzuleria eta hiritargoa, testuak eta generoak, zaleak, komunikazio erakundeen eraldaketak, Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak, ikus-entzuleriaren jokabide eta irakurketen nazioarteko alderake-ta... Komunikabideak gizarte mailan presentzia geroz eta handiagoa hartzen doazen neurrian, ikerketarako aukerak eta galderak ere ugaltzen doaz. Ikergaien kopuru eta aniztasunari erreparatuta, eremuak asko du oraindik ere esateko.

Europar panoramaren berrikusketa arin eta ezinbestez amaitu gabeko honek eremuaren zatikatzea eta bateratasun falta agerian uzten du, baina baita ekimenen aniztasuna eta eremuaren bizitasuna ere. Hala ere, aipagarria da Europar Ikus-entzuleriaren Ikerketaren inguruan jasotako 59 saiakera ezberdinen artean ez dagoe-la erreferentzia bakar bat ere euskaraz egindako ekarpenetara. Lehen gainbegiratu-a bukatuta, eta gabezia horri erantzuteko asmoz, eremuaren baitan euskaraz egindako ekarpenak gogoraraziko ditugu ondoren.

### 3.3.2. EUSKARAZKO EKARPENAK IKUS-ENTZULERIAREN IKASKUNTZETARA

Ikus-entzuleriaren Ikerketaren Europako egoera laburbildu ostean, behar-beharrezkoa da, labur bada ere, euskaraz eremu honetara egindako ekarpenak gogor-raztea. Horretarako, ikus-entzuleriaren eta ikus-entzuletzaren kontzeptuen ingurura ekarpenak egin dituzten lanak hartu ditugu, zentzu hertsian telebistaren ikus-entzu-leriaren inguruko ikerketak hartu beharrean. Arrazoi bi daude horretarako: lehenen-go eta behin, aurreko orrialdeetan aztertutako hizkuntzen aldean, gaiaren inguruan ez dela asko ikertu euskaraz. Eta bigarren, proposatzen dugun ikus-entzuleriaren kontzeptuak asko duela ikasteko diziplina ezberdinetatik burutu diren ekimen haue-tatik. Aurretiaz audientzia, publiko eta ikus-entzuleriari buruzko definizio propo-samena landu dugun arren, begibistakoa da euskarazko Ikus-entzuleriaren Ikerketa guztiak ez duela definizio bera hartu abiapuntutzat. Hala, kasu bakoitzean egindako hautu terminologikoak mahaigaineratzeak kontzeptuak argitzen eta lan honen as-moei begira horien erabilera zehazten lagun diezagukeelakoan nago.

<sup>387</sup> «Beyond the extensions of Audience Research occasioned by technological developments, audi-ence researchers often adopt a made to measure approach emphasizing multidisciplinary sociological and cultural analysis».

Gainbegiratuarekin hasteko, euskarazko Komunikazioaren Ikerketan aitzindaria den Iñaki Zabaletaren *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia: metodo enpirikoak eta interpretatzaileak* lana aipatu beharra dago. Bertan Zabaletak audientzia berba erabiltzen du komunikabideen hartzaileez hitzegiterakoan, bai komunikabidearekiko esposizioaren zentzuan eta baita komunikabidearekiko harremanak dituzten pertsonen multzo irudikatuarenean ere (lehen adiera gailentzen den arren): «Tan metodologoak dio, masa-komunikazioaren ikerkuntzaren zeregin nagusia masa-komunikabideak berak, beren mezuak, beren audientziak eta beren efektuak ikertzea dela» (Zabaleta Urkiola, 1997: 23). Hala, «audientzia gehien» eta «audientzia kopuru» handienaz mintzo da, adibidez 1997: 113). Ikus-entzule berba ere badarabil, baina audientzia neugarriaren zentzuan, hori ere: «Irrati edo telebista aurrean ordu asko ematen dituzten pertsonak deitzen ditugu *ikus-entzule trinkoak*» (1997: 186).

Hori hala bada ere, Zabaletak Ikus-entzuleriaren Ikerketaren metodologian hurbilketa kualitatiboari garrantzi berezia ematen dio, eduki analisia ez ezik, «Metodo kualitatibo-interpretatzaileak» ere jorratuz berariazko atal batean, interpretazioari tarte emanaz, ez soilik laginketan oinarritutako orokortze kuantitatiboari. Zabaletaren lana, Jose Inazio Basterretxeak Uztaro aldizkarian egindako aipamenean esan bezala, «edozein ikerlariren mahai gainean, eskuragarri» (Basterretxea Polo, 1998: 104) izateko moduko testu liburua da, eta, gaineratuko nuke, baita ikus-entzuleriak euskaraz ikertzeko orduan erreferentzia metodologiko ukaezina ere. Teoria errotuaren metodologia<sup>388</sup> eta eztabaida-taldeen metodoa azaltzeko parada hartzean, lan aitzindari bezala kokatzen da euskarazko Ikus-entzuleriaren Ikerketan.

Komunikabideen ekosistemari osotasunean heltzen dion euskarazko lan garrantzitsua da, halaber, 2000. urtean NOR ikerketa-taldeak argitaratutako *Hedabideak eta Euskal Herria* lana (Amezaga Albizu *et al.*, 2000). Bertan, komunikabideen (hedabideen, egileen hitzetan) eta nazio-nortasunen arteko harremanaren aldaera anitzak jorratzen dituzte egileek, gutasunaren eraikuntza anitzetan prentsa idatziak, telebistak eta irratia Hego eta Ipar Euskal Herrian jokatzen duten papera aztertuz. Edorta Aranak audientzia berba hobesten du Hego Euskal Herriko komunikabideen hartzaileak izendatzeko, direla idatzizkoak, entzunezkoak ala ikus-entzunezkoak «Atal honetan bertan audientzia, publiko eta ikus-entzuleriari buruzko definizio proposamena burutu dugun arren» (Arana Arrieta, 2000: 19). Telebistari dagokionez, ikus-entzuleria audientziaren sinonimotzat hartzen du, honen ezaugarri objektibo eta neugarriak deskribatzerako orduan: «Euskarazko telebista-kanalaren ikus-entzulerian berdintsu aurki daitezke gizon eta emakumeak» (2000: 33).

Ipar Euskal Herriaren kasuan, Pascal Ricaudek entzuleria terminoa erabiltzen du irratitari dagokionean: «Nolanahi dela, 1995eko abenduan entzuleria-tasaren errekor 'historikoa' lortu zuen, %70eko entzuleria-tasarekin». audientzia berbarekin sinonimo bezala «Baionako *Radio Bonne Humeur* (%1,7ko audientzia)» (Ricaud, 2000: 49). Prentsa idat-

<sup>388</sup> Grounded theory.



ziaren hartzaille irudikatuari aldiz irakurlego deritzo «Hala ere, Frantzian *Sud-Ouesten* irakurlegoaren gehiengoaren adina 40 eta 60 urte bitartekoa da» (: 43), kasu honetan ere objektiboki deskriba daitekeen pertsona multzo zenbakarri modura harturik.

*Euskal Herriaren irudia prentsan eta telebistan* kapituluan Amezaga eta Aranak audientziaren moneta izaera aipatzen dute, iragarkiekin merkatuaren etekin ekonomikoekin lotuta: «Epe laburreko etekin ekonomikoa, merkatu-zatirik handiena lortzea eta arrakastaren neurgailu bakar gisa audientzia edo ikus-entzuleen kopurua erabiltzea, horiek izan dira aro berriaren ñabardurak». (Amezaga Albizu & Arana Arrieta, 2000: 123). Audientzia, berriro ere, ikus-entzule kopurua bezala ulertzen dute nagusiki bi egileek. Azkenik, Jose Inazio Basterretxeak lurraldetasuna hartzen du ikergai, Euskal Herriak Komunikabide Ekosisteman hartzen dituen errepresentazio eta tankerei erreparatuz, gizarte eraikuntza bezala. Hemen ere audientzia berba darabil egileak, baina subjektuaren lekua egokitzen dio, irakurle, hezur-haragizko norbanako eginez prentsa idatziaren kasuan, masa lauso samar aldiz, ikus-entzunezko testuei dagokienean: «... nola prentsaren irakurleak hala ikus-entzunezkoen audientziak, egunero-egunero, ia konturatu gabe, begien aurrean du, presente, errealitate politikoaren mapa sinbolikoa» (Basterretxea Polo, 2000: 158). Ikusle-irakurleak «irrikitan» marrazten ditu autoreak, motibazio, itxaropen eta iritziz beterik. Audientzia, aldiz, komunikabideen estrategia politiko-territorialen lekukoa baino ez da, ezarian berauek barneratzen dituen. Audientzia berbak, kasu horretan, idazteko boterea eta pribilegioa dutenen mezua jasotzen duena esan nahi du berriro ere, ahotsik izatekotan audimetriak kalkulatzeko dion pisua baino ez duena.

Liburua bikaina da alde askotatik, eta lurraldetasunaren auziak komunikabideen jardunean duen zeresana, eta alderantziz, komunikabideek lurraldetasunaren aferan duten erantzunkizuna argiro azaltzen ditu ikuspegi ezberdin eta osagarrietatik. Hala ere, oro har, ikus-entzuleriaren ulerkera objektibista-kuantitatiboari atxikita ageri dira ikus-entzuletzaren agerpideak ataletan, eta, gure iritziz, ikus-entzuleen ahotsari eta subjektu bezala elkarren arteko eta komunikabideekiko hartuemanen bizi dituzten esperientzien kontakizunei tarte bat uztea faltako litzaioke are lan osoagoa izateko. Komunikazio erakundeen jardueraren analisi sendo eta euskal komunikazio sistema baten aldeko aldarri indartsua den arren, komunikabideen osaera eta diskurtsoetan zentratua dago ia erabat, eta euskal ikus-entzuleen eguneroko perspektiba albo batetara uzten dute zazpi egileen idazlanek. Izan ere, egileek eurek aitortzen duten bezala, «[g]ure helburua hedabideek euskal nortasunaren garapenean nola eragiten duten aztertzea» da (Amezaga Albizu *et al.*, 2000: 15), ez ikus-entzuleriek hedabideak haien nortasunak osatzeko darabiltzaren moduak esploratzea. Liburuan zentroa komunikabideetan jarrita dago, ikus-entzuleria albo-produktu bat da.

Antzerako ikusmoldea darabil Joan Mari Torrealdaik Euskal Telebistaren 10. urteurrenaren inguruan euskara hutsezko telebista publikoaren eta hizkuntzaren inguruko hausnarketan. Bertan ikus-entzule eta ikus-entzulego berbak kantitateari eta

audimetriari lotuta ageri dira, «[h]orrela bada, ikus-entzulegorik handiena harturik ere, eta programazio bikainenarekin ere, audientzi-neurketaren arabera ezingo luke bere burua justifikatu ETB euskaldunak». (Torrealdai, 1993: 153). Agerikoaenez, audimetriak bere horretan justifika ezin duen euskara hutsezko jarduna beste argudio osoagoez defendatzen du Torrealdai «gehiengoaren matematika besterik gabe» aplikatzearen aldean, baina berriro ere ikus-entzuleriaren adiera bakarra darabil artikulua. Hizkuntzaren eta komunikabide publikoen funtzioak aztertzen dituen lan batek berbaren irekiera semantiko handiago bat baliatu lezakeelakoan nago. Izan ere, ia hogeituro geroago, euskara hutsezko telebista kate publikoaren audientzia mailak inoiz baino baxuagoak diren honetan, telebista publikoaren justifikagarritasunaren inguruko eztabaidak bere horretan dirau, agian inoiz baino gordinago.

Hamabost urte geroago, 2.0 weba, sare digitalak eta komunikabideen ekosistemako teknologia berriak lantzen ditu, telebistarentzat dituen ondoriez galdeginez, Mendebalde Euskal Kultur Alkartearen *Atzoric Etzira* liburura ekarritako Gorka Palazioaren *Interneteko bideo eta telebistaren aro berriaz* artikulua (Palazio, 2008). Aro berriaz mintzo da Palazio, telebistaren urtzeaz bideogintza digitalaren eskenatoki berrian, eta sare digitalen bidezko telebistak euskararentzat izan ditzakeen inplikazio eta aukera teknologikoak aztertzen ditu. Baina audientziaz ari denean, ikusle kopuruaz ari da, «erabiltzaileak» (Palazio, 2008: 112) eta «komunitate lana» (Palazio, 2008: 114) ere aipatzen dituen arren. Komunikazioaren teknologia digital berrien parte-hartzerako ahalmena eta telebista eta bideoaren izaeraren eraldaketak lantzen dituen artikulua baterako, ez dago ikus-entzuleriaren eta ikus-entzuletzaren inguruko gogoeta berezkorik. Berriro ere, komunikabideetan zentratutako azterketa da, komunikabide horien erabiltzaile, hartzaile, ikus-entzuleengan zentratua baino.

Prensa idatziaren eta literaturaren esparruan ere, orobat, irakurle eta irakurleria/irakurlego berbak erabili izan dira euskarazko ikerketan (Aranzabal, 1992; Colomer, 2004), hemen eta han audientzia terminoa ere erabili izan den arren erosle eta irakurleen multzo lausoa, kontsumitzaileen talde zabala edo publikoa orokorrean izendatzeko. Euskarazko prentsa idatziaren azterketan zenbait lanabes eta metodo baliatu izan dira. Alazne Aiestaranek adibidez (Aiestaran, 2007) tokian tokiko prentsaren baitan aurki daitezkeen kazetaritza-generoak aztertu ditu metodologia kualitatiboak erabiliz kazetarien jardun eta iritziak aztertzeko. Baina, irakurleriari dagokionean, hurbilketa kuantitatiboaren alde egin du: «[Debarreneko agerkari] horien guztien lana, berriz, Eusko Jaurlaritzak 2006an euskarazko hedabideen audientziak neurtzeko egin zuen azterketaren arabera 25.100 irakurleri dago zuzendua». (Aiestaran, 2007: 95).

Oro har, euskarazko Ikus-entzuleriaren Ikerketaren ekoizpenean ikus-entzuleria audientzia bezala ulertzeko joera nabarmena eman dela esan genezake, komunikabide ezberdinei dagokienean. Alderantzizko abiapuntua hartzen du zentzu horretan,

Maialen Garmendiaren *Zergatik ikusten dute telebista emakumezkoek? Telebista eta eguneroko bizitza*<sup>389</sup> liburuak. Erdaraz idatzita dagoen arren, gurera ekartzeak merezi duelakoan nago, osagai eta asmo komunak baititu lan honekin (Garmendia Larrañaga, 1998), eta aipatu lanekiko kontrastea eskaintzen duelako. Ikerlariak emakumezko ikus-entzuleek eguneroko bizimoduan telebistarekin osatzen dituzten harremanen konplexutasuna ditu aztergai, eta telebista ikustearen aldien eta emakumezkoen astiaren arteko harremanarekiko kezka agertzen du:

Badakigu jende gehienak egunero denbora kantitate jakin bat –nahiko garrantzitsua– inbertitzen duela telebista ikusten, baina jakin behar da jarduera horrek emakumearen astialdian toki nabarmena duen, ‘betelan’ soila den, edo ekintza mekanikoa den, non telebistak bigarren mailako lekua duen eta, funtsean, eseri eta atsedean hartzeko aitzakia den.<sup>390</sup> (Garmendia Larrañaga, 1998: 65).

Garmendiaren lanak lan honetan agerian utzi nahi diren osagai eta abiapuntu askorekiko antzekotasun nabarmenak agertzen ditu, talde eztabaidetan oinarritutako hurbilketa kualitatiboaren aldeko hautuarekin hasi eta telebista ikustearen dimentsio anitzekiko arduraraino. Edozelan ere, Garmendiaren lana baino, hura ez baitago euskaraz, Edorta Aranak liburuaren iruzkinean darabiltzan terminoei erreparatzea da atal honetarako interesgarria (Arana, 2008). Aranak, audientzia baino, ikus-entzuleria berba hobesten du bertan, iragarki tarteen salerosketara bideratutako neurketa audimetroetan lotuta bada ere. Hala ere, liburuaren fokoa beste nonbait dagoenaz jakitun, ikuspuntu hertsiki horrekiko haustura azaltzen du berehala, Garmendiaren planteamendu etnografikoa deskribatzeko. Audientzia eta ikus-entzuleria sinonimotzat hartzen ditu egileak iruzkin osoan, zentzu tradizionalan, baina «zenbat» ikusteaz gain «nola» eta «zergatik» ikustearen galderen garrantziaz ere ohartarazten du. Hortaz, ezberdintasun terminologikorik proposatzen ez badu ere, adierak desberdintzeko posibilitatea zabaltzen duela esan genezake.

Ikus-entzuletzaren paper eta lekuari buruz gogoeta egiten duen beste euskarazko lan interesgarria *Iritzi publikoa, iritzi publikatua eta publikoaren iritzia –hedabideen eragina euskal politikagintzan* artikulua da (Amezaga, Arana, Iturriotz, & Martín, 1997: 41-57). Hor publikoa berba da ikus-entzuleriaren aktibotasunari buruzko hausnarketarako ardatza, iritzi publiko eta iritzi publikatuaren arteko harremanean sakontzeko abiapuntu eta hitz jokoa. Lanak komunikabideen iritzigintza politikaren azalpen soziologikoa aurkezten du, iritziaren eraikuntza eragile askotako elkarrekin-tzaren ondorioa dela azalduz eta aztertutako komunikabideen eduki-analisia Hego

<sup>389</sup> ¿Por qué ven televisión las mujeres? Televisión y vida cotidiana.

<sup>390</sup> «Sabemos que la mayor parte de la gente invierte diariamente cierta cantidad de tiempo –relativamente importante– en ver la televisión; pero interesa conocer si esta actividad tiene un lugar preferente en el tiempo libre de la mujer, si es simplemente ‘de relleno’, o se trata únicamente de un acto mecánico en el que la televisión ocupa un lugar secundario y es fundamentalmente una excusa para sentarse y descansar».

Euskal Herrian egindako inkestaren erantzunekin uztartuz bi kasuren inguruan: ETA eta gobernuaren arteko negoziazioa batetik eta euskara bestetik.

Komunikabideek bi gai horien gainean plazaratutako iritzi eta diskurtsoaren azterketaz gainera –bai informaziozko artikuluetan, bai iritzi artikuluetan–, jendar-tean iritzi-giroak sortzeko prozesu sozialetaz dihardu artikulua, ikus-entzulerien eta komunikabideen arteko hartuemanak norantza bakarrekoak direlako ustearekin hautsiz. Hala ere, komunikabideen jardunean eta diskurtsoaren azterketan oinarritutako lana da, jendaurreko iritziak komunikabideetan duen isla gehiago aztertzen duena eta komunikabideen iritzi publikoaren isla jendaurrean dituen erabilera eta harrera moduak baino gehiago. Egileek dioten bezala, «'iritzi publikoaren irudia' sortu ez dute hedabideek soilik sortzen. Hedabideak eragileak dira irudi-sorkuntza horretan, baina aldi berean badira eragindakoak ere» (Amezaga *et al.*, 1997: 56). Hau da, gizarte mailan egon badauden iritzi giroak jaso, landu eta plazaratu egiten dituzte komunikabideek, autoreen aburuz, molde, tamaina eta kolore ezberdinetako ispiluak bailiran. Baina ispilu horiek islatzen dituzten iritzi publikatuekin ikus-entzuleek egiten dituzten irakurketak eta komunikabideei ematen dizkieten erabilerak albo batera gelditzen dira neurri batean, iritzi publikoaren eraikuntzaren parte direla aitortzen den arren.

Artikulu zinez interesgarria osatzen du eta publiko berbaren adierekiko iradokizalea eta sortzailea da, baina agian komunikabideen gehiegizko zentraltasuna kritikatuz dakioke. Eragile askoko komunikabideen ekosisteman, eragile multzo jakin batek gizartean duen eragiteko ahalmenean jartzen dute fokoa ikerlariak: «Hedabideek gizabanakoen iritzia noraino baldintzatzen duten neurtzerik ez dago; baldintzatu egiten dutela, ordea, aski nabarmena da». (Amezaga *et al.*, 1997: 57), eta zentzu horretan, irakurle, entzule eta ikus-entzuleek eragile hauek plazaratzen dituzten mezuekin egunerokoan dituzten harreman sinboliko, politiko eta aisiazkoetan sakontzeak ikergaiarekiko galdera eta erantzun berriak aurkitzea ahalbidetuko lukeelakoan gaude.

Hona ekarri ditugun lan eta ikerketetan, komunikabideetan eurretan oinarritutako planteamenduak nagusitu dira, eta orobat euskarazko Ikus-entzuleriaren Ikerketan joera hau nabaritu daitekeela uste dugu: komunikabideen egitura, diskurtsoen analisia eta boterea hartu dira aztergai ikus-entzuleetza moduak, mezuen harrera eta hartzaileen boterea baino gehiago. Komunikazioaren Ikaskuntzen ikerketa ez-mediazentrikoa<sup>391</sup> oraindik joera berria da Europa osoan, eta euskaraz egindako lanetan apenas egin den ekarpenik zentzu horretan. Horrekin ez dugu esan nahi egin den lana adiera bakarrekoa izan denik, edo egindako ekarpena baliogarria ez denik bestelako ikermoldeak abiatzeko, baina oro har, euskarazko ikerketan ikus-entzuleen eta ikus-entzulerien egunerokotasunaren inguruan egindako ekarpenak lotsorrak izan dira, eta kulturalki, linguistikoki eta ideologikoki gurea bezain anitza den herri batean, gehiago egin daitekeelakoan gaude.

<sup>391</sup> Non-mediacentric. Ikus Andreas Heppen lana (Hepp, 2010).

Hala ere, azken aldian nolabaiteko irekiera bat suma daiteke euskarazko Komunikazio Ikaskuntzetan, ohiko bide metodologikoetaz gain (batez ere audimetrian eta komunikabideen eduki azterketan oinarritua) bestelako abiapuntuak ere barne hartzen dituena. Adibide bezala, eta belaunaldi eta adin-talde ezberdinen ikus-entzunezko komunikabideekiko harremanen azterketari dagokionez, Pavon eta Zubero goitiaren *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian* artikulua aipatu beharrekoa da (Pavon Arrizabalaga & Zubero goitia Espilla, 2011). Bertan nerabeek komunikabideen ekosistemarekin eratzen dituzten harreman askotarikoak aztertzen dira metodologia konbinatu bat proposatuz, eta esposizio hutsetik haratago, nerabeen euren motibazio eta ikus-entzunezko dieta edo erreperorioak aztertuz.

Bestalde, ikus-entzunezko alfabetatzeari dagokionez, Ramírez de la Piscina, Andrieu, Basterretxea, Jiménez eta Idoyagaren *Ikus-entzunezko alfabetizazioaren indar-guneak eta gabeziak Euskal Herrian. Eskola-komunitatean egindako ikerketa kualitatibo baten emaitzak* (Ramírez de la Piscina, Txema, Andrieu, Basterretxea, Jimenez, & Idoyaga, 2010: 67-91) artikulua diagnostiko modura aurkezten ditu *Media Literacy* edo Ikus-entzunezko alfabetizazioa delakoaren indargune eta ahulguneak Euskal Herrian, metodologia kualitatibotik abiatuta<sup>392</sup>. Testu horretan ere audientzia berba lehenesten den arren ikus-entzuleriaren aurretik, oso bestelako adiera ematen zaio: «Solaldari horietan garbi asko geratu da audientziak ez direla pasiboak. Gazte nahiz helduek disfrutatuta egiten dute komunikabideen erabilerarekin; areago taldean badaude. Ikus-entzunezko alfabetizazioak handitu dezake atsegin hori». (Ramírez de la Piscina, Txema *et al.*, 2010: 67-91: 86).

Izan ere, ikerketan parte hartu duten 14 eta 18 urte arteko neska-mutilen ikus-entzunezko gaitasunak aztertzeaz gainera, berauen pertzepzioetan ere sakontzen du artikulua, ikus-entzuleriaren adiera pasibo edo jasokor hutsetik ulerkerara aktiboago batetara igaroz. Hala, hezkuntza formalean ikus-entzunezko alfabetatzea txertatzearen onurez dihardute autoreek, ikasleek masa komunikazioaren ekosisteman parte hartzeko duten aukera eta gaitasunez. Komunikazioaren teknologien garapenarekin, eremua zabaldu egin dela aitortzen dute egileek, tartean «irudiaren irakurketa, kultura mediatikoa, trebezia kritikoak, medioarekiko distantzia, ikusle interaktiboa, sormena, irudimena» (Ramírez de la Piscina, Txema *et al.*, 2010: 67-91: 71) eta abar hartzen dituelarik egun.

Komunikazioan heziketak (hezikomunikazioak, autoreen hitzetan), finean, pertsona, ikus-entzulea hartzen du protagonistatzat, eta hala audientzia terminoaren adiera jasokor eta pasiboarekin apurto beharra du ezinbestez. Ikasle eta gurasoekin

<sup>392</sup> Ikus baita Idoyaga, Andrieu eta Jiménezzen *Ikus-entzunezko gaitasun interpretatiboak: kultura testualaren eta alfabetatze formalizatuaren artean* lanan (Idoyaga, Andrieu, & Jiménez, 2010). Jatorrizko izenburua: Competencias interpretativas audiovisuales: entre la cultura textual y la alfabetización formalizada.

egindako eztabaida taldeen bidez, telebistarekin lotutako esperientzia ezberdinak jasotzen ditu artikuluak, adiera bakarreko jarduera zalantzan jartzen dutenak, belaunaldien arteko gaitasun teknologikoei dagokienez, nor bere gelan edo familian elkarrekin ikusteari dagokionez, ikusten dena eztabaidatzeko aukerei dagokienez... Zentzu horretan, belaunaldien arteko ezberdintasunei buruzko eztabaidak ere jasotzen ditu artikuluak, telebistarekin hazi diren gurasoek internetekiko ezagutza eta gaitasun falta aitortzen dutelarik belaunaldi gazteagoak sarean aise dabilzan artean. Orotara, ikus-entzulezaren figuran gertatzen ari diren aldaketekiko arduraz agertzen dute, bai ikerlariek, baita ikerketako parte-hartzaileek ere, baina, ikus-entzunezko alfabetatze mailan zentratutako lana izanik, ez dago argiketa terminologiko esplizitortik, ezta komunikabideen ekosistema berrian, «iraultza teknologikoaren» ostean (Ramírez de la Piscina, Txema *et al.*, 2010: 87) ikus-entzuleriaren figurarekiko hausnarketa berariazkorik ere. Gure ustez, ikus-entzunezko alfabetatzeari dagokionez, premiazkoa eta behar-beharrezkoa da auzi horri ekitea, modu zabalean ulertutako euskarazko Ikus-entzuleriaren Ikerketan.

### 3.4. LABURBILDUZ: IKUS-ENTZULEEN PROTAGONISMOA

Kapitulu honetan telebista eta ikus-entzuleen arteko harremanak aztertze modu askotarikoei erreparatu diegu, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren egungo egoerari begirada zabal bat eskaini nahirik, eta, batez ere, komunikazio prozesuaren bene-benetako protagonistengana hurbildu nahirik ikerketaren begirada; pertsonetara alegia.

Horretarako, gure hurbilketa egin ahal izateko funtsezkoak diren hiru termino definitu ditugu lehenengo eta behin: ikus-entzuleria, ikus-entzulezta eta ikus-entzuleak. Audientzia neurketaren eta esposizioaren garapena eta mugak ekarri ditugugogora, baita publikoaren kontzeptu klasikoa egungo ekosistema digitalera moldatzen saiatu ere. Oro har masa komunikazioaren ikerketan, eta bereziki Telebista Ikaskuntzetan esperientziaren kontzeptuak duen garrantzia azpimarratzen amaitu dugu kapituluaren lehen atala, pertsonen egunerokotasuna, subjektuen irakurketa, esanahi eta plazerak barne hartuko dituen hurbilketa baten alde eginez.

Idea honi helduta, bigarren atal batean ikus-entzuleriak zergatik eta nola azertu behar ote diren galderari erantzuten saiatu gara, telebistaren denbora eta espazio dimentsioei erreparatuz eta «buru-kontakteta» soilak agertzen dituen mugak mahai-gaineratuz. Hurbilketa kuantitatiboan mugak zehaztu arren, osagarritasun metodologiko eta epistemologikoaren alde egin dugu atal honetan, elkarrekin giza errealitatearen zati handiago bat ezagutzea ahalbidetzen digutela aldarrikatuz.

Hirugarren atalean, lan honetarako funtsezkoak diren Ikus-Entzuleariaren ikerketaren sei ardatz aipatu ditugu, diziplina edo eremu bakoitzetik ekarpen esanguratsuenak aukeratuz. Kultur Ikasketetatik baikortasun kritikoa eta menpeko taldeek

kultura nagusiaren zeinu eta objektuak bereganatu eta moldatzeko agertzen duten potentzialtasuna ekarri ditugu. Hartzearen Ikaskuntzetatik berriz, telebistaren ikus-entzuleen aktibotasun eta pasibotasunaren mugak zalantzan jartzea. Ikus-entzuleria eta familiaren ikerketan David Morleyren ekarpenak proposatzen dugun aisialarako hurbilketa integralarekin alderatu ditugu, telebistarekin lotutako aisia etxeko testuinguruan eman ohi den dimentsio eta aurpegi anitzeko gertakizun bezala definituz. Telebistaren zentzu, esanahi eta plazeraren zirkulazioari buruz ohar batzuk egin ditugu ondoren, Radway eta Fiskeren lanak gogora ekarriz esperientziaren zentralitatea subjektuengan dagoela argudiatzeko, testu eta testu-eramale diren objektuetan baino. Adin taldeak eta belaunaldiak aipatu ditugu gero, Mannheimen subjektibitate kolektiboen kontzeptua berreskuratuz, bi kontzeptuak bereizteko. Azkenik, ahozko-tasunak Ikus-entzuleriaren Ikerketan izan duen eta izan dezakeen garrantzia azpimarratzen saiatu gara, idatzizkoaren eta ahozkoaren esparruak alderatuz.

Bukatzeko, Ikus-entzuleriaren Ikerketaren Europar panorama orokorra marraztu nahi izan dugu, zortzi herrialdetako<sup>393</sup> egoera laburbilduz, Europar egoeraren sintesi bat proposatuz eta Euskal Herrian eta euskaraz egin diren ikerketa esanguratsuenak ekarriz gogora.

Kapitulu honekin lanaren lehen atala osatzen duen Abiapuntu Teoriokoari amaiera ematen zaio. Ondoren, bigarren atalari ekingo diogu, Marko metodologiko eta azterketari. Horretarako laugarren kapituluan ikerketaren metodologia eta azterketa osoaren diseinua aurkeztu eta azalduko dira, bostgarren kapituluan adin-taldeen kontzeptuzko analisisian eta deskribapen estruktural-konparatiboan barneratu aurretik.

<sup>393</sup> Frantzia, Espainia, Austria, Belgika, Suitza, Finlandia, Erresuma Batua eta Portugal.





# BIGARREN ATALA

## MARKO METODOLOGIKOA ETA AZTERKETA

### EDUKIAK

#### 4. KAPITULUA. METODOLOGIA ETA AZTERKETAREN DISEINUA

- 4.1. Ikerketaren paradigma metodologiko orokorra
- 4.2. Kasu azterketa: Abiapuntua, ezaugarriak, mugak eta abantailak
- 4.3. Teknika metodologikoak eta gidoia
- 4.4. Atlas.ti eta informazioaren antolaketa, azterketa eta berreskurapena
- 4.5. Azterketa eta kodeketa estrategia globala
- 4.6. Laburbilduz: hurrengo kapituluak eta hiru azterketa-begiradak

#### 5. KAPITULUA. ADIN-TALDEEN KONTZEPTUZKO ANALISIA: DESKRIBAPEN ESTRUKTURAL-KONPARATIBOA

- 5.1. Aldizko kontzeptuak
- 5.2. Astizko kontzeptuak
- 5.3. Aisiazko kontzeptuak
- 5.4. Laburbilduz

The aim of the sciences of society should not be to dress themselves in the garments of their elders and look so like them that the guardians of the halls of science will not perceive the difference. The object of science is to carry the light of understanding, to show us truth. If a piece of research aids us to understand better, more fully, some aspect of this so complex universe of man and nature, then it is worthwhile. If it does not, then no parade of figures will make it anything more than labor lost. Our methods should be adjusted to our materials and not our materials to our methods.

R.M. MacIver. *Is Sociology a Natural Science?*

## IV. KAPITULUA

### METODOLOGIA ETA AZTERKETAREN DISEINUA

Orain arteko hiru kapituluetan lan honen abiapuntu teorikoa marraztu eta oinarri kontzeptualak zehaztu ditugu. Kapitulu honetan aldiz ikerketaren metodologia eta diseinu orokorra aurkeztuko ditugu, erabilitako tresna eta teknika ezberdinak deskribatuz eta ibilitako bidea ahalik eta argien azalduz.

Lehenengo eta behin ikerketaren ikuspegi metodologiko orokorra azalduko dugu, ikerketa kualitatiboaren eta kasu azterketaren arrazoiak, abantailak eta mugak lanaren ardura-eremura ekarriz eta lan honetan erabili den planteamendua eta lagina zehaztuz.

Jarraian landa lanean datuak jasotzeko erabili diren bi ikerketa teknikak aurkeztuko dira: eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketak, bietarako erabilitako gidoiarekin batera. Ondoren ATLAS.ti programa informatikoaren aurkezpen labur bat burutuko dugu, haren oinarriko kontzeptu eta objektuen deskribapenetik hasi eta jasotako informazioa aztertzeko eskaintzen dituen aukera ezberdinak deskribatuz gero.

Amaitzeko, erabilitako azterketa eta kodeketa estrategia globala aurkeztuko ditugu, kodeketa ezberdinek adin-taldeka agertzen duten banaketaren panoramika orokor bat eskainiz irakurleari.

#### 4.1. IKERKETAREN PARADIGMA METODOLOGIKO OROKORRA

Ikerketaren metodologiari buruz ari garela, merezi du lan honen sarreran zehaztutako ikerketa-galdera, helburu eta hipotesiak gogora ekartzeak, labur bada ere<sup>394</sup>. Izan ere, lan honetan erabilitako bide eta metodoen azterketa eta azalpenaz ari bagara, komeni da ikerketaren iparra gogoan izatea.

Belaunaldien eguneroko aisialdian telebistak jokatzen duen papera aztertzeko lau ikerketa-galdera orokor planteatu ditugu: Nolakoak dira hainbat adinetako pertsonen egunerokoan telebistarekin dituzten harremanak? Nolakoa da telebistarekin lotutako aisialdi, aisiazko jardun eta aisiazko esperientzien parte-hartzaileen kontakizuna bateratze multimediaren garain honetan? Zein ezberdintasun eta antzekotasun aurki daitezke adin-talde ezberdinen artean? Zein da telebistaren izaera, aisia humanistaren perspektibatik?

Galdera hauei erantzun ahal izateko helburu nagusi bezala lau adin-taldeen telebistarekiko harremanak aisia humanistaren perspektibatik ikertu eta belaunaldien arteko ezberdintasun eta antzekotasunak aztertu, interpretatu eta azaltzeko gai den

<sup>394</sup> Xehetasun gehiagorako ikus Introduction atalean «Scope, object and objectives of the study».

eredu teoriko bat eskaintzea hautatu da. Helburu nagusi honi lanaren kapitulu ezberdinetan landuko diren lau helburu espezifiko eta hamairu azpi-helburu lotu zaizkio.

Lanari ekin ahal izateko berriz, zortzi lan hipotesi formulatu dira, ikerketa honen ikuspegi metodologiko orokor eta aukeratutako teknika eta tresnetan zuzenean eragin dutenak. Laburbilduz, abiapuntu edo lan-hipotesi bezala hartu dugu pertsonen telebistarekin harreman ezberdinak eratzen dituztela, eta ondorioz aisiazko esperientzia ezberdinak dituztela harekin harremanean; komunikabideak eta haien ikus-entzuleriak aldatuegiten direla, eta hartara belaunaldiek ezaugarri berezkoak agertzen dituztela komunikabideekiko hartuemanean; «telebista ikustea» adierazi anitzeko adierazlea dela, aisiazko harreman konplexuak ezkututzen dituen eta telebistarekiko harremana ez dela hau itzaltzean eteten; subjektuaren esperientzia haren kontakizunaren bidez soilik ezagutu dezakegula, eta parte-hartzaileen hizkera eta kontakizuna aztertuta parte-hartzaileen euren parametroetan ezagutu dezakegula telebistarekiko aisiazko harremana.

Behin abiapuntu hau zehaztuta, ikerketaren ikuspegi epistemologiko orokorra eta kasu azterketaren berezko ezaugarri metodologikoak xehatzeko unea da. Horri helduko diogu hurrengo orrialdeetan.

Aurreko ataletan aurreratu dugu telebistaren ikus-entzuleen eta ikus-entzulerien bestelako ikerketa baten beharra, batez ere euskal esparruari dagokionez. Ikerketaren atal enpirikoari helduta, bada garaia gure proposamena aurkezteko, eta horixe egiten saiatuko gara hurrengo orrialdeetan.

#### 4.1.1. ESPERIENTZIA: ARDATZ ETA HELBURU

Eguneroko jardunean «telebista ikustea» adiera bakarreko jarduera bezala hartu ohi dugun arren –zeinen inguruan zalantza edo zehazgabetasun gutxi egon daitekeen– esapidea ikuspegi ezberdinetatik problematizatu daiteke<sup>395</sup>. Roger Silverstonek adibidez termino «ia-takigrafiko» bezala deskribatu zuen; ikus-entzuleriaren telebistaren aurreko jarduera eta esperientzien aniztasuna nolabait laburtu edota zelanbait jasotzeko saiakera trakets, behin-behineko eta eskasa bezala (Silverstone, 1989: 77). Labur esanda, gertatzen ari dena laburtzeko saiakera inperfektoa da «telebista ikustea» formulazioa; errealitatea bere osotasun eta konplexutasunean jasotzeko gai ez dena, eta ordainetan laburpen moduko bat, arrasto moduko bat jaso eta eskaintzen duena, errealitate osoaren orde.

Hala, telebista ikustearen jarduera hutsa, bere horretan giza errealitatean gutxitan gertatzen den fenomeno dela onartzetik abiatzen da Silverstone. «Telebista ikustea» deritzogu, baina praktika eta esperientzia mordo bat izendatzen ari gara termino berarekin. Areago, telebista eta egunerokotasuna estu-estuan lotuta ager-

<sup>395</sup> Ikus adibidez «Telebista gure garaian» atala 2. kapituluaren eta «Ikus-entzuleria, ikus-entzuleak eta ikus-entzuleak» 3. kapituluaren.

tzen dira egiaz, eta bata ikertzea bestea ikertzea ere bada,aldi berean. Lan honetan gogo bertsuarekin heldun zaio ikergaiari, pertsonen telebistarekin lotutako aisiaren bizipena harturik erreferentzia.

Hedabideak XXI. mende hasierako euskal hiztunen egunerokotasunaren ez ezik aisiazko praktika eta esperientzien erreferentzia nagusi izanik, ikus-entzuleria euskaldunei buruzko ikerketa batek ezinbestean hartu behar du bi eremuok aintzat hartuko dituen abiapuntu metodologiko bat. Arinago ere sarri azpimarratu bezala, ikerketa honen interesa ez datza pertsona edo taldeek telebistarekin dituzten harremanen ezaugarri objektiboen sailkapenean edo berauen etorkizuneko aurrikuspenen edo proiektioan. Telebistarekin lotutako aisiazko bizipen partikularrak, harreman esanguratsuen eraikuntzak eta aisia eta entretenimenduzko esperientzien interpretazio subjektiboak ditugu interesgune eta ikergai.

Hartara, Chris Rojekek aukeztutako terminoetan, ikerketa honen helburuei heltzeko hurbilketa ideografikoa behar da nomotetikoa baino gehiago, metodologia ez-orokortzaile bat, orokortze saiakera bat baino gehiago (Rojek, 2009). Hurbilketa ideografikoa norbanakoen esperientzia subjektiboetan zentratzen da, emaitzak ere norbanakoez erabilitako adierazpen eta terminoetan aurkeztuz.

Lan honen helburua ez da euskal hiztunek telebista ikusten igarotzen duten denbora eta espazioa (noiz, non, zenbat, zenbat aldiz...) edo kontsumitzen dituzten edukia (zer, nola, zeren bidez...) aztertzea, ez eta euskal ikus-entzuleriaren joera orokorrak bilatu edo eraikitzea, baizik eta ikus-entzuleen diskurtsoak jaso eta hauen bidez balizko belaunaldi ezberdinen telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak alderatu eta ulertzea. Hortaz, lanaren azken asmo metodologikoa ulerkerazkoa da, ez osotasuneko (Velasco & Díaz de Rada, 2006).

Euskal hiztunen belaunaldi ezberdinetako pertsonen sakoneko kasu azterketak «xehetasuneko azterketa» burutu ahal izateko aukera eskaintzen digu (Flyvberg, 2004: 420), eta hala telebistarekin harremanean aurkitu eta eraikitako esangura eta plazerren esplorazio intentsiborako aukera zabaltzen da. Melville Herskovits amerikar antropologoak esan bezala esperientziak ikerketa intentsiboak ulermena eskaintzen duela erakusten du, estentsiboak ez bezala (Herskovits, 1954). Zentzu horretan, ikerketa honen ikuspegi metodologikoak adierazgarritasuna bilatzen du, baina ez berau lagin batetatik abiatuta unibertso handiagoaren ezaugarriak modu formalean orokortzeko aukera bezala ulertuta, baizik eta ikergai den errealitatearen bizipenak jaso eta gaiaren inguruko ezagutza handitzeko aukera bezala. Unibertsaltasun eta partikularraren arteko tentsioan, partikularraren alde egingo dugu beraz: testuinguruan ainguratutako ezagutza zehatzaren eta azalpen teoriko erroto, praktikoa eta biziaren alde.

Iker-objektua, aisiazko esperientzia, subjektuaren baitan soilik ematen denez, subjektuaren beraren narrazioaren bidez soilik ezagutu dezakegu, eta hortaz ezinbestean egongo da bere partikularitasunen arabera kontatua, subjektuaren baitan kokatua. Partikularitasun hauek ezkutatu baino, ahal den neurrian mahai gaineratzeko

apustua egin da lan honetan. Alde batetik norbanakoen anonimotasuna bermatu arren ezaugarri demografikoak islatuz aukeratutako aipuetan<sup>396</sup>, eta bestetik transkribapenetan eta In Vivo kodeketan saio ezberdinetan erabilitako euskalkiak eta adierazpide zehatzak errespetatuz.

Hala ere, adin taldeak elkarren artean alderatu eta balizko belaunaldien arteko berdintasun eta ezberdintasunak bilatzea denez lan honen xedea, ezinbestekoa da partikularitasun huts-hutsetik aldendu eta nolabaiteko orokortasunak onartzea. Zientziak orokortasunekin lan egiten duen artean, esperientzia nolabait beti bakuna, berezia denari dagokio, eta kontraktasun horri irteera emateko ezinbestekoa da mutur bien artean nonbait kokatzea. Lan honetan puntu hori adin-taldeek eskaini dute, hauen araberako multzokatu baitira norbanakoak gero multzo ezberdinak alderatu ahal izateko.

#### 4.1.2. LOGIKA IDEOGRAFIKOA ETA NOMOTETIKOA

Logika ideografiko hutsa anti-orokortzailea da definizioz, partikularra, subjektuaren baitan kokatutakoa bere horretan aitortzen baitu, gertakizun bakan eta bakuntzat harturik. Ikerketa prozesu osoki ideografiko batek ezinbestean emaitza berezi eta bakarrak eskainiko ditu, alderagaitzak, eta laginari bakarrik dagozkionak (Tan & Hunter, 2009: 573). Logika nomotetikoak aldiz orokorketa ahalbidetzea bilatzen du hasieratik, pertsona eta taldeen arteko alderaketarako aukerak zabaltzen ditu, horretarako elementu komunak multzoetatik abiatuta, elementu komunik ezean ezinezkoa baita konparazioa (Tan & Hunter, 2009: 576).

Horrela, lan honen ikuspegi metodologikoa ez da bere osoan ideografikoa; abiapuntu eta filosofia ideografiko batetik abiatuz elementu nomotetiko batzuk ere jasotzen ditu, eraikitako kategorien artean alderaketak ahalbidetu eta belaunaldien artean ezberdintasun eta berdintasunak ote dauden erantzuten saiatzeko. Baina aldi berean, hurbilketa nomotetikoak ez du esan nahi ikerketaren anbizioa, abiapuntua eta nolabait helburua ere ideografikoak ez direnik, hala baitira.

Schutz-ek jaso bezala (Schutz, 1962: 59) gizarte zientzien metodologiaren lehen eginkizuna gizakiak egunerokotasunean bere esperientziak antolatzen dituen printzipio orokorrak esploratzean datza<sup>397</sup>. Guri bi muturrak dagozkigu: orokortzea eta anti-orokortzea, printzipio orokorrak eta esperientzia partikularrak. Lan hau esperientzia partikularretatik gertuago kokatzen da, printzipio orokorretatik baino, baina hala ere lan honen abiapuntu metodologikoak eta landa lanaren diseinuak bi joerak aitortu behar ditu ezinbestean. Bestela esanda: tentsio horri uko edo muzin egitea ez da aukera bat. Tentsio hori onartu eta bertan kokatzearen hautua egin beharra dago, bai ikerketaren aukera metodologikoan eta baita landa lanaren prozesu osoan ere.

<sup>396</sup> Ikus atributuzko kodeen informazio markak.

<sup>397</sup> «La exploración de los principios generales según los cuales el hombre en la vida cotidiana organiza sus experiencias... el primer cometido de la metodología de las ciencias sociales».

Hortaz, abiapuntu metodologiko bezala lan honek orokortzeak burutzeko mugak onartzen ditu, eta ez da bere asmoa biztanleria edo adin-tarte osoei buruzko ondorio-rik proposatzea. Baina aldi berean hautatutako parte-hartzaileak eta bildutako lagina unibertso zabalago baten parte gisa hartzen da, eta haiengandik emaitza adierazgarriak ondorioztatu eta ikergaiari buruzko ezagutzan aurreratzea espero da. Bestela esanda, ikerketa kualitatiboaren baitan kokatzen da bete-betean lan osoa. Zer da baina, ikerketa kualitatiboa? Zein ezberdintasun ditu ikerketa kuantitatiboarekiko? Galdera horri lan honi dagokion neurrian erantzuten saiatuko gara hurrengo lerroetan.

#### 4.1.3. IKERKETA KUALITATIBOA KUANTITATIBOAREN ONDOAN: AUKERAK, MUGAK, OSAGARRITASUNAK

Ikerketa kualitatiboa zehazte aldera komenigarria da aurretik ikerketa kuantitativoari buruz zerbait esatea. Izan ere, abiapuntu teorikoan luze azaldu bezala azterketa kuantitativoak Aisiatzko Ikaskuntzetan eta Ikus-entzuleriaren Ikerketan ekarpen inportanteak egin ditu, eta oraindik ere bi esparruen baitan burutzen den ikerketa gehiena kuantitativoa da izaeran<sup>398</sup>. Hala ere, metodo kuantitativoak muga zeharkaezin batzuk, horma igaroezin batzuk agertzen ditu<sup>399</sup> bai Ikus-entzuleriaren Ikerketan eta baita aisiaren ikerketan ere. Finean, Rojekek dioen bezala azterketa kuantitativoak «ez du sarbiderik aisiatzko jarduera burutzen ari diren pertsonen gogora, eta ezin du mundua haien begietatik ikusi»<sup>400</sup> (Rojek, 2009: 71).

Hari berari tiraka, ikerlari britainiarrak alemaniar soziologiaren baitan eman zen *Methodenstreit* eztabaida filosofikoa dakar gogora. Bertan bi jarrera bateraezin gailendu ziren: natur zientzien (*Naturwissenschaften*) eta aldagai objektiboen bidez giza bizi-mundua (*Lebenswelt*) azal eta uler zitezkeenaren aldekoak, eta metodo hauen bidez giza jokabidearen kanpo kausalitateaz haratago joan ezina aitortu eta giza zientzia eta berezko metodoen (*Geisteswissenschaften*) alde egin zutenak, kanpo jokabidea ez ezik barne-esperientzia, motibazioa eta aldagai subjektiboak kontuan hartuz. Lehen jarreraren aldeko soziologoek mundu ikuskera koherentea eraikitzea helburu harturik gertaeren pilaketa bilatzen zuten batez ere, logika nomotetikoaren baitan kokatuz. Bigarren jarreraren aldekoek berriz gizaki eta gizartearen jokabidearen alde idiosinkratiko eta errepikaezinak aldarrikatu zituzten, giza mundu ikuskerak aldakorak eta testuinguruarekiko kontingenteak direla aldarrikatuz, logika ideografikoaren baitan.

Eztabaida natur zientzien metodoen –*Naturwissenschaften*– eta giza eta gizarte zientzien metodoen –*Gesteswissenschaften*– artean kokatzen den arren, hurbilketa kuantitativo eta kualitatiboekin duen harremana begibistakoa da. Martyn Hammersley ere natur zientzien aldeko joera metodo orokortzailearekin eta metodo nomotetikoarekin lotuko du (Hammersley, 2005: 28):

<sup>398</sup> Ikus «Ikus-entzuleak eta Ikus-entzuleriaren ikerketa» atala, 3. Kapituluuan.

<sup>399</sup> Ikus «Audiantziaren azterketaren mugak» 3. Kapituluuan.

<sup>400</sup> «But it cannot enter the minds of people engaged in leisure practice or see the world through their eyes».

Hemen fenomeno anitzek banatzen dituzten ezaugarrietan jartzen da arreta. Natur zientziaren helburua gertaera oro barne hartuko dituguen kontzeptu orokorren sistema osatzea da, baita etorkizunean gertatuko direnena ere. Are gehiago, onartzen da fenomeno bakoitza anbiguotasunik gabe kontzeptu jakin bati esleitu daitekeela<sup>401</sup>.

Noski, zilegi litzaioke ikerlariari giza bizipenaren inguruko halako teoria oro hartzaile eta anbiguotasun gaberik eraiki nahi izatea, zeinek telebistarekin lotutako aisiazko esperientziaren agerpen oro zalantzarik gabe azaltzeaz gainera, etorkizunean gerta litezkeen guztiak hutsik gabe aurrikusteko gaitasuna lukeen. Baina Rojek eta Hammersleyren kontakizunak iradokitzen duen bezala bigarren paradigma bat beharrezkoa da giza esperientziari eta esangurari, giza bizi-mundu edo *Lebenswelt* horri dagozkion eremuak esploratu eta ezagutu ahal izateko: errealitate ezberdin baten errealitate horri hurbiltzeko auresuposaketa ezberdinak eskatzen ditu.

Klaus Bruhn Jensenek honela bereizten ditu bi paradigmak, errealitateari eta errealitate hau ikertzeari buruzko auresuposaketa ontologiko, epistemologiko eta metodologiko ezberdinen konfigurazio bezala ulertuta:

## 7. TAULA: PARADIGMA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOAREN OINARRIAK

Metodologia	
Kuantitatiboa	Kualitatiboa
Maiztasuna	Agerraldia
Experimentua	Esperientzia
Neurketa	Exegesia
Produktua	Prozesua

Iturria: (Jensen, 2012: 285) Norberak moldatua.

Paradigma kuantitatiboak gertaera baten maiztasuna edo errepikatzea badu oinarri, paradigma kualitatiboan agerraldiaren testuinguruari ematen zaio balioa. Paradigma kuantitatiboarentzat experimentua eta neurketa dira fenomenoak ulertu, azaldu eta aurrikusi ahal izateko oinarria, eta paradigma kualitatiboarentzat aldiz giza esperientziaren interpretazio zikliko<sup>402</sup> edo exegesian datza muina. Azkenik, paradigma kuantitatiboarentzat zentzua edo esanahia produktua den bitartean, paradigma kualitatiboan sarri testuinguruaren arabera garatzen den prozesua da.

<sup>401</sup> «Here the focus is on the common features that many phenomena share. The aim of natural science is to form a system of general concepts that allows every event, including those that will occur in the future, to be subsumed under general concepts. Furthermore, it is assumed that in each case phenomena can be assigned unambiguously to a particular concept».

<sup>402</sup> Ikus «Bide-oharrak: memoak eta memogintza» atala, kapitulu honetan bertan.



Joseph Ponterotto eta Ingrid Griegerrek ere antzerako parametroak darabiltzate eskuartean ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboaren – edo hobe esanda, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboaren, ezaugarri nagusiak laburbiltzerakoan (Ikus 8. Taula). Bi metodologo kualitatiboaren eskeman berriro ere, errealitate ezberdineko interesa ez ezik, errealitatearekiko hurbilketa ezberdinak agertzen dituzte metodo batek eta besteak. Bi paradigma ezberdinen aurrean aurkitzen gara: erantzunak bilatzeko modu ezberdinak ez ezik, galderak formulatzeko modu ezberdinak aurkezten dituzte. Zentzu horretan, historikoki lehia aurkitu izan diren, eta oraindik ere aurkitzen diren, tradizio akademiko eta zientifiko ezberdinak baino, ikuspuntu osagarriak direla esan dezakegu<sup>403</sup>.

## 8. TAULA: METODO KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOEN EZAUGARRIAK

Metodo kuantitatiboak	Metodo kualitatiboak
Natura-zientzietako perspektiba	Giza zientzien perspektiba
Positibismoa	Fenomenologia, idealismoa eta konstruktibismoa
Errealitate neurgarri bakarra	Errealitate anitzak, sozialki eraikiak eta testuinguruaren arabera
Teoriak gidatuak ( <i>theory driven</i> )	Teoria-sortzaileak ( <i>theory generating</i> )
Hipotesiak frogatzea	Hipotesiak sortzea
Kuantifikazioa	Deskribapena
Lege eta kausak ulertzea	Esanahia bilatzea
Ikerlari objektibo eta apartatua	Ikerlari parte-hartzaile eta interaktiboa
Diseinu esperimentalak	Sakoneko elkarriketak eta behaketa parte-hartzaileak

Norberak moldatua (Ponterotto & Grieger, 1999).

Taulak metodologia eredu idealak aurkezten ditu, errealitatean bere horretan zertan bete ez direnak. Baina aitortu beharrekoa da ikerketa hau bete-betean kokatzen dela bigarren zutabearen, darabilen perspektiba, errealitatearekiko hurbilketa ontologiko-epistemologiko, planteatzen dituen helburu, darabiltzan ikerketa teknika eta ikerlariak ikerketan jokatzen duen paperagatik. Inaki Zabaletak bere Zientziaren jakintza-eraren hierarkia epistemikoan hurrenez hurren aipatzen dituen Ontologia, Epistemologia, Teoria, Metodoa eta Ikerketa-teknikei (Zabaleta Urkiola, 1997: 9) dagokien hurbilketa kualitatiboan kokatzen da bete-betean lan hau.

Ponterotto eta Griegerrek proposatzen duten teoria sortzeko gaitasun edo orientazioari dagokionez berriz, aztertutako kasuen eredu esplikatibo interpretatiboa osatzea du helburu lan honek. Planteamendu hau ez da berria ikus-entzuleriaren eta

<sup>403</sup> Ikus «Ezaugarriak: zer da eta zer ez (lan honetan) Kasu Azterketa?» atala.

ikus-entzuleen azterketan; Maialen Garmendiak jaso da adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek telebistarekiko harremanak aztertzerakoan (Garmendia Larrañaga, 1998: 76) ikerketaren aztergaia (eta lagina) eta beronengan aztertu nahi diren ezaugarri eta dimentsioak aukeratu ostean eredu kontzeptuala osatu behar dela, aztertutako pertsonen jokabideak modu koherente eta artikulatua deskribatzeko, dimentsioetan oinarritutako azterketa soilak beti ere ikus-entzuleriaren irudi partziala eskainiko bailuke. Garmendiak ikuspegi deskriptibo osoagoa eskain dezakeen eredu kontzeptual honetaz haraindi eredu teorikoaren eraikuntza ere proposatzen du, ikus-entzuleriaren ohiturak deskribatzeaz gain berauek ulertu eta interpretatze aldera<sup>404</sup>.

Antzerako planteamendu bati jarraituz, lan honetan hiru «une» metodologiko ezberdin bereizten dira: Abiapuntu teorikoa, Azterketa Enpirikoa eta Eredu Interpretatibo-Esplikatiboa. Hau da: ikerlanaren eta iker-arloaren oinarri teorikoak definitu dira lehen unean, kasu azterketaren prozedura eta emaitzak aurkeztu dira bigarren, eta aztertutako kasuen telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien eredu teorikoa proposatuko da hirugarrenean.

Lan hau ikerketa kualitatiboarekiko nola kokatzen den modu orokorrean aurkeztuta, ondoren kasu azterketaren figura sakontasun handiagoarekin aztertuko dugu ondoren.

## 4.2. KASU AZTERKETA: ABIAPUNTUA, EZAUGARRIAK, MUGAK ETA ABANTAILAK

Honorio Velasco eta Angel Diaz de Radak ikerlariak ikuspegi metodologiko orokorraren eta landa lanaren artean bereiztu beharraz azpimarratzen dute *Ikerketa etnografikoaren logika* lanean: «Landa lana teknika bat eta teknika multzo bat baino gehiago da, baina ez da prozesu metodologiko orokorrarekin nahastu behar. Egoera metodologikoa da, baita prozesua ere bere horretan, ekintzen, jarreraren eta jazoeren sekuentzia bat, zeinek denak ez dauden ikerlariaren kontrolpean...» (Velasco & Díaz de Rada, 2006: 18)<sup>405</sup>. Bestela esanda, mapa ez da lurraldea (Korzybski, 1933: 747–61),

<sup>404</sup> «Una vez seleccionada la población objeto de estudio y los aspectos o dimensiones que se consideran más relevantes en el ámbito de los hábitos de audiencia, es necesario configurar un modelo conceptual que permita describir de forma coherente y articulada los patrones de conducta de las mujeres, puesto que la descripción centrada en las diversas dimensiones ofrecería siempre una imagen parcial de sus hábitos de audiencia. Si además de un modelo conceptual, se quiere crear un modelo teórico será necesario –además de describir los diversos hábitos de audiencia– comprender e interpretar cómo y por qué se comportan de una forma determinada las mujeres de la CAPV cuando ven la televisión». (Garmendia, 1998: 76).

<sup>405</sup> «El trabajo de campo es más que una técnica y más que un conjunto de técnicas, pero ciertamente no debe confundirse con el proceso metodológico global. Es una situación metodológica y también en sí mismo un proceso, una secuencia de acciones, de comportamientos y acontecimientos, no todos controlados por el investigador...».

eta iparrorratza eta ibilbidea bereiztu beharrean gaude: planteamendu metodologi-koak norabidea eta iparra markatzen ditu, baina ez da posible landa lanaren aldagai guztiak aurrikusi eta hartu beharreko erabaki guztiak aldeztatik zehaztea.

Hala, landa lanak diseinatu den planteamendu eta prozesu metodologikoan murgiltzea, uretara jauzi egitea dakar ezinbestean: egoera metodologikoan kokatzea dakarkio ikerlariari. Esan beharrik ere ez dago, egoera metodologiko bezala, joera orokortzaile eta ez-orokortzailearen, ikuspegi nomotetiko eta ideografikoren artean aurkituko garela behin eta berriro. Ikerketaren dimentsio enpirikoa marrazten eta definitzen duten alorrak dira biak ala biak, hirugarren kontzeptu batean topo egiten dutenak, batak eraikuntza eta diseinu teorikoaren aldetik, besteak datuak jasotzeko jardun praktikoaren aldetik. Klaus Bruhn Jensenek dioen bezala, «behin interes teorikozko eremuari formatoa eman eta beronen osagaietatik lagina hartuta, proiektu kualitatibo batek 'metodo' zehatzen aukeraketara jotzen du, eremuarekin hartueman izateko teknike-tara»<sup>406</sup> (Jensen, 2012: 270). Lan honetan kasu azterketak osatzen du interes teorikozko eremuarekin hartueman ahalbidetzeko aukeratutako metodo zehatza.

Noski, «formatoa» eman zaion eremu honetan, eta abiapuntu metodologiko orokorretik eratorrita, landa lanean planteamendu metodologikoaren kontraesanak berraurkitzen eta berragertzen dira, baita berariazko kontraesanak berriak sortu aurkitu ere. Nola bilatu oreka esanguratsu bat aurkitutako errealitate partikular eta idiosinkratikoen eta edozein fenomenori buruz zerbait esateko beharrezkoa den orokortze maila minimoaren artean? Zer utzi kanpoan eta zer hartu barruan? Noiz hitz egin eta noiz isildu?

Lan honetan adin-taldeak hartu dira erreferentzia eta mutur bien arteko bidegurutze bezala. Eztabaida taldeak eta sakoneko elkarriketak erabili dira adin-taldeen inguruan eraikitako kasuen inguruko datuak biltzeko<sup>407</sup>. Hurrengo lerroetan kasu azterketa zertan datzan, zein muga dituen eta zein aukera eskaintzen dituen aztertuko dugu.

#### 4.2.1. EZAUGARRIAK: ZER DA ETA ZER EZ KASU AZTERKETA?

Kasu azterketa ikerketa modu eta estrategia berezia da, orokorraren eta partikularren arteko tentsioan kokatzen dena, eta N handiko lagin bidezko azterketa estatistiko eta inkestetatik zein esperimentuengandik ezberdina: «fenomeno baten instantzia bat edo gutxi batzuk sakonean aztertzen diren ikerketa ikuspegia»<sup>408</sup> (Gi-

<sup>406</sup> «... having formatted a field of theoretical interest, and having sampled from its empirical constituents, a qualitative project turns to the concrete choice of 'methods' – techniques for interacting with the field».

<sup>407</sup> Ikus: «Landa lana eta ikerketa enpirikoa» azpiatala kapitulu honetan bertan.

<sup>408</sup> «A case study is a research approach in which one or a few instances of a phenomenon are studied in depth».

ven, 2008: 68). Ikerketa estatistikoan ezaugarri edo bereizgarri zehatz bat edo multzo txiki bat biztanleriaren artean nola banatuta dagoen aztertzen da. Kasu azterketan aldiz instantzia zehatz baten (edo multzo txiki baten) bereizgarri eta ezaugarri anitzak aztertzen dira; interes teorikodun fenomenoak aztertzeko testuinguru eta kasuak aukeratzen dira, hauek xehetasun enpirikoz aztertu ahal izateko (Jensen & Jankowski, 1993; Jensen, 2012).

Estrategia simetrikoak dira hortaz, azterketa estatistikoarena eta kasu azterketa-arena. Ezberdinak eta neurri batean aurrez aurrekoak, baina osagarriak. Kasu azterketek adierazle eta ñabardura gehiago erabil ditzakete fenomeno bat aztertu, eta berau interpretatuko duten eredu eta kontzeptu teorikoak errepresentatzeko. Agregazio estatistikoan aldiz, maneiatu daitekeen aldagai eta adierazle kopurua murriztu eta zurrungoa da, baina trukean askoz kasu gehiago aztertu daitezke.

Hau esanda, kasu azterketak teknika, korrante eta abiapuntu metodologiko ezberdinekin lotura eta afinitate nabarmenak agertzen baditu ere, ezin esan daiteke zehazki berauekin identifikatzen denik: «Ezin dezakegu kasu azterketa *kualitativo, etnografiko, prozesu-azaltzaile, holistiko, naturalistiko, hedatu* edo *triangulazio*atik trukatu, itzulpenean zerbait galdu denaren sentsazioirik gabe»<sup>409</sup> (Gerring, 2007: 18).

Finean kasu azterketetan norbanako, komunitate, erakunde eta jazoeren sako-neko ikerketa burutzen da, beti ere testuinguru sozial, historiko, teknologikoarekin harremanean, inguruarekin harremanetan dauden sistema sozial bezala ulertuta (Gomm, Hammersley, & Foster, 2000; Yin, 2003). Kasuen berezko interes historiko, politiko, antropologiko edo kulturalaz haraindi, oro har beste sistema sozial batzuetarako inplikaziodun deskribapen, eredu edo tipologiak bilatu ohi dira, esplizituki edo inplizituki. Zentzu horretan kasu azterketak «nola» edo «zergatik» bezalako galderei erantzuteko, ikerlariak gertaeren gaineko kontrol gutxi daukanean eta ikergaiaren fokoa bizitza errearen eremuko fenomeno garaikide batean dagoenean aukeratu ohi dira ikerketa estrategia bezala (Yin, 2003).

Hammersleyk jaso bezala kasu azterketa terminoa, XX. mende hasierako Amerikako Estatu Batuetan norbanako, talde edo erakunde bati buruzko xehetasun handiko eta erlatiboki egituratu gabeko informazioa bildu eta aurkezteari zegokion funtsean, oro har eragileen kontaketa bera barne harturik (Hammersley, 2005: 90). Ordukoa da baita estatistikaren eta kasu azterketaren arteko lehia. Bien arteko bereizketa edo amildegia oso modu grafikoa adierazi eta azpimarratu zuen William Fielding Ogburn amerikar soziologoak iragan mendeko hirugarren hamarkadan:

Ezagutza eta ulermena banaketa jarrai baten bi muturretan aurkitzen dira... Ezagutzaren probak fidagarritasuna eta zehaztasuna dira. Zientifikoki formatu gabeko pertsona bat denbora luzez bizi daiteke beste pertsonen ondoan eta haien nahiko

<sup>409</sup> «One cannot substitute case study for qualitative, ethnographic, process-tracing, holistic, naturalistic, diffuse, or triangulation without feeling that something has been lost in translation».

ulermen ona izan haien buruz; baina nekez deituko genioke zientzialaria. Harena ez litzateke zientzia deritzogun ulermen zehatz, sistematiko, besterengarri hori.<sup>410</sup> (Og-burn, 1932: 5).

Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez, ibilbide luzea egin duten arren gauzak ez dira hainbeste aldatu, kasu azterketaren eta hurbilketa estatistikoaren artean. Be-reizketa eta lehia hau zenbaterainokoa den eta muga eta abantailen ikuspegitik iraku-rrita kasu azterketek zer eskaini dezaketen aztertuko dugu jarraian.

#### 4.2.2. KRITIKAK ETA MUGAK

Kasu azterketaren ideiak, ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren paradig-men arteko gatazka gorpuztu du historikoki, gaizkiulertze eta aurriritzi ugari bilduz bere inguruan. Hala, alde batetik kasu kopuru txiki bat sakonean aztertu edo kasu kopuru handi bat inkesta bidez gainbegiratzeko hurbilketak kontrako posizio beza-la agertu izan dira behin eta berriro. Bestetik biztanleriaren lagin batetik abiatuta orokortzea<sup>411</sup> eta bestetik kasu kopuru mugatu batetik printzipio eta arauak erator-tzeko aukera nahastu dira (Hammersley, 2005). Bi nahasketa hauek sarri «aurkaria» deslegitimatze bide bezala erabili dira, ikerketa esparru eta ardura ezberdinei eki-teko abiapuntu osagarri baino.

Positibismo soziologikotik kasu azterketari izaera anekdotikoa (hau da, ez due-la beste metodo serioagoen aurkikuntzak ilustratu edo adibidez hornitzeko bai-no balio) eta estandarizatu gabeko deskribapenak eskaintzerakoan orokortzea ez ahalbidetzea leporatu izan zaizkio batez ere (Given, 2008). Bestela esanda, «kasuan oinarritutako» ikerketa ez dela «aldagaietan oinarritutako» ikerketa bezain zienti-fikoa. Bent Flyvbjerg daniar geografo ekonomikoak irmo eutsi dio kasu azterketan oinarritutako ikerketaren zientifikotasunari, «Kasu azterketa ikerketari buruzko bost gaizki ulertu» artikuluan<sup>412</sup>. Bertan kasu azterketari egiten zaizkion kritika nagusiak bost «gaizkiulertu» nagusitan identifikatu eta banan banan desarmatuko ditu (Flyvbjerg, 2004).

Ezagutza teoriko orokorra (testuinguru zehatzari lotzen ez zaiona) ezagutza ze-hatz, praktikoa (testuinguruari lotutakoa) baino baliotsuagotzat hartzean datza lehen gaizkiulertzea, giza eta gizarte aferetan ez baitago (eta ziurrenez ezin da egon) teoria prediktiborik, ez eta unibertsalik ere. Bestalde, gizakiok kasu eta adibide zehatzak behar ditugu edozein jardueratan hasiberri izatetik aditu izatera heldu ahal izateko.

<sup>410</sup> «Knowledge and understanding are at opposite ends of a continuous distribution. ...The tests of knowledge are reliability and accuracy, not understanding. ...A person, untrained scientifically, may live for a long time among other people and come to have a pretty good understanding of them; yet he would scarcely be called a scientist. His understanding would not be of that accurate, systematic, transferable kind called science».

<sup>411</sup> Finean lagin estatistiko baten helburua biztanleria zabalago baten elementuak agerian uztea da.

<sup>412</sup> «Five misunderstandings about case-study research».

Hortaz faltsua da kasu azterketek ezagutzarako bigarren mailako sarbidea eskaintzen dutela, kasuak giza ikasketa prozesuaren eta benetako trebeziaren muina dira eta «Testuinguruaren araberako ezagutza eta esperientzia adituen jardueraren bihotz-bihotzean daude (...) soilik kasuekin lotutako esperientziatik igaro gaitzke hasiberri izatetik aditu izatera»<sup>413</sup> (Flyvberg, 2004: 421). Hartara testuinguruaren araberako ezagutza ez da soilik balioduna: ezagutza praktikoa, (existitzen ez diren) halako unibertsal ez kontingenteen bilaketa baino baliotsuagoa da.

Bigarren gaizkiulertzea orokortzeko gaitasunari dagokio: Kasu bakarretik ez omen dago orokortzerik, eta hortaz kasu azterketak ezin dio garapen zientifikoari ekarpenik egin. Flyvbjergek Galileoren ustezko Pisako dorrearen esperimentua dakar gogora, non luma bat eta berun zati bat erortze utzi zituen Aristoteleren grabitatearen legea faltsutzeko. Ondo aukeratutako kasuek orokortzeko aukera zabalak eskaintzen dituela gogoratzen du ikerlariak, eta orokortze formala garapen zientifikorako iturri bezala gainbaloratuta daudela, adibideak ezagutza eraiki eta sendotzeko duen indarra azpibalaratuta daukagun artean.

Hirugarren gaizkiulertzeak kasu azterketa hipotesiak sortzeko egokia dela, baina hipotesiak egiaztatu eta teoria eraikitzeko beste metodo batzuk egokiagoak direla planteatzen du. Berriro ere laginketa eta kasuen aukeraketa estrategikoan dago neurri handi batean gakoak: «... kasu tipikoa edo batez bestekoa sarri ez da informazioan aberatsena. Kasu atipiko edo muturrekoek sarritan informazio gehiago agertzen dute, eragile eta oinarritzko mekanismo gehiago aktibatzen dituztelako ikertutako egoeran»<sup>414</sup> (Flyvberg, 2004: 425). Hortaz, kasu azterketak hipotesiak sortu eta egiaztatzeko ez ezik (Galileoren frogan adibidez), teoria eraikitzeko ere baliagarriak direla azpimarratuko du (Freuden Otso-gizona eta Foucalten Panoptikoa kasu).

Laugarren gaizkiulertze bat kasu azterketak ikerlariaren aurriritziak baieztatze-ko joera agertzen duela, eta partziala delakoaren kritikan aurkitzen du Flyvbjergek. Haren ustez partzialtasun eta subjektibotasuna ikerketa modu guztietan agertzen dira, baina kasu azterketek bizitza errealeko egoerekin hurbiltasuna izatearen abantaila dute, fenomenoak aztertzerakoan. Honek praktikan kasu azterketak aurriritziak faltsutzeko joera agertzen du: hasierako hipotesiak baztertuz, kategoriak birformulatuz... Bestela esanda, kritikatzeko zaionaren justu kontrakoa egin ohi du kasu azterketan murgiltzen duen ikerlariak, aurriritzi eta partzialtasunaz libro ez bada ere, berarek behin eta berriro birplanteatu, baztertu eta birformulatze-ko joera izaten baitu, edozein fenomenoren behaketa zorrotzak hala eskatzen duelako.

<sup>413</sup> «Context-dependent knowledge and experience are at the very heart of expert activity (...) is only because of experience with cases that one can at all move from being a beginner to being an expert».

<sup>414</sup> «... the typical or average case is often not the richest in information. Atypical or extreme cases often reveal more information because they activate more actors and more basic mechanisms in the situation studied».

Azken gaizkiulertzeak dio zaila dela teoria eta proposamen orokorrak garatzea kasu azterketa zehatzetatik abiatuta. Bestela esanda, sintesia burutzea zailtzen duela kasu azterketak ekarri ohi duen xehetasunez betetako deskribapen eta narrazioak. Flyvbjergek onartzen du narrazioa bera laburtzea zaila izan daitekeela, baina aldiz narrazioak indar berezkoa duela ere aitortu beharrekoa dela dio. Azken batean, «Narrazio on bat amaitzerakoan, pentsaezina behar luke entzuleak 'eta zer?' galdetzea»<sup>415</sup> (Flyvberg, 2004: 431). Kasua bera ezagutzeak dakar sarri ezagutzan aurreratzea eta ikasketa, ez dago ibilbide hori laburtzerik edo saihesterik. Aurretik ere aipatu dugun bezala, mapa ez da lurraldea<sup>416</sup>, eta kasu azterketak sarri «fenomenoak lehen eskutik esploratzea dakar, haiei buruzko mapak irakurri beharrean»<sup>417</sup>.

Flyvberge kasu azterketei egin ohi zaizkien salaketa ohikoenak kritikatzeko dituen, abiapuntu metodologikoaren errealitatean baino aurriritzietan oinarritzen direla eta sasizientifikotasunaren susmoa oinarri gabekoa dela frogatuz. Haren ustez, lezioa argia da: N handiko eta N txikiko metodologiak osagarriak dira, Gehienetan metodo kualitatibo eta kuantitatiboentzuztarketa izan ohi da ikerketaren errokei erantzuteko modurik onena, abiapuntu bakoitzak bere abantailak baitauzka: «Lagin handien abantaila zabaltasuna da, arazoa sakonera den bitartean. Kasu azterketarentzat egoera alderantzizkoa da. Ikuspegi biak dira beharrezkoak gizarte zientziaren garapen sendo batetarako»<sup>418</sup> (Flyvberg, 2004: 432).

Eztabaida metodologiko orokorretatik aldendu eta ikerketa praktikora gehiago hurbilduta berriz, Heather eta Phil Hodkinsonen ustez kasu azterketak baditu aitortu beharreko zenbait muga. Zortzi arazo edo muga nagusi proposatzen dituzte (Hodkinson & Hodkinson, 2001):

1. Analisi erraza egiteko datu gehiegi eskaini ohi dute. Zailtasuna, neurri handi batean, kanpoan zer utzi erabaki beharretik dator, dena aurkeztea ez baita aukera bat.
2. Eskala handian burutzeko oso hurbilketa garestia da. Kasu azterketan datuak jasotzeak denbora asko eskatzen du, eta are gehiago oaindik datu hauek aztertzeak. Konparatiboki, inkesta bat merkeagoa da, eta ahalegin txikiagoa eskatzen du datuak aztertzeke.
3. Aurkitu eta behatutako konplexutasuna modu sinplean adieraztea zaila izan ohi da. Ikertutako fenomeno eta jasotak datuen aberastasunak eta dimentsio aniztasunak erroka bihurtzen du emaitzak modu eraginkorrean aurkeztea, sarri errealitatea laburgaitza baita.

<sup>415</sup> «When a good narrative is over “it should be unthinkable for a bystander to say ‘so what’”».

<sup>416</sup> Ikus Kasu azterketaren abiapuntua.

<sup>417</sup> «... implies exploring phenomena first hand instead of reading maps of them».

<sup>418</sup> «The advantage of large samples is breadth, while the problem is one of depth. For the case study, the situation is the reverse. Both approaches are necessary for a sound development of social science».

4. Ez dira zenbakizko adierazpenera egokitzen. Zenbaketak kategoria itxiak eskatzen ditu, eta kasu azterketan kategoriak berdefinitu, gainezarri eta problematizatu egiten dira sarri.
5. Ez dira orokortzaileak zentzu tradizionalan. Kasu azterketak, definizioz, idiosinkratikoak dira, ez tipikoak (kasu tipikoak direnean ere, bereziak dira horrexegatik). Bestalde, datuak nagusiki ez-zenbakizkoak direnez, zaila da oso zein neurritaraino biztanleria edo unibertso handiagoaren adierazgarria den zehaztasunez jakitea.
6. Ikerlariaren esperientzia eta intuizioak adierazpidea dutenean dira indartsuen, baina honek hurbilketaren «objektibotasuna» zalantzan jartzen du. Datuak bildu eta aztertzerako orduan berebiziko garrantzia du ikerlariak, eta interpretazioa (datuak biltzeko eta datuetatik abiatuta burutzen den eraikuntza hori) hasieratik amaierara mahai gainean jartzen den elementua da. Ikerketa prozesua subjektuz josita dagoenez (parte hartzaileetatik hasi eta ikerlariarenganaino), eta hartutako erabaki guzti-gutziak gardentasun osoz aurkeztea ere ez denez posible, emaitzak, ez dira sekula «objektiboak» izango,
7. Darameten mezua gustuko ez dutenek erraz bazter ditzakete. Politikagile eta erabaki hartzaileek ikerketa orokortzaile klasikoak baino errazago bazter ditzakete sarri, «lagina txikiegia da» edo «ikerketa partziala da» bezalako argudioekin.
8. Garrantzitsuak diren ikerketa galdera askorentzako ez dira egokiak. Kasu azterketak ez dira panazea unibertsal bat, eta ez dira besterik gabe edozein egoeratarako egokiak, ez eta ikerketa galdera guztiei erantzuteko aukerarik onena ere.

Behin Kasu azterketak planteatzen dituen muga eta arazoak zerrendatuta, aurkezten dituen abantailak aipatuko ditugu hurrengo lerroetan.

#### 4.2.3. ABANTAILAK

Kasu azterketari beste estrategia metodologikoetatik egin izan zaizkion kritikak eta planteamenduaren baitatik bertatik ikusten diren muga orokorrak identifikatuta, kasu azterketak hurbilketa metodologiko bezala eta ikerketa-abiapuntu bezala eskaintzen dituen abantailak eta aukerak aztertzeke unea da.

Esan bezala, kasu azterketak «nola» eta «zergatik» galderei erantzuten saiatzeko planteatu ohi dira, ikerketa esplikatioak burutzeko aukera zabalak eskaintzen dituztelako<sup>419</sup>, baina ikerketa esploratorioak eta deskribatzaileak ere ahalbidetzen dituzte hein berean (Hernández Sampieri, Fernández Collado, & Baptista Lucio, 2007; Yin,

<sup>419</sup> Ikus «Ezaugarriak: zer da eta zer ez da Kasu Azterketa?».



2003). Kasu azterketak ikasketa eta aurkikunde prozesuekin lotuta agertzen dira literaturan, ezagutza zientifikoaren historiatik nolabait baztertuta<sup>420</sup>, baina aldi berean estu lotuta. Hans Eysenck-ek esana da, «batzuetan begiak zabalik mantendu eta banako kasuei kontu handiz erreparatu behar diegu soilik, ez ezer frogatzeko esperantzaz, baizik eta zerbait ikasteko itxaropenarekin!»<sup>421</sup> (Eysenck, 1976: 9). Hodkinson eta Hodkinsonek sei abantaila aipatzen dituzte kasu azterketarekin harremanean (Hodkinson & Hodkinson, 2001: 2-8):

1. Elkar-harreman konplexuak ulertzen lagun diezagukete. Tamaina txiki-ko laginekin lan egiteak ikergaiaren azterketan xehetasun eta sakontasun handia ahalbidetzen du. Hala, eragile eta testuinguru ezberdinen arteko hartuemanen konplexutasuna jaso daiteke.
2. Bizitako errealitatean<sup>422</sup> errotuta daude. Norbanako, talde eta erakundeen esperientzia hartzen dituzte langai, eta eguneroko zentzuen arrastoak jasotzeko aukera zabaltzen dute.
3. Ustekabekoa eta ezohikoaren miaketa errazten dute. Aurreko bi ezaugarriak kontuan hartuta, kasu azterketak ikerketa prozesu bezala beti irekita daudela esan daiteke: aldagai berriak kontuan hartzea, eta ikerketaren arazoa bera birformulatzea ahalbidetuz. Honetaz gain, kasu azterketek ohikoak edo tipikoak ez ezik ezohikoak edo atipikoak ere har ditzakete aztergai.
4. Ezaugarri idiosinkratikoen garrantzia azaleratzen lagun dezakete, batez ere kasu ezberdinak elkarrekin alderatzean. Kasu ezberdinen arteko berdintasun eta ezberdintasunak identifikatzeko eta testuinguru zehatzak elementu hauengan duen eragina aztertzeke balio handikoak dira beraz.
5. Harreman kausalen baitako prozesuak erakus ditzakete. Faktore eta aldagaien arteko korrelazio estatistikotik haratago joatea ahalbidetzen dute, eraginen zer-nolakoak argituz eta azaltzen lagunduz. Hortaz, eredu esplikatiiboak osatzeko bereziki interesgarriak dira, eta aldi berean aurrerapen eta berrikuntza teorikoa bultzatzen ditzakete, azaleko harreman kausalak problematizatuz eta ezkututzen dituzten arrazoi ez hain agerikoak azaleratuz.
6. Garapen kontzeptual/teoriko aberatsa ahalbidetzen dute. Aurreko bost ezaugarrien ondorio logikoa da kasu azterketek garapen teorikorako eremu emankorra eskaintzen dutela: «Aurretiazko teoriak errealitate konplexuen aurka ekarri daitezke, eta datuen aberastasunak berak lagun-

<sup>420</sup> Ikus aurreko atalean Kritikak eta mugak.

<sup>421</sup> «... sometimes we simply have to keep our eyes open and look carefully at individual cases – not in the hope of proving anything, but rather in the hope of learning something!».

<sup>422</sup> «lived reality» jatorrizkoan.

du dezake pentsamendu eta ideia berriak sortzen»<sup>423</sup> (Hodkinson & Hodkinson, 2001: 7).

Laburbilduz, kasu azterketak «bizitako errealitatearen» konplexutasun eta aberastasuna kontuan hartuta ikergai bat sakonean aztertzeke aukera zabaltzen digu, eta bereziki erabilgarria da aurrerapen teorikoak proposatzeko. N handiko ikerketekin alderatzerako orduan sarri agertzen den abantaila da azken hau. Izan ere hurbilketa estatistikoak kontzeptu teoriko berrien helmen enpirikoa kontrolatzeko oso erabilgarriak diren arren, oro har berrikuntza handienak kasu azterketetatik etorri izan dira giza eta gizarte zientzietan, baita natur zientzietan ere (Blatter, 2008).

Edozelan ere komeni da gogoratzea berrikuntza teorikorako gaitasunaz gain (zein egun ez den zalantzan jartzen) hipotesiak eta teoriak egiaztatu edo ezeztatzeke ere erabilgarriak direla kasu azterketak. Ecksteinek jaso bezala kasu azterketak «teoria eraikitzeke prozesuaren fase guztietan dira baliotsuak, baina batez ere baliotsuak dira baliorik txikiena eman ohi zaien teoria eraikitzearen fasean: hautagai diren teoriak testatzerako orduan»<sup>424</sup> (Eckstein, 1975: 80). Kasu azterketak beraz ez daude ikerketa mota batetara edo teoriaren eraikuntzaren fase bakarrera mugatuta, helburu eta prozesu ezberdinetara moldatu daitezke.

Ezberdintasun nagusia ikuspegi estrategikoan dago: ikerketa kuantitatibo eta positibistetan hurbilketa *aldagaien zentratua* bada, kasu azterketak –izenak berak dioen bezala– *kasuan zentratutako* hurbilketa proposatzen du, xehetasun osoko behaketa, eta prozesua beraren dokumentazioa eta azterketa datu iturri bezala hartuta, sakoneko elkarrizketa, eztabaida talde eta diskurtso analisisen bidezko landa lanaz gain. Deskribapen lodia<sup>425</sup> da hurbilketa mota honetarako erabiltzen den teknika ezagunenatariko bat.

Deskribapen lodi edo trinko honek ikerlariak irakurleari xehetasunez betetako kontaketa osoa eskaintzen diola esan nahi du (testuinguru, parte-hartzaile eta azterketaren diseinuari dagokionez), irakurleak bere erabakiak har ditzan. Ikerlariak parte-hartzaileekin eta haien testuinguruarekin izandako hartuemanen kontaketa zuzen eta zehatza behar-beharrezkoa da parte-hartzaileek esandakoaren ondorio eta zentzua ondo igortzeko, ironia darabiltenean, hitz jokoetan... Kasu azterketak, zer esanik ez, deskribapen lodi hauek osatu ahal izateko baliabide eta tresna funtsezkoak dira. Harreman sinbiotikoa dagoela esan genezake, kasu azterketek deskribapen lodiarene abantailak baliatzen baituzte, eta deskribapen lodiak kasu azterketen behaketa sakon eta biziaz elikatu daitezke.

<sup>423</sup> «Existing theories can be brought up against complex realities, and the very richness of the data can help generate new thinking and new ideas».

<sup>424</sup> «...are valuable at all stages of the theory-building process, but most valuable at that stage of theory-building where least value is generally attached to them: the stage at which candidate theories are tested».

<sup>425</sup> «Thick description» ingelesez.

Finean, biek marrazten dute lan honetan kasu azterketen aldeko abantaila nagusienetarikoa izan daitekeena: metodo estatistikoek ez bezala, ekintza eta jardunaren zentzu zabalean, lan honetan bizipena eta esperientzia baitira ikergai- alde subjektiboak –ikerlariaren ibilbidearena barne– dokumentatzen eta deskribatzen dute, haien inguruko ezagutzan aurrera egitea ahalbidetuz.

Herbert Blumerrek esana da kasu azterketek estatistikoak ez diren orokortzeak ahalbidetzen dituztela, eta horrexegatik beragatik direla baliotsuak (Blumer, 1930). Kasu azterketek estatistikek ondo egiten dutena egitea eskatzea errakuntza da, estatistikari kasu azterketak ondoen egiten duena egitea den bezala. Bi hurbilketa ezberdin, errealitateari buruzko ezagutzan aurreratzeko bi modu ezberdin eta osagarri eskaintzen dizkigute.

Behin kasu azterketaren abantaila eta indarguneak azalduta, ikerketa honi begira ahalik eta onura handiena eskaini dezakeen planteamendua proposatuko dugu ondoren.

### 4.3. TEKNIKA METODOLOGIKOAK ETA GIDOIA

Ikerketan parte hartu duten pertsonen telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien berri izateko, hau da, aztergai izan ditugun kasuen inguruko datu bilketa burutzeko bi teknika metodologiko erabili dira: eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketak.

Ondorengo lerroetan orain arten jorratutako adin ezberdinetako Bizkaiko herri-tarren telebistarekin lotutako asiako harremanei buruzko kontakizunak jasotzeko burutu den landa lan enpirikoan erabili diren bi teknika hauek azalduko ditugu.

#### 4.3.1. EZTABAIDA TALDEAK

Eztabaida taldeak<sup>426</sup> informazioa lortzeko moderatzailearen eta parte-hartzaileen artean burutzen den eztabaida prozesua du helbide, eta taldekideentzat garrantzitsua eta adierazgarria ezagutzea helburu. Planteamendu gisa, errealitate soziala ezagutzeko taldearen baitan sortzen den komunikazio prozesua erabakigarritzat hartzen du (Gaitán & Piñuel, 1998), eta parte-hartzaileen arteko elkarrizketaz baliatzen da datuak sortzeko (Kitzinger, 1995). Bereziki interesgarria zaigu hortaz, adin-taldek telebistarekin dituzten aisiazko harreman eta esperientzien berri izateko, taldearen baitako elkarrizketa eta eztabaidak bultzatzen baititu, partehartzailearen arteko hartuemanak bultzatuz eta norberaren eta taldearen diskurtsoa azalerazi eta antolatzea erraztuz.

Eztabaida Talde edo Focus group-en oinarritzko ideia ikergaiaren azterketarako esanguratsuak diren aldagaien arabera pertsona kopuru txiki bat aukeratu eta aurrez zehaztutako gai batzuen inguruan eztabaida sorraraztea da. Parte-hartzaileen auke-

<sup>426</sup> Focus group ingelesez.

raketa ez da biztanleria osoaren ezaugarriak ordezkatzeko dituen lagin baten bidez egiten, baizik eta aztertu nahi den fenomenoarentzat esanguratsuak diren aldagaien arabera, eta laginketa teorikoaren bidez<sup>427</sup>. Talde elkarrizketa soilak izateaz urrun –non parte-hartzaile guztiek elkarrizketatzailearen galderak banan-banan erantzutea bilatuko litzatekeen–, eztabaida taldeetan moderatzaileak aurkeztutako gai eta galderen inguruan parte-hartzaileen arteko eztabaida bultzatzen da (Knodel, 1995). Bestela esanda, parte-hartzaile eta ikerlariaren arteko harremana bezain garrantzitsua, edo garrantzitsuagoa da parte-hartzaileen artean ematen den harremana.

Abantaila ugari eskaintzen ditu gizarte-ikerketak teknika honek, baina ikerketa lan honi dagokionez bi azpimarra daitezke. Batetik, norbanako parte-hartzaileen mailan telebistarekiko harremanaren inguruan hausnarketa sustatzen du, taldeak pizgarri eta zirikatzaila lana egin baitezake, ideia eta posizio ezberdinak agerraraziz: «Partaide batek egindako iruzkinek beste baten gaiari buruzko gogoetak sustatu ditzake, eta hitzezko erreakzioak eragin»<sup>428</sup> (Knodel, 1995: 8) Hala eguneroko ohitura eta jardueri buruz (zeinak sarri esplizitatu eta hitzez adierazi gabeak izaten diren) modu kontzientean hausnartu eta hitz egiteko aukera eskaintzen du. Norbanakoen telebistarekin lotutako aisiazko harreman eta esperientzia ezberdinak azalera eta adierazte aldera abantaila garrantzitsua da hau.

Bestetik, adostasun eta ezadostasunak azalertzeko agertzen duen gaitasuna dela eta talde mailako hausnarketa, adostasun eta kontsentsuak eraikitzeke egokia izan daiteke, nolabait kolektiboagoak edo negoziatuak izan daitezkeen esanahiak eraikitzeke aukerak irekiz. Oso interesgarria da aukera hau belaunaldien partaidetza eta perspektibak esploratzeko, batez ere talde eta norbanakoek «haientzat garrantzitsuak diren gaiak miatzeko, haien hiztegia erabiliz, haien galderak sortuz eta haien lehen-tasunak jarraituz»<sup>429</sup> (Kitzinger, 1995: 299) ikerlariarekin batera ikergeraia esplora dezaten. Belaunaldi ezberdinen eta berauetako partaideen aisiazko bizipenak ikertzeko aukera nabarmenak eskaintzen ditu teknika metodologiko bezala.

Eztabaida taldeak agertzen dituen muga edo desabantailak dagokienez, lehenengo eta behin eskatzen duen ahalegina eta dedikazioa aipatu behar dira: diseinua, taldeen antolaketa, saioak burutzea, grabaketa, transkribapena, datuen azterketa... Hasiera batean uste zena baino askoz denbora eta lan gehiago eraman dezake Eztabaida Taldeetan oinarritutako landa lan batek. Bestetik, tabu sozialak edo gai pertsonalegiak tratatzeko ezegokia suera daiteke. Gai mingarri edo lotsagarri buruz hitz egiterako orduan ez du beharrezkoa den pribatutasuna eta intimitaterik eskaintzen. Anonimotasuna ere ezin da erabatekoa izan, dinamika taldean burutzen den heinean. Azkenik,

<sup>427</sup> Ikus Planteamendua eta Kasu-aukeraketa.

<sup>428</sup> «Comments by one participant can stimulate others' thoughts about the topic and lead to verbal reactions by them».

<sup>429</sup> «...to explore the issues of importance to them, in their own vocabulary, generating their own questions and pursuing their own priorities».

ikerlariaren presentziak ikergaiarengan eragina izan dezake, moderatzailea eztabaida saioan zehar presente baitago. Ez da berez desabantaila bat, giza eta gizarte zientzien baldintza orokorra baino: natur zientzietan ez bezala, giza zientzietan behatua denak behatua dela daki, eta hala bere jokabidea aldatzen du. Hori jakinda, eragin hau kontrolatu, kontuan hartu eta esplizitatzeko ahalegina eskatzen du teknika honek.

Abantaila eta desabantailekin, ikerketa honen oinarria hein handi batean adin tarte ezberdinetako eztabaida taldeek osatzen dute. Are gehiago, lan honen abiapuntu teoriko eta metodologikoa bera ondo jasotzen dituen teknika dela esan liteke, baita bere indargune eta ahulguneetan ere. Izan ere, eztabaida taldeek parte-hartzaileen berauen telebistarekiko aisiazko harremanen inguruko diskurtsoak aztertzea izan dute helburu, taldeak elkarren artean alderatzeko. Talde hauek aztergai diren lau adin-taldeen arabera eratu dira (18 eta 34 urteren artekoak, 35 eta 49 urteren artekoak, 50 eta 64 urteren artekoak eta 65 urtetik gorakoak), perfil ezberdinak barne hartzeko ahalegin berezia eginez<sup>430</sup>.

### 11. IRUDIA: ADIN TALDEAK (ADIN TARTEKIN)



Iturria: norberak egina.

Bederatzi eztabaida talde homogeneo (adin-talde berekoak) eta heterogeneo bi (adin-talde ezberdinetakoak) burutu dira Bizkaiko hiri eta herri ezberdinetan. Talde heterogeneoak pretest bezala erabili dira, lehenengoa gidoia osatzeari begira, eta bigarrena talde dinamika frogatzeari begira. Haietariko bat (Bilbo) azterketatik kanpo gelditu da, gaztelaniaz burutu zelako, eta gidoia oraindik ondo zehaztu gabe zegoelako. Bigarrena (Algorta) azterketan sartu da, informazio aberatsa eskaintzeaz gainera adin-talde ezberdinetako parte-hartzaileak elkarrekintzan aztertzeo aukera eskaintzen duelako.

Eztabaida talde heterogeneoek perspektiba ezberdinen agerpena maximizatzeko ahalera agertzen duten arren (Kitzinger, 2005) adin-talde eta belaunaldien artean telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien berdintasun eta ezberdintasunak identifikatu eta alderatze aldera talde homogeneoak osatzearen alde egin da azkenean. Hala, adin-taldeen esperientzia eta erreferentzia elkarbanatuak jaso eta identifikatzeko aukera baliatu izan da. Perspektiba aniztasunari dagokionez, jada aipatutako Eztabaida Talde pilotoaz gainera, kasu kritiko bezala identifikatutako pertsonekin sakoneko elkarrizketak burutu dira, modu osagarrian. Ondorengo orrialdeetan azalduko ditugu teknika honen nondik norakoak.

<sup>430</sup> Laginketa irizpideei buruz, ikus «Planteamendua eta kasu-aukeraketa».

### 4.3.2. SAKONEKO ELKARRIZKETAK

Sakoneko elkarrizketen bidez ikus-entzule jakinen telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak sakontasun handiagoz ezagutu eta lantzea bilatu da ikerketan. Izan ere, esperientziez, bizipenez ari garen heinean, ezin azter daitezke kanpo-neurketa hutsez. Ruiz Olabuenagak jaso bezala «Sakoneko elkarrizketa elkarrizketatzailearen ezjakintasun kontzientetik sortzen da, zeinek, norbanakoek haien ekintzei ematen dieten zentzua ezagutzen duela suposatetik urrun, interesatuei eurei galdetzeko konpromisoa hartzen duen, hauek haien terminoetan adieraz dezaten, esanahiaren aberastasuna harrapatu ahal izateko besteko sakontasun nahikoarekin»<sup>431</sup>(Ruiz Olabuénaga, 1996: 171).

Elkarrizketatuei, hartara, informazio hutsa eskaintzea baino gehiago, esanahia eraikitzea, zentzua lantzea eskatu zaie sakoneko-elkarrizketan, esangura hauen ekoi-ppen prozesuaren lekukotza jasotzea ahalbidetuz. Zentzu horretan sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeek baino areago, parte-hartzailearen benetako parte-hartzea eskatzen du. Anneke Meyerrek esan bezala «Elkarrizketek sakonera, foku, irismen eta egituratze maila ezberdinak izan ditzakete, baina ideia(l) komun bat dute azpian, elkarrizketek giza munduaren ezagutza sakon eta konplexuak sortzen dituztela, ikerketako parte-hartzaileen esanguretan zentratuz eta haien bizi-munduekin elkarrekintzan jardunez»<sup>432</sup>(Meyer, 2008: 70). Bestela esanda, subjektuak, sakoneko elkarrizketa baliozko izan dadin, subjektu izan behar du, ez objektu.

Hori dela eta, elkarrizketatuta lasai eta eroso aurkitzeaz gainera (zein neurri batean elkarrizketatzailearen esku egon daitekeen) motibatuta egon behar da, bere barne-bizipen eta istorioen berri emateko. Behartuta edo konpromisoz egindako elkarrizketek ez dute teknikak eskaintzen dituen sakontasun eta aberastasunerako aukeretat baliatzerik ahalbidetzen. Informazio iturri soil izatea baino gehiago eskatzen zaio elkarrizketatuari; norbere bizi-munduaren eta esanahien berri diskurtsoan antolatzea eskatzen zaio.

Ikerketa teknika bezala dituen abantaila espezifiko gisa bi pertsonaren arteko (ez baita talde-dinamika bat, eztabaida taldean bezala) hartuemanen oinarritzerakoan ahalbidetzen duen intimitatea eta ikergai diren aferaren inguruan sakon eta lasai hitz egiteko aukera azpimarra daitezke. Sakoneko elkarrizketak elkarrizketatuaren barne-mundura hurbiltzea eta ikergaiari buruzko bere interpretazioak ezagutzea ahalbidetzen ditu, ziurrenez beste edozein teknikak baino modu eraginkorragoan. Gainera,

<sup>431</sup> «La entrevista nace de una ignorancia consciente por parte del entrevistador quien, lejos de suponer que conoce, a través de su comportamiento exterior, el sentido que los individuos dan a sus actos, se compromete a preguntárselo a los interesados, de tal modo que éstos puedan expresarlo en sus propios términos y con la suficiente profundidad para captar toda la riqueza de su significado».


<sup>432</sup> «Interviews vary in terms of depth, focus, scope and degree of structure, but there is a common underlying idea(l) that interviews produce indepth and complex knowledge of the human world by focusing on meanings and interacting with research participants and their life-worlds».

denbora laburrean (ordu-bete, ordu eta erdiko tartean) informazio asko jasotzeko aukera ematen du, kostu erlatiboki txikiarekin<sup>433</sup>.

Desabantailei begira jarrita berriz, berriro ere ikerlariak ikertuarengan izan dezakeen eragina (ezeroso edo intimidatuta sentiaraztea, erantzun zuzenak emateko gogoia piztea...) aipatu behar da, baita ikerlariak elkarrizketatuarekiko duen menpekotasuna ere, harena baita saioaren protagonismoa finean. Sakoneko elkarrizketaren arrakasta hortaz elkarrizketatu eta elkarrizketatuaren arteko interdependentzian oinarritzen dela esan daiteke: elkarrizketatzailearen ardura da elkarrizketatutak bere jarduna eroso egin ahal izatea ahalbidetzea.

Sakoneko elkarrizketaren lau tipo ideal proposatu izan dira (Juaristi Larrinaga, 2005: 142) bi ardatzen inguruan: elkarrizketaren orokortasun/partikularitasun mailaren arabera holistikoa (gai ugarikoa) / fokatua (Gai bakarrekkoa) eta elkarrizketatzaileak ezartzen duen kontrol mailaren arabera zuzendua (gidoia jarraituz) / ez zuzendua (libre). Gurean mota ideal hauen arteko konbinaketa argiaren alde egin dugu: gai orokor baten inguruko (telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak) gai ezberdinez osatutako gidoi malgu eta ez-sekuentziala osatuz<sup>434</sup>. Hala, batez ere fokatu eta zuzenduak izan diren arren, holistikoa eta zuzendu eta fokatu eta ez-zuzenduaren ezaugarriak ere agertu dituzte artean kokatu direla burututako sakoneko elkarrizketek:

## 12. IRUDIA: ELKARRIZKETA TIPO IDEIALAK ETA LANDA LANAREN ERREALITATEA



Iturria: Norberak moldatua (Juaristi Larrinaga, 2005).

Eztabaida Taldeen kasuan bezala, perfil zehatzak bilatzea izan da helburu lana lanean, biztanleria osoaren ordezkatzeko baino, telebistarekiko aisiazko harreman eta esperientzia ezberdinen adierazgarri izan zitezkeen pertsonak bilatuz eta kasu kritikoak izan daitezkeenak identifikatuz, adina, sexua, bizilekua eta komunikabideen erabilera kontuan hartuta. Sakoneko elkarrizketek norbanako esanguratsuen kasuak sakonean ezagutzea ahalbidetu digute, belaunaldi ezberdinen artean ager daitezkeen ezberdintasunetan sakontzeko eta telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien jatorri eta natura hobeto aztertzeko.

<sup>433</sup> Transkribapen eta azterketa denborak ere kontuan hartu behar diren arren.

<sup>434</sup> Ikus «Gidoiaren diseinua eta aplikazioa» atala.


### 4.3.3. GIDOIAREN DISEINUA ETA APLIKAZIOA

Landa lanean bi teknika metodologiko baliatu badira ere, haien baitan eman diren bi une metodologiko ezberdinen arteko bereizketa egin behar da. Elkarrizketen zein eztabaiden zati handiena ahoz gidatu eta jasotako elkartrukeen bidez burutu den arren, saio guztietan bigarren zati bat ere egon da, idatzizkoa. Azal ditzagun tarte baten eta besteren ezaugarriak eta helburuak.

#### 4.3.3.1. Ahozko atala: hurbilketa semi-egituratua

Landa lanean zehar gidoi orokor bera erabili da, bai Elkarrizketa Taldeetan zein Sakoneko Elkarrizketetan, saioaren arabera gai ezberdinen ordena, egindako galderen kopurua eta zehaztasuna, erritmoa eta hizkera egokituz. Hurbilketa semi-egituratu hau gerora erabili diren bi kodeketa motatan islatzen da: kodeketa fokalizatuak gidoiaren kategoria orokorrak jaso ditu, eta kodeketa egituratzaileak landa lanean zehar ikerlariak egindako galdera zehatzak<sup>435</sup>.

## 13. IRUDIA: GIDOI ERDI-EGITURATUAREN OINARRI TEORIKOA



Iturria: norberak egina.

Gidoia osatzerako orduan Aldia-Astia-Aisia ereduari jarraitu zaio<sup>436</sup> telebistarekin lotutako aisiazko esperientziekiko hurbilketa integral bat burutu nahirik, eta belaunaldiei buruzko bloke propio batekin amaituz. Hala, telebistarekin lotutako aldagai objektiboenetik hasi eta subjektiboenetara igaro da. 13. eta 14. irudiek agertzen duten legez, aldagaiok ez dira modu isolatuan agertzen, baizik eta elkar-eraginean, eta maiz zail da bereizten non hasten den bata eta bestea. Hurbi-


<sup>435</sup> Ikus «Azterketa eta kodeketa-estrategia globala» atala.

<sup>436</sup> Ikus «Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredua» atala, 1. Kapitulu.



Iketa semi-egituratuak parte-hartzaileei askatasuna eskaini die, haien telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak baldintzatzen dituzten faktore objektibo zein subjektiboetaz jarduteko, era berean ikerlariari hauek sistematizatu eta modu ordenatuan jasotzea ahalbidetuz:

#### 14. IRUDIA: GIDOIAREN EGITURA OROKORRA



Mindjet programa erabiliz gidoi erdi-egituratuari «mapa mental» forma eman zaio. Honela, eztabaida taldeek berezko duten dinamismoa eta malgutasuna ikerketak beharrezkoak dituen egitura eta gidaritzarekin uztartu ahal izan dira, bai etxean ordenagailuaren bidez, baita landa lanean ere, android sistema eragilearen bidezko tablet-arekin oharrak hartzeko. Errepresentazio molde honek galdegaien ordena aldatu, erantzunak berkokatu eta elementuen arteko lotura berriak aurkitzea ahalbidetu digu, geroragoko kodeketa eta analisia erraztuz.

9. taulan ikus daitekeen bezala bost bloke nagusitan banatu da gidoi orokorra: Sarrera edo aurkezpena, Aldia, Astia, Aisia eta Belaunaldiak. Guztira ordubete eta erdi eta bi orduren arteko saioak izan dira Elkarriketa Taldeak, eta ordubete eta ordubete eta erdi ingurukoak sakoneko elkarrizketak.

## 9. TAULA: EZTABAIDA TALDE ETA SAKONEKO ELKARRIZKETETARAKO GIDOA OROKORRA (GAI NAGUSIAK)

### SARRERA

- A. Ikertzailearen eta ikerketaren aurkezpena, grabatzeko baimena...
- B. Parte-hartzaileen aurkezpen erronda.

### 1. ALDIA

- 1.1. Telebista Bai/ez: Ikusten al duzu(e) telebistarik?
- 1.2. Telebista (ikustearen) denborak: Noiz, zenbat...
- 1.3. Telebista kantitatea: Asko, gutxi, lehen baino gehiago/gutxiago...
- 1.4. Telebistaren tokiak: Non ikusten duzu(e) telebista? Non daude telebistak etxean?
- 1.5. Zein telebista(k): Zein telebista kate ikusten dituzu(e)? Zein programa mota...
- 1.6. Konpainia: Norekin ikusten duzu(e) telebista? Zer egiten du, elkartu edo banandu?...
- 1.7. Aldibereko jarduerak: Zer gehiago egiten duzue telebistaren aurrean?
- 1.8. Telebistako Edukiak: Zer ikusten duzu(e) gehien telebistan? (programa motak, programa zehatzak...)
- 1.9. Arreta: Zenbaterainoko kasua egiten diozu€ telebistari, piztuta dagoenean?
- 1.10. Berba: Hitz egiten duzue telebistari buruz?
- 1.11. Zapping: Zapping egiten duzue? Noiz? Nola?
- 1.12. Telebistaren ondoko teknologiak: DVD/Blu-Ray, internet...
- 1.13. Telebista internet bidez: Deskargak. Streaming.
- 1.14. Telebista erosita (dvdan...): Ikusten al duzue telebistarik erosita?

### 2. ASTIA

- 1.15. Norberaren astia(Idia): Egunean zenbat denbora daukazu(e) libre? Eta astean zehar?
- 1.16. Astia eta telebista: Duzu(e)n astialdiaren zein zati eskaintzen diozue telebistari?
- 1.17. Oporrak/lana: Portzentaia hau urtean zehar aldatzen al da (oporretan, neguan, udan...)? Zergatik?
- 1.18. Telebistaren denbora (astiarekiko): Nola deskribatuko zenukete telebistarekin ematen duzuen denbora? (Astialdia, aisialdia, denbora galtzea, denbora pasa...) Beste gauza batzuk egiteko denborarik kentzen al dizue?

**3. AISIA**

- 1.19. Zer da telebista (ikustea)? Aldatu al da telebista? Eta telebista ulertzeko modua? Teknologiak eraginik izan al du (LTD, internet...). Telebista ikusteko modu berririk?
- 1.20. Onuragarri/kaltegarri: Ona da telebista ikustea? Kaltegarria da telebista ikustea? Zergatik? Kaltegarria denean ere ikusten al dugu?
- 1.21. Esperientziak/emozioak: Zein emozio eta sentsazio bizi ohi dituzue telebistarekin (dibertsioa, kuriositatea, asperdura, poza, haserrea, atsedena, amorrua...).
- 1.22. Telebistaren erabilerak/funtzioak: Zertarako balio du telebistak? Zertarako ez? Zertarako erabiltzen duzue?
- 1.23. Nola ulertu telebista? Nola definituko zenukete telebista hiru hitzetan?
- 1.24. TB ideiala: Nolako litzateke zuen telebista ideiala? Hurbil ala urrun dago egungo telebista honetatik?

**4. BELAUNALDIAK**

- 1.25. Belaunaldian partaidetza: Belaunaldi baten parte sentitzen al zarete? Zeinena? Zein zentzutan? Ba al du eraginik honek telebistarekin dituzuen harremanetan?
- 1.26. Belaunaldien arteko ezberdintasunak: Zer espero dute belaunaldi ezberdinek telebistarengandik? Ba al da ezberdintasunik?

*Iturria: norberak egina.*

**4.3.3.2. Atal idatzia: hurbilketa egituratua**

Kasu azterketaren muina ia-erabat kualitatiboa bada ere, hurbilketa metodologiko ezberdinen arteko uztarketa eta triangulazioa ahalbidetzeari begira neurketa kuantitatiboagoak ere burutu dira landa-lanean. Hala, bai Sakoneko Elkarrizketetan eta baita Eztabaida Taldeetan ere, parte-hartzaile guztiei fitxa bera idatziz betetzeko eskatu zaie saioaren amaieran. Hiru zatitan banatu da parte-hartzaileen fitxa: Norberaren datu pertsonalak (aldagai sozio-demografikoak), telebistarekin harremana (aldagai objektiboak) eta jarrera edo iritzi eskala (aldagai subjektiboak).

Datu pertsonalen atalean parte-hartzaileei oinarritzko informazioa eskatu zaie (ikus 10. taula). Helburua, kasu aldakuntza maximozko laginketa ahalbidetzea da, adin eta sexu ezberdinetako parte-hartzaileak orekatu eta posible izan den heinean lanbide, ikasketa maila eta egoera zibil ezberdinetako parte-hartzaileen presentzia ziurtatuz egindako saio ezberdinetan. Fitxan jasotako datuek informazio baliotsua eskaini dute landa lanaren garapena zuzendu ahal izateko kasu berriak aukeratzeko orduan<sup>437</sup>. Bestalde, azterketa osorako klabea izango den atributuzko kodeketarako ezinbesteko informazioa eskaintzen dute: parte-hartzailearen adina eta sexua alegia.

<sup>437</sup> Zentzu horretan, arinen aztertu diren datuak eskaini ditu atal honek, landa-lanaren beraren bilakaera bera gidatzeko erabili baitira.

## 10. TAULA: DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak	
Adina	
Sexua	
Herria	
Lanbidea	
Ikasketa maila	
Egoera zibila (ezkondua...)	

Iturria: norberak egina.

Bigarren atalean (ikus 11. taula) telebistarekin duten harremanari buruz galdetu zaie, berau termino ahalik eta objektiboetan neurtzeko eskatuz (egunean eta astean zehar ikusten ematen duten denbora, etxeko lagun eta telebista kopurua, telebistara konektatutako gailu kopurua... Hein batean 3. kapituluaren aztertutako Ikus-entzule-riaren Ikerketaren hurbilketa kuantitatiboeikeinu eta aitortza bat egin nahi izan zaie atal honetan<sup>438</sup>. Neurri batean atal honek indize bezala ere funtzionatu du, item ezberdinei emandako puntuazioak eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketetan emandako erantzunekin konbinatuta jarrera eta iritziak neurtzeko erabilgarriak izan diren neurri konposatuak osatzeko aukera eman baitugute.

## 11. TAULA: TELEBISTAREKIN HARREMANA

Zenbat telebista ikusten duzu egunean gutxi gora behera (ordutan)?	
Eta astean?	
Zenbat lagun bizi zarete etxean?	
Zenbat telebista dituzu etxean?	
Zein gailu / aparatu daukazu telebistari konektatuta? (bideoa, dvd-a, LTDa...)	
Internet bidez ikusten al duzu telebistarik?	

Iturria: norberak egina.

Azkenengo atalean berriz hamabi esaldiren artean lau aukeratzeko eskatzen zaie parte-hartzaileei, eta lau esaldi hauek adostasun mailaren arabera ordenatzeko, 1-etik 4-ra. Finean atal honetan hierarkizazio-eskala bat moldatu da (Juaristi Larrinaga, 2005: 122-124), parte-hartzailearen telebistarekin lotutako esperientzia orokorraren neurketa bat ahalbidetzeko eta aisiaren lau koordenatuei buruz zeharka galdetzeko (aisiaren koordenatu bakoitzarekin lotutako hiruna esaldi aurkezten baitzaizkie parte-hartzaileei).

<sup>438</sup> Ikus 3. kapituluako «Audientzia eta esposizioa» eta «Audientziaren azterketaren mugak» atalak.

Fitxaren bigarren atalean subjektuak telebistarekin duen harremanaren kontaketa objektiboa eskatzen bazen, azken ariketa honetan kontakizun subjektiboago bat eskatzen zaio, jarrera edo iritzia eskala baten bidez. Ariketak beste bi helburu betetzen ditu: saioaren sintesi edo itxiera bezala funtzionatzea –parte-hartzailearen azken hausnarketa pertsonal bezala– eta parte-hartzailearen telebistarekiko harremanaren aisiaren koordenatuak esploratzea<sup>439</sup>.

## 12. TAULA: ONDOKO ESALDIETATIK AUKERATU ADOS ZAUDEN LAU ETA ORDENATU 1ETIK 4RA (1 = ADOSEN ZAUDENA IZANDA)

Gustatu egiten zait telebista.	
Telebistak munduaren berri ematen dit.	
Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista.	
Telebistak aspertu egiten nau.	
Ikasi egiten dut telebistarekin.	
Telebista erabilgarria/baliagarria da.	
Nahi dudana aurkitzen dut telebistan.	
Telebista adiktiboa da.	
Telebista gehiegi ikusten dut.	
Denbora galtzea da telebista ikustea.	
Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit.	
Atsegina da telebista ikustea.	

Iturria: norberak egina.

Behin landa lanean zehar parte-hartzaileengandik informazioa jasotzeko erabili diren ikerketa teknika eta tresnak azalduta, informazio hau gorde, antolatu eta prozesatzeko erabili den ATLAS.ti programa informazikoa azalduko dugu hurrengo atalean.

### 4.3.3.3. Planteamendua eta kasu-aukeraketa


Lan honetan kasu azterketa greziera klasikoko *Theoria*<sup>440</sup> eta *Empeiria*<sup>441</sup>-ren artean kokatzen da bete betean. Txanponaren bi aldeak dira teoria eta praktika, hausnarketa eta esperientzia. Are gehiago, iker-objektua eta hausnarketarako telebistarekin lotutako aisiatzko esperientziak eurek direnean, lotura oraindik estuagoa sortzen baita bi aldeen artean. Hala, bi itzuliko ariketa proposatzen da lanean, teoriatik esperientziarako, eta esperientziatik teoriarako (jakinik honek aldi berean itzulera berrietarako aukera irekitzen duela).

<sup>439</sup> Ikus 5. kapituluan «Aisiaren koordenatuak» atala.

<sup>440</sup> Ikus 1. Kapituluaren lehen atala: «Aisiaren esanahia».

<sup>441</sup> Esperientzia, grezieraz.

## 15. IRUDIA: KASU AZTERKETAREN PLANTEAMENDU OROKORRA: THEORIA ETA EMPEIRIA



Iturria: norberak egina.

Aurretik ere aztertu dugun bezala, kasu azterketan bereziki garrantzizkoa da kasuaren aukeraketa edo laginaren eraikuntza: «Helburua arazo edo fenomeno baten inguruan ahalik eta informazio gehiena lortzea denean, kasu adierazgarri edo ausazko lagin bat agian ez da estrategiarik egokiena. Hau hala da kasu tipiko edo batez bestekoa sarri ez delako informazioan aberatsena»<sup>442</sup> (Flyvberg, 2004: 425).

Kontua, hortaz, ez da batez-besteko egoerak aurkitu eta azaltzea, aztergai dugun auziari buruz ahalik eta informazio aberats eta xehena jasotzea baizik, horretarako ahalik eta aniztasun handiena sartuz aukeratutako laginean. Muturreko eta ezohiko kasuak hartara iker-objektua hobeto ezagutzeko aukerak bihurtzen dira, aurrez identifikatu gabeko kategoriak aztertzea eta espero ez ziren loturak egitea ahalbidetzen dutelako. Unibertsoaren (edo Bizkaiko biztanleria osoaren) ezaugarriak ordezkatzen dituzten kasu tipiko edo batezbestekoak bilatu beharrean, ikerketa honetan bi irizpide edo laginketa estrategia uztartu dira kasuak aukeratzeko: aldakuntza maximozko laginketa eta kasu kritikoak.

Aldakuntza maximozko kasuetan (Jensen, 2012: 269) bi aldagai edo ezaugarri erabili dira kasuen arteko aniztasuna maximizatzeke: adina eta bizilekua. Adinaren irizpidea aztertutako lau adin-taldean araberakoa izan da (hau da, adin-talde gutztie tako ordezkaritza bermatu da, taldearen baitan ere adin-aniztasunaren alde eginez)<sup>443</sup>.

<sup>442</sup> «When the objective is to achieve the greatest possible amount of information on a given problem or phenomenon, a representative case or a random sample may not be the most appropriate strategy. This is because the typical or average case is often not the richest in information».

<sup>443</sup> Ikus «Datu bilketa eta lagina» atala, kapitulu honetan bertan.

Bizilekuari dagokionez berriz Bizkaiko hiri eta herriaren arteko aldeak jasotzea bilatu da, lagin ahalik eta aberatsena osatzeko<sup>444</sup>. Hala, geografikoki (ikus 16. irudia) eta soziodemografikoki<sup>445</sup> erreparatuta ahalik eta aldakortasun handiena bilatu da.

### 13. TAULA: LAGINKETA IRIZPIDEAK ETA KASUAK

Laginketa irizpidea	Kasuak
Aldakuntza maximozko laginketa,	Eztabaida taldeak: Gazteak: Durango eta Mungia Helduak 1: Bermeo, Bilbo (DU) Helduak 2: Santurtzi, Mungia, Lekeitio Nagusiak: Bilbo, Aulestia Pretesta: Algorta (Getxo), Bilbo <sup>446</sup>
Kasu kritikoak	Sakoneko elkarrizketak: Gaztea: Bakio Helduak: Bilbo, Larrabetzu, Muskiz Nagusiak: Lezama, Lekeitio

Iturria: Norberak moldatua (Flyvberg, 2004; Jensen, 2012).

Bi eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketa bat Bizkaiko hiriburuan bizi diren pertsonekin burutu dira. Beste kasuetarako guztiak Bilbotik kanpoko bizkaitarrak bilatu dira, alde batetik udalerraren tamainak eta hiri/baserri inguruak ekar litzakeen aldaerak barne hartzeko, eta bestetik bizkaieraren forma ezberdinak eta bustidura ezberdinak ere jasotzea interesgarri zaigulako.

Kasu kritikoen bidez berriz ikerketaren hipotesiak egiaztatu edo faltsutzeko aukera handiak zituzten kasuak bilatu dira (Flyvberg, 2004: 425-26). Hala, aurretik telebistarekin eta inguruko ikus-entzunezko teknologia ezberdinekin harreman bereziak zituzten perfilak aukeratu dira: apenas telebistarik ikusten ez duen gazte kirolari bat, hiru heldu teknologia zale (haietarik bi seme-alaba gazteekin, eta hirugarren bat seme-alaba nerabeekin) eta bakarrik bizi diren nagusi bi, bata baserrian eta bestea herrian. Orotara, aztertutako kasuek perfil idiosinkratiko bezain anitzak islatzen dituzte: estatistikoki orokortu ezinak, baina bizkaitarren telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien ezagutzan aurreratzen asko lagundu diezaguketenak.

<sup>444</sup> Ikus antzerako laginketa irizpidea darabilen «Children´s Media Barometer 2010: The Use of Media among 0-8-year-olds in Finland» ikerketa adibidez (Kotilainen, Suoninen, Walamies, & Tuominen, 2011: 15).

<sup>445</sup> Herri eta hirien tamaina eta biztanle kopuruari erreparatuta honakoa da zerrenda (handienetik txikienera): Bilbo 351.629, Getxo 80.026, Santurtzi 47.129, Durango 28.618, Bermeo 17.144, Mungia 16.912, Muskiz 7.541, Lekeitio 7.419, Lezama 2.476, Larrabetzu 1.974, Aulesti 669.

## 16. IRUDIA: KASUEN LAGINKETA (GOOGLE EARTH)




Iturria: norberak moldatua (Google Earth).

### 4.3.3.4. Datu bilketa eta informatzaileen profila

Bederatzi eztabaida talde (adin-taldeei erreparatuta zortzi homogeneo eta heterogeneo bat) eta sei sakoneko elkarriketa burutu dira guztira landa lanean zehar. Orotara 73 pertsonak hartu dute parte ikerketan: 39 emakumezkoak (%53a) eta 34 gizezkoak (%47a).

## 17. IRUDIA: PARTE-HARTZAILEEN SEXUA




Iturria: norberak egina.



Aztertutako lau adin taldeen arabeko banaketari erreparatuta berriz, 17 parte hartzaile *Gazteak* adin-taldean kokatzen dira (18 eta 34 urte artean), 16 *Helduak 1* taldean (35 eta 49 urte artekoak), 23 *Helduak 2* taldean (50 eta 64 urte artean), eta *Nagusiak* adin-taldean 15 (65 urtetik gorakoak).

#### 18. IRUDIA: PARTE-HARTZAILEAK ADIN-TALDEKA



Iturria: norberak egina.

Eranskinetan eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketetako parte-hartzaile guztien datu soziodemografikoak ikus daitezke, saio amaieran betetako fitxetan jasotako informazioaren arabera. Ondoren saioen xehetasunak aurkeztuko ditugu, 14 eta 15. tauletan:

#### 14. TAULA: EZTABAIDA TALDEAK

Tokia	Data	Adin-taldea	Berezitasunak
Durangoko Udal Liburutegia	2012/06/05	Gazteak	Talde-lanerako prestatutako gela batean burutu da eztabaida, mahai baten inguruan. Parte-hartzaileek ezagutzen zuten aurretik liburutegia, eta baita gela ere, elkarrekin ikasteko erabiltzen dutelako.
Mungiako gazte lonja bat	2012/05/16	Gazteak	Eztabaida taldean Mungiako bi kuadrilek hartu dute parte (neska kuadrila bat eta mutil kuadrila bat). Eztabaida Mungiako lokal batean burutu da, mahai baten inguruan, mutilen kuadrilaren lonjan. Eztabaida burutu bitartean bertako telebista piztuta egon da, beste pertsona bat berau ikusten dagoelarik (ez du eztabaidan parte hartu).
Bermeoko txoko bat (parte hartzaile ugari bertako kide dira)	2012/04/01	Helduak 1	Eztabaida txokoko mahai baten bueltan egin da, helduekin. Haien seme-alabak ere txokoan egon dira tartean, telebista ikusten. Parte-hartzaileek sarri aipatu dute txokoan telebista gehienetan piztuta egoten dela.

.../...

Tokia	Data	Adin-taldea	Berezitasunak
Deustuko Unibertsitatea (parte hartzaileak bertako langileak dira)	2012/07/18	Helduak 1	Bilerak egiteko gela batean burutu da eztabaida, mahai baten inguruan. Bi parte-hartzaile hamar minutu beranduago heldu dira.
Santurtziko txoko bat (parte hartzaile bat bertako kidea da)	2012/06/12	Helduak 2	Eztabaida mahai baten inguruan egin da. Txokoko telebista ez da piztu saio osoan zehar, erreferentzia egin zaion arren.
Mungiako txoko bat (parte hartzaile bat bertako kidea da)	2012/07/10	Helduak 2	Eztabaida mahai baten inguruan egin da. Txokoko telebista itzalita egon da saio osoan zehar. Parte-hartzaile batek saioa amaitu baino piska bat arinago alde egin behar izan du.
Lekeitioko txoko bat (parte hartzaile ugari bertako kide dira)	2012/04/12	Helduak 2	Eztabaida mahai baten inguruan egin da. Txokoko telebista itzalita egon da saio osoan zehar.
Aulestiko Udal Liburutegia	2012/05/10	Nagusiak	Eztabaida mahai baten inguruan egin da, liburutegia publikoari ireki baino ordu bete eta erdi arinago. Idatzizko kontakizunarekin gaizkiulertze bat egon da, eta ondorioz ez dira esaldiak behar bezala ordenatu.
Txurdirnagarri Nagusien egoitza (parte-hartzaileak bertako erabiltzaileak dira)	2012/05/15	Nagusiak	Eztabaida telebista ikusteko areto nagusian burutu da, eserlekuak biribilean jarrita. Saioa martxan zela bertako beste erabiltzailearen bat ere hurbildu da. Parte-hartzaile batzuk ez ziren gai idatzizko kontakizuna egiteko, eta ahoz jaso da informazioa.

Iturria: norberak egina.

### 15. TAULA: SAKONEKO ELKARRIZKETAK

Tokia	Data	Adin-taldea	Berezitasunak
Deustuko Unibertsitatea (parte-hartzaileak bertako langileak dira)	2012/07/12	Gazteak	Bilerak egiteko gela batean burutu da eztabaida, mahai baten inguruan.
Bilboko kafetegi bat, Begoñako auzoan	2012/07/15	Helduak 1	Parte-hartzailearen auzoko kafetegi batean egin da elkarrizketa, kanpokaldean eserita.
Larrabatzuko kafetegi bat	2012/07/20	Helduak 1	Herriko kafetegi baten kanpokaldean egin da elkarrizketa.
Muskizeko Udal Liburutegia (parte-hartzaileak bertako langileak dira)	2012/10/17	Helduak 1	Parte-hartzailearen bulegoan egin da elkarrizketa. Elkarrizketatuak espreski itzali ditu sakelekoa eta aldean zeraman tablet-a, elkarrizketak iraun duen artean.
Lekeition, parte hartzailearen egongela	2012/04/12	Nagusiak	Egongelako sofa bitan eserita egin da elkarrizketa, telebista aurrez aurre piztuta (baina soinurik gabe) zegoela.
Lezaman, parte-hartzailearen sukaldean	2012/02/07	Nagusiak	Sukaldeko mahaiaren inguruan egin da elkarrizketa, sukaldeko telebista ez da piztu saio osoan, baina saioa amaitzeaz bat piztu egin du parte-hartzaileak.

Iturria: norberak egina.

## 4.4. ATLAS.TI ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA, AZTERKETA ETA BERRESKURAPENA

Lan honetan hasiera-hasieratik erabili da ATLAS.ti programa informatikoa informazioa –dela teoriari dagokiona zein saio enpirikoetatik eratorria– jaso, antolatu, sailkatu eta prozesatzeko. ATLAS.ti oro har azterketa kualitatiborako software bezala deskribatzen bada ere, egiaz tresnaz betetako lan-aulki edo lan-mahai multimedia eta «kontzeptuen datu-base» bat da gehiago (Frieze, 2008: 1). Programa informatiko bezala, irudi, soinu, bideo, mapa eta testuzko dokumentuen azterketarako aukera anitzak eskaintzen ditu, ikerketa ezberdinen beharrizan eta ezaugarrietara egokitzeko malgutasun eta osagarritasunarekin batera.

IISM<sup>446</sup> akronimoak jasotzen ditu softwarearen printzipio orokorrak (Frieze, 2013): *Ikusarazpena* (objektu ezberdinen ezaugarri eta haien arteko harremanak ikusi eta antolatzea erraztu), *Integrazioa* (izaera ezberdineko multimedia dokumentuen aldi bereko azterketa ahalbidetuz), *Serendipia* (ausaz edo aurrez haren bila joan gabe egiten diren aurkikuntzak sustatu<sup>447</sup>) eta *Miaketa* (teoria eraikitzerako orduan bereziki garrantzizkoa den ezaugarri partikularren esplorazioa bultzatu).

Hala, ATLAS.ti-k berrikusketa bibliografikoan erabilitako iturriak, eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketen audioak eta berauen transkribapenak, landa lanean hartutako argazkiak, Google Earth-bidez jasotako satellite bidezko argazkiak uztartzea ahalbidetu digu, lan honen helburuak erdiesteko azterketa estrategia egokienak eraiki eta aplikatzearekin batera.

Hau esanda, komeni da softwarearen oinarritzko kontzeptuak eta programan erabiltzeko dauden objektu ezberdinak azaltzea. Hala, Unitate Hermeneutikoak, Oinarritzko Dokumentuak, Kodeak, Aipuak, Familiak eta Memoak ekarriko ditugu, labur bada ere, gurera. Ondoren, jasotako informazio guztia kodetu eta berreskuratzeko hautatu diren azterketa-estrategiak eta kodeketa zikloak aipatuko ditugu. Amaitzeko, ATLAS.ti-k landutako informazioa berreskuratu eta ikusarazteko eskaintzen dituen hiru tresna gainbegiratuko ditugu: Kontsulta tresna (Query Tool), Aldibereko agerpenak (Co-occurrence tools) eta Sare Bistak.

### 4.4.1. ATLAS.TI: OINARRIZKO KONTZPTU ETA OBJEKUAK

Azterketa kualitatiborako tresnaz betetako lan-mahai bezala, izaera ezberdineko dokumentu (argazkiak, bideoak, audioak, testu idatziak...) eta euskarriak ez ezik (.rtf, .txt, .jpeg, .pdf, .avi, .mpg, .kml, .kmz...) ATLAS.ti-k objektu ezberdinak barnebiltzen ditu Unitate Hermeneutiko deritzogun biltegi edo datu base kontzeptualaren baitan.

<sup>446</sup> «VISE principle», jatorrizkoan (Visualization, Integration, Serendipity and Exploration).

<sup>447</sup> Morris hiztegiak «aldez edo moldez eta nahigabe» edota «aurkikuntza baliagarriak halabeharrez aurkitzeko dohain» bezala definitzen du *serendipity* ingelesezko berba (Morris, 2005).

#### 4.4.1.1. Unitate Hermeneutikoak

Unitate Hermeneutikoak proiektuan zehar bildutako elementu guztien, dokumentu eta objektuen biltegiak dira. Nolabait esatearren ATLAS.ti programaren «dokumentu» berezkoak osatzen dituzte. Testu prozesatzaile batek .odt, .rtf edo .doc fitxategiak sortu ohi dituen bezala bere baitan elementu ezberdinak integratuz (testu karaktereak, taulak, irudiak...), ATLAS.tik Unitate Hermeneutikoak sortzen ditu, .hpr6 edo .hpr7 fitxategien bidez<sup>448</sup>.

Maneagarritasun eta segurtasun arrazoiengatik hiru Unitate Hermeneutiko erabili dira aldi berean lan honetan: Marko Teorikoa.hpr7 (Abiapuntu teorikoaren oinarritzko dokumentuak jasotzen dituena), Landa Lana.hpr7 (Atal enpirikoari dagokion dokumentuak biltzen dituena) eta Azken Proiektua.hpr7 (bien elkarketa).

Eskema honek, finean, kasu azterketaren planteamendu orokorra islatzen du<sup>449</sup>, teoria eta azterketa enpirikoaren arteko harremana, eta lan honen helburu interpretatibo-esplikatiboa. Behin abiapuntu teorikoa eraikita burutzen da landa lana, eta honek ematen du aukera behatutakoaren eredu teoriko propio eta berri bat eraikitzeko.

### 19. IRUDIA: UNITATE HERMENEUTIKOAK



Iturria: norberak egina.

#### 4.4.1.2. Oinarritzko Dokumentuak

Oinarritzko Dokumentuak (Primary Documents jatorrizkoan) Unitate Hermeneutikoaren baitan dauden eta aztergai diren datu iturri guztiak dira, eta formato eta euskarri ezberdinetakoak izan daitezke. Hala, abiapuntu teorikoaren idazketan kontsultatutako testuak formato elektronikoa eskuratu ahal izan direnean bertan biltzea eta sailkatzea ahalbidetu digu programak, termino eta kontzeptuen lehen sare bat josiz eta norberaren iruzkinekin osatuz. Landa lanean berriz kasu azterketan erabilitako hurbilketa modu ezberdinak konbinatzea<sup>450</sup> ahalbidetu digu, baita grabatutako saioen transkribapenak jatorritzko audioekin lotzea ere, hauek berrentzun ahala zuzendu eta testuinguruaren jabetza handiagoa izateko.

<sup>448</sup> ATLAS.ti softwarearen bertsioaren arabera. Lan honetan 6 eta 7 bertsioak erabili dira, softwarea eguneratuz joan den heinean. Erabilitako azken bertsio zenbakia 7.0.92 izan da.

<sup>449</sup> Ikus 11. irudia: Kasu Azterketaren planteamendu orokorra: teoria eta empeiria.

<sup>450</sup> Ikus adibidez Gidoiaren diseinu eta aplikazioan ahozko eta idatzizko atalak.

Orobat, lau motatako dokumentuak erabili dira lan honetan: idatzizkoak, grafikoak, audioak eta mapak. Programak bideoak ere integratzeko aukera eskaintzen duen arren, landa lanean ez da bideozko grabaketarik burutu ez eta, hartara, azterketan integratu ere.

#### 16. TAULA: ERABILITAKO OINARRIZKO DOKUMENTUAK

Euskarria	Formatua	Edukia
Testu idatzia	Portable Document Format (PDF) fitxategiak Rich Text Format (RTF) fitxategiak	Kontsultatutako bibliografia Landa Laneko Transkribapenak <sup>452</sup> Ikerlariaren memoak
Irudi eta argazkiak	Joint Photographic Experts Group (JPEG) fitxategiak Windows Bitmap (BMP) fitxategiak	Landa lanean hartutako argazkiak Eskuzko oharren argazkiak Irudiak eta pantaila-argazkiak
Audioa	MPEG-1 Audio Layer III (MP3) fitxategiak	Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketen grabazioak
Mapak	Keyhole Markup Language (.KML eta .KMZ) fitxategiak	Google Earth mapak (landa lanaren geolokalizazioa)

Iturria: norberak egina.

#### 4.4.1.3. Kodeak

Unitate Hermeneutikoak mota askotako dokumentuak onartu eta biltzen baditu ere, programa informatiko bat ez da berauen esanahia ulertzeko gai, ez eta haien arteko lotura esanguratsuak aurkitzeko gauza ere. Lan hori ikerlariari dagokio, eta neurri haundi batean kodeketaren bidez egiten du.

Kodeak adiera anitz har ditzake ikerketa kualitatiboan, baina oinarrian testu zati bati (zentzu irekian: irudia, soinua edo bideoa izan baitaiteke) egozten zaion etiketa esanguratsua da. Finean, kodeak datuen sailkapenerako tresna edo gailuak dira, informazioaren berreskurapen eta ikusarazpen operazio konplexuagoak ahalbidetzen dituztenak<sup>452</sup>. ATLAS.ti-k kodeketa modu ezberdinak ahalbidetzen ditu: kodeketa mekaniko edo autokodeketa, kodeketa irekia edo librea, In Vivo kodeketa, eta abar<sup>453</sup>.

Kode batekin markatutako testu zati bakoitzari aipu deritzogu, kodetutako pasarte kopuruari «funts» edo «funtsatze»<sup>454</sup>, eta kodeak beste kodeekin dituen lotura semantiko kopuruari berriz, «dentsitate»<sup>455</sup>. Bi kontzeptu hauek, funtsa eta dentsitatea, garrantzizkoak izan dira kodeketa teorikoa burutze-aldera, kontzeptualki zentralenak eta aberatsenak diren kodeak identifikatu eta elkarren artean harremanean jartzea ahalbi-

<sup>451</sup> Transkribapenak eta jatorrizko audioak lotzeko tresna bereziak eskaintzen ditu ATLAS.tik, zuzenketak eta entzundakoaren esanahia berrikustea erraztuz.

<sup>452</sup> Ikus «Informazioaren berreskurapen eta ikusarazpena» atala.

<sup>453</sup> Ikus «Azterketa eta kodeketa estrategia globala» atala.

<sup>454</sup> *Groundedness*, jatorrizkoan.

<sup>455</sup> *Density*, jatorrizkoan.

detu digutelako. Adibide gisa, 20. irudian abiapuntu teorikoa idazterako orduan erabili diren zenbait kode azaltzen dira, bakoitzaren funtساتze eta dentsitatearekin.

## 20. IRUDIA: ABIAPUNTU TEORIKOKO KODE BATZUK {FUNTSA – DENTSITATEA}

Abduktioa (3-0)	Aisiatzen praktikak (1-0)	Bideo (1-0)	Erakideta (1-0)
Adin taldeak (20-1)	Aisiatza ezperientzia (34-3)	Bisortasun (Recreación) (2-0)	Erreperioak (2-0)
Ahokotasuna (10-0)-	Aktibotasuna (19-0)-	Bizipena (2-0)	Esanahia (3-3)-
Aisia (52-14)	Aisia (1-0)	Bizitza telebistaren inguruan (3-0)	Esperientzia (34-4)
Aisia absentzia (2-3)-	Aldibereotasuna (2-0)-	Cohort (1-0)	Esperientziaren ekonomia (2-0)-
Aisia autotetikoa (2-3)-	Arrazoiak (4-0)	Collective experience (2-0)-	Estadistika (6-3)
Aisia esparru (1-1)	Arreta (5-0)-	Cultural Studies (17-1)-	Estetika (20-0)
Aisia eta kultura (6-1)	Asebetetzea (3-2)	Dedukzioa (5-0)	Estiloak (2-1)
Aisia exotetikoa (1-3)-	Aspera (1-0)	Denbora (6-0)-	Estimulu komunak (1-0)
Aisia Humanista (3-1)	Autta-aldia-aisia (1-0)	Dimentsio ludiko (3-0)	Estresa (1-0)
Aisia ikasketak (2-0)	Audience evolution (1-0)	Dimentsio produktiboa (1-0)	Etnografia (1-0)
Aisia Kallegeria (7-3)-	Audience Research (22-0)-	Dimentsio sartzailea (3-0)	Etxea (3-0)
Aisia kasual (1-0)	Audientzia / ikusentzulea (23-2)	Distrazioa (1-1)	Europar Panorama Sintesia (5-0)
Aisia praktika - ekintza (9-1)	Audimeta (1-0)	Eco (5-0)-	European Overview Audience Research (5-0)
Aisia serio (1-0)	Aukeraketa (6-1)	Edukia (Nahiago den) (1-0)	Euskaldunak (1-0)
Aisia sartzailea (5-2)	Autotelimoa (4-0)	Egiantza (2-0)	Estabaldia Taldea (16-0)-
Aisia/Lana (3-1)	Bateratzea / Konbergentzia (32-0)-	Egunerokotasuna (38-0)	Fibra (2-0)
Aisia, begirada (6-2)	Bihurra (2-0)-	Eliaz & Dunning (3-0)	Filmeur (1-0)
Aisiarako eskubidea (3-0)	Bizitasuna (56-1)-	Elkarretaketa (2-0)	Flow (jarraitu) (3-0)-
Aisiatzen dimentsioak (2-1)	Berriketa (1-0)	Erabilerak (8-3)	Formalkuntza/Hezkuntza (5-0)
Aisiatzen Hezkuntza (1-0)	Bibliografia (17-0)	Erakinak (4-0)	Focuscult (1-0)
Aisiatzen koordinatuak (2-0)-			framing (1-0)

Iturria: norberak egina.

### 4.4.1.4. Aipuak

Aipuak edo aipamenak ikerlariak interesgarriztatu hartu dituen oinarritzko dokumentu baten zati edo segmentuak dira. Liburu batetan azpimarratutako pasarteen antza dute, bi ezberdintasunekin:

- Testu idatzia, audioa, irudia, bideoa edo material geografikoaren pasarteak izan daitezke (hau da, azpimarraketa, izatekotan, azpimarraketa multimedia bat da).
- Aipuari kode edo memo bat lotu ahal zaio, liburu ertzean hartutako ohar bat bailiztan, gero kode eta memo hauen bidez aipua berreskuratzea ahalbidetuz.

## 21. IRUDIA: AIPUAK SORTZEN: TESTUA ETA IRUDIA

The screenshot shows a software interface for managing research data. The main window displays a text document with several paragraphs. The first paragraph discusses the importance of a comfortable setting for focus groups. The second paragraph mentions the use of a 'back seat' for the researcher. The third paragraph discusses the importance of encouraging participants to share their views. The fourth paragraph discusses the importance of encouraging participants to share their views. The fifth paragraph discusses the importance of encouraging participants to share their views. The right-hand side of the interface shows a list of references, including '19. Dictionnaire de la Culture Scientifique, Technique...' and '20. L'impact de la culture scientifique...'.

Iturria: norberak egina.

ATLAS.ti programak aipua berreskuratzeko eta elkarren harremanean jartzeko hainbat aukera eskaintzen ditu. Honetaz sakonago jardungo dugu «Informazioaren berreskurapen eta ikusarazpena» atalean, orrialde batzuk aurrerago. Aipatu beharrekoa da, hala ere, programa honen abantaila nagusietako bat aipua bere jatorrizko testuinguruan erakusteko gaitasuna dela, egindako kodeketarekin batera. Honak, finean, aztergai diren datu iturri ezberdinetatik informazio esanguratsua erauzi eta aipua haien sorlekuan aztertzea, biak, ahalbidetzen digu. 21. irudian eztabaida taldeak osatzeari buruzko testu batean irudi eta testu idatziaren kodeketa azaltzen zaigu, adibidez. Hartara, testuaren «eztabaida taldea» kodearen baitan bi aipu sortu dira: testu idatzizko pasarte esanguratsu bat, eta teknika metodologikoa ilustratzen duen irudi bat (zuri beltzean).

#### 4.4.1.5. Familiak

Familiak Unitate Hermeneutikoaren baitako objektuak elkarren artean osagarriak diren multzotan antolatzeko bidea zabaltzen dute. Gainera informazioa prozesatzerako orduan filtro lana egiteko gaitasuna dute (familia baten baitako elementuekin operatzeko, adibidez). Ezaugarri hau bereziki garrantzitsua da kasuen analisi kontzeptuala (5. kapituluua) eta kasu azterketaren eredu esplikatiiboari (6. kapituluua) begira, informazioa modu esanguratsuan berreskuratzeko ahalbidetzen duelako. Familiak kodeak kode-familiatan egituratu eta antolatzea ahalbidetzen dute, hartara kode ezberdinekin filtro lana egitea eta kontsulta tresna edo *query tool*-aren bidez<sup>456</sup> informazioaren berreskurapen operazio konplexuak burutzea ahalbidetuz. Era berean, memoak eta Oinarritzko Dokumentuak ere memo-familia eta dokumentu-familiatan antola daitezke.

#### 4.4.1.6. Bide-oharrak: memoak eta memogintza

*Memoak* (memorandum<sup>457</sup> berbaren laburdura) ikerlariak jasotako testuzko (eta irudizko) bide-oharrak dira. Ohar hauek ikerlariaren lan analitikoan lagungarri izatea eta ikerketaren galdera-erantzunen berri jasotzea dute helburu. Hala, eskuz edo makinaz, banakako fitxatan edo eguneroko modura jaso daitezke, eta ikerketa kualitatiboaren parte garrantzitsua dira (Saldaña, 2009). Izan ere datuen etengabeko alderaketa eta miaketa ziklikoa Datuen Analisi Kualitatiboaren (QDA) ezaugarrietarikoa bat da. Joan-etorriak ekidiezinak eta ezinbestekoak dira halako prozesu batean. Bideko oharrak hartzea funtsezkoa da azterketa ahalbidetu eta jasotako datuetatik ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko ez ezik, lanaren helburu den eredu teoriko-esplikatiiboa osatzeko. Memoek hartara bideko ohar hauek jasotzen dituzte;

<sup>456</sup> Ikus Kontsulta Tresna – Query Tool atala, Informazioaren berreskurapen eta ikusarazpenari dagokion atalean.

<sup>457</sup> *Memoro* aditzak gogoratu esan nahi du latinez. Memorandum hortaz gogoratu beharreko zerbait litzateke, etorkizunean berreskuratu ahal izateko uzten den arrasto edo erregistro bat. Kasu honetan ikerlariak ikerlariarentzat uzten duen mezua.

ikertzailearen ibilbidearen, erabakien, hausnarketen eta ondorioen arrastoa osatzen dute. Egungo azterketarako software ezberdinek memoak oso modu errazean gorde, antolatu, sailkatu eta berrantolatzea ahalbidetzen dute.

ATLAS.ti programarekin, gainera, memoak Unitate Hermeneutikoko beste objektuekin lotu daitezke, baita, nahi izanez gero, Oinarritzko Dokumentu bezala erabili ere, azterketaren baitan integratuz. Ikerlariaren ohar eta erabaki metodologikoek kontzeptu eta terminoen gaineko hausnarketa eta iruzkinak, prozesu analitikoaren urrats ezberdinak zein egiteko dauden zereginen egunerokoa osatzen dute. Memoe-tan jasotako ideia, hausnarketa eta erabaki metodologikoak idazketa fasean osatu beharreko «puzlearen» piezak dira finean (Friese, 2008).

22. irudian suma daitekeen legez, memogintzak IISM printzipioaren hirugarren elementu bezala aipatu dugun serendipia lagun dezake. Hala, iruzkinak dokumentuen pasarteekin, beste iruzkinekin eta iruzkin familiekin lotzeko aukera eskaintzen du ATLAS.ti programak, hasiera batean espero ez ziren edo aurrikusita ez zeuden aurkikuntzak eginez, eta aldi berean aurkikuntza hauen gaineko iruzkinak egiteko aukera irekiz. Horrela, ikerlariaren eta ikerketaren arteko harremana bera, ikerketa prozesua bera, informazio eta datu iturri bilakatzen da ikerketan, teoria funtsatuaren *all is data* edo «dena dira datuak» Barney G. Glaser Teoria funtsatuaren fundatzailearen lemarekin bat eginez (Glaser, 2001: 145). Ikerketa prozesuak berak elikatzen du hausnarketa, eta hausnarketak ikerketa prozesua, kontzeptuen garapena eta teoriaren eraikuntzari oinarria eskainiz. Hartara, bide-oharrek ikerketan zehar eta ikerketaren inguruan, ikerlariaren eta parte-hartzaileen perspektibatik gertatutakoak azterketarako datu bihurtzea ahalbidetu dute, aldi berean ohar hauek Unitate Hermeneutikoko beste objektuekin elkar-harremanean jarritz.

Memo edo bide-oharrak lan honetan intentsiboki erabili dira, batez ere bi modutan: memo teoriko bezal eta memo analitiko bezala. Memo teorikoak oso erabilgarriak izan dira berrikusketa bibliografikoari dagokionez erabili beharreko iturriak dokumentatzeko eta berauen jarraipena egiteko eta hauei buruzko iruzkinak artikulatzen joan eta elkarren artean alderatzeko ere eta proiektuaren oinarri dokumentalaren inguruko iruzkin, hausnarketa, Abiapuntu Teorikoan<sup>458</sup> gorpuztu den zalantza eta kritiken sarea josteko. Bestetik memo analitikoek azterketa enpirikoari dagozkion kode eta kontzeptuen arteko alderaketak burutu eta dokumentatzeko balio izan dute, ATLAS.ti-k eskaintzen dituen informazioaren berreskurapen eta ikusarazpen tresna ezberdinekin konbinatuz Kasuen analisi kontzeptuala eta Eredu Esplikatioba osatzeraino<sup>459</sup>. Esan daiteke ikerketa prozesu osoaren egunerokoa edo bitakora osatu dutela.

<sup>458</sup> Ikus lan honen 1, 2 eta 3. kapituluak.

<sup>459</sup> Ikus lan honen 5 eta 6. kapituluak.





#### 4.4.2. INFORMAZIOAREN BERRESKURAPEN ETA IKUSARAZPENA

Unitate Hermeneutiko orok, ikerketak aurrera egin ahala, Oinarrizko Dokumentu gehiago biltzeko joera ez ezik, dokumentuen baitako elementuen arteko harremanen dentsitate handiagoa hartzekoa ere agertzen du. Hori dela eta, bereziki garrantzitsua da ATLAS.ti-k informazioa ikerlariaren irizpide ezberdinen arabera berreskuratu eta ikusarazteko agertzen duen gaitasuna. Ondoren, programak eskaintzen dituen aukeren adierazgarri diren hiru tresna aipatuko ditugu: Query Tool edo Kontsulta Tresna, Co-occurrence edo aldiberekotasun tresnak eta Sare Bistak.

##### 4.4.1.7. Kontsulta Tresna – Query tool

Query Tool edo Kontsulta Tresna ATLAS.ti-ren kalkulagailu semantikoa da. Kodetutako informazioa modu esanguratsuetan berreskuratzea ahalbidetzen du, kode eta kode-familien arabeko bilaketan bidez. Era berean, bilaketak burutzeko erabilitako formulen arabeko superkodeak eraikitzea ere ahalbidetzen digu<sup>460</sup>.

#### 17. TAULA: KONTSULTA TRESNAREN ERAGILEAK

Eragile mota	Jatorrizko izena	Azalpena
<b>Boolearrak</b>	OR (v)	Kode bat edo beste (edo biak)
	XOR ( $\oplus$ )	Kode bat edo beste (baina ez biak)
	AND ( $\wedge$ )	Kode bat eta beste (aldi berean kodetuta)
	NOT ( $\neg$ )	Kode bat ez
<b>Semantikoak</b>	SUB	Kodearen menpe dauden terminoak (harreman iragankorrak soilik)
	UP	Kodea menpe duten terminoak (harreman iragankorrak soilik)
	SIBlings	Kodearekin harremana duten terminoak
<b>Hurbiltasunezkoak</b>	WITHIN	Barruan kokatzen da
	ENCLOSES	Barne hartzen du
	OVERLAPPED_BY	Gainjartzen zaio
	OVERLAPS	Gainjartzen du
	FOLLOWS	Jarraitzen du
	PRECEDES	Aurretik doa
	CO-OCCURRENCE	Aldiberekotasuna agertzen du punturen batean (edo barruan edo gainjarrita)

Iturria: norberak moldatua (Friese, 2013).

Oinarrian, bi elementu erabiltzen ditu kontsulta tresnak: eragingaiak eta eragileak. Eragingaiak kodeak eurek dira (familia eta superkodeen bidez multzokatu dai-

<sup>460</sup> Kontsulta tresnak darabiltzan eragileak aurkeztu ostean ikusiko dugu honen adibide bat.

tezkeen arren) eragileak berriz hiru motatakoak izan daitezke: *Boolearrak* (eragile logikoak), *semantikoak* (ikerlariak berak kodeen artean ezarritako harreman esanguratsuak interpreta ditzaketenak) eta *hurbiltasunezkoak* (kodetutako pasartearen arteko harreman espazialaz baliatzen direnak bilaketak egiteko). 17. taulan eragileak eta eragile motak laburbildu ditugu.

Hamalau eragile hauen eta beraien arteko konbinaketaren bidez eta kodeak eta kode-familiak aingura edo erreferentzia bezala erabiliz, informazioa ikerketaren helburuetarako esanguratsua den moduetan berreskuratu eta ikusaraztea ahalbidetzen den Kontsulta Tresnak. Beti ere galderak modu egokian (eta tresna informatikoak interpretatuko duen hizkuntzan) egiteko gai garen heinean. Izan ere aipatu beharrekoa da Kontsulta Tresnak alderantzizko poloniar notazioa edo atzizki notazioa darabilela bilaketak egiteko. Aljebra metodo honetan lehenengo eragingaiak sartzen dira, eta gero eragileak. Hala, (4+4) operazio matematikoa egiteko, RPN sistema batean (4 4 +) formula erabiliko litzateke<sup>461</sup>.

Demagun adibidez landa lanean 35 eta 65 urtekoen arteko parte hartzaileek (hau da, Helduek) zapping egiteari buruz eman dituzten erantzunak berreskuratzea interesatzen zaigula. HELDUAK 1 eta HELDUAK 2 atributuzko kode-familiak erabiliz<sup>462</sup>, eta 1.11 Zapping kode fokalizatuari lotutako galdera zehatzak semantikoki lotu dizkiogula probestuz<sup>463</sup>, honako formula hau erabili dezakegu<sup>464</sup>:

((«HELDUAK 1» | «HELDUAK 2») WITHIN SUB «1.11 Zapping»).

Formula honek 94 erantzun eskaintzen dizkigu: Helduak 1 *edo* Helduak 2 (bata zein beste) adin taldeetako partaideren batek 1.11 Zapping kode fokalizatuaren menpe<sup>465</sup> dauden galdereri emandako erantzun guztiak. *WITHIN* eragilea erabili da *AND* beharrean, *AND* eragileak zehatz-mehatz pasarte berean kode guztiak agertzea eskatzen baitu. *WITHIN* eragileak aldiz, galderen barruan (espazialki, kodeketa bat bestearen baitan) kokatzen diren parte-hartzaile ezberdinen erantzunak eskaintzen dizkigu (noski, aurretik badakigu kodeketa egituratzaileak pasarte zabalagoak hartzen dituela atributuzko kodeketak baino, galdera berak parte-hartzaile askoren erantzuna sortzen baitu, ez alderantziz).

<sup>461</sup> Edozelan ere bi notazioetan emaitza bera da, 8 alegia.

<sup>462</sup> Ikus Atributuzko kodeketa (NORK) atala.

<sup>463</sup> Ikus Kodeketa egituratzailea (NON) atala.

<sup>464</sup> Formula honetara iristeko Kontsulta tresnari honako aginduak eman zaizkio alderantzizko poloniar notazioari jarraituz (eragingaiak lehenengo, eragileak gero): Helduak 1, Helduak 2, OR, 1.11 Zapping, SUB, WITHIN.

<sup>465</sup> Ikus Sare bistak atala.

Superkodeak «kodeen kode» bezala ikus ditzakegu, edo hobe esanda, kodeen arteko harreman ezberdinak gordetzeko gai diren makroak. Horrela, superkodeek ez dituzte zuzenean datuak etiketatzen, harremanetan dauden kodeen bidez baizik. Aurreko kasura itzulita, «Helduak eta Zaping» superkodea sor genezake zuzenean Kontsulta Tresnaren bidez, zeinek jasotako 94 erantzunak barne hartuko lituzkeen hemendik aurrera. Aldaketarik gertatuko balitz (adibidez Helduak 1 edo Helduak 2 taldeetan parte-hartzaile berri bat sartuz gero) haren erantzunak ere automatikoki inkorporatuko lirateke superkodera. Superkodeek, horrela, entitate dinamiko, beti eguneratuak eskaintzen dizkigute gure analisirako.

#### 4.4.1.8. Aldiberekotasun tresnak

Aurreko adibidearekin ikusi dugun bezala, informazioa berreskuratzerako orduan interesgarria da kodeen eta dokumentuen arteko gurutzaketa eta aldiberekotasunak aztertzea, kodeen artean ez ezik termino eta kontzeptuen atzean ezkututzen diren asoziazioak azaleratzen lagun baitezakete. Aldibereko agerpen hauek ez dute noski berez ezer frogatzen, edo ikergai den fenomenoari buruzko azalpenik eskaintzen, baina fenomeno baten agerpena (edo agerpen eza) baldintzatu ditzaketen faktore eta testuinguruari buruzko arrastoak luzatzen dizkigute. ATLAS.ti-k gainera aldibereko agerpenen zenbaketa kuantitatiboaz gainera miaketa kualitatiboaz egiteko tresna ezberdinak eskaintzen ditu, kodeen arteko gurutzaketetan aurkitzen diren aipua esploratzeko aukera ezberdinak eskainiz.

Aldiberekotasun esploratzailea<sup>466</sup> bere izenak dioen legez kode eta kontzeptuen arteko harremanak aurkitu eta harreman hauen izaera esploratzeko diseinatuta dago. Alde batetik kodeen arteko aldiberekotasunak<sup>467</sup> miatzeko erabili daiteke (kode-familiak filtro bezala erabiliz, adibidez In Vivo kodeak elkarrekin noiz gurutzatzen diren ikusteko) eta programak eskaintzen dituen emaitzak esploratuz (ikus 23. irudiaren ezkerreko aldea). Bestetik, Oinarrizko Dokumentuen kodeketa esploratzeko erabili daiteke (hemen ere familiak filtro bezala erabil daitezke), saio edo kasu zehatz baten gainbegiratua eskainiz, ikerlariaren uneko interesen arabera eraikitako aurkibide modura (ikus 23. irudiaren eskumako aldea).

Aldiberekotasun taulak<sup>468</sup> ere bi aukera eskaintzen dizkigu: kodeak kodeekin gurutzatzea, eta kodeak Oinarrizko Dokumentuekin gurutzatzea. Lehenengo aukerak kodetutako terminoekin harremana duten faktoreak identifikatzeko eta izan dezaketen garrantzia erlatiboa kuantitatiboki aurrikusteko balio diezaguke C koefizienteari esker (Muhr, 2009)<sup>469</sup>.

<sup>466</sup> Co-occurrence explorer, jatorrizkoan.

<sup>467</sup> Aldiberekotasun hau bi kodek kodetzen dituzten aipua elkarrekin kontaktuan daudenean ematen da (Kontsulta Tresnan CO-OCCURRENCE eragilearekin bilaketa bat egiten dugunean bezala). Ikus 11. Taula.

<sup>468</sup> Co-occurrence table, jatorrizkoan.

<sup>469</sup> C koefizienteak 0 eta 1 arteko zenbakia ematen digu (non 0 zenbakiak bi kodeak inoiz gurutzatzen ez direla esan nahi duen, eta 1 zenbakiak agertzen diren aldiro gurutzatzen direla).

### 23. IRUDIA: ALDIBEREKOTASUN ESPLORATZAILEA: KODEAK ETA OINARRIZKO DOKUMENTUAK


- ▲ afaldu aurretik
  - ▶ Teleberri <o> afaldu aurretik
- ▲ afaldu eta gero
  - ▶ Berbetan zauz <o> afaldu eta gero
  - ▶ lonjan <o> afaldu eta gero
- ▲ afaldu eta geroko
  - ▶ pelikula <o> afaldu eta geroko
- ▲ afaldu ostien pixkat be bai
  - ▶ ogera sartu aurretik <o> afaldu ostien pixkat be bai
  - ▶ Teleberri <o> afaldu ostien pixkat be bai

- ▲ P18: SAKONEKO ELKARRIZKETA NAGUSIA LEZAMA
  - ▲ 1.11 Zapping (2-15)~
    - ▶ 18:168 [G] Zegaz erabakitzen dozu zer.. (184:198)
    - ▶ 18:191 [G] Zapping adibidez, eiten do.. (176:182)
  - ▲ 1.12 Telebistaren ondoko teknologiak (1-40)~
    - ▶ 18:169 [G] Inoiz eulkin dozue, bideori.. (200:214)
  - ▲ 1.6. Konpainia (3-31)~
    - ▶ 18:165 [G] Gizonagaz ikusten zinun te.. (132:142)
  - ▲ 1.7. Aldibereko jarduerak (7-26)
    - ▶ 18:166 [G] Zer eitten dozu, aparte, t.. (144:166)
  - ▲ 1.8. Telebistako edukiak (2-45)
    - ▶ 18:184 [G] Hor inoz ikusten dozu zer .. (492:502)
    - ▶ 18:185 [G] Honek telebisinoak lokalak.. (504:510)
  - ▲ 2.1. Norberaren astia(dua) (1-14)
    - ▶ 18:171 [G] Egunien ziber, zuretzako, .. (244:254)

Iturria: norberak moldatua.

Bigarrenak Oinarrizko Dokumentu eta kodeen arteko harremanen berri ematen digu, dokumentu bakoitzaren baitan ageri diren kode eta kode familien arteko gurutzaketa kuantitatiboen bidez. 24. irudiaren ezkerrean lehenenaren adibide bat ikus daiteke, hiru telebista saio eta adin ezberdinetako parte hartzaileen arteko aldiberekotasunak erakutsiz. Eskumako aldean berriz, Oinarrizko Dokumentuen eta hiru saio hauen aldiberekotasunak ageri dira.

### 24. IRUDIA: ALDIBEREKOTASUN TAULAK: KODEAK ETA OINARRIZKO DOKUMENTUAK



Iturria: norberak egina.

Lehen esan bezala, honek ez digu, bere horretan, kontzeptuaren garrantziari edo esanahiari buruzko azken erantzunik eskaintzen, baina aldiberekotasunei gain-begirada orokor bat eman eta gurutzaketa zehatzak banan-banan, eta bakoitzaren testuinguruan, miatzea ahalbidetzen digu. Laburbilduz, tresna bezala kontzeptuen arteko elkarlotura kuantitatibo eta kualitatiboak azalerazi eta berauetan sakontzea posible egiten digu.

Susanne Frieseren ustez honek bihurtzen du ATLAS.ti dauden azterketa kualitatiborako software guztietan «kualitatiboena», ez baitu inoiz jatorrizko testuarekiko harremana apurtzen, eta azterketa tresna ezberdinen eta jatorrizko testuinguruaren arteko distantzia beti da minimoa (Friese, 2011). Aldiberekotasun tresnek ondoko galderak planteatu eta erantzunen bila datuen corpusa miatzea ahalbidetzen digute: zer diote aldiberekotasun hauek ikergai dugun fenomenoarekiko? Zein harreman dago ikerketaren testuinguruan termino hauen artean? Zertan lagun gaitzake termino honek beste termino hau hobeto ulertzen?

#### 4.4.1.9. Sare bistak

Sare bistak ATLAS.ti-n proiektuaren, edo Unitate Hermeneutikoaren zati baten bistaratzeak dira, Unitate Hermeneutikoaren baitan ditugun objektu ezberdinak (kodeak, aipuak, familiak, Oinarritzko Dokumentuak, memoak) eta haien arteko harremanak ikusarazi eta antolatzeko esparru grafikoak.

Alde batetik, sare bistek objektuen kudeaketa errazten dute, objektuen arteko harremanak (kode eta aipuen artekoak, kodeen artekoak, memoen artekoak...) modu bisualean agertzerakoan. Bestalde, ikerketa honen helburua den bezalako eredu esplikatibo interpretatibo bat osatze aldera, ezin tresna egokiagoa eskaintzen dute teoria eraikitzerako orduan. Bi mailatan, dela Unitate Hermeneutikoa osatzen duten objektuen arteko harremanak ikusi eta antolatzeko, edota testuaren analisiaren eta azalpen teorikoaren oinarri bezala, objektuen arteko harremanak daude sare bisten muinean.

Lan honetan objektuen kodeen arteko harreman semantikoak<sup>470</sup> eratzeke sare bistak erabili dira, objektuen arteko harremanak aldi berean ikusi eta harreman berriak sortzeko interfaze eroso eskaintzen dutelako. 18. taulan erabili diren harreman semantiko ezberdinak azaltzen dira, lehen zazpiak programak berak eskainiak, eta azken bostak ikerlariak berak eraikiak, sortutako beharriaz erantzuteko.

Adibide batekin erraz ikus daiteke kodeen arteko harremanak Sare bisten bidez sortzeko prozesua: ondoko irudian kode fokalizatu baten eta bi kode egituratzaileraren arteko harremana ageri da [ ] edo «parte da» harremanarekin lotuta. Hala, «Ta telebinoak zer uste dozu hartzen deuela zuretzako denbora horretatik» eta «Eta oporretan por ejemplo zer eitten dozue, gehiau ikusi... gitxiau...?» galderak (kode egituratzaileak) «2.3 Telebistaren denbora (astiarekiko)» kode fokalizatuaren parte direla ezarri da:


<sup>470</sup> Ikus «Kontsulta tresna –Query tool» atala.

## 18. TAULA: ERABILITAKO HARREMAN SEMANTIKOAK

Izena	Harremana	Zeinua	Ezaugarri formala	Norantza
ASSO	A-k harremana du B-rekin	==	Simetrikoa	à
BTP	A B-ren parte da	[]	Iragankorra	á
CAUSA	A B-ren kausa da	=>	Iragankorra	á
CONTRA	A-k B kontraesaten du	<>	Simetrikoa	à
ISA	A B bat da	Isa	Iragankorra	á
NONAME	A –B (definitu gabe)		Simetrikoa	à
PROP	A B-ren jabegoa da	*}	Asimetrikoa	á
BAIEZTATU	Baieztatzen du	BAI	Asimetrikoa	á
EZB	Ezberdina da	//	Simetrikoa	à
NORK	Aipatzen du	?	Asimetrikoa	á
HARREMANA	Adi, harremana du	H>	Simetrikoa	à

Iturria: norberak moldatua (Atlas.ti).

## 25. IRUDIA: SARE BISTA: KODEEN ARTEKO HARREMAN SEMANTIKOAK



Iturria: norberak moldatua.

Irudikoa bezalako harreman hierarkikoak ezarri ahal izatea funtsezkoa da azterketa eta kodeketa estrategiei begira<sup>471</sup>. Sare bistak ahalbideratzen duen errepresentazio grafikoaz haratago, kode eta aipuen arteko harreman semantikoek azterketa estrategia konplexuagoak ahalbideratzen dituzte. Kasu honetan adibidez, harreman iragankor edo trantsitiboak izanik, behin lotura hauek osatuta, Kontsulta tresnaren bidez «2.3 Telebistaren denbora» kodearen azpiko kodeen inguruko kontsulta bat eginez gero (SUB eragilearekin) bi kode egituratzaileen bidez kodetutako pasarte guztiak ere jasoko genituzke. Sare bistak, hartara, ikerketaren kodeketa estrategia

<sup>471</sup> Ikus «Azterketa eta kodeketa-estrategiak» atala.


eraikitzeko tresna funtsezkoak dira, eta ikerketaren azterketa-arkitektura osoa eraikitzea ahalbidetzen dute.

Posible da noski kodeak eta kode familien arteko harremanak eskuz editatzea ATLAS.ti-ren menu ezberdinen bidez, baina sare bistek objektuen arteko harremanak azaleratu eta editatzeko eremu naturala eskaintzen dute.

Bestalde, sare bistek informazioa modu intuitiboan berreskuratu (kodetutako pasarteak sare bistara ekarriz, kode berriak inportatuz eta haien arteko harremanak berrazaleraziz) eta berrantolatzea ahalbidetzen dutenez, proiektuaren marko kontzeptuala eta teoria eraikuntzaren faseetan bereziki erabilgarriak gertatzen dira. Sare bistak kodeei lotutako pasarteak inportatu, hauek jatorrizko testuinguruan kontsultatu eta objektuak eta haien arteko harremanak birformulatzeko eremu ideiala dira.

Irudian telebistak parte-hartzaile batentzat euskal abeslarietako lotura mantentzeko duen funtzioa aztertzen da: Nagusiak adin-taldeko emakume bati egindako sakoneko elkarrizketa batetatik abiatuta:

## 26. IRUDIA: SARE BISTAK KODEEN ARTEKO HARREMANAK EZARTZEKO




Iturria. norberak egina.

Hala, elkarrizketatuaren jardunari jarraituz, posible dugu Benito Lertxundi, «Martin» (izatez Erramun) Martikorena, Mikel Laboa eta «Lurdes Iriondoren gizona» abeslari bezala identifikatzea, eta abeslari hauek telebistarekin lotutako aisiazko esperientzia intentsoaren kontakizunarekin lotzea. Behin lotura hauek eginda (adibidez sakoneko elkarrizketaren transkribapen edo kodeketa fasean) programak gorde egiten ditu, beste momentu batean harreman hauek berreskuratzea, eta IISM printzipioari jarraituz objektuen arteko Ikusarazpena, Integrazioa, Serendipia eta Miaketa sustatzea ahalbidetuz.



Hurrengo irudian ikus daitekeen bezala «Emozionaten dozte» In Vivo kodea sare bista berri batetara eramanda adibidez erraza da berehala beste kontzeptu batzuekin duen loturak ikusaraztea, eta telebistak elkarrizketatuarentzat euskal kantagintza eta bertsolaritzarekin duen harremana bistaraztea.

## 27. IRUDIA: SARE BISTA KODEEN ARTEKO HARREMANAK BISTARATU ETA BERRANTOLATZEKO



Iturria. norberak egina.

Sare bistek Unitate Hermeneutikoko objektuen eta kontzeptuen arteko harremanak bistaratu, antolatu, sortu eta berreskuratzea ahalbidetzen duenez, eredu interpretatibo eta azalpen teorikoak osatze aldera aukera nabarmenak zabaltzen ditu. Sare bistak, hartara, berez «hor dauden» harremanak bistaratu eta berauekin lan egiteko tresna baliotsua bilakatzen da ikerlariarentzat.

Sare bistek kodetutako aipuen, kodeen beraien eta Unitate hermeneutikoan erabili diren bestelako objektuen arteko harremanak ikusarazi, ezarri, eraldatu eta, azken batean, ikerketaren zerbitzura jartzeko aukera eskaintzen digute, eta zentzu horretan informazioaren berreskurapen eta ikusarazpenerako tresna aparta dira.

Behin ATLAS.ti-ren oinarritzko kontzeptu eta objektuak eta Informazioaren berreskurapen eta ikusarazpenerako tresnak azalduta, landa lanaren bidez jasotako da-

tuen kodeketa zein modutan eta zein estrategiari erantzunez burutu den azaltzeko parada heldu da. Honi helduko diogu hurrengo orrialdeetan.

## 4.5. AZTERKETA ETA KODEKETA ESTRATEGIA GLOBALA

Abiapuntu kualitatibodun ikerketa ororen informazio ugaritasunerako joerak –bai zabaltasunean eta baita aberastasunean ere– informazioa aztertzeke irizpideak zehaztu eta ezartzera behartzen du ikerlaria. Baina aldi berean ikergaiak berak eta informazioaren izaerak aberatsak malgutasun eta sormen puntu bat ere eskatzen dio ezinbestean azterketari. Horrela, ikerlari kualitatiboa parte-hartzaileen adierazkertasuna ahalbidetuko duen irekieraren eta datuen azterketa bermatuko dion sistematizazioaren artean kokatu behar da ezinbestean, berriro ere bi muturren arteko tentsio ezeroso baina emankorreen.

Lan honetan, parte-hartzaileen ahotik jasotako informazioa antolatze aldera eta ATLAS.ti azterketa kualitatiborako softwareak eskaintzen dituen abantailetak hobeto baliatu eta malgutasuna eta sistematizazioaren arteko oreka bilatu asmoz 28. irudian laburtuta ikus daitekeen azterketa eta kodeketa estrategia globala jarraitu da. Guztira, hiru azterketa begirada ezberdin baina elkarlotu jarraitu dira (deduktiboa, induktiboa eta abduktiboa), bost kodeketa modu (Atributuzkoa, fokalizatua, egituratzailea, in vivo eta teorikoa) eta bi kodeketa ziklori lotuta.


Lehenengo kodeketa zikloan begirada deduktiboa eta induktiboa uztartu dira, ikertzaileak aurrez-aurretik definitutako eremuak esploratu (atributuzko, egiturazko eta fokalizatutako kodeen bidez) eta subjektuek eurek proposatutako termino eta kontzeptuak artikulatzeko (In Vivo kodeen bidez). Begirada deduktiboa aurretiaz ezagun zaizkigun premisa, hipotesi edo abiapuntuetatik abiatzen den azterketa estrategia planteatzen ditu ondorioak bilatzeko. Logika deduktiboak aurrez definitutako kategorien inguruko ezagutza eskaintzen digu; kasu honetan kodeketa estrategia hirukoitz batekin (parte-hartzaileen koordenatu soziodemografikoak, gidoi orokorraren gai nagusiak eta ikerlariak landa-lanean egindako galderak) Nork, Zeri eta Non kategorien inguruko ondorioak marraztea ahalbidetuz. Arrazoibide induktiboa berriz, esperientzian oinarritutako aurrikuspen edo ondorioztatzeak egitean oinarritzen da. Bestela esanda, behatutako fenomenoaren agerpen eta ezaugarrietatik abiatuta orokortu ahal izatea bilatzen du. Lan honen kasuan prozesu hau parte-hartzaileen terminoetatik abiatuta burutu da, in vivo kodeketaren bidez.

Lau kodeketa estrategia eta bi begirada logiko edo arrazoibide biltzen dituen lehenengo zikloko kodeketako begirada deduktiboaren emaitzak 5. kapituluan jasotzen dira, kasu azterketaren kontzeptuzko analisisan. 6. kapituluan berriz lehenengo kodeketa zikloko begirada induktiboa eta bigarren kodeketa zikloari dagokion begirada abduktiboa jasotzen dira proposatutako kasu azterketaren eredu esplikatiboan. Azterketa estrategia abduktibo honen emaitza da kodeketa teorikoa.

Arrazonamendu abduktiboak behatutako fenomenoaren proposatutako azalpena erdiestea du helburu, aztertutako kasuak azalduko lituzkeen hipotesi esplikati-boa proposatzea. Abdukzioa dedukzioarengandik ezberdina da, ez baita aztertutako fenomenoaren aurrez ontzat emandako ezagutzaren arabera ondorioztatzen, eta indukzioarengandik ere bereizten da, ez baita behatutako kasuetatik orokortzerik egitea bilatzen, hauen azalpen bat proposatu baino. David Gauntlett-ek laburbildu bezala (Gauntlett, 2007: 49-50):

Abdukzioaren ideia zientzialariak kasu kopuru bat behatu eta behatutakoaren azalpen kausal bat proposatzean datza. Hau indukzioarengandik ezberdina da, espekulazioa ez baita etorkizuneko kasuen inguruan ematen, gehiago da behatutako kasuen (proposatutako) azalpen bat. Eta dedukzioarengandik ezberdina da, kontakizuna ez baita halabarrez behaketetatik zuzenean «irakurtzen», baizik eta behatutakoaren kausa bat proposatzen du<sup>472</sup>.

## 28. IRUDIA: INFORMAZIOAREN AZTERKETA-ESTRATEGIAK



Iturria: norberak egina.

Behin azterketa eta kodeketa estrategia globalaren eskema orokorra aurkeztuta, hurrengo orrialdeetan banan-banan aztertuko dira lanean zehar erabilitako kodeketa ezberdinak.

<sup>472</sup> «The idea of abduction is that the scientist observes a number of cases and proposes a causal explanation for what is observed. This is different from induction, because the speculation is not about future cases, rather is a (proposed) explanation for the observed cases. And it is different from deduction, because the account is not necessarily ‘read’ directly from the observations, but proposes a cause of these observations».

#### 4.5.1. ATRIBUTUZKO KODEKETA (NORK)

Ikerketa kualitatibo gehienetan nolabaiteko atributuzko kodeketa burutzen da (Saldaña, 2009:55), finean, parte-hartzaileei buruzko oinarritzko informazioa baliagarria izan ohi delako. Ikerketa honetan parte-hartzaileen datu eta ezaugarri demografikoak jasotzen ditu (adina, sexua, eta eztabaida edo elkarrizketa saioa burutu den tokia), hauen araberrako informazioaren kudeaketa eta berreskuratzea ahalbidetuz.

Atributuzko kodeen bidez pasarte bakoitza zehazki nork esan duen, hau da, pasarte zein parte-hartzailearena den kodetu da. Ikerketa honetan gainera kodeketa mota honek garrantzia berezia du, helburua adin-talde eta belaunaldi ezberdinen telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak alderatu eta haien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak identifikatu eta azaltzea delako: atributuzko kodeketak parte-hartzaileen adinaren arabera alderaketak egitea ahalbidetu digu, jasotako informazioa adin-taldearen araberrako multzoetan antolatuz, eta gakoak diren aipamenak adina edo sexua bezalako aldagaiekin lotzeko aukera irekiz.

Kode hauen izenei dagokien bezala, anonimotasuna bermatze aldera jatorritzko partaideen izenak hiru marka ezberdin (gehi laugarren bat, hala behar izan denean) daramatzen ezizen batez ordeztu dira:

- Eztabaida taldea edo sakoneko elkarrizketa burutu den tokia (*eztabaida taldearen marka*): AL (Algorta), AU (Aulestia), BE (Bermeo), BI (Bilbao), DU (Durango), MU (Mungia), LE (Lekeitio), LE (Lezama), LA (Larrabertz), MUS (Muskiz), SA (Santurtzi).
- Parte-hartzailearen adina (*adin-marka*).
- Parte-hartzailearen sexua (*sexu marka*): (E)makumezkoa edo (G)izonezkoa.
- Kasu batzuetan, parte-hartzaile ezberdinei aurreko hiru marka berak dagozkie (saio berean adin eta sexu bereko parte-hartzaileak aurkitu direnean). Kasu hauetan laugarren marka bat gaineratu zaie, a, b, d hizkiez osatua, batzuk eta besteak elkarren artean bereizteko.

Hala, *AL 77 E* kodeak Algortako Eztabaida Talde batean parte hartutako 77 urteko emakumezkoa adierazten du, eta *BI 88 G b* kodeak Bilboko Eztabaida Talde batean parte hartutako 88 urteko gizonezkoa (saio, adin eta sexu bereko beste parte-hartzaile batengandik bereizteko b bat jarri zaiolarik izenordearen amaieran).

##### 4.5.1.1. Atributuzko kodeak eta adin taldeak

Atributuzko kodeak funtsezkoak dira ikerketa honetan, haiek egin baitute posible adin-taldearen eta adin ezberdinetako parte-hartzaileen arteko alderaketak burutzea. Hau horrela da, aurreko atalean azaldu bezala, landa landean zehar jasotako pasarte bakoitzak berau adierazi duen parte-hartzailearen adina kodetuta duelako<sup>473</sup>.

<sup>473</sup> Ikus aurreko atala atributuzko kodeen marken azalpen batetarako.

Honela, 17 parte-hartzaile daude *Gazteak* adin taldean, 16 *Helduak 1* taldean, 23 *Helduak 2* taldean eta 15 *Nagusiak* taldean. Guztira 74 pertsonak hartu dute parte ikerketa honen landa lanean: 73 parte-hartzailek eta moderatzaileak. Hortaz, 74 da guztira lan honetan erabili diren Atributuzko kodeen kopurua. 17. taulak corpusaren azterketan erabili diren atributuzko kode guztiak jasotzen ditu, bakoitzaren funtsa (kodeari lotutako edo kodetutako aipuak, hau da, parte-hartzaile bakoitzak landa lanean zehar burutu dituen eskuhartzeen kopurua) eta dentsitatearekin (kodeari lotutako beste kodeak) batera.

### 19. TAULA: ATRIBUTUZKO KODEAK ADIN-TALDEKA {FUNTSA-DENTSITATEA}

GAZTEAK (18-35)	HELDUAK 1 (35-50)	HELDUAK 2 (50-65)	NAGUSIAK (65<)
AL 21 E {10-3}   AL 26 E {21-5}   AL 27 E {33-4}   AL 30 E {36-4}   AL 32 E {28-4}   AL 34 G {51-4}   DU 21 E {64-1}   DU 21 G {51-1}   DU 23 G {62-1}   DU 24 E {99-1}   DU 24 G {104-1}   DU 24 G b {66-1}   MU 20 E {145-1}   MU 21 E {92-1}   MU 21 E b {99-1}   MU 24 G {47-1}   MU 25 G {113-1}   BI 29 E {69-1}	AL 40 G {36-4}   BE 37 E {120-1}   BE 37 G {102-1}   BE 40 E {116-1}   BE 40 E b {163-1}   BE 40 G {54-1}   BE 41 E {105-1}   BI 38 E {29-1}   BI 39 G {67-1}   BI 39 G b {77-1}   BI 43 E {87-1}   BI 47 E {89-1}   BI 49 E {39-1}   BI 50 E {114-1}   LA 40 G {35-1}   MU 47 E {89-1}   MUS 47 G {69-1}	AL 56 G {52-4}   AL 60 E {14-4}   LE 52 E {109-1}   LE 52 G {39-1}   LE 53 E {116-1}   LE 53 E b {70-1}   LE 54 E {141-1}   LE 55 G {36-1}   LE 57 G {66-1}   LE 59 G {93-1}   MU 51 E {99-1}   MU 55 E {112-1}   MU 56 E {68-1}   MU 56 G {39-1}   MU 58 G {70-1}   MU 62 G {102-1}   SA 50 E {62-1}   SA 52 G {109-1}   SA 52 G b {101-1}   SA 53 G {70-1}   SA 56 E {88-1}   SA 57 E {66-1}   SA 57 G {49-1}	AL 77 E {20-5}   AU 67 G {114-1}   AU 71 G {126-1}   AU 74 E {78-1}   AU 75 E {133-1}   AU 77 G {144-1}   AU 80 E {53-1}   AU 85 E {100-1}   BI 75 G {45-1}   BI 83 E {23-1}   BI 88 G {30-1}   BI 88 G b {49-1}   BI 88 G d {28-1}   LE 78 E {71-2}   LEZ 67 E {160-1}
Guztira 17 parte hartzaile	Guztira 16 parte hartzaile	Guztira 23 parte hartzaile	Guztira 15 parte hartzaile
MODERATZAILEA {1409-0}			

Iturria. norberak egina.

Funtsari edo kodetutako pasarte kopuruari erreparatuta, berehala ikusten da parte-hartzaileen artean ezberdintasun handiak daudela, batzuk oso gutxitan hartzen baitute parte (kasu batean 10 aldiz bakarrik saio osoan) eta beste batzuk aldiz ia-eten-gabe (141 aldiz kasu batean).

Hasiera batean Sakoneko Elkarrizketetan elkarrizketatutako subjektuek Eztabaida Taldeetako parte-hartzaileek baino funtsatze maila handiagoa agertzen dutela irudi lezakeen arren (azken batean saio osoa baitute haientzako, denbora eta parte-hartzeko aukerak beste taldekideekin elkarbanatu beharrean), aldea ez da hainbestekoa, atributuzko kodeketaren bidez pasarte osoak kodetu baitira, hau da,

subjektuak parte hartzen duen aldi bakoitza. Sakoneko elkarrizketetan erantzunak luze eta sakonagoa eta hitzaren txandakatzea geldoagoa izan da, eta ondorioz denbora tarte handiagoa izan duten arren, Sakoneko Elkarrizketetako parte hartzaileek ez dute askoz funtsatze maila handiagorik ageri gehienetan: BI 29 E {69-1} | LA 40 G {35-1} | MUS 47 G {69-1} | BI 39 G {67-1} | LE 78 E {71-2} | LEZ 67 E {160-1}. Moderatzaileak, bistan denez, parte-hartzaile guztien artean parte-hartze handiena izan du, 1410 aldiz parte hartu duelarik, galderak eta iruzkinak eginez landa lanean zehar.

Oro har, Atributuzko kodeek oso dentsitate txikia dute, eztabaida talde edo sakoneko elkarrizketa bati lotuta baitaude. Dentsitate handiagoa agertzen duten kasuek bestelako koderen batekin egindako lotura azaltzen dute, ikerlariarentzako ohar gisa (kontzeptu batekin bereziki lotuta agertzen direlako, edo beste parte hartzaile batek esandakoa baieztatu edo ezeztatzen dutelako adibidez).

#### 4.5.2. KODEKETA FOKALIZATUA (ZERI)

Kodeketa fokalizatuak ikerketaren azterketa kategoria nagusiak zehazten ditu; ikerlariak aurrez aurretik aztergai bezala definitutako eremu nagusiak. Saldañak (Saldaña, 2009) bigarren zikloko kodeketa gisa aipatzen baditu ere (hala da, neurri batean, marko teorikoan landutako hasierako kodeetatik abiatutako kodeak baitira) lan honetan lehen zikloko kode bezala erabili dira, azterketarako kategoria deduktibo nagusiak proposatu eta kode egituratzaileak<sup>474</sup> hauen arabera antolatzeke.


Kode fokalizatuak landa-lanaren azterketarako hezurduraren osagai funtsezkoa dira, jasotako informazioa azterketarako kategoria nagusietan (kategoria fokalizatuetan) antolatzea ahalbidetzen digutelako. Aldi berean, Kodeketa Fokalizatuak Astia-Aldia-Aisia ereduarekin lotura gordetzea ahalbidetu digu, landa laneko saioetako elkarrizketa eta saioetan egindako galderen eta aztertu nahi diren eremuen arteko zubi lan malgu baina egonkorra eskainiz. Kodeketa estrategia honetan pasartearen edukiari baino gaiari, kokatzen den azterketa eremuari erreparatzen dio, informazioa antolatzeke. Ez dugu parte-hartzaileek erantzundakoa kontuan hartu, *zeri* erantzun dioten baino. Kodeketa fokalizatuak lan honetan logika deduktiboa erabili du, erabat, a priori ezarritako kategoria-kateen arabera antolatuz jasotako informazioa.

Kodeketa fokalizatuak gidoi erdi-egituratuaren baitako 31 elementuak hartzen ditu kode bezala<sup>475</sup>, gehi Astia-Aldia-Aisia eta belaunaldiak ardatzak. Gidoiarekin lotura errazte aldera kodeketan zenbakikuntza ere errespetatu da. Adibidez, irudian, *Aldia* ardatzaren menpeko «1.7 Aldibereko jarduerak» kode fokalizatuak landa lanean zehar erabili diren egiturazko kode ezberdinekin duen lotura azaltzen da.

<sup>474</sup> Ikus hurrengo azpi-atala: Kodeketa egituratzailea (NON).

<sup>475</sup> Ikus 11. taula: «Eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketetarako gidoia orokorra (gai nagusiak)».

## 29. IRUDIA: KODEKETA FOKALIZATUA ETA EGITURATZAILEAREN ARTEKO HARREMANA



Iturria, norberak egina.

#### 4.5.2.1. Kode fokalizatuak eta adin taldeak

Kode fokalizatuak banda edo giltzarri lana burutzen dute, bai landa laneko saioetan, gidoi erdi-egituratuaren galderak artikulatuz, bai prozesu analitikoan ere, kode egituratzaileak ikerketa-ardurekin lotuz eta adin-taldeen arteko alderagarritasuna ahalbidetzerakoan.

### 20. TAULA: KODE FOKALIZATUAK ALDIA-ASTIA-AISIA + BELAUNALDIAK ARDATZETAN ANTOLATUTA (FUNTSA, DENTSITATEA)

Aldia	Astia
1.1. Telebista Bai/ez {0-21} 1.2. Telebista (ikustearen) denborak {0-39}~ 1.3. Telebista kantitatea- {0-20} 1.4. Telebistaren tokiak {1-29} 1.5. Zein telebista(k) {0-17} 1.6. Konpainia {3-30}~ 1.7. Aldibereko jarduerak {7-26} 1.8. Telebistako edukiak {2-52} 1.9. Arreta {0-15}~ 1.10 Berba {0-26} 1.11 Zapping {2-15}~ 1.12 Telebistaren ondoko teknologiak {1-40}~ 1.13 Telebista internet bidez {0-17} 1.14 Telebista erosita/ordainduta {0-10}~	2.1. Norberaren astia(Idia) {1-14} 2.2 Astia eta telebista {2-20} 2.3. Telebistaren denbora (astiarekiko) {0-28}~ 2.4. Oporrak/lana {0-9}
Aisia	Belaunaldiak
3.1 Zer da telebista (ikustea)? {1-31} 3.2. Onuragarri/kaltegarri {0-14} 3.3. Esperientziak/emozioak {2-33} 3.4. Telebistaren erabilerak/funtzioak {1-51} 3.5 Nola ulertu telebista? {0-11} 3.6. Telebista definitu {0-9} 3.7. TB ideiala {1-21} 3.8 Aisia autotelikoa {0-13}~ 3.9. Aisia exotelikoa {0-12}~ 3.10. Aisia absentea {0-20}~ 3.11. Aisia kaltegarria {1-28}~	4.1. Belaunaldian partaidetza {1-20} 4.2. Belaunaldien arteko ezberdintasunak {2-34}



Kode fokalizatuek ez dute apenas zuzenean corpuseko pasarterik kodetzen eta, hori dela eta, funtsatze maila baxuak agertzen dituzte. Kontrara, dentsitate handiko kodeak dira, kode fokalizatuak eta kode egituratzaileak semantikoki lotuta daudelako<sup>476</sup>. Hartara, kode fokalizatu bakoitzaren dentsitate maila da garrantzikoena, Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetan gai horren inguruan egindako galdera kopurua adierazten baitu.

Funtsatze mailari dagokionez, ikerlariaren ohar bezala erabili dira, azterketa eremu batekin lotura zuzen eta argia zuten testu pasarteren bat kodetzerako orduan, baina oro har ez da testu-pasarterik zuzenean kodetu Kode Fokalizatuen bidez, zeharkako kodeketa egiteko erabili direlako. Kode fokalizatuekin zuzenean pasarterik kodetu ez den arren, posible da berauekin lotuta dauden kode egituratzaileekin kodetutako pasarteak berreskuratzea<sup>477</sup>. Honek oso informazio interesgarria eskaintzen digu, adin-talde ezberdinetan gidoi orokorreko zein gairen inguruan (*ZERI* galderari erantzunez) hitz egin den azaltzen digulako.


Hurrengo hiru orrialdeetan kode fokalizatuek landa lanean izan duten lekua argitzen lagun dezaketen hiru figura aurkeztuko ditugu. 30. irudian kodeketa fokalizatuaren eskema orokorra ikus daiteke, erabili diren kode fokalizatuek Aldia-Astia-Aisia + Belaunaldiak ereduarekin duten harremanaren adierazgarri. Sare bista hau erabili da hogeita hamabost kodeak gidoi orokorreko lau bloke nagusiei lotu («BTP» harreman semantiko iragankorraren bidez) eta gerora kontsulta tresnaren bidezko bilaketak egin ahal izateko.

21. taulak kode fokalizatuen eta atributuzko kodeen arteko gurutzaketa agertzen du zifratan, gai bakoitzaren inguruan adin-talde bakoitzeko zenbat eskuhartze egon diren adieraziz. Bestela esanda, adin-talde ezberdinetan banatuta gai nagusi bakoitzeko hitza zenbat aldiz hartu den adierazten du. Letra lodiz markatu dira adin-talde bakoitzeko bi kode fokalizatu eztabaidatuena. Azkenik, 5. grafikoan gaikako eta adin-talde bakoitzeko pasarte pilatu kopurua irudikatzen da, adin-talde bakoitzean gehien eta gutxien hitz egin denari buruzko panoramika global bat eskainiz, paisaia menditsu bat bailitzan. Grafikoak gainera, adin-taldearen arteko berdintasun eta ezberdintasunetan erreparatzeko aukera eskaintzen digu.

<sup>476</sup> Ikus 28. Irudia.

<sup>477</sup> Ikus «Kontsulta Tresna: Query Tool» atala.

30. IRUDIA: KODEKETA FOKALIZATUA: ESKEMA OROKORRA




iturria. norberak egina.

## 21. TAULA: PASARTE KOPURUA KODE FOKALIZATU ETA ADIN TALDEKA

	GAZTEAK	HELDUAK 1	HELDUAK 2	NAGUSIAK
1.1. Telebista Bai/ez	44	34	73	45
1.2. Telebista (ikustearen) denborak	96	80	116	40
1.3. Telebista kantitatea	91	42	59	40
1.4. Telebistaren tokiak	80	35	30	34
1.5. Zein telebista(k)	18	26	47	27
1.6. Konpainia	48	47	102	68
1.7. Aldibereko jarduerak	38	82	36	67
1.8. Telebistako Edukiak	97	39	<b>126</b>	119
1.9. Arreta	26	17	37	71
1.10. Berba	92	65	72	35
1.11. Zapping	30	84	12	42
1.12. Telebistaren ondoko teknologiak	<b>129</b>	11	32	67
1.13. Telebista internet bidez	43	23	23	1
1.14. Telebista ordainduta/erosita	16	36	15	3
2.1. Norberaren astia(Idia)	36	41	61	38
2.2. Astia eta telebista	19	53	60	50
2.3. Telebistaren denbora (astiarekiko)	86	22	66	68
2.4. Oporrak/lana	33	7	84	48
3.1. Zer da telebista?	<b>112</b>	<b>95</b>	100	27
3.2. Onuragarri/kaltegarri	46	51	54	37
3.3. Esperientziak/emozioak	90	65	101	<b>96</b>
3.4. Telebistaren erabilerak/funtzioak	60	71	<b>226</b>	22
3.5. Nola ulertu telebista?	0	5	34	55
3.6. Telebista definitu	25	37	59	0
3.7. TB ideiala	18	<b>164</b>	106	75
4.1. Belaunaldian partaidetza	46	23	127	8
4.2. Belaunaldien arteko ezberdintasunak	84	91	102	68
	<b>1577</b>	<b>1350</b>	<b>2011</b>	<b>1298</b>

## 5. GRAFIKOA: KODEKETA FOKALIZATUA ETA ADIN-TALDEAK (PASARTE KOPURUA, PILATUA)



Iturria. norberak egina.

### 4.5.3. KODEKETA EGITURATZAILEA (NON)


Kode egituratzaileak landa laneko ikerlariaren galderetan zuzenean oinarritutako kodeak dira. Alde batetatik datuen segmentu bat kodetu eta kategorizatzen du ikergai edo ardura zehatz bat hartzen dute («Noiz ikusten duzu gehiago telebista, astegun edo asteburuetan?» adibidez) gerora datuen segmentu hori berreskuratu eta beste galdegaiekin alderatzea ahalbidetuz<sup>478</sup> (McQueen, McLellan-Lemal, Bartholow, & Milstein, 2008: 124). Bestetik, lan honetan hitzez-hitz hartu da kode egituratzaileen galdera izaera, ikertzaileak landa-lanean zehar parte-hartzaileei egindako galderak eurek erabiliz kode egituratzaile gisa. Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetan ikertzaileak burututako galdera errealak edo In Vivo galderak<sup>479</sup> dira kode egituratzaileak.

<sup>478</sup> «Structural Coding applies a content-based or CONCEPTUAL PHRASE representing a topic of inquiry to a segment of data that relates to a specific research question used to frame the interview».

<sup>479</sup> In Vivo kodeak beren-beregi beste kodeketa eredu bat bezala erabili dira lan honetan. Ikus «Azterketa eta kodeketa estrategia globala» atalean «In Vivo Kodeketa (ZER)». In Vivo galderak terminoa erabili beharrez Kode Egituratzaileak terminoa erabili da, gauzak ez nahasteko.

Edozelan ere, kodeketa egituratzailearen eginkizuna, izenak berak dioen bezala, ikertzaileak jasotako datuak egituratzean datza. Kodeen eta testuaren arteko harremanari erreparatuta, aspaldiko egia dirudien arren, lan honetan bereziki garrantzitsua da kode egituratzaileen zeregina, estrategia deduktiboaren zutabe den kodeketa fokalizatuarekin zubi-lana burutzen baitute, arestian aipatutako sistematizazioa (ikerlariaren a priorizko kategoriak) eta malgutasuna (landa lanean zehar jasotako elkarrekintzak jasotzea) ahalbidetuz aldi berean:

### 31. IRUDIA: KODE EGITURATZAILEAK, KODE FOKALIZATUAK ETA DATUEN CORPUSA



Iturria. norberak egina.

Kode egituratzaileek datuen corpusaren lehenengo etiketatu kontzeptuala burutzen dute ikerlariaren a priorizko galderak erabiliz erreferentzia bezala. Horrela bere horretan aztertzeke handiegia den datu-multzoarekiko iker-galderen araberako aurkibide bat eskaintzen dute, azterketa konplexuagoak ahalbidetzeko (Namey, Guest, Thairu, & Johnson, 2008).

Kodeketa egituratzaileak ikerlari eta moderatzaileak landa-lanean zehar burututako galdera guztiak biltzen ditu, eta hauen arabera antolatzen du parte-hartzaileengandik jasotako informazioa, galdera zehatzari lotutako pasarteetan. Kodeketa fokalizatuak<sup>480</sup> ikerketaren kategoria nagusiak biltzen dituen artean, kodeketa egituratzaileak galdera mugatu, zehatz eta partikularrak jasotzen ditu: parte-hartzaileen diskurtsoa zein testuinguru zehatzetan, elkarrizketa edo eztabaidaren zein puntu-

<sup>480</sup> Ikus aurreko azpiatala: Kodeketa fokalizatua (ZERI).

tan (NON) eman den finkatuz. Azterketarako sortutako aipamen eta aukeratutako pasarteak non, ikerlariaren zein galderari erantzunez sortu diren identifikatzeko balio digute kode egituratzaileek, eta hala kodedutako pasarteak beti eramango du Eztabaida edo Elkarrizketako zein momentutan, zeri erantzunez sortua izan denaren informazioa.

Esan bezala, Kodeketa Egituratzailerak *In Vivo* kodeketa mota bat da lan honetan, galderak egin diren bezala jasotzen baitira (hiztegia, euskalkia eta abar errespetatuz), eta saioretan moderatzaile edo elkarrizketatzaile bezala ikerlariak erabilitako hitzak dira, zehatz-mehatz, kode bakoitzari izena ematen diotenak. Hala, 32. irudian «Egunien zihher, zuretzako, zuretzako, denbora asko dekozu libre?» izenarekin kodetu den 244. paragrafoetik 254.era doan pasarte ageri da, adibide modura:

### 32. IRUDIA: KODEKETA EGITURATZAILA: «EGUNIEN ZIHER...DENBORA ASKO DEKOZU LIBRE?»


244	<b>MODERATZAILA:</b> Egunien zihher, zuretzako, zuretzako, denbora asko dekozu libre?	☞ Egunien zihher, zuretzako, zuretzako, denbora asko dekozu libre?
245		
246	LEZ 67 E Egunien? Bai. Baina bueno, oin honek denborak ez dot urtetan, baia normalen ba hon, Lezamara edo joaten naz. Bueno, oin kasue partikularra deku, ze bestaldeko andrabue gaixorik dau eta bueno... Gero beren... Elena (?) nire lagune, bueno, gara ahizten moduen, eztaiz? Eta bueno, asko lagunduten dotzei, eta bueno, oingo denbore niretzat... kasi ya nekatute lotuten naz Gaberako ja nekatute... Baina horrez aparte, denbora sobra asko. Eske... bakarik nau... pues... normal. Baia urtetan dot e? Joaten naz. Edo igual zeozer, diskulpe zeozer erosteko, zeozer giti, baina ebetik urten. Denbora onagazi Honekaz denborakaz ba ez... Bai.	
247		
248	<b>MODERATZAILA:</b> Igertzen dozu diferentziarik aste barruen eta asteburuetan?	
249		
250	LEZ 67 E Ni tristeago egoten naz.	
251		
252	<b>MODERATZAILA:</b> Asteburuetan?	
253		
254	LEZ 67 E Bai. Aste barruen urtetan dot gehiau, igual. Bueno, asteazkenetan be urtetan dot, baina igual aste barruen gehiau.	

Iturria. norberak egina.

Ikus daitekeen bezala, moderatzaileak iruzkin edo zehaztapen modura burutzen dituen «Igartzen dozu diferentziarik aste barruen eta asteburuetan?» eta «Asteburuetan?» azpigalderak kode beraren barruan sartu dira, berez galdera beraren parte baitira. Behin kode egituratzailea sortuta, «Egunien zihher, zuretzako, zuretzako, denbora asko dekozu libre?» «2.1 Norberaren asti(aldia)» kode fokalizatuarekin lotu da, aipatu zubi-lana burutu ahal izateko Denak hona ekartzeak zentzurik ez duen arren, gogoratzekoa da kode egituratzaileak 35 kode fokalizatuekin lotuta daudela<sup>481</sup>.

<sup>481</sup> Ikus «Sare bistak» eta «Kodeketa fokalizatuak» atalak.

### 33. IRUDIA: KODE FOKALIZATUEN ETA EGITURATZAILEEN ARTEKO HARREMANA




Iturria. norberak egina.

#### 4.5.3.1. Kode egituratzaileak eta adin taldeak

Kodeketa fokalizatuari buruz jardutean kode edo gai nagusi bakoitzak eragindako erantzun kopurua aipatu badugu<sup>482</sup>, ikertzailearen galderak adin-talde ezberdinen inguruan nola banatu diren ikustea ere interesgarria da:

### 6. GRAFIKOA: KODE EGITURATZAILEAK ADIN TALDEKA (EHUNEKOTAN, EGINDAKO GALDERAK)



Iturria. norberak egina.

Guztira 441 kode egituratzaile erabili dira kasu azterketaren corpusean, ikerlariak Eztabaida Talde eta sakoneko elkarrizketatan burututako galderak beste. Ikusten denez, nolabaiteko oreka dago lau adin-taldeetan egin diren galdera zehatzei dagokienez, Helduak 2 taldean galdera gutxiago agertzen den arren, 82 bakarrik, finean haien kabuz gehiago hitz egin duten taldea izan baitira. Beste hiru taldeetan 115-125 artean kokatu da galdera kopurua (123 Gazteak taldean, 121 Helduak 1 taldean 2 taldean eta 115 Nagusien taldean).

<sup>482</sup> Ikus 19. Taula: Pasarte kopurua kode fokalizatu eta adin taldeka aurreko atalean.

#### 4.5.4. IN VIVO KODEKETA (ZER)

Aurretik ere azaldu bezala, In Vivo kodeketan parte-hartzaileen diskurtsoko elementuak euren, subjektuen hizkera bera erabiltzen da kodeak sortu eta testua etiketatzeko<sup>483</sup>. Eztabaida taldeen eta sakoneko elkarrizketen transkribapenen kodeketa lerroz lerro egin da. hurrengo irudiak eztabaida talde batetako bi pasarteren kodeketa adibidea jasotzen du. Adibide honetan In Vivo kodeak bakarrik azaltzeko agindua eman zaio Atlas.ti programari, bestela beste kode mota askorekin batera nahastuta agertuko bailirateke (atributuzkoak, egiturazkoak, fokalizatuak...).

### 34. IRUDIA: IN VIVO KODEKETAREN ADIBIDE BAT

0002	DU 24 G a: Eta egoera. O sea, lagunekin bazabiltz, izaten da denbora pasa bat, bakarrik bazauz izen al da relajako momentu bat, bakarrik egoteko la...	relaxatiko momentu	lagunekin	denbora pas
0003				
0004	DU 24 G d: Bai, segun kontentidue edo ez dakit. Bazauz holan ba iboitzen lagunek urten arto, pues da konfazo bat, da rayada bat, da aspergamiex total. Bazauz igual kantzautu, ba igual izan leike relax, la bazauz igual ikusten jo, ba dokumental interesalen jalena, ba, unio. Hor ya ez dot ikusten telebistioa ikusten izango banauen... ba nau ikesten moduen edo... ez dakit, edo morberan kurtosidatit, ba irakumi biharrean igual, ba izan leikona ba ikustea, irakumi edo... Ni justu enaz irakurleko, baina	segun kontentidue relax nau ikesten moduen morberan kurtosidatit	energetisue konfazo ba dokumental	rayada ba

Iturria. norberak egina.

Ikus daitekeenez, lerroz lerroko kodeketa prozesuan In Vivo kodeak elkarren gainean pila daitezke, lerro berean esangura ainguratzen duten adierazpide ezberdinak daudenean («lagunekin», «denbora pasa»...).

In Vivo kodeen kopurua oso altua da (4.000tik gora dira guztira), eta hori dela eta ezinezkoa da guztiak lan honetara ekartzea. Hala ere komeni da gogoratzea in vivo kodeketak datuen etiketatze sistematiko eta zehatzak begirada induktiboaren bizkarrezurra osatzen duela, parte-hartzaileen diskurtsoaren elementu esanguratsuenak zurkaiztuz. Kasuen analisi kontzeptualaren alde induktiboa ahalbidetzeaz gainera, kasu azterketaren eredu esplikatiiboaren oinarrian dagoen begirada abduktiiboaren oinarri kontzeptuala osatzen dute.

Kasu azterketa honetan jasotakoa bezain corpus testual zabal batetan zaila da In vivo kodeen panoramika orokor bat eskaintzea, definizioz oso termino espezifikokoak eta idiosinkratikoak baitira, maiztasun txikia agertzen dutenak. Hori dela eta ez dugu In Vivo kodeen adin taldeen arabera laborpenik eskainiko.

#### 4.5.5. KODEKETA TEORIKOA (ZERGATIK)

Aurreko kodeketa guztietan neurri batetaraino ere honela den arren, kodeketa teorikoak bereziki eskatzen du ikerlariaren partehartzea subjektu bezala: behatu eta jasotakoaren azalpena osatzeko interpretazioa ezinbestekoa da. Zentzu horretan, eta Klaus Bruhn Jensenek jaso bezala, kodeketa teorikoak ikerketa kualitatibo osoarena

<sup>483</sup> In vivo kodeketari berari eta lan honetan berau burutzeko erabilitako irizpideei buruz gehiago jakiteko jo 4. Ataleko metodologiaren azalpena.




den izaera islatu eta laburtzen du: «ikerketa kualitatiboa bereizten duena interpretazioaren izaera unibertuala da ikerketa prozesu osoan zehar» (Jensen, 2012: 266). Bestela esanda, kodeketa teorikoan aurkitzen dugu ikerketa kualitatiboaren muina.

Robert Mertonek esana da maila ertaineko teoriek –hau da, teoria orobiltzaile edo dena azaltzea bilatzen ez duten azalpen teorikoek– ikerketa ariketa eta esparru teoriko abstraktuen arteko bitartekaritza lana burutzen dutela, prozesu eta testuiguru zehatzen azalpenak eskainiz (Merton, 1968: 39). Lan honetan kodeketa teorikoak helburu honi berori erantzun nahi izan dio, landa lanean bildutako kontakizunen eta abiapuntu teorikoan marraztutako esparruaren arteko artekaritza eta artikulazio lana burutuz.

QDA (Qualitative Data Analysis edo Datuen Azterketa Kualitatiboa) datuen azterketa kualitatiboaren ereduari jarraituz, kodeketa teorikoa ez da amaitutzat eman daitekeen prozesu lineal bat, etengabe berraztertu, berdefinitu eta berrantolatzen den ziklo bat baizik. 35. irudiak jasotzen duen bezala, kodeketa teorikoa ez da isolatutako fase bat, azterketa estrategia globalean txertatutako prozesu bat baizik

### 35. IRUDIA: QDA EREDUA ETA KODEKETA TEORIKOA



Iturria: norberak moldatua (Casasempere, 2012).


Kodeketa teorikoak alderaketa prozesu jarraia ahalbidetu eta eskatzen du, eta modu sistematikoan burutu behar da, ikerketaren ikuspegi eta estrategia metodologikoan integraturik (Lewins & Silver, 2007). Hala, kodeketa teorikoa azaldu ahal izateko bost fase ezberdinu eta azaldu behar ditugu. Ziklo prospektiboaren fasean, ATLAS.ti bezalako programa informatikoei ahalbidetzen dituzten tresna kuantitatibo eta automatikoak

erabiliz aurre-panoramika bat burutu da, geroko kodeketa zikloak gidatu edo orientatu dezaketen lehen auto-kodeketak eginez. Nolabaiteko esplorazioa egin da honela, termino klabe eta errepikakorretan oinarritutako lehen ekorketa bat.

Lehen zikloko kodeketan corpus testualaren lerroz-lerroko kodeketa egin da, hautatutako kodeketa estrategiak erabiliz (gure kasuan atributuzko kodeak, kode egituratzaileak, kode fokalizatuak eta In vivo kodeak), testuaren segmentu edo tarte esanguratsuak hautatuz eta memogintzaren bidez<sup>484</sup> kontzeptu eta terminoei buruzko oharrak jasoz, gerora berreskuratzeko moduan.

Bigarren zikloko kodeketan kodeketa teorikoan sartu gara beren-beregi: bertan aurretik erabilitako lehen zikloko kodeak familiatan elkartu, lehen protokategoriak osatu eta birkodeketa burutuko da hala behar den tokietan (adibidez «Teleberrixe» eta «teleberrixagaz» terminoa «Teleberri» kodearen baitan kokatuz, edo hiru terminoak «albistegiak» familiaren baitan multzokatuz). Kategorizazio lana aldi berean egin da, kategoria ezberdinak, hauen dimentsioak eta haien arteko harremanak zehaztuz.

### 36. IRUDIA: KODEKETA TEORIKOA: HARREMANAK, KATEGORIAK ETA KONTZEPTUAK



Iturria. norberak egina.

Kategorizazioaren baitan ere, etengabeko alderaketa prozesu bat ematen da: alde batetik kode, dokumentu, memo eta ikerlariaren esku dauden elementuen artean sortzen doazen harremanen gainean eraikitzen dira kategoriak, eta kategoria hauek oinarrituta osatzen ditu ikerlariak bere ekarpena izango den azalpen teorikoaren kontzeptuak (logika induktibo bati jarraituz, esanenezake). Baina bestetik, logika deduktibo bat ere ematen da aldi berean, kategoriek harremanak iradokitzen baituzte, eta azaleratzen doazen kontzeptu teorikoek eurek ere kategoriak iradokitzen dituzte etengabe. Teorikokiko kodetzea birkodetzea da ezinbestean, etengabeko alderaketa, birplanteamendua eta elementu ezberdinak birkonektatu eta birplanteatzea. Hartara, kodeketa teorikoak logika abduktiboa jarraitzen duela, eta are gehiago, behar duela diogu, QDA planteamendu klasikoaren baitan.


<sup>484</sup> Ikus «memogintza», kapitulu honetan bertan.

Azkenik, prozesu osoaren sintesia osatzen duen eredu teorikoaren eraikuntzaren fasea daukagu, kodeketa teorikoaren ondorio gisa ikus daitekeena, baina aldi berean azterketa eta interpretazio ziklo berberean integratzen dena, hurrengo prospekzio ziklo bat ahalbidetuz eta QDA ziklo berri bati hasiera emanez (bai corpus beraren gainean zein beste datu iturri batzuk bilatuta). Kodeketa teorikoaren eta 6. Kapituluaren aurkez-tuko den eredu esplikatio-interpretatiboaren oinarria azaltze aldera, triangulazioaren figura eta lan honetan jokatzeko duen papera azalduko ditugu hurrengo orrialdeetan.

#### 4.5.6. TRIANGULAZIOA ETA EREDU ESPLIKATIO-INTERPRETATIOA

Triangulazioa fenomeno beraren ikuspegi eta perspektiba ezberdinak erdiesteko estrategia orokorra da (Denzin, 1970) eta azterketa maila ezberdinetan funtzionatzen duten metodo anitzak erabiltzea eskatzen du, ondorioen gaineko konfidantza maila altuagoa lortzeko (Gerring, 2007). Orotara lan honetan bi triangulazio ezberdin burutu direla esan dezakegu: triangulazio metodologikoa (eztabaida talde eta sakoneko elkarriketak barne hartzen dituena) eta triangulazio interpretatiboa (edo triangulazio teorikoa). Lehenengoa bigarrenaren baitan kokatu daiteke (ikus 37. Iru-dia), eta haren oinarria osatzen du.

### 37. IRUDIA: TRIANGULAZIO INTERPRETATIOA: KASU AZTERKETAREN EREDU ESPLIKATIOA



Triangulazio metodologikoan, datu-iturri eta datu-multzo ezberdinak alderatu dira (eztabaida taldeak, sakoneko elkarrizketak eta parte-hartzaileen fitxa) ATLAS. ti azterketa kualitatiborako softwarea erabiliz. Honek kasu azterketaren laginketan irizpide ezberdinak artikulatzea eta perspektiba (ahozkoa, idatzizkoa, norbanakoa, taldekakoa...) aberastasuna ahalbidetu dizkigu<sup>485</sup>.

Triangulazio interpretatiboa aldiz kasu azterketaren eredu esplikatibo edo erai-kuntza teorikoari dagokio, eta aipatu triangulazio metodologikotik haratago doa. Datu iturri (kasu eta saioak ezberdinak)<sup>486</sup> eta ikerketa teknika ezberdinez gain<sup>487</sup>, aipuen maiztasun eta aldiberekotasuna<sup>488</sup> eta ikerlariaren bide-oharrak<sup>489</sup> ere hartzen ditu eredu esplikatiboaren oinarri. Triangulazio metodologikoan begirada deduktibo eta induktiboa uztartzen saiatu bagara, triangulazio teorikoak begirada abduktiboa hartzen du bere gain. Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak aztertzerako orduan bereziriki interesgarria da hurbilketa hau, ikergai den fenomenoaren konplexutasuna kontuan hartuta, batez ere lanaren hasieratik hiru erpineko hurbilketa integral baten alde egin denean<sup>490</sup>.

Iterazioa edo errepikapen ziklikoa triangulazioaren estuki lotuta dagoen kontzeptu bat da, eta zentzu horretan ere sintonia berezia agertzen du Datu Azterketa Kualitatiboarekin. Heidi Julienek jaso bezala, ikerketa kualitatiboan ikerlariak datuetatik eratorritako ondorioen konfidantza eta sinesgarritasuna azterketa iteratiboan bidez bilatzen du, adibide negatibo edo kontraesankorrak bilatuz eta baieztapenaren bila triangulazioaren bidez eginez, ondorioztatutakoari sostengua eskainiko dioten adibideak eskainiz (Julien, 2008).

Ibilbide honetan aurkitakoaren berri emango dugu ondorengo bi kapituluetan, kasuen kontzeptuzko analisisian eta eredu esplikatibo-interpretatiboan hurrenez hurren.

<sup>485</sup> Ikus «Teknika metodologikoak eta gidoia» atala.

<sup>486</sup> Ikus «Datu bilketa eta lagina» atala.

<sup>487</sup> Ikus «Teknika metodologikoa eta gidoia» atala.

<sup>488</sup> Ikus «Aldiberekotasun tresnak: aldiberekotasun esploratzailea eta aldiberekotasun taula» atala.


<sup>489</sup> Ikus «Bide-oharrak: memoak eta memogintza» atala.

<sup>490</sup> Ikus «Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu» atala 1, kapitulan.

## 4.6. LABURBILDUZ: HURRENGO KAPITULUAK ETA HIRU AZTERKETA-BEGIRADAK

Laugarren kapitulu honetan ikerketaren metodologia eta diseinua garatu ditugu, lanaren ikuspegi metodologiko orokorra lehenik, informazioa jaso eta lantzeko erabili diren tenika eta tresnak (bai gizarte ikerketakoak zein software espezializatuari dagozkionak) jarraian, eta informazioaren azterketa eta kodeketarako estrategia ezberdinak, amaitzeko. Puntu hauek argituta, lanaren abiapuntu metodologikoak lanaren atal enpirikoan izango duen isla praktikoa azaltzeko unea iritsi zaigu. Horretarako proposatu diren hiru azterketa-begiradek eta hauei lotutako kodeketa modu ezberdinek bostgarren eta seigarren kapituluetan izango duten lekua zehaztu behar da ezer baino lehen. Ondoko irudian bost eta seigarren kapituluak osatzen dituzten kasuen kontzeptuzko analisiaren eta eredu esplikatibo-interpretatiboaren oinarri diren hiru azterketa begiradak harremanean ikus daitezke:

### 38. IRUDIA: KASUEN KONTZEPTUZKO ANALISIA ETA EREDU INTERPRETATIBO/ESPLIKATIBO:AHIRU BEGIRADAK



Iturria. norberak egina.

Aurreko irudian ikus daitekeen bezala, bostgarren kapituluak osatzen duen kasuen kontzeptuzko analisiak *begirada deduktiboa* du oinarri. Haren baitan atribu-

tuzko kodeak, kode egituratzaileak eta kode fokalizatuak<sup>491</sup> erabili dira. Tradizio akademiko anglosaxoiean «theory driven» edo goitik beherakoa ere deitu izan zaio azterketa mota honi (Proctor & Capaldi, 2006: 41-42) parte-hartzaileen diskurtsoaren ikergai diren kontzeptuen arabera zerrendatuta eta antolatuta aurkezten baitira, haien inguruan (eta soilik haren inguruan) parte-hartzaileak emandako erantzunak jasotzeko gero.

Finean, azterketa-begirada honen bitartez ikerketaren ardura nagusiak parte-hartzaileekin sistematikoki alderatzea bilatu da, informazioa ahalik eta modu egituratu eta sintetikoenean aurkeztu ahal izateko. Kasuen kontzeptuzko analisiak aurkitutakoaren Aldia-Astia-Aisia eredu teorikoaren kategorien eta adin-taldeen araberrako deskribapen konparatiboa osatzen du. Parte-hartzaileek emandako informazioa *a priorizko* kategorietan aurkezten da, kode fokalizatuen arabera antolatuta. Hartara, alderagarritasun eta sistematikotasunean irabazten da, baina parte-hartzaileen ekarpenak eta kontzeptualizazioak ikertzailearen aurrez-aurretiko kategoria eta irizpideen menpe gelditzen dira uneoro, galdera-erantzunen dinamikari, eta aurretiaz definitutako kategoriei lotuta.

Seigarren kapituluak aldiz begirada edo arrazoibide induktibo eta abduktiboa barnebiltzen ditu kasu azterketaren eredu esplikatibo-interpretatiboan. *Begirada induktibo* batetatik «data driven» (Proctor & Capaldi, 2006: 42), edo behetik gorako lojika bat jarraitu da aurrez aurretik definitutako kategoriak beharrean landa-lanean zehar aurkitutako termino natiboetatik abiatutako *a posteriorizko* kodeketa, sailkapen eta kategorizazio prozesua burutuz. Hala, in vivo kodeen bidez, parte-hartzaileek eurek erabili dituzten terminoak eurek erabili dira eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketak etiketatzeko, ikerlariak aldeztu aurretik finkatutako kategoria eta galderei parte-hartzaileek nola erantzun dioten jaso beharrean. Ikertzailearen galdera eta gai zehatzei parte-hartzaile (eta adin-talde) ezberdinek nola erantzun dioten baino, parte-hartzaileek eurek erabilitako esapide eta berbak dira hemen aztergai, baita esapide eta berba hauek beste mintzazkideek erabilitakoekin agertzen dituzten berdintasun, lotura eta ezberdintasunak ere. Honek proposamen teorikoa eraikitzeko funtsezkoak izango diren gai eta termino natiboak biltzea ahalbidetu digu, landa laneko parte-hartzaileen euren hitzak eta esapideak hartuz kategoria teorikoen oinarri bezala.

Hurbilketa deduktibo eta induktiboaren artean, azterketa-begirada abduktiboa erabili dugu kodeketa teorikoa burutzeko, ikerlariaren aurrez-aurretiko kategoriak «behetik gora» eraikitako aurrekategoriekin alderatu eta, triangulazio interpretatiboaren bidez<sup>492</sup>, belaunaldi ezberdinen telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak

<sup>491</sup> Ikus 4. atalean «Azterketa eta kodeketa-estrategia globala».

<sup>492</sup> Ikus «Triangulazioa eta eredu esplikatibo-interpretatiboa» aurreko atalean.

azal ditzakeen eredu esplikatibo-interpretatiboa osatzeko. Azterketa eta kodeketa-estrategia globala azaltzerakoan aipatu bezala, deskribapen konparatzaileak ZER galderaren forma ezberdinei erantzun dio, 6. kapitulan proposatzen den ZERGATIK azaltzeko proposamenaren abiapuntua eskainiz. Hartara, begirada abduktiboa behatutako kasuen azalpenerako marko interpretatiboa eta hipotesi esplikatiboa eraikitzen bideratu ahal izan dugu.

... a somewhat difficult object, unstable, all over the place, tending derisively to escape anything we say about it: given the speed of its changes (in technology, economics, programming), its interminable flow (of images and sounds, their endlessly disappearing present), its quantitative everydayness (the very quality of his medium each and every day)...

Stephen Heath, *Representing Television*.



## V KAPITULUA.

### ADIN-TALDEEN KONTZEPTUZKO ANALISIA: DESKRIBAPEN ESTRUKTURAL-KONPARATIBOA

Kasuen kontzeptuzko analisia deitu diogun kapitulu honetan landa lanean Eztabaida Talde, Sakoneko elkarrizketa eta parte-hartzaileen galdetegen bidez bildutako informazioa jasotzen da, ahalik eta modu sintetiko eta egituratuenean. Horretarako jasotako adierazpen esanguratsuak era sistematikoan aurkezten dira, ikertzaileen galderak eta parte-hartzaileen erantzunak aldagai taldeen arabera kokatu eta adin-talde ezberdinen arteko aldeak eta berdintasunak agerian jartzea lehenetsiz.

Kontzeptuzko analisia burutzeko Aldia-Astia-Aisia ereduari jarraitu zaio, kasuen deskribapen estruktural-konparatiboa osatu arte. Horrela, kode fokalizatuak<sup>493</sup> erabili dira adin-talde ezberdinetako parte-hartzaileek emandako erantzunak jaso eta laburbiltzeko. Kodeketa fokalizatuak kasu ezberdinetan aurkitutako oinarritzko kontzeptuen deskribapena eta alderaketa hiru ardatz hauen inguruan burutzea ahalbidetu digu, eta aldizko, astizko eta aisiazko kontzeptuen inguruan adin-taldeek agertzen dituzten antzekotasun eta ezberdintasunak nagusiak jaso ahal izan dira.

#### 5.1. ALDIZKO KONTZEPTUAK

Aldia aisiazko zein beharrari lotutako jarduerak espazio eta denbora koordentuetan hartzen duten kokapenari dagokio<sup>494</sup>. Aldia ardatzak uneak, tarteak eta garaiak jasotzen ditu: praktika gertatzen den eta gauzatzen den denborak. Telebista ikustearren, telebistaren aurrean egotearen, telebistaren inguruan berba egitearen denborak jasotzen ditu bere aldaera objektibo eta subjektiboetan.

##### 5.1.1. IKUSTEN AL DUZU(E) TELEBISTARIK?: ZER ETA NOIZ

«Telebista bai/ez» azterketa kategoriak eman die sarrera eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketa guztiei, aurkezpen erronda modura taldeetan, eta behin aurkezpenak eginda izotza apurtzeko lehen galdera bezala elkarrizketetan. Bertan, telebista ikusten ote duten galdetu da, eta ikustekotan zer ikusten duten.

Gazteen artean, telebista ikustea ez da, oro har, zalantzan jartzen den zerbait; auresuposatzen den errealitate bat dirudi sarri. Hala ere, galderari bere horretan erantzuterakoan («ikusten al duzue telebistarik?») apenas dago baiezko edo ezezko

<sup>493</sup> Kode fokalizatuen eta landa lanean burututako galderen arteko harremanari buruzko azalpen osorako, jo 4. kapituluaren «Azterketa eta kodeketa-estrategia globala atalera».

<sup>494</sup> Ikus 1. kapituluaren «Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu» atala.

erantzun zuzenik hogeita hamabost urtetik beherakoen artean, eta baietz aitortzen denean ere, etxean fondoan egon ohi den zaratarekin identifikatzen da:

*DU 24 E: (...) gabetan bai ikusten dot telebistie eta gero etxien nauenien ba apur bat, hor fonduen edo egoten da, ba sukaldatzen nagonien eta, konpainia moduen.*

«Normalean ez» eta «normalean eguerdietan» bezalakoak agertzen dira, baita «gero eta gutxiago» edo «oso gutxi» bezalako adierazpideak ere, telebista zein baldintza zehatzetan ikusi ohi duten zehazteko joerarekin. Kasu bat berezia da, beste etxeetan bakarrik ikusten baitu telebista (erabaki egin zuen telebista bere etxetik kentzea, denbora gehiegi kentzen zion eta). Zentzu horretan eztabaida berehala mugitzen da edukietara eta telebista ikusten den uneetara, hau da, «zein telebista» ikusten duten, eta «noiz» ikusten duten zehaztera. Edukien artean telesailak aipatzen dira, orokorrean (eta Simpsondarrak, sarri), futbola, albistegiak (Teleberria), eta des-konektatzeko «kokolokeriak».

*AL 30 E: Nik egunero bebai ikusten dot. Asteburuetan pelikulak gehienbat eta gauetan edozein kokolokeri, pentsa ereiten ez dauena. (...) Kokolokeriak gauetan. Gauetan deskonektetako. Ahiztak hori ez deu ulertuten baina nik eiten dotena da «klak». Adios, ez dot ezer pentsetan.*

«Kokolokeri» hauek garrantzia handia dute gazte batzuen artean, batez ere lonjan ikusten (eta komentatzen) denaren gehienago osatzen baitute, bai mutilen eta baita nesken kasuan ere. Galderari erantzuteko bigarren modu zabalduena telebista «noiz», zein momentutan ikusten den adieraztea da, telebista ikustearen jarduera eguneko momentu zehatzekin edo eguneroko jardunarekin lotuz, eta argiro kokatuz du telebista ikustea eguneroko jardunaren baitan.

Baietz diote, baita, ikusten dutela telebista, Helduak 1 taldearen baitan elkarriketatutako pertsonak. Maiztasuna (egunero, ia-egunero, asteburuetan...), kantitatea (edo ordu kopurua) eta gustuko edukiak (pelikulak, serieak, dokumentalak, albistegiak, kirolak...) dira gehien aipatzen diren elementuak erantzuterako orduan. Orokorrean, telebista ikusten ote duten galdetzerakoan, telebista *noiz* ikusten duten eta telebistan *zer* ikusten duten erantzuten dute adin talde honetako parte harzailleek:

*BI 47 E: Telebisinue ikusi ikusten dot, eta igual... ordu txu batzuk emoten dodazela esango neuke. Ez dekot holan ordutegi finkorik egunen barruan, baia arrastien batez bere ikusten dot, arrasti-gauera. (...).*

*BI 49 E: (...) ez dakit esan egunero edo ia-ia egunero ikusten dot telebista. Ikustekotan astean zehar holan eh zortziretatik aurrera, edo. Tartetxo baten, eta inoiz afaldu ostean. Ez beti. Eta gero asteburuetan nik esango nuke gehiago ikusten dodala, bai. Arratsalde eta gabian berebai. Luzau bebai batzutan, ta hola.*

Telebista ikustea mugatu edo baldintzatzen duten beste hiru elementu agertzen dira argi eta garbi talde honetan: umeak (batez ere txikiak direnean), lana eta beste

alternatiba teknologikoak. Umeek eragin handia dute adin-talde honetan, telebista ikusterako orduan. Ez bakarrik umeek eurek ikusten duten programazioa ere sarri haiek ere ikusten dutelako (maitatu ala gorroto) baita haien telebistarekiko jarrera ere baldintzatzen dutelako, ez soilik umeen jarduna zuzentzeko, baizik eta eredu egoki bat emateko ere (telebista arrisku bezala somatzen da umeentzat).

Lanaldiak ere telebista ikustea baldintzatzen du, batez ere iluntze-aldera ikusi ohi dena (gehiena), ordurako nekea igartzen baita, eta ez baita posible berandura arte irauten duten saioak jarraitzea. Ez soilik lanak, telebistaren inguruko teknologiek eragina dute telebista ikusi ala ez ikusi aukeratzeko orduan, sarri alternatiba erakargarriagoak aurkitzen baitira «bestelako pantailetan».

Zenbat telebista eta noiz ikusten duten kontatzea izan da erantzunik ohikoena Helduak 2 adin-taldean: noiz gehiago, noiz gutxiago, eta batzuetan programazio zehatzarekin lotuta (argi lotzen dira programak eta haien denbora-tarteak). Afalostea, eta ohera joan aurreko tarteak dira gehien aipatzen diren tarteak, baita asteburuak ere:

*LE 55 G: Bai, bai, ikusten dot, bai. Ez askorik, zeren eta azken batez, badakizu, heltzen zara etxera lana amaitu eta gero ta, normalean, ba bai, zati batzuk eta gero asteburutan, ba bueno, ba bai, baina askorik ez, ez dakit, epe normal baten.*

*LE 57 G: (...) astelehenetik barixakura Teleberrixa ikusten dot eta denporia, zapatutan arratsaldian eh... zeozer, pelikulan bat edo badago, eta domeketan ba arratsalde osua praktikamente, ba, bueno, sofán etzunda egoten nazelako ba... pelikulak gehixenbat.*

Edukiei dagokienez albistegiak, pelikulak, dokumentalak eta kirol-emanaldiak (batez ere gizonezkoen artean) eta telesail edo serieak (batez ere emakumezkoen artean) aipatzen dira gehien, baita zapping egitea ere, ikusteko ezer berezirik ez dagoenean. Aldiz kritikiko agertzen dira reality-ekiko, batez ere Gran Hermanorekiko, eta gazteek hauekiko duten zaletasunagatik harridura agertzen dute. Telebista ikustea lo-kuluxka bat botatzeko aitzakia edo tarte bezala ikustea ere ohikoa da adin-talde honetan, baita aldi berean egunkaria irakurtzeko ere. Piztuta dagoen telebistaren aurrean egotea, eserita, lasai, zerbait irakurtzen edo begiratzen egoteko tartearekin lotzen da hala:

*MU 56 G: (...) telebista, egia esanda, gitxi ikusten dot, baia bueno, danatarikoa, en general gehien zek engantxetan, ba deporteak, ziklismo, eta partidutxue badau, haixe. Teleberrien zati bet, periodikuek batera dala, ba telebista ikusten dot, hori da detalle bat ezta? Normalez periodikua irakurtzen dot gaubean, eta gaubean, ba, telebisinue biztute dagoela, ba «de reojo» gauza biek eiten.*

Azkenik, Nagusiak adin-taldean erabatekoa eta berehalakoa da telebista ikusi egiten dutenaren onarpena eta adierazpena. Batez ere edukiekin identifikatzen da telebista ikustearen jarduera: kirolak, eztabaida-saioak (debatiek) eta albistegiak («telediarioak» edo «partiek») dira aipatuenak. Telebista ikusteko tartetean aldiz eguerdiak eta gaua aipatzen dira gehien:

AU 74 E: (...) Partiek batezbe, bai, eta gero horrezaz aparte ba, beste gauza batzuk be ikusten dire. Oin, nik neu gehixen ikusten dotena hori da. Zelan egoten dan eguerdixen ta gabien, geuk be bazkaldu ta afaldu eitten dogun sasoi en orduntxe gehixen ikusten dotena.(...)

AU 71 G: Nik e, bastante txupetot (barreak) Bastante ikusteot. Telediarixuk, horrek seguru, deportiek bebai, gero Goenkale barriz e, derrigor ikusi bida (barreak). Ha ikusi barik ezin lei egon. Ya behin hartuz gero, zein da...

AU 85 E: Drogie

AU 71 G: (Barrez) Drogie be ez dot probatu, baina antzeran esango neuke.

Interesgarria da ikustea kasu guztietan telebista ikusten dutela erantzun arren, batzuetan errezeloz hartzen dela telebista. Bereiztu egiten da norberak ikusi nahi dituen edo gustoko dituen edukien, eta txartzat hartzen diren edo gustoko ez diren edukien artean, batez ere bestelako aisiazko jarduerak aukeran daudenean. Telebistatik ikusten ote duten galdetuta erantzun orokorra baiezkoa bada ere, bat baino gehiago dira jarraian «baina» bat gehitzen diotenak, ikuste honen nondik eta norakoen inguruan nabardurak emateko:

AU 74 E: (...) Gero horrezaz aparte holan tira ta tirau eitten dozten gauze apartekorik... ez. Badago, ikusten dot, baina bestela ez. Bestela ez. Nahixau izeten dot harei begire egon barik e, konbersazinotarako... gustaten ez jaten pelikule batzuk badauz, honek tiro...tirokuk eta, ez zatez bape gustetan. Baperez, ez ez. Nahixau dot neure gustoko liburu bat edo hartu eta hasi, irakurri, alde handik eta irakurri hoixe.

### 5.1.2. TELEBISTA EGUNEROKO JARDUNEAN: TELEBISTAREN TARTEAK

Telebista ikustek denbora eskatzen du, aisiazko edozein jarduerak bezala denborazko koordenatu batzuk ditu, ezinbestez. «Telebistaren denborak» kode fokalizatuekin adin talde ezberdinen eguneroko bizitzan telebistak hartzen dituen tarte eta aldi hauek aztertu dira.

Oro har, elkarriketatutako gazteek ohitura argiak identifikatu dituzte telebista ikusteko tarteei dagokienez. Tarte hauek oro har telebista ikustearekin batera egiten diren jarduerekin (bazkaldu, afaldu, lonjan egon) edo aurretik edo atzetik egin diren jarduerekin (liburutegitik bueltan) lotzen dira, edo bestela telebistako edukiekin (Mujeres y Hombres, Los Simpson, Teleberri, El hormiguero...). Bazkalordua eta gaua aipatzen dira batez ere telebista beren-beregi ikusteko tarte nagusi bezala, eta tarte hauetatik kanpo telebista gehiago hartzen da fondoko zarata bat bezala.

MU 21 E: Bueno, ni jaten nauenean bere bai Teleberrie dago ipinite pero, de fondo moduan.

MU 25 G: Nik eguerditan Los Simpson eta holan. (...) Nik afalduten.

MU 21 E b: Ba ez. Nik eguardietan, Mujeres y Hombres. (BARRE).

*MU 21 E b: Ba lonjara ailegatan garenean hiruretan edo, eta hiruretatik (BARREZ) goazenera arte, eta gero gauean hamabitara arte edo.*

Edozelan ere, telebista ikusteko tarteak batez ere behin eguneko jarduerak amaituta, arratsalde eta gau partean kontzentratzen dira, eta norberaren (eta inguruko) telebista ikusteko denbora tarteak, aldi berean, programazioaren interesarekin ere lotzen dira. Jakitun dira gaueko *prime time*-ean programa erakargarriak kokatzen direnaz. Zenbait kasutan, eguneko momentuak baino gehiago telebista ikusteko denborak gehiago bereizten dira urtaro eta eguraldiaren arabera, eta ez hainbeste egunaren momentuaren arabera:

*BI 29 E: Uden, ganera ni kostakoa naz, hondartzie bertan dekot, da ahal dotan dantan aprobetxau eitxen dot edo... bai, beti nau kalien uden. Orduen ez dekot astirik berez ikusteko. Da... aprobetxa zeinke kirola eitxeko... beste mile aukera dekozuz. Negen eurixe bada, hotz bada ta... bueno, igual gehixau ikusten dot. Denbora gehixau ematenzu etxien normalien, da...*

Helduak 1 adin taldeko pertsona asko gurasoak dira, eta hori berehala azaleratzen da telebistarekiko harremani buruz hitz egiterakoan. Umeak oheratu osteko denbora da orokorrean gurasoen telebistarako denbora, eta atsedean eta erlaxatzeko tarte bezala hartzen da telebistaren aurrean igarotzen dena. Baita loak hartzeko tresna bezala ere, sarri. Umeen ohiturak aldatzen direnean (udan adibidez, beranduago oheratzen direnean) honek eragin zuzena du gurasoen telebista-ikusteko ohituretan.

*BE 40 E: lehen gaztiagoak izan garezenien ikusten zendun ba... denporaren edo zer bat, eta orain ya ume txikixekaz eta, normalien geure denporie da hori, eurek oheratzen direzenien, tarte hori no? Apurtxu bet errelajaten zarena edo...*

*BE 37 E: Eta udien hori bez. Ze normalien berandutxuau joaten direz ohire, ta orduan berandurarte salan daz eurak ikusten. Bueno, nire umiek ondino txikixek diz orduen gitxi gora behera ordu bardenen juten diez ohera.*

Hala ere argi bereizten dute da telebista piztearen eta telebista ikusten jartzearen artean. Sarri telebista piztea ekintza automatikoa, ohiturazkoa bezala azaltzen da, etxera heltzean edo sukaldara sartzeaz bat egiten dena. Telebista ikusteak, beren-be-regi horretara jartzeak, lan-egunaren amaiera ere markatzen du, atsedean hartu eta erlaxatzeko tarte. Eta gainera atsedean-denboraldi horretan edukia gustukoa denean, gozamina askoz handiagoa izaten dela aipatzen da:

*BI 50 E: Ba esate baterako neguan domeketan, bazkalostean gustoko peli bat, niretzako hori da... gozamina. Eta gauetan gustatzen zait serieren batekin engantxatuta egote. (...) Eta hori da gehien gustatzen zaidana. Nigatik eukiko nuke egunero horrelako gauza bat. Ez daukat, baina... (barre). Oso-oso relajantea da niretzat istoriatxo hori jarraitzea...*

Edukiak berak ere baldintzatu dezake telebista ikusteko denbora, alde batetik eguneroko albistegiek –eguneroko errutinaren parte osatuz etxeko ordutegiak eurek

artikulatzera jotzen dutelarik– baina baita fikzioak berak ere, telesaillekiko zaletasuna garatzen denean:

*LA 40 G: Aitortu behar dut azken urte hauetan, azken bi urte hauetan ahalegina egin dudala astelehen eta asteartean Goenkale ikusteko, hau da, ahalegin bat, esan nahi dut, hori ikustera goaz. Lehenago asko ikusten nuen, asko edo, maiz ikusten nuen Intermedio ere bai, La Sextan, orain ere, bueno, ez programa osoa, baina...*

Kasu batetan telebistaren hiru denbora ezberdin argi eta garbi bereizten dira Helduak 1 taldean: umeen denbora (6 eta 8 urtekoak) zeinek egunean zehar ikus dezaketen telebista, bikotearena, zeinek behin umeak oheratutakoan hartzen duen tarte bat, eta familia osoarena, zinema etxean prestatzen dutenean. Hirugarren aukera hau ohiko errutinatik bereizten da, aurretiazko prestaketa eta aukeraketa denbora bat eskatzen baitu, eta ondorengo elkarrizketa eta jolasa ere bideratzen baitira ikusitako filmaren inguruan. Kasu atipikoa izanagatik (Helduak 2 taldeko bikote batek bakarrik aipatzen du antzerako jarduera bat), adierazgarria da oso, erabat aldatzen baitu telebistak (norberak programatutakoak, kasu honetan halakoetan egunerokoan hartzen duen paperagatik:

*BI 39 G: (...) umeak lotara joaten direnean, edo ya afaldu ostean, ba ya haientzat telea murriztuta dagola eta orduan ikusten dogu edo albisteak edo ez dakit, bueno, nire emaztea eta biok aukeratutako zeozer edo... hor daukagu momentu bat. Eta gero, beste hirugarren momentu bat izango litzateke egiten dogunean, noizean behin egiten dogu iharduera antzeko bat, dala zinema etxean. Aukeratzen dogu danon artean filme bat, prestatzen dogu holan eskulan bat, prestatzen doguz sarrerak, egiten doguz krispetak...*

Eguneko zein momentutan eta asteko zein egunetan ikusi ohi duten erantzutea da arruntena Helduak 2 adin-taldearen barruan (arratsalde-gabaz, zapatu arratsaldean...), baina etxean egoterekin (eta neguarekin) ere lotzen da batez ere. Baita siesta botatzeko aukera bezala ere, telebista piztuta izatearen denbora eta telebista ikustearena bereiztuz. Hala ere gaua identifikatzen da telebistaren denbora nagusia bezala.

*LE 52 E: Ba asteburutan, bueno, gure etxian asteburutan telebisinua dago egun santu guztian, baina da...*

*LE 59 G: (...) piztuta egoten da baina guk, nik pentsaten dot gure etxian ama hor egoten dalako, etxien telebista ikusten, ba guk bestela...*

*SA 52 G b: Neguan, lehen esan dudana bezala. Gauza bat da telebista aurrean egotea eta beste bat ikustea...*

Albistegien orduak errespetatu egiten dituzte oro har («Teleberrixe sagraua da»), baita telenobelak ere («arratsaldeko nobela»), ikusten direnean. Ikusiko denaren inguruan eztabaidarik egotekotan, seme-alabek ordenagailura alde egin ohi dute. Orokorrean asteburuak aipatzen dira telebista ikusteko tarte bezala. Sukaldean aritzeko gailu bezala ere aipatzen da telebista, baita bazkalostean eta afaltzerakoan ikusten den zerbait bezala hartuta:

SA 56 E: *Ni afaria prestatzen ari naiz bitartean. Hori, da bederatzitan edo, edo zortzi terdieten pizten dut telebista eta...Sukaldean, sukaldean, bai. Eta hor, ez aspertzeko, eta gero ya, bueno, pues ikusten dut hori Teleberri eta hori, eta Teleberri eta gero, nola deitzen den? Intermedio.*

Orduaren eta ohituren arabera (goizetan altxatzean, bazkalorduan, afalostean...) zein programa interesgarri egon daitekeen ere kokatzen dute, eta kate zehatzak (*Sexta 3, Paramount Channel*) identifikatzen dira egunaren momentu zehatzekin:

SA 53 G: *Goizean altxatzen naizenean pizten dut ikusteko informatiboa, eguerdian bazkaltzen dudana bitartean normalki ikusten ditut bigarren kanalan botatzen dituzten hori, dokumentalak. Askotan begiratzen dut, baina zapping egiten, eh... Sexta 3 eta orain dagoen kanal berri bat, nola deitzen da?*

SA 56 E: *Paramount.*

SA 53 G: *Paramount Channel. Eta ahal bada egunero begiratzen dut informazioa zerbait interesgarria dagoenean, ikusteko, posible bada eta etxean banago.*

Programazioak berak familiaren jardueran eta ordutegietan eragina izan dezaka, elkarrekin saio bat ikusteko zaletasuna pizten denan. Halako zaletasun orokor bat dagoenean, telesailak familia mailan, eta futbol partidoak lagunartean, afalorduko ordutegiak eta ondoren ikusiko dena planifikatu egiten dira:

MU 56 E: *El mentalista edo zerozer programa badau, orduan goaz danak. Edo afaldu egiten badou lehelau, igual bai bagauz pentsaten gaur hau dau, orduan lehelau, edo hori bai in dogu inoiz, esan gura dot, horretaz bai afaldu lehelau, eta berandu bagara zoezegatik ba orduan ba igual jaten dogu afarie bertan (...) edo partidua, honek diñon moduan, ba partiduan, baina danak...*

Amaitzeko, eguerdia, arratsaldea eta gaua dira gehien aipatzen diren telebista ikusteko tarteak nagusien artean. Edozelan ere, adin talde honetan telebista sarri egun osoan piztuta egoten dela ere aipatzen da, beste adin-taldeetan ez bezala. Nagusien adin-taldean, egoitzan ez dauden gizonezkoek sarri aipatzen dute haien inguruko emakumeek telebista egun osoan piztuta izateko ohitura dutela.

AU 71 G: *Gurean alabak etxen dauzenien izetu da ba... ohera juten garenean amatau eiten da.*

AU 67 G: *Bai bai bai, ez, gurien be holan egoten da eh? Anaie... umiek badauz harek bebai eta amatau barik lez egoten da, esateko moduen. Oin... neuri ba... nik elektrodo-mestiko bat edo zer bat kendu behar izan ezker lehenengo kenduko neukena da.*

Orokorrean adin-talde honetan telebista denbora gehiago piztuta edukitzeko joera somatzen da, etxean egotea eta telebista piztuta izatea bat etortzeraino. Hala ere arratsaldea eta gaua agertzen dira telebista ikusteko tarte nagusi bezala, behin egunero betebeharrak amaituta.

AU 85 E: *Arrasti eta gaba.*

AU 85 E: *Gabaz beti. Nik eguerdixen be beti ipintten dot La Sexta edo*

AU 77 G: *Eberdixen be geurien egoten da...*

SA 56 E: *Bai. Haxe da ordue ta!*

Bereziki agertzen da joera hau etxeko andreen kasuan, eta laztasun handiagoz alargundutako pertsonenean:

LEZ 67 E: *Bai, baina bueno... atsaldetan. Eta geubetan lagunduten dozte... ba hori, laguntasune. Igual gauze dekot iminde, baina ikusi barik. Ze, pentsaten dot lagune dekotela. Ze lagune, galdute... badakizu lagune hori, galdu egin dotelez ta... pentsaten dot batenbat dau nigaz eta orduen eukiten dot biztute.*

Eduki mailan batez ere magazinak (*Ana Rosa, Ni Más ni Menos*), eztabaida saioak edo «alkahueterixek» (*Sálvame*), lehiaketak (*Pasapalabra*) eta telesailak (*Amar en Tiempos Revueltos*) lotzen dira ordutegiarekin, eguneroko ohituretan txertatuta.

### 5.1.3. TELEBISTAREN NEURRIA: ASKOTIK GUTXIRA

Asko edo gutxi, parte-hartzaile guztiek hartzen edo jasotzen dute telebista haien egunerokoan. Zenbat baina, beste kontu bat da. «Telebista kantitatea» azterketa kategoriaren bidez telebista ikustearen neurri erlatibo eta subjektibo ezberdinak jaso dira: lehen baino gehiago, gutxiago, zerekin (edo norekin) alderatuta...

Ikusten duten telebista kantitateari buruz galdetzean, gazteek lau erantzun mota eman dituzte: oro har kantitateari buruz duten pertzepzioa (asko, gutxi...), pertzepzio hau egituratzen duten faktoreak (non eta noiz, batez ere), konparatiboki iraganean ikusten zuten telebista kantitatearekiko alderaketa (gutxiago, gehiago...) eta «hainbeste» telebista ikustearen arrazoiak (batez ere ohitura eta asperdura). Asko-gutxi terminoen inguruan eztabaidatxoa ageri da, adibidez. Internetekiko erabilerarekin alderatuz ere kokatzen eta nerutzen dute baita telebista kantitatea:

AL 34 G *Nik uste dut interneten eraginez gero eta gutxiago ikusten dugula Ez daukat daturik baina nik uste dut batez ere gazteen artean joera hori izango dela. (...) Bai, baina igual oin dela bost, hamar urte baino gutxiago. Ez dakit eh? Internetek daukan bentaja da iragarkirik ez dagoela. Eta zuk zeuk aukeratzen duzula zer ikusi.*

DU 24 E: *Igual pelixak eta dokumentalak, bajatu eta telebistan ikusi beharrian itxoin zeozer urtetei, ba bajatzen zara edo eta ordenadorin... oin uste dot gehixau.*

*Telebista gehien ikusten dutela aitortu arren jarduera honi buruz duten iritzi pobreaki buruz galdetuta, ohitura eta alternatiba falta aipatzen dira batez ere.*

MU 20 E: *Kostunbrea da.*

MU 21 E: *Ez dau beste zereginik berez.*

MU 21 E B: *Afaldu eta gero, por ejemplo, ze ingozu? Ohera joan hamarretan? Edo ordenadorera edo telebisiñura zoaz.*



Subjektiboki kokatuta, telebista ikusteari ematen zaion garrantzia txikia da beste aisiazko jarduera batzuekin alderatuta, eta telebistari eskaintzen zaion denbora objektiboki txikiagoa da burutzen diren bestelako aisiazko jarduerak ugariagoak diren kasuetan:

*BI 29 E: Ba ez dakitx, oin dekot sensazinoa egune gehixau aprobetxetan dala beste gauze batzuk eitxen... Ba hori ya enaz bizi gurasoen etxien, da egunaro noa gurasoen etxera... da gehixau tardetan dot berebai, da... orduen ya horrek limitetan dotzu denbora gehixau emoteko zeran aurrien... orain igual kirol gehixau eitten dot kontzientzieta zauzelako... edade kontue bere izengo da ez? Ez dakitx... Lehen gehixau ikusten neuen. Oin ikusten dot gehixau dala alperrik galdutie apur bet eh... da ez gauze interesanterik ez dauelako eh? Egongo da, da seguramente pareu ezkerro ikusten ba... ez dot pentzetan eh zazarra baino ez dauenik telebisinoan, ezta pentza berez. Baina ez, enau erakarten.*

Umeek, eta bizitza estiloak berak, telebista gutxiago ikustera eramán dituztenaren sentazioa adierazten dute orokorrean Helduak 1 adin-taldearen baitan elkarriketatutako pertsonen. Telebistaren kalitate eta interes maila eskasa ere aipatzen da, baina askoz gehiago norberaren asti falta, telebista «gutxiago» edo «hainbeste ez» ikusteko arrazoi bezala:

*BE 40 E: Gitxiau, bai baina igual esan dogunagaittik batez ere, umiengaittik.*

*BE 40 E b. Ni enai akordaten noiz ikusi doten pelikule oso bat zapatu gau baten... ez bakarrik telebistan, DVDn edo bidixuen... ez dot eh... enai akordaten.*

*BE 37 E: Nik dakotez pilo bat bajatute, eta ez dot ikusi...*

*BE 37 G: Ez doguz ikusi...*

Telebista gutxiago ikustea eta informazioaren kontsumorako bestelako ohiturak hartzearen arteko lotura ere esplizituki azaltzen da kasuren batean, bai norbanakoaren mailan eta ingurukoekin batera telebistarekiko harremanetan:

*MUS 47 G: Bai, beitu (tableta erakutsiz) tableta, ta... kontsumo... ez dakit topikoa den, baina kontsumo, informazio kontsumo ohiturak aldatzen ari dira. Nire kasuan bai, argi eta garbi (...) igual umeak badauka eskuetan mugikorra eta nik hori, tableta irakurtzeko edo entzuteko edo beste gauza batzuk egiteko. Gero eta gutxiago ikusten dugu elkarregaz telebista. Igual programa bereziren bat, baina ez, normalean gitxi.*

Era berean distantziazio handiagoa sentitzen da telebistarekiko iragandako garai batzuekin alderatuta, eta bestelako alternatibak eskura edukitzea ere aipatzen da. Egunerokoan erabiltzen diren hedabide ezberdinak zenbat eta gehiago izan, orduan eta telebista gutxiago ikusten dela aipatzen da adin talde honetan.

*LA 40 G: Informatiboekiko kezka hori edo, ba gaur egun nolabait asetutako daukadan, iturri horiek edo informazio horiek asetuta dauzkagu ya egunaren... Niri orain galdetzen badidazu zer ordutan den Teleberriren informatiboa, ez dakit zer ordutan*

*den, eta lehen badakit ikusten nituelako batzutan albistegi bera euskaraz lehenengo eta gaztelaniaz, eta hori.*

Bestetik, telebista beste garai batzuetan baino gutxiago ikustearen sentsazioa behin baino gehiago aipatzen da Helduak 2 adin-taldearen baitan. Badaude saio batzuk interesaz jarraitzen direnak, baina telebistaren garrantzia lehen baino txikiagoa dela somatzen dela diote parte-hartzaile askok. Badira erreferentziazkoak diren saio batzuk, batez ere albistegiak, eta telesail zehatz batzuk, baina telebista oro har gutxiago ikustearen sentsazioa sarri plazaratzen da:

*LE 54 E: Ez, nik esango neuke nik gitxiau. Asko gitxiau. Asko gitxiau, nik, niri on programa gitxik engatxaten nabe, ba horixen, El conquistador del fin del mundo, batez hori, ba aste guztixan igual horixen egoten naiz itxoten. Hori badakit domeketan dana. Bste guztiak, ba igual Toledo edo izan dana, ba igual nekixan martitzenetan dala, baina beste egunetan esan zer dagon eta ez neuke esango zer programa dago. Teleberri bai, Teleberri hori orduan bai, informatiboa, baina beste guztixetan, ez.*

Bestalde, adin-talde bereko beste pertsona batzuek aldiz orain lehen baino denbora gehiago pasatzen dutela susmatzen dute, kate-aukera handiagoa dagoelako, batetik bestera eginez, ezer berezirik ikusi gabe:

*SA 52 G: Pues nik ez dakit, nik igual konturatu gabe baino denbora gehiago ematen dudala, uste dut, telebista aurrean, ba kate ezberdinak daudelako, gero igual pasatzen duzu denbora gehiena hor zapping egiten, baina denbora, ezer ikusi gabe...*

*SA 52 G b: Baina gauza bat da telebista ikustea eta beste gauza bat da telebistan aurrean egotea. (...) nik batzutan, ezer egin barik, askotan eta bost minutu, eta me cago en la puta, aldatu egin behar duzu, eta bestea...*

Saio batzuk, *Sálvame*, *Gran Hermano* eta abar interes gutxikotzat eta iraingarritzat ere hartzen dira, telebista ez ikusteko arrazoi izateraino batzuentzat. Hala ere beste batzuentzat, hauen kalitatea zalantzan jarri arren, oraindik ere interesgarriak dira noiz behinka ikusteko. Etxean denbora gehiago ematen duten pertsonak, etxe-ko andreek adibidez, telebistaren aurrean emateko denbora gehiago dute, eta joera handiagoa agertzen dute saio hauek ikusteko etxetik kanpo lan egiten dutenek baino.

Bukatzeko, telebista gaur egun ikusi arren, «lehen hobe» zenaren sentsazioa, iraganeko telebistarekiko nolabaiteko nostalgia asko ageri da Nagusiak adin-taldearen baitan, eta egungo saio askorekiko (*El conquistador del Aconcagua* adibidez) kritikoa agertzen dira, bertan darabilten hizkera zatarra dela eta. Pelikulen eskaintza orain zabalagoa dela onartu arren, orduko «bakeradak» faltan botatzen dituzte, batez ere gizonezkoek:

*AU 71 G: Gero pelikuletan nik be topetan dot... lehen egoten zien pelikule elegantiek, pelikula honek e bakeradak eta mexikanuen pelikulek eta... danetara. Batien ez bada bestien beti zenkon... gaur ez dekozu holako pelikularik! Ointxe be...*

Adinekoen egoitzan dauden parte hartzaileen kasuan telebista asko ikusten dutela aitortzen dute, sarri beste alternatibarik ere ez dagoelako. Egunerokotasunaren zati garrantzitsua hartzen du telebistak, egoitzan, eguraldiaren eta unean-uneko jardueren arabera soilik eteten den jarraitutasuna. Beti telebistari begira egon ezin dela ere aitortzen da hala ere:

*BI 88 G: Bai, telebisinue... beti telebisinuen. (barre) Nun egongo gaittuk ba... hantxe! Hantxe, telebisinuen emoten jot denborie!*

*BI 75 G: Gero, kanpora paseoa joan, ordubete... Gero... jan, da gero siestia bota...*

*BI 88 G: Ibili be ein bi da ta... ibili be in bi da, beti ez gara egongo telebisinoari begire!*

Beste kasu batzuetan, batez ere gizonezkoen kasuan, bestelako aisiazko edo esku-lanarekin lotutako jarduera batzuetarako aukera dagoenean (baserriko lanak, mekanikagintza...) nahiago izaten dira hauek telebista baino. Hala ere telebistaren kate berrietan aukera interesgarriak aurkitu dituzte, kirolak eta dokumentalak adibidez, eta *La ruleta de la Fortuna* bezalako lehiaketek eurek gauza berriak ikasteko («ilus-treue eitten zara») balio dezaketela uste dute:

*AU 77 G: Nik, neutzako deportiek eukin ezketino bestiok ez dotziet sekule inportantzirik emon. (...) Esku-biherragaz gehixau entreteniduten naz. Mekanikie be ba, asko useu delez, mekanikan da burdine mugiduten... ha ta bestie soldetan... hau eta beste ortuen edo... entretenidu gehixau, da paseo bat ein, telebisinuen baino arinau entreteniduten naz e... deportie ez bada e? Deportie ez bada, bestiok e...*

#### 5.1.4. TELEBISTAREN LEKUAK: TELEBISTEN ESPAZIOAK

«Telebistaren tokiak» kode fokalizatuak etxean telebistak edo telebistek okupatzen dituzten espazioen inguruan galdetzea izan du xede, baita etxetik kanpo telebista ikustearekin identifikatzen diren lekuen inguruan ere.

Telebistak kokapen fisiko tradizional indartsua du elkarriketatutako gazteen artean: etxeko egongelan gutxienez, beti dago. Eta egongelan ez jartzeko aukera planteatu denetan ere, berehala gailendu da egongelan telebista egon beharraren aldeko jarrera. Naturala, zalantzan ere jarri ezina dirudi neurri batean erabakiak («ipini biko da, ez?»). Beheko suaren ideia ere jasotzen da, haren inguruan etxekoak biltzeko gaitasuna duen elementu zentrala:

*DU 24 G D: Ba salan. (...) Bai, ba azken batean, es que, eta egoten zea edozen etxera ta dekazu korro baten(...) azken batien jendie egoten dan lekuen, erdixen dau bera, zenbat, eta leku gehixenetan holan da. (...) Eta kentzen dozu hori eta nora gauz begire, hormara? (...) lehen beheko suen inguruen montetan zabien, lehen beko sure egoten ziren begire.*

Hain da indartsua joera hau ezen etxe berri batetara joan eta bertako altzarien banaketa erabakitzeko aukera izanda ere, telebistak bere tokia mantentzeko gaita-

suna agertzen duen gazteen esanetan. Hasiera batean zalantzan jarri arren, errealitatea egoskorra da:

*DU 21 E: Es que hori imajinau etxe bat, independente egoten zaela, telebisinue ipiniko zendun sala erdixen oin be bai? Nik igual ez.*

*DU 24 E: Nik hori planteau neban baina zelan euki ginun telebistie, ba ya ipini bi zan. (...)zelan batek ya euki eban telebista, esaten dozu, bueno, ipini biko da, ez? Aunke ez dogu ikusten asko, baina...*

Lonjetako telebistak ere modu naturalean ulertzen dira, lonjako telebistak etxe-koak ez beste funtzio sozial bat betetzen duelako, lagunekin. Lonjako giroaren eta espazioaren parte da piztutako telebista:

*MU 20 E: Ze lonjan zauz ikusten baina batera zaoz igual komentaten edo no sé qué, eta etxean zaoz ikusten zu bakarrik eta...*

Oro har oso erantzun homogeenak jaso dira telebistaren tokien inguruan, gazteen artean: telebistaren «tokia» egongela da. Egongelako «beheko sua». Bestelako tokiak, norbere gelako telebista eta abar ez dira aipatzen galdera honi erantzutean. Gazte batek ironikoki ihardesten du telebista ganbaran duela, kendu egin baitzuen. Bere egunerokotasunetik telebista kentzeko, fisikoki ganbarara mugitu baitzuen. Zentzu horretan, telebistak gazteen eguneroko espazioetan okupatzen duen tokia eta haien egunerokotasunean okupatzen duena paraleloak direla esateko argudioak daudela esan dezakegu.

Helduak 1 taldean aukaldea («eskatza»), egongela («sala») eta logelak dira aipatzen diren telebistaren kokapen nagusiak. Txokoa eta taberna ere bai, baina askoz gutxiago. Ikusi nahi den edukiaren arabera etxe-koak telebista (eta gela) ezberdinetara joatea ere ohikoa da. Horrenbeste ezen sarri telebista bakoitzak bere «jabea» duen: sukaldekoa amarena, salakoa umeena...

*BE 40 E: Guk etxien... nik adibidez ikusten dot gehixenez kozinen eta neure gelan.*

*BE 40 E b: Nik eskatza, baina salan.*

*BE 37 E: Nik neure gelan.*

*MODERATZAILEA: Osea banatuta dekozuez? Bata honentzako da ta bestie honentzako edo..*

*BE 40 E: Bai. Tristie da baina bai.*

*BE 41 E: Ba ixex-ixex bai. Ze ganera Clan ganera, nire umiek Clan ikusten dabie ta telebisino gutxitetan ez dator Clan. Ta orduen eh esaten dot, «juen neure gelara ikusten Clan»...*

Ez da hala ere beti hori kasua. Etxe batzuetan telebista bakarra dago, eta elkarrekin ikusiko dena negoziatu egiten da, eta erabilera ezberdinak alternatzen dira. Telebistak egongelarekin duen lotura fisiko eta ohiturazkoa ere oso garrantzitsua da kasu hauetan:

*LE 53 E b: Guk bakarrik daukagu salan, bat bakarria daukagu eta bertan ikusten dogu danok, da askotan eh... bueno igez igual gehixau ez? Ados ipini behar ginan, zer ikusi., Orduan eh... bakotzak egun bat eukan aukeratzeko.*

*LA 40 G: egia da telebista dagoen gela dela espazio lasaiena, sofa daukana eta. Egia da, ere bai, sofa horrek gustora egoteko bi pertsonentzako lekua daukala eta lau gabela, eta etxeko txikiak daudenean beraiek okupatzen dutela espazio hori. Eta orduan gure telebista uneak dira beraiek lotara joan eta gero, (...) leku bakarria daukagu etxean, hori egia da.*

Sukaldean dauden telebisten kasuan bat datoz bi emakume, bertan norbait dagoen artean beti piztuta egoten denean, ikusi ala ez. Interesgarria da baita ikustea nola telebista berri, handi eta onenen kokapenak sarri ez duen gehien ikusten den telebista aparailua izatea ziurtatzen. Sarri, kokapenak eta erabilerak bestela banatzen dira:

*BE 41 E: Bat ez dogu ikusten bez. Handixena eta hobien ikusten dana... Bat kozinen, bestie saloien, hobierna da, barrixena da, ta ez du ikusten.*

*BE 37 G: Handixena da, hobien ikusten dana, eta ez dogu ikusten.*

*BE 41 E: Gero kutriena da gure gelakue eta da ikusten dogune. Eta gero... salita.*

*BE 37 G: Eta gero beste sala txiki baten... hori erabiltzen dogu.*

Beste kasu batean aldiz argiro azaltzen da etxean telebista ezberdinak izatearen eguneroko esperientzia. Beste telebista batetara, hau da, etxeko beste gela batetara joatea norberaren edukiak aukeratu ahal izateko, eta finean telebistarekin lotutako norberaren aisiazko hautuak egiteko bide bihurtzen da:

*MUS 47 G: Zu egongelan bazauz beraiek nahi dute sukaldera joan, eta beti... ordun gu biok, bikotea afaltzen ari garen bitartean nerabeak badoaz egongelara eta gero kontrakoa ez? (BARREZ) Zergatik? Ba ez dakit, nik gustokoa dut informatiboak eta beraiek ez, edo marrazki bizidunak edo kirolak edo bueno, gazteentzako gauzak.*

Aukera berria delako, aipatzekoa da baita kasu batean portatilera konektatutako TDT gailu baten bidez telebista egongelatik bikotearekin batera ohera ere eramatearen ohitura aipatzen dela. Telebista hortaz jada ez dago erabat lotuta bere jatorrizko kokapenera, eramangarria ere bada:

*BI 39 G: Portatila etxean erosi genuenetik bai joaten gara noizean behin... ba, tarteka eh? Emaztea eta biok joaten gara portatilagaz ohera. Eta portatilean deukogu holan eh adaptadore bat TDTa ikusteko, ta orduan ba batzutan igual egongelan telea ikusten zezozer gustatu jakula ta ba, nekatuta gauz, osea, entxufatzen dugu hori eta bagoaz ohera.*

Helduak 2 adin-taldeko partaideek ere telebista, oro har, etxean ikusten dute. Egongelan eta sukaldean, batez ere. Hemen ere, batez ere emakumeen artean, sukaldeko telebista piztuta mantentzeko ohitura aipatzen da, bai haien kasuan eta bai aurreko belaunaldietan ere. Gurasoekin bizi diren adin-talde honetako pertsonak behin

baino gehiago aipatzen dute telebista apenas ez itzaltzeko joera (sukaldekoa, egongelakoa...) eta pertsona nagusiak dauden lekuetan beti telebista piztuta edukitzearena:

*LE 54 E: Guk salan, bat daukagulako bakarrik eta orduan juten gara bazkaldu eta gero.*

*LE 59 G: Guk gehixen bat sukaldian, gero trankil, ba hor lanean egoten da, igual, edo trankil bazaoz, ba salara, baina gehixen bat sukaldean. Gure etxian, sukaldian.*

*LE 52 E: Bai, baina sukaldian, ba badinotzut, dalako hantxen dago eta hantxen dago denbora guztian martxan, martxan, eta nik askotan asko be lasaiago ikusten dot. Eskatzian, normalian, ba badiñotzut gure amak eukitten dau, nik ez dakitt konpaini modura edo dana dala, egun guztia eukiten dau piztuta.*

Nagusien ustez ere telebista etxean ikusten den zerbait da. Etxetik kanpo zerbait ikustekotan, futbol-partidak aipatzen dira, tabernan. Sukaldean askok (batez ere emakumeek), eta egongelan ere bai. Telebista bat baino gehiago daukatenen kasuan aipatzen da inoiz norbaitek zerbait ikusi nahi ez duenean, edo beste zerbait ikusi nahi duenean alde egiten duela bigarren edo hirugarren telebistara. Logelako («kuartoko») telebista beti ere erabilera horrekin lotuta ageri da, egongela edo sukaldea okupatuta dagoenean erabiltzen den bigarren aukera bezala.

Telebista bat baino gehiago dagoen etxeetan, berriro ere azaleratzen da zaletasun eta interesaren arabera norbera lekuz aldatzea, ikusi nahi duena ikusteko, baita etxe-ko gela ezberdinetako telebistak pertsonekin lotzea ere:

*AU 67 G: Bai bai, inoz gurin be eh... andriek alde eitten deu gurin be inoz, eh? Ba, ez dakit, zeozer ikusten bada nire anaie edo... berak beste zeozer interesen badauko igual kuartora joaten da apur baten.*

*AU 85 E: Bai, hori geuk be ein dogu.*

*AU 77 G: Andrie programa bat ikusten badau nik be ba, kuartuen ikusten dot deportie.*

*AU 85 E: Gure gizonak be futbola gure izeten deu ba...*

### 5.1.5. TELEBISTAKO KATEAK: ERREFERENTZIAZKO KANALAK

«Zein telebista?» aldagaiaren azpian ikusi ohi diren telebista kateengatik galdetu zaie parte-hartzaileei, telebistako eduki zehatzei buruz baino,. Gogoko eta gorroto diren kateak, ohituraz gehien ikusten direnak, urrutiko agintean programatutakoak, Lurrazaleko Telebista Digitalak ekarri dituen kate eta aukera berriekiko iritzia...

Gazteek, zentzu horretan, lehenetsun eta iritzi ezberdinak agertzen dituzte egun Lurrazaleko Telebista Digitalaren bidez eskaintzen dituen kate anitzen aurrean. Batzuek «denak nahi dituzte», aukera zabala azpimarratuz. Beste batzuk kritikagoak dira, eta kanal ugaritasunak ez duela kalitatea ez eta eduki interesgarriak aurkitu ahal izatea bermatzen salatzen dute.

*MU 25 G: Nik danatariko gurot, ETB, Cuatro ta Antena 3 ta danak. (...) Bueno, gero dauzenak GOLTV eta horrek bebai. (...) Bai. Horrek hamen, lonjan.*

*MU 20 E: ETB2 eta Telecinco nik. (...) Bueno, eta Discovery eta horrek.*

*DU 24 G a: Dira kanal gehiago baina contenido txarra da hori, o sea, ez dau kanal bat holan, ez dabe hobetu, o sea, sistemie edo, o sea, in dabiena da hori, kanal gehiau ipini baina kaka gehiau sartu, orduen azkenien esaten dozu, dauz hogeita hamar mile kanal, bale, baina...*

Kanalekiko lehenasunean dagokionez ere denetarik aurkitzen da, eta zuzenean lotzen dira kanalak eduki mota, eta telebista mota ezberdinetara. *Hamaika Telebista* eta *Telecinco* adibidez bi eredu ia-kontrajarri bezala eztabaidatzen dira:

*DU 21 E: Bueno Hamaika telebista adibidez nahiko ondo dago, egoten dia debatiek eta holan, nik ikusi ikusten dot.*

*DU 24 G b: Nik ez deukot ohitturerik ikusteko.*

*DU 21 E: Bai, baina hori, kanal batzuk badauz ta azkenian gu gara ipintten dogunek Telecinco eta... ikusi al doguzela beste gauza batzuk eta gu be bai...*

Hala ere azpimarratzekoa da kalitate edo eredu aldetik kate batzuri beste batzuri baino prestigio handiagoa ematen zaien arren, parte-hartzaileek eurek onartuta honen ez duela harreman zuzenik benetan egunerokoan ikusten denarekin:

*AL 21 E: Bai, baina hori, kanal batzuk badauz ta azkenian gu gara ipintten dogunek Telecinco eta... ikusi al doguzela beste gauza batzuk eta gu be bai...*

Telebistarekiko interes edo zaletasun berezirik agertzen ez duten pertsonen kasuan ere, onartzen da zenbait kate beste batzuk baino gehiago ikusteko –edo behintzat sintonizatzeko– joera handiagoa. Hala, urrutiko agintea programatzea nolabait telebistarekiko harremana ere programatzea dela aitortzen da kasuren batean:

*BI 29 E: Hombre, azkenien programetan dozunien beti imintzenzuz aurretik gehixen ikustenzuzenak ez? Baina nire kasuen eske... eske ikusi bere ez dot eitxen (barre). Baie... normalien, bueno, normalien berez, baina gehixen ikusten dotena igual da ETB2ko Teleberrixe, da... da gero igual pelikuleren bat edo...*

Kateen programazioa internetetik jaitsitako edukiekin osatzeko aukera ere ageri da, zerbait konkretua ikustekotan. Bestelakoan, ezer berezirik ikusteko asmorik izan ezean, zapping-ak hartzen du indarra:

*BI 29 E: Ah, normalien zapping eitxen dot. (barre) Bai. Bueno, normalien pelikulek ikusten dotez, disko duroan dekotez grabeta da bertatik. Badauen batan bat ba hori, badinotzut, neguen igual zauzela etxien ta dinozu, ez dekot gogorik urtetako, da... ba igual bai. Ba tipiko ETB2koak o Antena 3 edo Telecinco noño horrek... Loak hartze-ko... baie ostantzien... da bai, ikusten dotezenien telebisinoan zapping eitxen dot. Bai.*

Helduak 1 taldearen baitan telebista kateen inguruko ezagutza eta jarioetasuna nabaritzen da. *Euskal Telebista* (batez ere ETB2), *Antena 3*, *Telecinco*, *Cuatro*, *Divinity*, *La 7* eta *Bilbosport* kateak aipatzen dira esplizituki. Interesgarria bezain kezagarria

da euskarazko kateak ikusterako orduan zailtasunak aipatzen direla adin-talde hone-tako euskaldun zaharren artean, euskaraz alfabetatu gabekoen artean:

*BE 40 E: ETB1 Beitu, nik por ejemplo ezin dot ikusi... ta tristie da eh? Pelikula bat euskeraz. Inoiz bez. Bakarrik umiegaz por ejemplo, umiegaz ikusi dot pelikulen bat umiena, baie pelikule bat euskeraz... ez dot ikusi.*

*BE 40 E b: Neuk bez, neuk bez.*

*BE 37 E: Jo, ba nik... pilo bat ikusi dot..*

Zapping-a asko aipatzen da, kate zehatzak baino kateen artean ibiltzearen ideia-rekin lotuta, nahiz eta kate aniztasuna ez den inola ere kalitatezko edo intereseko edukiarekin lotzen («gehixau eta ezebez»):

*BE 40 E b: Zapping asko eitxen dot.*

*BE 40 E: Neskak igual gauxe gehixau ikustenguz, no?*

*BE 40 E b: Gehixau eta ezebez!*

*BE 40 E: Gehixau eta ezebez.*

Beste kasu batean ere kate ugaritasunari ez zaio garrantzia handirik ematen. Dagoena dago telebistan, eta kate aniztasunak ez du bermatzen intereseko zerbait aurkituko denik.

*MUS 47 G: ... guk adibidez ez daukagu kablerik, euskaltel eta holakorik, gero TDT azkenengo aldaketekin ba hainbat kanal galdu ditugu eta bueno, ba «qué le vamos a hacer», da... Ta noiz behinka hori, zapeatzen ari zarela eta ikusten ah beitu, hau interesgarria da... baina gero eta gitxiago, batez be ez dakit, ikusi dudalako oso begirune gutxi daukatelako gurekiko ez?*

Helduak 2 taldean, kate ezberdinak aipatzen dira (*Telecinco, TeleBilbao, Hamaika Telebista, 28 katea...*), baina, batez ere, albistegien neutraltasun eta profesionaltasun faltatik abiatuta *Euskal Telebistaren* inguruan egituratzen da partaide askoren jarduna: telebista publikoaren funtzioa, albistegak eta kontestu falta, euskalduntzea... Eusko Jaurlaritzako gobernu aldaketak *ETBko* albistegietan izan duen eraginarekin kritiko agertzen diren arren, euskal telebistari euskalduntze prozesuan funtzio zentrala aitortzen diote, bai iraganean eta baita gaur egun ere.

*SA 57 E: Baina ETBk asko egin du euskararen alde, eh? Nire ustez, hori, zure amak esaten duena, eta gero, hizkuntza finkatzen. Hasieran euskaldun horren diferente telebista berberaren aurrean, agian gauza batzuk txarrerako izan da, ze batzuk diote, «hori ez da gure euskerie» edo...*

*SA 52 G: Lehen, orain nik uste dut ya normalizatu dela, egin du lan handi bat...*

*SA 52 G b: Nire emaztearen amonak... erdia ez zuen entenditzen, erderaz ez zekien, ez zekien erderaz...*



SA 50 E: *Nire gurasoak euskaldunak dira eta ikusten dute telebista, eta ez bakarrik ikusi, erabili!*

Nagusien adin taldean ere Euskal Telebista aipatzen da erreferentziazkotzat («ETB uno» eta «ETB, etxekoa» esaten zaio). Zapping-a ere aipatzen da, zaletasun bezala, eta telebista ikusteko modu bezala:

BI 88 G b: *Kanal eh... kanalak danak niri gusteu! Je, danak gustetan jatez eta! Telebistinu dana gustora ikusten dot. Gehixen partiduek.*

BI 83 E: *Da pelota.*

BI 88 G b: *Mandue dekot te, manduez da da da da...*

*Euskal telebista, Telecinco, Antena 3 eta Televisión Española («nazionala») oro har ondo identifikatzen dira kate bezala, baina hauetaz gain eta hortik kanpo saioak (Sálvame, «pilota partiduak»...) edo saioetako gidariak eurek («Argiñano», «Klaudio»...) dira erreferentziazkoak batez ere adin talde honetan. Lekeitioko sakoneko elkarrizketa batek urrutiko mandoaren programazioaren eta kateen zerrenda argigarrria eskaintzen du:*

LE 78 E: *Bai, digitala. Ez daukat nik pasata hori Euskaltelik. Euskaltelegaz hartzen dozuz... nik daukatenak be nahiko dire nitzako. Euskal Telebista Bat, bi, euskal herrikua, bi, hiru be euskera. Lau, erdera, euskal telebista. Bata, badakizu, nazionala. gero bi, egoten direz paisajik eta, fauna eta dokumentalak....*

#### 5.1.6. TELEBISTA ETA LAGUNTASUNA: TELEBISTAREN KONPAINIA

Telebista «Konpainia» kontzeptuarekin estu lotuta ageri den kontzeptua da. Alde batetik sarri etxeko edo lagunaren konpainian ikusi ohi delako, ez bakarrik; eta bestetik berak ere konpainia eta laguntasuna (errealia edo simulatua, hala sumatzen dena) eskaintzen duelako. Bi adiera hauek esploratu dira azterketa kategorian honen bidez:

Telebista lonjan lagunekin edo bakarrik ikusten den zerbait da gazte askorentzat. Gurasoekin saio konkretu batzuk ikusten dira, *Teleberri* adibidez. Gazteek ikusi nahi duten edukia gurasoen gustokoa ez denean beste toki batetara, beste telebista batetara joateko aukera sarri aipatzen da, eta hartara gurasoek telebista elkarrekin ikusten dute gela batean, eta eurek beste batean, bakarrik. Beste toki batetara joateko aukerak, gainera, edukiaren gainean negoziatu behar ez izatea dakar :

MU 20 E: *Nik aitagaz koinzididuten badot, berak gure deuen. (BARRE).*

DU 24 G A: *(...) nik uste dut eguarditan ikusten dot programa hori, horrek esan duen Mujeres y hombres hori (BARREZ), beti ikusten dot nik be bai ta gurasoei ez jake gustetan, ez jake gustetan, ganera bronkie botaten doztie, orduen sartzen naz sala txikixen eta hor ikusten dot, ez jakelako gustetan programa...*

Bakarrik edo lagunduta telebista ikustearen aukera sarri edukiaren araberakoa izaten da, baina baita konpainiaren beraren, eguneko momentuaren eta egoeraren araberakoa ere. Edozelan ere, aukeratzen diren edukiak, telebista ikusteko har-tzen den jarrera eta oro har telebista ikustearen esperientzia ezberdinak izaten dira konpainiaren arabera:

*DU 24 G B: (...) nik behintzat eberdixetan bai ikusten dot igual familixaz telebisino, gero atsaldien edo gabe partien etxian ibiltzen banaz, normalien nire familixek ikusten dauena ez jate gustetan, orduen ba, nik pentsaten dot bakarrik ikusten dodala gabetan telebisinue.*

*DU 24 E: Ni lagunegaz bizi naz da gabetan aprobetzetan dogu ba peli bat edo ikusteko batera edo, o sea, gabekoa ya da gauza komune... ta gero ya eguardixetan da bakarrik, egoten nazenien, bakarrik.*

*DU 24 G A: (...) beste batzutan da sin más, lagunekin zauzela ta ba goazen zeozer ikusten, baina ez zauz deskantzetako, ba zauz peli bat ikusten ba entretenimiento moduen.*

Telebistak jendea batu edo banatu egiten ote duen galdetuta, erantzun konplexuak ematen dituzte. Oro har hartuta, telebistak jendea (lagunak, familia) aldi berean elkartu eta banatzeko gaitasuna duela uste dute. «Segun» eta «depende» dira gehien azaltzen diren adierazpideak:

*MU 25 G: Bff... Depende, es que depende nor ikusten dauen eta zer ikusten dauen.*

*MU 21 E: Ikusteko eran batu, berba iteko eran, banatu.*

*MU 25 G: Biek apur bet.*

Etxean bakarrik egoterakoan telebistak egiten duen konpainiari (azterketa kategoriaren bigarren adiera horretan) ere garrantzia ematen zaio. Telebistak «konpainia antzeko bat» eskaintzen du, halakoetan, bakardadea ez sentitzeko modu bat. Inguruan jendea dagoenean «zarata hori» ez da hain beharrezkoa, baina bakarrik egotekotan, telebistaren presentzia hori, konpainia hori eskertu egiten da:

*BI 29 E: (...) Edo dau biztute, nire etxien lez, baina etzo inok kasorik eitxen. Da nire etxien edo mutilegaz edo mutile ez dauenien ba neuk bakarrik... bai. Normalien telebisinoa ikusten nauenien egixe da beti nauela beste zeozer etxen. (...) Baia behintzet hori zaratie dekozu.*

Helduak 1 adin taldearen ohituren adierazgarria da telebista ikusi-ikusi, etxeko denekin ikusten dutela adierazten dutela. Etxean bakarrik egotea gutxiagotan gertatu ohi zaie, eta egonda ikusten telebista piztuta dagoenean beste zerbaitetan ere badabiltza aldi berean (etxeko lanekin, hurrengo eguneko klaseak prestatzen...). Telebista bakarrik ikustekotan, bereziki gustokoa den zerbait dagoelako izan ohi da. Bestalde, batzuetan telebista gurasoekin ikusteak umeentzat balio berezia duela ere aipatzen dute:

*BE 40 E b: Ikusi-ikusi, danakaz.*

BE 37 G: *Nire semiek neugaz gure dau ikusi partidue. Ez dakit zergaittik.*

BE 41 E: *Segun eta zer, deportiek beragaz gure dauz ikusi.*

BE 37 G: *Eta ganera gustetan jakie pilo bat, nire ondoan jartzie eta ikustie pilo bat gustetan jakie. Bixeri. Domeka honetan adibidez «orderdi dekozue ikusteko nigaz», jartzen die eta gustaten jake...*

Kirola adibidez, telebistaren inguruan familia eta lagunak elkartzeko aitzakia eta arrazoi bezala ikusten da. Baita *El Conquistador del Fin del Mundo* bezalako realityak ere, familiako kideren bat edo batzuk zaletzen direnean. Zentzu horretan gazteen adin taldea baino malguagoak dira edukia aukeratzeko orduan, familia osoak zerbait elkarrekin ikusteko aukera dagoenean:

BE 37 E: *Ba guk por ejemplo futbola neure aitxen etxien ikusten dogu beti. Ze biak bizi diez, ta futbola famili guztixek ikusten du. Osea... Athleticen partidue dauenien...*

BE 37 G: *Guri, famili moduen elkartu eitzen gaittu. Domekatan partidue dau eta «etorriko zarie etxera ta ez dakit zer». ta orduen eh afaltzen dogu, jan, ikusten dogu danok... Bueno, Athletic dauzeneko jesarten zarie bebai ikusten... Normalien eh... pelikula bategaz ez zien etorriko.*

Telebista bikotearekin batera ikustea da ohikoena Helduak 2 taldean, familia osoak elkarregaz ikustea baino askoz ohikoagoa. Denek batera ikusteko oso gauza konkretua izan behar du, beren-beregi aukeratutako filme bat, denek jarraitzen duten saio bat (*Mihiluze* adibidez)...

Telebista bat baino gehiago duten etxeetan argi eta garbi agertzen da eduki ezberdinak ikusi nahi izatekotan gela ezberdinetara joateko joera. Gainera telebista bakarra egoten zen garaia nolabaiteko nostalgiaz gogoratzen da, ikusiko zena erabakitzerako orduan ados jartzen ziren aro bat gogoratzen baitute. Telebista, zentzu horretan, familia bana dezakeen elementu negatibo gisa ere ikusten dute batzuek («el intruso»), eta telebista bat gaino gehiago izatea eta kate aukera handiagoa izatea arrisku bezala ikusten dute, bereziki gazteen artean:

LE 52 E: *Klaro, eta zenbat telebisiñu gehiau be bai, ze klaro, ba horixe, etxien telebisiñu asko eukitxa banandu eitten da. Gurean be pasaten jaku, eta orduan goixan (...) -ek be daukolez telebisinoia, ados ez bada ipintzen, ba esan, «ah, ba ni gora noia», eta orduan gora eskapaten da.*

MU 55 E: *Ez, alabak batzutan izeten da, ganera, alboan egon dittezan, txokoan izaten da, ze kanbia iten bazu, gure kanala, guri gustaten dakon kanala badau, ensegida doaz etxera, ospa. Eta orduan aguanta egin behar da apur bet gure bazu alboan euki (BARRE).*

Kasuren batean aipatzen da, familian egoteagatik edukiaren gaineko kontrolari muzin egiten zaiola («semeari uzten diot mandoa, gitxienez alboan egoteko», «aguantau ein behar»...) Aurreko adin-taldean ere gertatzen den bezala. Hala ere

enteresgarria da azpimarratzea telebista gailuek eta gazteekin ez ezik ordenagailuek eurek adin-talde honetako parte-hartzaileen artean ere «beste telebista» horren funtzioa betetzen dutela, eurek zer bait berezia ikusi nahi dutenean, edo beste norbait telebistan ikusten ari dena ikusi nahi ez dutenean:

*LE 54 E: Nik bakarrik nauenian bai juten naiz ordenadorera eta igual programa hori, ba adibidez Puente Viejo ikusteko ikusteko, baina bestelan...*

*LE 52 E: (...)pilo bat gustaten jakon, eta orduan haxe nahi izeten eban, eta niri ipintzen uztan, baina urduri horrek, eta orduan esaten nabean «bale, zuretzako, ni banoia», eta orduan juten nintzen ordenagailura.*

Adin talde honetan ere telebistak egiten duen konpainia sarri azpimarratzen da, etxean bakarrik egoterakoan:

*LE 54 E: Neu bakarrik nago etxian da konpainia halantxerik, ba hantxe zeuzer entzuten dotena gauzak halakuak, da nau etxeko gauzak eitten, hori.*

Nagusien adin taldean ere telebista bat baino gehiago daukaten etxeetan bakoitzak bere edukiak aukeratzeko joera ageri da, baita etxeko espazio zehatz batzuk eta bertan dauden telebistak etxeko kide zehatzekin lotzekoa ere (kuartue, eskatza...):

*AU 67 G: Bai bai, inoz gurin be eh... andriek alde eitten deu gurin be inoz, eh? Ba, ez dakit, zeozer ikusten bada nire anaie edo... berak beste zeozer interesen badauko igual kuartora joaten da apur baten.*

*AU 85 E: Bai, hori geuk be ein dogu.*

*AU 77 G: Andrie programa bat ikusten badau nik be ba, kuartuen ikusten dot deportie.*

*AU 85 E: Gure gizonak be futbola gure izeten deu ba...*

*AU 74 E: Bai ba.*

*AU 85 E: Derrigor futbola edo pelotie edo...*

*AU 85 E: Oin, eskatzekua neurie izan bi leuke ezta?*

Egoitzan elkarrizketatutako parte-hartzaileen kasuan ere, gehienek norbere gelan telebista bat daukate, eta hortaz egongela komunikatibitate alderantzian egin eta bertan bakarrik ikusteko aukera. Besteekin batera ikusterakoan sarri norberaren aukera ez dena onartu behar izaten dute, eta «ixilik egon biher» norberak ikusi nahi duena ikusi ezinda ere. Alde horretatik bakarrik ikustea erosoagoa da, ez baita inorekin ezer adostu beharrik. Baina aldi berean kritiko agertzen dira norberak berea bere gelatik ikusteko joeraren aurrean, eta joera hau aldi berean euskaldunen betiko ezaugarritzat eta egun etxe bakoitzean telebista bat baino gehiago joerarekin lotzen dute:

*BI 75 G: Euskaldunek diferente... lehen ikusten zan telebisinon inguruen... oin daku danak kuartuen, da kuartuen... bakotzak berie. Kanbieu...*

*MODERATZAILEA: Ta zelan da hobeto, zuen ustez, bakotzak berie ikustie gure deuenien, edo erabaki danon artien...*

BI 83 E: *A pelo ein biher...*

BI 75 G: *Bakarrik hobeto.*

MODERATZAILEA: *Bakarrik hobeto? Problema gitxiau?*

BI 75 G: *Ba klaro...*

BI 88 G: *Indibidualak gara, euskaldunek bakizu... norbere leku txarra da... Ez da egixe ala?*

### 5.1.7. TELEBISTAREKIN BATERA: ALDIBEREKO JARDUERAK

Aurretik ere ikusi dugun legez telebista ikustearen jarduerak denbora eta espazioa okupatzen baditu ere, honek ez du esan nahi inolaz ere jarduera eskusiboa denik. «Aldibereko jarduerak» ahalbidetu eta sarri bultzatzen ditu adin ezberdinetako partaideen artean

Gazteen artean adibidez oso ohikoa da elkarrizketatutako telebistaren aurrean beste zerbaitetan aritzea, eta sarri telebista «fondoan» edo atzealdean dagoen zerbait bezala hartzen da. Telebista «ikusteaz» batera, aldi berean egiten diren jardueren artean ordenagailuarekin ibiltzea, irakurtzea, janaria prestatzea, bazkaldu eta afaltzea eta lagunekin txateatzea (ordenagailu zein eskuko telefonoaren bidez) aipatzen dira besteak beste.

DU 24 G A: *Es que nik gauza bixek ikusten dodaz batera, nik eukitten dot ordenadorea aurrien ta telebistie atzien ba konpainia egiteko.*

DU 24 E: *Ba adibidez serieren bat edo ba jarraitzen dotela banau, bai, banau, baina askotan ikusten da telebista dagoela baino nauela edo berba eitten, edo ordenagailuen, edo irakurten.*

Albistegiak izan ohi dira horretarako aukera, sarri gurasoek jartzeko ohitura izaten baitute, eta egunerokoaren ohituraren parte bilakatzen dira, zeinen gainean norbere intereseko jarduerak bateragarri bihurtzen diren, oro har naturaltasun osoz:

MU 21 E: *Bueno, ni jaten nauenean bere bai Teleberrie dago ipinite pero, de fondo moduan.*

MU 25 G: *Nik afalduten.*

MU 21 E B: *Nik teleberriegaz bai, afalduten (...) Ni ordenadoragaz batera egoten naz.*

MU 25 G: *Ni be bai, ordenadoragaz batera, bai.*

MU 20 E: *Ba telebisiñue piztuta dau a todo momento, baina al gara egon beste gauza bat eiten.*

Irratia zein telebista zentzu horretan atzealdean dagoen «zarata» horren sinonimo bilaka daitezke, bata zein beste, ezberdintasun handiegirik egin gabe. Kasuren batean gainera irratia telebistaren bidez (LTD bidez) sintonizatzen da, unearen arabera:

*BI 29 E: Jan, bueno, afaldu. Bezkaldu ez. Ez. Afaldu, ta beti berez eh? Baie sarritxen bai. Bueno, gero badinotzut, sarritxen leidu berebai. Ordenadoran ibili berebai... (...) Bueno, plantxie igual bai. Plantxie bai telebisinoagaz. Baie ostantzien radixoa imintzen dot, bai, telebisinoan.*

Ezberdintasun nabarmenagoak ageri dira, aldiz, Helduak 1 adin-taldearen barruan, telebistaren aurrean egiten diren edo egiten ez diren aldi bereko ekintzekiko. Pertsona batzuek ohitura handia dute etxeko lanak (plantxa, bazkaria, harrikoa) zein hurrengo eguneko lanen prestakuntza telebista piztuta burutzeko, beste batzuek ez; batzuk irakurri egiten dute telebistaren aurrean (egunkaria, aldizkariak zein liburua) beste batzuek ez... Kasu batzuetan azpimarratu egiten da telebista beren-be-regi ikusteko pizten dela, ez beste ezer egiteko aldi berean.

*BE 40 E b: Nik dana. Plantxie, jatekue... Kuartuek eta eitxen naueniko ha telebisinoa igual biztute egongo da, baina ni enau ikusten... Baie eskatzen naueniko, normalin plantxie. Plantxie edo jatekue. Edo harrikue bebai. Azkenien ez zauz ikusten, baina dako zu zaratie.*

*BE 37 G: Nik egunen baten hurrengo eguneko lanak apurtxu bet begiratu eta erre-pasatu... Batezbe errepassau zer ingo dozun hurrengo egunien eta apurtxu bet ikusi, apurtxu bet antolatu hori ba... gogoratu, begiratu...*

*BE 37 E: Ba nik ez dot eitxen ezer. Ni telebisinoa ikusten banau telebisinoa ikusten nau (barre)...*

*BE 40 G: Neu bebai!*

Parte-hartzaile batzuek ez dute telebista ikustea bere-horretan ulertzen, aldi berean beste zerbait ere egiteko baitarabilte beti. Beste batzuek ordea telebista beste zeregin zehatz batekin batera ikustea eguneroko «erritual» bezala ulertzen dute, biak ala biak aldi berean eginda. Bereiztu egiten da hala ere telebista piztuta egin daitezkeen gauzen (jan, gauza arinak irakurri...) eta ezin daitezkeen artean («ikasi bi doten zeozer banau leiduten hor ez dot biztuten telebisinorik»).

*BI 43 E: Edozer gauza. Osea nik, telebisinon aurrien jesartzie bakarrik telebisinoa ikusteko, inoz bez. Beti hartzen dot zeozer. Edo errebistie, edo zeozer josteko edo... beti nau zeozer eitten. Halan jesarri, ikusten? Nik inoz bez.*

*BI 39 G B: Nik igual noiz-behinka hori, irakurri baina, ez dakit, eskaneatu, osea, apur bat... begiratu eta... argazkiren bat edo holan...*

*BE 40 E: Neure kasuen, leiduten badoten egunkarixe edo rebiste bat, de estas revistas del corazón edo... ez dazte inporta telebisinoa eukitzie biztute, baia liburu bat banau leiduten edo neuk ikasi bi doten zeozer banau leiduten hor ez dot biztuten telebisinorik.*

Beste ezer baino gehiago, ohitura kontua dela azpimarratzen dute adin-talde honetan: dela etxetik alde zurretik jaso, edo norberak egunerokotasunean garatutakoa. Kasu batetan aipatzen da telebista internetera sarbidea ematen duen gailuren

batekin (tablet-arekin) batera ikusten dela, ikusten ari denari buruzko informazioa bilatzeko:

*MUS 47 G: (...)Ba igual hori, badekozu bost minutu ta jesartzen naz ta badut hor telebista piztuta eta hori, ba blogak irakurtzen edo... Noizbehinka, noizbehinka bebai igual ikusten duzu zeozer, telebistan entzuten duzu zeozer, ez dakizu zer den... ikusten ari zarela jotzen duzu Wikipediara, ba ez dakit, hori nor zen edo holako... ez dakit, holako gauzak egitea ez?*

Helduak 2 taldean ere oso ohikoa da telebista ikustea beste jarduera batzurekin batera gertatzea; bazkaltzea eta afaltzea batez ere, baina baita etxeko lanak (plantxa, jana prestatzea, etxeko kontuak eramatea...).

*LE 53 E: Gero Teleberria edo holakoa be ikusten dot, ta horrek kotileokuak? Noizbehinka beba. Plantxie ez jatelez gustaten, ipintzen dot plantxia aurrian da entretenidu itxen naz. Ta pixkat danatarikoa.*

*LE 54 E: Ni adibidez korrespondentzixa, eguneko sobriak eta hori. Ni jesarten naze-nian afaldu eta gero telebisno aurrian Teleberri edo ikusteko asmuaz, baina nago gauza bixak eitten, o sea, nago telebista noizbehinka holan, baina nago ba kartak zabaltzen, hau ipintzen, Euskaltelek hau kobrau nau, hori bestia... holakoak, edo, ene! Oin, atzoko sudokua amaittu barik daukat, ba hartu eta nago eitxen.*

Irakurtzerako orduan aldiz ezberdintasun handiagoak daude, pertsona batzuek gauza biak aldi berean egiteko zailtasunak aipatzen dituzte, beste batzuek ordea gustora irakurtzen dute telebistaren aurrean:

*MU 58 G: Nik telebisinoan paretan banaz eta periodikua irakurten banau eta telebis-tari begira, bat be ez dot ingo.*

*MU 56 G: En cambio nik bai, nik eh, rito bat da, nik arratsaldean edo gaubeko bederatzi terdiek-hamarak, hori da nire periodikue eta telebisinua, bai.*

*MU 58 G: Biek eitteko kapazidadea andrak baino ez dekie. Nik ez behintzet. (BA-RREAK)*

Nagusiak adin-taldeko emakumeen artean jostea, puntua egitea eta gantxiloa telebistaren aurrean egiten diren ohiko, are, eguneroko, jarduerak dira. Baita orokorrean egunkaria edo aldizkariak irakurtzea ere, nahiz eta kasu honetan iritzi banaketa ageri den, telebistaren aurrean ondo irakurri daitekeen ala ez eztabaidatzerakoan.

*AU 74 E: Segun...*

*AU 75 E: Segun zer dauen, ba...*

*AU 85 E: Periodikua leidu...*

*AU 75 E: Baina hori... interesetan ez danien. Baina ostantzien gantxilloa ein, edo puntu ein, hori e... ez dotzu ardure telebisino a egon arren.*

*AU 67 G: Ni neu telebisinun bana... haxe bakarrik.*

Gizonen artean behin baino gehiago agertzen da telebista ikusi eta aldi berean irakurtzeko ezintasuna, eta gazteek ikasterako orduan inguruan musika eta zarata edukitzeko duten ohituraren aurrean harridura. Aldi berean, haien aittitte-amomek telebista aurrean kaltzei begiratu gabe kaltzak egiteko zuten gaitasuna ere aipatzen dute, haiek ez baitute euren burua gai ikusten:

*AU 85 E: Danak ez dakit, baina asko bai. Neuk be ein ddot sarriten telebisinoan plan-tau, edo errebisti edo periodiku bixen bittarttien (barre). Dale que te pego!*

*AU 77 G: Baina bixek ezin leikez!*

*AU 71 G: Ez, neuk bez! Gustora ez!*

*AU 67 G: Ta oin ostera gaztiek eta... musikie eta ez dakit zer ta bizten dabe estudixetako... baina nik zaratarik bada, dana entretenidute nau! Da irakurten bana, ez dakit zer irakurten nauen.*

### 5.1.8. TELEBISTAN ZER? TELEBISTAREN EDUKIAK

Telebista kateak ez ezik, eduki zehatzak, formatu jakinak eta saio konkretuak ikusi eta jarraitu ohi dira telebistan. «Telebistako edukiak» aldagai taldearen baitan hauen inguruan galdetu zaie parte-hartzaileei.

Edukiei buruz galdetuta, 35 urtetik beherakoek kalitate gutxiko edo prestigio gutxiko programak hartzen dituzte hizpide gehienbat: «txerrikeriak». Alde batetatik sinesgaitza zaie telebistan emititzen diren zenbait edukiren izaera (eta hauen benetakotasunari buruz ere iritzi ezberdinak plazaratzen dituzte). Bestetik, eduki hauek berauek kontsumitzen dituztela aitortzen dute (kasu batean gainera «euskal kateetan» eduki hauek ez eskaintzeak jendea «hauen bila» beste kateetara bultzatzen duela azpimarratzen da).

*DU 24 E: Benetan dau holako jendia...?*

*DU 24 G D: Bai, eta bua, «beitu zer esan tzan, baina zelan sinistu dau hori», ez dakit zer, en plan kritika, baina azkenian bat edo beste, igual te lo comes. (...) baina azkenian konturatzen zara paseu zule... programa osoa ikusi dozule, eta esaten dozu, bueno...*

Interesekoak zaizkien edukiei buruz galdetuta aldiz, *Gran Hermano* eta telesailak aipatzen dira batez ere. Eduki batzuk etxean gustuko ez dituztenez, lonjan ikusteko aukera eta ohitura ere aipatzen dute behin baino gehiagotan. Bestalde, harridura agertzen dute, haien esperientzian behintzat, telesailek garrantzia eta espazio hazkorrara hartu dutelako:

*DU 24 G D: ... es que hori be, serixena niretzat izan da beste boom, emon da, o sea, lehen sin más zan ta oin danak die seriek, que si no sé qué de... (...) Dana da, de los zombis, de los médicos..., halako pilo bat egon die, gero que si un detektibe bat dala El mentalista, halako hori be bai, esaten dotzu, ez, pilo bat hor, o sea...*

*DU 24 G B: Bai, bai, bai, bai.*



*DU 24 G D: Nire ustez zeozer bai aldatu da. Lehen nik ez dakit zelan zan telebiste porque ikusten ginduzan marrazki bizidunek eta ya está. Baina betidanik egon dira halako...? Bai, lehenau egoten zen McGyver eta halako mierdak.. (barre).*

Telebistako edukiak, bai gustukoak zein hain gustukoak ez direnak sarri agertu dira Helduak 1 adin-talde honetako eztabaida-taldeetan. Aipatzekoa da baita telebistako eduki batzuek beste batzuek baino leku handiagoa okupatzen dutela adin-talde honetako partaideen eguneroko elkarrizketetan. Denek saio hauek jarraitu ez arren, haien bizi-munduaren baitan kokatzeko gai dira denak:

*BE 40 E b: Gehixau seriek. Horrek El Conquistador del Mundo, nire lanien pilo bat...*

*BE 37 G: Realities.*

*BE 40 E b: Bai, realities. Bai. Seriek... eta partiduk bebai. Aurten Athletic izan da, bai...*

*BE 41 E: Busco esposa para mi hijo...*

*BE 40 G: Guk realitiak ez doguz ikusten.*

*BE 37 E: Ai nik horrek gauzak ez dot ikusten...*

*BE 40 G: Ikusten douz series. Seri guztik.*

Analisi eta iritzi politikodun saioak batez ere gizonezkoek jarraitzen dituzte (hauteskunde garaierako batez ere) eta *Intereconomiako* saioak aipatzen dituzte, sutu arren ikusi ohi diren saio bezala:

*BE 37 G: Ostra... ba nik programie, El gato con botas, politikakue... dana guzurre! Imindde dau aurretik ze esango deuen!*

*BE 40 E b: Qué gato y con botas!! Intereconomia be ikusten dozuie ala?*

*BE 41 E: Honek ikusten dau Intereconomia...*

*BE 40 G: Nik ez!*

*BE 37 G: Nik ipintzen badot... kaguen dios! (golpea mahaian) Nik imintzen dot ze gero gauien ikusten dot futboleko debatiak eta horrek dauzenak. Baia aurretik ikusten dot bebai politikakue. Ipintzen nau...*

Lehiaketak eta reality showak dira hala ere iritzi ezberdinenak jasotzen dituzten formatoak, polemika handiena pizten dutenak. Batzuk jarraitzen dituzte eta atsegin dituzte, beste batzuk ez, baina oro har parte-hartzaileek egunerokoan izaten dituzten elkarrizketetan presentzia nabarmena daukate edozelan ere. Oro har hartuta adin-talde honetako gizonezkoek eztabaida saio eta albistegiekiko lotura handiagoa agertzen dute, eta emakumezkoek aldiz reality show eta kotileo programekikoa. Kasu honek ilustratzen duen bezala, gizonezkoen artean ohikoa da saio batzuekiko distantzia markatzea, eta ikustekotan ere ingurukoaren interesekin lotzea, norberarenekin baino:

*BI 39 G: Ez, ez. Ez. Konkursoak eta hori, kotileo guztia... (...) Ez ezin dot horregaz. Ezta Reality Showekin bez, ezta El Conquistador del Fin del Mundo eta hori guztia...*

*Bueno, ba batzutan... gainera El Conquistador del Fin del Mundo emazteari gustaten jako eta batzutan ba ikusi behar, baina ez da nire gustoagatik. Ez dago txarto eta badauka bere puntua, baina nigatik ez.*

Kasu batean, telebista ikustea informazio eta entretenimenduzko eduki zehatzak lortzeko aukerarekin lotzen da argi eta garbi, eta beste bide batzuetatik (ordenagailuan, eskuko telefonotik edo tablet-etik) errazago lortuz gero, telebista bigarren plano batetara pasatzen da berehala. Hemen ere, hala ere, telebistako eduki batzuei (kirolak, telesailak, realitiak) funtzio soziala aitortzen zaie («telebista ikusi behar duzu berba egiteko, ez?»), sarri jasanezinak iruditu arren:

*MUS 47 G: Teleberriak eta oso ordu zehatza dute, orduan bueno... Gero nire informazio iturririk inportanteena ez da telebista, internet da. Ta batzutan hori, badakizu, telebista ikusi behar duzu berba egiteko, ez? Ba igual lagun tartean eta... baina enfin, futbolaz aparte eta holan nahiko galduta nago. Pertsonai berriekin, tal... Bai. Eh... ez dut gustoko, ez dut jarraitzen. Adibidez hainbat momentutan ezin dut jasan hori, Telecincon hainbat programa...*

Albistegiak orokorrean eta *Teleberri* zehazki, erreferentzia ukaezin bezala agertzen dira Helduak 2 adin-taldean: etxean egonez gero ikusi beharrekoa. Partehartzaile batek dioen bezala, «teleberrixe sagraua da». Talde honen baitan ere asko aipatzen da Eusko Jaurlaritzako gobernu aldaketa eta honen ondorioz Euskal Telebistako albistegietan somatu duten aldaketa, batzuen kasuan albistegiz aldatzea erabakitzeraino:

*LE 59 G: Beti esan da Teleberrin audientzixa bajatu ein dala eta hori, baina klaro, danok ahalegindu ginian epoka baten ba Telecinco edo entzuten, baina ez zeban, zeozer esaten eben, baina bertokoa...*

Haien seme-alabek ikusten dituzten programak ere asko aipatzen dituzte (MTVko *Embarazada abuela, Mujeres y Hombres y viceversa* eta abar), sarri harriduraz, eta askotan amorruez eta arduraz:

*SA 57 G: Eta nik alabari ere esaten diot. Andrea, esate baterako hori, holako programak ez ditu gustoko eta ez ditu ikusten, baina alabak bai, eta Gran Hermano eta holako gauzak, eta batzuetan...*

*SA 52 G b: Gazteen jarrerak gero harritzen gaituzte, baina zer ikusten duten ikusita ez da harritzekoa.*

*LE 52 G: Ni? Ni ez! Mesedez! Hori sunormalidade hori zelan ikusi al dabe? Eta gero, horrek ez bada, bestie, zelan da hori? Belen Esteban edo hori, abortadak ikusten, bueno...*

Gustuko edukien artean emakumezkoen artean *Puente Viejo* eta *Amar en tiempos revueltos* telesailak sarri agertzen da, gizonezkoen artean batez ere dokumentalak eta kirolak (futbola gizonezkoen aldetik gehienbat, baina emakumezko batzuek ere beste kirol batzuekiko interesa agertzen dute –saskibaloia, balonmano, boleibola...–) asko. *Goenkale* telesaila ere askok jarraitu izan dute momenturen batean, eta *El Intermedio*

bezalako saioak ere aipatzen dira. Aipagarria da baita «oesteko pelikula» edo «bakeraden» inguruko zaletasuna, gizonetzkoen artean.

Nagusien adin-taldean ere *Gaur Egun* eta *Teleberri* ezinbesteko erreferentziak dira. Adin-talde honen baitan ere Jaurlaritzako botere aldaketaren ondoren aldentzea aipatzen da, planto edo boikot modura:

*AU 77 G: Gurin telediariora euskal telebisten ikusten da derrigor. Lehenengun Susio planteu zanian e... luzero egon gintzan ikusi barik Euskal Telebista. Boikot eittiagaittik berari gehixau.*

*AU 71 G: Ta ein zeuntzon?*

*AU 77 G: Bai, etxe guztietan. Baina oin atzera, haxe ikusi bi dala dino ta... nik nazionala ikusi neban lehen, gehixa. Boikot eiteagaittik ha itxi. Intenzino guztixaz esan dot eh? Boikot eitteagaittik bakarrik, ein daben desastre horrek ez dau deretxorik da.*

*AU 75 E: Ointxe mejoretan hasi da eh? Ointxe artien Euskal Telebista egon da... txarto, txarto, txarto.*

Entretanimendu modura, andrazkoek *Sálvame* eta *La Noria* bezalako saioak sarri aipatzen dituzte, «debatiek» eta eztabaida saioak. Jarraitu arren, hala ere kritikoak dira saio hauetako parte-hartzaileek elkarrenganako agertzen duten errespetu falta-rekin, «txakurrek zaunkan eittie lez».

*AU 85 E: Nik arratsaldien, oin etxien egongo banintzen ikusiko naben Telecinco. Haxek zorakeriak. Las tonterías. El cotilleo ese. Gustatzen jat. (...) Sálvame. Sálvame Diario. Emoten dabe. Ta gero emoten dabe zapatutan, edo barixakutan da? Ez, zapatutan, Sálvame Deluxe. Hori bai. Ta gero emoten dau La Noria emoten dau horretzek, Jordik.*

Gizonetzkoek gehiago jotzen dute kirolera, batez ere futbola eta eskupilotara, eta telesailen bat ere aipatzen dute («Curro Romero»<sup>495</sup>...). Pelikuletan, adin-talde honetako gizonetzko gehienak dira «bakeraden» zaleak, eta oro har bai andrazkoek bai gizonetzkoek «lehengo» pelikulak nahiago dituzte, «oingo barriek» baino. Lehiaketak gehienek ikusten dituzte, batez ere *Pasapalabra*, baita arratsalde parteko Klaudio Landaren programa ere.

*LEZ 67 E: Eta pelikulek. Baina badinotzut, pelikulek, oingo barriek ba igual badau batan bat interesante, ezdakizu? baina normalean e lehengoak. Bai.*

#### 5.1.9. TELEBISTARI EGITEN ZAION KASUA: JARTZEN ZAION ARRETA

«Arreta» kode fokalizatuaren pean telebistari piztuta dagoenean eskaini ohi zaion aditasunaren inguruan galdetu zaie adin-talde ezberdinei, zenbaterainoko jaramona egiten zaion alegia. Ikusiko denez, kasu, arreta edo jaramon honi buruzko interpretazio ezberdinak azaltzen dira berehala.

<sup>495</sup> Curro Jimenez, berez. Jatorrizko esaera mantendu da aipuan.

Gazteen artean, talde batean telebistari kasu egiteari buruz galdetuta telebistaren sinesgarritasunari buruz eztabaidatzeari ekin diote, hedabidearen legitimotasunarekin eta informazio funtzioarekin lotuz. Eztabaida telebistari eskaintzen zaion arretan zentratuta, berehala azaltzen dira jarrera eta joera ezberdinak. Orokorrean fondo, «ahots» edo zarata bezala erabiltzen denean, konpainia egitea, laguntasuna egitea da bere funtzion nagusia : giroa («anbientie») sortzea eta konpainia egitea. Elkarren arteko isiluneak estaltzeko balio du telebistak («ez dakigu egoten zarata barik»).

*DU 24 E: Ba adibidez serieren bat edo ba jarraitzen dotela banau, bai, banau, baina askotan ikusten da telebista dagoela baino nauela edo berba eitten, edo ordenagailuen, edo irakurten. O sea, apur bat como fondo, hor (...) Ambientie, o sea, ez dakit, ambientie edo emoteko. Igual bi gauz bakarrik berbetan, nahiz ta ni puto caso ez egin, ba dau hor bada, como, bai, dau...*

Kasuren batean arreta oso programa konkretuei eskaintzen zaiola aitortzen da esplizituki: informatiboetan (kirolak heldu arte), eta pelikularen bat ikustekotan. Bestela telebista ia-beti bigarren mailako elementu bihurtzen da bere egunerokotasunean:

*BI 29 E: Ez. Normalien ez. Teleberrixe, deportiek ailege arte bai. Teleberrixeri bai. Da holango programatan, osea holango programak ikusten gauzenien etxiern, berbetan ez bagauzen berebai, baie normalien ez zauz, ez gauz isilik adi-adi. Da pelikuliek ikustekeran berebai, bai, hori bai. Baina ostantzien ez, dekot biztute da aprobejxetan dot beste gauza batzuk eitxeko.*

Helduak 1 adin taldeko partaide gehientzat ere gauza zeharo ezberdinak dira telebista piztuta edukitzea eta berau ikusten egotea (salbuespenak albuespen, parte-hartzaile batzuek telebista berau ikusteko soilik pizten dutela adierazten baitute). Hala ere, ezberdintasunak agertzen dituzte piztuta dagoen telebistari eskaintzen dioten arretari dagokionez. Batzuek telebistak berehala «harrapatzen» dituela aitortzen dute. Beste batzuentzat aldiz telebista ikusten jartzea erabaki kontzienteagoa izan ohi da, norbere interesaren arabera:

*BI 39 G B: Ni errez engantxatzen naz, ze igual emazteak jarri dau telebista, ta ni pasatzen naz handik da... berdin jat, baina bapatean entzuten dot zerbait, da geratzen naz han zutik ikusten edo... pasatzen dira bost, bi minutu eta, zer egiten dot? (...) eta igual emaztea lo geratu da eta nik jarraitzen dot ikusten edozein gauza! Hasta el Sálvame!! (BARRE).*

*BI 43 E: Nik biztuten badot zeozertarako da. Bakarrik etxera heldu ta imini... ez.*

Orokorrean hala ere talde honetako partaideek oso barneratuta daukate lehenengo beharra dagoela (bai lanlekukoa zein etxekoa), eta gero telebista:

*BI 39 G: Emaztea igual dago jesarrita telea ikusten, ni heltzen naz... janzten dot pijama eta hori eta jesartzen naz, zuzenean. Baina heltzen banaz ez dakit nondik eta umeak dagoz telea ikusten eta nik prestatu behar dot afaria, batu arropa (...) igual heltzen naz momentu batean lan asko egin behar dodala... ez naz jesartzen. Gauzak egin behar dodaz eta kitto.*

Lehen ere aipatu bezala, oso ohikoa da Helduak 2 adin-talde honen baitan telebista piztuta dagoen artean beste jarduera batzuetan jartzea arreta. Parte-hartzaile batzuk gai dira arreta telebistaren eta beste jardueraren (egunkaria irakurri, josi, sudokua egin...) artean alternatzeko. Beste batzuk gauza bakarra egitera ohituta daude, eta telebista piztekotan telebista ikusteko izaten da. Hemen ere, etxean denbora gehiago pasatzen duten pertsonak telebista «fondoan», «konpainia halantxerik» edukitzeko joera handiagoa dute, eta baita arreta jarduera ezberdinen artean banatzekoa ere.

*LE 54 E: Ni adibidez korrespondentzixa, eguneko sobriak eta hori. Ni jesarten naze-nian afaldu eta gero telebisno aurrian Teleberri edo ikusteko asmuaz, baina nago gauza bixak eitten, o sea, nago telebista noizbehinka holan, baina nago ba kartak zabaltzen, hau ipintzen, Euskaltelek hau kobrau nau, hori bestia... holakoak, edo, ene! Oin, atzoko sudokua amaittu barik daukat, ba hartu eta nago eitxen.*

*LE 52 E: Eta daukazu bi, zagoz telebisinoia... bai, neu be bai, bardin.*

*LE 54 E: Telebisinoia ikusten eta beste gauza bat eitten, edo josi bi dot ez dakit zer...*

Amaitzeko, telebistarekin batera egiten diren jardueri buruzko azpiatalean azaldu bezala<sup>496</sup>, Nagusiak adin-taldeko emakumeak oso ohituta daude telebista aurrean josten, puntua egiten eta gantxilloa egiten, baina hala ere telebistari «kasu dana» egiten diotela adierazten dute sarri, edo saioaren interesaren arabera, jarduera batetik bestera salto egin. Ez dute arazorik aurkitzen gauza biak aldi berean egiteko. Gizonezkoen artean aldiz, telebistara egotekotan, horixe bakarrik egitearen aldekoak dira gehiago.

*AU 75 E: Bai bai! Bai... kasu dana! Osorik!*

*AU 74 E: Segun...*

*AU 75 E: Segun zer dauen, ba...*

*AU 85 E: Periodukua leidu...*

*AU 75 E: Baina hori... interesetan ez danien. Baina ostantzien gantxilloa ein, edo puntu ein, hori e... ez dotzu ardure telebisinoia egon arren.*

*AU 67 G: Ni neu telebisinun bana... haxe bakarrik.*

Inguruan zer gertatzen den ahazteraino arreta guztia telebistari zuzentzea ere gertatu izan zaiela aipatzen dute parte-hartzaile batzuk, «berba ein ta igarri ez». Edozelan ere argi ardierazten dute ez dela beti berdina telebistari eskaintzen zaion arreta edukiaren interesaren eta eguneko momentuaren araberakoa ere izaten da:

*LEZ 67 E: Bueno, bada niri gustetan daztena bai. Baina gauetan, badinotzut, nahiz gusta, niretzako da somnifero. Momentun lo. Gero izartuten naz eta ostabere.*

<sup>496</sup> Ikus «Telebistarekin batera», kapitulu honetan bertan.

### 5.1.10. TELEBISTA MINTZAGAI: TELEBISTA ELKARRIZKETETAN

Telebistaren inguruan asko hitz egiten da, bai fisikoki, haren inguruan bilduta, eta baita berau hizketagai bezala ere, haren aurrean egon gabe. Hartara, telebistak egunerokotasunean duen garrantzia piztutako pantailaren aurreko «Berba» aldagai multzoaren bidez jaso dira parte-hartzaileek honen inguruan esandakoak:

Eduki batzuk beste batzuek baino elkarrizketa eta eztabaida gehiago eragiten dute gazteen artean, bai saioa ikusten ari diren artean, eta baita hurrengo egunetan ere. Adibide argia Simpsondarrena da, batez ere mutilen artean aipatzen dena, eta kuadrilao elkarrizketetan urteetan lekua izan duena, eta izaten jarraitzen duena oraindik ere:

*DU 24 G D: Bai, guk adibidez guk komentetan dogu Simpson «a muerte», nahiz ta izan repetiduek... (BARREZ) Bai, hori bai. Osea, guk behintzat hori komentatzen dugu, ikusi dozu kapitulue, ta hori bai. (barre)*

*DU 23 G: Zortzi bider ikusitte baina ondino bai.*

*DU 24 E: Es que azkenien hazi gara eurekin, ez? (BARREZ)*

Gainera, programa batzuk ikusi ezean, egunerokoan lagunen artean elkarrizketatik kanpo geratzeko arriskua dagoela ere aipatzen dute:

*BI 29 E: ...normalien inguruen beti dekozu baten bat, «ikusizu... eh... Conquistador, ta...». galdute ibiltzen naz. Baina bueno, oin ya... igual lehen gehixau izeten zan eh? Hamazortzi, hogeni urtegaz gehixau komentetanuz holango gauzek.*

*MU 21 E B: Fuera, totalmente fuera zaaz (BARREZ).*

Albisteak ere komentatzen dira, baina etorri ahala, ez *Gran Hermano* edo *El Conquistador del Fin del Mundoren* jarraitutasunarekin. Fikzioaren gaurkotasanak garrantzi handiagoa du telebista oinarri duten gazteen elkarrizketetan zentzu horretan, errealitatearenak baino. Sarri gainera, aurreko egunean (iluntze edo gabaz) ikusitakoa komentatzea izaten da «Lonjara ailegau eta lehenengo gauzea (MU 21 E B)» bereziki etxean saio hauek ikustea gaizki ikusita edo debekatuta dagoenean. Elkarrizketa gai diren saio eta edukien artean ezberdintasun nabarmenak daude neska eta mutilen artean, *Gran Hermanok* adibidez nesken artean askoz arrakasta handiago du mutilen artean baino. Futbolak, alderantziz, hizketaldi eta eztabaida gehiago eragiten ditu mutilen artean. Neskaren bat kexu da telebistak elkarren arteko elkarrizketa oztopatzen duenaz, baina berriro ere, edukiaren arabera, eztabaida berehala sortzen dela nabarmentzen dute, baita elkarrekin ez daudenean ere, eskuko telefonoetako whatsapp «txateatzeko» programaren bidez:

*MU 20 E: Depende ze ikusten zauzen ere bai debatilloak sortuten dire eta holan.*

*MU 21 E: Gu ganera, aunke ez egon lonjan batera, komentarioak beti dauz, whatsapp-ean. Dekogu grupo bat eginde eta komentarioak whatsapp-etik a punta pala.*

*MU 21 E B: Gauz berdine ikusten etxean igual gauetan eta comentando todo.*

*MU 24 E: Es que gure koadrilan mobiletik egiten dogu berba!*

Telebistan ikusgai dagoenaren inguruan berba egiteko zaletasun handia agertzen dute Helduak 1 adin-taldeko parte-hartzaileek, batez ere emakumeen artean, telebista familian ikusten denean:

*BE 40 E b: Guk berba ta berba! Pelikuletan bebai eh? Berba ta berba! Askotan... isiltasune ta dana eskatu bi da.*

*BE 37 E: Akordetan zarie pisuen egoten gareenien danok, azkenien pelikulek itzi ein biher izen ginun ikustie, ze...*

*BE 41 E: Klaro, umiek eta... zegaittik hau? Ta azkenien ba... ez dou ikusten ezer.*

Hurrengo egunean ere, ikusitakoaren inguruan berba egiteko ohitura ageri da, batez ere lantokian, eta hemen ere azaltzen da saio batzuk jarraitu ezean taldetik kanpo geratzeko arriskua edo sentsazioa:

*BE 40 E b: Guk biharrien asko.*

*BE 41 E: Pintxo orduan komentetan du... gauza asko.*

*BE 40 E b: Jolasorduen bebai. Irakasleguen...*

*BE 41 E: Atzo ikusi zinuen hau, bestie...?*

*BE 40 E b: Da azkenien gehixenak segun zer ikusten dauen zu erdi-obligeta zauz bebai ikusten, gero berba eitteko...*

*BE 40 E b: Ze... El conquistador del Fin del Mundo domekatan nire lankidiek danak ikusten izen dauie. Da azkanien ez badozu ikusten ez zara... ez zauz talden barruen. Aurten partidue...*

Futbolaren inguruan telebistak herriarengan pizten duen interesa eta interesa ere kaleko solasaldien igartzen dela azpimarratzen du beste partehartzaile batek. Telebistari esker, futbola afera publikoa bihurtzen da, eta hortaz elkarrizketa eta eztabaidagai:

*LA 40 G: (...) Eta jendeak nahiago duela tabernan ikusi futbola etxean bakarrik baino, ez? Ni ez nago hor, ez naiz futbol zalea eta orduan apenas kontsumitu ditut azkenengo urteetako kopak eta garaipenak, eta euforia hori, ez? Baina, eta inoiz ikusi dut partidu zatiren bat edo etxean bakarrik eta konturatzen naiz askoz ere erakargarriagoa dela garagardo artean, jendearekin, kriston afaria prestatzea, afaria baina afari irekiak, jendeak gauzak ateratzen ditu, eta, eman da hori, eta hori niri iruditzen zait, adibidez, futbolari esker hori eman bada, ba gora futbola ere bai ez?*

Beste partehartzaile batek aipatzen duen legez, telebistak ezberdinen artean komentatu daitezkeen topikoak eskaintzen ditu, dela kirola edo «kotileoko» programen bidez:

MUS 47 G: (...) oso ezberdinak gara, gero bakoitzak badu... bata arotza, bestea iturgina, bestea albaitea, bestea ez dakit zer, eta ni liburuzaina. Orduan batzen gaituena izaten da edo futbola edo bueno... orduan topikoetara jotzen dugu, ez? Politikaz gitxi hitzegiten dugu, ta... Bueno... ta emakumeen artean bai dela hori, kotileo, ez? Hombre, kontutan hartu behar dugu hori, denbora libre dela, bariku arratsaldea dela... lan jardunaldia bukatu duzula eta nahi duzula, en fin, ez dakit ez? «Un poco de evasión», ez? Eta evasión zer da? ba futbola edo kotileoa eta bueno...

Telebistan ikusitakoaren inguruan lehen orain baino gehiago hitz egiten zela uste dute Helduak 2 taldeko parte-hartzaile askok, beste gauza batzuen artean lehen kate-aukera murriztago zegoelako, eta mundu guztiak antzeko edukiak ikusten zituelako. Beste parte-hartzaile baten ustez oraindik ere komentatzen da ikusi eta entzundakoa, baina ez non (ze katetan, telebistan ala irratian...) ikusi den, mugak lausoagoak dira orain.

MU 51 E: Bai. Guk adibidez jolasaldian eta kafetxu bat hartzen irakasleen artean, hori, beti urteten direz gertakizunen bat, edo... baina inork ez dugu esaten «ah, ba nik ikusi dut halako telebistan, edo halako irratian, edo...», ez da komentatzen non, baizik eta zer, zer esan den.

MU 58 G: Bai, hori bai, baina programa bat danian, esate baterako, Gran Hermano edo holako gauzak...

MU 55 E: Bai, badakizu telebistan ez dan, o sea, ETBn ez dana izan, edo biarena edo komentaten bada, badakizu, uste dot ETBn ez dagola, baina bueno, lehen egon zan, orain dela urte batzuk bai egon zan, baina asko komentaten da han, gure gremioan, biarena, «eta ikusi dozue ez dakit zer?», eta da o Cuatro o, lehenengo kadenea, La Primera.

*El Conquistador del Fin del Mundo* ere aipatzen da talde honetan hizketagai tipiko bezala, bai saioak irauten duen artean eta baita hurrengo egunean ere. *Puente Viejo* telenobela, aldiz, emakumeek asteburuetan komentatzen dute kuadrilan, lagunak batzerakoan (etxean ez baitaukate orokorrean norekin komentatu), baita *Downton Abbey* ere, noizbait. *Espanoles por el Mundo* eta *Callejeros Viajeros* saioak aipatzen ditu parte-hartzaile batek gustora beraien inguruan berba gustora egiten diren telebistako saio bezala, eta nolabait bisitatu gabeko lekuak ezagutu eta bidaiari buruz hitz egiteko modu bezala. Gizonezkoek gutxiago aipatzen dituzte telebistaren inguruko hizketagaiak, eta aipatzekotan futbola edo albisteak aipatzen dituzte.

Nagusien artean telebista ikusten den artean asko hitz egiten delam, eta dutela, aitorzen dute. Baita norberak interesa duenean besteei isiltzeko eskatzen diela, baina interesik ez duenean berehala hasten dela berbetan ere bai.

AU 75 E: *Jesus Maria!*

DSA 57 EK: *Bai! Bai...*

AU 67 G: *Norberak ez badeko interes handirik igual hasten da berbetan, ixi! albokuk, berai interesetan baxako, ta bueno...*



*AU 71 G: Hori umiek eitten dabe. Dibujos animados ikusten badauz eurek inok ez deu berbarik ein biher! Danak isilik egon bi dabe. Ostantzin... Ta zeu partie entzuten bazaz, eurek han dabiz, ta isilik egoteko esan, ta alperrik.*

Hurrengo egunean berriz, albisteak eta kotileoak komentatzen dituzte batez ere, aktualitatearekin lotutakoak telebistako fikzioarekin (telenobelak edo telesailak...) baino gehiago. Gizonezkoek albisteak aipatzen dituzte gehiago, emakumezkoek aldiz prentsa arrosarekin lotutakoak:

*AU 77 G: Beti komenta da. Notizi inportante samarra edo... barrixe edo bada gauzie...*

*AU 85 E: Andrazkuek ez die ibiltten gauza zerak esaten... Ha neskie guapie egon zala edo (barre), halako aurpegie eukala edo... Holako kontuk!*

### 5.1.11. ZAPPING EGITEA: AUKERAKETA ETA JARIOA

«Zapping» egiteak adiera ezberdinak hartzen ditu. Iragarkietatik alde egiteko ohitura zein telebista ikusteko modu konkretu bat izan daitezke, pertsona eta momentuaren arabera. Ondoren adin-talde ezberdinek emandako erantzun adierazgarrienak jasotzen dira:

Zapping egitea ia modu unibertsalean aitortzen den jarduera da gazteen artean, eta oro har ez da oso jarduera positibotzat hartzen, alderantziz, telebistaren kalitate eskasaren sintomatza bezala ulertzen da ia-ia. Zappinga, zapping egiteagatik, ikusteko «ezer» ez dagoenean, baina “ezebe baino hobeto» den jarduera bezala hartzen denean egiten da, edo iragarkiak heltzen direnean automatikoki hasten den ekintza bezala bestela. Interes faltak hasiarazten duen jarduera da beraz, aisia absentearekin lotura indartsua agertzen duena. Bakioko neska gazteak ere telebista ikustea «zapping eitxearekin» lotzen du, egiteko beste ezer ez dagoenean egiten duenarekin.

*DU 24 G D: Nik pentsetan dot barruan dala la esperanza zeozer aurkitzekue.*

*DU 24 G A: Zappina da, el claro ejemplo ez dauena ezebez interesantie, azkenean ipinten dozu, pum, o sea, mierda, pum, mierda, pum, emoten dozu buelta guztia ba, pues el menos mierda.*

Helduak 1 adin-taldean zeharo orokorra da baita zapping egiteko ohitura, baina bereiztu egiten dute zapping zapping egiteagatik («por deporte») eta zerbait aukeratzeko ekintzaren artean:

*BI 47 E: Bai, buf! Hori barik eh... nik uste dot gaur eguneko telebisinoa ikustea ezin izengo littekela ulertu eh?*

*BI 50 E: Nire gizonarena. Nire gizonak ez dau programarik ikusten. Bakarrik egiten dau zapping. Niretzat hori da zoramena.(...) Hatzamarra ez da gelditzen. Tritititi, tirititan ti... Mesedez, aukeratu zeozer eta gelditu.*

Iragarkiak dira zapping egitearen beste motibazio nagusia, eta anuntzioak helzteaz bat katez aldatzen dutela onartzen dutenak gehiengoa dira talde honetan. Ba-

dira iragarkiak euren horretan apreziatzen dituztenak, baina gehienek «salto» egiten dute berehala beste kate batetara, ihesean, edo beste zerbait egiteko (mahaia jaso, komunera joan...) aprobetxatzen dute tarte hori:

*MODERATZAILEA: Anuntzixoak eta, zelan daroazuez?*

*BE 40 E b: Txarto.*

*BE 41 E: Zapping.*

*BE 37 E: Bai.... bai.*

*BE 41 E: Nik en el momento del anuncio, quito.*

*BE 40 E b. Neuk be bai, neuk be bai*

Helduak 2 taldean aldiz ez da bereziki aipatzen zappinga, ohiko erabileretaz gain (iragarkietatik ihes egitea, ikusteko zerbaiten bila joatea, denbora-pasa...). Hala ere partehartzaile batek aipatzen du zappinga telebistaren neurria hartu eta eskaintzari buruz hausnartzeko tresna aproposa izan daitekeela, baita aldi berean eduki ezberdinek jarraitzeko ere:

*SA 53 G: Ez, nik denbora galtzen baldin banago, kate guztiak pasatzen ditut ikusteko zer dagoen, batez ere jakiteko zer dagoen telebistan, zer mugitzen den, erreflexionatzeko eh? telebistari buruz. Eta nik etxean nagoenean ikusteko telebista, hori, gauean eta hori, ditut, ez dakit, sei kate pasatzen ditudala, ordun igual hiru pelikula ona edo nahiko onak direla ematen didala, eta ikusten ditut hiru problemarik gabe, pa, pa, pa...*

Nagusien artean, batzuek gehiago hartzen dute zappinga berez gazteek egin ohi duten zerbait bezala, eta beste batzuek ikusteko zerbait berezirik pentsatuta ez daukatenean dagoen aukeratzat daukate, baina oso arrunta da zappinga egitea orokorrean nagusien adin-taldean ere.

*AU 67 G: Hori gaztiek asko, hori e zappinge. Guk bebai, baina denbora gehixa biztu ta ikusi barik*

*AU 75 E: Nik bebai asko eitten dot eh? Nun topau eh... pelikula bat edo nun...*

*AU 67 G: Nik ez dot denbora asko eitten, baina nauen denboran sarritten agur, paso.*

*AU 71 G: Uno-tik hogeita hamazortzire doaz da, danak pasetan dittudaz nik, imajina zenbat bider...*

Gainera, behin zapping-egiten jarrita, buelta bakarrarekin nahikoa izaten ez dutela diote:

*AU 71 G: Ez, bai, dozena erdi bider, ea hasi bada bestie edo...*

*AU 75 E: Nik batetik deukedaz ixte berrehun...*

*AU 77 G: Gurien TDTk lau edo apurtu die... asi ke pentzeu zenbat dabilen! Gora ta behera... geldittu bez!*

### 5.1.12. TELEBISTAREN ALBOKOAK: ONDOKO KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK

Telebista, egun, «telebisorea» bera, pantaila baino gehiago bilakatu da etxe gehienetan. DVD irakurgailuak, Lurrazaleko Telebista Digitalaren dekodetzaileak, bi-deojoko kontsolak... «Telebistaren ondoko teknologiak» aldagai taldeak elementu hauen gainean egindako galderen inguruko erantzunak biltzen ditu, bai gailuari fisikoki konektatutako teknologiei dagokienez, eta baita egunerokotasunean, telebistarekiko harremanarekin lotzen diren (dela berau osatzeko edo ordezkatzeko) gailuei dagokienez ere.

Gazteen adin-taldea da telebistaren inguruko teknologiei buruz eztabaidetan parte-hartze handiena agertu duena. Telebistaren ondoko teknologiei buruz galdegitan, berehala agertzen dira bi dimentsio ezberdin: alde batetik fisikoki telebistari konektatutako (*hardwired*) gailuak ageri zaizkigu: kontsolak, DVD/Blu-ray irakurleak, LTD deskodetzaileak... Bestetik, telebistarekin harreman osagarrian edo lehiakorrean ageri diren beste hedabideak ere ageri zaizkigu, egunerokotasuneko jardunean konektatuta (*softwired*): irratia, egunkariak, aldizkariak, tablet-ak... Telebistaren inguruan modu batera edo bestera konektatuta daudela somatzen diren teknologien artean internetek du zentralitaterik handiena, beste hedabide guztiak barne hartzeko gaitasuna aitortzen baitzaio.

*DU 23 G: Bai, interneta, es que gaur egun...*

*DU 21 E: Bai, informaziorako be bai periodikuetan sartzen zara..., o sea dana mugitzen da internetetik, gaur egun ya, sare sozialak be bai, ez dakit zer, badakit zer...*

*DU 24 G B: Dana.*

*DU 24 E: Ta telebistia ahal dozu ikusi be.*

Era berean teknologia eta hedabideen arteko mugak ez dira finkotzat hartzen. Hala irratia entzun daiteke internet bidez, edo musika DVDA edo kontsola baliatuz. Telebista bera telebista ikusteko edo kontsolara jolasteko erabili daiteke, unearen arabera. Konektatutako gailu ezberdinek, dela fisikoki dela eguneroko ohituren bidez, geroz eta gehiago osotasun bat osatzen dutenaren pertzepzioa ere hautematen da (ordenagailua, telebista, eskuko telefonoa...). Salbuespenak salbuespen, ez dago telebistako edukiak grabatzeko ohitura handirik, eta dauden kasu apurretan sarri gurasoek eskatuta izaten da. Ohikoa da edukiak zuzenean internetetik jaistea, telebistan edukia bistaratzeko usb bidez adibidez:

*BI 29 E: TDT. Ehm... dekot DVDie, pendrive-a bere... konstante ez eh? Baie... Zer gehixau... (...) bueno, mutilek itxen deu. Bai, bajatu ordenadoretik... da imini telebistan da, horixe. (...) Etxen dogu paseu, ikusteko ze etxure dekon pelikulek edo, ta bixon artien elegiduten dogu.*

Helduak 1 adin-taldearen baitan sakoneko elkarrizketa batetan bakarrik jaso dira alor honekiko galdera espezifikoak, eta baita erantzun interesgarri bezain atipikoak

jaso ere. Kontuan izan behar da gizon honen perfila ez dela adin-taldearen adierazgarria inola ere. Kasu honetan etxeko telebistan ez dute aparteko gailurik konektatuta, txokokoan bai, umeentzako kontsolak eta abar. Hala ere, lehenago ere aipatutako *softwired* modu horretan, hainbat teknologia jartzen ditu telebistarekin harremanean familiako egunerokotasunean, baita berean ere (dela lanagatik eta zaletasunagatik):

*MUS 47 G: Etxean ezebez. Eta txokoa, dekogu pisua eta behien txokoa, ta orduan bai, Wii eta X-box... gero eta gutxiago erabiltzen dute, hori egia da. Mobilekin... adinagatik bebai, jokoak dituzte eta gero whatsapp-a dela eta, edo tuentia edo... (...) Bai, bai, bakoitzak bere gailua. Gu nahiko... nire lanagatik ni nahiko zalea naiz betidanik, eta guk etxean beti euki dogu... bueno, hori, kontsolak. Nahiz eta nik inoiz ez jolastu, baina euki bai, eta smartphonak eta tableta eta ordenagailua...*

Telebistako edukirik grabatzen ote duten galdetuta, ezetz dio, gero ez baitago asitirik inoiz ezer ikusteko, baina ordenagailutik jaitsitako edukiak ikusi izan dituzte inoiz, familian, telebistara pendrive bidez konektatuta. Hedabide ezberdinek euren artean duten harremanak interesgarriak diren galdetuta berriz, baietz dio, zalantzarik gabe, eta azken olinpiar jokoak (2012koak) aipatzen ditu, ikuslearentzat hainbat aukera berri eskaini dituen jazoera bezala, eta etorkizunean telebistak hartuko duen itxuraren aurrerapen modura.

Helduak 2 taldean internet aipatzen da gehien telebistaren ondoko teknologia-komunikabide modura: egunkariak irakurri eta albisteak jasotzeko eta politika jarraitzeko erabiltzen da batez ere. Bideoak eta abar ere bilatu eta jasotzen dituzte talde honetako parte-hartzaileek, baina erabat bereizten dute ordenagailuan zerbaiten bila ibiltzea sofan eserita egon eta telebista ikustetik. Irratia ere inportantea da, batez ere informazioa eskuratzeko, eta paperezko prentsa iritzi artikulua eta editorialak asteburuetan, astia dagoenean patxada handiagoz irakurtzeko, eta telebistaren alternatiba erakargarri bezala agertzen da.

*MU 62 G: Klaro, radioak dekon bentajea... atentzino barik, ez dozu zertan ikusi, ha ikusten egon, eta edozer iten zaoz, dutxan zauz zein... ta radioa dekozu, hori bentaja da...*

*MU 56 E: Bai, ta notiziek emoten dauzez denbora guztien...*

Interesgarria da baita e-maila egunerokotasunean txertatuta dagoen zerbait bezala somatzen dutela, eta alde batetatik informazio, albiste eta entretenimenduzko eduki eta gomendioak jasotzeko iturri bezala ikusten duten arren, bestetik spam eta «bonbardeo» iturri ere bilakatu daitekeela salatzen dute.

Azkenik, Nagusiak adin-taldeko parte-hartzaileen artean telebistaz gain irratia da erreferentziazko hedabidea, zalantzarik gabe. Ez denek, baina gehienek irratia erabiltzen dute bai konpainia modura eta informatzeko ere. Ostera etxeko umeentzat telebista askoz inportanteago dela deritzote.

*AU 85 E: Berez radixua da kompletuau edo, behintzet... ha entzuten dozu ta... telebisi-noaren aurrien ez bazaz... ez dozu ezer atrapetan.*

*AU 67 G: Eta programak be, neutzako, konparazino barik, Euskadi Irratiak eta dekoz programak e, bueno, oso interesantiek e? Oso. Bai bai, neuk be ez dot ezagutu be eitten telebisinoa asko e, telebisinoari begire ordu gitxi, bana...*

Edozelan ere, Helduak 1 taldean bezala, irrtiak eta telebistak funtzio, erabilera eta momentu ezberdinak dituztela argi azaltzen da:

*LEZ 67 E: Ezbardinek direz. Eta segun ze orduten. Ze goizerako, beharrak eta gauzek... eske normalean etxeko beharrak eiten direz goizean e, bueno, arratsaldetan be eiten direz, baina normalean goize izeten da, ta radioak asko lagunduten deu. Ta klaro, telebisinorik... telebisinoa egon behar dozu, gure badozu, ba hori, geldi, ikusten. Ta radioa-gaz ba mobidu egiten zara. Hona, bestera, bestera...*

Telebistara konektatutako beste gailuei dagokienez berriz LDTa, kontratatutako kable eta satellite bidezko zerbitzuen dekodifikatzaileak eta bideoa aipatzen dira, asko-askorik erabiltzen ez dituztela iritzi duten arren. Internetik ez dute erabiltzen, oro har, etxekoren batek lagunduta ez bada.

#### 5.1.13. INTERNET BIDEZ TELEBISTA IKUSTEA: TELEBISTA SAREAN

«Telebista internet bidez» ikusteko aukera teknikoak adin-talde ezberdinen eguneroko jarduera eta esperientziarekin alderatzea du helburu aldagai talde honek.

Kasu batean ezik (etxean ez baitu telebistarik), internet bidez telebista ikustea bigarren aukera edo baliabide bezala hartzen dute elkarrizketatutako gazteek, intereskoa den katea sintonizatzerik ez dagoenean, edo emitututako orduan ikusterik izan ez denean. Gizonezkoen artean joera handiagoa dago kirolak eta serieak ikusteko (bai streaming bidez eta bai ordenagailura jaitsita) eta emakumezkoen artean reality-ak jarraitzeko (kateen webguneen bidez adibidez) eta filmak jaisteko.

*MU 25 G: Bai, batzutan, igual karreraren bat edo ziklismo edo badau ba, ez badau telebisinuan, etxean ez badau hori kanala, ba bai, internetetik, baina ostantzian, ez, hori bakarrik.*

*MU 21 E B: Bueno igual Gran Hermano, como belurarte danez, ez bagara ailegetan gero internetetik ikusten dogu.*

*DU 21 G: Simpsonenak pilo bat. Berrixek ikusi deskarga barik eta...*

Oro har, argi eta garbi bereizten da telebista ikustea internet erabiltzetik, jarduera eta esperientzia ezberdinak bezala, eta oro har internet telebistaren lehiakide bezala somatzen da, *Youtube* batez ere musika entzuteko erabiltzen den arren:

*AL 34 G: Nik uste dut interneten eraginez gero eta gutxiago ikusten dugula. Ez daukat daturik baina nik uste dut batez ere gazteen artean joera hori izango dela.*

Helduak 1 taldean ez da aipatzen orokorrean internet bidez ikusten den telebistarik, baina internetetik filmeak jaisteko ohitura dute elkarrizketatutako pertsona batzuek. Hala ere bereiztasun handiak daude partaideen artean: batzuk ordenagailura

hurbildu ere ez dira egiten laneko kontuetarako ez bada, eta beste batzuek gaitasun eta zaletasun handia dute internet bidez edukiak eskuratzeko. Behin ordenagailura hurbilduta, joera handiagoa agertzen dute internet bidezko aukera ezberdinak frogatzeko: telebista nahieran, streaming bidezko edukiak, filmak eta telesailak jaistea...

*BI 47 E: (...) Ezkaraira joaten garenean, igual bertan sartzen deuz ez dakit zenbat, eta han ez dauelez kableko telebisinorik, ba haregaz funtzionetan dogu. (...) Ze udeko programazinoa benetan, osea, izeten da...*

*BI 39 G B: nire emazteak bai jarraitzen dauz asko serieak. Eta batzutan gertatu jakuna da galdu dauela kapitulo bat eta orduan bai sartu garela interneten eta ikusi dogu... baina hori, orain Televisión a la Carta edo ez dakit nola deitzen den, Televisión Española ta... daukatenak. Orduan hortik ikusi zuzenean. Osea ez jeitsi ordenadorean...*

Helduak 2 adin-taldearen baitan ere ezberdintasunak daude haien artean: parte-hartzaile batzuek ohitura dute telesailak internet bidez jarraitzeko, telebistako emanaldia galduz gero; beste batzuek aldiz apenas ikutzen duten internet ikus-entzuzko edukiak jasotzeko. Edozelan ere haiek hainbeste ez, baina euren seme-alabek telebista internet bidez, ordenagailutik ikusteko («ez telebista», «telebista on-line»...) ohitura handia dutela sarri aipatzen dute:

*SA 53 G: Nire etxean alabek ikusten dute telebista, ez telebista eh? Ordenagailuan. Bueno, ia ez dute ikusten telebistarik, orduan nik piztuta badaukat, hortik, baina ez dute piztutzen, aldatu dute pilo bat ohitura.*

*SA 57 G: Bai, nire semeak ere bai...*

*SA 56 E: Eske orain ikus daiteke telebista on-line. orduan...*

Lotura handiagoa ageri da internet eta egunkarien artean internet eta telebistako edukien artean baino, baina behin eta berriro agertzen den ideia da etxeko gazteen bidez internetera hurbiltzea, *youtube* bidezko bideo laburrak eta ikusteko. Edozelan ere internet bidez telebistako edukiak ikustea salbuespena izaten da talde honentzat, eta norma berriz sofán eserita ikusten den telebistako emanaldia.

Nagusia adin-taldearen baitan elkarrizketatutako pertsonen artean ez da jaso telebista internet bidez ikustearen inguruko ekarpenik, egiten duten interneten erabilera oso apala baita.

#### **5.1.14. ORDAINDUTAKO TELEBISTA: PAY PER VIEW**

Telebista ikusteko modu hedatuena programazio «irekia» ikustea bada ere (dela telebista publikoa edo komertziala), «Telebista erosita/ordainduta» kode fokalizatua-ren baitako galderen bidez telebista ikusteagatik ordaintzen diren kasuak miatu nahi izan dira, dela edukiak fisikoki erosita, edo plataforma ezberdinen (bideoklubak, harpidetutako kanalak, *pay per view* sistemak...) bidez ordaindutako sarbidearekin.

Gazteen adin-taldean anekdotikoa da erositako telebistari buruz jasotako informazioa. Bi kasutan filmeei buruzko erositako filmeei buruz hitzegiten da, kasu

batean ahizpa txikiaren filmak (umeentzako pelikulak) eta bestean egunkariarekin batera datozen dvdak (gehi liburutegitik hartutakoak, eta internetetik jaitsitakoak). Bestelakoan, ez da planteatzen ordaindutako telebistarik.

*MU 20 E: Nik ahiztiegaz. (...) beran pelikulak eta beran rolloak, txikie da ta.*

*BI 29 E: Normalien DVDiek dekuzenak erositxe dire periodikuegaz datozenak da... hiru euro gehixau pageta dekozuzenak. Da gero horrek. Ostantzien piratak normalien. Liburutegixen be hartun izen doguz inoz eh?*

Helduak 1 taldean ere umeentzako edukiak (dvdak) dira batez ere erosten diren telebistako eduki apurrak.

*BE 40 E b: Ezebez.*

*BE 41 E: Umientzako.*

*BE 40 E: DVDak bai, umientzaku. Guretzako ez.*

*BE 37 E: Nik orain hori bez. Lehen bai, txikitxukez...*

*BE 41 E: Horrek portatilek dauzenak, kotxien juteko...*

*BE 40 E b: Hori bai, bai. Baina pelikulek bajatu eittenzuz, baina erosi? Ya ezebez.*

Harpidetutako kateei dagokienez *Euskaltel* eta *Canal Plus* aipatzen dira, baina ez konbentzimendu handiz, partidu edo filmeren bat noiz behinka ikusteko ez bada. Bideoklubak ere aipatzen dira, baina baita, noiz-behinkako jarduera bezala, gero eta marjinalagoa. Egunkariekin etorri ohi diren filmeetaz gain, norbere zaletasunez erosi eta bildutako eduki bezala dokumental sailak (*National Geographic*...) eta Marx anaien filmografia aipatzen dira. Hala ere, ordaindutako edukia kontsumitzerako orduan, parte-hartzaile batek astia falta aipatzen du arrazoi gisa, diruaren arazoa baino:

*MUS 47 G: Ez, nigatik ez. Normalean eske ez dut ematen... nik emoteko ordu luze bat telebistaren aurrean izan behar da... igual dokumentalak, bai. Ta La dos ematen dituen dokumentalak... baina pelikulekin eta holan ez, eta... Ordun, ordaintzea... baina ez ordaintzeagatik eh? Interesgarria balitz ordainduko nuke, asuntoa ez da prezioa, da denbora eta denboraren jestinoa. Ez du merezi.*

Helduak 2 adin taldekoek ere orokorrean ez dute erositako edo ordaindutako edukirik kontsumitzeko ohiturarik, baina badira inoiz egin izana gogoratzen dutenak:

*SA 52 G: Behin edo behin serie bat, jo gainera ordun txikitan ikusi nuen, claro, udan, ba denbora daukazunez, hor Villasanan, igual gitarra jotzen ari naiz, rararara... eta igual telebista aurrean «hostia, ba serie... ematen du interesgarria dala», eta ikusi nuen bat, hori Afterlife, ez dakit inork ikusi duen, oso kurioa...*

*SA 57 G: Soprano edo holakoak...*

Hala ere berehala jotzen dute internetetik deskargatutako edukia komentatzera, ez da bereizketa handirik egiten erositako eta debalde jaitsitako edukiaren artean.

Ezin esan daiteke ezta ere kontratatutako zerbitzuei garrantzia handirik ematen diotenik.

Nagusien artean ere ez dago batere zaletasun edo ohiturarik elkarriketatutako parte-hartzaile hauen artean telebistako edukiagatik ordaintzeko. Adinekoen egoitzan dauden parte-hartzaileen kasuan ohituta daude erositako filmeak ikusten, baina egoitzako langileek eurek erosi eta aukeratutakoak izaten dira. Honen harira, kexu dira, asko zaharrak direlako.

*BI 75 G: Egun batzuk egoten die, pelikule batzuk ondo...*

*BI 88 G b: Pelikulak diez zaharrak be eh?*

*MODERATZAILEA: Zeuek zeinek nahiago, zaharrak edo barriek?*

*BI 88 G b: Barrie hobeto.*

## 5.2. ASTIAZKO KONTZEPTUAK

Astia eskura dagoen denbora librea da, artikulatzeko edo artikulatzeke dagoen esparru tenporala. Pertsonaren askatasun erlatiboaren (eta sumatuaren) esparru tenporala da, jarduerak bere nahi eta ahalerara artikulatzeko eremua<sup>497</sup>. Ardatz honetan lau aldagai multzo bildu dira, telebistaren eta denbora liberatuaren arteko harremanak esploratzen dituztenak.

### 5.2.1. NORBERAREN ASTIA: ASTIALDIA ETA TELEBISTA

«Norberaren astia(ldia)» kode fokalizatuaren pean bi elementu hartu dira. Bate-tik, norberaren esku dagoen astia denbora kantitatea da, bere gordinean, eta modu objektibo eta subjektiboan zenbatu eta kontatu daiteke: asko, gutxi, hiru ordu, lau ordu... Astialdiak aldiz, denbora honek eguneroko bizitzan hartzen duen forma adierazten du. Noiz ematen diren denbora tarte horiek (seiretatik aurrera, asteburuetan...), nolakoak diren, nola hartzen diren...

Egunean eta astean zehar duten astia pertsonalari buruz galdetuta «asko» eta «lar» bezalako hitzak sarri agertzen dira:

*MU 20 E:: Bai, lar! (BARRE) Ba urte osoan gabiz ikasten eta ez dou ezer eiten, orduan ba... dana libre.*

*MU 25 G: Bai, ondo. Ez naz kejetan, vamos. (...)goizetan klasera eta arrastien ba ez badekot entrenamendurik umeez edo, ba gero arrasti guztie libre.*

Telebista modu espontaneoan agertzen da astialdiari buruz galdetzerakoan, bai-

<sup>497</sup> Ikus 1. kapituluaren «Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu» atala.



na sarri azken aukera bezala. Astiari benetako zentzu positiboa emateko kalea ageri da batez ere (etxea eta telebista azken aukera bezala azaltzen dira). Hala ere aipagarria da haien astialdiaren gehiena lonjan sartuta igarotzen dutela eta dauden denbora guztian telebista piztuta egoten dela (bai mutilek eta bai neskek, bi lonjen kasuan). Beste kontu bat da zenbaterainoko kasua egiten zaion telebistari, noski:

*DU 24 G D: Nik bai, ez dotena eitten da hori, denbora libre dekatena al bada telebistan pasau, hori ez, o sea, al bada deitzentzat baten bati, edo kafe bat hartu edo... O sea da, hori da el último recurso niretzat, da en plan qué rayada, ez dago inor inor eta bueno, seietan urtengo naz, bueno seirak urte ongo naiz telebista ikusten, baina...*

*DU 24 G B: Ni askotan etxian ez egotearren telebisinu ikusten ba gelditu naiz bajatzen naz Herrikorarte kafe bat hartzen liburu bategaz (BARRE) jo es que es ezin neike... eske etxien ez...*

Kasu batetan, non aisiazko lehentasun argiak dauden (kirola, lagunekin egotea, dantza...) argi agertzen da egunerokoaren kontakizunean telebistak oro har eskura dagoen astiarekiko duen lehentasun txikia, eta telebista ez da agertu ere egiten edo agertzen denean azken errekurtsioa da, beste aukera batzuk izanda planteatu ere egiten ez dena:

*BI 29 E: (...) Astien birritxen edo hiruten beti bere lagunekaz urtetako zeuzer hartzen edo... beti eh? Da, ostantzien ba dantza talde baten nau... herriko euskera alkartien nau, da orduen... bueno, hori be bai nitzako denporie da... Da... normalien atsaldiek bai emoten dotez neutzako.*

Helduak 1 taldean berriz oporraldi eta lanaldiak eta urtaroak (neguak eta udak) eta umeek norbere eskura dagoen astia gogor baldintzatzen dutela aipatzen da. Hala, neguan askoz urriagoa da eskura dagoen astia, eta umeak ohera joan arte (interagarria da kasu batean umeak telebistako lehiaketa bat amaitzeaz bat sartzen direla ohera) ez da astialdia hasten ume gazteak dituztenen kasuan, gehienetan momentu hori telebista ikustearekin lotuz:

*BE 40 E b: Negun ezebez, nik. Hamarretan, hamar t'erdixetararte nau ni, edo erropak eskeitxen, edo gauzek eitxen edo hurrengoko eguneko jateku eitxen... Eta udien pentsa, goizeko seirek eta pikuen altzaten gariela, etxeko txirrinduen apurtxu bet kirole eitxeko, umiek lo dauzen artien eitxeko... ezebez! Egixe da orain nirieki helduaguek diezela eta euren kabuz dauzela olgetan, baie ni etxien nau gauzek eitxen! Umiek ondino eskure euki biozuz.*

*BE 41 E: Neguan bederatzixetan duez. La ruleta de la fortuna akabetan danien. (...) Badakixie jun in bi diezela ohire, eta bederatzit t'erdixek arte edo dauz han, petardadie emoten... eta bai, hamabixetararte.*

Telebista ikusteko tarte bat izatea norbere astialdiarekin lotuta agertzen da, ia-ia sinonimo bihurtzeraino, batez ere emakumezkoen kasuan:

BE 40 E: *Gaiuen bai. Da horrek orduen gauekoak, esan douzenak danok dakuzela gitxi gora behera negu ta udien... denbora libre hori edo da telebisino biztute eukitzeko.*

BE 41 E: *Emoten dau sensazioa nauenien ikusten nauela neure denpora libreaz gozaten.*

BE 37 E: *Bai.*

Ume txikiak dituztenen kasuan hauek oheratzearekin lotzen da astialdia, eta hortaz, noberarentzako asti gehiago izateko aukera bakarra lo gutxiago egitearekin lotuta dator. Astia eskasa denean, igarotze denborak (etxetik lanera eta lanetik etxera joateko igaroaldiak) ere aisialdi bezala hartzeko aukera zabaltzen da. Hein horretan, ume txikiak dituztenen helduen artean ohikoa da lana eta umeek eskatzen duten arretaren artean astia gutxi izatea, baina aldi berean dagoenari «zuku gehiago» ateratzen asmatu izanaren sentsazioa.

BI 39 G: *Baina ikasturtean zehar, zenbatzen badogu etxetik lanera joateko bidaia, niretzat hori dala aisialdia ze normalean aprobetxatzen dot edo irakurtzeko edo zeozer egiteko, autobusean edo metroz. Eta bueltatzerakoan bardin. (...) Eta gero azkenean umeak joaten direnetik ohera gitxi gora behera ya gauzak batuta, ba hamarretatik hamabietararte edo... Beste ordu bat... hiru ordu inguru.*

Hala ere, astia eskasa denean, eta behin umeak oheratuta eta eguneko betebeharrak eginda datorrenean, aitortzen da baita errazagoa izan ohi dela telebistaren aurrean jartzea, berez interesgarriagozat diren beste aukerei (irakurtzea adibidez) ekitea baino:

Helduak 2 taldeko partaideek esplizituki adierazten dute aisialdia eta astialdia bereizteko zailtasuna, denbora libre, denbora okupatua, betebeharrak eta zaletasunak egunerokotasunean nahasirik agertu ohi baitira. Hala ere, duten astia kuantitatiboki ugaria dela uste dute, eta gehiago kezkatzen dira haren izaeraz. Edozelan ere ordutegi malgua izatea, norberak antolatzeko, abantaila handi bezala ikusten dute.

SA 53 G: *Baina es que, hori zaila da bereizten, ocioa zer dan eh?*

SA 52 G: *Ez, denbora libre da gauza bat eta beste gauza bat da ocio, zuk nahi duzuna egiteko denboraldia.*

Oro har, denbora gehiago daukaten salbuespenak dauden arren, sei-sei t'erdietatik aurrera hasten da adin-talde honentzat norberarentzako astialdia etxetik kanpo lanean dabilzantzat (etxeko lanek eta etxekoen zaintzak ahalbidetzen duenean). Hiru bat ordu «libre» izan ohi dituztela aipatzen dute, baita gehiago ere.

LE 52 E: (...) *amamagaz ba Teleberri ikusi, gero bera lotara doianian, ba bueno, ba edo igual nago trankil-trankil, edo josten badaukat zeozer, edo normalian, edo irakurri edo periodikua ondo irakurri, zeozer programaren bat badago engantxata nagona ikusi, eta, denpora librieen hortzen daukat, osea.*

Etxeko langileak direnen kasuan ere, goiza oro har beharrak egiteko tartea izaten da, eta astialdia, egotekotan, arratsalde bueltan hasten da gehien bat. Noski, dauden

ordu libreak berehala «okupatzen» dira aisiazko jarduera ezberdinekin: piztina, margolaritza, musika... Astia gehiago denean, eta berau norbere ahalera antolatzeko aukera dagoenean, aisiazko jarduera gehiago agertzen dira adin talde honetan. Erretiratutako gizon baten emazteak dioen bezala, «antolatuta, berentzako baina antolatuta»:

*LE 59 G: Ordu gitxien libre dekona bera da atzanean.*

*LE 54 E: Bai, bai, dana dakoz okupata, dana dakoz okupata.*

*LE 57 G: (Barre artean) Bai, bai, nik danak daukodaz okupata!*

Bukatzeko, Nagusiak adin-taldekide ugariaren ustetan «denbora asko» daukate haien esku, «teorixen... dana». Beste kontu bat da egunerokotasunean nola gauzatzten den asti hori, praktikan nolakoa den astialdia –betebeharrak edonon eta edonoiz aurkitzen baitira– baina printzipioz, eskura daukaten denbora ugaria dela aitortzen dute. «Jubilauak deukez nahi daben beste ordu libre»:

*AU 67 G: Teorixen... dana, munduko ordu danak oin, teoriz! Teoriz e?*

*AU 85 E: Neuk bebai, neuk bebai baina...*

*AU 85 E: Bainakaz... (barre)*

*AU 67 G: Bai ba. Garen modukuk garelako... danin topetan dogu biherra! Obligazinuek geure buruari ipinten dotzaguz! Baina, teoriz...*

Etxeko lanak batez ere emakumezkoek egiten dituztela aitortzen dute, eta hartara emakumeen goiza lotuago egoten da gizonezkoena baino, «etxeko obligazinuek» goizetan egiteko ohitura handiagoa dagoelako.

*AU 67 G: Andrazkuk diferente dala pentzetan dot nik eh? Esate baterako, gurin behintzet ba andriek biher balixokuk eitten deuz asko! Umiek zainddu ta hau ta bestie ta... Nik e... ni falta izen arren igerri bez!*

*AU 71 G: Etxien andrazkuk... beti zeozer. Oin... gizonezkua beti... libre gehixa, gure kapritxuek edo eitten badittue, zeuzer badeko zu, baina ostantzien eh ez ha derrigorreku...*

Nagusien egoitzan elkarrizketatutako pertsonentzat norbere astialdiaren kontzeptua ezberdina da, astia bete beharreko, «emon» beharreko zerbait bihurtzen baita sarri. Telebista, zentzu horretan, aliatu nagusia bilakatzen da. Astiaren izaera bera, hortaz, ezberdina da: norberak nahi duena egiteko tarte baina, igaro, pasa edo «emon» beharreko denbora bihurtzen baita gehiago:

*BI 88 G b: Ba eskerrak telebisinuari. Denborie emoteko aukerakue.*

### 5.2.2. TELEBISTAREN GARRANTZIA NORBERE ASTIALDIAN

«Astia eta telebista» kode fokalizatuarekin telebistak egunerokotasunean, eta batez ere eguneroko astian hartzen duen lekua eta pisu subjektiboa esploratu dira. Zein harreman dagoen alegia, telebistaren eta norbere astiaren eta astialdiaren artean.

Gazteak adin-taldean telebistak astiarekiko bi posizio hartzen ditu nagusiki: lehenengoa atsedean faltarekin eta norberarentzako nahikoa astirik ez izatearekin, nekearekin eta jota («hecho polvo») egotearekin lotzen da batez ere. Hala, telebista des-konektatzea besterik bilatzen ez den une horiekin identifikatzen da:

*DU 24 G A: Azkenien ez dekozu denborarik, aisialdi denborarik, zauzelako egun guztia edo lanien edo ikasten edo..., heltzen zarenien bardin jatzu ya zer dauen, o sea, gure dozu lasai egon, ikusi telebista dauena...(…) ez dekozu gogorik pentzetako edo hasteko koletan bialdu dotzuen informazinoa, ya bardin jatzu zer esaten dabien, zaoz...*

*DU 24 G B: Ya, azken batien denbora gutxi eukittie sinonimo da eukin dozune izen dala oso ajetreaue edo holan ta zauzela hecho polvo, o sea eta orduen, hecho polvo bazaoz, ba, puff..., etxie...*

Bigarrenik, telebistak betelana egiten du, hutsik sumatzen den espazioa (lonjak, oso modu argian) eta denbora (arratsaldea) betetzeko funtzioa betez. Hartara, nola erabili ondo jakiten ez den asti edo denbora libre hori «pasatzeko» eta «ez aspertuteko» gailu eta ohitura bihurtzen da, baita ohituraren poderioz aztura automatiko ere, batzuetan elkarriketa bera ere oztopatzera hel daitekeena:

*MU 25 G: Bai, holan, ez aspertuteko. Bai.*

*MU 20 E: Ya kostunbrea bere bai, ailegau ta biztu, ta...*

*MU 21 E: Guk hasikeran ez genuen eukiten eta berba gehiau iten gendun lehen oin baino.*

Beste kasu batzuetan erabat hondarrekotzat jotzen da telebistari eskaintzen zaion astia, hau da, soberako astia besterik ez zaio eskaintzen. Denbora «kentzekotan», telebistak oro har ikasteko eta lo egiteko denbora kentzen du, elkarriketatutako gazteen ustez. Gauetako programazioa insomnia duen jendearentzako onuragarri edo interesgarri suerta daitekeela ere aipatzen da.

Telebista ikusteak batzuetan beste gauza batzuk egiteko denbora «kentzen» du Helduak 1 taldean: batez ere lo egiteko denbora. Hurrengo egunean damutu arren, sarri zaila izaten da gustukoa den zerbait ikusten ari direnean telebista itzaltzea. Honen aurrean telesailak grabatzeko aukera aipatzen da (nahiz eta sarri gero grabatutakoa ikusteko astirik aurkitzen ez den), eta baita edukiak internetetik jaistearena ere. Praktikan, hala ere, ohikoa da telebista ikusten gelditu izanagatik beranduegi oheratzea,

*BE 41 E: Lo eitxeko denporie batzutan bai...*

*BE 40 E: Guri bai.*

*BE 37 G: Bai, ze batzuten behartute eitten dozu amatau. Osea... apurtxu bat gehixau ikusi nahi dozu, baina bixerko pentsamenduegaz ya... amatau eittenzu.*

*BE 41 E: Bai, zegaittik egon nai hainbeste, bai. Neuk bebai...*

*BE 40 E b: Eta gaur goizau joan nahi da... ez! Zueztan ordu bardinen da...*

Telebistak astiarekiko hartzen duen lekua deskribatzerako orduan gehiago jarduten da denbora honen izaeraz, kantitateaz baino. Hala, erlaxatzeko eta atsedean hartzeko une bezala agertzen da berriro, behin eguneko bete-beharrak amaituta, baita zuzenean loak hartzeko aitzakia bezala ere («sehaska kanta»), eguneko gertaerez informatzeko aukeraz gain, baina batez ere entretenimendu hutsa bezala hartuta:

*BI 47 E: Normalean bai. Niretzat izaten da relaxeko momentu bat, osea amaituten dozuz etxeko gauzek, edo hartuten dozu tarte bat deskantzetako edo holan eta... telebisiinoa ipintea niretzat automatikoa izaten da ganera eh? Biztuten dot eta ya trankildu egiten naz... batzuten zuk esan dozune Idatze, lo!*

*BI 43 E: Lo geratzen naz sarri. Bost minututan txau! Lo! Eta batzutan eitxen dot, eguerdixetan oin, jornada intensibagaz ba, jan ta etzundu apur bet sofanan teleagaz ze horrek lagunduten dozt, pum! Ta (barre).*

Kasu batean telebistak astiarekin duen harremana egongelarekin lotzen da zuzenean. Ikusi ez arren piztuta egoten da eguna amaitzean, eta astiaren zati minimo bat hartzen dion arren, bikotekidearekin batera erlaxatzeko momentuarekin lotzen ditu egongela, eta hartara telebista. Beste kasu batean telebistari denbora zerk kentzen dion, eskaintzen zaion astia zerekin lehiatzen duen ere planteatzen da: etxetik kanpoko ihardueretatik hasi (eguraldiaren menpe), eta baita telebistaren inguruko beste teknologiekien jarraituz, internet eta eskuko telefonoek batez ere:

*LA 40 G: (...) nire ustez internetek asko kendu dio, eta interneten bidez dabiltzan gailu berri guztiek areago, ez? Hau da, nire kasuan pantaila handia izan badaiteke, belau-naldi berrietan telefonoarekiko daukaten harremana handiagoa da oraindik, itzela, itzela izateraino.*

Helduak 2 taldeko parte-hartzaileek aldiz astia gehiago dagoenean, denbora libre gehiago dagoenean, telebista gehiago ikusteko ohitura aipatzen dute, asteburuetan adibidez. Intereseko eduki batzuk, filmak adibidez, sarri ez dira ikusten beraduegi hasten direlako, eta hurrengo egunean goiz esnatu behar izatearekin bateraezinak gertatzen direlako. Grabatzea aukera bat da, batzuek erabiltzen dutena, baina beste batzuek ez dute inoiz grabatutakoa ikusteko astirik (edo momenturik) aurkitzen. Beste batzuek, naiz eta berandu hasi, interesekoa badute, ikusi egiten dute:

*LE 52 E: Nik normalian ikusten dot eh? Osea... hasten banaz ikusten, ez jat inporta, hombre, ez naz pertsona bat lo askorik eitten dotenik, orduan engantxatzen banaz, ikusten dot, eta gehixau, ganera, bakarrik nagonean, o sea...*

*LE 53 E: Ni hasten banaz pelikula bat ikusten normalean amaittu eitten dot. (...) Bai, bai. Naiz tta pestañak jausitta ta...*

Telebistari daukaten astiaren zati handia eskaintzen ote dioten geldituta ezetz

diote orokorrean. Hala ere, onartzen dute konturatu gabe, ezer ikusi orduko («bi Te-leberri ikusten badituzu») denbora asko hartzen duela. Gehiegi, batzuren ustez:

*SA 52 G: Nik uste dut, gutxi izanik, nire ustez ez dela asko, gehiegi iruditzen zaidala. Batzuetan, kaguen sos joan behar nuen hona, igual, kaguen sos, ba zelan, igual geratu zara, batzuetan, igande batean (...) hasten da pelikula bat, arratsaldeko pelikula, y es una chorrada, igande arratsaldeko pelikula gehienetan chorrada bat izaten da, baina geratzen zara hor como un pavo (...) eta orduan ematen dizu pena horretan denbo-ra-pasa izanak.*

Azkenik, Nagusiak taldearen baitan elkarrizketatutako pertsonen artean alde na-barmenak aurkitu dira, telebistari eskaintzen dioten astiarekiko. Oro har arratsalde osoan zehar telebista piztuta oso ohikoa da talde honetan, batez ere emakumezkoen kasuan. Kasu batean, etxean egonez gero eguerdi aldera hiru ordu, eta gabaz beste lau ikusi ohi dituela aipatzen du; kide batek erdi txantxetan dioen bezala «jornala». Beste kasu batzuetan denbora gutxiago egoten da piztuta aparailua, eta etxeko joan-eto-rrien arabera piztu edo amatatzen da, «atzera ta aurrera», «kendu, ipini...» irrati eta telebistaren artean igaroz:

*AU 75 E: (...) nik ipintten dot telebisinoie ta hamar t´erdixek arte eukitten dot radixue. Ta jakitten badot batenbatek debatie dekola euskal telebistan, haxe ipinten dot, radixoa kendu ta haxe ipintten dot. Baina gero, Saber Vivir eukitten dot, Eta Saber Vivir-egaz egoten naz ba biher guztixek ein artien. Baina ez jarritte. Atzera ta aurrera... Beti nabilela.*

Telebistak laguntasuna ematen duenez ohikoa izaten da behin betebeharrak eginda eta etxean egonez gero denbora asko eskaintzea, batez ere bakarrik bizi diren pertsonen artean

*LEZ 67 E: Libre dekotenean, arrasti guzti igual. Bueno, arrastien igual kendu, imini, baina ez halan segiduen igual ez, baina bueno, badinotzut, nireztat telebisino hori, laguntasune da. Igual, ba ez dakit, triste edo... piztuten dot telebisino eta esan leike batenbat dauela etxen edo, halako...*

Filmak interesgarri iritzi arren, sarri gauetakoak ez dira osorik ikusten, beran-duegi ematen dituztela uste baita. Eguerdietan telebistak «telesiesta» edo telebistaren aurreko lo-kuluxka egiteko aukera ematen du, eta gabaz ohera joateko ordua ere mar-ka dezake edukiaren arabera:

*AU 77 G: Nik neuk desde luego Telediariora amaitzen danin gabin... minuto bat ikus-ten badot horrek diskusinuek horrek ipintten badeuz andrik, bueno, nahiku ikusi dot ta banue ogera! Ta holan juten naz goizau, haxe ez ikustiagattik (barre). Ostantzean hamaikak hamaika t´erdixek arte gustoko gauza bat egon bada, deportiaz, ba...*

*AU 71 G: Ni egunaro hamabixek ingururarte ni beti.*

*AU 77 G: Hamarrak eta pasautxuan juan naz ogera, haxe ez ikustiagattik.*

*AU 85 E: Bai, guk gabien be partie amaittu ondokun gero hamar t´erdixetan zer hori, eh, 24 horas eukitten dogu te...*

### 5.2.3. TELEBISTA IKUSTEAREN DENBORA: TELEBISTALDIA

«Telebistaren denbora» aldagai multzoaren baitan telebista ikustearen denboren kalitate subjektiboa jaso nahi izan da, honen aldizko koordenatuak baino gehiago. Hala, telebista ikusten jartzeko motibazioak zein denbora horren esperientzia eta balorazioak alderatu ahal izan dira adin-taldean artean. Finean, *telebistaldiak* baloratzeko eskatu diegu.

Telebista aise ikusten dela, ahaleginik gabe burutzen den jarduera dela behin baino gehiagotan ageri da gazteen adin taldean. «Alperrik botatako denbora» eta «denporia galdutea» bezalakoak azaltzen dira, telebista ikustearen denbora deskribatzerako orduan. Ez beti, hala ere, gustuko zeozer ikustea ez baita denbora galtze bezala bizi. Hala ere asperdurari edo hutsuneari aurre egiteko aukera bezala hartzen da batez ere telebista ikustea:

*MU 21 E: Alperrik botatako denbora. (...) Bueno dana... dana berez. Baia joe...*

*MU 21 E B: Teleberri nik ez dot pentsaten dala denporia galdutea, baina Gran Hermano ikustea bai.*

*MU 20 E: Akabuen telebisinoa ikusten dozu ba aburridute zauz, ez dakizu zer ein, ba hori, no sé... edo arrasti baten zoaz lonjara eta en vez de denpora ona aprobetxeu, telebisinue ikusten...*

*MU 20 E: Kostunbrea da.*

*MU 21 E: Ez dau beste zereginik berez.*

Sarri telebistaren denbora osotasun handiago baten parte bezala somatzen da: hala telebista ikustea «lonjan egotearen» denboraren parte da elkarrizketatutako lonjadun gazteen artean | ez da bata bestea gabe ulertzen:

*MU 21 E: Baina ez da telebisinue ikusten. Da lonjan egotea eta telebisinoa horren parte da, ez gara lotzen telebisinoagatik, apur bet danagatik.*

Telebista gutxien ikusten duten gazteen artean ere, aitortu egiten da inoiz orduak igaro izana telebista aurrean, denboraren joanaz konturatu gabe. Zentzu horretan, telebistak denbora galdu arazteko arriskua izan dezake, zeren eta («ez dotzu ardure zer zauzen ikusten»):

*BI 29 E: ... sarritxen eitxen dire «horas muertas», holan egonda... Nik holangoik ez dot eitxen, ta ikusten badot nauela ordu bi baino gehixau telebisinoan aurrien beti dinot, eske, zetan nabil hamen, ein baneike beste gauze bat edo...*

Helduak 1 adin-taldean denbora-pasa bezala hartzen da oro har telebista ikustearen denbora, baina unearen eta edukiaren arabera gauza ezberdinak eskaintzen

dituela aipatzen da baita ere. Gustoko zerbait dagoenean («zeuzer dauenien») gozatu egiten da telebistarekin, ezer berezirik ikusi nahi ez denean entretenimendu eta laguntasuna eskaini dezake...

*BE 41 E: Denporapasa!*

*BE 37 E: Bai, denporapasa. Niretzako ez da denporie galtzie.*

*BE 40 E b: Ez...*

*BE 37 G: Nik kirola gozau eitten dot.*

*BE 41 E: Zeuzer dauenien ganera disfruta eitzenzu. Zeuzer gustukue dauenien...*

*BE 40 E: Baie entretenimendu moduen bebai...*

*BE 40 E b, BE 41 E: Bai.*

*BE 40 E: Da beste momentu batzuten dinozune, denpora pasetako bebai... Hori, ba laguntzino moduen edo, bakarrik ez egoteko...*

Edukiak garrantzia handia du, telebistaren denbora definitzerako orduan: eduki batzuek (dokumentalek adibidez) merezi dutela aipatzen da, beste batzuk ikustea al-diz denbora galtzea izan daiteke. Telebista zenbat eta gutxiago ikusteko ohitura izan, orduan eta garrantzia handiagoa hartzen du edukiak:

*BI 39 G: Segun. Segun eh... batzutan, adibidez, niri dokumental bat ikustea aisia da baina (...) beste batzutan da denbora-pasa, edo denbora galdu. Ez dakit, oso filme edo oso eduki txarra baldin bada denbora galdu...*

*MUS 47 G: ... bai, normalean bai, denbora-pasa... ta.. baina edukien arabera eh? Ez dakit... (...) ba gustokoa duzun gauza bat, orduan ba ya ez da denbora-pasa baizik eta ya...*

Kasu batetan telebista ikustearen denbora pasibotzat hartzen du parte-hartzaile batek, baina saio batzuek ikus-entzuleek parte hartzeko duten aukera ere azpimarratzen da aldi berean. Parte-hartze honek, ikuslearen jarrera aktiboago bat ahalbidetzeaz gainera, saioaren arrakasta bultzatzen dutela aipatzen da. Zentzu horretan telebistaren ondoko zenbait teknologiek (twitter eta facebook adibidez) telebista ikustearen izaera pasiboa zalantzan jarri eta arrakasta bide berri bat eskaintzen diotela aipatzen du elkarrizketatu berak:

*LA 40 G: (...) ikuslearen partetik, hartzailearen partetik pasibotasun hori, ez? Baina ikusi da ere bai jendeak eduki duenean aukera parte izateko, areagotu egiten dela telebistarekiko grina, eta hor daude, programa arrakastatsuenen giltza ez da soilik morboa edo beste, jendeak ere interaktuatu dezakeenean, arrakastak igo egiten du, ez? (...) gaur egun interaktibitate hori, adibidez, telebista eta sare sozialen arteko erabilera horretan ba ikusten da, ez?*

Helduak 2 adin-taldeko partaideentzat ere batez ere denbora-pasa da telebista ikustea, baina berriz ere azaltzen da edukiak telebista ikusten ematen den denboraren



izaera baldintzatzen duenaren ideia: denbora-pasa da batez ere telebista, baina gus-toko zerbait denean, edo interes bereziz jarraitzen den saio bat dagoenean, gauzak al-datu egiten dira. Horrenbeste ezen, kasu batzuetan hurrengo saioa noiz emango du-ten itxaroten egoten diren batzuk, kapitulu bat amaitzeaz batera. Kasu hauetan jada ez da denbora-pasa soil bezala ikusten, beste zentzu bat hartzen du telebista ikustek.

*LE 55 G: Hori bai, azken batena aukeratzen dozuna, aukeratzen badozu gauza bat ba ezberdina da.*

*LE 54 E: Klaro, hasten zara denbora-pasa modura, eta igual izan leike, ene, ba bai ederto dagona! Da orduan engantxaten dotzu.*

*LE 57 G: Baina gitxitxan eh?*

*LE 53 E: Baina egon dira serie batzuk ni itxoten egon nazena. Downtown Abbey eta Enriquena, Inglaterako erregearena eta, itxoten hurrengoko asteari...*

*LE 54 E: Bai niri ere pasa jat batzukin eh? Serie batzukin, hori itxoten, edo goizean esatea «zelako ondo arin preparako naz eta gauzak arin amaituko dodaz eta hasten denian han egongo naz».*

Orokorrean, hala ere, esan bezala telebista ikustea helburu jakinik gabe zapping egitearekin lotzen da, telebista aurrean jartzearekin, «ia zer dauen» ikusteko, aurretik ikusiko dena aukeratu edo ondo jakin gabe, gehiago atsedean hartzeko, deskonekta-tzeko eta burua beste nonbait jartzeko «deskantso bat». Salbuespenak daude, zenbait elkarrizketatuk beren-beregi telebistan zerbait ikusteko pizten baitute telebista, baina oro har lo hartzearekin edo lo hartu aurreko uneekin ere lotzen da telebistako denbo-ra, dela bazkalostean lo-kuluxka bat egiteko, edo oheratu aurretik. Eginbeharrak bete ostean atsedean hartzeko tartea da telebista ikusteko denbora:

*MU 51 E: Telebistako denbora da erlajazio denbora, orduan ez da galtzea denbora, da erlajatzten zaren bitartean hori dekozula aurrean. (...) Ez da beste zerbait egin behar duzun denbora, ba deskansoan duzun denbora.*

*MU 55 E: Bai, ze gura badozu amataten dozu eta zure gauzetan, baina ez, zauz des-kantzaten eta ikusten.*

*MU 51 E: Ya dana batu duzu, dana in dozu, eta esaten dozu «bueno, orain bost minutu eseri», eta orduan pizten dozu, baina ez beste baten zor gelditzen zarelako, baizik eta momentu bat...*

*MU 56 E: Akabaten dozuz gauzek jesarri ta «ba, oain pelikula gura dot ikusi» (...) Bai, hori bai gustaten dazt, como bah, relax.*

Interesgarria da nagusien adin-taldean telebista ikustea ez dela denbora galtze bezala hartzen, ezta telebistarekiko kritikoen direnaren artean ere («ikusten dauenak zeozergaittik ikusiko dau»), Entretenimendutzat hartzen da denbora-pasa baino ge-hiago («nik neuk ondo pasau»), eta gainera eduki batzuk, albistegiak adibidez, fun-tsezkotzat hartzen dira munduaren berri izateko:

AU 74 E: No, galtze no... Entretenimendu, neutzako bai.

AU 85 E: *Partie ta horrek ez die denbora galtzie! Horrek jakin ein biher dittugu, gauzek jakittek!*

Talde honetan ere bereiztu egiten da intereseko zerbait ikusten denean («konzentratu») eta beste gabe telebista denbora-pasatzeko aukera bat denaren artean. Gehienetan, denbora-pasa izaten da («konkursoekaz bai, distraiduten naz asko», eta eduki zehatzak dira (telesailak, aintzinako filmak) bene-benetako interesa pizten dutenak:

LEZ 67 E: *Pasetako modu bet. Niretzat bai, hori da denbora-pasa. Ez dakit, igual dauz e, pelikula bat gustaten dazte inportante eta ez da denbora pasetako, nau konzentratu ta bueno... momentu ona pasetan, eztakizu? Nik pentsetan dot, lehengo pelikulek, ez dakit zergatik, igual ba nire edadeagatik, eztakizu? Baina pentsetan dot hobeauak direzela oingoak baino. Nire ustez e?*

#### 5.2.4. TELEBISTA ETA OPORRAK: JAI EGUNAK ETA LAN EGUNAK

«Oporrak/lana» kode fokalizatuaren azpian telebistarekiko harremanak oporraldian eta lanaldian eta jaiegunetan eta lanegunetan nola aldatzen diren aztertu da, baita urtaroez telebista ikustearen edo ez ikustearekin duten harremana ere (zein, zeharka bada ere, eguraldiarekin lotuta azaldu den behin eta berriro).

Elkarrizketatutako gazteek udan kalean denbora gehiago eta etxean gutxiago egiten dutela aipatzen dute, eguraldia eta oporrek dakarten astia gehiagoren ondorioz, eta hartara telebista ikusteari eskaintzen dioten denbora nabarmen jaisten dela. Denbora («egune») aprobetxatzea kalera irtetearekin lotzen da udan, neguan ez dauden aukerak zabaltzen baititu eguraldi onak.

DU 24 G A: *Ze ni udan behintzet goizean saiaten naz oso arin urteten, aprobetxateko eguraldia eta egune, eta gabaz ya beti gelditzen zea zeozer hartzen, edo buelta bat emoten... Orduen... ez da neguen etxien pasaten dozun denboran iguala. Azkenien neguen, eurixe dala eta, askotan pasetan dozu asteburu guztia etxien edo gabaz ez zara urteten klasia dekozulako hurrengo egunien, eta holako gauzek.*

MU 20 E: *Etxean be ez zaoz asko, hainbeste.*

MU 21 E b : *Denbora gehiau kalean.*

MU 21 E: *Kalean zaoz gehiau.*

Negua «etxean», edo «barruan» gelditzearekin lotzen da, eta uda berriz «kalera» edo «kanpora irtetearekin. Uda eta neguaren artean aukeratzeko eskatuta, zalantzarik gabe egiten dute udako ereduaren alde. Udan aukera gehiago dago kalera irteteko, eta hortaz telebista gutxiago ikusten da. Bestela esanda, telebista, oro har, egiteko beste ezer ez dagoenean dagoen aukera bezala hartzen dute gazteek.

Asteburuetan ere telebista gutxiago ikusten dutela diote gazteek, eta printzipioz behintzat zenbat eta asti eta aisirako aukera gehiago izan (oporraldian eta jai-egu-

netan) telebista ikusteko joera txikiagoa aipatzen dute. Eguraldiarekin ere zuzenean lotzen da ikusten den telebista kantitatea: Hotza eta euriarekin telebista gehiago ikusten da denbora gehiago ematen delako etxean, eta uda heldzearekin batera telebistari eskainitako denbora berriro jaisten da, etxetik irteten delako, berriro ere denbora «aprobetxatzeko» ideiarekin lotuz, kirola egiteko, hondartzara joateko...

*BI 29 E: Uden, ganera ni kostakoa naz, hondartzie bertan dekot, da ahal dotan dantan aprobetxau eitzen dot edo... bai, beti nau kalien udan. Orduen ez dekot astirik berez ikusteko. Da... aprobetxa zeinke kirola eitzeko... beste mile aukera dekozuz.*

Telebista, hartara, baliabide bat da etxean gelditzekotan; oporrek eta urtaroeke beste aukera batzuk zabaltzean, garrantzia erlatiboa galtzen duen aisiazko baliabidea. Gazte batek laburtzen duen bezala, finean «Telebisinoa beti dau hor».

Helduak 1 adin-taldean oporrak batez ere etxetik kanpo egotearekin lotzen dira, eta hartara telebista gutxiago ikustearekin.

*BE 40 E: Ze gehixau gauz etxien da udien gehixau gauz kalien.*

*ASKOK BATERA: Bai, bai.*

Udan ere ikusi egiten da telebista, afalostean batez ere, baina gutxiago, eta mahai-jokoak eta abarrekoak ere aipatzen dira, gehiago oporraldiko jardura bezala. Kasu batean opor garaia udarekin eta kanpoan egotearekin lotzen da, baita telebistatik ez dagoen lekuetara joatearekin ere. Asteburuetan, ordea, telebista piska bat gehiago ikusteko aukera egoten da, aste barruko ohera-sartu aurreko telebista tartea baino gehixeago. Edozelan ere, umeen zaintzak baldintzatzen du gehienbat astialdia, eta baita telebistari eskaini ahal zaion tartea ere:

*BI 39 G: Nik ikusten dot igual udan, gitxiago ikusten dogula, azkenean kalean gehiago egoten garelako. Baina bueno... Edo, ez dakit, batzutan joaten gara leku batzuetara zuzenean ez dagoena telerik. Osea... kamping batera edo... ez dago telerik ta ezin dozu ikusi. Ta hori guztia zenbatuta ba igual udan gitxiago ikusten dogu...*

Oporrak ez ezik asteburuak ere aipagarriak dira Helduak 2 adin-taldearentzat, zeharo aldatzen baitira ohiturak, erritmoak eta ordutegiak. Asteburuetan lo gehiago egiteko aukera dago, erosketak eta etxeko lanak egiteko aukera... Printzipioz astia dago asteburuetan, baina berau berehala okupatzen da, dela etxeko lanak egiteko, erosketak egiteko, seme-alabak partidura eramateko edo familia bazkariak antolatzeke. Asteburua sarri astean zehar egin ezin izan direnak egiteko tartea da, dela betebeharrak edo kalera irten ahal izatea. Horrenbeste, ezen parte-hartzaile batzuek asteburuetan praktikan sofán eseri ere egiten ez direla adierazten duten.

*AU 77 G: Baina erosketak, jatekoa, goizez eitten dozuz. Nik en kanbio aste bittartian arratsaldez. Gero arratsaldian, ba bueno, telebisinua jarri eta igual siestatxu botaten dozu, pasiateko denpora gehixau dekozu, txikito bi hartzeko bebai...*

*LE 52 E: Hori be bai, bai, hombre klaro baietz, ez dozuzenak eitten astean zihar, porque claro, es dozu hartzen ez ardaurik ez ezebez, ba hartzen dozu, erosketak eitten dozuz,*

*edo buelta bat eitten dozu, gero lagunakin geratzen zara, baina ya etxian ba eitten dozu... Nik neuk, ni asteburuan praktikamente ez naz jesarten sofan.*

*LE 57 G: Hombre, gu astelehenetik barikura etxeko bizixe eitten dogu. Da gero asteburuan ya kalian gaaz.*

Oporraldia ere kalera gehiago irtetearekin lotzen da orokorrean, baina ezberdin- du egiten da bertan gelditu edo kanpora joatearen artean, etxean (herrian) gelditzea etxeko bizitza egitearekin lotzen baita, eta hartara baita telebista gehiago ikustearekin ere. Hala ere eguraldiak argi eta garbi eragiten duela adierazten dute adin-talde hone- tako parte-hartzaileek, eguraldi onak kalera gehiago irtetea dakar, eta hortaz telebista gutxiago ikustea.

Erretirata egonda, oporrak eurek baino, urtaroeke eta eguraldiak dute garran- zia Nagusiak adin-taldearen baitan. Neguan, arin iluntzen duenean, telebistara jot- zeko ohitura handiagoa dago, etxean egiteko ordu asko dagoelako:

*AU 77 G: Negin ordu asko dau. Egunek seietan gaba eitten dabenak.*

*AU 67 G: Bai bai bai.*

*AU 77 G: Ez dakizu nora juen. Ze kalien ibiltteko ilun dau, ez dekozu zereginik kanpuen da...*

*AU 85 E: Kalien bakarrik ibili biher, ez dau inor be ta...*

Egoitzan elkarriketatutako parte-hartzaileentzat ere eguraldia da batez ere ai- sialdia baldintzatzen duena. Hainbeste, ezen sarri eguraldi eskasak telebista ikustea bilakatzen duen aukera bakarra. Eguraldi onarekin telebista gutxiago ikusten da, eta txarrarekin gehiago:

*MODERATZAILEA: Ta txarra eitten badeu, eurixe eitten badeu?*

*BI 88 G: Ba telebisinora. Goizien paseoa...*

*MODERATZAILEA: Uden, eguraldi ona datorrenien, telebisino gitxiau ikusten dozue?*

*BI 88 G: Gitxiau bai...*

*MODERATZAILEA: Gehixau urten igual?*

*BI 88 G: Urten... kanpora gehiau.*

### 5.3. AISIAZKO KONTZEPTUAK

Aurretik ere sarri azpimarratu dugun bezala, aisiak denbora libre hutsaren eta praktika edo jarduera soilaren dimentsioak gainditzen ditu, subjektuaren bizipena, esperientzia eta ulermena barne hartuz. Material, sozial eta historikoki kokatuta eta mugatuta dagoen arren, ezaugarri objektiboak gainditzen ditu, eta muinean bizipen

subjektibo eta pertsonala da. Ardatz honetan telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak eta bizipenak jaso nahi izan dira, adin-talde ezberdinen eguneroko aisian telebista nola ulertzen eta txertatzen den alderatzeko.

### 5.3.1. TELEBISTA ULERTZEKO ERAK: TELEBISTAREN ERREALITATEA

«Zer da telebista?» aldagai multzoaren baitan telebistaren ontologiari dagozkion galdera ezberdinak biltzen dira, hala nola parte-hartzaileek telebistarengan aldaketarik nabaritu ote duten, nola ulertzen duten telebista ikustea, eta ea telebista ikusteko modu berririk somatzen ote duten.

Gazteek adibidez aho bakarrez diote baietz, aldatu egin dela telebista azken urteetan. Lehenengo eta behin edukien aldetik. Edukiak eskasagoak direla eta «txarrikeri» eta «morbo» gehiago aurkitzen dala salatzen du. Reality-en fenomeno eta estatu batuetatik etorritako formatoen arrakasta aipatzen dira, telebistaren aldaketaren adibide:

*DU 24 G D: Nik igarri naben kanbixue desde los reality hori rollue pasau zanetik hona, o sea, hontxe ja dau pixkanaka jausten, baina hor epoka baten zan dana hori. (...) baina horrek bai, baina, baina horrek daka un toque yanki que se te va la olla. O sea en plan fantasmada bat....*

Aldi berean, telebistak egunerokotasunean duen garrantzia ere jaitsi dela aipatzen da, batez ere eskuko telefonoak eta internetek gazteentzat duten zentralitatearen aurrean, eta etengabe gailu berriak erosi behar dituen gizarte kontsumistaren joerarekin lotzen dute telebistaren nolabaiteko gainbehera teknologiko erlatiboa, beste aparailu batzuekin alderatuta. Telebista beste hedabideekiko tentsioan kokatzen dute –batez ere internetek mehatxatuta–, baina oraindik ere bere zentralitatea mantenduz, laguntasuna emateko duen gaitasuna dela eta:

*AL 34 G Nik uste dut internetek kentzen diola Batez be gazteen artean Datuak egongo dira hor nonbaiten, baina...*

*AL 30 E Nik uste dot jendeari konpainia eiten dotsola, asko Bueno, irratiak gehiau igual, baia telebisinoak bebai... Ez dakit inportanteagoa bada oin...*

Zentralitate honek gainera gizartearen eragin zuzena duenaren inguruan ez dute zalantzarik agertzen, eta kritikoa azaltzen dira. Aldaketa handienak eskuko telefonoekin eta internetekin lotzen dituzte hala ere, batez ere belaunaldi berrieekin lotuta (haiek baino gazteagoekik):

*DU 24 G D: (...) inor ez da sartzen telebisinoaz, eta telebisinuak daka kriston indderra, o sea, gizartearen... O sea, nik esaten dot, jendiek nondik hartzen dauz ohiturak, edo bestiek, edo pentsamenduak eta hori? Bai, ba eskolak bai, baina jo sea telebisinoak pilo bat iten dotzela be bai.*

*DU 21 E: (...) Ez dakit, niri bilddurre emoten doztala eh? Nabil ikusten holako gauzak zelako arin doiazzen, jendia ya whatsappekin da, nik ez doazela ulertzen... nik ez dakit,*

*ez dodaz diferentzietan gauzak, i-lo que sea. Batzutan bilddurre emoten dozta, o sea, nabil ikusten hurrengo generazinoekin ya galdute egon bi garela, o sea...*

Telebista gaur egun haientzat zer den galdetuta, gazteek orokorrean denbora-pasatzeko (edo galtzeko) gailu bezala definitzen dute. Hori bai, autokritika ere eginda, telebista ikusteko modu ezberdinak egon badaudela, eta haien buruak telebista modu eraikitzaile batean ikusteko bezala ez dituztela gai aurkitzen aitortuz:

*MU 21 E B: Denbora pasetako txisimea.*

*MU 20 E: Bai. Denbora pasetako edo... (...)o sea, alperrik, o sea alperrik denbora pasetako zeozer. Eta ikusten dot, eh? Nik pilo bat ikusten dot telebisinoa, baia... (...) Es que ez dakigunez ikusten, pues...*

*MU 24 G: Denbora-pasa bat, es que.. ez dakitt...*

*MU 21 E B: Hombre, bebai balixo deu jo, komunikazino bere... jakiteko zer pasetan dau munduen, ezta?*

Halere ez dute telebistarik gabeko mundurik imajinatzen, eta ez dute esperantza handirik telebistaren eboluzioan. Oro har ezkortasuna gailentzen da gazteen adin-taldekoko telebista ulertzeko moduan. Bada hala ere ikuspegi orekatuagoa agertzen duen telebistarekiko, bere elementu negatibo eta positiboekin, baina hori bai, eduki berriei buruz beste gazteek ere agertzen dituzten zalantzekin (*Gran Hermanorekiko* adibidez). Kasu honetan gainera erantzunkizuna ikus-entzulearengan ere badagoela azpimarratzen du:

*BI 29 E: (...) bueno, ez dot pentsetan dana danik txarrerako, ni mucho menos. Pentzetan dot gauze batzuk onerako direla da... (...) Oin erreztasun gehixau deku ikusteko zer pasetan dabilen Sirian... oin arte eukin ez dogune... (...) Bai, ta nik pentzetan dot danak moduen, aurrerapenak gauza onak eta txarrak dekozela.*

Helduak 1 taldeko partaideentzat telebista gehienbat emisioarekin, antena edo kable bidez jasotzen den emanaldiarekin lotzen da. Baina badira salbuespenak, dela etxean bertan norbaitek (normalean seme-alabek) bestelako erabilera ematen diotelako pantailari (sarri zein erabilera izan daitekeen gurasoek ere ondo ez dakitelarik), edo norberak bestelako erabilera ematen diolako:

*BI 43 E: Bueno, nire etxien bebai semiek ipinten deu hori x-box, konektetau deu. Eta egoten da jolasten han telebisinoagaz. (...) Eske ez dakit... (barre) Ez dakigu zelan erabili! Jolastuten deu baina badakit aukera pilo bat, baina ez dakit! (barre).*

*BI 47 E: Eta youtube ikusi! Skype bebai... (...) Ba hori skypena nik deskubridu dot orain umea Estatu Batuetara joan danean, han badeko antza telebisino handi bet beran kuartuen, eta handik konektetan da skypera eta deitu al dozku eta holan... Bai, ordenadoretik barik telebisinotik.*

Kasu batetan telebista esplizituki irudi eta soinuak birsortzeko gai den aparatu bezala definitzen da, bertako edukiaren iturria delakoa dela ere (norberak aukeratu-takoa, kate publiko edo komertzial batek igorria...).

*BI 39 G: Nik telebistagatik ulertzen dot aparatoa. Osea, piztu aparatoa, eta nahiz ta nik ezarri zer ikusiko dodan edo begiratu menuan zer dagoan, osea, kanalak birpasatu, ba... ba hori. (...) ez dot bereizten telebista publiko edo pribatu baten, osea kate batetik datorren seinalea nik han entxufatuta daukadan ordenagailutik urteten diren irudiak. Osea, hor, niretzat, bardin da.*

Telebista aldatu ote den galdetuta, umeentzako programazioaren inguruan be-rehala sortzen da tirabira handiena adin-talde honen baitan, egun umeentzako edukirik dagoen, lehen gutxiago ote zegoen edo gehiegi ote dagoenaren inguruan. Umeentzako programazioa hizkuntza ezberdinetan eskaintzea ere baloratzen da, eta erdarazko eskaintza euskerazkoa baino askoz zabalagoa dela ere azpimarratzen da. Lurrazaleko Telebista Digitalak ekarri duen aukera ugaritasunak kantitate eta kalitatean duen eragina ere ezbaian jartzen dira, batez ere umeei begira, baita. Parte-hartzaile batzuen ustez badaude kalitatezko telebistako edukiak, baina ikus-entzuleak berak aukeratzen du kalitate eskaseko edukia kalitate handikoaren aurretik, baita erdarazko edukia ere euskarazkoaren aurretik.

Antzerako zentzuan, telebista bera baino, telebistarekiko harremanak aldatu di-rela aipatzen du beste parte-hartzaile batek. Ez hainbeste telebista, baizik eta telebista ikusteko moduak, egun zapping egiteaz aparte gaur egun norberak nahi dituen edu-kiak internetetik jaisteko aukera dagoelako. Telebistaren eboluzio posibleari begira, beste parte-hartzaile batek argi ikusten du etorkizuna erabiltzaile edo ikus-entzuleari edukia- ren gaineko aukera eta kontrol handiagoa ematek pasatuko dela. Are gehia-go, uste du telebistaren emanaldiaren zain egotea gaindituta dagoela jada:

*MUS 47 G: Erabiltzaileak ez dakit, aukera gehiago eukiko dau bere «menu propioa» an-tolatzekol. (...) Osea, zuk gustokoa baldin baduzu kotileoa kotileoa ikusiko duzu, baina zuk nahi duzun orduan (...) Eske ez da normala egotea holan ez, itxoiten a ber zer bota-tzen duten! Eta internetek zeozer erakutsi badigu da aukera daukagula da geuk aukera-tzeko, ez? Eta erabakitzeke zer noiz eta nola. Ba telebistan be gauza bera egingo da.*

Helduak 2 taldean gehienbat entretenimendurekin lotzen da: informazioa emateko gaitasuna badu ere, parte-hartzaile batzuek zalantzan jartzen dute bere estatus informatiboa. Entreenimendua, denbora-pasa eta laguntasuna eskaintzen dituen gailu bezala ikusten da gehiago. Hala ere, telebista egongo ez balitz haren falta asko igarriko litzatekeela ere argi adierazten dute. Ezberdindu egiten da tele-bista ondoko hedabideengandik, irratiarengandik adibidez, entzun ez ezik ikustea eskatzen duelako:

*MU 62 G: Beharren zauzen bitaten, zeure lanak eitten zabiltzazen bittarten telebista ez da bakarrik entzutea, ikusi in biozu, eta radioa, adittu eta alperrik da, orduan gustatea radioa telebistan lekuan, balitkeke hor momentuan, ze telebistak gura dau ez bakarrik entzun, ikusi.*

*MU 51 E: Bueno, depende, nire amonak ez zuen ikusten. Egun batean joan nintzen bisitan eta ez zuen funtzionatzen, piztuta zeukan (BARREZ) «amona, baina ez dozu*

*ezer ikusten eta konpondu behar da», «utzi dazu ez da nekatzen, ez da nekatzen», berba itten zuen. Hari berdin zitzaion irratia, telebista edo, berak konpainia nahi zuen.*

Lurrazaleko telebista digitalaren bidez eskura dagoen kateen ugaritasuna ere aipatzen dituzte, aintzina zeuden kate apurrekin alderatuz, eta kate berriak (*Discovery Channel, National Geographic, Viajar, Paramount...*) ere izendatzen dira. Kasu batzuetan, ez askotan, interesgarriak diren saioak internet bidez ikusten dira, norberak nahi duenean, eta iragarkirik gabe:

*MU 51 E: Zerbait garrantzitsua badau ere, ez dakit, solasaldi batera berandu ailegatu bazara eta iruditu zaizu, «ui, beittu, hau galdu dot edo», interneten ere gero ikusi dezakezu berriro eta anuntzio barik, o sea que (BARREZ)...*

Nagusien adin-taldean denak daude ados telebista asko aldatu denean, zuri beltzean zenetik, eta asmakizun bezala harridura sortzen du oraindik ere:

*BI 75 G: Baten batek gauza ederra inbentau jua telebisinoaz. Bai gero! Nik eh... denbora gehixena telebisinoan emoten joat. Da beste buelta bat, paseo apur bat ein da... telebisinora. Gauza asko jakitteok. Ostantzien tonto egongo ginakezan, tonto.*

Gaur egun denetariakoak lotzen zaizkio telebistari: entretenimendua, denbora-pasa, informazioa... Eduki batzuk ez dira denen gustokoak («horrek e debategen gehixenok eh, askeu gehixa eitten nabe konplazidu baino») eta batek baino gehiagok (gizonezkoak denak) telebistarik gabe arazorik gabe biziko lirakekeela diote, baina orokorrean telebistak gauza askotarako aukera ematen duela uste dute parte-hartzaileek. Agian beste guztien gainetik azaltzen den ezaugarria laguntasuna ematearena da, baina harekin batera informazioa, entretenimendua, eta munduaren berri izatea ere agertzen dituzte:

*AU 85 E: (...) aburridute nauenien ipintteko ta gauzak jakitteko ta danetarako! Gustau eitten xate. Telebisinoie neuretzako lagun bat da. Igul bakarrik zauz etxien ipintten dozu telebisino ta ba... lehen esan dodane.*

*AU 85 E: Bueno, nik neuk eh... dekotazen ordu librik ba hantxe aprobegetan ditut. Pelikulerie ez naz asko, baina gustetan jate kotileue (barre).*

*AU 74 E: Munduaren ikuspegi bat bezela...nitzako zeozer holakoa da telebista. Zer pa-setan dan, bai berton inguruen da bai mundu mundu mailan ikusi biher gendukezan gauze batzuk ikusteko zera emoten dau.*

*AU 75 E: Nik pentzetan dot danak! (barre). Bat esan bitzut? Gustatu egiten zait telebista.*

### 5.3.2. TELEBISTAREN BALORAZIOA: ONERAKO ALA TXARRERAKO?

«Onuragarri/kaltegarri» kode fokalizatuan bildu dira telebistaren eragin positibo eta negatiboei buruzko iritzia bilatzen zituzten galderak. Gazteek, zentzu horretan, telebistak izan ditzakeen lehen eragin kaltegarrien artean ikus-entzulea manipulatzeko ahalmen handia aipatzen dute ezer baino lehen:

*DU 24 G A: Eske ez dakizu zer dan egixe ta zer dan guzurre. Azkenian gauzarik simplen be sartzentzue guzurre...*



*DU 24 G D: Imajinak, manipulazino be bai...*

*DU 24 G A: Bada manipulazinarako, manipulazinoko tresna itzela da.*

*DU 21 E: Eta igual hemen euskeldunek izenda konturatzen gara gehixau, ze entzuten dozu notiziak ez dakit zer kanaletan da..., baina klaro, zu baldin bazara ez dakit nungue, pues igual...*

*DU 24 E: Te lo tragas.*

Hala ere, telebistaren onura edo kalteak ikusteko moduaren eta ikusten denaren araberakoak ere badirela uste dute: ikus-entzulearen erantzunkizunak eta gaitasunak garrantzia handia duela azken emaitzan. Hala ere oso ezkorrak dira euren buruaren gaitasun eta jarrerarekiko:

*MU 21 E: Ikusten jakin behar da, ezta?*

*MU 25 G: Bai.*

*MODERATZAILEA: Eta hurrengo galdera da, zuek badakizue?*

*MU 21 E B: Ez. (...) Nik ez. (...) Eske akabuen igual zauz ikusten y akabetan dau eta he dicho «qué porquería egon naz ikusten oin arte». Baina gero zaaz ikusten holako txorrrada bat bajatuten zara, bueno, ni joaten naiz aitangana eta ikusten dot aita ikusten erreportaje bat edo debate bat eta esaten dozu, igual berak badaki ikusten, baina nik ez.*

Telebistaren onurak eta kalteak ikus-entzule ezberdinen araberakoak ere izan daitezkeela aipatzen da, erabilera eta helburu ezberdinek emaitza ezberdinak sorraziko baitituzte. Hortaz, telebista ez da *per se* kaltegarria edo onuragarria, ikus-entzuleari ere badagokio esperientziaren emaitzan parte-hartzea:

*BI 29 E: (...) jentiek, pentzetan dot... bueno, batzuk eitxen deurela entreteniduteko (...)ba beran etxien, familixen, biherrien nahiko problema dekozelako, da bueno, ba urtenbide bat izen al dalako, deskonektetako. Da beste batzuk ba informatako. Da beste batzuk neure lez, ba... edo bakarrik zauzenien konpainixe edo eukitxeko hor zaratie... o... loak hartzeko neure lez, o... ez dakitx, pentzetan dot utilidade diferentiek dauzela personan arabera. Ta ez dakitzut esaten gehixen zein eitxen dan. Pentzetan dot danerik dauela. Munduen ganorabako asko dau, ta zentzudun asko.*

Helduak 1 adin-taldeko parte-hartzaile gehienentzat telebista ikustea ez da berez kaltegarria, ez eurentzat ez eta euren seme-alabentzat ere; beti ere neurritz eta zentzuz ikusten den heinean. Eduki batzuen inguruan eztabaida sortzen da (eduki batzuk «telezarama» kontsideratzen dituzte, eta norberaren ardura da hauek ikustea edo ez ikustea), egokiak ala ezegokiak ote diren, edo hezgarriak direnaren (edo izan behar ote direnaren) inguruan, batez ere seme-alabei begira:

*BI 43 E: Nik uste dot danak dekola bere alde ona eta alde txarra. Ez dakitx... Ez dot esango nik eh ez txarra ez ona. Ez dakit.*

BI 39 G B: *Nik txarra ez dot esango. Niretzako ez da txarra.*

BI 47 E: *Ez, nik bez.*

BE 40 E: *Niretzako da klabie segun eta zer ikusten dabien. Ze adibidez (alaba) hasi da arratsaldietan ikusten txorrada bat dana hori, non da, Telecincon, La que se avecina edo... ez. orain beste izen bat dauko... La que se avecina. Jolin, da da txorrada bat, eta dau egunik egunien horixe ikusten, ta dinotzot, «jo, horregaz zer ikesikozu»?*

Edozelan ere, argi daukate telebista hedabideen artean bat baino ez dela, eta egun seme-alabek eraginak toki askotatik jasotzen dituztela (internetetik, ikastolatik, etxetik...), ez telebistarengandik bakarrik. Hizkuntzaren erabileran igartzen dute asko, (erdarazko) hedabideen eragina, gazteenengan:

BE 37 G: *Baina hizkuntzan erabilpenean be badeko eh? Ze zenbat ta gehixau ikusi gehixau eitten dabie hizkuntza hori. Nire txikixek, espresinuek eta, erdarakuek diez hortik hartutakuek. Danetik hartutakuek diez. Danak, argi dekot.*

BE 40 E: *Nondik atara deu honek hori esaldixe ba? Ba... horregaittik da.*

BE 37 G: *Da igual ez dakixie zer dan bere, batzutan.*

Etxeko gazteenei ez ezik, nagusienei ere eragiten dien moduak ere kezkatzen ditu adin-talde honetako parte-hartzaileak, adineko pertsonen kasuan sarri eduki kaltegarri edo lotsagarriekiko zaletasuna ikusten baitiete.

Helduak 2 taldean aldiz telebistak transmititzen dituen baloreengatik agertzen dute ardurarik handiena: arrakasta erraza, ahalegin eza, merezi gabeko fama eta «pelotazo»-ren kultura. Oinarrian telebista pribatuen etekin ekonomikoen bilaketa topatzen dute, kosta ahala kosta audientzia bereganatzeko nahia eta «errazena da lo más banal, lo más fácil de llegar, pues eso, sangre, y sexo y rock and roll».

SA 52 G b: *El pelotazo, zenbat eta aurpegi gehiago, el vividor, es que hori, azkenean hori da.*

SA 57 G: *Baina gazteengan ere ikusten da, joer, ba ez da el pelotazo bakarrik, hori, es que, hori, nire alaba. Artista izan nahi du, zergatik? Ba ikusi duelako, zelan da? Operación Triunfo...*

Autokritikoak ere badira, eta haien gaztaro garaian *Eurovisión* eta Marisol ere ikusten zituztela aitortzen dute ironiaz, sarri gurasoen eskandalurako. Edozelan ere elkarrizketatutakoeren artean irakasleak daude, eta ardura agertzen dute egungo gazteen (bai seme-alaben eta baita ikasleen) jokabide eta izaera dela eta. Telebistak egun eskaintzen duen aukera-ugaritasunak gazteen artean ikusten duten antsietatearengan erantzunkizuna izan dezakeela sumatzen dute, gizarte kontsumistaren baitan beti ere, ez bera erantzule bakartzat hartuta:

SA 52 G: (...) *gauza asko izatea eta zertarako den ez jakitea, hori uste dut errepikatzeko den eredia dela telebistan ere. Nire seme-alabak, denetarik daukate eta ez die...*

*bueno, ez dakit, nik ikusten dudana. Edo gure ikasleak, denetarik daukate, eta erdia edo ez dute erabiltzen, eta antsietate antzeko zerbait dago. Eta telebistan berdin, hori, daukagu mila kate, bost mila programa, eta denbora guztian gaude klon, klon, klon..*

Egun dagoen kate eta saio ugaritasunarekin kritiko agertzen dira baita, iraganeko kate orotarikoetan «pertsona guztientzat» zuzendutako edukiak zeudelako («bai gazteentzat, bai helduentzat, eta bai...»). Aldiz egun kate espezializatuak helburu bakarra dutela uste dute: biztanleriaren segmentu konkretu bat entretenitzea, inolako ahaleginik egin gabe, eta honen aurrean ikus-entzulea babesgabe ikusten dute.

Nagusien taldean berriz telebista ikustea ona delako ustea sarri agertzen da, eta kalte baino on gehiago egiten duela uste dute oro har. Hori bai, giza asmakizun guztiak bezala, ikasi eta jakin egin behar da erabiltzen («Norberak tamainue hartu biher»):

*BI 75 G: Ona... ona.*

*BI 71 G: Meza egoten da eta.*

*BI 75 G: Telebisinue dau etxien mundu guztiko barrixakin. Adelantuek... dauzenik eta adelanturik onenak danak urteten dittuek, telebisinuen.*

*AU 85 E: Ondo.*

*AU 74 E: Nik pentzetan dot ondo.*

*AU 85 E: Kalterik ez behintzet...*

*AU 67 G: Ona seguru, bi dan moduen useu ezkeror! Gauza guztiek lantxerik harek! Ez dau hor duderik. Ona, horixe ona.*

Munduaren berri izateko, etxean laguntasuna emateko, entretenitzeko, denbora pasetako... telebistak aukera asko ematen dituela azpimarratzen dute, eta garai batean «engantxau gehixau» egon zela uste duten arren, egun telebistari neurria hartua diogula diote. Telebistaren inguruko beste hedabide eta teknologiek, ordenagailuak eta internetek, indarra kendu izana posible dela diote, eta arrisku gehiago ikusten dute egun ordenagailura «engantxetako», telebistara baino. Argi dute gainera gazteek berehala jotzen dutela ordenagailura, telebistara baino arinago:

*AU 67 G: Ta izen leike bihar bada oin ordenadorak eta be apur bat zati bat kendu izen dautse, ta jende asko dau ordenadorara engantxeute. (...)Gero zeozer topetan hasten bazara ba han ordu bi ta hiru ta igerra barik berriz... horixe, tak tak tak tak... bazoieze...*

*AU 71 G: Horretxek kendutze asko telebisinoiari... ordenadorak. Oin ordenadorin hasten zara, topetan dittuzu han da...*

*AU 74 E: Ume guztik be, danak manejetan dabe...*

### 5.3.3. TELEBISTAREN ESPERIENTZIA: EMOZIO ETA BIZIPENAK

«Esperientziak/emozioak» kode fokalizatuarekin jaso dira telebistak sorrarazten dituen emozio, sentsazio eta esperientziei buruzko galderak.

Gazteek telebistarekin lotutako sentsazio, emozio eta esperientziak edukiaren araberakoak izaten direla azpimarratu dute, telebista bizipen zehatz batekin lotu ordez. «Asperdura» izan da hala ere sarri aipatzen den sentimentu bat, bai telebista pizteko arrazoi bezala, eta bai telebistaren aurrean sentitzen denaren laburpen bezala. Kontraesankorra badirudi ere, telebistak aldi berean asperduraren antidoto eta asperduraren sortzaile bezala funtzionatzen du sarri adin-talde honentzat:

*MU 25 G: Depende zer ikusten zauten.*

*MU 21 E B: Aburrimiento. (...)Aburrimiento... ves Gran Hermano y te aburres...*

*MU 20 E: No, yo me aburro y enciendo la tele.*

*MODERATZAILEA: Eta piztu eta gero gutxiago aspertzen zara edo antzera?*

*MU 20 E, MU 21 E B: (BIAK BATERA) Entretenitute zauz. (DENAK BARRE).*

Denbora-pasarekin, erlajatzearekin eta deskonektatzearekin ere indartsu lotzen da telebista gazteen artean, nahiz eta kasuren batean denbora-pasa honek gero sentsazio txarra, erruduna uzten duela aitortu, denbora gaizki inbertitu izanaren arduragatik:

*DU 21 E: Jo, ni banau bi ordu telebisinue ikusten, es que gero txarto sentitzen naiz, osea, iruditzen jate denbora bota in jotela, osea, niretzako da ba ez dakittenean zer ein, edo igual zuk esan dozune lehen, relajetako bebai, edo, bestela zaratie nabilenien kozinetan, eskatzien nauelako eta... baina ez da gauza bat produktiboa hor hartzen dotenien, denbora hori niretzako da denbora «mal invertido», ez dakit, ez bada hori ba gauza bat zehatza, pelikula on bat edo...*

Hauetaz gain «denpora pasetie», «deskonexinue» edo «sofa momentua» bezalako terminoak erabiltzen dira gazteen artean, telebistarekiko bizipenak laburbiltzeko.

Helduak 1 taldekideen artean berriz lasaitasuna eta deskonexioa lotzen dira batez ere telebistarekin, norbere arazoak ahaztea eta eguneroko arduetatik ihes egitea:

*BI 39 G B: Nik relax ta ondo pasa. Osea, entretenimento bezala edo. Nahiago dot eh? Osea, bai informazio... informazio tartea badago*

*BI 50 E: Deskonexinoa...*

*BI 47 E: Bai, hori da, deskonexinoa.*

*BI 39 G B: (...) Pelikula bat holan barre egiteko... edo ez barre egiteko, baina gutxienez deskonektatzeko eta...*

*BI 43 E: Bai, deskonektetie nire ustez.*

*BI 50 E: Norberan bizimodue ahaztu ta beste batzuen bizimoduen sartu.*

Ebasioa, ihesaren ideia kasu batean argi esplizitatzen da kasu batean, ez soilik telebistarekin lotzen den sentsazio bezala, baita bilatzen den zerbait bezala ere:

*BI 39 G: (...)niri burura etorri jat ebasioa. Azkenean eh... momentu horretan zure burua bakarrik dago telean ikusten dan horretan pentzetan eta ba hori, ebasio antzeko*

*sentsazio bat. (...) Adibidez, telea edo zineari lotuta (...) niri gustaten jat gauzak ez pentsatzekoak, hausnarketa handirik ez egitekoak... normalean eh?*

«Negarra» ere azaltzen da adin-talde honetan, filme batzuen kasuan, gustora egiten den negarra alegia. Kexu dira parte-hartzaileak, sarri telebistaren aurreko negarra ezkutatu egin behar izaten dutelako, edo etxeok ez dietelako gustora negar egiten uzten. Barre ostera denek egiten dutela onartzen dute, teleailekin batez ere, baina baita bestelako saioekin ere («Euskal telebistan emoten dabierna, sustoak emotekoa...»), «*Humor amarillo*, hori bai gustaten jat»). Azkenik, amorrua ere sentitzen dela aipatzen da, *Intereconomía* katearekin (kasu batzuetan gainera nahita bilatzen den amorrua, jakinda zer aurkituko den).

Oso iritzi kritikoak jaso dira Helduak 2 adin-taldearen baitan telebistak sortzen dizkien emozio eta harekin izandako esperientzien inguruan: denbora-pasaren ideia-rekin lotzen da asko telebista ikustea, baina sentsazio negatiboak ere agertzen dira adin-talde honetan: «asperra», «lotsa», «manipulazioa»...

*SA 50 E: Bai, aspertu egiten naiz, ezin dut denbora asko egon, lokartzen naiz, da pasada bat, ez dakit diren urteak, ez dakit den telebista, edo nire egoera mentala, ya ez dakit zer den, baina denetarik, baina zeozer badago.*

*SA 52 G b: Denbora pasatzeko, bai. Eta batzutan aspergarria. A ver, lotsagarria dela, horrenbeste kanala egon, eta jakin zer ikustea, ez dute ematen, jo, es que, manipula, ez dakit nola esan. Telebistaren bidez nahi badute zerbait lortu, gai dira lortzeko, uste dut.*

Telebistaren garapenarekiko sentsazioari buruz iritzi ezberdinak daude. Batzuk ez dute batere itxaropenik agertzen, eta programazioa geroz eta eskasagoa dela deritzote, beste batzuk alde positiboagoak ikusten dizkiote.

*LE 53 E: Gero eta txarrago neuretzako, eh? Gero eta txarrago, bai. Badagoz ondiñoko programa batzuk eta, ba merezidu dabenak, baina...*

*LE 52 E: Baina, egixe esan, generalian...*

*LE 57 G: Baina alde batetik ona da. Alde batetik ona ze telebisinuari esker enteratzen gara beste munduko partien zer gertatzen da, zer pasaten dan...*

*LE 54 E: Bai, nik txarra ez neuke esango.*

*LE 55 G: Neuk bez.*

*LE 53 E: Gero eta txarragoa...*

*LE 52 E: Txarra igual, tresna bat, tresna bat eta erabilera, erabilpena, erabiltzen dan...*

Oro har denak dira kontziente telebistaren inguruko beste hedabideen garrantziaz, eta interneten (eta internetera konektatzen diren gailuen) indar hazkorraz.

Nagusien artean telebistak oro har oso harrera ona duen arren, telebista eduki batzuekin oso kritiko agertzen dira, askok hauek ere ikusten dituztela onartu arren,

azaltzen den hizkera eta estilo zabarra dela eta: *El conquistador del Fin del Mundo* saioan adibidez:

*AU 71 G: Eta gero berbetie, zelakoa beti eh?*

*AU 75 E: Beti hasarre ta txarto berba eiten dabe.*

*AU 71 G: Maldizinoiek eta... zatartu emoten dabenak holako gauza baten ezta? Holako programa baten, ez dakit, begitantzean... (...) Gaztiek eta, zer, zer ikesi bi dabie harek itxuriaz, ze... Niretzako da fuertie, zatarra.*

Telebistako eztabaida eta «debateak» jarraitzen dituzten arren (*Sálvame* kasu), ez daude batere konforme bertako gonbidatuen «edukazino falta» eta errespetu faltara-rekin, eta amorrua eta etsipena aipatzen dituzte halakoen aurrean. Moderatzaileek hitz txandak hobeto eman beharko lituzketela errepikatzen dute behin baino gehiagotan, elkarren artean zarataka entzun ere ez dutela egiten uste dute era.

*AU 67 G: Efektibamente. Edukazino falta itzela ikusten da hor.*

*AU 77 G: Horrek ernegatute ipintten nau ni hor...*

*AU 67 G: Bai, egixe da. Errezoie dekozu, bai bai.*

Albistegietan, berri gogorren bat ematerakoan ere sentsazio txarrak aipatzen dira:

*LEZ 67 E: E... normal... igual, ez dakit, gaba baten Teleberri emoten daurienen edo horrek albistek, eta, ikusten dozuz horrek, hilek eta horrek gauzek ez, niretzat ez da. Ez, da hori, sano fuerte, hum. Igual umeentzat. Eta noberak ikusi umek, igual, eta, edo mutilata edo, eztakizu? Horrek gauzek. Hori niri ez, ez...*

Zentzu positiboago batean, norberaren zaletasunak (kirolak, lehiaketaren bat, aintzinako filmak –eta bakeradak–, abestiak, bertsolaritza...), eta euskal kulturarekin lotura duten edukiak emozio positiboekin lotzen dira adin-talde honetan:

*LEZ 67 E: adibidez telebisinoan emon zeurien hori e Baionatik Bilbora izen zan, hori ikusi nuen, telebisinoan ikusi nuen eta ha izen zan niretzat «lo más grande», eztakizu? Terrible. Horrek gauzek emozionaten dozte asko.*

#### 5.3.4. TELEBISTAREN ERABILERAK: ZERTARAKO TELEBISTA?

«Telebistaren erabilerak/funtzioak» etiketapean horixe miatu da: adin ezberdinetako parte-hartzaileek telebistaz egiten dituzten baliatzeak edo beronen erabilera utilitarioak.

Telebistak betetzen dituen funtzioetaz galdetuta «konpainia egitea» edo «laguntasuna ematea» da gazteen artean gehien aipatzen den kontzeptuetariko bat, baina onartzen dute haien kasuan behintzat erabilera «artifiziala» izan daitekeela, agian ohituta daudelako beti «fondoan» zerbait izatera (isiltasun osoa hortaz ezerosoa egiten zaiela aitortzen dute): «Ez dau (konpainia) egiten niretzat, baina guk holan perzibitzen dogu oin». Zentzu horretan belaunaldi ezberdinek agian diferente bizi dezaketela uste dute:

*DU 24 G D: (...) ez dakit konpainia en plan kentzentzunik bakardadie baina, eukitten bazu dana amataute (...) dakit... Edo plater zaratie, ez dakit, da super tetriko moduen, ez dakit zelan esan.*

*DU 23 G: Igual ohitu garelako ya*

*DU 24 G D: Bai, ohiturak dira, baina...*

*DU 21 G: Ohitu garelako igual telebista ikusten degu txikitatik, beste jenerazino batzuk igual ez dabiinak hori bizi ba...*

*DU 21 E: Ba igual ez da hainbeste konpainia egiten dauela, sino ya ez dakigule hori barik egoten.*

Telebistak norberari eta gizarteari egin liezazkiokoen ekarpenei buruz galdetu-ta informazio eta formakuntzari begira, «dokumentalak» eta «albigestegiak» aipatzen dira, baina lehenago ere aipatutako manipulazioaren susmoarekin beti ere. Bestelako ekarpenei dagokienez ere, zalantzak agertzen dituzte, bai ikus-entzuleari eskatzen dion arduragatik, eta baita telebista beraren izaeragatik ere:

*DU 21 G: Ez, ze gainera suposatzen da gizarte berrian nahiago dugule parte-hartzaile izatie ta telebista emoten dala unidireccional ez?. o sea, zuk jaso bakarrik egin al dozu, eta ezin dozu elejidu, esan nahi dot, elejidu al dozu bai entre, ez dakit, sagar berdiek edo gorrixek, baina ezin dozu madarixek aukeratu.*

Gazteek oro har konpainia egitearen eta entretenitzearen artean kokatzen dute telebistaren erabilgarritasun edo funtzio nagusia, etxean zaudenerako baliabidea, «beste ezer» (benetako konpainia edo benetako zaletasunik egiteko aukerarik) ez dagoenerako. Baina hauetaz aparte, jendar-tean telebistarentzat erabilera eta funtzio sorta ezberdinak aurkitzen direla ere azpimarratzen da kasuren batean. Telebistaren erabilera eta funtzioak ikus-entzulearen ahalegin eta jarreraren arabera izan daitezkeela ere aipatzen da, beti ere telebistak egun duen eskaintzarekin tentsioan:

*AL 34 G: Ba gaez, nekatuta zaude, afaldu ta gero, tripa beteta, egun osoa lanean... Nahi duzuna da deskonektatu (...)Sofa, ez pentsatu, encefalograma plano, ta emai-dazu nahi duzuna, osea, bortxa nazazu (barreak) Eman nahi beste basura. (...) nik uste dut hor tranpa handia dagoela. (...) esaten dugunean jendeak nahi duena hau da, edo jendeak eskatzen duena hau da... Jende horrek noiz eskatu du hori?*

Helduak 1 taldean berriz atsedena, entretenimendua eta informazioan kokatzen dira gehienbat telebistaren funtzioak, eta batzuetan etxekoak telebistaren inguruan batzeko ere erabilgarria izan daitezkeela uste dute:

*BI 50 E: Niretzako familia batzeko momentue ere bada. Gu etxean telebisinoaren inguruan baino ez gara batzen. Edo jateko, edo telebista ikusteko. Guk telebista bakarra daukagu etxean, ta orduan gabeen danok jesartzen gara sofian telebistaren inguruan.*

*BI 39 G B: ... niretzako da relax momentua. Osea ya amaitu dozu hemengo lana, amaitu dozuz etxeko lanak eta umeen kontuak eta hurrengo eguneko gauza guztiak*

*prestatu dozuz da momentu horretan jesartzen zara sofan, pizten dozu telebista eta guri berdin jaku zer dagoen.*

«Lasaitasuna» eskaintzen duen zerbait ere bada telebista. Dela lo-kuluxka bat botatzeko aitzakia, edo egunaren amaiera markatzeko tartea, eguneroko arduretatik ihes egiteko aukera:

*BI 39 G: Ba... ba hori, informatzeko eta aisialdi pasibo bat eukitzeko. Erlaxatzeko igual bebai... azkenean da... igual hori dago bebai gure etxean daukagun ereduarekin lotuta baina... Normalean egiten doguna da umeak oheratu, ya gauzak batu... eta ya telea pizten dogu eta igual momentu hori igual ya inkonzienteki lotzen dozu erlaxazioarekin. (...) Ez da bardina, baina nik uste dut horrek badaukala zerikusi bat lehen suaren ondoan edo inguruan batzen ziren momentu antzeko bat...*

*BE 37 G: Niri lasaitasune bebai. Ez daitx, apurtxu bat egotie ikusten lasai lasai, atentzinue bertara bakarrik...*

Informazio iturri bezala hartzen den arren, batez ere entretenimenduan kokatzen dute adin-talde honetako partaideek telebista. Hala ere, gertakari garrantzitsuren bat jasotzen denean, gehienek aitortzen dute telebistara jotzeko joera, geroz eta gehiago internetera jotzen duten arren.

Helduak 2 taldean, aurreko adin-taldearen kasuan bezala, lo gelditzearekin lotura handia agertzen du telebistak adin-talde honetan arratsaldeaz eta gabaz ikusten denean. Goizetan ikusten denean aldiz, askoz gehiago asoziatzen da laguntasuna ematearekin, eta informatzearekin.

*LE 53 E: Lo itteko edo beraz geratu lo, nik beraz geratzen naz lo.*

*LE 54 E: Bai, nik ez, ez, baina bakizu lo ingo zula, eta orduan ipintzen zara telebisinu aurrian eta lo gelditzen zara.*

*LE 53 E: Nik askotan... gaur be Puente Viejo edo hori ikusten ni zati ez dot ikusi ze ni lo geratu naz, hamar, bost minututan igual, gehiau ez zan izengo, baina lo geratzen naiz.*

Informatzea eta entretenitzea dira nagusiki telebistari egozten zaizkion funtzio nagusiak, eta informazioari garrantzia handia ematen diote, behintzat maila teoriko batean, baina bakoitzaren egunerokotasunari erreparatuta batez ere «denpora emateko» dela diote gehienek. Irratia eta internet ere ageri dira informazio iturri garrantzitsu legez, baina telebistak gordetzen du hala ere estatus informatiboa, TVEren *Canal 24 horas* bezalako kate tematikoen bidez adibidez. Interesgarria da partehartzaile batek telebistaren erabilerei buruz dioena, ondoan adineko pertsona bat zuela deskubritutakoa, egunerokotasuna egituratzeko funtzio garrantzitsua duela adierazten duelako:

*SA 50 E: Pues, begira, nik pasatu dut denboraldi luze bat adineko pertsona baten ondoan eta telebistak jokatu du paper oso inportantea, o sea, markatzen zituen ordutegiak (...) eta horrek markatzen zuen apurtxo bat egunerokotasuna, edo egunerokotasuna apurtzen zuen. Eta nik hor deskubritu dut, bueno, konpainia ere egiten duela,*



*ez? Eta, ba asko estimatzen dut, nahiz eta niri programa asko ez gustatu, pues beste adinekoentzat, pues gustatzen zaie.*

Telebistak gizartean izan dezakeen eraginari buruz galdetuta berriz, eszeptikotasun maila handia agertzen dute, baina aldi berean argi daukate hedabide guztiek dutela errealitatea manipulatzeko gaitasuna, ez telebistak bakarrik, eta norberak ikusi duen zerbaiten eta komunikabideek kontatzen dutenaren artean alde handia egon ohi dela. Egungo egoeran, positibotzat daukate hedabide ezberdinen artean kontrastatu ahal izatea, batez ere interneti esker, hedabideen eragina orekatzeko aukera ematen duelako:

*MU 56 G: Ez, komunikazioak inddar asko dekea, manipuletea informazioa, bai prensan, edo bai telebisiotan, edo bai radioan, hori manipulazioa eh... indder lar eukitzea eurek hori riesgo handi bet da. Akabuan jendea manipulatzen da.*

*MU 55 E: Bai.*

*MU 51 E: Bueno, bide hori balego bakarra, bakarra izango balitz bidea, ba bai, baina gaur egun beste bideak ere baditugulez, beste informazio bat ere daukagulez enteratzeko... Adibidez nik horretarako positiboagoa ikusten dot internet erabili, telebista baino, baina gaur egun internet ere dagoenez, dagoenez, ba ya telebistak ez dauka hainbeste indar.*

Nagusien artean, azkenik, laguntasuna ematea eta denbora-pasa aipatzen dira beste erabilera guztien gaineratik, nahiz eta telebista munduaren berri izateko eta gauza berriak ikasteko oso baliagarria dela iritzi:

*BI 88 G b: Ah, horixe. Horixe. Entretenidu eh... osorik! Horrexetako balixo deu telebisi-noak, denborie emoteko. Munduko barri jakittek, gauza asko ikusten da ba!*

Argi dute gainera telebistak toki garrantzitsua betetzen duela haien bizitzan. Iku-si eta entzunezko hedabidea izaterakoan. Telebista «holgeu» ikusten den zerbait da, aise jarraitzen dena, prentsa baino askoz errazago, ikusmena gaztaroan zena ez de-nean ere munduarekin lotura eskaintzen duena, baita zahartzaroan ere:

*BI 88 G b: Telebisinue inportanti dok.*

*MODERATZAILEA: Ez bazan egongo telebisinorik? Apurtuten badiez telebisino guz-tixek, igerriko zinuen zuloa?*

*BI 88 G b: Baai.*

*BI 88 G d: Igerri? Asko, asko.*

*BI 88 G b: Handixe... Falta handixe (...)Nik eh... honegaz ez joat ikusten eta... honegaz gitxi... telebisino bai, entzun de dana... telebisinoaz holgeu.*

«Kotileo» programek batez ere denbora-pasa eta laguntasuna ematen duten arren, lehiaketek adibidez, gauza berriak ikasteko balio dutela uste dute adin-talde honetako partaide batek baino gehiagok, eta telebistak «denbora emoteko» balio duen arren beti, bereiztu egiten dute eduki batzuen eta besteen artean:

LEZ 67 E: *Hum. Badauz gauzek, kulturako gauzek... eta konkursoena igual ba igual, igual ikesten dozu... ze, ez dakit, pregunte bat, ez dakizu? eta dinozu, aii! ba hori pregunte badakit eta konpetidu eiten dozu, ta horrek gauzek.(...) Bai, ikesi. Zeuzer. Bai, baia danak ez, keba, ez, danak ez. Eta hori, klaro, indarra dau bestera e? Indarra dau «al cotilleo».*

### 5.3.5. TELEBISTA DEFINITZEN: TELEBISTAREN ERRETRATUAK

«Telebista definitu» aldagai multzoarekin parte-hartzaileei telebista haien eguneroko esperientziaren arabera definitzeko eskatu zaie. Finean, erretratu subjektibo eta esperientzialak eraikitzeko eskatu zaie, eta horretarako telebista faltako balitz nola biziko luketen ere galdetu zaie parte-hartzaileei, utziko lukeen zuloa edo hutsunea deskribatzeko.

Oro har, Gazteak adin-taldearen baitan telebista «hor dagoen» zerbait bezala hartzen da, bere presentzia eta existentzia kuestionatzen ez den baliabide bat, batez ere denbora-pasa eta entretenimendurako dagoena, eta asperrarekin edo hutsunearekin lotzen dena gehiago, gogobetetze edo asebetetze sententzioarekin baino. Aipatzen da telebista erabat modu ezberdinean ikusten duen lagun edo ezagunik, eta telebista aparailuek eurek eskaintzen dituzten egungo eta etorkizuneko aukera berriak ezagun zaizkie, baina oro har telebistaren kontzeptu nahiko tradizionala darabilte. Are gehiago, uste dute agian kontzeptu hau, «telebista formatua» dela agian arrakastatsuen gertatuko dena, baita eraldaketa teknologikoen erdian ere:

*DU 24 G a: Oin dekie interneta ta dana telebistan, oin...(...) sartu al zara hortik YouTube-ra, telebistan bertan hasi pelikulak ikusten, o sea, iten dozuna baina dekozu ya telebistan...*

*DU 21 E: Bueno, nik adibidez flipau in neban, lagun bat mobile konektaten dauela telebistara, o sea, ya esatenzu... eta ibiltzen dela telebistan mobilarekin.*

*DU 24 G d: Baina nik be pentsaten dot telebista formatua dala gustaten jakune eh?*

Salbuespenak salbuespen, inguru hurbilean telebista etxean edo lonjan dagoen «denbora pasetako txismeak» da batez ere, beharizan funtsezkorik ere betetzen ez duena baina aldi berean faltako balitz hutsunea utziko lukeena. Desagertuko balitz, ziurrenez kalera gehiago irtongo lirakeela ere uste dute.:

*MU 21 E: Nik nirean segiduko dot, o sea, alperrik, o sea alperrik denbora pasetako zoezer. Eta ikusten dot, eh? Nik pilo bat ikusten dot telebisinoa, baia...*

*MU 20 E: Es que ez dakigunez ikusten, pues...*

*MU 20 E: Nik... ahal naz egon hileak telebisino barik, ez dazte pasako ezebez. Baia hor dekotetez... Hori bai, kenduten badoztezu aburridu eiten naz.*

Hiru hitzetan telebista definitzeko galdetuta, parte-hartzaile batek ikuskizuna, informazioa eta laguntasuna aipatzen dira, bai telebista asko ikusten dutenen artean, eta baita gutxiago ikusten dutenen artean ere. Edozelan ere edukien inguruan kokatzen dituzte gazteek telebistak jasan dituen aldaketa nabarmenenak. Sekula baino

telesail gehiago eskaintzen direla uste dute adibidez, eta *Sálvame* estiloko programak ia-programazio osoa hartzera arte zabaldu direla salatzen dute, sarri arratsalde guztian aukera bakarra mota horretako «telezarama» delarik:

*MU 21 E: Bai, oin ez dauelako ezer interesanterik, esan deuen, lehen gehiau eta oain ya bakarrik dau edo arratsalde guztie, hasten da lauretan Sálvame eta zortzietan akabetan da.*

*MU 25 G: Bai, gauen lau ordutan be kaka botaten dabe, ez dau zereginik. Zetaz ingo dozu berba? Lau orduten...*

Zentzu horretan kritikiko agertzen dira LTD-ak ekarri duen kate-ugaritasunarekin, ustezko ugaritasunaren atzean kalitate eskaseko betelana somatzen dutelako. Ez dira denak erabat ezkorrak hala ere, beste parte-hartzaile batek onartzen du telebistan aldaketa eman dela, eta ez dela dena onerako izan, baina informaziorako aukera (aukera, ez bermea) handiagoa dagoela uste du ikus-entzulearen eskura.

Helduak 1 taldean entretenimendua eta informazioa dira gehien aipatzen diren bi ardatzak, konpainia edo laguntasuna egitearekin batera. Ez dute argi, telebistarik gabe «bizi ahal» izango ote liratekeen, nahiz eta argi duten beste elektrotresna batzuk («labadorie», «telefonue»...) askoz garrantzitsuagoak zaizkiela egunerokotasunean.

*BE 40 E b: Niri konpanixe eitten dozt. Nire lagune.*

*BE 37 E: Niretzako, gaur egun lo eitzeko modu bet.*

*BE 41 E: Entretenimiento e información.*

*BE 40 E: Laguntzino bat. Al naz bizi igual telebisino barik? Ba igual ez, neure etxien. Etxe baten al nai egon... ba igual ez dakizu zelan deskribidu, no? Al naz bizi telebisino barik? Ez dot pentzaten...*

*BE 41 E: Neuk bez.*

Oro har telebista ez da informazio iturri nagusi bezala hartzen, eta informatzerako orduan parte-hartzaile batzuk argi diote nahiago dutela internetetik nabigatu, telebista ikusi baino; baina telebistak etxean laguntasuna emateko eta entretenimendua eskaintzeko lehen irratia zuen papera (eta nolabait baita tokia ere, sukaldetik egongelara pasatu den arren) bereganatu dutela ere uste dute:

*MU 58 G: Niretzat da entretenimenttu bet.*

*MU 55 E: Bai.*

*MU 51 E: Entrenimiento, bai. Antxinen irratia sukaldean zen bezala, ba gaur egun salan da telebista, bainan...*

*MU 58 G: Entretenimenttu bet, eh...*

*MU 56 E: Da zeozer laguntzino eitteko, bakarrik bazaoz edo zaoz...*

*MU 55 E: Laguntzino edo...*

*MU 51 E: Konpainia, bai.*

Parte-hartzaile baten ustez telebista beti egon da aldaketan murgilduta eta egungo aukera digitalek eta sareak beste aldaketa prozesu batean murgildu dute telebista, non beste behin ere bere burua berrasmatzen jakingo duen:

*LA 40 G: Orain internetek, internet aldatzen ari da, eta funtsean, ba, emisio sistemak, hau, beste, berdin da TDT izan, edo antena bidez izan edo, bale, hor eman da... baina aldatu baino, eguneratu. (...) aina bere hegemonia hori mantentzen du eta medio potentea denez, (...) ba asmatzen du eta berrasmatzen du bere burua.*

Telebistaren teknologia ez ezik, telebista ikusteko moduak eta ohiturak ere «eguneratzen» ari direla uste du, zentzu horretan, eta prozesu horretan etorkizuneko telebistaren gako garrantzitsu bat orain ere zabaltzen ari den norberak ikusi nahi duen edukia nahi duenean ikusteko aukera egongo dela azpimarratzen du.

Helduak 2 adin-taldeko parte-hartzaileen ustez telebistaren aldaketa nagusia urrutiko kontrolak ekarri zuen, bestelakoan telebistak bere horretan eutsi dio bere muinean. Kate gehiago dago, behar bada orain entretenimenduzko saio gehiago aurkitzen dira («konkurso askosaz gehiago dago») baina oro har kate guztiak antzerakoak direla uste dute («botatzen dute gauza bera»):

*SA 52 G: Nik uste dut aldatu dala mando a distancia existitzen denetik igual.*

*SA 57 G: Bai, UHF eta bestea zegoenean... (BARRE).*

*SA 53 G: Baina programak eta, eskemak, ez. Eskemak ia-ia berdinak dira, albisteak, dokumentalak, pelikulak, marrazki bizidunak umeentzako, eta hor TDTn daukazu ya tematikoak eta hori, ez? Baina...*

Parte-hartzaile batzuen ustez, telebista bera da telebistaren menpe dagoen lehenengo, programazio eta kontraprogramazio jokoan erortzen direlako kateak, eta azkenean antzekoak bihurtzen dira guztiak. Espezializazioa, tematizazioa eta editorializazioa aipatu eta onartzen dituzten arren, azkenean denek antzerakoa eskaintzen dutela uste dute:

*SA 52 G b: Eskema beti... Astean hiru, lau bidar gauean pelikula bat, zuk botatzen baduzu, bestea be bai, eta contraprogramación, es que hori da, kanal tematikoak umearenak badaude, eta orduan marrazki bizidunak ipintzen dute kanal horretan. Orduan, kirola..., egun batzuk kirolak daudenak, eta aste barruan zerbait berezia badago, ba bueno, ba ematen dute kirola. Es que, es que...*

Aldaketa, egotekotan, txarrera izan dela uste dute oro har. Teknikoki aurrerapenak eman diren arren, edukia ez da hobetu. Eztabaida programetan adibidez gogor kritikatzten dute tertuliano profesionalen presentzia, gaiari buruz espezializatuta egon ez arren iritzia eman eta sortzen dutelako. Aldaketarako aukera ikusten dute aldiz «a la carta» kontsumoan, internet bidez telebistako edukia nahi eran aukeratu eta ikusteak bestelako telebista bat ahalbidetzen duelako. Baina aldi berean ohartzen dira horrek gazteak

telebistatik aldentzen dituenaz, eta horrek familia banatu egiten duenaz, lehen denek elkarrekin ikusten bazuten, egun bakoitzak berea ikusteko joera ikusten dutelako.

Zentzu horretan telebistaren inguruan eman den aldaketa hau, teknologikoa ez ezik, gizarte mailakoa ere badela uste dute. Gazteek euren logelan ordenagailua izateak adibidez, haien gaztaroko garaiarekin zerikusirik ez duela onartzen dute: lehen etxeakoak ez ezik auzokoak biltzen baziren telebistaren inguruan programa bera ikusten, egun ikus-entzuleak askoz indibidualistagoak direla uste dute, eta aldi berean beste mila aukera dituzte eskura (txat-a, webguneak...). Eszenatoki berrian, telebistarik (eta irudi emanaldirik) gabe bizi izandakoen artean telebistak lehen eragiten zuen «lilura» galdu egin duela uste du parte-hartzaile batek:

*SA 50 E: ... nik gogoratzen naiz telebista noiz heldu zen etxera, suposatzen dut zuek ere, telebistarik gabe bizi izan gara, (...) eta gogoratzen naiz kale osoan telebista zuek hiru edo lau, eta elkartzen ginen, ez familia, kale guztia etxean, sukaldian, noski, etxe sukaldian, sutondoan, eta danak jesarrita... Ni hori, bueno, bizi-bizirik daukat hori. Eta orduan bai bizi zenuen, baina ez dakit programak hobeagoak ziren, ez dut uste. Beste gauza bat zen lilura, zela gauza bat, eta imajina, imajinarekin. Es que gu ez gara jaino imajinarekin...*

Amaitzeko, nagusien adin-taldeko parte-hartzaile askoren ustez lehen «politau euen» telebista. Egungo telebista asko apreziatzen duten arren, aurrerago ere aipatu den bezala saio batzuetan gonbidatuak «beti hasarre ta txarto berba eiten» dabilzanaz kexu dira, eta nolabaiteko nostalgia bat adierazten dute «orduko» telebistagatik. Eztabaida saioak erruz jarraitzen dituzten arren, bertako gonbidatuen arteko edukazio falta gero eta handiagoa denaz kexu dira, sarri:

*LE 78 E: Hori. Baina ez deusie ipinten bardin! Esan dotzat, ointxen dekozu txarra. «Oye Paloma, cállate que no es tu esto. Que no es tu tiempo». Erderie eitten dabelez, ba erdera horreri... Peni da e? Peni da. Badinotsut, ba, on aspaldixon baina sasoi baten asko galdute egon da e?*

Garai batean kate zehatz batzuetan aurkitzen zen estilo zabar hori (*Telecincon*, batez ere) orain kate guztietara zabaldu dela uste dute, baita *Euskal Telebistara* ere. Askok aintzinako filme eta saioak («Firin Faran»...) botatzen dituzte faltan, eta filmak berez, lehen baino gehiago ematen dituztela onartu arren, faltan botatzen dira bakeroen filmak, «Bigarren kanalien» (*ETB2n*) oraindik ere botatzen dituzten arren:

*AU 71 G: Baina harek bakerunak, harek mexikanadak eta... harek alegriek, esan gurot e... Niri asko gustetan jaztez. Baina oin ez da... lehen hortxe, bigarren kanalien...*

*AU 75 E: Arratsaldien bai e? Arratsaldien bai...*

*AU 71 G: Horixe zerak emoten dau, horretxek, segunda cadenakoak horixe, ostantzien bestiek e...*

Telebista kenduko ote luketen galdetuta, baten batek baietz dio, arazorik gabe (egun ere oso kasu gutxi egiten dio telebistari), baina orokorrean denek nahi dute

telebista etxean, gehienetan irrtiarekin batera. Gainera, iloba txikiak dituztenen kasuan argi dute telebista ezinbestekoa dutela, eta haiek baino hobeto darabiltzatela telebistaren kontrolak:

*AU 77 G: Derrigor biduz honek telebisino zerak, umien telebisinoa ipini bidozu...*

*BESTEAK: A, klaro klaro klaro*

*AU 77 G: Sei urteko lobie, da hark derrigor telebisino bi deu, ta beren lau programa edo bost programak dauzenak horrek.*

*AU 85 E: Da zortzikue etorten danin gurera, ni telebisinoien banau zer bat ikusten, neuk be ez dakittela kanbixetan dozte telebisinoie berak gure dabenak ikusteko. Neuk be ez dakit, ene!*

### 5.3.6. TELEBISTA IDEALA: TELEBISTA PERFEKTURANTZ

«Telebista ideala» kode fokalizatuan bildu dira telebista ideala nolakoa litza-tekeenari buruzko galderak, eta egungo telebistak telebista perfektu honengandik agertzen duen distantzia eta ezberdintasunari buruzkoak.

Telebista idealari buruz galdetuta, *EiTB* nahi bezala antolatzeko aukera balute eduki zehatz batzuen alde egingo lukete elkarriketatutako gazteek, beste ezer baino lehen (hau da, gehien ikusten dituzten saio motak ikusi nahi dituzte *Euskal Telebistan*):

*MU 25 G: Futbola, ziklismo ta... Ziklismo, futbola eta Teleberri, bueno Teleberri edo notiziek ta... Eske es dau gauza handirik ez...*

*MU 21 E B: Ba realityren bat, eta gero...*

Beste kasu batean albistegietan bertoko kirolari tarde handiagoa eman eta euskerazko telesail on baten alde egitea aipatzen da, kate bat nahi bezala eratzeko aukera izanez gero. Euskalkiek telebistan eta bereziki tokiko telebistan izan beharko luketen lekuari buruz galdetuta, aldiz bizkaiera jasoaren alde egiten du:

*BI 29 E: (...) Da hor bai, bai eitxen da ingeruko euskera, apur bet jaso izan behar deu, bizkaiera jaso. Ostantzien ba azkenien gure dogune eitxen doguleko, baie... bai. Da telebisinoan seguru egongo dala moduren bat hori eitxeko. Nafarreraz eitxeko zera badau, bizkaieraz zegatik ez! Ez dakitx zer dekien bizkaieragaz baie... (barre).*

Helduak 1 taldean ez dago adostasunik telebista ideal batek izan beharko lituzkeen, eta izan behar ez lituzkeen ezaugarrien inguruan. Publizitateak izan behar lukeen paperari buruz adibidez oso iritzi ezberdinak ageri dira: batzuek guztiz edo ia-guztiz kenduko lukete publizitatea telebistatik, baina beste batzuek gustoko dituzte iragarkiak eurek («programa bat emoten izen dabien, zelan dauen e festibal bat, propagandana») eta telebista ikusterako orduan abantaila eskaintzen dutela uste dute, mahaia jasotzeko adibidez filme edo saioren baten erdian datozenean. Reality-en inguruan ere eztabaida dago, baten batek denak kenduko lituzkeen artean, beste batzuek uste dute jende askok gustora jarraitzen dituela.

Filme berriak hainbeste itxaron gabe eta norberak nahi duenean («tele a la carta») aukeratuta ikusteko aukera aipatzen da, eta ados agertzen dira oso aukera interesgarria izango litzatekeenarekin. Gainera norberak eduki zehatzak aukeratu ahal izateak sarri hainbeste kateren artean ezer aurkitu ezin izatearen frustrazioa saihestuko lukeela aipatzen da.

BI 37 G: *Jo, ba nik pelikulek segiduen, onak. Urteten daurienak, pla! Pantailan! Segiduen. «Nada de esperar seis meses». Zuzenien gure dot ikusi.*

BI 43 E: *Ba... nahi dozuna eskatu. Gure dot pelikula bat ez dakit ze pelikule, pum, eta agertzen da.*

BI 50 E: *«A la carta»*

BI 43 E: *A la carta! Tele a la carta!*

BI 47 E: *Bai bai. Bai, konforme nau zugaz (barre).*

BI 39 G B: *Klaro, heltzea etxera eta esatea, «gaur ikusiko dut klasiko bat» ezta? Edo «ez, ikusiko dot teleberria» edo «ikusiko dot...»*

Euskararen tokiari buruz galdetuta, euskaldun zaharrak izan arren parte-hartzailerik batzuek aitortzen dute errazago ikusten dutela telebista erdaraz, edukiaren arabera. Batueraz izateak ere oztopoa suposatuta dezakeela uste dute belaunaldi nagusiagoentzat («nire gurasuek ez dabe ulertuten»), eta telebistan bizkaiera hurbilago batek presentzia izatea positiboki baloratuko lukete:

BE 41 E: *Ba niri bai. Da informatiboak be ez dazte inporta euskeraz ikustie. Baie beste gauze batzuk... pelikulek...*

BE 40 E: *Baia iguel da lehen esan dogune bebai ez? Honek hirurek ikesi dabie euskeraz...*

BE 40 E b: *Gure generazino erderazko izen da.... Gu erderaz hazi gara.*

BE 40 E: *Dana. Telebisinue erderaz izan da...*

BE 40 E b: *Ikasketak bebai...*

Helduak 2 adin-taldean berriz «a la carta» telebistaren beste adiera bat azaltzen da, etxean telebista aparailu ugari daudenean norberak berea ikusten duelako, eta hartara ez delako ez ikusiko dena negoziatzen, ez eta ikusten denari buruz hitzegiten. Aldiz, aparailu berean edukia aukeratzea ondo ikusten dute oro har, programazioa eta ordutegia ikus-entzuleen esku egotea, kateen programatzaileen esku egon beharrean:

LE 53 E: *Ideala izango litzateke bat komentatu danon artian.*

LE 52 E: *Adostuta dagon programazino bat. Baina klaro, hori bez ez da erreza.*

LE 54 E: *Ez... birtual! Niretzako birtual izango zan. Ni hor sei terdixetan jesarten naz telebistan eta «ene, gaur ez dot ikusi notiziya, zer pasa da?», bueno ba, oin nahi dot notizixak, tak! emon botoiari...*

LE 52 E: *Emon eta notiziak...*

LE 54 E: *... on nahi dot pelikula bat, eta ez dot nahi hamaiketan hastia pelikulia, nahi dot bederatzi t'erdixetan hastie pelikulia, emon eta tak, eta ikustia.*

LE 57 G: *Hori laster emongo da.*

Telebistako saioetan parte-hartzeko aukera ere interesgarri zaie, zuzeneko emandietan interaktibitate handiagoa izan dezan telebistak, baina gehiago interesatzen zaie emandako edukiak, direla filmak, telesailak, albistegiak edo meza, norberak nahi duenean ikusi ahal izatea.

Nagusien adin-taldean aldiz garrantzia handiagoa eman zaio entretenimenduzko edukiei: norberak gustuko dituen edukiak gehiago ikusi nahi lituzke telebistan adin-talde honetan; filmak (batez ere «bakeradak»), kirolak (batez ere futbola eta txirringularitza aipatzen dira), albistegiak, lehiaketak...

LEZ 67 E: *Ez dakit. Konkursoko gauzek izengo liteke «el no va más», ezdakizu? Eta gero hori, esan dotzut, pelikulek, baina espezialak. Apurtxu bet... eta ez dakit. Eta albisteak, eta albisteak. Hori, hori da niretzat, hori.*

Aldiz gaurkotasan politikoaren inguruan iritzi ezberdinak daude; batzuek eztabaida politikoetan interesa duten arren («mundu honetan dana jakin bi da eh?») beste batzuek politika errespeturik gabeko eztabaida antzuekin lotzen dute, eta ez liokete lekuri emango telebista ideal batetan. Hala ere eztabaida politikoan euskaldunen artean beste estilo bat nabaritzen da oro har, nahiz eta hor ere hikamikak somatu. Egoitzan elkarrizketatutako parte-hartzaileen kasuan, euskera gehiago botatzen dute faltan telebistan, batez ere inguru hurbilean, egoitza barruan, euskera gutxi entzuteko aukera dutelako.

Telebistako euskarari buruz galdetuta berriz, ondo ulertzen dela deritzote, nahiz ta onartu euskera ezberdinak daudela, eta norberak ere ahalegina egin behar duela batzuetan telebistako euskara jasoa ulertzeko:

BI 83 E: *Oin euskeriek diferentiek die eh?*

BI 88 G d: *Euskera... batua, bermeokoa diferentia, batua diferentea... (...)Norberak be ondo jakin bi deu euskeraz, telebisinoie ondo hartzeko... ondo hartzeko telebisinoie norberak be jakin... Norberak ondo ez badaki, harek esaten danak entendidu ez, aittu ez!*

Beste kasuren batean onartzen da erderaz errazago jarraitzen direla telebistako edukiak euskaraz baino, batueraz dauden saioak sarritan testuinguruan bakarrik ulertzen direlako. Zentzu horretan, telebista bizkaieraz jarraitu ahal izatea eskertuko luke:

LEZ 67 E: *Bardin... pasetan dana da, oingo euskerea, batua dalez, ni enaz e... ez dot ulertuten, eske... Goenkalen be pasetan jate, berba batzuk ezin ulertu. (...) Bakarrik osea, e, enteretan zara gestoengatik edo, gitxi gora behera badakizu zer dinon, eztakizu? Por intuición edo... badakizu zer dinon, baina ostantzean ez dot ulertuten. Ez, keba, ez, ez.*



## 5.4. LABURBILDUZ: ADIN-TALDEEN TELEBISTAREKIKO HARREMANAK SINTESIAN

---

Bostgarren kapitulu honetan adin-taldeen arteko berdintasun eta ezberdintasunak identifikatu aldera landa lanean zehar eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketen bidez jasotako informazioa modu egituratu eta sistematikoan aurkeztu dugu, aldizko, astizko eta aisiazko kontzeptuei erreparatuz.

Aldizko kontzeptuetan telebistarekin lotutako jarduerak espazio eta denbora koordenatuetan hartzen duten kokapenak aztertu ditugu: telebista ikusten den ala ez eta noiz, telebista asko edo gutxi ikusten ote den, non dauden ikusten diren telebistak eta zein eragin duen honek ohituretan, zeinek diren erreferentziazko kateak edo kanalak (gustokoak zein gorrotatuak direnak), konpainian ikusten den telebista eta telebistak egiten duen konpainia, telebistaren bidez eskuratu eta jarraitzen diren edukiak, telebistari egiten zaion kasua, telebista hizketagai bihurtzen denean, zapping egitea, telebistaren ondoko komunikazio teknologiak, lineako telebista eta ordaindutako telebista. Hartara, aldizko kontzeptuetan telebista ikustearen denborak ezezik, harekin harremana duten beste jarduerak ere jaso ditugu, bere aldaera objektibo eta subjektiboetan.

Astiazko kontzeptuetan berriz norberaren eskura dagoen denbora librearen inguruko kontakizunak bildu ditugu, telebistarekin modu batera edo bestera lotuta agertzen den artikulatzeko edo artikulatzeke dagoen esparru tenporalari buruzko esperientzia eta bizipenak: norbere astialdia eta telebistarekin duen harremana, telebistaren garrantzia norberaren astialdian, telebistaldia denbora tarte berezko eta berezi bezala eta lan eta jai egunetan telebistarekin izaten den harremana. Honela pertsonaren askatasun erlatiboaren (eta sumatuaren) esparru tenporalaren eta telebistaren arteko loturak esploratu ditugu

Aisiazko kontzeptuei dagokienean berriz, subjektuaren bizipena, esperientzia eta ulermena lehenetsi nahi izan ditugu: telebista ulertzeko moduak, telebistaren balorazioa, telebistarekin lotutako emozio eta bizipenak, telebistaren definizioak eta telebista idealak. Material, sozial eta historikoki kokatuta eta mugatutako ezaugarri objektiboen bizipen subjektibo eta pertsonalak jaso ditugu horrela, telebistaren eguneroko agerpenen aisiazko interpretazioa.

Lanaren bigarren atalarekin amaituta, ondoren hirugarren atalari helduko zaio, proposamen teoriokoari alegia, telebistaren aisiazko harremanen ereduaren esplikati-  
bo-interpretatiboa eraikitze aldera.



# HIRUGARREN ATALA

## PROPOSAMEN TEORIKOA

### EDUKIAK

6. KAPITULUA. TELEBISTAREKIKO AISIAZKO HARREMANAK:  
EREDU ESPLIKATIBO-INTERPRETATIBOA
  - 6.1. Telebistaren esperientzien aisiazko karakterizazio orokorra
  - 6.2. Adin-taldeen telebistarekiko harremanen karakterizazioa
  - 6.3. Adin-talde eta belaunaldien arteko harremana
  - 6.4. Kasu azterketaren eredu esplikatibo-interpretatiboa
  - 6.5. Laburbilduz

I wrote my article... because I wanted to know.

Stuart hall, *The Big Swipe*.

## VI. KAPITULUA.

### TELEBISTAREKIKO AISIAZKO HARREMANAK: EREDU ESPLIKATIBO-INTERPRETATIBOA

Adin-taldeen kontzeptuzko analisisian landa lanean aztertutako adin-taldeen deskribapen fokalizatu eta ahalik eta osoena aurkeztu dugu, begirada deduktiboari jarraiki. Kapitulu honetan berriz interpretazioa izango dugu jomuga, deskribapena beharrean. Helburua, hortaz, ikerketaren galdera eta helburuei erantzun diezaiokeen datuetan funtsatutako azalpen teorikoa, eredu esplikatibo-interpretatiboa, josi eta aurkeztea da. Izan ere, ikerketa kualitatiboan sarri esanahia datuetan bere horretan aurkitu edo ikusten saiatu beharrean, askoz eraginkorragoa izan ohi da datuek ulertzea eraman gaitzaketen esanahia konposatzea.

Esanahi oro aurkitua baino eraikia dela onartzetik abiatuta, jasotako informazioa modu ordenatu eta sistematikoan antolatu eta aurkeztetik informazio honen interpretazioa modu koherentean eraikitzea igarotzea da kapitulu honen erronka eta hari gidaria. Xede horri begira bi azterketa estrategia osagarri baina ezberdin integratu ditugu kapitulu honetan: begirada induktiboa<sup>498</sup> eta begirada abduktiboa<sup>499</sup>.

Kapitulu honen lehen zatian telebistaren esperientzien aisiazko karakterizazio orokorra landu dugu, aisia humanistaren lau koordenatuak ardatz harturik telebistaren aisiazko izaera anitza jasotzeko eta adin-taldeen telebistarekiko aisiazko esperientzien ezaugarri orokorrak aurkezteko. Jarraian, adin-taldeek telebistarekiko harremanean agertu dituzten berezko nolakotasunak bildu ditugu, hauen araberrako karakterizazioa proposatzeko. Hirugarren, adin-talde eta belaunaldien arteko zeresana aztertu dugu, emic eta etic ikuspuntuetatik, eta bi kontzeptuek telebistarekiko aisiazko harremanean elkarrekiko duten garrantzia aztertu dugu.

Azkenik, kasu azterketaren eredu esplikatibo-interpretatiboa osatu dugu, telebistarekiko aisiazko harremanen kategorizazio orokorra proposatuz eta telebistaren aisiazko ontologia batetarako hipotesi esplikatiboa marraztuz.

#### 6.1. TELEBISTAREN ESPERIENTZIEN AISIAZKO KARAKTERIZAZIO OROKORRA

Lan honetan jarraitu dugun telebistaren ikuspegi agnostikotik telebista gauza asko izan daiteke pertsona ezberdinentzat; errealitate anitz adierazten ditu, bai telebistak, eta bai telebista ikusteak<sup>500</sup>. Aurreko kapituluetan telebistaren entitate-

<sup>498</sup> Ikus «In vivo kodeketa» 4. kapitulu.

<sup>499</sup> Ikus «Triangulazioa eta eredu esplikatibo-interpretatiboa», 4. kapitulu.

<sup>500</sup> Ikus «Zer da telebista (ikustea)?» atala 2. kapitulu.

ren hainbat aurpegi aztertu ditugu: gailu teknologiko, sistema industrial, erakunde sozial, aisiazko baliabide zein ikus-entzuleriaren ekoizpen eta banaketarako merkatu legez dituen izakitasunak. Izate konplexu, dimentsio anitzeko, iragazkor eta problematikoa duela ikusi dugu, are gehiago digitalizazio eta bateratze multimediaren eta digitalizazioaren aroan<sup>501</sup>.

Hori dela eta, bereziki interesgarria zaigu telebista aisiaren esperientziaren ikus-pegitik aztertzea, adin ezberdinetako pertsonen egunerokotasunean telebistak hartzen duen tokia ezagutu eta gure garaiko telebistaren aisiazko ontologia bat burutze-ko. Telebistaren izate anitz honen neurria hartu eta alderagarria den sistematizazio egin ahal izateko ondorengo orrialdeetan telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien karakterizazioa proposatuko dugu, aisiaren koordenatuen eta adin-taldeen arabera. Horretarako parte-hartzaileen idatzizko eta ahozko kontakizunetik abiatuko gara, telebistarekiko aisiazko esperientzien ezaugarri berezi eta bereizgarrien bila.

Telebistaren izaerari buruzko abiapuntu agnostiko horretatik, eta kasu azterketa-aren eredu esplikatibo-interpretatiboa burutu ahal izateko<sup>502</sup> teknika eta azterketa-begirada ezberdinak baliatu dira, ikergaiaren ezagutzan aurrera egite aldera<sup>503</sup>. Triangulazio metodologikoaren baitan landu diren hiru teknikak, telebistarekiko aisiazko harremanaren bi kontaketa modu ezberdin ahalbidetu dituzte: ahozkoa Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetan, eta idatzizkoa parte-hartzaileei saioaren amaieran betetzeko eskatu zaizkien fitxetan.

Atal honetan bi kontaketen arteko uztarketa landuko da. Hala, Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetako parte-hartzaileen telebistarekin lotutako aisiazko esperientziei buruzko idatzizko eta ahozko kontakizunak aztertu eta alderatu dira. Horretarako telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien koordinatuen karakterizazio orokor bat burutuko dugu lehenengo, eta adin taldeen arteko alderaketa partikularra ondoren.

### 6.1.1. AISIAREN KOORDENATUAK ETA TELEBISTAREN ESPERIENTZIA

Puntu honetara helduta gogoratu behar da aisia humanistaren teoriaren baitan aisiaren koordenatuak (autotelikoa, exotelikoa, absentea eta kaltegarria) aisiaren gauzapeanaren esparru ezberdinak direla, aisiazko bizipen ezberdinarekin lotuta daudenak, eta telebistarekin lotutako aisiaren eta aisiazko esperientzien ezagutza eta sailkapena orientatu eta errazten lagun diezaguketenak<sup>504</sup>. Errealitate esparru isolatuak izatetik urrun, elkarrekin harremanean eta sarri nahastuta agertzen dira aisiaren

<sup>501</sup> Ikus 2. kapituluua: Telebista komunikabideen ekosisteman.

<sup>502</sup> 4. kapituluaren amaieran adierazitako ZER(GATIK) galdera bikotzairi erantzuteko asmoz.


<sup>503</sup> Ikus 4. kapituluuan «Triangulazioa eta eredu esplikatibo-interpretatiboa» eta «Hurrengo kapituluak eta hiru azterketa-begiradak».

<sup>504</sup> Koordenatuen inguruko azalpen osoago baterako ikus «Aisiaren koordenatuak» atala, 1. kapituluuan.

gauzape bezala. Aparteko edo gailurtzat hartzen ditugun esperientzien kasuan, zein eguneroko esperientzian eta egunerokotasunaren esperientzian, aisiazko esperientziak lau koordinatuen zantzu agertu ohi ditu.

Zentzu horretan bereziki interesgarria da koordinatuon arabeko telebistaren esperientziaren karakterizazioa egitea pertsonen egunerokoan telebistak hartzen duen papera aztertu eta telebistak aisiazko artefaktu bezala hartzen dituen aurpegi ezberdinak ezagutzeko. Aisiaren bizipen-esparru ezberdin baina interkonektatuak diren heinean aisiaren koordinatuak telebistarekin lotutako eguneroko aisiazko esperientzien erretratua burutzen lagungarri zaizkigu. Telebista parte-hartzaileen perspektibatik aisiazko terminoetan azaltzen eta interpretatzea ez ezik, adin-taldeak haien artean alderatzea ahalbidetzen digute. 39. irudian ikus daitekeen bezala, elkarrekin harremana duten (= =) eta aldi berean *Aisiaren Koordinatuak* kategoriarren parte diren (*is a*) kode teoriko bezala erabili dira lan honetan. Aisia absenteak eta kaltegarriak aisiaren norabide negatiboa osatzen dute, eta aisia exoteliko eta autotelikoak berriz, positiboa:

### 39. IRUDIA: AISIAREN KOORDENATUAK ETA NORABIDEAK– SARE BISTA (ATLAS.TI)



Iturria: norberak egina (cf. Cuenca, 2000).

Telebistarekin lotutako aisiaren lau koordinatuei buruz galdetzeko zeharkako bide bat erabili da talde-eztabaidetan eta elkarriketetan: behin saioak amaituta par-

te-hartzaileei betetzeko eskatu zaizkien fitxak<sup>505</sup>. Fitxa hauetako azken ariketan hamabi esaldiren artean lau aukeratzeko eskatu zaie parte-hartzaileei, eta lau esaldi hauek garrantziaren arabera ordenatzeko, 1-etik 4-ra. Horrela, aisiaren koordenatu bakoitzarekin lotutako hiruna esaldi aurkeztu dira, guztira hamabi osatzeraino.

Parte-hartzaileen erantzunak ez baldintzatzeko ausazko hurrenkera batean aurkeztu zaizkien arren, 22. Taulak eskainitako 12 esaldiak jasotzen ditu, islatzen dituzten aisiaren koordenatuen arabera antolatuta (kolore horiz norabide positibodun bi koordenatuak jasotzen dira, eta urdinez norabide negatibokoak):

## 22. TAULA: AISIAREN KOORDENATUAK ETA AUKERATU ETA ORDENATZEKO PROPOSATUTAKO ESALDIK (PARTE-HARTZAILEEN FITXA)

Aisia autotelikoa <b>A</b>	Gustatu egiten zait telebista. Nahi dudana aurkitzen dut telebistan. Atsegina da telebista ikustea.
Aisia exotelikoa <b>E</b>	Telebistak munduaren berri ematen dit. Ikasi egiten dut telebistarekin. Telebista erabilgarria/baliagarria da.
Aisia absentea <b>A</b>	Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista. Telebistak aspertu egiten nau. Denbora galtzea da telebista ikustea.
Aisia kaltegarria <b>E</b>	Telebista adiktiboa da. Telebista gehiegi ikusten dut. Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit.

*Iturria. norberak egina.*

Gogoratu beharrekoa da maila teorikoan aisia autotelikoa dimentsio ludikoa, sormen-dimentsioa, ekologia eta ingurumen-dimentsioa, jai-dimentsioa eta dimentsio solidarioarekin lotzen dela eta aisia exotelikoa berriz dimentsio produktiboa, kontsumozko dimentsioa, hezkuntza-dimentsioa, dimentsio terapeutikoa, dimentsio bereizgarria eta dimentsio alienagarriarekin. Aisia absentea berriz ezintasun eta ezgaitasunarekin lotzen da, eta aisia kaltegarria azkenik itxurazko askatasuna, instintuzkoa, adikzioa, ezegokitasuna eta legez kontrakotasunarekin<sup>506</sup>.

Telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien ezaugarri bereizgarriak finkatuta, praktikan eta parte-hartzaileen idatzizko kontakizunean nola banatzen diren aztertuko dugu ondoren.

<sup>505</sup> Ikus «Atal idatzia: hurbilketa egituratua (parte-hartzaileen fitxa)» 4. Kapituluari eta Eranskinak.

<sup>506</sup> Ikus «Aisiaren dimentsioak» 1. kapituluari.



Aisiazko koordinatuekin lotutako baieztapenek orotara eta adin-taldea jaso duten banaketa aztertu ahal izateko bi zenbaketa interpretatibo ezberdin burutu ditugu: maiztasuna eta garrantzia izenekin deskribatu ditugunak. Alde batetik 12 esaldietariko bakoitzaren maiztasuna neurtu da, hau da zenbat aldiz hautatu den (adin-talde bakoitzean eta orotara).

Bestetik, esaldi hauen eman zaien lehentasuna ere neurtu dugu, parte-hartzaileak esaldia lehenengo, bigarren, hirugarren edo laugarren postuan hautatu duen kontuan hartuz. *Garrantzia* deitu diogu neurketa honi, eta kalkulatu ahal izateko, lehenengo postuan kokatutako esaldiei 4 puntuko balioa eman zaio (4-tik 4), bigarren postuan kokatutakoei 3 puntu (4-tik 3), hirugarren postuan kokatutakoei 2 (4-tik 2), eta laugarren postuan kokatutakoei puntu bakarra (4-tik 1). Honek zutabe bakoitzaren amaieran eta adin taldea koordinatu ezberdinek jasotako puntuazioak jasotzea ahalbidetu digu, koordinatu ezberdinek guztira eta adin-taldea hartu duten pisua islatzen duen puntuazioa jasoz.

Orotara hartuta, parte-hartzaileek eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketak burutu ostean erantzundako fitxetan jasotako esaldiekin hamabi koskako podium moduko bat osatuz gero, honako sailkapena azalduko litzaziguke, lehenengo postutik hamabigarrenera:


### 23. TAULA: AISIAREN KOORDINATUEKIN LOTUTAKO ESALDIK ETA GARRANTZIA OROTARA (IDATZIZKO KONTAKETA)

	Esaldiak	Garrantzia	Aisiaren koordinatua
1.	<i>Telebistak munduaren berri ematen dit</i>	98 (13 aldiz lehen postuan)	Exotelikoa
2.	<i>Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista</i>	83 (10 aldiz lehen postuan)	Absentea
3.	<i>Telebista erabilgarria/baliagarria da</i>	81 (7 aldiz lehen postuan)	Exotelikoa
4.	<i>Atsegina da telebista ikustea</i>	56 (6 aldiz lehen postuan)	Autotelikoa
5.	<i>Ikasi egiten dut telebistarekin</i>	51 (3 aldiz lehen postuan)	Exotelikoa
6.	<i>Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit</i>	47 (6 aldiz lehen postuan)	Kaltegarria
7.	<i>Gustatu egiten zait telebista</i>	44 (7 aldiz lehen postuan)	Autotelikoa
8.	<i>Telebista adiktiboa da</i>	36 (3 aldiz lehen postuan)	Kaltegarria
9.	<i>Telebistak aspertu egiten nau</i>	33 (4 aldiz lehen postuan)	Absentea
10.	<i>Nahi dudana aurkitzen dut telebistan</i>	31 (4 aldiz lehen postuan)	Autotelikoa
11.	<i>Denbora galtzea da telebista ikustea</i>	25 (2 aldiz lehen postuan)	Absentea
12.	<i>Telebista gehiegi ikusten dut</i>	20 (2 aldiz lehen postuan)	Kaltegarria

Kontuan hartu beharrekoa da edozelan ere 73 parte-hartzaileetatik 70ek bakarrik bete dutela parte-hartzaileen fitxa (eztabaida-taldetik arinago irten behar izan zutelako, ariketa ondo ulertu ez zutelako...), eta jasotako 70 erantzunetatik 63 bakarrik hartu direla ontzat. 7 kasutan jasotako erantzunak ez zirelako alderagarriak (kasu batzuetan esaldi guztiak puntuatu dira 1-etik 4ra, beste batzuetan «batzutan» edo «ez» erantzun zaio esaldi bakoitzari...).

Ontzat hartu dira nagusien adin-taldearen kasuan adostasun maila berarekin (denak 1) hautatutako esaldiak, hauek ere kenduz gero talde honetako erantzunik egongo ez litzatekeelako. Orotara hortaz, parte-hartzaile guztien %86aren lau koordenatuekin lotutako aukeraketen inguruko datuak jaso dira. 7. grafikoak aisiaren koordenatuek orotara hartu duten garrantzia erlatiboa jasotzen du, ehunekotan, eta adin-taldeen artean ezberdintasunik egin gabe.

#### 7. GRAFIKOA: TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIAREN KOORDENATUAK: GARRANTZIA ERLATIBOA OROTARA



Iturria. norberak egina.

Aurreko irudiari erreparatuta argi eta garbi ikusten da telebistaren erabilera instrumental bat gailentzen dela: aisiaren koordenatu exotelikoa beste hiru koordenatuen gainetik aise kokatzen da %38ko garrantzia erlatiboarekin, eta aisia kaltegarriaren garrantzia (%17) bikoiztu baino gehiago egiten du. Telebistaren aisiazko karakterizazioa nagusia aisia exotelikoarekin lotuta ageri da beraz, parte-hartzaileen erantzunak osotasunean hartuta. 23. taulan jaso bezala, garrantziarik handiena jasotako lehen hiru esaldietatik bi aisia exotelikoari dagozkio: «Telebistak munduaren berri ematen dit» eta «Telebista erabilgarria/baliagarria da».


Aisia absentea bigarren postuan kokatzen da telebistari lotutako aisiaren koordenatuei dagokien sailkapenean, %23ko garrantziarekin. Koordenatu honi dagokio,

idatzizko erantzunei erreparatuta orotara bigarren esaldi garrantzitsuena gertatu dena: «Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista». Hirugarren tokian, eta ia aisia absentearen parean kokatzen da aisia autotelikoa %22ko garrantzia erlatiboarekin. «Atsegina da telebista ikustea» da koordinatu honekin lotutako esaldirik garrantzitsuena, laugarren posizioan kokatzen dena parte-hartzaileek emandako garrantziari dagokionez.

Azkenik telebistarekin lotutako aisia kaltegarria kokatzen da %17-ko garrantzia erlatiboarekin, lau koordinatuetatik garrantzia txikiena hartzen duena. Koordinatu honekin lotutako esaldi garrantzitsuena, «Telebistak aspertu egiten nau», 8. postuan kokatzen da. Garrantzia gutxien eman zaion esaldia ere, «Telebista gehiegi ikusten dut», koordinatu honi dagokio (bi pertsonak bakarrik aukeratu dute esaldi hau lehenengo lekuan).

Interesgarria da aisiaren norabideari erreparatuta alternantzia erabatekoa azaleratzen dela telebistarekiko harremanean: positiboa lehenengo (exotelikoa, %38), negatiboa bigarren (absentea, %23), positiboa berriro ere hirugarren (autotelikoa, %22) eta azkenik negatiboa (kaltegarria, %17), 40. irudian ikus daitezkeen bezala:

#### 40. IRUDIA: TELEBISTA ETA AISIAREN NORABIDEAK: KATEGORIZAZIO OROKORRA



Iturria. norberak egina.

Grafikoki adierazita, eta parte-hartzaile guztien idatzizko erantzunak modu agregatuan hartuta, telebistaren aisiaren koordinatuen bidezko erretratuak alderantzizko piramidearen itxura hartzen du, exotelismoaren nagusitasun argiarekin gailurrean, eta aisia kaltegarritzko erpinarekin oinarrian. Tartean, eta ia-parekide, aisia absentea eta aisia autotelikoa, oreka zailean. Telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien metafora global adierazgarria osatzen du hartara.

«(+)/(-)/(+)/(-)», positibo-negatibo txandakatze honek oso ondo jasotzen du Eztabaida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetan parte-hartzaile ezberdinengandik jasotako telebistarekiko jarrera anibalentea: «bai baina ez» eta «ez baina bai» bikote bikoitzarekin laburbildu daitezken harreman problematiko, konplexu, askotariko eta egunerokoa. Telebista zaleenek ere aitortzen dituzte arazo larriak, eta telebistarekiko kritikoenak diren jarrerek ere onartzen dizkiote balio positiboak. Orotara hartuta, beraz, lehenengo begiratu batean telebistaren aisiazko kategorizazio orokorra zehaztubakoa eta anibalentea dela esan dezakegu, eta esplizituki konplexua sakonagoko esplorazioan.

Hurrengo orrialdeetan aisiaren koordinatuen karakterizazio orokorragoaren atzean dauden errealitate eta ñabardura horiek azaleratzen saiatuko gara, aisiaren koordinatuek, aisiaren gauzapearen esparru ezberdinu gisa, telebistarekiko hartzen dituzten formak eta ezaugarri berezkoak nabarmentzeko.

#### 6.1.1.1. Aisia exotelikoa

Telebistarekin lotutako aisiaren koordinatuen artean jaun eta jabe da aisia exotelikoa. Parte-hartzaileei aukeran emandakoen artean aisia exotelikoarekin lotutako hiru esaldiek («Telebistak munduaren berri ematen dit», «Telebista erabilgarria/baliagarria da» eta «Ikasi egiten dut telebistarekin») garrantziaren %38a jaso dute (230 puntu orotara).

Gainera, aipatu beharrekoa da aisia exotelikoarekin lotutako esaldiek autotelikoarekin lotutakoek baino puntuazio altuagoak dituztela<sup>507</sup>, eta hortaz telebistarekin lotutako norabide positibodun aisiaren erreferentzia ekidiezin bihurtzen zaigula:

1. «Telebistak munduaren berri ematen dit»: 98 (aukeran eskainitako hamabi esaldietatik puntuazio altuena lortzen duen esaldia).
2. «Telebista erabilgarria/baliagarria da (zerbaitetarako)»: 81 puntu.
3. «Ikasi egiten dut telebistarekin»: 51 puntu.

Lehenengo postuetan<sup>508</sup> (hau da, 4 puntu emanda) aukeratutako esaldiak kontatuta 13 aldiz aipatzen da «Telebistak munduaren berri ematen dit» esaldia (34 erantzunetatik guztira), 7 aldiz «Telebista erabilgarria/baliagarria da» (31 erantzunetatik, guztira) eta 3 aldiz «Ikasi egiten dut telebistarekin» (21 erantzunetatik, guztira).

Hala ere, telebistarekiko aisiazko esperientzien karakterizazio orokorrari begira telebistarekin lotutako aisia exotelikoa nolakoa den, zein ezaugarri agertzen dituen

<sup>507</sup> Telebistarekin ikasteari dagokionak ezik, «atsegina da telebista ikustea» esaldiak baino pisu txikiagoa agertzen baitu.

<sup>508</sup> Hemen eta hurrengo orrialdeetan ematen diren datuei dagokienez, parte-hartzaileek fitxan emandako jatorrizko erantzunak (hau da, ponderatu gabeak) kontsultatzeko, ikus Eranskinetan «Aisiaren koordinatuak: parte hartzaileen jatorrizko erantzunak».

eta adin-talde ezberdinetan zein modutan agertzen zaigun interesatzen zaigu batez ere. Telebistarekin lotuta ageri den aisia exotelikoa nolako den, zein ezaugarri agertzen dituen eta adin-talde ezberdinetan zein modutan agertzen zaigun aztertuko dugu ondoren.

Idatzizko kontakizunean munduaren berri izateak oso puntuazio altua jasotzen duen arren, eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketetan jasotako ahozko kontakizunean telebistari egozten zaizkion eguneroko funtzionalitateak ezberdinak dira.

Deskonektatzeko eta deskantso denborak bilatu eta eraikitze funtzioa da telebistari buruz hitz egiterakoan gehien aipatzen den erabileretariko bat. Dela eguneko arduetatik edo asperduratik ihes egiteko, edo behin betebeharrak eginda atsedean hartzeko, telebistari paper garrantzitsua aitortzen zaio; atsedean hartzen lagundu baino, atsedean hartzeko aitzakia eskaintzen du telebistak:

*DU 24 G b: Deskonexinue.*

*DU 21 E: Edo momento sofa, ez?*

*DU 24 G b: Bai, deskonexinue niretzako.*

*BI 39 G: Azkenean eh... momentu horretan zure burua bakarrik dago telean ikusten dan horretan pentzetan eta ba hori, ebasio antzeko sentsazio bat.*

*AL 27 E Irakurtzeak ahalegina da eskatzen duena, eta telebista ikusteak ez*

*AL 34 G Zuk esan duzuna ez? Ba gauez, nekatuta zaude, afaldu ta gero, tripa beteta, egun osoa lanean... Nahi duzuna da deskonektatu*

*BE 40 E: Bai erabiltzen dot ba igual siestie botateko...*

Bestetik, telebistaren erabilgarritasuna eta baliagarritasuna norberaren helburu eta gaitasunaren arabera dela ere behin eta berriro agertzen den ideia da. Telebistaren erabilgarritasuna, bere potentzialtasuna, ikuslearen gaitasunaren eta jarreraren arabera dela onartzen da, bai norberaren kasuan, eta bai besteen (gazteagoen, zein zaharragoen) kasuan:

*BE 41 E: Ez dinot txarra edo ona. Ez dinot txarra danik. Zertarko balixotzien. Zer al dabe ikasi...*

*DU 24 E: Eta zein da zure helburua? Ba Gran Hermanon sartzie eta...*

*SA 50 E: Nire gurasoak euskaldunak dira eta ikusten dute telebista, eta ez bakarrik ikusi, erabili!*

Antzera gertatzen da telebista apariluaren erabilera teknologikoekin: behararren, gaitasunaren eta jarreraren arabera da bere erabilera. Adibidez, Lekeition irrati-harrera oso txarra denez, Lurrazaleko Telebista Digitala erabiltzen da irrati entzuteko, baita Santurtzin ere:

*LE 53 E b: Guk eh telebisinoia erabiltzen dogu.*

*LE 52 G: Telesinua ipini eta Euskadi Gaztea...*

LE 59 G: *Irratixa entzuteko. Klaro*

LE 53 E: *Oizmendi hori es que hemen ez da hartzen, Lekitton ez da hartzen.*

SA 52 G: *(...) nik esate baterako irratia entzuteko ere ya telebistan entzuten dut, orain TDTrekin ez daukagu irratirik, ipintzen dugu telebista zuzenean eta irratia entzuten ere bai, bueno, ya aparatua.*

Munduaren berri izateari buruz berriz, albistegiak, eta azken aurrerapen zientifiko eta teknologikoen berri izatea ere baloratzen dira, egunerokotasunean txertatutako gaurkotze edo eguneratze erraz eta familiar bezala ulertuta:

BE 40 E: *Da guk gero notizixek bebai asko eh? Mnduan zer pasaten dan... hombre, egunkarixe bebai irakurten du egun-egunien, baina barrixek eta apurtxu bat entzutie gustaten dazku bebai...*

BI 75 G: *Telebisinue dau etxien mundu guztiko barrixakin. Adelantuek... dauzenik eta adelanturik onenak danak urteten dittuek, telebisinuen.*

Edozelan ere, telebistaren dimentsio informatibo hau zalantzan ere jartzen da, lehenago zuen erreferentzialtasun informatibo hori galdu balu, edo galtzen ari balitz bezala, beste hainbat informazio iturriekin lehian:

SA 56 E: *Eta gauzak ikasteko, nire garaian, gauzak ikasteko, jakiteko, desberdinak, eta zuk ikusten zenuen, zuk esan duzuna, pues igual agertzen zen Madril telebistan, edo Paris, eta hori, eta orduan, bueno, gure mundua zen nahiko...*

Laburbilduz, telebistarekiko aisia exotelikoa batez ere atsedenaldi eta ihesaldirako aukerarekin lotzen da oro har, eta baita intentsitate txikiko, edo ahalegin handirik eskatzen duen informazioa jasotze edo eguneratzearekin ere. Atsedena hartzeko eta ardura eta asperretik alde egiteko aukerak eta aitzakiak eskaintzen ditu, eta egunerokotasunean txertatutako mundura irekitako leiho bat eskaintzen du:

SA 57 E: *Ba, hainbat programa ikus al ditugu gure begiek zuzenean inoiz ikusiko ez dituzten gauzak, telebistaren bitartez ikusiko ditugu. Eta horrekin mundua zabaltzen da, eta pentsakerak, diferentek baita ere. Eta gustatzen bazaizu kotileoa ere, pues hor dago. Es que, gure bizitza, agian igual guztiz arruntak dira eta orduan, pues a ver horiek, beste batzuk, ez? Fantasiak, badakizu igual horiek ez dizutela zure bizitza aldatuko baina entretenitu bai eh? Edo horiek kritikatzeko edo elkarriketak sortzeko baita ere.*

### 6.1.1.2. Aisia absentea

Aisia absentea da telebistarekin lotutako aisiazko koordenatuen artean garrantzian bigarrena (%23arekin, 151 punturekin orotara). Koordenatu honekin lotutako hiru baieztapenei dagokienean berriz, gehien nabarmentzen den ideia asperguraren ondoko, asperdurak bultzatutako ekintza izatearena da:

1. «Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista» da alde handiz pisu handiena hartzen duena, 83 punturekin.

2. «Denbora galtzea da telebista ikustea» 35 punturekin urrun gelditzen da aurrekoaren markatik.
3. Azkenik «Telebistak aspertu egiten nau» 33 punturekin ere alde handira kokatzen da.

Lehenengo postuan aukeratutako esaldien dagokienez, 10 aipamen jasotzen ditu «Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista» baieztapenak (31 erantzunetik orotara), 4 «Telebistak aspertu egiten nau» esaldiak (13 erantzunetik, orotara) eta 2 bakarrik «Denbora galtzea da telebista ikustea» esaldiak (12 erantzunetik orotara). Interesgarria da lehen postuan aukeratutako esaldi hauek aztertzea, pertsona hauen telebistarekiko aisiazko esperientziaren erreferentzia nagusitzat uler baitaitezke. Hein horretan 16 pertsonarentzat (73tik), aisia absentearekin lotutako bizipenak dira telebistaren bereizgarri edo nolakotasun inportanteenak.

Aisia absentearen koordinatuak, telebistaren asperraldiarekiko, alferrik emandako denborarekiko, aisiazko benetako esperientziarik gabeko aldi hutsarekiko esperientziak biltzen ditu. Ez da horrenbeste telebista aspergarria suertatzen dela, baizik eta astia dagoenean eta harekin zer egin ondo jakiten ez denean berehala agertzen dela telebista eguneroko jardunean. Telebistak ez du asperraren aurreko berehalako konponbidea edo erremediorik eskaintzen derrigor (bigarren eta hirugarren postuan kokatutako esaldiek erakusten duten legez), baina hala ere distrakzio edo entretenimenduzko izaera hori, tarte hutsak betetzeko promesa horri eusten dio.

Nola, baina? Zein da telebistaren aisia absentezko esperientzia eta bizipenen mekanismoa? Galdera horiei erantzuteko parte-hartzaileen ahozko kontakizunera jo behar dugu. Oro har, hiru modu nagusitan egituratzen da telebistarekiko aisia absentea: asperraren aurkako sirena kantu gisa, denbora galtze ariketa bezala eta jardun aspergarri modura.

Lehenengo eta behin, eta beste ezeren gainera, telebistak aspertzearen aurkako eta gogaitutasunaren aurrean irteera eskaintzen du: «ez dakittenean zer ein», «Bai, hola, ez aspertuteko... Bai».. Astialdia aisialdi bilakatzeko aukerarik aurkitzen ez denean sarri telebista azaltzen da: aisiarako baliabide falta somatzen denerako baliabide.

Baina telebistaren erreskate-lanak ez dira, noski, beti arrakastatsuak. Uhandre-kantaren lilurak ez du beti asperduraren pisu astuna uxatzen. Erakargarria suertatzen da, erakartze ahalmen handia agertzen du bai, baina ez hala asebetetzekoa:

*MU 25 G: Igual egun baten ez dau ezebe eta ikusten zaoz eta ez dekozu zer eginik, hori bada denbora galdutea. Ahal zinun ikasi edo zeozer, baina que va (BARREAK), buf! Hori, baina zeozer interesante badau edo hori, ikusten dozu.*

Denbora galtzea edo botatzea bilakatzen da orduan telebista ikustea. Irudi eta soinuazko lamien doinuak harrapatuta denbora igaro egiten da, baina irabazi beha-

rrean galdu; bizipena, pozgarria, askea eta positiboa izan beharrean damuzkoa, frustagarria eta negatiboa bilakatzen da. Aisia absentea, bete-betea.

*DU 21 E: Jo, ni banau bi ordu telebisinue ikusten, es que gero txarto sentitzen naiz, osea, iruditzen jate denbora bota in jotela, osea, niretzako da ba ez dakittenean zer ein, (...) denbora hori niretzako da denbora «mal invertido», ez dakit, ez bada hori ba gauza bat zehatza, pelikula on bat edo...*

*BI 39 G b: Ni errez engantxatzen naz, ze igual emazteak jarri dau telebista, ta ni pasatzen naz handik da... berdin jat, baina bapatean entzuten dot zerbait, da geratzen naz han zutik ikusten edo... pasatzen dira bost, bi minutu eta, zer egiten dot? Han zutik, eta joango naz ez dakit zer egitera, dadadada... ta jarraitzen dot.*

*DU 24 G a: Da denbora pasetie, azkenien...*

*DU 21 E: Txarto sentitzen zara! (barre)*

*DU 24 G d: Qué mierda tío, ez dau ezebez...*

*DU 21 E: Ez dot aprobetxau...*

Hala, telebistaren promesa ez da beti betetzen, eta are, haren sirena kantua sarri aspergarri, baita lotsagarri edo mingarri ere, bilakatzen da:

*SA 52 G b: Denbora pasatzeko, bai. Eta batzutan aspergarria. A ver, lotsagarria dela, horrenbeste kanala egon, eta jakin zer ikustea, ez dute ematen, jo, es que, manipula, ez dakit nola esan. Telebistaren bidez nahi badute zerbait lortu, gai dira lortzeko, uste dut.*

*AL 32 E Bai, baina nahiko aspergarria da nik ikusten dut telebista ahizparen etxera joaten garenean, eta jarri sofán, edozer gauza dago, eta gainera zapping.*

Telebistarekiko aisia absentea karakterizatzerako orduan beraz, hustasuna eta asperdurarekin dituen lotura azpimarratu beharko genituzke. Aisiarik gabeko astiaren aurkako irtenbide erakargarri bezala aurkezten du bere burua, eta hala hartzen da sarri, baina aldi berean bere promesak behin eta berriro zapuzten ditu, lilura geldo bat eskainiz, denbora eta astia iruntzi egiten dituen hutsune baten gisa. Aisiarako alternatibarik ez dagoenerako alternatiba bezala aurkeztu eta ulertzen da sarri, baina ez du aisiarako egiazko alternatibarik eskaintzen. Promesa seduktore baina beti frustratuan gelditzen da.

### 6.1.1.3. Aisia autotelikoa

Telebistarekin lotutako aisiazko esperientziak karakterizatzerako orduan «aisiaren ipar» bezala definitu ohi den aisia autotelikoa, esan bezala, hirugarren posizioan kokatzen da parte-hartzaileen idatzizko kontakizunaren arabera.

Aurreko orrialdeetan ikusi ahal izan dugun bezala, parte-hartzaileen erantzunak modu agregatuan hartuta eta garrantziaren arabera ponderatuta, aisia autotelikoak hirugarren postua hartzen du telebistarekin lotutako aisiazko koordinatu bezala, garrantziaren %22arekin (131 puntu orotara), aisia absentearen azpitik, hogeit puntuko aldearekin.



Banakako parte-hartzaileek esaldi bakoitzari eskainitako pisuari erreparatuz, aisia autotelikoarekin lotutako hiru esaldiak garrantziaren arabera ordenean jarrita, honela gelditzen da podium orokorra:

1. «Atsegina da telebista ikustea»: 56 puntu.
2. «Gustatu egiten zait telebista»: 44 puntu.
3. «Nahi dudana aurkitzen dut telebistan»: 31 puntu.

Interesgarria da baita esaldi bakoitzak lehen postua zenbat aldiz (eta hortaz 4 puntuko balioa taulan) erdiesten duen ikustea. Aisia autotelikoarekin lotuta proposatzen diren esaldietatik «Gustatu egiten zait telebista» 7 aldiz aipatzen da lehenengo postuan (guztira 17 erantzunetik), «Atsegina da telebista ikustea» 6 aldiz (guztira 20 erantzunetik) eta «Nahi dudana aurkitzen dut telebistan» 4 aldiz (guztira 11 erantzunetik). Oro har, hortaz, aisia autotelikoarekin lotutako baieztapenak 17 pertsonarentzako izan dira telebistaren bizipenaren erreferentzia nagusia (73 parte hartzailetik). Nolakoa da baina, telebistarekin lotutako aisia autotelikoa? Betetzen al ditu era gogobetegarri, libre eta berezkoan, inolako xederik gabe burutzearen printzipioak? Askatasunaren hautematea, berezkitasuna eta sentipen atsegingarria bizitzea zein puntutaraino, eta zein modutan agertzen dira telebistarekiko harremanean?

Telebista ikustea beste helbururik ez duen, bere horretara bideratzen den jarduera bezala azaltzen da parte-hartzaileen kontakizunean. Ez beti, jarduera beste zerbaite-tarako aitzakia edo aukera bezala sumatzen eta aldarrikatzen baita sarri, eta harekin batera osagarriak diren aldibereko jarduerak ere burutzen direla behin eta berriro agertzen baita; baina batzuetan telebista ikusteko pizten da telebista:

*DU 24 G a: Ni normalien telebista ipintzen dot telebista ikusteko, ez bada nauela Izur-tzan lagunekin berbetan eta... edo afaitten gauzela han da ba dekogu ipinitte futbola edo zeuzer eta gauzela berbetan eta hori, normalian telebista ikusten banau, nau.*

Telebista telebista ikusteko pizte honek oso lotura handia agertzen du edukia-rekin, zerbait jakina ikusteko interesarekin. Zenbat eta interes handiagoa telebista saio batekiko, orduan eta bizipen autotelikoagoa. Telebista «ikusteagatik ikustea» edo «interesa duen zerbait ikustea» bereizten dira hala: «ikustie ikustiarren aburridoa da. Ikustea entretenitzen dotzun zeozer eta interesa dekon zeozer, ondo dago, baina hor-tik kanpora telebista, ez dakit».

Oso interesgarria da edukiarekiko benetako interesa dagoenean, zaletasunak telebista gailuaren eremua bera gainditzen duela, eta beste bide batzuk bilatzen direla ikusi nahi den saio horretara sarbidea izateko, arratsaldeko telenobelarekin adibidez:

*SA 57 E: Gaur ez dut ikusi, gaur ez dut ikusi baina gero gaez ordenagailuaren bitartez ikusiko dut (...) niretzako oso garrantzitsua da. (...) Edo afaltzeko orduan. Ordenagai-lu aurrean egingo dut eta holan gertatu dena sartzen dut buruan eta...*

Telebista-zaletasuna landu, zaindu beharreko zerbaite da hortaz, programa eta formatu jakinekiko sortzen den hurbiltasuna eta engaiamendua, sarri ikusteko ohi-tura eta konpromisoa ere sortzen dituena. Horrela, saio batzuekiko zaletasuna eta lotura afektiboa denboran zehar osatzen da, egunerokotasunean txertatuta, eta urteetan zehar ematen diren garapenei erreparatuz:

*LEZ 67 E Arrastien hori Klaudio Landaren programea. Hori, Ni Más ni Menos. Hori gustaten dazte. Hori ipinten dot. Gero gustaten jazte hori, espainolan, baten, Amar en Tiempos Revueltos. Badakizu zein dan ezta? Hori bai gustaten dazte, ze da hori, hasi zan e, ez dakit zenbat urte izengo direz, igual sei edo zazpi urte direz, eske gustetan jazte ze hasi zan ba hori, gerra denpore hasi baino arinau eta gero... dau eboluzionaten segun ze urten gauzen hori, mm... igual ez dot esplikaten ondo... (barre)*

Bestetik, aukera askatasunari dagokionez kontakizun kontrajarriak jasotzen dira. LTDaren kate-aukera zabaltzea ez da, berez, norbere askatasunaren aldeko erreality-tatetzat hartzen, edukiak oso antzerakoak, jabe gutxi batzuen menpekoak eta sarri ikusitakoak («emandakoak») direlako:

*BE 37 E: Kanal pilu dau, baina ez dau ezer!*

*BE 37 G: Ez dau ezebe.*

Gainera, telebistaren izaerari berari egozten zaio aukeratu behar ez izatearen esperientzia. Jasotzea, bila joan beharrean:

*AL 40 G Baina hori [interneti buruz] abantaila edo desabantaila izan leike eh? Bestean [telebistan] ez duzu aukeratu behar ezer, ez dozu pentsatu behar.*

Askatasunaren hautematea batez ere gustoko edukiak aurkitzeko gaitasunarekin lotu bada ere, saioetan gehiago parte-hartzeko aukera ere aipatzen da, dela etorkizuneko telebista interaktiboagoaren bidez, edo egungo komunikazio teknologiek (telefonoak, sakelekoak, interneteko tresna ezberdinak) erabiliz zuzenean eta zeharka telebistaren jarioan parte hartu ahal izateko:

*BE 40 E b: Parte hartzeko aukera gehixau...*

*BE 41 E: Bai, neuk bebai pentzetan dot...*

*BE 40 E b: Programak dauzenik emoten alzule zuk parte hartu etxetik...*

*BE 41 E: Bai.*

Telebista zaletasuna, eta haren bizipen autotelikoa edukien gaineko interesean oinarritzen dela aurkitu dugu landa lanean. Erreferentziazko saioak aurkitu dituzten pertsonak iritzi positiboagoa agertu dute telebista ikustearen esperientziari buruz, eta alderantziz, telebista modu positiboenean erretratatu duten pertsonak hitz egin digute gehien bertako gustoko saioei buruz:

*LE 53 E: Niri pelikulak asko gustaten jataz. Serieak gitxiago gustaten jataz pelikulak baino, eta pelikula ganera gustaten zataz amerikauak, frantsesak edo ingelesak, edo horrek baino, dirazelako ba lentuaguak, eta niri gehixau gustaten jat mobimento ge-*

*hikua. (...) Baina neuri pelikulak asko gustaten jataz. Gero horrek Aguila Roja eta horrek be, ez segidu, baina soltekuak bai. Ba niri, telebisiñua, egia esan, gusta itten jat eta ikusten dot.*

Batzuetan gainera gustoko edukiak eta gustoko tartreak uztartzen dira, benetan esperientzia positibo eta gogoan gordetzeko modukoak bizitzeko. Kasu horietan ematen da, benetan, telebistarekiko aisia autotelikoa, eta «engantxatuta» egotea gauza positibo, baliotsu bezala hartzen da, «adikzio» goxo eta gustoko bat bezala:

*BI 50 E: Ba esate baterako neguan domeketan, bazkalostean gustoko peli bat, niretzako hori da... gozamina. Eta gauetan gustatzen zait serieren batekin engantxatuta egote. Ez dot beti lortzen, baina... ez dakit, ba por ejemplo ba House (barre). House badago House ikusten dot, eta orduan desietan egoten naz aber noiz egun hori helduko, eta gauzak egiten ditut arin joateko hori ikusten eta... bai, hori asko gustatzen zait niri.*

Zentzu horretan, telebistarekiko aisia autotelikoa ezin da, printzipioz, telebistako edukietatik bereiztu, baina ezta beste aldagai objektibo eta subjektiboetatik ere. Telebistarekiko aisia autotelikoa egon, badago, baina une berezietan ematen da, hainbat aldagai gurutzatzen direnean, eta gehiago lotuta dago tarte eta saio partikularrekin, telebistaren bizipen edo ulermen orokorrarekin baino. Gutxi dira telebistaren esperientzia, bere osoan, aisia autotelikoarekin lotzen dutenak, baina gutxi dira baita, telebistarekin harremanean aisia autotelikozko bizipenik izan edo kontaktzen ez dutenak ere. Behin eta berriz ematen diren salbuespenak dira, halako uneak. Bakanak, baina egiazkoak.

#### **6.1.1.4. Aisia kaltegarria**

Parte-hartzaileak landa lanean zehar telebistarekiko oso kritiko agertu izan diren arren hainbat puntutan (programen kalitate eskasa, saio askotako edukazio falta, informazioa eskaintzerako orduan gardentasun gabezia eta manipulaziorako joera...), aisia kaltegarria da idatzizko kontakizunean puntuazio txikiena jasotzen duen koodenatua. 103 puntu jaso dituzte koodenatu honekin lotutako baieztapenek guztira, %17a orotara. Nolabait telebistaren instituzio edo erakundearekiko kritikotasuna ez da horrenbeste islatzen norberaren telebistaren esperientzian, eta are, telebistaren ez-augarri kaltegarrienei buruz galdetuta, sarri defendatu ere egiten da. Bloke edo pieza bakarrekoa izatetik urrun, konplexua da, beraz, telebistaren aisia kaltegarriaren koodenatua. Esaldi-hirukoteari erreparatuta, honako puntuazioa agertu dute:

1. «Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit» esaldia gailentzen da 47 punturekin beste bien gainetik.
2. «Telebista adiktiboa da» bigarren ageri zaigu, 36 punturekin.
3. «Telebista gehiegi ikusten dut», 20 punturekin, aukeran emandako guztietatik puntuazio baxuena jasotzen duen esaldia.

Lehenengo postuei erreparatuta «Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit» esaldia 6 aldiz aipatzen da (guztira 16 erantzunetatik), gero «Telebista adiktiboa» da 3 aldiz (14 erantzunetatik), eta azkenik «Telebista gehiegi ikusten dut» 2 aldiz (10 erantzunetatik). Guztira, hortaz, 11 pertsonak aukeratu dute lehenengo postuan aisia kaltegarriarekin lotutako esaldiren bat, telebistaren esperientzia laburbiltzeko.

Ahozko kontakizunetara jo behar dugu hala ere, aurreko koordenatuekin egin bezala, autosuntsiketa edo autokaltetze zantzuak agertzen dituen koordenatu honek telebistarekin harremanean agertzen dituen ezaugarriak ezagutzeko.

Telebistaren boterea da, zentzu horretan, beldurgarri edo kezka errepikatueneratariko bat. Telebistak ikus-entzuleengan duen eragina, kontrola eta manipulatzeko gaitasuna aipatzen dira mesfidantzarako arrazoi bezala:

*DU 24 G d: Niretzat ez. Hori da arma bat eta niretzat arma bat inbentau dauenak manipula, o sea, manejatzen dau, eta justo zapaldu dautzenak ezingo dotzo buelta emon horri, simplemente... o sea, ez dot uste, ez dot uste al danik...*

*DU 24 G a: Es que ez dakizu zer dan egixe ta zer dan guzurre. Azkenian gauzarik sinplenan be sartzentzue guzurre...*

*MU 56 G: Ez, komunikazioak inddar asko dekea, manipuletea informazioa, bai prensan, edo bai telebisinoan, edo bai radioan, hori manipulazioa eh... indder lar eukitzea eurek hori riesgo handi bet da. Akabuan jendea manipulatzen da.*

Komunikabideen, eta telebistaren indar honen aurrean, babesgabetasun sententzia agertzen da, norbere askatasuna eta kriterioa eragile ahaltsuagoen aurrean zailtzan jartzen dituen. Telebistak, hortaz, eragin negatiboa izan dezakeela uste dute parte-hartzaile ugari informazioaren eta iritziaren aldetik. Horren aurrean nork bere informazioa bilatu eta alderatzea proposatzen da (dela norberaren esperientziarekin alderatuz, dela beste informazio iturrietara joz), ez baita itxaropenik gabeko prozesu bezala ikusten. Edozelan ere, telebistaren izaera manipulatuzaile eta interesatuaren susmoa errotuta agertzen da.

Adikzioa edo «engantxatuta egotea» aipatzen dira, baita, kezka iturri bezala; berriro ere kontrola edo norbere askatasuna galtzeko arrisku bezala. Hala ere bi «engantxatze»-ren artean bereizten da; aisia autotelikoan aipatu dugun zaletasun porrokatu eta pozgarria batetik, eta benetan bestelako jarduerak egiteko denbora kentzen duen eta norberari ihes egiten dion adikzioa bestetik. Oso adierazgarria da kasu batean parte-hartzaile batek, bere telebistarekiko adikzioaz ohartuta, telebista kentzea erabaki zuela kontatu digula:

*AL 34 G Ba guk erabaki genuen telebista kentzea, eh... telebistaren ionkiak ginelako, batez ere ni. (...) Ionkia nintzen Ba... ikusi behar genuen teleberri guztiak (...) Orduan, banekien ordu bi terdietan hasten zela Tele 5n, hirurak bi gutxitan etb2n, hiruretan Antena 3en eta ez dakit non... Orduan denak ikusi behar nituen, orduan lehenengoa*

*ordu bi t' erdietan zenez, heldu behar nintzen etxera ordu bi t' erdiak baino lehenago... Eta hori bakarrik, bazkaria prestatu behar nuenez, telebista mugitzen nuen ez galtzeko... eta ya amaieran bazkaltzen genuen korrika eta presaka telebistaren aurrean denak ikusi... gauza berbera errepikatzen zen egunero gauean... eta gero afaldu eta gero ba denok hor sofan botata elkarrekin hitzegin barik... goizeko ordubiak arte pelikula mierdoso bat ikusten eh... iragarkiz beteta, eta hurrengo egunean damututa Eta esan genuen, bueno, horrela ezin dugu jarraitu*

Beste kasu batean, norberaren ahultasuna, edo jokabide adiktiborako joera kontuan izanda sortzen dira seme-alaben telebistarekiko harremanaren inguruko errezeloak:

*BI 39 G: Ze... bueno, igual, ez dakit zergaitik edo, baina nik uste dot kasu honetan jokatzeko dodala erretzaile diren guraso batzuen moduan, umeen aurrean ez dabela erre nahi... Ba ez ikusteko... Pentsatzen dabe «bueno ,nik kontrolatzen dot ohitura edo bizio hau, adikzio hau, baina ez naz fidatzen nire umeek nik kontrolatzen dodan moduan kontrolatuko dabenik».*

Interesgarria da hala ere, aisia kaltegarriarekin lotutako kontakizunak ez direla ikusten den telebista kantitatearekin zuzenean lotzen, parte-hartzaile askok egunero telebista ordu asko ikusi arren ez baitute adikzio arazorik ikusten haien edo inguruko kasuan. Gehiago da norberaren kontzientziaren araberakoa, eta benetan lehentasunezkoak diren jardura eta ohiturei buruzko hausnarketa baten ostean sortzen den kexu bat. Kontua, bestela esanda, ez da horrenbeste egunean bi, lau edo sei ordu telebista ikusten diren, baizik eta nork duen zeren gaineko kontrola. Kontrola ikus-entzulearengandik telebistara pasatzen dela sumatzen denean, azaltzen dira ardurak.

Oro har, beraz, telebistaren esperientzia aisia kaltegarriaren parametroetatik begiratuta botere eta jabekundearen afera da, beste ezeren gainetik. Telebista erakunde sozial ahaltzua eta aparailu liluragarria dela kontuan hartuta, norberaren autonomiak esku-artetik ihes egitearen arriskua errealtzat hartzen da; are gehiago, telebistaren errealtatearen aurpegi ekidiezintzat. Bi mailatan ikusten da gainera telebistaren eragin negatiboa. Gizarte mailan kaltegarriak diren edukiak (telezaramarekin eta informazio ez-oso edo partzialarekin lotutakoak batez ere) plazaratzen direla deritzote, eta horrek telebistaren esperientziaren kontakizun orokorrean eragina du. Kontzientzia agertzen dira egungo telebista eredu eredu ideial batetik urrun dagoenaz:

*SA 56 E: Ya, baina horiek kaltegarriak dira, o sea, kritikak, programa horiek Telecincon ematen dituzten programak, nik uste dut, hori, soziedade...bueno, gure bizitzarako kaltegarriak direla. Yo... vamos.*

*DU 24 G a: Hombre, nik uste dut kriston kalte eitten dabilela, o sea, dagoz jendia ba...*

*DU 21 G: Ez, ze gainera suposatzen da gizarte berrian nahiago dugule parte-hartzaile izatie ta telebista emoten dala unidireccional ez?. o sea, zuk jaso bakarrik egin al dozu, eta ezin dozu elejidu, esan nahi dot, elejidu al dozu bai entre, ez dakit, sagar berdiek edo gorrixek, baina ezin dozu madarixek aukeratu.*

Baina bestetik, norbanakoaren mailan, elkarrizketatutako pertsona gehienek norberaren erantzunkizunaren garrantzia azpimarratzen dute, bai edukiak aukeratzeko orduan, bai informazioa alderatu eta honi dagokion sinesgarritasuna ematerako orduan, eta baita ikusten den telebista kantitateari dagokionean ere. Aukerak, zentzu horretan, egon badaudela uste dute, arriskuak ere egon badauden bezala. Telebistaren aurrean protagonismoa hartu eta norbera berjabetzea, hein horretan, ikus-entzulearena ere badela deritzote:

*LE 53 E: Guk geuk bazkaltzeko Teleberri edo Telediarixua beste kanal batekoa, askotan eitten doguna da kontrasta, igual ikusi euskerazkoa, ze bardina izaten da, eta orduan ikusten dot euskarazkoa igual eguardixan, edo alrebes, eta gero igual ba Antena 3 edo Telecinco edo beste, La Cuatro edo ipintzen dogu igual gabaz.*

Laburbiltzeko, beraz, aisia kaltegarriarekin lotutakoa telebistaren esperientzia-eremu konplexu eta kontraesanez betetakoa da. Idatzizko kontakizunean kuantitatiboki azken lekua hartu badu ere, ahozko kontakizunak tolesduraz betetako botere-harremanen inguruko diskurtso aberatsak ekarri dizkigu, non telebistaren gizarte funtzioa eta ikus-entzulearen ardura behin eta berriro azaltzen diren, egungo telebistaren kalitate zalantza-koarekiko kexuekin batera. Edozelan ere, aisia kaltegarriaren koordenatua telebistarengandik bereiziezina da.

Behin telebistaren aisiazko koordenatuen arabera karakterizazio orokorra burututa, ondorengo orrialdeetan adin-talde ezberdinen arteko alderaketa burutuko dugu talde bakoitzaren ezaugarri berezkoetan sakontzeko.

### **6.1.2. ADIN-TALDEAK ETA TELEBISTAREKIKO AISIAZKO ESPERIENTZIEN EZAUGARRI OROKORRAK**

Aurreko orrialdeetan aisiaren koordenatuak parte-hartzaileen telebistarekin lotutako aisiazko esperientzietan nola islatzen diren aztertu dugu, telebistaren esperientzia aisia humanistaren kategoria teoriko hauen arabera sailkatuz, eta esparru bakoitzak agertzen dituen ezaugarriak deskribatuz, idatzizko eta ahozko kontakizunetan jasotako informazioaren arabera. Ondoren adin-talde bakoitzaren berezko karakterizazioa proposatu dugu, horretarako idatziz zein ahoz emandako telebistaren esperientzien kontaketa hartuz ardatz, eta adin-talde bakoitzaren adierazgarrenak diren ezaugarriak aurkeztuz.

Behin hau eginda, ondorengo orrialdeko 24. taulan adin-taldearen ezaugarri orokorrak jasoko ditugu, telebista eta aisiazko esperientzien karakterizazio orokorrarekin amaitzeko. Taula honek ez ditu inola ere parte-hartzaileen telebistarekiko esperientzia guztien aberastasun, aniztasun eta partikularitasun guztiak islatzen, ez eta jasotako kontakizunen konplexutasuna agertzeko bide guztiak agortzen ere. Aldiz, adin-taldearen baitan adierazi diren iritzi, eztabaida eta baieztapenen inguruan lotutako adostasun nagusiak biltzen ditu, aztertutako lau aisiaren koordenatuen inguruan.

## 24. TAULA: TELEBISTA ETA AISIAZKO ESPERIENTZIAK –ADIN TALDEEN EZAUGARRI OROKORRAK AISIAREN KOORDENATUEN ARABERA

	GAZTEAK	HELDUAK 1	HELDUAK 2	NAGUSIAK
AUTOTELIKOIA (A)	Interesgarri aitorzen diren eduki jakinak. Erreferentziazoak diren gaurko eta atzoko saioak. Lagunekin elkarrizketak eta iruzkinak.	Betebeharrak amaitutakoan norberarentzako tarte atsegina. Eguneroko aisialdiaren sinonimoa.	Informazioarekin lotutako gustora ikusteko tarteak. Zaletasun bereziz jarraitzen diren fikziozko eta entretenimenduzko saioak.	Entretanimendu nahiz informaziozko saioekiko zaletasuna. Telebistaren asmakizun garrantzitsuen aitorpena eta miresmena.
EXOTELIKOIA (E)	Egunerokotasunaren atzealdeko zarata. Sozializatorako tarte eta espazioen girotea.	Laguntasuna. Etxe-girotea.  Familia batzea. Lasaitasuna eta erlaxatzea.  Ahalegin handirik gabeko Informazioa. Atsedean hartzeko tarte sorrarazlea.	Eguneroko atsedenaldia, deskonektatzea eta erlaxazioa. Lo kuluxka egiteko gailua. Familia batzea.	Laguntasuna eta konpainia. Egunerokotasunaren egituratzaile eta atzealdeko zarata. Munduaren eta garaiaren berri izateko iturri funtsezkoa. Familia eta kideak batzea.
ABSENTEA (A)	Asperraren aurrean ohiko lehen aukera. Aspertu arren, ikusten jarraitu. Gehiegi ikustearen kontzientzia. Alternatiba falta.	Ikusteko ezer egon ez arren ikusten jarraitzea. Beste aukerarik ez dagoenerako aisiazko jarduera (negua, eguraldi txarra...).	Iragarkiek eragin dezaketean asperra eta nekea. Berandurarte telebista ikusten gelditzearen damua.	Denbora pasatu behararen kontzientzia. Lagunak edo lanak utzitako hutsunea betetzeko gailua.
KALTEGARRIA(E)	Informazioaren inguruko manipulazioa. Norberaren eta gizartearen prestakuntza falta telebista kriterioz ikusteko.	Telebistaren erabilera okerrak (norberarenak eta erakundeenak). Eduki ezegokiak. Umeen babesgabetasuna.	Kate eta saio batzuei darian pozoia eta morboarekiko fizioa eta gordinkeria.	Saio batzuetan agertzen den manera eta portaera eskasa eta ez-eredugarria. Eztabaida eta tertulietan sarri agertzen den errespetu falta. Manipulazioa eta gezurrak.

Iturria. norberak egina.

Sintesi eta karakterizazio modura aurkezten da taula, ez pertsona guztien iritzia islatzen duelako, baizik eta Gazteak, Helduak 1, Helduak 2 eta Nagusiak adin-taldean baitan aurkitu ditugun elkargune esanguratsuenak biltzen dituelako. Horretarako klabeak izan dira, bai begirada deduktibotik planteatutako azterketa kategoriak (Aisiaren koordenatuak, kode fokalizatuak), eta baita landa lanean zehar begirada induktibotik jasotako termino natiboak ere (In vivo kodeak). Kode fokalizatu, egitura-tzaile eta in vivo kodeen funtsetze eta dentsitatea gakoa izan dira, benetan zentralak diren elementuak identifikatzerako orduan<sup>509</sup>, eta *Query Tool* edo Kontsulta Tresna erabili da adin-talde bakoitzari dagozkion pasarteak berreskuratzeko.

<sup>509</sup> Ikus 4. kapituluaren «Kodeak» atala.

Taulak hurrengo orrialdeetan landuko den kodeketa teorikorako begirada abduktiboaren oinarria izan nahi du<sup>510</sup> behatutako kasuen azalpen edo hipotesi esplikatiboa eraikitzea ahalbidetzeko, eta ez ikerlariaren irizpideen arabera sortu diren adinaren arabeko pertsona taldeak karikaturizatzeko. Edozelan ere, adin-taldeen arteko eta baitako ezberdintasun eta antzekotasunen berri emateko erreferentzia erabilgarria da.

## 6.2. ADIN-TALDEEN TELEBISTAREKIKO HARREMANAREN KARAKTERIZAZIOA

Aurreko orrialdeetan aisia humanistaren lau koordenatuak erabili ditugu telebistaren esperientziaren karakterizazioan aurrera egiteko. Ondorengo orrialdeetan aztertutako lau adin-taldeak hartuko ditugu oinarri telebista aisiaren perspektibatik zer den eta telebistarekin harremanean ematen den aisia nolakoa den esploratzeko. Horretarako berriro ere telebistarekin lotutako aisiaren agerpen kuantitatibo eta kualitatiboak uztartuko ditugu, adin-taldeen berezko karakterizazioari begira.

Hasteko, esan beharrekoa da parte-hartzaileen fitxetan jasotako informazioari erreparatuz eta aisiaren koordenatu ezberdinei emandako garrantziaren araberako irakurketa bat eginda adin-taldeen arteko ezberdintasun nabarmen eta esanguratsuak ageri direla:

- Aisia autotelikoarekin lotutako esaldiek garrantzia gehien Helduak 1 adin-taldean jasotzen dute: 54 puntu orotara (guztira jasotako 131tik).
- Aisia exotelikoarekin lotutakoek Helduak 2 adin-taldean errotuta ageri dira, alde handiarekin gainera: 110 puntu (guztira jasotako 230etik).
- Aisia absente eta aisia kaltegarriarekin lotutako esaldiek garrantzia handiena Gazteak adin-taldean agertzen dute, baita alde handiarekin ere: 70 eta 52 punturekin hurrenez hurren (guztira jasotako 141 eta 103tik).
- Nagusien adin-taldeak aldiz esaldien garrantzia modu homogoneoan banatzen du lau koordenatuen artean: 20 puntu emanez autotelismoari, 16 exotelismoari, 16 aisia absenteari eta 8 aisia kaltegarriari hurrenez hurren<sup>511</sup>.

Aisiaren koordenatuei horrela erreparatuta, lehen begiratu batean adin-taldeak aisiaren koordenatuekin duten harreman nagusiaren arabera karakteriza genitzake. Helduen bi taldeek aisiaren norabide positiboa hartzen dute nabarmen (aisia exotelikoa eta autotelikoa), Gazteek aisiaren norabide negatiboa azpimarratzen dute argi

<sup>510</sup> Ikus 4. kapituluaren «Azterketa eta kodeketa estrategia globala» eta «Kodeketa teorikoa (ZERGATIK)».

<sup>511</sup> Gogoratu beharra dago Nagusien taldean zailtasun handiagoak aurkitu zirela idatzizko kontaktuzunean. Ikus 4. kapituluaren «Atal idatzia: hurbilketa egituratua».




eta garbi (aisia absentea eta kaltegarria), eta Nagusiek berriz telebistaren izaera anibalente eta orekatuago bat agertzen dute.

Hala ere brotxa lodiko karakterizazio horrek, bere horretan, hala ere ez gaitu oso urrutira eramango. Helduak 1 adin-taldeak aisia autotelikoarekin agertzen duen loturak, edo Gazteak taldeak aisia absentearekin duenak, argiak badira ere, bere horretan ez karakterizazioa baino karikaturizazioa egiteko arriskua dakarte. Elkarrizketatutako talde eta pertsonen telebistarekiko aisiazko esperientziak lau kategoriatan teoriko hauek baino konplexuagoak eta aberatsagoak dira, eta adin-taldeen telebistarekiko esperientzian sakonduko badugu ezinbestekoa zaigu ñabardura kuantitatibo eta kualitatiboak mahai gaineratzea. Goazen bada batzuen eta besteen arteko aldeak xeheago aztertzeraz.

Hasteko, garrantzitsua da idatzizko kontakizunetik jasotako datuak elkar-harremanean jartzea, bai talde bakoitzaren baitan eta bai taldeen artean ere. 8. grafikoak adin-talde ezberdinek aisiaren lau koordinatuekin lotutako hamabi esaldiei egotzitako garrantzia jasotzen du zenbaki absolututan. Adierazgarria da, lau koordinatuek bata bestearekiko agertzen duten pisu erlatiboa argi agertzen delako, baita lau adin-taldeen arteko ezberdintasunak ere:

#### 8. GRAFIKOA: AISIAREN KOORDENATUAK ETA ADIN TALDEAK




Iturria: norberak egina.

Harroka baten estratuak bailiran, gazteenetik nagusienera telebistarekin lotutako aisiazko harremanen geruzazko argazkia osatzen du irudiak, telebistaren aisiazko izaeraren estratoak agerian utziz. Errepresentazio «geologiko» honek telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien «sedimentuen» berri ematen digu modu agregatuan, eta lau adin-taldeen arteko ezberdintasunak eta aisiazko koordinatuei dagokien barne-banaketa azaltzeko balio digu.

Idatzizko kontakizunean jasotakoaren arabera nabarmena da Gazteak, Helduak 1, Helduak 2 eta Nagusiak adin-taldeek banaketa arras ezberdinak burutzen dituztela aisiazko koordenatuen artean. Gazteen artean norabide positibodun baieztapenek apenas duten garrantziarik, aisia absentearekin eta aisia kaltegarriarekin lotutakoekin alderatuta. Helduak 2 taldearentzat aldiz, norabide aisia exoteliko eta autotelikoaren koordenatuek askoz garrantzia handiagoa hartzen dute norabide negatibodun koordenatuek baino. Nolabait, ispilotuta agertzen dira Gazteak eta Helduak 2 adin-taldeak (baita, neurri txikiagoan Helduak 1 taldea ere). Gazteentzat telebistarekin batez ere norabide negatibodun koordenatuak lotzen badira, alderantziz gertatzen da Helduen kasuan. Nagusiak taldea, jada aipatu bezala, lau taldeen artean orekatuena da, baina kontuan hartu behar da arazoak agertu zituztela idatzizko kontakizuna egiterako orduan.

Lan honen helburua ez bada ere, adinaren arabera eraikitako taldeak elkarren artean alderatzeaz gain, posible da alderaketa generoaren arabera egitea ere. Puntu honetara helduta merezi du gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko konparaketa aurkezteak, aurreko irudian bezala, telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien koordenatuen araberako sedimentuak islatzeko. 9. grafikoak lan honetan parte hartu duten adin guztietako gizon eta emakumeek aisiazko lau koordenatuekin lotutako esaldiei emandako garrantzia agregatua azaltzen du. Kontuan hartu behar da parte hartzaileen %47a gizonetzkoak direla, eta %53a emakumezkoak<sup>512</sup>, eta hortaz emakumeek pisu handiagoa daukate garrantziaren kalkuluan. Hala ere, ikus daitekeenez, talde bakoitzaren barne-banaketari dagokionez aldeak daude.

### 9. GRAFIKOA: TELEBISTA, AISIAREN KOORDENATUAK ETA GENEROA (GARRANTZIA ZENBAKI ABSOLUTUTAN)




Iturria. norberak egina.

<sup>512</sup> Ikus 4. kapituluan «Datu bilketa eta lagina».

Emakumezkoentzat aisiazko koordinatu garrantzitsuena exotelikoa da (garrantziaren %35a ematen zaio), bigarren mailan absentea (%25), hirugarren mailan autotelikoa (%22), eta laugarren mailan kaltegarria (%18). «(+)/(-)/(+)/(-)» txandakatzea berriro ere. Gizonezkoentzat berriz, lehen mailan exotelikoa dago baita (%40ko garrantzia askoz handiagoarekin), bigarren mailan parez-pare kokatzen dira aisia autotelikoa eta aisia absentea (%21eko garrantziarekin biak) eta azkeneko postuan aisia kaltegarria (%18arekin, emakumezkoek bezala). «(+)/(-)/+/-)» egitura bat, beraz.

Aisiaren koordinatuen araberako telebista-esperientzien egitura edo forma orokorra errepikatzen bada ere (koordinatuak oso modu antzeratsuan mailakatzen dira garrantzian, ikus 10. grafikoa), ezberdintasuna argia da: emakumezkoek telebista gehiago lotzen dute erlatiboki aisia absentearekin gizonezkoek baino. Gizonek aldiz telebistarekin lotutako aisiaren askoz kontzepzio exoteliko indartsuagoa agertzen dute, erlatiboki hartuta, emakumezkoek baino.

#### 10. GRAFIKOA: TELEBISTA, AISIAREN KOORDENATUAK ETA GENEROA: KARAKTERIZAZIO OROKORRA



Iturria. norberak egina.

Edozelan ere, aurreko orrialdeetan ikus daitekeenez, adinak askoz eragin handiagoa du aisiaren koordinatukin lotutako esaldien aukeraketan eta hauei esleitzen zaien garrantzian generoak baino. Modu agregatuan hartuta, askoz ezberdintasun handiagoak daude adin ezberdinetako pertsonen artean, emakumezko eta gizonezkoen artean baino. Aztertutako kasuen telebista eta aisiaren norabidearen kategorizazio orokorra «(+)/(-)/(+)/(-)» txandakatzearekin deskribatu badugu, adin-taldekako azterketak kategorizazio honekiko dibergentziak agertzen ditu, ondorengo taulan ikus daitekeen legez:

## 25. TAULA: ADIN-TALDEAK, TELEBISTA ETA AISIAREN NORABIDEAK (GARRANTZIAREN ARABERA ORDENATUTA)


Gazteak	Helduak 1	Helduak 2	Nagusiak
(-) A %42	(+) E %44	(+) E %52	(+) A %33
(-) E %31	(+) A %32	(+) A %20	(-/+)
(+) E %18	(-)A %14	(-)A %15	A / E %27
(+) A %9	(-)E %10	(-)E %13	(-)E %13

Iturria. norberak egina.

Gazteak dira argi eta garbi ereduia goitik behera iraultzen dutenak, norabide negatibodun koordenatuei garrantzia handiena emanez (--+). Helduen bi adin-taldeek eskema bera agertzen dute, norabide positiboa azpimarratuz (++-), eta Nagusiek oreka positiboaren alde egiten dute (+/-+).

11. grafikoan adin-talde bakoitzak koordenatu ezberdinen emandako garrantzia ikus daiteke, non argi eta garbi agertzen diren lau adin-taldearen arteko telebistarekin lotutako aisiaren koordenatuen arabeko ezberdintasunak:

## 11. GRAFIKOA: TELEBISTA, AISIAREN KOORDENATUAK ETA ADIN-TALDEAK: KARAKTERIZAZIO OROKORRA



Iturria. norberak egina.


Telebista aisiaren esperientziaren ikuspegitik aztertuta, eta aisiaren koordinatuen araberrako adin-taldearen arteko alderaketa bat eginda, erantzuna argia da: ezberdintasun nabarmenak daude, egon, aztertutako lau adin-taldearen artean, generoen arteko ezberdintasunak baino askoz handiagoak. Ondorengo orrialdeetan aisiaren koordinatu hauen atzean ezkututzen diren errealitate konplexuagoak aztertzen saiatuko gara, idatzizko erantzunak ahozko kontakizunekin osatuz, eta 4 adin-taldearen berezko karakterizazioa proposatuz gero.

### 6.2.1. GAZTEAK: HUTSARI AURRE EGIN BEHARRA

18 eta 34 urte arteko parte-hartzailez osatutako Gazteak adin-taldearen telebistarekin lotutako aisiazko esperientzia nagusiki negatiboa da, aisiaren koordinatuekin lotutako esaldiei idatzizko kontakizunean emandako garrantziari erreparatuz gero. Lauren artean kritikoa den adin-taldea da, nabarmen.


Grafikoan azaltzen zaigun legez, oro har hartuta aisia absenteak aukeratutako esaldien garrantziaren %42a hartzen du bere baitan, eta aisia kaltegarriak %31a. Biak gehituz gero, aisiaren norabide negatiboak %73ko garrantzia hartzen du gazteentzat. Aisia exotelikoak %18ko garrantziarekin eta autotelikoak %9arekin osatzen duten norabide positiboak hartzen duen %27tik urrun. Irudiaren ezker aldean Gazteak taldearen aisiaren norabideari dagozkion zeinuak garrantzian nola kokatzen diren errepresentatu dugu. Aisiaren koordinatuak eta telebistaren esperientzia atalaren amaiera aldera aipatu dugun norabideen txandakatzea, talde honetan bi bloketan ematen da: norabide negatibodun koordinatuak lehenengo, eta nabarmen, eta norabide positibodunak azken, distantzia handira.

**12. GRAFIKOA: GAZTEAK TALDEAREN TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIAZKO KOORDINATUEN GARRANTZIA ERLATIBOA (EHUNEKOTAN, IDATZIZKO KONTAKIZUNA) ETA AISIAREN NORABIDEA**



Aisia absentearekin lotutako esaldiei garrantzia handiena eman dien adin-taldea da gazteena, alde handiz gainera. %42ko garrantzia hartzen duten 29 esaldi aukeratu jaso dira, gehienak asperdurari aurre egiteko aukera bezala hartuz telebista (35 punturekin), baina baita telebista ikustea bera denbora galtzarekin (20 puntu) eta aspertzarekin (15 puntu) lotuz; hirurak beste adin taldeek baino askoz maila handiagoan. Oro har telebista egunerokoaren errealitatetzat hartzen da, bete beharreko tarteetarako ohitura bezala, beste ezer baino gehiago. Aisia kaltegarriaren kasuan ere Gazteen adin-taldea nabarmentzen da beste hiruren gainetik. Honen baitan 27 erantzun jaso dira, garrantziaren %31a hartuz<sup>513</sup>. Idatzizko kontakizunean aisia kaltegarriari garrantzia handia eman arren, orokorrean telebistaren kalteak gehiago proiektatzen dira gizartera, norberarengana baino, gazteen ahozko diskurtsoan. Norberari dagozkion esperientzia negatiboak erreferentzia egiterakoan hala ere egon badago, autokritika, batez ere eduki zaindu edo landuagoak ikusteko alferkeriarekin eta telebista ikusten, noiz ikusten eta ez ikusten ez jakitearekin lotuta.

### 13. GRAFIKOA: GAZTEAK TALDEAREN GAI NAGUSIAK TELEBISTAREKIKO HARREMANEAN: AHOZKO KONTAKIZUNA



Iturria. norberak egina.

Aisiaren alde exotelikoak ere badu bere garrantzia (munduaren berri izateko batez ere), baina ez da ikasteko baliabide bezala adierazten. Ekarpen mailan, telebista ez da oso modu utilitarioan hartzen, are gutxiago estrategikoan. Besterik gabe, ohituraz eta gertutasunez eskura dagoen baliabide eta laguntasun bezala hartzen da orohar,

<sup>513</sup> Aldiz, 7 erantzun jaso dira Helduak 1 taldean, 11 erantzun Helduak 2 taldearen baitan, eta 2 erantzun bakarrik Nagusien artean.

bere muga eta arriskuekin, eta bere aprobetxatu gabeko aukerekin. Aisia autoteli-koari emandako garrantzia, azkenik, ia-erabat anekdotikoa da, beste adin-taldeekin alderatuta.

Ahozko kontakizunean zehar izandako parte-hartze kopuruari erreparatuta, aipagarria da Gazteen kontakizunean «1.2 Telebistaren ondoko teknologiak» kode fokalizatuak hartzen duen pisua: 129 pasarte kodetu dira, gazteekin egindako Ezta-baida Talde eta Sakoneko Elkarrizketetan guztira, gai honi lotuta. Hurrengo gairik aipatuena «3.1 Zer da telebista?» kodeak biltzen du, telebistaren izaerari buruzko ez-tabaidari lotuta.

Asko jorratzen diren beste gai batzuk «1.2. Telebista ikustearen denborak», «1.4 Telebistaren tokiak», «1.8 Telebistaren edukiak», «1.10 Berba», «3.2 Onuragarri/Kal-tegarri» eta «4.3 Belaunaldien arteko ezberdintasunak» kodeetan bildutakoak dira. Hala, gazteen telebistarekiko kritikotasuna batez ere beste alternatiba batzuekiko familiaritatean, telebistaren egungo edukien kalitate eskasaren inguruan, haien telebista ikusteko ohiturekiko autokritikan eta belaunaldi gazte bezala ikusten dituzten aukera eta mugen inguruan egituratzen da batez ere. Ekar ditzagun azalera zenbaki hauen atzean dauden adierazpenak.

Idatzizko kontakizunean ikusi bezala, gazteentzat aisia autotelikoa salbuespena da telebistarekiko harremanean eta oso eduki zehatzekin lotzen da. Adibidez, «Gustatu egiten zait telebista» esaldia garrantzian bigarren postuan kokatu duen gazteak kate tematiko historikoetako dokumentalekin eta La 2-eko filme zehatzekin lotzen du, interes eta zaletasun bereziz jarraitzen dituen eduki bezala ikusten dituelako:

*DU 24 G: Baina nik dinot por ejemplo ba hori, niri por ejemplo historiako kanala egue-nien, bueno, egon al nintzen orduak beitzen, baina niri pilo bat gustaten jatelako edo ohitura asko deket eh, etxien banau astelehen eta martitzen gabetan La 2eko pelikulak bai astelehen eta martitzenetan gustetan jatez, bueno, ba...*

Telebista gutxien ikusten dutela diotenen artean ageri da telebistari buruzko iritzirik positiboena, eta aldiz gehien ikusten dutenak askosaz kritikoago agertzen direla. Egunerokoan telebistarekin apenas kontakturik ez duen gazte honen kasuan esplizituki aitortzen da bestelako aisiazko jarduerak (kirola egitea, lagunekin egotea) askoz nahiago dituela telebista ikusten gelditzea baino. Baina hala ere, «Atsegina da telebista ikustea» eta «Nahi dudana aurkitzen dut telebistan» aukeratzen dira, lehe-nengo eta hirugarren postuan.

*BI 29 E: ... ez dot pentsetan eh zazarra baino ez dauenik telebisinoan, ezta pentsa berez. Baina ez, enau erakarten.*

Hasiera batean kontraesana dirudien arren, oso perfil argigarria aurkezten du berez: egunerokoan telebistarekin harreman txikia izan arren, harreman hau era-bat dago bere kontrolpean, eta zer eta zertarako ikusi erabakitzeke gaitasun handia agertzen du. Telebista arbuizatetik urrun, haren aisiarako potentziala aitortzen zaio.

Aisia kaltegarriari dagokion atalean ikusi dugun bezala, kontrol sentzazioa eta askatasunaren pertzepzioa gako dira gazteen telebistarekiko aisiazko bizipena determinatzerako orduan.

Telebistarekin lotutako aisiari dagokionez laguntasunak, konpainiak, garrantzia handia hartzen du adin-talde honetan. Telebista sarri ikusten dute elkarrekin, batez ere lonjan, eta elkarrekin ikusten ez den telebista ere elkarrekin komentatu eta eztabaidatu ohi da, bai aldian-aldiko reality eta telesailen berriak, eta baita Simpson-darrak bezalako serie historiko eta mila aldiz ikusitakoetako txiste eta pasadizoak ere. Eduki jakin batzuk gainera lonjan ikusten dira batez ere. Bestela esanda, lonja da programa horiek ikusteko lekua eta giro aproposa. Inoiz, programa hauek etxean ikustekotan, bestelako harreman moduak bilatzen dira, elkarrizketa eta harremana ez eteteko:

*MU 21 E: Baina ez da telebisiñue ikusten. Da lonjan egotea eta telebisinoa horren parte da, ez gara lotzen telebisinoagatik, apur bet danagatik(...).*

*MU 21 E: Gu ganera, aunke ez egon lonjan batera, komentarioak beti dauz, whatsapp-ean. Dekogu grupo bat eginde eta komentarioak whatsapp-etik a punta pala*

*MU 21 E b: Gauz berdine ikusten etxean igual gauetan eta comentando todo.*

Hala ere, telebista aldi berean elkarrizketa eta kontaktu sozialerako akuilu eta laungarri edo oztopo eta zanga bihur daiteke, gazteen ustetan. Elkarrekin egon arren denak telebistari begira isilik egoteak arduratzen ditu:

*MU 21 E: (...) jo lehen hasikeran telebisiñu barik egoten ginenean berba, edo ez dakit, apur bet gehiau jakiten gendun gutaz, oin ya, ailegeu ya lonjara eta betiko programea, betiko Aida, edo La que se avvicina, eta hor gaoz, venga, hola eta zoazenera arte «hola eta agur». Eta ya, joe, ya da como, horretako etxean lotuten naz!*

Elkarrizketatutako gazte gehientzat telebista egunerokotasunean sendo txertatutako errealitatea da, bere lekuak eta denborak dituena, eta sarri keinu mekaniko batekin pizten dena, etxera heltzean, lonjara heltzean, bazkalorduan... Etxetik jasotako ohiturek, zein lagunartean garatutakoek, inertzia handia ematen diotela sumatzen dute:

*DU 21 G: Ohitu garelako igual telebista ikusten degu txikitatik, beste jenerazino batzuk igual ez dabilenak hori bizi ba...*

*DU 21 E: Ba igual ez da hainbeste konpainia egiten dauela, sino ya ez dakigule hori barik egoten.*

*DU 24 G d: Bai hori. Ez dau eitten niretzat, baina guk holan perzibitzen dogu oin.*

Harreman hau ikasia, jasoa dela badakiten arren, inertzia horri aurre egitea gizarteko kontsumismoari aurre egitea bezain zaila zaie:

*DU 24 G d: Hori, baina da hori, «el consumir te hace sentir bien», no te hace sentir bien horrek zure betebeharrak bati ingotzulako aurre, no, sino el simple hecho de consumir.*




Elkarrizketatu ditugun gazteak, orokorrean, ez dira batere baikorrak telebistarekiko. Momentu onak eskaintzen dituela uste dute, eta interesekoak diren edukietara sarbidea ematen duela uste dute, baina konfidantza gutxi agertzen dute, alde batetatik telebista igorle eta ekoizleekiko, eta bestetik ikus-entzuleriaren gaitasunekiko, haiek barne hartuta. Halere ez dute, oro har, telebistarik munduko bizi-mundurik irudikatzen.

### 6.2.2. HELDUAK 1: EGUN AMAIERAKO SARIA

Gazteen adin-taldearen ispilua osatzen du, hein handi batean, Helduak 1 taldeak. Gazteentzat nagusiki negatiboa zena positiboa da hemen. Aisiaren norabide positiboak adin-talde honetan jasotako erantzunen garrantziaren %76a jasotzen du, hiru laurdenetik gora (%44a aisia exotelikoak eta %32a aisia autotelikoak), eta urrun gelditzen zaizkio norabide negatiboarekin lotutako aisia absentea (%14) eta aisia kaltegarriak (%10) osatzen duten %24 horri. Talde honetan ere telebistaren aisiazko esperientziak bi bloketako txandakatzea agertzen du hala: aisia exotelikoa eta autotelikoa lehen mailan, eta aisia absentea eta kaltegarria bigarren maila.

**14. GRAFIKOA: HELDUAK 1 TALDEAREN TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIAZKO KOORDENATUEN GARRANTZIA ERLATIBOA (EHUNEKOTAN, IDATZIZKO KONTAKIZUNA) ETA AISIAREN NORABIDEA**



Iturria. norberak egina.

Norabide positibodun aisiak garrantzia handiena hartzen duen adin-taldea da Helduak 1, baita aisia exoteliko eta autotelikoaren arteko oreka handiena agertzen duena ere (%44 eta %32, hurrenez hurren). Aztertutako adin-taldearen artean telebistaren esperientzia baikorrena duen taldea dela esan dezakegu beraz, idatzizko kontakizunari erreparatuta behintzat.

Hala ere, aisia exotelikoa da gailentzen dena: koordinatu honekin lotutako esaldiak 28 aldiz aukeratu dituzte talde honetako partaideek, 74 puntuko garrantziarekin gutzi-

ra. «Telebista erabilgarria/baliagarria da» (29 punturekin) eta «Telebistak munduaren berri ematen dit» (27 punturekin) esaldiak nagusitzen dira bertan, «Ikasi egiten dut telebistarekin» esaldiaren aurretik (20 puntu). Edozelan ere, aipagarria da koordinatuaren hiru adierek lortzen duten oreka maila, beste talde eta koordinatu batzuetan askosaz ezberdintasun nabarmenagoak aurkitzen baititugu. Oreka erlatibo honek, oro har koordinatuak jasotzen duen puntuazio erlatibo eta absolutuarekin konbinatuta, aisia exotelikoak Helduak 1 taldean duen garrantziaren berri ematen digu.

Ahozko diskurtsoari erreparatuta, nabarmena da telebistari aipatu hiru funtzioez gain eguneroko jardunean hainbat erabilera ematen zaizkiola talde honen baitan, hasi etxeko laguntasuna ematen duen zarata familiarretik, telebista tradizioanalaren kontzeptutik aldentzen den (baina telebista ikustearekin lotzen den) hizkuntzak praktikatzeko ohituretaraino:

*BE 40 E b: (...) eitten deu, kalera badue be telebisinoa biztute. Sartzerakuen entzuteko ya zaratie, telebisinoko zaratie... (...) Baie gizonak ipadean bai ikusten dau ingleseko pelikulak eta ikasteko... bai erabiltzen dau.*

Lasai egoteko aukerak eta tartek sortzeko erabilera ere sarri aipatzen da, baita familia osoa haren inguruan biltzeko ere. Horrela, telebista piztearen azken xedea ez da telebista ikustea, horrek ahalbidetzen duena baino (exotelismoaren definizioa bera):

*BE 37 G: Niri lasaitasune bebai. Ez daitx, apurtxu bat egotie ikusten lasai lasai, atentzinue bertara bakarrik...*

*BI 49 E: Niretzako familia batzeko momentue ere bada. Gu etxean telebisinoaren inguruan baino ez gara batzen. Edo jateko, edo telebista ikusteko. Guk telebista bakarra daukagu etxean, ta orduan gabeen danok jesartzen gara sofan telebistaren inguruan.*

Munduaren berri izan eta gauza berriak ikusteko aukera, aipatu egiten den arren, berehala bestelako hedabideekin alderatzen da (internet, prentsa, irratia...). Egon, bado, baina ez da zentrala telebistaren erabilera informatiboa. Egunerokotasunean oso ondo txertatzen den tarte informatiboa izatearen abantaila aitortzen zaio, edonola ere:

*BE 40 E: Da guk gero notizixek bebai asko eh? Mnduan zer pasaten dan... hombre, egunkarixe bebai irakurten du egun-egunien, baina barrixek eta apurtxu bat entzutie gustaten dazku bebai...*

Aisia autotelikoaren koordinatuarekin lotuta, aldiz, 18 erantzun jaso ditugu, 54 puntuko garrantziarekin orotara. «Gustatu egiten zait telebista» (25 punturekin) eta «Nahi dudana aurkitzen dut telebistan» esaldiak (18 punturekin) gailentzen dira aisia autotelikoarekin lotutakoen artean. «Nahi dudana aurkitzen dut telebistan» esaldiak, azkenik, 11 puntu lortzen ditu. Interesgarria da aukeran hartutako lau esalditatik hiru aisia autotelikoarekin lotzen dituen 39 urteko gizonezko honen kasua. Harentzat, telebista aisia beraen sinonimoa da ardura eta betebeharez betetako eguneroko bizitzan:

*BI 39 G: Osea ya amaitu dozu hemengo lana, amaitu dozuz etxeko lanak eta umeen kontuak eta hurrengo eguneko gauza guztiak prestatu dozuz da momentu horretan jesartzen zara sofan, pizten dozu telebista eta guri berdin jaku zer dagoen. Batez be, osea, azken finean jartzen dozu, ikusten dozu apurtxu bat, hitzegiten dozu apurtxu bat, ba ez dakit, bost minutu... ta gero ya... (...) Normalean egiten doguna da umeak oheratu, ya gauzak batu... eta ya telea pizten dogu eta igual momentu hori igual ya inkonzienteki lotzen dozu erlaxazioarekin.*

Telebistaren esperientziak, modu horretan, aisia autotelikoaren ezaugarriak hartzen ditu: aukera askatasuna, gogobetetasuna, beste xederik gabekoa («guri berdin jaku zer dagoen»)...

41 urteko beste emakume honentzat ere telebista ikustea, berez izaten da atsegin-garria sarri, edukia bera bigarren plano batetara pasatu daitekeelarik. Adin-talde honetan umeen ardurak eta bestelako betebeharren kargak hain hartzen du egunaren zati handia, ezen telebista norberaren aisialdiaren sinonimo bilakatzen den, eta aisia autotelikoarekin lotzen den telebista ikusi ahal izateko tartea. Eguneroko norberarentzako tarte autoteliko bezala hartzen eta apreziatzen da, unetxo baterako bakarrik bada ere:

*BE 41 E: Beste egunien ailega gazenien hamabixek eta pikun... ordubatetan sartu nai ohire ta biztu ein dot telebisinue. Ein dot zapping apurtxu bet, amatau ta...*

Esan bezala, Helduak 1 adin-taldean norabide negatibodun aisiak askosaz garrantzia txikiagoa agertzen du, norabide positiboarekin alderatuta. Aisia absentearekin lotutako esaldiek 23 puntuko garrantzia jasotzen dute guztira: 14 puntu «Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista»-k, 7 puntu «Telebistak aspertu egiten nau»-k, eta 2 puntu bakarrik (eta erantzun bakarra) «Denbora galtzea da telebista ikustea»-k. Interesgarria da ikustea ahozko kontakizunean apenas lotzen dela telebista ikustea aspertzearekin (dela asperraren aurkako erremedio gisa, edo asperra eragiten duen jarduera legez). Umeak bai, aspertzen dira, eta telebistara jotzen dute (eta honek normalean ez dituela inoiz aspertzen aipatzen da), baina adin-taldekide hauen artean ez da hain ohikoa.


Aisia kaltegarriari dagokionez, 16 puntutako garrantzia hartzen dute harekin lotutako esaldiek. «Telebistak beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen dit» lehenengo postuan 8 punturekin, «Telebista gehiegi ikusten dut» bigarren postuan, 6 punturekin, eta azkenik «telebista adiktiboa da» 2 punturekin (bi erantzun). Ikusten denez, beste lau koordenatuekin lotuta, oso agerpen anekdotikoa agertzen du.

Ahozko kontakizunera joanda, telebistarekin lotutako esperientzia txarren errelatoa telezaramaren inguruan artikulatzen da batez ere, baina kritika ez da inolaz ere telebistaren osotasunera hedatzen, eta norberaren (eta gurasoen) ardurarako deia egiten da behin eta berriro, telebistako eduki egokiak aukeratzerako orduan. Telebistaren erabilera okerrak, bestalde, bai ikus-entzulerenak eta bai erakundeenak ere izan daitezke:

*BI 39 G: Segun zelan erabiltzen dozun. Eta zelan erabiltzen dan. Instituzioen aldetik eta hori guztia.*

Ahozko kontakizunean zehar izandako parte-hartze kopuruari begiratu gero, telebista idealari buruz jasotako parte-hartze kopurua («3.4 Telebista ideala» kode fokalizatuan jaso) oso deigarria da, praktikan bikoiztu (eta baita laukoiztu ere, kasu batzuetan) egiten baitutu, bere 164 pasarterekin, bestelako gaiek jasotako pasarte kopuruak.

### 15. GRAFIKOA: HELDUAK 1 TALDEAREN GAI NAGUSIAK TELEBISTAREKIKO HARREMANEAN: AHOZKO KONTAKIZUNA



Iturria. norberak egina.


Izan ere, Helduak 1 adin-taldean eztabaida biziak jaso dira, beste telebista posible eta desiragarrien inguruan: iragarkiduna, iragarki gabea, edukien aukeraketa ikus-entzulearen esku uzten duena, kalitatezko edukia eta zinemako estreinaldiak eskaintzen dituena... Adostasun maila txikia agertzen dute parte-hartzaileek hala ere: euskara hutsezkoa, erdara eta euskara dituena, kotileo programaduna, gabea... Horrek guztiak, aisiaren norabide positiboarekin lotutako telebistaren esperientziarekin batera, telebistaren errealitate subjektibo ezberdinen existentzia mahaigaineratzen du: egun dagoen telebistak bezala, etorkizuneko telebistarekiko iritzi eta perspetiba, esperientzia eta kontaktu modu oso ezberdinak daude. Oro har, Helduak 1 taldeko partaideek telebistaren esperientzia positiboa transmititu digute, eguneroko aisiaren kontzeptuarekin, eta batez ere atsedean hartzearekin, eta entretenimenduzko eta informatzeko esperientzien bizipenekin lotutakoa.

### 6.2.3. HELDUAK 2: ERABILERA ANITZEKO KUTXA

Helduak 2 taldeak aurreko adin-taldeko helduekin antzekotasun nabariak agertzen ditu, nahiz eta ezberdintasun esanguratsuak ere aukeratzen ditugun. Hasteko, aurreko taldeak bezala, Gazteen ispilua dirudi, aisiaren norabideari dagokionez. %52ko garrantzia aisia exotelikoari emanda, eta beste %20 aisia autotelikoari, idatzizko kontakizunean jasotako garrantziaren ia-hiru laurden norabide positiboarekin lotzen dira talde honetan. Atzean gelditzen dira aisia absentea (%15arekin) eta aisia kaltegarria (%13a).

Adin-talde guztien artean Helduak 2 taldean ematen zaio zalantzarik gabe garrantziarik handiena aisia exotelikoarekin lotutako esaldiei (110 puntu biltzen ditu, guztira, aukeratutako 44 esalditan). Helduen bi taldeetan nagusitzen da koordinatu hau, baina bereziki 50 eta 65 urtekoen artean, koordinatu bakarrak garrantzia erlatiboaren erdia baino gehiago hartzen baitu. Idatzizko kontakizunari erreparatuta, beraz, telebistaren ulerkera utilitarioena daukan adin-taldearen aurrean aurkituko ginatke, eta norabide negatiboak daukan garrantzia erlatibo txikia ikusita, honen gaineko domeinu handiarekin gainera.

**16. GRAFIKOA: HELDUAK 2 TALDEAREN TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIAZKO KOORDENATUEN GARRANTZIA ERLATIBOA (EHUNEKOTAN, IDATZIZKO KONTAKIZUNA) ETA AISIAREN NORABIDEA**



Iturria. norberak egina.

Aisia exotelikoaren baitan, «telebistak munduaren berri ematen dit» esaldia aukeratu da lehen posizioan (57 punturekin), «telebista erabilgarria/baliagarria da» bigarren (29 punturekin) eta «Ikasi egiten dut telebistarekin» hirugarren (24 punturekin). Munduaren berri emate hau batez ere informatiboekin lotzen da batez ere ahozko kontakizunean, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, ez den telebistaren erabilgarritasun nagusi bezala aipatzen.

Izan ere, telebistaren dimentsio exotelikoan sakonduz, atsedean hartzeko tartea eduki ahal izatearekin elkartuta azaltzen da telebista adin-talde honetan. Telebistaren aurreko denborak atsedean hartzea, deskonektatzea, lasaitasuna eta erlaxatzea ahalbidetzen ditu, eta horrela, telebista ikustearen denboraren esperientzia atsedenaldiraren ideiarekin nahasten da:

*MU 51 E: Horixe. Ez da beste zerbait egin behar duzun denbora, ba deskansoan duzun denbora.*

*MU 55 E: Bai, ze gura badozu amataten dozu eta zure gauzetan, baina ez, zauz deskantzaten eta ikusten.*

*SA 56 E: Niretzat da hori, deskantso bat, eta gainera burua beste puntu batean ipini eta da hori, gauza guztiak ahaztu eta...*

Atsedean hartzea eta telebista ikustea, jarduera ezberdinak diren arren, bateragarritzat, eta sarri banaezintzat hartzen dira Helduak 2 taldean, alde batetik telebista ikustea ahalegin handirik gabe egin daitekeen jarduera delako, eta bestetik telebistak erlaxatzeko tarte bat, posizio fisiko bat, jarrera bat hartzea ere posibilitatzen duelako. Telebista, zentzu horretan, eguneroko erlaxazio, deskonexio eta atsedenaldirako bi-tartekari bihurtzen da.

*MU 51 E: Telebistako denbora da erlajazio denbora, orduan ez da galtzea denbora, da erlajatzaren zaren bitartean hori dekozula aurrean.*

Lehenago aipatu dugun telebistaren bidez munduaren berri izateak maila teorikoan ondo zehaztuta egon daitezkeen mugak zeharkatzera garamatza, printzipioz aisia exotelikoaren baitan kokatu arren, koordenatuak ez baitira hermetikoak eta zurrunak. Adibidez, eta aisia autotelikoari dagokionez, «Atsegina da telebista ikustea» esaldiak 22 puntu batu ditu. Idatzizko kontakizunean esaldi hau lehenengo postuan kokatzen duten gizon eta emakume batek telebista «gustora ikusteko» tartea informazioa modu erlajatuan jaso eta prozesatzeko aukerarekin lotzen dituzte:

*LE 53 E: Eta goizetan badaukat nik ohitturia, por ejemplo, eiitten dot Euskal Telebista ipinten dot, egoten da txarлак, mahaikuak, eta behian ipinten dau periodikuan dakatzun guztixa, zer pasaten dan, titularrak eta, eta leituten dudaz titular guztixak ikusteko zer datorren, hori ohitturia badaukat, goizean, goizeko bederatziak parian edo izaten da, eta titularrak edo hori, badaukat ohitturia.*

*LE 55 G: Nik... ez da holan, baina gitxi gorabehera ideia da hasieran irratan entzuten dut berri bat, eta joaten naizenera etxera pixka bat, ez dakit, konfirmatzeko edo, pizten dot ia zelan... kontrastatzeko datuak eta informazioa.*

55 urteko gizonezkoak gainera esplizituki aitortzen du esperientzia erabat ezberdina izaten dela telebista «ikusteagatik» ikusten denean, edo zerbaiten bila joanez gero (bere kasuan informazioaren kontraste edo irudi bila):


*LE 55 G: Hori bai, azken batena aukeratzen dozuna, aukeratzen badozu gauza bat ba ezberdina da.*

«Atsegina da telebista ikustea» esaldia 3. lekuan kokatu duen beste 50 urteko emakume baten ustez berriz, telebistak une zehatz batzuetan, gustuko serie edo igande arratsaldeetako «gustoko peli» batzuekin eskaintzen du aisiazko bizipen hau. Une bereziak dira, eguneroko bete-beharrekin tartekatu daitezkeenak, baina bestelako aisialdi bat, benetako aisiazkoaldi bat eskaintzen dutenak:

*BI 50 E: Bai, bai bai bai. Eta hori da gehien gustatzen zaidana. Nigatik eukiko nuke egunero horrelako gauza bat. Ez daukat, baina... (barre). Oso-oso relajantea da niretzat istoriatxo hori jarraitzea... ez dira luzeegiak, iragarkirik ez balego hobeto, baina bueno... batzutan iragarkiak ere ondo datoz labadorako arropa atara eta eskegitzeko, edo haginak garbitzeko edo bueno... (barre).*

Atsegina, eta atsedena, erlajazioa, entretenimendua eta informazioa, hortaz, eguneroko bizipen positibo batean uztartzen dira Helduak 2 taldeko partaideen ustez, eta sarri ez da erraza batzuk eta besteak bereiztea.

### 17. GRAFIKOA: HELDUAK 2 TALDEAREN GAI NAGUSIAK TELEBISTAREKIKO HARREMANEAN: AHOZKO KONTAKIZUNA (PARTE-HARTZE KOPURUA, KODE FOKALIZATUEN ARABERA)



Iturria. norberak egina.

Ahozko kontakizunean zehar izandako parte-hartze kopurua koherentea da idatzizko kontakizunean jasotako arrastoei: «3.4 Telebistaren erabilerak eta funtzioak» kode fokalizatuaren inguruan beste batezbesteko kopuruaren pasartean bi-

koitza jasotzen da, telebistaren esperientziaren alde exoteliko edo utilitarioen inguruko elkarriketak islatuz.

Honekin, noski, ez dugu adierazi nahi Helduak 2 adin-taldekideen telebistaren esperientzia perfektua edo akasgabea denik, ez baita hala, eta ez baitute horrela adierazi landa lanean zehar. Baina orohar, beste adin-taldeek baino asebetetze maila handiagoa agertu dutela esan daiteke, baita telebistaren «tresna» ulerkera handiagoa ere, aisiaren perspektiba exotelikotik: dela informatzeko, entretenitzeko, edo lo hartzeko:

*MU 58 G: Niretzat lo... somniferoa da telebista, baina terriblea.*

Arazo edo aurpegi negatiboagoen aldetik aisia absentearekin lotutako «Aspertuta nagoenean jartzen dut telebista» azpimarratu daiteke (22 punturekin 8 erantzuntan), koordinatu berarekin lotutako beste bi esaldien oso gaineratik. Apenas jaso den erreferentziarik telebistarekin aspertu edo telebista ikustea denbora galtzea denari buruz, idatzizko kontakizunean.

Telebista denbora pasa bezala aitortu eta ulertzen dute sarri talde honetako partaideek, baina bereizketa egiten dute denbora pasatzearen eta denbora galtzearen artean. Hala ere, aitortzen dute telebistak denbora hartzen duela, eta batzuetan damua ere agertzen da, denbora asko igaro izanagatik, edo berandurarte telebista aurrean gelditu izanagatik:

*MU 51 E: Hurrengo eguneko goizean esnatu behar nazenean, sei terdietan, esaten dozu «kaguen, zergatik geldituko nintzen amaierara arte?, total banekin amaiera». Baina momentu bakarra, bestela ez.*

Kuantitatiboki, Helduak 2 taldekideen aisia kaltegarriari emandako garrantzia ez da handia (27 puntu guztira), nahiz eta argi uzten duten haren arazoez kontzientea direla. «Telebista adiktiboa da» esaldiari adibidez 18 puntu ematen dizkiote garrantzian. Ahozko kontakizunean berriz erreferentzia nagusiak edukie dagozkienak dira, batez ere *Intereconomia* bezalako kateen inguruan (pertsona batzuk, batez ere gizonezkoak, zale deklaritzen diren arren, beste batzuek manipulazio, propaganda eta gorrotoarekin lotzen dute) eta gaitz eta morboaren inguruko programazioaren ingurukoak:

*AL 56 G Sandra Palo, hori. Gainera hori, gordinkeri osoan, ama ere... Holan urduritasunak, kirio dariola eta han, telebistakoa benga, bere ganen, ea aurpegi zelan ipintzen zuen... Horren bila dabilta.*

Oro har, Helduak 2 taldeak Helduak 1 taldearekin antzekotasunak agertzen ditu telebistaren eguneroko bizipenean, baina telebistaren ulerkera eta erabilera instrumentalagoa iradokitzen duen aisiaren zentzu exoteliko askoz indartsuagoarekin. Telebista, kasu honetan, ez da hainbeste eguneko betebeharrak amaitu ostean heltzen den norberarentzako astia, baizik eta helburu batzuei (eta ez besteei) ondo erantzuten dien aparailua.




#### 6.2.4. NAGUSIAK: MUNDURA IREKITAKO LEIHOA

Nagusiak adin-taldean arazoak izan ditugu idatzizko kontakizunak osatu eta jasotzerako orduan, eta arazo hauek kontuan hartu behar dira emaitzak interpretatzeko orduan. Funtsean, eztabaida talde batean gaizkiulertze bat egon zen parte-hartzaileek bete beharreko fitxaren azken ariketan, eta aukeran emandako lau esaldi aukeratu zituzten, hauek garrantzian ordenatu beharrean<sup>514</sup>.

Nagusien egoitzan burututako eztabaida talde berriz, parte-hartzaileek arazoak izan zituzten datuak idatziz betetzeko, eta ahoz jaso genituen. Muga hauek, beraz, emaitzak baldintzatzen dituztela agerikoa da.

#### 18. GRAFIKOA: NAGUSIAK TALDEAREN TELEBISTAREKIN LOTUTAKO AISIAZKO KOORDENATUEN GARRANTZIA ERLATIBOA (EHUNEKOTAN, IDATZIZKO KONTAKIZUNA) ETA AISIAREN NORABIDEA



Iturria. norberak egina.


Hala ere, interesgarria da ikustea emaitza beste adin-taldeen kasuan baino askoz orekatuagoa dela aisiaren koordinatuekin lotutako esaldiei dagokienez. Lehenengo postuan aisia autotelikoa ageri da (kasu bakarra, talde guztien artean, %33ko garrantziarekin), bigarren postuan parez-pare ageri zaizkigu aisia exotelikoa eta absentea (garrantzia erlatiboaren %27arekin), eta azken postuan aisia kaltegarria ageri zaigu (hau bai, beste adin taldeen antzera, %13ko garrantziarekin). Orain artean aipatutako

<sup>514</sup> Honek aisiazko koordinatuen garrantzia erlatiboaren banaketan eragina izan duela begibistakoa da, aukeratutako esaldi guztiei puntuazio maximoa eman baitiegu, lehenengo posizioan aukeratuak izan balira bezala.

aisiaren norabidearen txandakatzearen beste aldaera bat agertzen du, hortaz, Nagusiak taldeak, positiboa lehenengo, positiboa eta negatiboa bigarren, eta negatiboa azkeneko postuan. Landa lanean izandako arazoak direla medio, ez diegu nagusien idatzizko kontakizunari leku gehiagorik eskainiko.

Ahozko kontakizunean zehar izandako parte-hartze kopuruari erreparatuta, nabarmentzen den gaia edukiena da: «1.9 Telebistako edukiak» kode fokalizatuaren inguruan 119 parte-hartze biltzen dira, batezbesteko kopuruaren gainetik. Ondotik «3.4 Telebistaren erabilerak eta funtzioak» kodea dator, 96 pasarterekin. Izan ere, bi gai hauek, elkarrizketen momentu ezberdinetan tratatu diren arren, oso lotuta agertzen dira adin-talde honetan, telebistako edukiek erabilera, onura, edo funtzio ezberdinak jokatzen baitituzte parte-hartzaileentzat.

### 19. GRAFIKOA: NAGUSIAK TALDEAREN GAI NAGUSIAK TELEBISTAREKIKO HARREMANEAN: AHOZKO KONTAKIZUNA (PARTE-HARTZE KOPURUA, KODE FOKALIZATUEN ARABERA)



Iturria: norberak egina.

Are gehiago, telebistaren ordutegiak eta errutinak, edukiai igortzen diren ueak determinatzen du askoren ustez telebista ikusi ala ez ikusi, modu batera edo bestera jarri arreta, eta, finean, telebista ikustearen esperientzia bera. Oro har, adin-talde honen baitan elkarrizketatutako pertsonen oso argi dute zer, zein kanaletan eta zein

ordutan ikusi telebistan. Badakite gustuko saioak noiz hasi eta amaitzen diren, zein saio ikusi elkarrekin, zeinek nor bere kasa, eta zein eduki negoziatu behar diren –edo amore eman– etxekoen, edo albokoen mesedetan.

Zapping-a, adibidez, errealtate bat da gehienentzat, baina batzuentzat plazer iturri eta telebista ikusteko modu legitimo bezala hartzen den artean, beste askorentzat ez du zentzurik, ikusi nahi den zerbait konkretua bilatzeko ez bada. Orokorrean, telebistaren edukiei buruzko iritzi informatuena eta ohitura argienak adierazi dituen taldea da nagusia: gustoko dituzten saioak eta formatoak ezagun dituzte. Hala, eguneroko jardunaren arabera antolatzen dute ikustaldia, eta alderantziz, ikustaldia- ren arabera antolatzen dute eguneroko jarduna.

*AU 85 E: Sálvame. Sálvame Diario. Emoten dabe. Ta gero emoten dabe zapatutan, edo barixakutan da? Ez, zapatutan, Sálvame Deluxe. Hori bai. Ta gero emoten dau La Noria emoten dau horretxek, Jordik.*

*BI 88 G b: Hori, ointxe botaten dau! Ointxe dauz botaten. Atzo Curro Romero bota eban. Zortzietatik bederatzietara.*

LTDak ekarri dituen kate berriek panorama asko aldatu ote duen galdeta, ezetz diote, ez dela asko aldatu. Kriterioak eta zaletasunak argi izanda, hamar kate edo berrogeita hamar, antzerakoa da telebista ikustea haientzatko.

*BI 83 E: Ez jat gustaten niri... Ez. Nik beste gauze batzuk daukot. Beste gauza batzuk.*

Hala ere, edukiak eta hauen errutina oso garrantzizkoak diren arren, bada telebista ikustearen esperientziaren beste elementu garrantzitsu bat adin-talde honentzat: konpainia. Telebistak, alde batetatik, laguntasuna ematen du hurbileko pertsonen faltan, alargun gelditu berri den Lezamako emakume honen kasuan bezala:

*LEZ 67 E Telebisino niretzat, laguntasune? Badakizu denbora asko ez dotela euki. Lehen. Oin ez da bardin. Oin ordu gehiau dekot. (...)Bueno, arrastien igual kendu, imini, baina ez halan segiduen igual ez, baina bueno, badinotzut, niretzat telebisino hori, laguntasune da. Igual, ba ez dakit, triste edo... piztuten dot telebisino eta esan leike batenbat dauela etxen edo, halako..*

Bestetik, telebista konpainian ere ikusten da, dela egoitzan, kideekin, edo etxean, familiarekin adibidez. Halakoetan, edukiak bere protagonismoa galtzen du, eta inguruko lehentasunak bihurtzen dira sarri telebista piztu ala ez, eta zer jarri, baldintzatzen dutena:

*AU 67 G: Bai bai bai, ez, gurien be holan egoten da eh? Anaie... umiek badauz harek bebai eta amatau barik lez egoten da, esateko moduen. Oin... neuri ba... nik elektrodo- mestiko bat edo zer bat kendu behar izan ezker lehenengo kenduko neukena da.*

*AU 77 G: Derrigor biduz honek telebisino zerak, umien telebisino ipini bidozu...*

*AU 85 E: Da zortzikue etorten danin gurera, ni telebisinoien banau zer bat ikusten, neuk be ez dakitela kanbixetan dozte telebisinoie berak gure dabenak ikusteko. Neuk be ez dakit, ene!*

Hortaz, esan daiteke telebistak konpainiaren funtzioa betetzen duela, zuzeneko konpainiarik ez dagoenean (zarata eta laguntasuna emanez), eta etxeko eta egoitzako harremanetan bitartekari edo girotze lana ere burutzen duela, kasu horretan edukiaren gaineko kontrolak garrantzia galtzen duelarik (agian, besterik egin ezean, etxeko txikiek konturatu gabe ere aldatzen baitituzte kateak, Aulestiako emakumeak kontatu bezala).

Konpainia Nagusiak taldean oso garrantzizko elementua bada ere telebistaren esperientzia karakterizatzerako orduan, bada beste ezaugarri bat agian askoz berezkoagoa zaiena: telebistarekiko miresmena. Orain artean aztertu ditugun adin-taldeetan modu batean edo bestean telebistak eskaintzen dituen aukera eta potentzialtasunak aitortzen diren arren, Nagusiak taldean azaltzen da bene-benetako errekonozimendua eta esker ona:

Munduaren berri izateko orduan, telebista da taldekide askorentzat komunikabide nagusia, eta lehenengoa. Irratia eta prentsa ere jarraitzen dituzten arren, telebistak eskaintzen du sarri munduarekiko eta gaurkotasunarekiko lotura eta leihoa. Iritzi hau bereziki nabarmena da egoitzan dauden pertsonengan, autonomia mugatuagoa baitute:

*BI 75 G: Adelanto barrixek ikusteko ta, telebisino ona dok. Telebisinorik ez balegoke, ezegaz be ez ginakezako enterako ta...(…) Bueno, informau klaro, informau. Baten batek gauza ederra inbentau jua telebisinoaz. Bai gero!*

*BI 75 G: Nik eh... denbora gehixena telebisinoan emoten joat. Da beste buelta bat, paseo apur bat ein da... telebisinora. Gauza asko jakittek. Ostantzien tonto egongo ginakezan, tonto.*

*AU 74 E: Gauza askogaz enteretan zara.*

Albistegien bidezko informazioa ez ezik, telebistak entretenimendua, denborapasa, elkarrizketa eta eztabaidarako gaiak, munduari buruz iritziak formatu ahal izateko iturriak... denetarik eskaintzen duela aitortzen dute hala. Hala ere oso kritikoa ageri dira telebistaren hainbat alderdiri buruz, batez ere edukazio eta portaera eskasa agertzen duten saioekin, eta morboan oinarritzen diren edukiekin (nahiz eta hainbat parte-hartzailek gustora ikusten dituztela onartzen duten):

*LEZ 67 E Ez, ez, Ez, ez, Ez dazte gustaten oin, honek programak e... esangotzut... cotilleo. Hor, hori ez dazte gustaten. Hori fuera, osea, ez dazte gustaten hainbeste.*

*LE 78 E: Ez... urteten dabe, haren bizixa, ta beitu zer esan eban, ta beitu Fulanok zer ein ddaben ta beitu Zutanok eta... baina asko ikusten da hori e? Ta gero zapatutan dago beste bat, Deluxe. Aste barruan dagona Salvame bakarrik deitzen da. Deluxe zapatu gabetan egoten da.*

Laburbilduz, telebistak nagusien adin-taldeko partaideen eguneroko bizitzan leku handia betetzen duela esan dezakegu, haien kontakizunaren arabera. Telebista laguna da gehienentzat, konpainia eta akuilu, pizgarri eta egunaren egituratzaile. Eta, bere kontraesan, lorpen eta mugekin, mundura zabalduetako leiho. Hainbatentzat, gainera, ia- bakarra.

### 6.3. ADIN-TALDE ETA BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANA

Aurreko atalean adin-taldeen telebistaren esperientziaren karakterizazioa aurkeztu dugu, baina ez dugu oraindik belaunaldiaren kontzeptuan sakondu. Gabezia horri aurre egiteko, belaunaldiaren kontzeptura hurbilduko gara eta berau erabiliko dugu atal honetan adin-talde ezberdinek telebistarekin lotutako aisiazko bizipen eta esperientziak alderatzeko.

Belaunaldiak partaidetza subjektibozko nortasun bezala ulertu ditugu lan honetan, esperientzia banatua eta ulermen banatua partekatzen dituzten talde bezala. Adin-taldeek aldiz, izenak dioen bezala, ikerlariak definitutako adin kohorte jakin bati egiten diote erreferentzia. Hala, ezaugarri objektibo eta subjektiboen arteko elkarrekintzan kokatzen gara berriro ere, belaunaldietako partaidetza ez baita eze-rezean ematen, koordinatu soziodemografiko eta historiko batzuetan kokatuta baizik, eta adin-taldeek ere ez baitute, bere horretan, belaunaldi jakin baten eraikuntza eta partaidetza zuzenean determinatzen.

Hori horrela ulertuta, adin-taldeek belaunaldien kontzeptuarekin agertzen duen lotura bi perspektiba ezberdinetatik aztertu dugu. Batetik belaunaldi baten partaide sentitzen al diren, eta zergatik, galdetu zaie. Bestetik, balizko belaunaldien artean oro har, eta telebistarekiko harremanari dagokionean ezberdintasunik nabaritzen duten galdetu diegu. Bi abiapuntuak osagarriak dira belaunaldiek telebistarekiko aisiazko harremanean izan dezaketen garrantzia esploratzeko. Lehenen abiapuntuak *emic* perspektibatik<sup>515</sup> ekiten dio auziari, balizko belaunaldiaren partaidetzatik abiatuz telebistarekiko aisiazko harremanak aztertzeke. Bigarrenak, aldiz, *etic* ikuspuntua darrabil, taldekidetzat aldarrikatzen ez diren belaunaldiei egotzen zaizkien ezaugarriak jasoz. Adin-taldeen eta belaunaldien arteko harremanaren gakoa, hortaz, partaidetza subjektiboan kokatuko dugu, barrutik eta kanpotik belaunaldiek telebistarekiko duten harremana aztertzeke.

Emic eta etic perspektibek, finean, talde edo erkidego batekiko norberaren kokapenari erreferentzia egiten diote. Hala, lehenengo adin-taldeen belaunaldieki-ko barne-ikuspegia landuko dugu, eta jarraian kanpoko ikuspegia, «bestearen» eraikuntza eta kontakizuna jasoko ditugu. Hala, lehenengo norberaren belaunaldiari buruz hitz egiteko eskatu diegu parte-hartzaileei, eta gero «beste» belaunaldiei buruz hitz egiteko. Ikusiko dugun legez, bi perspektibak osagarriak, eta sarri gainjarriak suertatzen dira.

#### 6.3.1. BELAUNALDIETAN PARTAIDETZA: NORK BERE BELAUNALDIA

Lan honen iker-objektua pertsonen bizipen eta esperientzietan kokatzen denez, belaunaldien telebistarekiko aisiazko harremanak ikertzerako orduan lehenengo pau-

<sup>515</sup> Kapitularian «Telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integrala: Astia-Aldia-Aisia eredu».

sua elkarrizketatutako parte-hartzaileei belaunaldi baten parte sentitzen eta aitortzen diren galdetzea da. Hori dela eta, ahozko kontakizunean, bai eztabaida taldeetan eta baita sakoneko elkarrizketetan ere, zati bat eskaini zaie adin-talde ezberdinetako partaideei gai honen inguruan haien iritzia eman dezaten<sup>516</sup>.

Belaunaldiaren partaidetzaren perspektibatik, azpimarratu beharreko lehenengo gauza adin-talde guztietako parte-hartzaileek belaunaldi baten partaide sentitzen direla adierazi dutela eta berau adinaren arabera definitu dutelada. Eztabaida taldeen kasu guztietan belaunaldi partekatu hori adin-taldekideekin osatu dute, «gu» bakar bat eratuz modu espontaneo eta naturalean, haien arteko adin ezberdintasunen araberako bereizketarik egin gabe. Ez da, zentzu horretan, eztabaida taldeetan parte hartu duten 67 pertsonen artean ezezkorik aurkitu, denek euren egin dute adin-taldea belaunaldizko gutasun baten inguruan hitz egiteko. Erreferentzialtasuna, hortaz, ikerlariak sortutako adin-taldeetatik abiatu da, eta handik abiatuta sortu da beste belaunaldiekiko jarduna (nagusiagoak, gazteagoak...). Sakoneko elkarrizketen kasuan berriz, belaunaldiak senidetasunaren arabera definitu dira gehiago: gurasoak, seme-alabak, aitona-amonak...

Ezin esan dezakegu adin-taldeak eta belaunaldiak sinonimo zehatzak direnik<sup>517</sup>, baina gertutasun nabarmena azaldu dute. Gauza bera ez badira ere, adin-taldeak abiapuntutzat hartu dira, aztertutako kasu guztietan. Hau esanda, ezberdintasun nabarmenak daude adin-taldek belaunaldiarekiko partaidetzari buruz artikulatzen dituzten elementuen eta partaide sentitzen diren belaunaldi horren ezaugarriari dagokienean. Goazen bada hauek adin-taldeka aztertzeraz.

Gazteak adin-taldeko partaideek baietz diote, belaunaldi baten parte sentitzen direla telebista eta beste hedabideekiko harremanean. Izan ere, teknologia eta komunikabideekiko harremanak sarri aipatzen dituzte haien belaunaldiaren bereizgarri gisa. Hala, *Game Boy* eta *Playstation* kontsolak azaltzen dira erreferentzia gisa, haien belaunaldia horrelakoak erabiltzen hasi zen «lehen» izan zelako.

Teknologia mediatikoekiko identifikazioak eta hauen erabileran aitzindari izanaren kontzientzia honek, hala ere, ez du autokritikarik egiten ez denik esan nahi: teknologia berriak eskuratzeko irrika eta gailu berrienak eskuratzearen lehian atzean ez gelditzeko beldurra ere aipatzen dira, jarrera kontsumista eta antsietatearekin lotuta. Nolabaiteko berria den ororekiko menpekotasuna aitortzen dute, haiek partaide sentitzen diren belaunaldiari dagokienez, eta joera hori areagotuta ikusten dute gainera belaunaldi gazteagoengan:

<sup>516</sup> Belaunaldietan partaidetzari buruz jasotako pasarte kopuruak «Adin-taldeen telebistaren esperientziaren karakterizazioa» atalean kontsulta daitezke, adin-taldea, 13, 15, 17 eta 19. Grafikoetan.

<sup>517</sup> Ikus, eztabaida horretan sakontzeko, kapitulu honetan bertan «Adin taldeen arteko berdintasun eta ezberdintasunak belaunaldien ikuspegitik» eta «Belaunaldiak eta telebistarekiko aisiazko esperientziak: hipotesi esplikatiboa».

*DU 24 G B: Nire ustez gu izan ginien hasierie, o sea, hasi ginenak apur bat teknologia mundu horretan...*

*DU 24 E: Eta amaitzen beste garaixe.*

*DU 24 G B: Baina niretzako atzien datozenak ya jaiotzetik ya datoz con todo...*

*DU 24 G D: Totalmente, horrekin.*

Eskuko telefonoa da, egun, haien ustez aldaketa handienak ekarri dituena, eta neurri batean haien belaunaldiaren ikono bezala hartzen dute, onerako eta txarre-rako. Hala, sakelekoak haien ohitura sozialak ia-erabat aldatu dituela onartzen dute, alde batetatik komunikazioaren teknologiekiko kontsumismoarekin lehen benetako kontaktu bezala aipatzen dutelako, eta bestetik egun mobilik gabe bizitzea ia-ezinezko ikusten dutelako. Hortan ere, lehenak izatearen kontzientzia agertzen dute argi eta garbi, gerora joera hori gizarteratu egin dela uste duten arren:

*DU 24 E: Nik adibidez bai ikusten dot gu izen garela apur bat aldaketa. O sea, gu geratu izan gara mobil barik, o sea, ni urten izen naz kalera ta, lagunak? Ba egongo dira betiko lekuan, baina hori da en plan...*

*DU 21 E: Ba gu hasi ginen ya pilo bat tramankulo erabiltten eh? mobilekin, Game Boyekin hasi ginen apur bat, mobilekin be bai, Internetek harrapau dozkun de lleno... o sea, ni gogoratzen naz mesengerrean eta pasaten nabezela orduak, eta ya... hori, txip aldaketa hori...*

Elkarrizketatutako gazteek, orokorrean, euren burua belaunaldi baten parte ikusten dute baita telebistarekiko harremanean ere. Adibidez 14 urteko pertsona bategandik ezberdin ikusten dira, batez ere telebistako programazio ezberdina bizi izango dutelako, batzuek eta besteek. Haiek umetan izandako programazioa eta gaur egungo umeek eskura dutena arras ezberdin sumatzen dute, eta egungo umeek haiek baino telebista gehiago ikusten dutenaren sentsazioa dute oro har:

*MU 20 E: Ni ez naz sentituten hamalau urteko ume batek iten dozuen gauza berdinen parte, ez dakit, diferentea da. (...) Nik pentsetan dot diferente izango dala. Ez dakit, eh? (...) Gero ta... guk asko ikusten badogu, eurek ondino gehiau, nik pentsaten dot.*

*MU 21 E B: Eta danean igarriko da, euren jarreratan be bai, nik pentsaten dot, ez da telebisinoa bardin oin edo duela hamar urteko programak.*

*MU 21 E: O guk ikusten genduzen marrazki bizidunak eta oin ikusten haurenak, bere bai...*

41. irudian gazteek haien belaunaldiarekiko partaidetzari buruz adierazitako in vivo termino esanguratsuak aurkezten ditugu. Bertan, hiru gai nagusi bereiztu daitezke. Batetik, belaunaldi berezi eta bereizi bezala daukaten kontzientzia, komunikazioaren teknologietan emandako aldaketa global eta erradikal baten lekuko eta eragile izanarenena. Hala, informazio eta entretenimenduzko teknologiekiko harremanen historia iraganean eta etorkizunean banatzen dituen puntu bezala ikusi eta adierazten dute haien belaunaldia.

Bigarren, komunikazioaren teknologiekiko zaletasun eta mendekotasun handia aitortzen dute, eta autokritika eta kezkarako elementu garrantzitsu bezala azpimarratzen dute, aparailu berri eta hobeagoak erosi behar hori, eta «atzean gelditu» ezin hori. Hortan, gizarte-aitzindari baino, haien burua gizarteko joera nabarmen baten adierazpen argi bezala aitortzen dute.

Hirugarrenez, eskuko telefonoa hartzen dute belaunaldi bezala komunikabideekiko duten harremanaren adierazle nagusi bezala. Hala, gazteek sakelekoa aldi berean ulertzen dute komunikazio sozialerako tresna erabilgarri eta baliagarritzat, eta komunikazio teknologiekiko (dela sare telefonikoa zein internet) dependentzia eta menpekotasun zeinutzat.

Helduak 1 adin-taldean ere badago belaunaldi baten partaide izatearen sentipen argia, eta batez ere telebistako erreferentzien konpartituen bidez identifikatzen dute («hori gure sasoiku da!): *Mazinger Z*, *Heidi ta Marco*, *V*, *Candy Candy*, *Barrio Sesamo*, *Verano Azul*... Talde honetan, telebistako eduki elkarbanatuek erreferentzia marko komuna osatzen dute, bizi izandako iragan komun baten memoria, zeinen inguruan belaunaldiaren gutasuna erraza den.

«Gure sasoia», telebistako eduki jakin batzuk eman eta hartzen ziren garai hura, gaztetasun eta haurtzaroarekin lotzen da, eta garai hartan adin horietan bizi izanak osatzen du, hartara, belaunaldia, eta belaunaldiarekiko partaidetza. Xehetasun guzti-guztiak banatzea ez da beharrezkoa (pertsonek guztiek ez baitzituzten saio guztiak ikusten), baina erreferentzia marko orokorraren aitortza, ordea, bai. Izan ere, denek ezagutzen zituzten aipatutako saioak.

Horrela, programazio jakin bat une historiko eta biografiko batean ikusi izanak lotura bat, «estrato bat» sortu izanaren sentipena agertzen du sakonean elkarrizketatu:

*BI 39 G: Baai. Beitu kamiseta! [Mazinger Z-ren kamiseta darama soinean] (Barrez). Hau da bueno, txorrada bat, baina klaro, klaro! Hombre, azkenean... ba nik uste dot belaunaldi guztietan gertatzen dala, eta klaro, ez telearen aldetik bakarrik, baina bueno, telea hedabide bat da eta azkenean ikusi doguzanak ba hori, Mazinger Z, Vicky el Vikingo... nahita oin barriro ipini, ikono horrek... (...) Bai, azkenean elkarbanatzen dozuz ikonoak. Eta erreferentziak.*

Parte-hartzaile batzuen ustez gaur egun umeentzako dagoen programazioa biolentoagoa da haien garaikoarekin alderatuta, eta ardua agertzen dute transmititzen diren balioen inguruan. Beste batzuek aldiz uste dute eskaintza zabala dagoela, baita transmititzen diren balioei erreparatuta ere:

*BE 40 E: Bai... Badauz gauze onuragarrixez, baina baloriek eta igual nitzako apur bat galdu diez.*

*BE 40 E b: Ez, zabalaua da. Ofertie da zabalaua! Baie horrek.. Liberad a Willy! Klaro dauzena! Baina daukozuz askoz be aukera gehixau! Liberad a Willy, 1 eta 2. Nire semiek egon diez tontotute ikusten! Da hurrengoko egunien dauz ikusten Gormitti, Dragon Ball eta danak... baina horrek behai gustetan jakie!*



Oso interesgarria da parte-hartzaile batek bere belaunaldiaren partaidetza dela eta dioena, ikuspegi objektiboa eta subjektiboa bereizten baititu: Koordenatu objektiboen arabera bere belaunaldia telebistaren eta irratiaaren belaunaldian kokatzen duen arren, bere burua «interneteko belaunaldikotzat» dauka, eta kokapen subjektibo horretatik abiatuta proposatzen ditu bere hausnarketak profesional eta intelektual moduan:

*LA 40 G: Bueno, nik badakit nire belaunaldia telebistaren belaunaldiarena dela, FMaren belaunaldiarena dela, baina nik neure burua interneteko belaunaldikotzat daukat, eta orduan horren aldarrikapena egiten dut. Eta interneteko telebistaz egiten ditudala nire kezkek eta gogoetak, eta horren gainean jardungo nintzatekeela gusturago ia-ia. Alegia, ni, nahiz eta adinez eta bizi izandakoaz eta, tokatzen zaidan esatea telebista, eta papera eta guzti horren belaunaldikoa naizela, eta maite ditut medio guzti horiek, papera, irratia, telebista, nik neure burua laurogeita hamalautik hona interneteko belaunaldikoa bezala jotzen dut, orduan dena, gogoetak eta egiten ditudanak medioei buruz, kulturari buruz, politikari buruz, gauzei buruz, interneteko belaunaldiko filtro horretatik egiten ditut.*

Hala, Helduak 1 adin-taldeari dagokionez hiru gai bereiz daitezke belaunaldieki-ko partaidetzaren inguruan. Batetik, belaunaldi bezala aitortzeko erabiltzen den telebista saioz osatutako erreferentzia markoa, edukien zerrenda. Saio bat «gure sasoi-koa» den ala ez adierazten duena, eta haren ezagutza eta hura bizi izanak osatzen duen talde-nortasuna.

Bigarren, orain erreferentziazkoak eta belaunaldi-eratzailak diren saio haiek ikusten zituztenean zuten adinarekin egun haien seme-alabek ikusten dituzten saioak aipatzen dira, «gure sasoi-ko» eduki haiekiko distantziak eta ezberdintasunak, hein berean, gutasun hori elikatzen baitu.

Azkenik, parte hartzaile batek esplizituki bereizten du bere belaunaldi objektibo eta subjektiboaren artean, belaunaldi anitzekiko kidetza aldarrikatuz: «interneteko belaunaldia», «FM belaunaldia», «papera eta guzti horren belaunaldia», «telebistaren belaunaldia»... Ikuspuntu hau bereziki klabea da, gure hipotesi esplikatiboan ikusiko dugun legez.

Helduak 2 adin-taldeko partaideek ere argi eta garbi adierazi digute belaunaldi jakin baten partaide izatearen sentipena, eta belaunaldi gazte eta zaharra goetatik bereizten dituzten ezaugarriak izatearena. Ez dugu adostasunik aurkitu berezitasun hauen inguruan, baina gurasoengandik hurbilago ikusten dute oro har haien burua telebistarekiko harremanean, seme-alabekiko baino, gurasoekin ere ezberdintasun nabarmenak aitortu arren. Oro har seme-alabek telebista entretenimendurako erabiltzen dutela diote, haiek oraindik informazio iturri garrantzitsutzat daukaten artean, nahiz eta onartzen duten adin kontua izan daitekeela, belaunaldiarena baino gehiago:

*LE 52 E: Gu igual gagoz lotunago gure, bueno, por supuesto, nire amak beitu noiz eza-gutu eban telebisinoia, ez? Asko be beranduau, baina bueno, guk ikusten dogu gehixago, eurak ikusten daben modura, uste dot.*

LE 53 E: *Gertuago gagoz gure gurasoekin, igual semiakin baino igual?*

LE 57 G: *Nik pentzaten dot igual gehixau semiekin gurasoekin baino...*

LE 52 E: *Gurasoekin baino? Bai?*

LE 59 G: *Semiak gure etxian serialak nahixago dabe ikusi pelikulak baino. Nik neuk pelikula nahixago dot ikusi serialak baino, eta amumak, nik ez dakit zer nahi duen ikusi.*

LE 57 G: (BARRE)

LE 52 E: *Ya baino igual ikuspegixa, gure gurasoena hurbilago dagola nik neuri, pentzaten dot, gure gaztiena baino. Gure gaztiak, ba bueno... telebista ikusten dabe, bai, baina bueno, diraz gauza konkretuak, guk informaziñorako erabiltzen dogu asko, eurak ez, eurak denbora pasa gehixago.*

Engungo gazteek telebistan entretenimendua soilik bilatzen duten sentipena orokorra da adin-talde honetan, eta azalpen posible bezala haien gaztaroan, Franco hil berrian errealitate politikoak beste interes bat zuela proposatzen dute. Egun ordea, politikak belaunaldi berrientzat garrantzia hori galdu egin duela uste dute, eta belaunaldi berriak errealitate politiko eta sozialetik urrunduko aurkitzen dituzte:

MU 56 G: *Bai, hombre gu ginen Franco hil zenean, 25 años, 24... Del 19, eta politika orduan bizi-bizi egon zan, ointxe ein de diferentzie, orain ya politika dau hain sobeute, hain... ez dau modan, ez dau modan. Momentuan modan egon zan, modan egon zan ze hori nezedidadea euki gendun, hori...*

Bestalde, orokorrean aitortzen dute ez direla gai, haien seme alabek egiten duten bezala, aldi berean telebista ikusi, eskuko telefonoarekin txateatu eta bi edo hiru elkarrizketatara egoteko. Teknologiar dagokionez, gazteek teknologia berriekin gehiago ikertzen eta kuxkuxeatzen dutela uste dute, gailu berriekin esperimendu, ikasi, ukitu... Haiak orokorrean konformistagoak direla uste dute, nahiz eta haien artean ere denetarik dagoen. Oro har «analogiko»tzat daukate euren burua, eta seme-alabak digitalago ikusten dituzte:

LE 53 E b: *Bai. Edo, baina be bai gehixau ikutzen dabe, gero badakixie hau nun emoten daben, hau, bestia...*

LE 52 E: *Guk ez dogu inbestigaten.*

LE 53 E: *Nire gizonak bai eh?*

Oro har, Helduak 2 adin-taldean hiru belaunaldi eta garai ezberdin bereizten dira, haien artean gainjartzeak eta gurutzaketak aitortzen diren arren: gurasoena, haiena eta seme-alabena. Elkartruke eta kontakturako aukerak egon, badauden arren, telebistari dagokionez «hiru gauza desberdin dira». Hala, hiru denboraldi historiko bereizten dituzte: iragana (gurasoena), oraina (haiena) eta etorkizuna (seme-alabena), bakoitzean telebistarekiko harreman ezberdinak bereiztuz. Interesgarria da bereizketari honi erreparatzea, hiru denboraldien partaide sentitzen baitira nolabait, haien belaunaldiaren perspektibatik.

Gurasoen telebista ikusteko modua Franco hil osteko garaiarekin lotzen dute, telebista «medio bat» zeneko garaia, zentralitate informatibo eta familiar ia-erabatekoa zueneko, non mundu guztiak gauza bera ikusten zuen, bai etxean, eta bai kalean ere. Telebistaren berritasunak eta zentralitateak garaiko gertakarietarako eta urruneko lekuekiko leihoa zabaltzen zuen.

Haien burua telebistaren aurrean definitzerako orduan «analogiko» terminoa erabiltzen dute, eta nahiz eta «tribu asko osatu» belaunaldi beraren baitan, sintonia berezi bat aitortzen dute belaunaldia osatzen duten kideekiko. Telebista asko aldatu dela diote, baina haiek berau ikusteko modua ez da hainbeste aldatu urruneko agintea agertu zenetik. Aukera teknologiko berriak aprobeztatzen dituzte, LTD adibidez, telebista bidez irratia entzun ahal izateko, baina orohar, telebistak oraindik gurasoen garaietan zuen informazio eta entretenimendurako estatusa gordetzen du.

Seme-alaben telebista ikusteko modua askoz gehiago lotzen dute, aldiz teknologia digitalekin, internetekin, norberak nahi duena nahi duenean ikustearekin, eta, batez ere, entretenimenduarekin. Zentzu horretan ez dute gazteagoengan informazio-egarri handirik ikusten, ez behintzat telebistari dagokionean.

Nagusien adin-taldean, azkenik, bi elementu nabarmentzen dituzte parte-hartzaileek haien belaunaldia definitzerako orduan: erretiroa, eta telebista jaiotzetik ezagutu ez izana. Erretiroa taldeko partaide guztiak ezagutu ez duten arren (partaide batzuk etxeko-andreak izan baitira, eta hala jarraitzen dute orain ere), belaunaldiaren ezaugarritzerako elementu bezala tratatzen da, norberaren astialdian eta telebistarekiko harremanean eragin zuzena duelakoan. Telebista txikitatik ezagutu ez izanak, berriz, harridura eta berritasun puntu bat gehitzen diotela uste dut, orain ere, guztiz etxeko eta egunerokoa den teknologia batekiko miresmena azaleraziz.

Parte hartzaile batek gogoratzen duen bezala, belaunaldi berriak telebistarekin jaiotzen dira, gaur egun gainera ehunka kateren aukerarekin, hasierako telebista haren bi kateetatik «bakarrik UHF eta lehenengoa. Bi bakarrik» urrun. Antzerako zerbait gertatzen dela iradokitzen dute ordenagailu eta teknologia berriekin: belaunaldi berriak ohituta daude teknologia berri sorta osoarekin, ia-ia jaiotzetik bertatik ondoan dituztelako. Alde batetatik harriduraz ikusten dute gazteek teknologia hauek erabiltzek agertzen duten erraztasuna, eta bestetik ardua agertzen dute, teknologia hauekiko daukaten menpekotasuna dela eta:

*AU 71 G: Horretxek kendutze asko telebisinoiari... ordenadorak. Oin ordenadorin hasten zara, topetan dittuzu han da...*

*AU 74 E: Ume guztik be, danak manejetan dabe...*

*AU 77 G: Bueno, eskolan emoten dittue oin ordenadorako konexinoiek eh? Gehixenentan emongo dautse hori pentzetan dot...*

*AU 75 E: Bai, baina umiek ikesten dabe... enseguida.*

AU 67 G: *Oin, ikesi barik jaixo, hori ez dakit eh...*

AU 74 E: *Nintendo, edo zer da hori (...) Uuuu! Hori manejetan dabe...*

AU 77 G: *(...) Gaurko umiek, ez dabe jakingo horrek aparatoek botaten botzez, sumar zelan ein be. Haxe. Hoixe da problemie.*

Oro har, hiru gairen inguruan artikulatzen da Nagusien taldeko belaunaldia-  
rekiko partaidetzaren diskurtsoa. Batetik, telebistarekiko lehen kontaktua izan zu-  
ten garaiarekiko oroimena (kasu askotan ezkontzerakoan, edo etxe berri batetara  
joaterakoan...). Telebista etxean lehen aldiz noiz izan zuten ondo gogoratzen dute  
parte-hartzaileek, baita nork bere etxean izan baino arinago nola joaten ziren abe-  
ratsagoak ziren lagunen etxera, telebista ikustera, ia-ia jai giroan. Bigarren, egungo  
adin-kidetasunetik haratago doan zirkulu soziala ere aipatzen da, bai telebista saioen  
zaletasunen arabera («bakeradak») eta baita aisiazko beste jardueretan parte har-  
tzen dutena ere, nolabaiteko belaunaldi partaidetza azpimarratzeko. Azkenik, gaztee-  
kiko ezberdintasun saihestezina sarri aipatzen dute, hor benetan belaunaldien arteko  
hausketa funtsezko bat eman delakoan, telebista eta komunikazioaren teknologien  
erabilerari dagokionez.

### 6.3.2. BELAUNALDIEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK: BESTEEN BELAUNALDIAK

Aurreko orrialdeetan adin-taldeak belaunaldi baten partaide sentitzen diren ala  
ez, eta sentipen hau nola adierazten duten azaltzen jardun dugu. Hurrengo lerroetan  
adin-talde ezberdinek norberaren belaunaldia baino, «beste» belaunaldiak nola erre-  
tratatzan dituzten jorratuko dugu. Izan ere, ikusi dugun legez, sarri norberaren taldea  
definitzeko ezinbestekoa da ezberdina den «beste» baten beharra, eta bestearekiko  
ezberdintasuna azaltzen da norbere partaidetzaren ezaugarri definitzaile bezala.

Elkarrizketatutako gazteek, oro har, ez bairik gabe baietz diote, badirela ezber-  
dintasun nabarmenak belaunaldi ezberdinek telebistarengandik espero dutenaren  
inguruan. Haien ustez klabea da telebistarik gabeko aro bat ezagutu izana edo beti  
telebistarekin bizi izanaren arteko ezberdintasuna. Dena «hemen eta orain» edu-  
kitzearen kulturaren erabat sartuta ikusten dute haien belaunaldia, aldi berean tele-  
bistarekiko zorrotzago, eta komunikazioaren teknologien kontsumismoaren gurpil  
zoroan murgilduta. Belaunaldi nagusiagoak aldiz telebistari lotuago ikusten dituzte,  
telebistarengandik benetan ezer espero gabe, baina aldi berean menpekotasun han-  
diagoarekin:

*DU 24 G D: Nik pentsaten dot dala mentalidadie be bai, esantzutena lehen, dau za-  
pping itten, ez dot topetan ezebez eta kabreau iten naz en plan, «cago en Dios», eta  
amatetan dot telebisiñue. O sea, da nik pentsatzen dut gu... o sea, batez be gu, gaztiek  
eta holan garella super, da «la cultura esa de quiero y...». eta gurot. Ta ezin dau fallau.  
Eta gurot, eta ez bada, amatetan dozu holan, ez zara kabreetan holan emoteko egun  
osoa haserre, baina puntu horretan, «Dios, no me ha funcionau». Eta horretarako be  
bai, dana eukittera hemen be bai, pues quiero esto, y lo puedo y...*

DU 24 G A: *Kultura edo edadie sartzten da hor jokuen... Nik uste dot jende nagusixeri, jende nagusixek ez dau espero ezebez telebistatik, o sea...*

DU 24 E: *Ze bizi izan da telebista barik.*

DU 24 G A: *Klaro, baina adibidez nire amari... nire ama dau telebista ikusten, telebista aurrien egon al da egun osue da ez da enterau ezetaz, o sea, dau hor, egoteagaittik.*

DU 24 G B: *Baina aldi berean kendu telebisinue...*

DU 24 E: *Eta hil eitten da... (BARRE).*

Hala ere bereizketa hau ez da unibertsala. Belaunaldi ezberdinek telebistarekiko duten harremana ezberdina ote den galdetuta, kasu batean parte-hartzaile batek ezetz dio, ez duela ezberdintasun apartekorik nabaritzen ingurukoen artean:

BI 29 E: *Nik uste dot, bueno, telebisinoan ganien ez dot handirik topetan. Nik uste dot etxien mas o menos danok ikusten dogule bardine, bakeroak kendute (aitak)... Baie ostantzean ez dot ikusten diferentzi handirik. Horretan. Bai egixe da igual aittek por ejemplo, da aitten belaunaldikoak ikusten daurela teleberrixe, pelota partidue, futbola da bakeroak. Da listo. Da guk igual ikusten du pelikule gehixau o... nire kasuen eh? Nik neure burue ez dot ikusten horrenbesteko diferentzixegaz berez. Ez.*

Azpmarratzekoa da baita gazteen eztabaida talde baten kasuan euren belaunaldia daukatela telebista zaleena bezala (ikusten duten telebista kantitatearen aldetik). Bai aurreko belaunaldiak (telebistarekin hazi ez direlako) eta hurrengoak (edo oraindik gazteegiak direlako agian) eurek baino telebista gutxiago ikusten dutela uste dute. Belaunaldi berriei buruz hitz egiterakoan ardura agertzen dute hala ere: «bardin dotzie zer datorren telebisinuen, dana tragau iten dabe inongo filtro barik». Ikusten den telebista kantitatea ere, telebistarekin hazi izanak edo gerora ezagutu izanarekin lotzen dute, eta oro har uste belaunaldi berriek behar baino telebista gehiago ikusteko joera izango dutela etorkizunean:

MU 25 G: *Telebisino ikuskeran? (...) Jo, bai...*

MU 20 E: *Bai, bai.*

MU 21 E B: *Bai, pilo bat.*

MU 20 E: *Orduen ez zan ikusten hainbeste, ezta?*

MU 25 G: *Bai, bai, bai. Oin dekozu, nik uste dut gure generazinoak dekola, telebisinoak dekola como zeozer, bizitzan dekozun zeozer ya, ez dakit, normala edo, beti eiten zune, edo ez dakit... (...) Hori, hor dau eta listo. Hori. Bai.*

Helduak 1 adin-taldean gurasoekiko ezberdintasun nabarmenak aipatzen dituzte telebistarekiko harremanean, batez ere erreferentzia eta interes ezberdinak direla eta («Cantinflas», «bakerunek», «John Wayne»...). Hala ere, gaur egun antzekotasun handiagoak dituztela eta ezberdintasunak urteekin leuntzen joan direla uste duten baita:

BE 40 E: *Orain ya gauz apurtxu bet bateratute, baina igual eurek izen zien beste garai bat... blanco y negro, ez dakit zer... (...) Orain ba bueno, geure lez ikusten dabie. Emakumiek gitxi gora behera Sálvame eta honek rolluek, ta serixek eta ez dakitt...*

BI 50 E:... *nik ez dot igerten alde handirik amaren eta nire artean igual. Ez oso handirik.*

Partaide batek baino gehiago aipatzen du baita lehen ohitura handiagoa zegoela etxean aitak esaten zuena ikusteko. Gaur egun ordea guraso bezala ez dute agintzearen sentsaziorik. Alderantziz; sarritan, etxeko gazteenek erabakitzen dutela uste dute, eta bestela beste nonbaitera alde egiten dute, nahi dutena ikustera:

BI 39 G B: *Nik gogoratzen dot txikitan aita telebista aurrean, eta aitak jartzen zauena ikusten genuen. Eta ama eta biok como... pfff (barreak). Berriro bakeroak, berriro John Wayne... eta bueno... Baina bueno, nik esan dot, ni engantxatzen nintzen. Txikitan ere! Azkenean ikusten nuen John Wayne eta pelikula osoa. (...) Batez ere, osea, agintzen zauena telebistaren aurrean aita zan. Nire etxean bai. Bueno, agindu... ez dakit, igual lokartzen bazan aldatzen genuen eta «tss! baina ez kendu!» «zergatik kendu duzue pelikula, ikusten nago», ta lo. Jo, lotan zauz...*

BI 47 E: *Bai, egixe esan gure sasoian kanal bat baino ezin zan ikusi. Eta orduen... baia telebisinoa noiz ipinten zan aitek erabakitten zeuen. (...) Aitek erabakitten zeuen berak, noz ipini behar zan telebisino. Bardin zan ikasi behar zendun edo ez dakit zer egin behar zendun, osea... Bera etorten zanean rrra!*

Belaunaldi berriagoekiko, aldiz, aldaketa nagusia teknologia berrietan ikusten dute argi eta garbi:

BE 40 E: *Hor bai ikusten dala aldaketa bat gugaz konparatuz. Eurek dauzela ohitute teknologi barrixetara... dakixie bideu ikusten, ordenagailuen bebai guk baino askoz eta erreztasun gehixau... makiniekaz bebai ibiltzeko... hori bai.*

BI 49 E: *Bai, nik beste diferentzi bat, igual ze, zelako abilidadea duten manejatzeko. Dinot, manejatzeko ez bakarrik... ze kanal interesatzen zaien, ordua... dena daukate buruan! Braust! Ta nik igual ibili behar dot mila buelta... kirol programekin adibidez... edo... ta gero gogoratu egiten dute, programau, ez dakit zer... ez dakit...*

Arduraz ikusten dute etxeko gazteenen artean telebistarekiko menpekotasun handia dagoela kasu batzuetan («altzaten da ta lehenengoko gauzie eitten dauena da telebisinoa ikusi»), baina beste batzuetan aldiz ez da ematen («Nik bi dekotaz, ta bixek guztiz diferentiek»). Kasu guzti-guztietan ikusten dutena eskuko telefonoen erabilera («whatsapp» eta abar) eta teknologia berriekiko hurbiltasuna da. Eskuko telefonoekiko alderatuta, telebistak haien seme-alabentzat oso garrantzi txikia dutela deritzote, oro har:

BI 43 E: *Nik ikusten dotena da, adibidez, gaur egun eh? Ume bateri kastigeu tele ez ikusten, ba... ez da eurentzako hainbesterako. Adibidez kentzen beatzezu mobila, hori bai dala kastigu. (...) ordenadora bebai, baina gero eta gehiago da mobila. Ze lagunekaz dauz konektata.*

Belaunaldi berriek ziurraski telebistari interaktibitate eta partehartze handiagoa eskatuko diotela uste dute, internetekin bategindako telebista berri bat. Telebistak

zentzu tradizionalen nolabait aurreko belaunaldientzat zuen zentraltasuna galdu duela uste dute, belaunaldi berrientzat:

*BI 50 E: Nire alabak ez dau behar telebisorik. Bera bakarrik badau etxean igual goizean bai, han gosalduko deu... eroango deu gosarie salara ta han trankil, edozein tontokeri ikusten lasai egongo da. Baina berez ez dau behar. Ordenadoreagaz biziko litzake ondo. (...) Topeuko leuke han ez dakit zein serie... ta...*

*BI 43 E: Guk dekogu engantxe gehiau telebisinoagaz umiek baino.*

Haien burua berriz bi belaunaldiren artean ikusten dute zentzu honetan; gura-soek ez dute normalean filmerik ikusi ordenagailu bidez, eta gazteenentzat gauza nahiko normala da. Haien belaunaldian berriz, batzuk hasiak dira filmak eta kirolak ordenagailu bidez ikusten (gehiago gizonezkoen artean):

*BE 37 G: Nik kirola... futbola eta Roja Directan pilo bat bider.*

*BE 40 E b: Baie gizonak ipadean bai ikusten dau ingleseko pelikulak eta ikasteko... bai erabiltzen dau.*

*BE 37 E: Josuk asko erabiltzen dau, estropadak ikusteko eta...*

Helduak 2 adin-taldean ere ezberdintasun argiak ikusten dira belaunaldi ezberdinen telebistarekiko harremanari dagokionez, eta zelanbait ezberdin sentitzen dira, bai nagusiagoekiko eta baita gazteagoen aldean ere. Parte-hartzaile batek adibidez gutxienez hiru belaunaldi ezberdin daudela proposatzen du: amarena, alabarena eta berea. Ama guztiz kokatzen du irratia eta telebistaren belaunaldiaren baitan: irratia goizetan etxeko lanak egitearekin batera entzuteko eta telebista arratsaldean telebista. Alaba urrunduta ikusten du «betiko telebista»-tik eta gehiago jotzen du linean edo «on-line» ikustera ordenagailuan, berak nahi duenean. Eta bere burua bi belaunaldi oso ezberdinen artean kokatzen du, baina gehiago amaren oinordeko bezala:

*SA 52 G: Ba hori, nire amaren garaian ba nik uste dut gehiago dela goizean irratia, eta gero arratsaldean, ya bazkaldu eta gero, etxeko gauzak eginda zeudenean, ba ya telebista. Baina nik uste dut eskema, garai bateko, garai hartako eskema mantentzen dutela bere bizitza, eguneroko bizitzan, ez? Hori, ba lehen ikusten bazuten nobela, ora-in ikusten dute serie hau, eta gauean, pues ateratzen dira, mezeta, edo ez dakit zer, eta jarraitzen dute bere bizimoduarekin, eta gu igual ya eragin, eragin digu gure bizimodu. Gure gurasoak, edo nere amaren kasuan behintzat, berak jarraitu du bere eskema, bere bizitzeko eskemarekin eta adaptatu zuen telebista, eta gu ya igual pixka bat igual adaptatu gara, «bueno, zer ematen dute telebistan?», igual egiten genuen... Eta gure alaba ya telebista on-line. Hiru gauza desberdin dira.*

Belaunaldi zaharrekiko ezberdintasun nagusia telebistako edukien inguruko interesetan ikusten dute. Nagusiak oro har oso eduki zehatzen zaletzat dituzte: lehiaketak, kirolak, bakeroen filmak, telenobela, meza, albisteak...

*MU 51 E: Interes diferenteak, bai. Kirola jarraitzen dute, nik ikusten dudanez.*

*MODERATZAILEA: Igual gehiago konkursotara eta edo?*

*MU 55 E: Konkursoak be bai, normalean pelikulak ez.*

*MU 51 E: Eh, bai, los de ETB2, indios eta vaqueros, ez dakit nola...*

*MU 55 E: Ai, bai, bakeroenak, antzinako pelikulak, bueno, ETBko pelikulek, bakeronak...*

*MU 51 E: Nire semea bezala, nire aitak uste dut ya buruz jakin behar dituela danak.*

*MU 55 E: Bai, ya repedituten ta...*

Baina saltorik handiena gazteenekiko sentitzen dute oro har. Alde batetatik ohi-tura, jarrera. interes zaletasunei dagokienez:

*LE 57 G: Nik pentsetan dot andra-gizonok konpondu itten garena. Konpondu ez diezananak eitten gaztiak dira, ze dauke game boyxa, dauke ordenadora edo dauke beste jolas baten bat... «Ha, ez jat gustaten, banoia», haren erabakixe horixe da, o sea, niretzako egoistie ez da geu, da bera: ez badozu ipintzen berak nahi dabena, alde eitten dau. Eta nik askotan esan diot, neuk nahi ez ikusi ezer, andriak programa bat, semiak beste programa bat, eta ala ba bueno, trabarik ez eitxiarren... bata edo bestie ikusten, baina ez neure gustukoa dalako!.*

Eta bestetik gaitasun eta trebetasunei dagokienean ere bai: dela teknologia berriak menperatzeko, hizkuntza ezberdinetan telebista ikusteko... Seme-alabekin alderatuta, haien burua mugatuago sumatzen dute:

*MU 51 E: ...telebistan eurek ikusten dituztela gauzak guk gure, bere adinean ikusten ez genituenak. O sea, bueno, daukatelako ere aukera askoz zabalagoa telebistan, ez? Eta ere hizkuntzan, o sea, guk ikusten genuen gazteleraz bakarrik, ez zegoelako besterik, eta eurei gaur egun berdin zaie ipini kate bat ingelesez eta jarraitzen dute, bestea, edo euskeraz, edo gazteleraz, edo, hizkuntza ez dala muga bat eurentzat, osea... eta gainera eskatzen diozu itzultzeko ez baduzu ondo ulertu, «zer esaten ari da?, hau ondo ulerto dot edo?», eta barra-barra, o sea, alde horretatik berdin zaie, muga gutxiago dittuzte.*

Komunikazio teknologien erabilera eta domeinuak gainera telebistarekin duten harremana aldatzen duela uste dute, inoiz arreta osoa eskainiko ez baliote bezala, eta toki bakarrean egotearekin nahikoa ez balute bezala:

*MU 56 E: ... eta telebistagaz eta danagaz, eta nik esaten dot, «zelan ailegako da danara?», ba danara ailegaten direz, ez dait nik zelan eitten deren, baina hori bai, akostunbra direz de tal manera, que horretarako ailegaten dakea.*

*MU 55 E: Bai, bai, euren mobilegaz, eta telebista...*

*MU 56 E: Eta bat edo bi, eta konbersazio emoten dotzu pertsona bigez edo hirugez, eh? Idazten, tita, tita, tita, eta zeugaz dau han bere bai. Horretarako diferente completamente gara eh? Osea, esan gura dot, gure epoka, edo nire gaztedie eta euron edadie oin, no tiene nada que ver, esaten dana, nada, nada. Urte gitxitten kanbia da...*

Belaunaldien baitan ere ezberdintasun handiak daudela argi duten arren, gurasoen eta seme-alaben arteko trantsizio belaunaldi bezala ikusten dute haiena, eta telebistak informazioan galdu duen zentraltasuna aipatzen dute hau argitzeko:



LE 52 E: *Ya baino igual ikuspegixa, gure gurasoena hurbilago dagola nik neuri, pent-satzen dot, gure gaztiena baino. Gure gaztiak, ba bueno... telebista ikusten dabe, bai, baina bueno, diraz gauza konkretuak, guk informaziñorako erabiltzen dogu asko, eu-rak ez, eurak denbora pasa gehixago.*

Azkenik, nagusien adin-taldeko parte-hartzaileek ez dute soilik belaunaldien artean ezberdintasunak daudenik uste, ezberdintasunak gero eta handiagoak, eta aldaketak gero eta azkarragoak direnaz ziur agertzen dira. Aurreko adin-taldeak aipatzen duten garaien aldaketaren kontzientzia argia azaltzen dute, zentzu horretan:

AU 67 G: *Hombre! Generazinoie? Oin eh hamar urtetik aldatzen generazinoie! Bai. Nik baietz pentzetan dot.*

AU 85 E: *Nik bebai.*

AU 67 G: *Ze, bueno, nigandik, nire seme zaharrena ez zan asko be aldatu. Baina seme zaharrenetik bigarrena... urte bin aldin aldatu zan. Eta gero besti, bederatzi urte gaztia da, akabo! Eta holantxerik. Eta bueno, lobatxuk? Akabo!*

AU 71 G: *Hasi zaneko hamar urtin hor egon zan asko...*

AU 67 G: *Asko, asko, aldatu eh exajerau.*

Aldaketak batez ere teknologia berriek ekarri dituztela uste dute, orokorrean, baina ez soilik. Eskolatik bertatik hasita aldaketa nabarmenak ikusten dituzte ikas-teko modutik hasita. Gurasoek koaderno, arkatz eta boligraforik apenas erabiltzen ez duten bezala, egungo umeen matematikak ikasteko moduak ere arrotzak zaizkie.

AU 71 G: *Horixe erakusten dotzielako oin eskolatik. Oin eskolan tabliek multiplicarrik ez deko, ta dividir zertzeko... Dana zerakin, makinakin dana. Da hareri esaiozue, sumar eh... harek ez dakixie sumar zelan dan! Ez restar ez dividir da... regla de interés da regla de tres da... ikesi geuntzenak, esaiezu harei...*

Teknologiarekin oso lotuta ikusten dituzte belaunaldi gazteenak, eta hor sumatzen dute haien belaunaldiekiko ezberdintasun handiena: edozer egiteko ere, makinak eta teknologia tartean dituztela uste baitute. Haiek, aldiz, urrun sentitzen dituzte teknologia berrienak. Zentzu horretan, belaunaldi berriak telebistatik baino, internetetik hurbilago ikusten dituzte. Txikitari oraindik telebistan marrazki bizidunak eta ikusten dituzte, baina hazi ahala internetera hurbiltzen dira gehiago, telebistaren aurrean denbora gutxiago emanez parte-hartzaile askoren ustez. Gainera haien garaiarekin alderatuta umeek apenas duten denborarik, eskolako eta eskolaz kanpoko lanekin.

AU 71 G: *Eske gaztiek gitxiau, oin telebisinoa useuko dabe. Ordenadorak, gaur eh hainbeste... makinilla deuken lez...*

AU 85 E: *Internetera oin. (...) Baina apur bet zahartxuaguek ya internetagaz da...*

AU 71 G: *Gaur telebisinorako denbora gitxia geratzen jekie...*

AU 75 E: *Euki be ez deuke. Euki be ez deuke gero denborarik eh?*

BI 88 G b: *Gure beste ez. Gure beste ez. (...) Harek beste gauze batzuk dekiez, beste gauza batzuk. Guri gaurko partidue ikusten badogu, partidue eureri ez jakie gusetan...*

*LE 78 E: Bai, bai bai. Nitzako gaztiekin ez dagoz e behin sasoi bateko pertsonan modura, telebisinoiari inkata e? Ez dot pentsaten ez. Nik ikusten dot por lo menos, nago... egoten nazen gaztiekin nitzako gehixau dau sartuta eh? Internetetik eta, hori e «con la red» horrek gehixau jokaturten dabela e? Neuk pentsaten dot e?.*

Laburbilduz, ikus dezakegu lau adin-taldeek errepikatzen dutela eskema bera norberaren belaunaldia ezaugarritu eta bereizterako orduan: aurreko eta ondorengo (guraso eta seme-alaba, zaharrago eta gazteago...) belaunaldiekin ezberdintasun eta antzekotasunak aipatzea alegia. 45. irudian lau adin taldeen (gorriz Gazteak, horiz Helduak 1, berdez Helduak 2 eta urdinez Nagusiak) in vivo kode esanguratsuenak bildu ditugu, logika honi jarraituz. Hala, talde bakoitzaren baitan goikaldean aurreko belaunaldien ezaugarriak jaso ditugu, behekaldean ondorengoenak, eta tartean norbere belaunaldiarekin lotzen direnak.

Behin adin-taldeek belaunaldietan partaidetzari buruz eta belaunaldien arteko ezberdintasunei buruz esandakoa aurkeztuta, azter ditzagun adin-taldeek agertzen dituzten antzekotasun eta aldeak belaunaldien perspektibatik. Lan horri ekingo diogu datozen lerroetan.

### 6.3.3. BELAUNALDIAK ETA TELEBISTAREKIKO AISIAZKO HARREMANA

Adin-taldeen telebistarekiko esperientziaren eta harremanaren karakterizazioan ikusi dugun bezala, aztertutako lau adin-taldeek ezaugarri berezkoak agertzen dituzte telebistarekin lotutako aisiari dagokionez, bai aisiaren koordinatuen aldetik (autotelikoa, exotelikoa, absentea eta kaltegarria), eta baita Astia-Aldia-Aisia ereduari dagokionez ere. Horrela, lau taldeak garbi bereiz daitezke ezaugarri propioen konstruktio bezala. Barne-kohesio eta diskurtsoaren koherentzia maila altua agertzen duten eta elkarren ondoan dauden errealitate bereizi bezala har ditzakegu.


#### 41. IRUDIA: ADIN TALDEEN KARAKTERIZAZIOA



Iturria. norberak egina.

Aisiaren koordinatuei dagokienez, ikusi dugu adin-taldeek oso ezaugarri definituak agertzen dituztela. Horrenbeste, ezen telebistaren aisiazko esperientziaren arketipo bezala aurkeztu daitezkeen, lehen begirada batean.

## 42. IRUDIA: GAZTEAK ETA AISIAREN KOORDENATUAK



Iturria. norberak egina.

bizipen askoz ere atsegingarri eta kontrolpekoagoak kontaktzen dituzte haien jardunean. Oro har, telebista erabili eta apreziatzen dutela esan daiteke, gazteek harekiko harreman gatazkatsu eta kritikoa agertzen duten artean.

Helduak 1 taldekideek gazteek baino askoz ikuspegi baikorragoa agertu dute telebistarekiko, norberaren aisialdiaren gozamenarekin lotuz zuzenean. Telebista, adin tarte honetako taldekideentzat gozamen, atsenden hartze, etxe-girotze, familia-batze eta ahalegin handirik gabe informatzeko aukerak zabaltzen dituen tresna da, bere muga eta akats guztiakin ere. Kritikak, egonagatik, eduki eta erabilera partikularretara zuzentzen dira hala.


Helduak 2 adin-taldean ere ikuspegi positiboa, baikorra da nagusi: telebistak entretenimendu, informazio, deskonexio eta

Gazteek, horrela, este adin-talde guztiak baino askoz telebistaren esperientzia ezkor eta kritikoa-goa agertu dute, asperrarekin, beste ezer egin ahal/jakin ez izatearekin eta eguneroko automatismoarekin lotutakoa.

Marko horren baitan, telebistarekin lotutako esperientzia baliotsuak oso une eta eduki jakinekin lotuta agertu dituzte, eta gehienetan egunerokotasuna girotzeko tresna ekidiezin bezala hartu dute gailua.


Helduak, aldiz, askoz baikorrago agertu dira aztertutako bi adin-taldeetan. Gazteekin alderatuta telebistaren ulermolde eta

## 43. IRUDIA: HELDUAK 1 ETA AISIAREN KOORDENATUAK



Iturria. norberak egina.

#### 44. IRUDIA: HELDUAK 2 ETA AISIAREN KOORDENATUAK



Iturria. norberak egina.

arazo, eta norberaren eta etxekoan nahi eta beharrei erantzuten diola uste dute, hein handi batean.


Nagusien kasuan ere agerikoa da telebista norberaren behar eta nahi egokitzen zaiola iriztea, batez ere bestelako aisiazko jardueretan aritzeko autonomia mugatua duten pertsonen kasuan. Hala, aitortu egiten zaio egunerokotasunaren hutsari aurre egiteko duen balioa, baina zentzu positibo batean hartzen da, eskura dagoen baliabide baliotsu gisa, ez gazteen artean ohikoa den erresuminarekin. Telebistak betetzen duen hutsa, ez da hutsala, hortaz.

Nagusiak helduekin bat datoz kritikarik zorrotzenak eduki jakin batzuei zuzentzerako orduan, baina hauek azaltzen ez duten miresmen eta esker ona agertzen

atseden hartzeko aukera oparoak zabaltzen dituela deritzote oro har, baita norberaren zaletasuna garatu eta gozatzeko abaguneak ere. Kritikak, eduki jakinei eta norberak telebistari eman diezaizkion erabilera okerre zuzentzen zaizkie, batez ere, telebista ereduarekiko ardura ere egon bada goen arren.

Lau adin-taldean artean antzekotasun nabarmenenak azaltzen dituztenak dira Helduen bi taldeak, zalantzarik gabe. Eguneroko egin-kizun eta betebeharretatik atsedeen hartzeko tarteak sortzeko gaitasuna aitortzen diote, arazoak

#### 45. IRUDIA: NAGUSIAK ETA AISIAREN KOORDENATUAK



Iturria. norberak egina.

dute telebistarekiko. Gazteek emantzat, ekidiezintzat, eta batzuetan gorrotagarritzat duten telebistaren errealitatea, nagusien artean eskertzeko eta miresteko zerbait da, eta telebistarekin ez balego haien eguneroko bizitza tristeagoa, aspergarriagoa eta pobregoa litzatekeela deritze.

Horrela bada, esan dezakegu telebistarengandik hurbilen sentitzen den adin taldea nagusiena dela, ondoren Helduak 2 eta Helduak 1 taldeak, eta azkenik Gazteak taldea kokatzen dela urrunen, edo mesfidatiago, telebistarekiko. Aisiaren norabide-tasunari eta koordinatuei erreparatuta, eta ahozko kontakizunean jasotako informazioaren adin-taldekako karakterizazioari jarraiki, belaunaldiak telebistarengandik urruntzen doaz, nagusienetatik gazteenetara, elkarrekin antzekotasun eta adostasun puntuak agertzen dituzten arren (girotzeko eta laguntasuna emateko gaitasuna, informazio eta entretenimendurako aukerak, egteko beste ezer hobeari aurkitzen ez denerako aukera...). Hori horrela dela esan dezakegu adin-taldeen elkarrekiko agertzen dituzten bereizgarri eta antzekotasun orokor hauek aztertutako kasuen errealitate orokorra islatzen duten heinean.

Baina adin-tarteen arabera osatutako talde hauen telebistarekiko esperientzien kontakizuna modu agregatu eta globalean alderatzea ez da nahikoa belaunaldi ezberdinen telebistarekiko aisiazko harremanak aztertzeko. Belaunaldiaren kontzeptuak norberaren eta besteen talde-partaidetza, talde-nortasunaren elementua barne biltzea eskatzen digu.. Horretarako ezinbestekoa zaigu adin-taldeen baitan norberaren eta besteen belaunaldien eraikuntza eta partaidetzari buruz esandakoak berreskuratzea.

Belaunaldiei emic eta etic perspektibetatik erreparatuta, merezi du adin-talde bakoitzetik norberaren belaunaldiari eta beste belaunaldiei egotzen zaizkien ezaugarriak gogora ekartzeak. Horretarako 26. taulan adin-taldeen (errenkaderan) haien belaunaldiarekiko eta aurreko eta geroagoko belaunaldiekiko esandakoa laburtu dugu:

## 26. TAULA: ADIN TALDEEN BELAUNALDIEN EZAUGARRITZEA

	Nagusiagoak	Norberarena	Gazteagoak
Gazteak	Edo telebistari oso lotuta, edo bestela batere ikusi ez. Konformakorra goak. Ezer espero ez telebistarengandik.	Garai baten aldaketa. Mobilaren belaunaldia. Teknologia kontsumoa. Telebista betidanik «hor» egon da, ekidiezina.	Kriteriorik gabekoak. Konformakorra goak. Talde presioaren eragina. Telebista bigarren maila batean.
Helduak 1	Telebista itzali ere ez, egun osoan piztuta. Aitak agindu zer ikusi. Bakeroak, Cantinflas. Internetik ez.	Trantsizio belaunaldia. Gazteak baino telebista zaleagoak. Internetekin ohitzen hasita.	Oso telebista zaleak, edo telebistarik behar ez dutenak. Mobila askoz inportanteago. Interneten erabilera.

	Nagusiagoak	Norberarena	Gazteagoak
Helduak 2	Goizetan irratia, arratsaldean telebista. Telebista aldatu dena baino gutxiago aldatu dira. Ohituraren indarra.	Telebistaren aldaketaren lekuko, moldatuz. Teknologiaren aukera berriak (irratia, internet...). Telebistak lehen toki handiagoa hartzen zuen.	Lineako telebista. Telebista birtuala. Nork nahi duena ikusteko ohitura (bakoitza bere pantailaren aurrean). Muga gutxiago.
Nagusiak	Idatzi aurreko kultura (matematikak...). Erlojurik gabeko garaia. Telebista heldu aurreko garaiak	Telebista eta telefonoa noiz heldu ziren gogoan. Aldaketa azeleratuaren lekuko. Internetik ez.	Makinei erabat lotuta. Pazientzia gutxiago. Egiteko gauza gehiago (eskolan, eskolaz kanpo, interneten).

Iturria. norberak egina<sup>518</sup>.

Oro har, bi ondorio argi ondoriozta daitezke: Batetik, ikusten denez, adin-taldeek beste belaunaldietan proiektatzen dituztela beste batzuek haiengan ere ikusten dituzten ezaugarriak; edo, bestela esanda, kriterio subjektiboak nagusitzen direla belaunaldiak ezaugarritzerako orduan. Bigarren, adin-taldeak garbi banatu eta bereiztu daitezkeen arren, belaunaldiak haien artean gurutzatu, nahasi eta gainjartzen direla ikusi daiteke, adin talde bakoitzaren belaunaldien erreferentziak orokorrean aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak eta ilobak izan ohi direlako.

Hala, adin-taldeak ikerlariak irizpide objektibo eta aurrez ezarritakoen (adin-tarteak) arabera eraikitako kategoriak diren artean, belaunaldiak parte-hartzaileek irizpide subjektibo eta erlatiboen arabera eraiki eta negoziatzen diren konstruktioak dira. Lehenengoak hauen atributu objektiboen arabera argi eta garbi bereizi eta modu agregatuan karakterizatu ditzakegun artean<sup>519</sup>, bigarrenak elkarren eraginean aurkitzen diren eraikuntza erlatibo eta dinamikoak dira. Errealitate isolatuak izatetik urrun, gainera, adin-talde guztiek eman digute belaunaldien arteko elkarrekintza eta kontaktuaren berri. Belaunaldiek telebistaren esperientzia mediatzen dutela esan dezakegu: telebistarekiko harremana elkarrekin burutzen dute, elkarrengandik jasotzen dute telebistaren berri, eta elkarrengandik aldendu eta elkarrengana hurbiltzen dira, telebista bera aldatuz doan heinean. Hainbeste, ezen hainbat parte-hartzailek, batez ere kasu kritiko bezala identifikatutako pertsonak beren burua aldi berean belaunaldi bat baino gehiagotan identifikatuta ikusten duten.


Agian, nagusien adin-taldean iradokitzen den legez, komunikabideen bateratze digitala eta ekosistema mediatikoaren ematen ari diren aldaketak belaunaldien

<sup>518</sup> Belaunaldiei buruz (bai norberarenak eta bai besteak) esandako guztia lerro gutxitan biltzea ezinezkoa denez, adostasun handiena jaso duten ezaugarriak jaso ditugu, labur edierazteko moduan birformulatuz. Norberaren eta besteen belaunaldien inguruan esandakoak kontsultatzeko jo kapitulu honetako «Adin-talde eta belaunaldien arteko harremana» atalera.

<sup>519</sup> Ikus «adin-taldeak eta telebistarekiko aisiazko esperientzien karakterizazioa».

agerpena azeleratzen ari dira, aldaketak gero eta bizkorragoak dira, eta, horrenbestez, belaunaldien arteko elkarbizitza eta elkarbizitza ere agerikoagoa bihurtzen ari da gure garaian. Horri buruz jardungu dugu hurrengo atalean, telebistaren aisiazko ontologiari buruzko hipotesi esplikatiboan.

#### 46. IRUDIA: BELAUNALDIAK ETA HAIEN ARTEKO KONTAKTUA



Iturria. norberak egina.

### 6.4. KASU AZTERKETAREN EREDU ESPLIKATIBO-INTERPRETATIBOA

Kapitulu honen aurreko atalean telebistareren esperientzien karakterizazioa orokorra proposatu dugu, aisiaren koordinatuei eta landutako lau adin-taldeen inguruan, eta belaunaldiaren kontzeptua erabili dugu taldeen arteko berdintasun eta ezberdintasunak zaltzeko. Hala, bi hurbilketa epistemologiko hauek uztartu ditugu telebistaren aisiazko esperientzien errealitate subjektibo eta ideografikoa ezagutu eta ordenatze aldera. Telebistaren esperientziaren aisiazko karakterizazio honek aisiazko ikuspegi batetatik telebista eta telebista ikustea adin-talde ezberdinentzat zer diren marraztera, eta ulerkerak hauen ezaugarri nagusiak zehaztera eramane gaitu, jakinik pertsonen esperientzia partikularra modu honetan taldekatu eta laburtzeak ez diola justiziarik egiten eguneroko esperientziaren dimentsio eta kasu aniztasunari.

Datozen orrialdeetako kasu azterketaren eredu esplikatibo-interpretatiboan, berriz, pausu bat gehiago eman eta esperientziaren karakterizazioan behatutako ezaugarri hauen marko interpretatibo orokorra osatzen saiatuko gara. Horretarako telebistarekin lotutako aisiarako hurbilketa integralaren Astia-Aldia-Aisia ereduaren berriskuratu dugu, telebistarekiko aisiazko harremanen kategorizazio lana erpina burutzeko, astizko, aldizko eta aisiazko kategorietatik abiatuta. Aurrekategoria hauek abiatuta belaunaldien telebistarekiko aisiazko harremanen kategorizazio teorikoa osatuko dugu, taldeen artean aurkitu ditugun paralelotasun eta dibergentzien azalpena proposatuz.

Ondoren adin-taldeen eta belaunaldien arteko harremanari helduko diogu. Alde batetatik adin-taldeen artean identifikatu diren antzekotasun eta ezberdintasunen muina eta zergatia aztertuko ditugu. Bestetik belaunaldiaren kontzeptuari helduko diogu, adin-taldeen duen harremanari helduz eta parte-hartzaileentzat kontzep-

tuak duen zeresana mahai gainera ekarriz, telebistaren aisiazko harremanengan duen zeresana eta zergatia aztertu aurretik.


Amaitzeko belaualdi ezberdinen telebistarekiko aisiazko harremanen proposamen teorikoa zehaztuko dugu.

#### 6.4.1. KATEGORIZAZIO ETA BIRKODEKETA PROZESUA

4, kapituluaz azaldu bezala, bigarren zikloko kodeketak eta kodeketa teorikoak lehen zikloko kodeak familiatan elkartu, lehen aurrekategoriak osatu eta kategoriazberdinak, hauen dimentsioak eta haien arteko harremanak zehaztea ahalbidetu digu<sup>520</sup>.

Horretarako Astia-Aldia-Aisia eredua eta lehen zikloko kodeketa izan ditugu oinarri eta azken portu, telebistaren aisiazko harremanen aldagai objektibo eta subjektiboak kontuan hartu eta eredu esplikatiibo-interpretatiibo osatze aldera. Landa-lanean zehar jasotako informazioa modu ordenatu eta alderagarrian berreskuratu eta ikusarazteaz gain, eredu honek ATLAS. ti programaren teoria eraikuntzarako tresnak baliatuz kasu azterketaren proposamen teorikoa jostea erraztu digu. 52. irudiak kategorizazio lanaren oinarria den Astia-Aldia-Aisia eredua berreskuratzen du:

#### 47. IRUDIA: KATEGORIZAZIOAREN OINARRIA, ASTIA-ALDIA-AISIA EREDUA



Iturria. norberak egina.

Kategoriak osatzerako orduan hurbilketa abduktiboak erabili dugu, ikerlariak aurrez-aurretik edo «goitik behera» ezarritako kode fokalizatuak eta parte-hartzaileek haien jardunean ahierazitako esapideak (In vivo kode bezala jasoak) elkarlotuz, birkodeketa burutu ahal izateko QDA planteamenduaren baitan. Kategorizazio teoriko honek, hortaz, ikerlariaren ardura eta parte-hartzaileen diskurtsoaren arteko erdibideko interpretazioa eskaintzea du helburu.

<sup>520</sup> Ikus, 4. Kapituluaz «Kodeketa teorikoa (ZERGATIK)».



Bi fasetan egin dugu Astia-Aldia-Aisia ereduaren arabeko kategorizazio lana. Lehenengo fasean In vivo kodeketen funtsatze eta dentsitatearen miaketa induktiboa burutu da adin-taldeka, termino natibo esanguratsuenak identifikatuz eta elkarren arteko harreman semantikoak eratuz lehen aurrekategoriak sortzeko. Lan hau kategorien, adin-taldeen eta eztabaiden barne-aberastasuna islatzeko lagungarri izan zaigu eta eredu esplikatiboaren oinarri induktiboa osatzeko ezinbestekoa.

Behin in vivo miaketa burututa, Astia-Aldia-Aisia ereduaren arabeko kategorizazioa eraikitzeke begirada induktiboaren aberastasuna eta begirada deduktiboaren alderagarritasuna uztartuko dituen jorsketa abduktiboaren alde egin da, horretarako kodeketa modu ezberdinak elkarren harremanean jarritz.

Prozesu honen balioa kodeketa teorikoaren izaera abduktiboan datza, azterketa kategoria deduktiboak parte-hartzaileen kontakizun eta adierazpenen arabera birtentsatu bai dira, azken proposamen esplikatibo-interpretatiboari begira. Kategoria teoriko bakoitzaren izaera abduktibo honen adierazgarri adin-taldeka jaso diren in-vivo termino esanguratsuenak kontsulta daitezke, telebistaren aisiazko harremanen astizko, aldizko eta aisiazko kategoriei dagozkien tauletan<sup>521</sup>.

Ohar bezala, aipatu behar da ez direla «Telebistako edukiak» kategoriaren menpeko in vivo kode guztiak erakusten, gehiegi direlako. Hori beharrean «1.8 Telebistako edukiak» kode egituratzailearen baitako «Telebista ikusten dozuenean zer eitten dozue, alde aurretik pentzeu zer ikusiko dozuen eta horixe ikusi,edo telebistaren aurrien ipini eta ikusi zer dauen?» galdera edo kode egituratzailearekin lotutako In Vivo kodeak jaso dira.

#### 6.4.2. TELEBISTAREKIKO AISIAZKO HARREMANEN MARKO INTERPRETATIBOA

Behin birkodeketa eta kategorizazio lana nola burutu dugun azalduta, telebistarekiko aisiazko harremanen kategorizazio orokorra aurkezteko unea da. Kategorizazio honen helburua adin-taldeen eta belaunaldien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak azaltzean datza, deskribapen soiletik harago joan eta jasotako informazioaren eta alde aurretik marraztutako karakterizazioaren marko interpretatibo global bat eskainiz. Marko hau telebistarekiko aisiazko harremanen kategorizazio orokorraren bidez aurkezten da, Astia-Aldia-Aisia ereduari jarraituz, hiru erpinen inguruan antolatutako 12 kategoria teorikoren inguruan antolatuta.

Astiaren erpinean kokatuta telebistarekin lotutako askatasun sumatuaren esparru tenporalaren pertzepzio eta bizipenaren interpretaziorako hiru kategoria teoriko proposatzen ditugu: «Astialdia, norberarena den denbora», «Telebista, astiaren alde eta kontra» eta «Telebistaldiak, denbora pasatik denbora galtzera».

Aldia erpinean aldiz telebista ikustearen praktikaren espazio eta denborazko koordenatuak jaso ditugu, praktikaren gauzatze objektibo eta subjektiboak bilduz

<sup>521</sup> Ikus eranskinetan Telebistaren aisiazko harremanen astizko, aldizko eta aisiazko kategoriak: in vivo kodeak, adin-taldeka.

bost kategoria teorikotan: «telebista, aldien eragin eta aldi-eragile», «telebistari eskaintzen zaion arreta», «telebistako edukiak», «edukien gaineko kontrola», «telebista eta laguntasuna» eta «telebistaren presentzia fisikoa».

Aisia erpinean, azkenik telebistaren aisiazko bizipen eta esperientzia pertsonalari heldu zaio propio, lau kategoria teoriko nagusiren bidez: «telebistaren egungo errealitatea», «telebistaren erabilgarritasun eta arriskuak», «telebistaren aukerak» eta «telebistaren bizipena».

Hiru erpinek, elkarrekin harremanean, pertsonen telebistarekiko aisiazko harremanak aztertu eta azaltzeko eredu teoriko integral bat osatzen dute, aisiaren dimentsio objektibo eta subjektiboei erreparatu, telebistaren aisiazko errealitate anitzak aitortu eta telebistarekin lotutako aisiazko esperientzien kontakizuna jasotzeko ahalmena eskainiz.

Ereduaren hiru erpinak, eta berauei lotutako kategoria teorikoak ez dira, noski, errealitate itxi eta isolatu bezala ulertu behar, elkar eraginean dauden konstruktio dinamiko bezala baizik. QDA planteamenduaren printzipioak jarraiki, marko interpretatibo bezala berrikusketara irekita daude, eta prospekzio ziklo berriak abiatzea ahalbidetzen dute. Hurrengo orrialdean aurkezten den 55. irudiak jasotzen duen kasu azterketaren marko interpretatiboak aldi berean osatzen du ikerketa honen helmuga, eta abiapuntu berri bat. Datozen orrialdeetan hamabi kategoria teoriko hauek azalduko ditugu.

#### **6.4.2.1. Astizko kategoriak**

Astizko kategorietan telebistaren esperientziari eragiten dioten astiarekin lotutako elementu nagusiak bildu ditugu, berau pertsonaren askatasun erlatibo eta sumatuaren esparru tenporal bezala ulertuta.


- **Astialdia; norberarena den denbora**

Telebista ikustea norberaren denbora objektibo eta subjektiboan txertatzen den jarduera da, egunerokoaren joanaren esperientziarekin zerikusi zuzena du, eta honen testigantza ematen digu. Astialdia norberaren askatasun-esparrua da, betebeharririk gabekoa, edo hobeto esanda, behin betebeharreri erantzunda betetzen dena. Hala, beti objektiboki eta subjektiboki kokatuta agertzen zaigu, bai astirik gabeko egunerokoaren tarteekiko eta baita denbora honen baldintzapen fisikoekiko (eguraldia, espazioa, ordutegiak, erregulartasuna...).

- **Telebista; astiaren alde eta kontra**

Telebista ikustek ez dakar automatikoki eta ezinbestean astiaren zuzeneko bizipena; norberarena bezala sumatua den denborazko esparrua sortzen lagun dezake, atsedean eta atseginerako tarteak sortzen lagunduz, edo asti hau zurrupatu eta hustu dezake, itxurazko aukera eskainiz, baina damuari atea zabalduz gero. Asti-sortzaile edo asti-deusezle bezala funtzionatu dezake, horretara, askatasun somatua piztuz edo oztopatuz.

## 48. IRUDIA: ASTIZKO KATEGORIAK



Iturria. norberak egina.

- **Telebistaldiak, denbora pasatik denbora galtzera**

Telebista ikustearen denborak ere, astiarekiko harremanean, ehundura ezberdinak har ditzake ezaugarri objektibo eta subjektiboen arabera. Entretanimendu, informazio edo dibertimenduzko tartek zentzua har dezake, emandako denbora esanguratsu eginez, edo zentzugabekeria eta galeraren sentipena agerraraziz. Edukiak zeresan handia du, inbertitutako astiari ateratako etekin esperientzian, baina batez ere astiari ematen zaion esanahiak baldintzatzen du azken bizipena.


#### 6.4.2.2. Aldizko kategoriak

Aldizko kategorietan telebistarekin lotutako jarduerak hartzen dituzten espazio eta denbora koordinatuak bildu ditugu, telebistaren esperientzia kokatzen duten elementu eta baldintza objektibo eta subjektiboak.

- **Telebista, aldien eragin eta aldi-eragile**

Zaletasun edo interes jakinen aurretik, bada telebista bat eguneko momentuei eta igorritako edukien ordutegiei lotutakoa, errutina, ohitura eta egunerokotasunari erreferentzia egiten diona. Telebista ikusteko tartek sortu eta sumatzen dira horrela, eguneroko esperientzian txertatuta, eta hauei egiten zaie erreferentzia telebista ikusten den ala ez, asko edo gutxi ikusten ote den kontatzerako orduan.

## 49. IRUDIA: ALDIZKO KATEGORIAK



Iturria. norberak egina.

Badira egunaren eta astearen tarte batzuk, telebista ikusteko tarte bezala bizi eta aitortzen direnak. Horrela, telebista ikustearen jarduerak eguneroko espazio (etxea, sukaldea, logela...) eta denborak (bazkalordua, afalordua, bazkalostea) josten ditu, egunaren aldi ezberdinak artikulatzeko gaitasuna agertzen du, eta artikulazio honen hausnarketak ematen dio bidea telebistak egunerokoan hartzen duen paperaren kontakizunari.

Gustoko programazioa (albistegiak, serieak, filmak, realityak...) zein norberaren eta inguruko eguneroko errutina eta ohiturak (bazkaria prestatzea, afaltzea, umeak oheratzea...) telebista ikustearen jardueran eta esperientzian modu bereiztezin txertatzen dira, eta horrela telebista ikustea denbora, espazio eta ohituen gurutzbidean kokatuta agertzen zaigu, eguneroko aldiek eraginda, eta eguneroko aldi-eragile bezala. Zentzu horretan, ikusten den telebista kantitatea, edo telebistaldi-hedapena eta maiztasuna, ezin dira bere horretan soilik ulertu, eguneroko aldi ezberdinekin harremanean baino.

- **Telebistaren presentzia fisikoa**

Abiapuntutzat hartu dugun telebistarekiko hurbilketa agnostikoak ez du esan nahi honi materialtasuna kendu nahi diogunik. Telebista ez da mamu edo gorputzik gabeko izpiritu bat; espazio fisikoa okupatzen duen hartzaile elektronikoa ere bada. Gailu hauek, haien tamaina, kopuru, teknologia eta periferikoekin, presentzia fisikoa daukate pertsonen eguneroko espazioetan, eta presentzia honen azterketak telebistaren esperientziari buruz asko esten digu.

Telebistak eguneroko espazioetan okupatzen dituen espazioek, espazio hauetan egiten diren jarduerak, eta berauek girotu eta eraldatzeko agertzen duen gaitasunak zerikusi zuzena dute telebistaren esperientziarekin. Telebistak dauden espazioak bizi-espazioak dira, negoziatuak, eztabaidatuak, bizitakoak, finean, eta telebistak hartzen dituen forma berriek (pantaila lauak, pantaila handiagoak, home cinemak, tablet eta sakeleko telefonoetako pantalak) bizi-espazio hauetan eragin handia dute.

- **Telebistako edukiak**

Telebistaren esperientzia gutxitan azaltzen da, girotze edo laguntasun modura erabiltzen denean ez bada, saioetatik bereizita. Gehienetan programazioak baldintzatzen du gehien parte-hartzailek telebistarekiko azaltzen duten jarrera eta harrera modua. Bereziki bi koordenaturi lotuta agertzen dira telebistako edukiak: aisia autotelikoaren agerpenei lotuta, batetik, elkarrizketatu ditugun pertsona guztiek aipatu baitute eduki jakin batekiko zaletasuna edo interesa, eta aisia kaltegarriaren agerpenei dagokionez, erdeinagarri irizten zaie saio eta formatuekin.

Telebista kate edo kanaleak, berriz, edukien paketatzaile neutral baino, telebista estilo eta formatu bezala hartzen dira sarri, zaletasun eta higuin adierazpenak sorraziz. Sinesgarritasuna, legitimotasuna, kalitate aitortpena, eta telebistaren erabilera eta funtzioak ere sarri telebista-kateei lotuta agertzen dira hala, eta gehienetan, edukia da telebista piztuta izatetik ikustera igarotzeko arrazoiak, baita telebista itzali edo beste telebista batetara alde egitekoa ere.

- **Telebista eta laguntasuna**

Laguntasun edo konpainia terminoak, telebistak eta aisia bezala<sup>522</sup>, termino polisemikoak dira, eta adiera ezberdinak hartzen dituzte telebistarekin harremanean. Zentzu horretan, konpainia edo laguntasuna telebista ikusten den lagunartea bezala ulertu daiteke, edo konpainia egitearen esanahia har dezake («laguntasune», «laguntzinoa»...). Edozelan ere, telebistarekiko aisiazko harremanen elementu zentralenatariko bezala agertzen zaigu behin eta berriro. Hala, telebista ikustea beste esanguratsuekin batera egin eta komentatu daitekeen daitekeen aisiazko jarduera eta giza-konpainiaren ordezkotako, edo gogorazlea izan daiteke aldi berean. Laguntasunak, telebistaren kasuan, esanahi kontrako eta osagarriak agertzen ditu.

*Social TV* edo telebista sozialaren sareko agerpenek, zein landa lanean aurkitu diren sakeleko telefonoen bidezko komunikazio formek, telebista espazio (eta denbora) ezberdinetan ikusita ere, laguntasun eta sozializazioarekin zerikusi handia duten elkarrizketa eta iruzkintze modu hazkorrak iradokitzen dituzte. Elkarrizketa edo berbeta hori funtsezkoa da telebistaren laguntasunaren lehenengo adierari dagokionez: telebistako edukiak unean bertan gertukoekin komentatzea, hurrengo eguneko

<sup>522</sup> Ikus 1. Kapitulum «Aisiaren esanahiak» eta 3. Kapitulum «Telebistaren esanahiak, zentzuak eta plazerrak».

lantoki edo ikastetxeko elkarriketen oinarri txertatzea, sare sozialetan aldi berean zein modu asinkronoan eztabaidatu eta aipatzea... Bateratze multimediak ez ditu telebistaren funtzio sozialak itzali edo estali, alderantziz, piztu egin dituela dirudi, telebistako testuak egunerokotasunaren beste esparruetara iragaziz eta haren laguntasun edo konpainia funtzioak beste une eta espazioetara eramanez. Hala, laguntasunaren kategoriak telebistaren presentzia fisiko eta sozialarekin ere badu lotura, bi norabide ezberdinetan. Alde batetik etxean dagoen telebista kopuruak nork bere edukiak «bere» telebistan ikusteko joera somatzen da, eta bestetik, telebista gailurik gabeko esparruetan ere, bestelako teknologia eta praktika sozialen bidez telebistak presentzia soziala bereganatzen du.

- **Telebistari eskaintzen zaio arreta**

Aisiaren perspektibatik telebista zer den modu bakar eta definitiboan zehaztea ezinezkoa dela argudiatu dugu orain artean. Modu bertsuan, telebista ikustea zer den definitzea ere problematikoa da, aldi bereko jarduerak elkargurutzatu eta interferitutako praktika soziala delako. Hori dela eta, telebistari eskaintzen zaion arreta, telebistarekiko interes eta ardura klabeak dira telebistarekiko aisiazko harremanak aztertzerako orduan. Telebistari egiten zaion jaramona, jartzen den aditasuna, egiten den kasua, aldizko kategoria funtsezkoa da telebistaren eta telebista ikustearen esperientzia ulertzeko, telebista piztuta izatea eta ikustea gauza ezberdinak direlako.

Telebista ikustea gutxitan izan da, historikoki, modu eskusiboan egin den jarduera bat, ikustearen izaera sozialak, telebistaren kokapen etxetiarrak eta egunerokotasunarekiko loturak hasieratik zabaldu baitizkiote aukerak aldibereko jarduera bateragarri, dela beste hedabide batzuk kontsumitzea (prentsa idatzia nagusiki), ikuskideekin solasa edo etxeko lanen ardura hartzea. Egun, bateratze digital eta multimediarekin, telebistak ikus-entzuleen arretari dagokienez inoiz baino lehiakide gehiago dituela argudia daitekeen arren, telebistari eskaintzen zaion arreta aldiberekoa, aldizkako, ezjarraia eta intentsitate aldakorrekoa bezala ageri da parte-hartzaileen kontakizunean.

Hala, eguneroko hainbat jarduera azaltzen dira telebistarekin eta telebista ikustearekin lotuta. Batzuk telebista ikustearen jarduerarekin lotzen dira, bazkaria presatzea, plantxa egitea lo kuluxka botatzea, lagunekin egotea... Telebistarekin osatzen diren harremanaren zati funtsezko bezala aitortzen dira, naiz eta sarri telebista ikustea bera zailtzen edo ezinezko egiten duten. Bestalde, telebistarekin lotuta azaltzen diren teknologien dagokienez (ordenagailua, sakelekoa, bideojoko kontsola, irratia, egunkaria...) elkargurutze interesgarriak planteatzen dituzte arreta-zirkuitu paralelo eta tangentialak eskainiz, telebistarengandik alden du egiten direnak, eta bestetan telebistaren inguruan egituratzen direnak, berau nodo zentral bezala harturik.

Edozelan ere, telebistari eskaintzen zaion arreta ez dago eguneroko aisi eta astialditik berezirik, bertan integratuta baino: arreta kategoria ekidiezina bihurtzen da

telebistaren aldiak egunean eta astean zehar nola banatzen, eraikitzen eta bizitzen diren aztertzerako orduan, eta, modu berean telebistari eskaintako arreta ezinbestean kokatu behar dugu espazio eta denboraren koordinatuetan.

- **Edukien gaineko kontrola**

Telebista neurri handi batean urrunetik igorri edo aukeratutako edukien hartzearekin lotuta badago ere, joera hazkorra ere identifikatu daiteke ikus-entzuleek edukiekiko duten autonomian<sup>523</sup>. Finean, hiru ardatzen inguruan egituratuta aurkitu dugu parte-hartzaileen kontakizunean da edukien gaineko kontrola: zapping edo kate-aldaketan (bi adieratan), edukien truke ordaintzean eta interneten bidez ikus-entzunezko testuak eskuratzean.

Urrutiko agintea izan da tradizioz telebistaren ikus-entzuleari boterearen sinboloa: telebistaren edukiak urrunetik jaso arren, urruneko kontrola eskuetan duen ikus-entzuleak du hartzearen inguruko azkeneko hitza, hark du entzungo diren soinuen eta ikusiko diren irudien gainean azken agintea. Aukera, eskaintzaren araber mugatua bada ere, ikus-entzulearena da horretara. Denborarekin, kate batetik bestera saltoka jarduteari, aukeraketa baino etenduraz osatutako irudi eta soinuen mokokatzeari zapping deitu zaio.

Zappinga, bi erataria ulertu da parte hartzaileek haien kontakizunean: ikusteko zerbaiten bila, edo ikusi nahi ez den zerbaitetatik ihes egiteko (adibidez, iragarkiak) egiten den bilaketa/aukeraketa/erabakitze prozesua, edo, bestela, ikustea merezi ez duen ezer aurkitzeko itxaropenik gabe burutzen den alderraia. Helbururik gabeko noraez bezala, zappingak zaletasun eta arbuioak berdin jasotzen ditu: telebista ikusteko modu bezala aldarrikatzen dutenak, eta denbora galtze hutsa dela uste dutenak. Hala ere, gutxi edo asko, aukeratzeko zein aukeratzeko ezer aurkitzeko esperantzarik gabe egiten denean, telebistarekin oso modu indartsuan lotuta agertzen da zappinga.

Egun, hala ere, zappinga ez da ikus-entzuleak telebistako edukien gaineko kontrola izateko eskura duen aukera bakarra: ikus-entzunezko edukiak euskarri fisikoetan zein seinale digital erosi eta alokatu daitezke, nor bere aukeraketaren arabera determinatuz telebista pantailan azalduko dena. Internetek ere, ikus-entzunezko edukietarako sarbide oparoa eskaintzen du, dela ordenagailutik, sakeleko telefonoetatik edo horretarako prestatutako telebista eta bideojoko kontsolen bidez. Telebistarekin konektatutako teknologia berriek, hala, aginte eta autonomia handiagoa eskaintzen dizkiote telebistaren ikus-entzuleari. Hala ere, ordainketa bidezko edukiaren kontsumo ereduak, zein internet bidezko streaming bidezko zein deskarga bidezko aukerak ahultasun ageriko bat azaltzen dute igorpen tradizioaren aurrean: aurretik zer ikusi jakin behar izatea, telebista aurrean eseri eta dagoenaren artean aukeratu beharrean.


<sup>523</sup> Ikus «Telebista gure garaian» atala, 2. kapituluman.

Edukien gaineko kontrola oso kategoria garrantzitsua da telebistaren esperientzia aztertzerako orduan. Batetik, jada esan bezala aisia autoteliko eta kaltegarriaren koordinatuak batez ere edukiekin lotuta agertzen direlak. Bestetik, edukia aukeratu eta determinatu ahal izateak aisiaren ezaugarri diren askatasun somatu eta norberaren autonomia eta jarduera kritikorako aukera berriak zabaltzen ditu, eta sarri aipatzen da oraindik zehazteko dagoen telebista eredu berri baten ezaugarri posible bezala: edukien gaineko erabakitze ahalmen handiagoa. Zentzu horretan ikus-entzuleei zapping soila ez den aukeraketa eta parte-hartze esparruak zabaltzea etorkizuneko telebistaren bereizgarrietariko bat izan daiteke.

#### 6.4.2.3. Aisiazko kategoriak

Aisiazko kategoriatan telebistarekin harremanean zuzenean aisiaren esperientziarekin lotura duten elementuak bildu ditugu, propio hala adierazitako telebistaren aisiazko bizipenak. Hala, telebistaren eguneroko bizipen subjektibo aske eta atsegingarrien kategoria nagusiak bildu nahi izan ditugu: telebistaren egungo errealitatea, telebistaren bizipena, telebistaren erabilgarritasun eta arriskuak, eta telebistaren aukerak.

### 50. IRUDIA: AISIAZKO KATEGORIAK



Iturria. norberak egina.

- **Telebistaren egungo errealitatea**

Telebistaren errealitatea egunerokotasunean eta egunerokotasunetik ezagutzen da sarri, dela norberaren egunerokotasun partikularra, eta dela kolektiboki eraikitzen, eraldatzen eta gogoratzen den egunerokotasuna. Eguneroko atzealde horren



aurka perfilatuta, telebista argilunez marrazten da, iraganeko telebistarekin alderatuz batetik, eta etorkizuneko telebistarekiko itxaropen eta kezkekin kontrastatuz bestetik, telebistaren errealitatea dinamikoa eta aldakorra dela jakinik.

Horrela, telebistako formatu eta generoek jasan dituzten eraldaketak mintzagai dituzte adin-taldeetako partaideek, dela atzo edo gaurko saioetara zaletasuna aitortzeko nahiz telebistak hartu dituen norabide berrien aurrean alienazioa eta aldentzea adierazteko. Batzuentzat telebista munduaren berri izateko tresna informatiboa da, beste batzuentzat denbora pasatzeko tresna, beste batzuentzat etxean falta ezin den laguna. Norberaren eta inguruko orainaldiaren errealitate horietan txertatuta interpretatzen eta baloratzen dira egungo telebistaren formak eta etorkizunean har ditzakeen bideak, hasi Lurrazaleko Telebista Digitaletik eta seme-alabarekin telebista bidez bideokonferentziaz hitz egin ahal izatera.

- **Telebistaren bizipena**

Telebistaren inguruan pentsatu eta jarduterako orduan emozio, sentimendu eta esperientziek garrantzia handia dute; askotan pentsamendu eta hausnarketa arrazionalak baino gehiago. Telebistaren bizipena kategoriaren baitan telebistarekin lotzen diren emozio eta sentipen positibo zein negatiboak bildu ditugu: poztasunetik amorrrura, beldurretik itxaropenera.

Interesgarria da ikustea oro har ontasun eta txarkeriak, filiak eta fobiak eduki partikularrekin lotzen diren arren, badaudela, egon, telebistarekin zuzenean lotzen diren bizipenak. Hala, telebistarekiko aisiazko bizipen hauek telebistarekiko itxaropen eta ardura abstrakto eta konkretuak barnebiltzen dituzte, eta, aipatzekotan, saio partikularrak ardura hauen adibide bezala azaltzen dira.

- **Telebistaren erabilgarritasun eta arriskuak**

Aurreko kategoriarekin lotuta, baina emozioekin baino eguneroko erabilgarritasun eta erabilerei dagokienez, aisia exotelikoaren koordinatuaren esparruan kokaturik, telebistari ikusten zaizkion erabilera eta arriskuak jaso ditugu.

Hala, telebistaren aisiazko funtzionalitate sumatuak jaso ditugu kategoria honetan, norberaren helburu eta lehentasunen arabera telebistaren balorazio utilitarioa. Pertsona batzuentzat telebistak oso ondo funtzionatzen du haien aisiazko helburuei erantzuteko, eta beste batzuentzat aldiz ez. Kategoria honetan pertsona eta adin-talde ezberdinen topaketa puntu eta aldentzeak jaso ditugu.

- **Telebistaren aukerak**

Gaurkotasunean eta egunerokotasunean txertatutako entitatea izan arren, telebista garapen historiko eta sozial baten produktua da, eta etorkizunean ere eraldatzen jarraituko du. Telebistaren aukerak kategoriaren pean telebistaren aisiazko garapenerako aukera eta bideei buruzko ekarpenak bildu ditugu, bai eduki jakinen inguruan, bai teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeren inguruan, zein telebista ikusteko modurik onenen inguruan.

Ezadostasun handiak jaso diren arren, finean argi gelditu da telebista errealitate dinamikoa dela, eta haren etorkizuneko formak ez daudela guztiz itxita, haren egungo formekiko harremanak ere zati handi batean ikus-entzuleen esku dauden hein berean.

#### 6.4.3. TELEBISTAREN AISIAZKO ONTOLOGIA: HIPOTESI ESPLIKATIBOA

Telebista, errealitate anitz biltzen dituen entitate bezala hartu eta aisiaren perspektibatik aztertu dugu lan honetan, lau adin-talde telebistarekiko aisiazko harremanak oinarri harturik telebistaren aisiazko ontologia bat osatzeko. Behin telebistaren esperientzien eta telebistarekiko harremanen aisiazko karakterizazioa eta adin-talde eta belaunaldien arteko zeresana azalduta, azken atalburu honetan telebistaren izate, existentzia eta esperientzia ezberdinak eta hauekiko uste eta ulerkerak jasoko dituen hipotesi esplikatiboa osatzeko unea da, eraikitako marko interpretatiboa baliatuz.

Lanean zehar telebista aisiarako eta aisiazko artefaktu edo gauzakia dela ikusi dugu, aisiarako eta aisiazko errealitadedun entitate konplexu eta partaidetua. Alde batetik telebista aisiarako artefaktua da, haren entretenimendu, informazio eta dibertimenduzko funtzioak ezinbestean aisiarekin lotuta agertzen direlako. Bateratze digital eta multimediararen agertokian komunikazio plataforma, jarduera eta aztura berriak azaleratzen ari diren arren, telebista ikustea egungo gizarteetako aisiazko jarduera nagusietariko da.<sup>524</sup>

Era berean, komunikabideen ekosistemaren bateratze multimediarako joerak aisiaren garrantzia mahai gaineratu du, komunikabideen ikus-entzulerien erreferentzialtasunari dagokionez. Telebista ez da XXI. mendeko aisiarako komunikazio-artefaktu bakarra, eta plataforma eta zerbitzu berrien agerrera bere burua berrasmatu eta berpentsatzera behartzen du, aisiazko zentraltasunerako lehian. Edozelan ere, telebistak, bere errealitate eta ulerkera anitzetan, lehen mailako aisiazko fenomeno soziala izaten jarraitzen du gure gizartean: aisiaren ulerkera bera baldintzatu eta eraldatzeko gaitasuna agertu duen eragilea. Zentzu horretan, telebistak aisiarako artefaktu bezala jasaten eta jasango dituen aldaketek eragina izango dute gure gizarteko aisiaren agerpen sozialetan.

Bestetik, telebista aisiazko artefaktua ere bada, pertsona eta taldeek harekiko osatzen dituzten eguneroko aisiazko harremanek moldatzen dutelako, finean, haren ulermen eta bizipena. Pertsonen eta taldeen eguneroko aisiazko jarduera, ohitura eta esperientzien markoaren baitan kokatzen da telebista (ikustea), eta telebistak aisia ulertu eta bizitzeko modua eraldatu duen bezala, aisia ulertu eta bizitzeko moduak ere telebistaren esperientzia eta ulerkeran eragin zuzena du. Zentzu horretan, komunikabideen ekosistemaren baitan ematen ari diren aldaketen baitan txertatuta, telebistaren aisiazko artefaktu izaeran datza bere etorkizunaren giltza, bere aldaketa teknologikoetan bainoago. Telebistaren ezaugarri objektibo, inerteak baino, haren eguneroko ulerkera eta esperientzia biziak, subjektuek hari ematen dizkieten eta harengandik eratortzen dituzten esangura eta plazerek konfiguratzeko telebistaren aisiazko errealitatea.

<sup>524</sup> Ikus 3. kapituluaren «Telebistaren denborak» eta «telebistaren lekuak» atalak.

Adin-taldeak eta belaunaldiak hartu ditugu telebistaren aisiarako eta aisiazko izaera hau aztertzeko abiapuntu legez. Berehala ikusi ahal izan dugu belaunaldiak errealitate sozial eta historiko bezala sumatu eta onartzen direla adin-talde ezberdinetako partaideen kontakizunean, eta antzekotasun eta ezberdintasun esanguratsuak azaltzen dituztela telebistarekiko aisiazko harremanean. Hala ere, isolatuta egotetik urrun, elkarreagin, kontaktu eta elkartrukean azaldu zaizkigu belaunaldiak, elkarren ondoko, gainjarritako errealitate bezala, zeinekiko partaidetza elementu objektibo eta subjektiboan inguruan, barrutik eta kanpotik, negoziatzen den etengabe.

Hala, telebista aisiazko eta aisiarako artefaktua bada, belaunaldien arteko aisiazko eta aisiarako artefaktua da. Alde batetik adin-talde ezberdinek telebistarekiko aisiazko harreman antzeratsuak agertzen dituzte, informazio, entretenimendu eta dibertimenduarekin lotutako telebistaren aisiazko esperientzia berezko edo intrintsekoak dei genitzaizkeenak, objektu berarekiko harreman askotarikoak irudikatzen dituztenak. Bestetik, telebista ikustearen praktika eta telebistaren esperientzia adin-taldean artean ematen da, ez soilik hauen baitan, belaunaldien arteko elkarbizitza, elkartruke eta kidegoan. Telebista batez ere familian ikusten da aisiazko jarduera bezala, eta belaunaldi zahar eta gazteagoek elkarrengandik ikasten dute, elkarrekin eztabaidatzen dute eta elkarrekiko negoziatzen dute telebistaren aisiazko izaera, modu kontziente eta inkontzientean. Horrela, telebista etengabea adin-talde eta belaunaldien artean eraiki eta eraisten den aisiazko errealitate soziala da.


Adinak eta belaunaldiekiko afiliazio edo partaidetzak zerikusi zuzena dute telebistarekiko ezartzen diren aisiazko harremanetan. Biak ala biak dira ezinbesteko faktoreak pertsonaren eta taldearen telebistarekiko harremana azaltzerako orduan.

Adin-taldeak telebistarekiko aisiazko harremanen marko materiala, objektiboa osatzen duela esan dezakegu: baldintza biografiko, historiko eta sozialak, baliabide ekonomikoak, eskura dagoen astia, aukeran dauden aisiazko jarduerak, ordutegiak, bete-beharrak... Belaunaldia berriz besteekiko eta norberarekiko ezaugarritze eta identifikatze eremu subjektiboa da, kanpo-bereizketa eta norberaren eratzearen bidez eratzen den kategoria erlatiboa, non telebista zein komunikazioaren ekosistemako beste eragileekiko harremana esanguratsu bilakatzen diren. Bi kategoria hauen, adin-talde objektiboaren eta belaunaldi subjektiboaren elkar hartua azaltzeko klabea da telebistarekiko harremana deitu diogun interakzio sinbolikoaren egiazko esanahiari erreparatzea.

Euskaraz *harreman* deritzogu eragileen arteko elkarrekintza, elkarriketa eta kontaktuari. Hartu eta eman, bi norantzako bidea da harremana, informazioaren norantza bakarreko transmisioarekin baino norantza eta norabide askotako komunikazio prozesuekin lotura handiagoa agertzen duena. Eman eta hartu egiten dute ezinbestean, harremanean dauden subjektu eta objektuek. Batzuen eta bestearen arteko kontaktuak bi parteak eraldatzen ditu, ez ditu harremana hasi baino arinago zeuden bezala uzten. Ez dago eraginik gabeko harremanik. Telebistaren

ideia, telebistaren errealitate sozial eta esperientziala harremanean eraikitzen da. Aldagai objektiboak (emanak) barne hartzen ditu, aldagai subjektiboekin (harre-  
rak) batera. Telebistaren jario edo emanak<sup>525</sup> eta ikus-entzuleen harrerak<sup>526</sup> osatzen  
dute telebistarekiko aisiazko harremana. Aldi berean hartua eta emana da, zentzu  
horretan, telebista ikustearen esperientzia, telebistaren eguneroko bizipena, eta,  
hortaz, telebistaren aisiazko errealitatea.

### 51. IRUDIA: TELEBISTAREKIKO HARREMANA, ELEMENTU SUBJEKTIBO ETA OBJEKTIBOAK



Iturria. norberak egina.

Telebista, komunikatiboki eraikitzen den aisiazko eta aisiarako artefaktua da, ele-  
mentu objektibo eta emanen eta elementu subjektibo eta hartuen gurutzaketa kokatu  
eta beti ere partikularra. «Tele» edo kanpotik, urrunetik ezarritako errealitatea ezin-  
bestekoa da bere indarra eta aukerak, ahultasun eta arriskuak ulertzeko, baina «auto»  
edo norberaren, pertsonaren eta taldearen baitako aukeraren eta autonomiaren be-  
harra du, aisiazko entitate bezala eratu ahal izateko.

Ikus-entzuleek eta ikus-entzuleriek, hortaz, erantzunkizun handia dute telebista-  
rekiko aisiazko harremanean, eduki programatzaille, saioen ekoizle eta iragarleek du-

<sup>525</sup> *Emission, ingelesez, emisión espainieraz, émission frantsesez, igortzen den, emana den edukiaren zentzuan.*

<sup>526</sup> *Reception, ingelesez, recepción espainieraz, réception frantsesez.*

tenaren alderantzizkoa, baina nolabait konplizea. Eman datorren, finkatuta dagoen errealitate itxi eta pasiboa ireki egiten dute hartzaileek, ezinbestean, interpretaziora irekita, amaitu gabe, egunerokoaren indefinizio eremua berrian kokatzen dute, eta hor ematen hartzen du, edo galtzen du esangura. Aisiazko esperientzia benetakoa denean, esanahi eta plazerrak sortzeko gai den hartuemana osatzen da, eta aisiazko esperientzia negatiboa, benetako aukerarik eta asebetetzerik eskaintzen ez duena denean, asperra, egonezina eta arbuioa ematen dira. Baina beti bi osagarrien elkar-harremanean. Belaunaldien eraikuntza, pertzepzio eta partaidetzak zerikusi handia du telebistarekiko aisiazko harremanen izaerarekin. Belaunaldiak, neurri haundi batean, besteei begira eraikitzen dira, eta aisiazko harreman arrakastatsu eta huts egindakoek, zaletasun eta ikusi-ezinek, gustoko erritual eta damuzko ohiturek erreferentzia saihestezinak osatzen dituzte eraikuntza hauei begira.

Telebistarekiko aisiazko harremanen marko interpretatiboari erreparatuz, astizko, aldizko eta aisiazko elementu objektiboen eta hauen pertzepzio eta balorazio subjektiboen arteko harremana behin eta berriro ikusten da. Hala, telebista denbora galtze erabatekoa edo egunerokotasunaren amildegi zorabiagarriari aurre egiteko aliatu eta laguna izan daiteke. Norberarentzako askatasun esparruak eraikitzeko baliabide edo entitate arrotz eta manipulatu bezala ikus daiteke. Inguruko beste esanguratsuak elkartzeko edo banatzeko eragina izan dezake. Eta finean, eguneroko bizitzan aisiaren aldeko edo kontrako elementu bilakatu daiteke: arnasmune eta bizitzarako irekitako leiho, edo asperraldi, menpekotasun eta alternatibarik uzten ez duen zama astun.


Telebistarekiko aisiazko harremanen marko interpretatiboak hartu-eman hauek Astia-Aldia-Aisia ereduaren arabera aztertu eta kokatzea ahalbidetzen digu, pertsonen eta taldeen telebistarekiko harremanak esploratu, alderatu eta ezaugarritzeko. Hala, kanpo eta barne paisaiak islatzen dituen dituen erretratuak egin ditzakegu, hiru erpinen eta proposatutako hamabi kategoria teorikoen inguruan.

Jasotako erantzunak adin-taldeetan pilatuz gero, telebistarekin harremantzeko lau tipo ideal ezberdin azaltzen zaizkigu berehala, zeinak adin-taldeak eta belaunaldiak parekatzeko tentaldira eraman gaitzakeen<sup>527</sup>. Baina parte-hartzaile bakoitza marko interpretatibo berean kokatuz gero, berehala azaltzen zaizkigu taldearen baitako ezberdintasun eta dibergentzia esanguratsuak, bai kasu kritikoetan, eta baita aldakuntza maximozko laginketaren bidez hautatutako parte-hartzaileen artean ere. Ondorioa argia da: adin-taldearen baitan telebistarekiko aisiazko harreman modu oso ezberdinak aurkitzen dira, elkargune eta parekotasunekin batera.

Adin-talde bakoitzaren karakterizazioa osotasun koherente eta bereizgarri bezala aurkez dezakegun arren, berez oso errealitate objektibo eta subjektibo ezberdinen gainjartzea da, elementu objektibo baten inguruan (adin-tartea) eraikitako konstruktua alegia:

<sup>527</sup> Ikus «Belaunaldiak eta telebistarekiko aisiazko harremana» kapitulu honetan bertan.


## 52. IRUDIA: ADIN-TALDEA ETA TELEBISTAREKIKO HARREMANTZE MODUEN GAINJARTZEA



Iturria. norberak egina.

Gauza bera gertatzen zaigu, noski, adin-taldeak bata bestearen alboan jarritakoan. Bakoitza besteengandik argi bereiz dezakegun arren, berez barne-errealitate aberats eta sarri kontraesankorren gainjartzea baino ez dira:

## 53. IRUDIA: ADIN-TALDEAK ETA TELEBISTAREKIKO HARREMANTZE MODUEN ARTEKO LOTURA



Iturria. norberak egina.

Hortaz, belaunaldiaren kontzeptuak telebistarekiko aisiazko harremanak azaltzerako orduan duen benetako garrantzia eta balioa ez datza bere barne-kohesioan edo alderagarritasunean. Koherentziarako irizpide indartsu eta bakarrik ez duelako, aldakorra, subjektiboa eta «besteekiko» bereizteko eraikia eta aitortua delako da, beren-beregi, interesgarria.

Telebistaren errealitate azken eta bakarra definitzea ezinezkoa den bezala, harekiko harremanak adin-tarte edo koordinatu historiko-biografikoetan agortzea ere

ez da zilegi. Telebistak komunikabideen ekosisteman eta pertsonen egunerokotasunean txertatuta zabalitzen ditu aisiazko eta aisiarako aukerak. Eta aukera zabaltasun honen aurrean pertsonok erreferentziak eta irizpideak behar ditugunez, zaletasunak eta gorrotoak, ohitura eta arau sozialak, identifikazio eta bereizte-guneak, elkar erabiltzen dugu telebistarekiko ditugun hartuemanak zehaztu, negoziatu eta borrokatzeko.

Belaunaldiek, hortaz, nitasun eta gutasunez osaturiko nortasunak eraikitzeke erreferentziak eskaintzen dizkigute. Besteekin alderatuz, telebistaren aurrean eraikitzen baikara, eta hala eginez behin eta berriro berreraikitzen dugu telebista, aisiarako eta aisiazko artefaktu bezala.

## 6.5. LABURBILDUZ: JASOTAKOAREN KONTAKIZUNA

Seigarren kapitulu honetan deskribapen hutsetik interpretazio oinarritu edo funtsaturako jauzia egin dugu, karakterizazio eta kategorizazioaren figuretz baliatuz telebistarekiko aisiazko harremanen eredu esplikatibo-interpretatiboa osatzeko.

Telebistaren aisiazko izaeraren karakterizazioa bi modutan egin dugu: lehenengo eta behin telebistaren esperientziak aisiazko koordinatuen perspektibatik aztertu ditugu, aisia exotelikoak, aisia absentek, aisia autotelikoak eta aisia kaltegarriak telebistaren bizipena ezaugarritzerako orduan duten zeresana argituz. Horretarako gakoa izan da ahozko eta idatzizko kontaketen artikulazioa, telebistarekin lotutako aisiaren koordinatuen garrantzia erlatiboa ezagutzeaz gain adin ezberdinetako parte-hartzaileen egunerokotasunean telebistak hartzen duen tokia ezagutu eta aisiaren perspektibatik ezaugarritzea ahalbidetu digulako.

Bigarren karakterizazioa, asiaiaren koordinatuen araberakoa baino, adin-taldeen araberakoa izan da. Horrela, adin-taldeen telebistarekiko harremanen karakterizazioan aztertutako Gazteak, Helduak 1, Helduak 2 eta Nagusiak taldeen bereizgarriak aurkeztu ditugu. Jarraian adin-taldeen partaide aitortzen diren eta partaide sentitzen ez diren belaunaldiei buruz esateko zer duten berreskuratu dugu, norberaren eta besteen belaunaldiak ezaugarrituz, eta telebistarekinko aisiazko harremanari dagokionez dituen ondorioak azaleraziz. Adin-talde eta belaunaldi guztiek telebista aise ikusten dutela ikusi dugu, baina baita telebistarekiko aisiazko harremanak arras ezberdinak direla ere.

Ondoren, kasu azterketaren eredu esplikatibo-interpretatiboa aurkeztu dugu. Horretarako baliatu den kategorizazio eta birkodeketa prozesua deskribatu da lehenengo, telebistarekiko aisiazko harremanen marko interpretatibo orokorra aurkeztu da jarraian, astizko, aldizko eta aisiazko kategorietan banatuta. Amaitzeko, telebista aisiazko eta aisiarako artefaktu bezala aurkeztu dugu hipotesi esplikatiboan, eta haren izaera eta bizipena belaunaldien arteko elkarrekintzan etengabe eraikitzen eta berreraikitzen dela proposatu dugu.





# CONCLUSIONS LIMITATIONS AND NEXT STEPS

## CONTENTS

1. Contributions from leisure studies and audience research
2. The case study as a methodological approach
3. Television as an intergenerational leisure artefact
4. Verification of the hypotheses
5. Limitations of the study, opening areas and next steps

As reflexive researchers we must act to decentre the leisure academy and respond to the challenges and critiques being articulated by Indigenous scholars so that we may begin to create knowledge centred on Indigenous epistemologies and ontologies. Academic decolonization is a necessity and a responsibility. It must be based on dialogues, entanglements and conversations -characterized by respect, reciprocity, equality, collectivity and empathy- between Indigenous minorities, Indigenous researchers and their non-Indigenous counterparts.

Annette Pritchard

*Listening to Leisure Voices: Getting Engaged in Dialogues,  
Conversations and Entanglements.*

In this final chapter we will summarize our conclusions arranged in five sections. The first three sections offer an annotated synthesis to the findings of the three parts of the study. Section one, contributions from Leisure Studies and Audience Research, gathers the theoretical and conceptual contributions of both fields, based on the review of the first three chapters.

Section two, the case study as a methodological approach deals with the epistemological and empirical issues discussed in the fourth and fifth chapters. The explanatory-interpretative model described in sixth chapter is then discussed and a leisure ontology of television proposed in television as an intergenerational leisure artefact in section three. Next, the working hypotheses are contrasted in order to validate or refute the thesis's points of departure in section four. Lastly, section five identifies the limitations of the study and discusses the opening areas and next steps.

---

## I. CONTRIBUTIONS FROM LEISURE STUDIES AND AUDIENCE RESEARCH

---

One of the specific objectives of this thesis is to cross-fertilise the fields of Leisure Studies and Audience Research combining their contributions to the exploration of a television in transition in an evolving media ecosystem. To that end, each of the chapters of the first part is linked with an individual sub-objective and deals with a particular approach to the triad formed by leisure, television and audiences<sup>528</sup>.

Leisure's polysemy has been historically and socially tracked down in chapter one to provide a context to its development. Historical evolution shows that leisure has been a reality for all human cultures and societies, but that its definitions have been many, and rarely definitive. The review of classic and contemporary conceptions of leisure from different linguistic and disciplinary traditions, starting with classical Greek *skholē* and Roman *otium* and continuing to modern English, Spanish and Basque sources, reveals its multiple and conflicting meanings.

Disputes and controversies arising from the study of leisure from very different perspectives reflect the problematic definition of leisure, and its changing status as a social phenomenon. The question of leisure is shown as a constant scientific and philosophical concern in history, and the contributions to the study of leisure are numerous and important. Yet, the necessity of placing leisure as the explicit object of enquiry is highlighted in order to keep up with the challenges arising from its increasing social and economic importance. Following the examination of the interdisciplinary status of Leisure Studies and the most salient contributions made from disciplines such as sociology, psychology, pedagogy, law, policy, economy, aesthetics, it is concluded that the media and leisure binomial must be further explored and strengthened in order to advance in the understanding of leisure in contemporary societies.

Taking into consideration that the methodological and epistemological approaches determine the status of the research object, three interdisciplinary strategies of studying leisure are then discussed: the practice of leisure, the leisure experience and the right to leisure. Leisure as practice focuses on the objective aspect of leisure, on the times and spaces dedicated to its materialisation and to the resources available for the activity itself. Leisure as experience deals with the subjective dimension of leisure as an integral, whole and complex realm of human experience strongly linked to choice and freedom. Leisure as a human right approaches leisure as a sphere of human development with specific benefits to the quality of life to be protected and promoted by law and policy making.

---

<sup>528</sup> See «Scope, object and objectives of the study» in the Introduction for a full account of the main and specific objectives and their sub-objectives.

The humanist leisure perspective provides an integrative perspective of these three strategies, highlighting the personal and social values of experience, freedom, gratuity, dignity, understanding, meaningfulness, solidarity, cooperation, respect, sustainability, inclusion, equal opportunities and active participation. An ethic, responsible, critical, creative and solidary leisure is proposed as an ideal, in opposition to a leisure directed to mere evasion, excess, waste, comfort and egoism. The coordinates of humanist leisure (Autotelic, Exostelic, Absent, and Harmful leisure) are then discussed as distinct areas of leisure's manifestation and as constitutive elements of everyday leisure. The different dimensions of leisure associated to the four coordinates offer helpful conceptual resources to analyse, understand and plan the complex and global realities where leisure is presented. Lastly, an account of different leisure typologies is presented based on three dichotomic axes: active/passive, casual/substantial and daily/exceptional.

Chapter one's main contribution is found in the proposal of a three vertices model approach to televisual leisure. The Basque terms of *astia* (free or spare time), *aldia* (duration or time of the activity) and *aisia* (leisure and leisure experience) are articulated in a model that adapts the notions previously discussed in a model for the study of televisual leisure. The *Astia-Aldia-Aisia* model stresses the need to explore the qualitative temporalities of watching television in everyday life and combining the examination of personal experience and the observation of the objective activity. The exploration of these three mutually related concepts allows incorporating objective and subjective elements to an integral approach to televisual leisure from a humanist leisure perspective.

Chapter two, television in the media ecosystem, situates television in relation to other media and new media practices in the context of a multi-faceted multimedia convergence. Television, immersed as it is in global technological, industrial and social transformations, finds its position subjected to shifts and motions that challenge its traditional centrality. Space is employed as an illustrative metaphor to explore the ever changing relations between different media and the images of media space and media landscape are proposed to rethink the location of television in the broader communication system.

Media convergence is undoubtedly a major force driving the changes in the communication system, and can be argued to have given way to a new communicative paradigm, but it is not a completely new phenomenon. Far from it, cases of technological and industrial media convergence can be found in the evolution of cinema, radio, television, press and the internet that show that media have very rarely been isolated entities, unrelated to the apparition and evolution of new forms of storytelling and media production. The technological development of each medium opens new areas of opportunity for its audiences that inevitably spill over to other media as they intend to ignore, resist, confront, adapt and overcome the

latest transformations and trends. Technology is thus a transforming actor of the media space, but it is the audiences themselves who continuously reconfigure the media landscape by engaging and disengaging with new circulations of meanings and pleasures in their everyday leisure through their relationship with media.

The concept of media ecosystem captures the sense of complexity and interconnectivity associated to a dynamic network of interactions between audiences and media where different agents have the ability to (re)create, (re)interpret and (re)circulate content. The technical empowerment of those previously known as audiences or viewers opens the possibility for a televisual ecosystem where power and responsibility are distributed and the production, distribution and reception of the contents is no more uncomplicated and univocal, but diverse and networked. If the technological and industrial transformations can shift the relative positions of the agents of media space and the subjects' perceptions and meaning-construction processes are what determine media landscape, the notion of media ecosystem stresses the relevance of participation, interest and engagement of the audiences as more important factors than platforms themselves.

Technological determinism must be rejected, because true changes only occur when technology becomes a social practice, and it does so only when it becomes relevant in the societal terms. Referring to leisure, the dexterity, knowledge, involvement, perception and the experience are more important than technical advancement itself. Therefore, it is fundamental to explore the attitudes and habits regarding technological-industrial changes to understand their meaning. In other words, it becomes necessary to study what audiences think, feel and do in a media ecosystem to understand what television is, and may become as a result of the media convergence.

Contemporary television, as an electronic device, social practice and leisure resource is at a crossroads. It is still central in terms of the amount of time and attention that are devoted to it, but its position and status in the media ecosystem are changing, and so are the ways of understanding and experiencing it. The technical possibility of watching the content chosen by oneself has potentially transformed its nature of a receiver of distant broadcasts to a screen and mirror of the viewers' interests and priorities, adjacent and connected to other communication technologies. Screens have multiplied and mushroomed in all variety of sizes and capabilities, but even so television is still recognised as a reality. Watching television amounts to a popular leisure practice, but its boundaries become more and more problematic.

To study what television is today requires overcoming the unidirectional conception of watching and to incorporate different understandings, uses and definitions to it. From a Leisure Studies perspective, it requires acknowledging that more than the reception of images and sounds in front of the screen, watching television is a leisure practice that accumulates multiple meanings. To that end, it is inescapable to turn our gaze to the protagonists of the televisual leisure experience: the audiences.

In chapter three, television and Audience Research, contributions from Audience Research are examined and articulated in order to update the definitions of audience and audiencehood beyond the measurement of the exposition to the medium and adapt them to the study of televisual leisure. In the same manner that text no longer resembles previous definitions that predate multimedia era viewers, listeners, readers, users and consumers of media can not be thought of and studied in the same way as they were. It is argued that as any text needs its audience and that any audience needs a text in order to be able to function as such, audiences and texts must be reconceptualised in a digital media ecology.

A broader conception of audience is proposed that no longer requires an immediacy between text and reader and takes into account the whole range of leisure relations that happen in everyday experience and recognises the diversity of meanings of televisual leisure. Audimetry, while essential for the statistical estimation of great numbers of television viewers (and their usage in the market, policy making and so on), is problematic from the point of view of Leisure Studies as is inevitably tied to exposure to the medium and stranded in the quantitative measurement of the relationships with it. Publics, on the other hand, also problematise the relationship between the text and its readers, as they are understood to be present (and then, also readable) in the act of reception. While traditionally thought of as unmediated, contemporary publics are simultaneously direct and indirect witnesses of events through the use of increasingly ubiquitous technologies. It is increasingly difficult to clearly separate publics from audiences.

Audiencehood is composite and plural, not simple and singular; it is usual and daily, not extraordinary. If audimetry deals with exposition and publics with presence, television audience must deal with experience. Studying television audiences is important because of its influence in the temporal structuring of everyday life and in the shaping of experiences and understandings of leisure. Television has arguably transformed the leisure world of everybody since its inception, and despite the spectacular technological developments of the media ecosystem and to the availability of new media choices, watching television remains immensely popular as a leisure activity. It is also revealed as one of the most conciliable leisure practices with other forms of social and media activity. Although its central, unquestioned and univocal position is expiring, it still has ample opportunities as a player in the emerging media ecosystem, as long as it is able to accomodate itself to new positions. A cross fertilisation between Leisure Studies and Audience Research is key to the exploration of these positions.

Audience Research associated to audimetry and exposure metrics shows both significant limitations in contemporary media ecosystems and signs of crisis as the key currency in the market of advertising space. Although it still provides the main reference for advertisers and media alike, its reach is imperfect and problematic,

does not attend to significant dimensions of media consumption and stands in a growingly fragile consensus, forced by the lack of real alternatives. Theoretical and methodological contributions from audience ethnography and different traditions of Audience Research are critical for a reformulation of Audience Research that takes into account the experience of the viewers and their constructions of meaning.

Cultural studies propose the notion of a polysemic text, always open to various possible-and-always-political-interpretations and question the prevailing mediacentric view, articulating semiotics, media ethnography, marxism and poststructuralism to analyse the positions of media in the everyday life of the people. Critical optimism and the assertion of subordinate groups' capacity to appropriate and transform the signs and cultural objects of the dominant classes are taken as key elements of this study's approach. This is directly linked to the questions of activity and passivity of the viewers explored from reception studies, a question that becomes more and more important in an increasingly complex and transmedia ecosystem characterised by the plurality of agents and the distribution of power and responsibility. A leisure perspective of Audience Research, it is argued, must recognise and promote audiences' activity, including their search of leisure experiences in everyday life. Domestic leisure and family are next discussed next and it is highlighted that watching television does not occur in a vacuum, but rather in a socially situated context, normally in the family sphere. This has significant repercussions for leisure as a personal (individual and social) experience, as it affects to all three vertices of the Astia-Aldia-Aisia model.

Television (as with other media) can therefore be explored in terms of the circulation of meanings and pleasures, as negotiated discursive processes, and its reception as a socially situated, complex and multi-dimensional process. Generations, in this sense, function as historical, social and cultural frameworks, as subjective variables that may outweigh the objective elements of age: more than common experiences, generations relate to identities based on the conscience of those common experiences. Orality proves to be a fundamental resource for the exploration of the relationships of audiences and generations of audiences with media in general and television in particular.

The examination of the European Audience Research reveals a fragmented, diverse and heterogeneous state of the field and the coexistence of very different traditions and approaches to the global challenges produced by the evolving media ecosystem. Basque Audience Research, in this context, reflects a genuine concern with the issue of minority language and media and the study of the Basque communicative field but, although there are notable exceptions, it is mostly linked to quantitative approaches. Ample opportunities exist for developing new audience epistemologies and combining quantitative and qualitative methodologies to undertake approaches able to cope with the global and local challenges of the audiences in the media ecosystem.

## II. THE CASE STUDY AS A METHODOLOGICAL APPROACH

---

The second part of the study, «Methodological framework and analysis», is concerned with the second and third specific objectives of the study. It specifically deals with the epistemological and empirical framework of the study and presents a structured conceptual overview of the four age-groups' discourse, providing the ground for the subsequent theoretical elaboration.

